



# Deusto

Universidad de Deusto  
Deustuko Unibertsitatea

**Hizkuntzalaritza arloa**

**[IZEN + *EGIN*]<sub>A</sub> ADITZ-LOKUZIOAK:  
INKORPORAZIO MAILAK**

doktore-titulua lortzeko aurkeztutako

TESIA

**DOKTORE-GAIA: Arantzazu Martínez Etxarri**

**ZUZENDARIA: Miren Azkarate Villar andere doktorea**

**Donostia, 2015eko iraila**



# ESKERRAK

*aitari eta amari*

Eskerrak Xabier Falcón eta Mario Saltarelli irakasleei, hizkuntzalaritzaren munduan murgiltzen laguntzeagatik. Xabier Falconek Estatu Batuetako zenbait unibertsitatetara ikasketekin jarraitzeko eskaerak bidaltzeko aholkatu zidan, Euskal Filologiako azken urtean nengoela, eta halaxe egin nuen. Mario Saltarellik, University of Southern Californiako (USC) hizkuntzalaritza departamentuko buruak, begi onez ikusi zuen jasotako eskaera eta USCn masterra egiteko onartu ninduten. Oroitzen dut Mariorekin Donostiako Isla hotelean lanpostuari buruz izandako elkarrizketa.

Esker bereziak, Miren Azkarate tesiaren zuzendariari. Haren laguntza eta aholkuak ezinbestekoak izan dira lan hau burutu ahal izateko eta eskerrak sor dizkiot hasieratik niregan izan duen konfiantzagatik.

Esker mila tesiari buruz iruzkinak egin dizkidaten Jon Ortiz de Urbina (lehen zuzendaria), Patxi Goenaga, Andolin Eguzkitza, Itziar Laka, Juan Gartzia, Mark Baker, Ken Hale, Alec Marantz, Angelika Kratzer, James Higginbotham, James Huang, David Lebeaux, Alain Rouveret, Reineke Bok-Bennema, Geraldine Legendre, Johan Van Niekerk, Zygmunt Frajzyngier, Igone Zabala, Xabier Artiagoitia, Andoni Duandikoetxea, Iñaki Aristondo eta Iñaki de los Mozos, hizkuntzalariei. Xabier Artiagoitiak emandako aholkuak funtsezkoak izan dira aurrera egiteko.

Eskerrik asko, aztergai honi buruzko elkarrizketak direla eta, Txomin Peillen, Sandra Thomson, Susana Cummings, Barbara Fox, Richard Kayne, Richard

Taraldsen, Beth Levin, Marianne Mithun, Juan Uriagereka, Robert Dixon, Maria Bitner, Marcel del Dikken, Bernard Comrie, Virginia Hill eta Ricardo Etxepare hizkuntzalariei.

Agur bero bat hizkuntzalaritzako emanaldi eta ikastaroetan ezagutu eta egun lagunak ditudan, Martine Van der Vlugt, Fusa Katada, Jelly Julia de Jong, Phyllis Bellver, Thomas Bak, Charles Yang eta Johan Van Niekerk, lankideei. Esker bereziak Saint Johneko New Brunswick unibertsitatean izandako APLA 18 jardunaldietan haien etxera gonbidatu ninduten Jory senar-emazteei. Eskerrak Asun Martínez lehengusuari, elkarlanean egindako ikerketa lantxoak dela eta gauza berri asko ikasi ditut. Eskerrik asko Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegiko hizkuntzalari taldeari.

Eskertu nahi ditut lan hau garatzeko funtsezkoak izan diren unibertsitate eta erakunde hauek: Deustuko Unibertsitatea, University of Southern California (Los Angeles), Euskal Herriko Unibertsitatea, University of Boulder (Colorado), Cornell Linguistic Institute (Ithaca), Albuquerque Linguistic Institute (New Mexico), Atlantic Provinces Linguistic Association (APLA 18), Societas Lingüística Europea (SLE 95), Universitat de Girona (GISSL 96), Universitat Rovira i Virgili (ICML 96), Universidad de Lleida, University of Zagreb (SWL V), Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, IRALE, eta HABE liburutegia, besteak beste.

Eskerrik asko diseinu argi bat ematen lagundu didan Sabin Oregiri, baita Julio Urkaregi itzultzaileari ere. Badira aipatu ez ditudan eskertu beharreko hizkuntzalari eta lankideak ere.

Mila esker, epaimahaia osatzen dutenei.

Eskerrik asko Garazi, Adriana eta Juancarri, tesiagatik behin baino gehiagotan alde batera utzi behar izan ditudan nire bihotzei.

Eskerrik beroenak, Gurutze eta Fernando nire gurasoei, haien babesak beti izan dut eta haiengandik jaso dudana indarra funtsezkoa izan da momentu zailenetan aurrera egiteko.

# AURKIBIDEA

<b>HITZAURREA .....</b>	<b>1</b>
<b>1. [IZEN + EGIM]<sub>A</sub> ADITZ-LOKUZIOAK .....</b>	<b>7</b>
1.0. SARRERA .....	7
1.1. ADITZ-LOKUZIOAK LITERATURAN .....	9
1.1.1. ADITZ-LOKUZIOAK EUSKAL GRAMATIKETAN .....	9
1.1.2. [IZEN + EGIM] <sub>A</sub> LOKUZIOAK ETA DE RIJKEN (2008) SAILKAPENA .....	21
1.2. [IZEN + EGIM] <sub>A</sub> LOKUZIO EGITUREN AURKEZPENA .....	33
1.3. OSAGAIEN DESKRIBAPENA .....	42
1.3.1. IZENA .....	43
1.3.1.1. DETERMINATZAILEA .....	51
1.3.1.2. ERREFERENTZIALITASUNA .....	61
1.3.1.3. FUNTZIO SINTAKTIKOA .....	65
1.3.2. ADITZA .....	75
1.3.2.1. <i>EGIN</i> ARINA EUSKARAZ - LIGHT VERB CONSTRUCTION BESTE HIZKUNTZA BATZUETAN .....	76
1.3.2.2. ASPEKTUA ( <i>AKTIONSART</i> ) .....	84
1.4. BESTELAKO EGITURAK .....	112
<b>2. [IZEN + EGIN]<sub>A</sub> ADITZ- LOKUZIOAK TEORIA MAILAN.....</b>	<b>129</b>
2.0. SARRERA .....	129
2.1. IZEN INKORPORAZIOARI BURUZKO TEORIAK:.....	130
2.1.1. KROEBER (1909) ETA SAPIR (1911) .....	130
2.1.2. MITHUN (1984): IZEN INKORPORAZIOA SINTAKTIKO IZATETIK GERTUEN DAGOEN PROZESU MORFOLOGIKO <i>G/SA</i> .....	136
2.1.3. SADOCK (1985 1991): IKUSPUNTU MORFOSINTAKTIKOA .....	144
2.1.4. LIEBER (1992): X-MARRAren TEORIA MORFOSINTAKTIKOA .....	148
2.1.5. BAKERREN ADJUNKZIOA (1985 1988a 2005 2008) .....	150
2.1.6. MASSAM (1998 2001) ETA VAN GEENHOVEN (2002): MUGIMENDURIK GABEKO TEORIA SINTAKTIKOA .....	160
2.1.7. HALE ETA KEYSER (1993 2002): TEORIA LEXIKOA.....	162
2.1.8. ROSEN (1989): TEORIA LEXIKOA .....	164
2.2. [IZEN + EGIM] <sub>A</sub> LOKUZIOEN BERRI EMATEKO TEORIA: BAKERREN ADJUNKZIOA (1985 1988a 2005 2008).....	167
2.2.1. KROEBER (1909) ETA ADITZ-LOKUZIOAK .....	167
2.2.2. SAPIR (1911) ETA ADITZ-LOKUZIOAK .....	168
2.2.3. MITHUN (1984) ETA ADITZ-LOKUZIOAK .....	169
2.2.4. SADOCKEN (1985 1991) IKUSPUNTU MORFOSINTAKTIKOA ETA ADITZ- LOKUZIOAK.....	173

2.2.5.	LIEBERREN (1992) X-MARRA ETA ADITZ-LOKUZIOAK .....	174
2.2.6.	BAKERREN (1988a) ADJUNKZIOA ETA ADITZ-LOKUZIOAK .....	176
2.2.7.	HALE ETA KEYSER (1993) HIZKUNTZALARIEN TEORIA LEXIKOA ETA ADITZ- LOKUZIOAK .....	180
<b>3.</b>	<b>[IZEN + EGIM]<sub>A</sub> LOKUZIOAK ETA TEST SINTAKTIKOEN APLIKAZIOA: LOKUZIOEN SAILKAPENA .....</b>	<b>185</b>
3.0.	SARRERA .....	185
3.1.	GALDEGAI EZAUGARRIARI LOTUTAKO TESTAK.....	188
3.1.1.	GALDEGAIAREN KOKAPENA ORO HAR ETA [I+EGIM] HITZ-ORDENA .....	191
3.1.2.	GALDERA-HITZA GALDEGAI GISA ETA [I+EGIM] HITZ-ORDENA .....	220
3.1.3.	ADITZA GALDEGAI GISA ETA ZER EGIN DU? GALDERARI ERANTZUNAK .....	240
3.2.	PARTITIBOA .....	247
3.3.	ELIPSIA KOORDINAZIO EGITURETAN: EGITURA KOPULATIBOAK, EGITURA DISJUNTIBOAK ETA EGITURA ADBERTSATIBOAK.....	278
3.4.	AGINTERA.....	289
3.5.	MENDEKO PERPAUS KONPLETIBOAK .....	306
3.6.	LOKAILUAK .....	325
3.7.	EMAITZAK ETA ONDORIOAK: ADITZ-LOKUZIOEN SAILKAPEN HIRUKOITZA .....	330
<b>4.</b>	<b>[IZEN + EGIM]<sub>A</sub> ADITZ-LOKUZIOEN AZALPEN TEKNIKOAK: ADJUNKZIOA HITZ EGIN ETA MOTA HORRETAKO ADITZ-LOKUZIOETAN .....</b>	<b>351</b>
4.0.	SARRERA.....	351
4.1.	1 MOTAKO ADITZ-LOKUZIOEN AZALPEN SINTAKTIKOA: <i>HITZ EGIN</i> ETA MOTA HORRETAKOAK .....	352
4.2.	2 MOTAKO ADITZ- LOKUZIOEN AZALPEN SINTAKTIKOAK .....	357
4.2.1.	ISz OSATZEN DIREN 2 MOTAKO ADITZ-LOKUZIOEN AZALPEN SINTAKTIKOA: <i>IRRIBARRE EGIN</i> ETA MOTA HORRETAKOAK .....	357
4.2.2.	DSz OSATZEN DIREN 2 MOTAKO ADITZ-LOKUZIOEN AZALPEN SINTAKTIKOA: <i>EURIA EGIN</i> ETA BESTE ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK.....	359
4.3.	DS VERSUS IS ADITZ-LOKUZIOETAN .....	361
4.4.	ADITZ-LOKUZIOAK UNITATE SEMANTIKO MODUAN.....	365
<b>5.</b>	<b>ONDORIOAK ETA HEMENDIK AURRERAKOAK .....</b>	<b>371</b>
	<b>LABURDURAK .....</b>	<b>383</b>
	<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>385</b>

## HITZAURREA

Tesi honen muina euskarazko [Izen + *egin*]<sub>A</sub> aditz-lokuzioen azterketa izango da, mota horretakoak baitira aditz-lokuzio ugarienak eta erabilienak. Euskaraz, emankorrak diren egitura horiek formari dagokionez antzekoak badira ere, semantikoki eta sintaktikoki desberdinu daitezkeela pentsatzen dudalako aukeratu ditut [Izen + *egin*]<sub>A</sub> aditz-lokuzioak tesi honen aztergaitzat<sup>1</sup>.

Aditz-lokuzioek izan dute lekurik euskal hizkuntzalaritzan eta, lan askotan ez bada ere<sup>2</sup>, zenbaitetan eman da [Izen + *egin*]<sub>A</sub> egituren berri. Aditz konplexu horiek aztertu dituzten gramatikarien artean, batetik, gramatikari klasikoak ditugu; Azkue (1923-25), Villasante (1974), Michelena (1977), Lafitte (1979), eta abar. Bestetik, hizkuntzalari garaikideen deskribapenak ditugu; Azkarate (1990), Perez (1993), Hualde eta Ortiz de Urbina (2003), Zabala (2004), De Rijk (2008), Oyharçabal (1993 2006), Petrirena (2011), eta abar. Lokuzioek ergatibitatearekin erlazionaturiko eztabaida sortu duten arren, oro har, osotasun bezala aztertu izan dira, jokaera homogenea erakusten duten predikatu gisa deskribatuz. Horren erakusgarri dira Euskaltzaindia (1986), Ortiz de Urbina (1986), Uribe-Etxeberria (1989), Bobaljik (1993), Laka (1993) eta Fernandez (1997), besteak beste.

Baina izan dira beste joera batzuk ere. Eta hala, Mitxelenaren (1977), Azkarateren (1990) eta Euskaltzaindiaren (1991a) lanetan, aditz-lokuzioen jokaera desberdinak

---

<sup>1</sup> *Egin* aditzaz osatutako aditz-lokuzioez gain, badira, euskaraz, urriagoak izan arren beste aditz batzuez osatzen diren lokuzioak, hala nola *hartu*, *eman* edo *eduki* aditez osatutakoak. Badira, bestalde, izenaz gain beste elementu batzuez osatzen diren aditz-lokuzioak. Nolanahi ere, izenaz eta *egin* aditzaz osatutako aditz-lokuzioak izango dira lan honetan aztergai.

<sup>2</sup> Gutxi dira gai honetaz sakonki arduratu diren euskal gramatikariak.

aipatzen dira. Martínezek (1994 1996 1997 2003), test sintaktiko batzuk aplikatzen dizkie aditz-lokuzioei, [+egin] osagaien artean lotura maila desberdinak daudela erakusteko, eta Zabalak (2004), [XS+A] predikatu konplexuek ez dutela talde homogeneorik osatzen argudiatzen du. Oyharçabalek (2006), halaber, hiztunek [Izen + egin]<sub>A</sub> lokuzio beraren erabilera desberdinak onar ditzaketela azaltzen du eta Petrirenak (2011) ere egiten ditu lokuzioen arteko bereizketak.

«*Los verbos compuestos han sido mucho mas descuidados*» dio Mitxelenak, euskarazko [I+A] aditz-egiturak aztertzen dituen artikuluan, (Michelena 1977: 271). Mitxelenaren aipamenari erantzunez, egitura horietan sakondu nahiak bultzatzen nau [Izen + egin]<sub>A</sub> lokuzioen jokaera xehetasunez aztertzeraz.

Aditz-lokuzioen aspektua mugatzeko eta jokaera sintaktiko desberdinak dauden ala ez atzemateko erabiliko dudan metodologiari dagokionez, aditz-lokuzioei testak aplikatzean datza lan honen ardatza. Batetik, Dowtyren (1979) aspektu testak aplikatuko dizkiot aditz-lokuzioen *corpus*ari. Bestetik, test sintaktiko batzuk aplikatuko dizkiet, egitura horien osagaien jokaera sintaktikoan erreparatuz.

Azterketa honek aldaketa suposatzen du nire aurreko lanekin konparatuz. Testak aplikatzean ez naiz nire hizkuntza-gaitasunean oinarrituko; aitzitik, *corpus*etan aurkitutako aditz-lokuzioez osatutako egiturak baliatuko ditut abiapuntu gisa. Beraz, datu-iturri izango den aditz-lokuzioen bilduma osatu eta XX. mendeko hizkuntzaren erabilera islatzen duten lokuzioak aztertuko ditut, analisiaren emaitzetan oinarrituz, ondorioak ateratzeko. Baliatuko ditudan *corpus*ak<sup>3</sup> hizkuntzaz hausnarketa egiteko

---

<sup>3</sup> Ereduzko Prosa Gaur (EPG), Ereduzko Prosa Dinamikoa (EPD), Goenkale *corpus*a, Euskal Klasikoen *Corpus*a (EKC), Pentsamenduaren Klasikoak eta Egungo testuen *corpus*a (ETC) baliatuko ditugu, besteak beste. baliatuko ditugu. Horiez gain, Egungo Euskararen Hiztegia

baliagarriak direla ulertzen dut baita hizkuntza nola erabiltzen den aztertzeke ere. Aurkezten dudana *corpus*etako adibideen bildumak autoreen idatzizko adierazpena islatzen du, erabilera erreala eta sinkronikoa, testuingururik gabeko adibide asmatuen aldean. Horregatik, espero dut bilduma honek oinarri moduan balio izatea, bai aztergai ditugun egituren ezaugarriak eta jokaerak deskribatzeko, bai hizkuntzaren garapenari buruzko teoriar sakontzeko.

Lehen kapituluari planteatuko dut ondorengoetan sakonkiago landuko dudana; beraz, honelakoa da tesi honen egitura:

[Izen+egin]<sub>A</sub> egitura aurkeztu, definitu eta osagaiak banan-banan deskribatuko ditut lehen kapituluari, euskal gramatikariak egitura horri buruz esan dutena aintzat hartuz. Izenari dagokionez, determinazioa, erreferentzialtasuna, eta haren funtzio sintaktikoa aztertuko ditut. Aditzari dagokionez, *egin* aditz arin gisa deskribatuko dut eta beste hizkuntza batzuetako antzeko egituren ezaugarriak aurkeztuko ditut. Aditz-lokuzioa osotasun moduan hartuz, egitura horiek iragankorrak direla erakusten duten argudioak emango ditut eta lokuzioak adierari dagokionez deskribatuko. Azkenik, aspektuari dagokionez sailkatuko ditut aditz-lokuzioak, Dowtyren (1979) testak aplikatuz.

Bigarren kapituluari, aditz-lokuzioak aztertzeke marko teorikoa aurkeztuko dut eta hor jasoko ditut izen inkorporazioari buruzko teoriak. Bakeren (1988a 1995 1996 2005 2008a 2008b 2009) adjunkzio teoriak gain, igoera-mugimendurik gabeko Van Geenhononen (1998 2002) eta Massamen (2001 2009) analisiak hartuko ditut aintzat.

---

(EEH), Hiztegi Batua Euskal Prosan (HBEP), Euskal Literaturaren Hiztegia (ELH), Euskararen Hiztegia, Orotariko Euskal Hiztegia, Euskaltzaindiaren Hiztegia, Elhuyarren euskara/gaztelania hiztegi elebiduna eta sareko hiztegiak izango dira datu iturri.

Bestalde, syntaxian soilik oinarritzen ez diren teoria batzuen berri emango dut, hala nola Kroeber (1909), Sapir (1911), Mithun (1984), Sadock (1988 1991 2002), Lieber (1992), Hale eta Kayser (1990) eta Rosen (1989) hizkuntzalarienak. 1. Kapituluaren aurkeztutako aditz-lokuzioen ezaugarriak eta teoria horiek uztartzuz, aditz-lokuzioak azaltzeko Bakerren mugimendu sintaktikoa ezinbestekoa dela defendatuko dut.

Hirugarren kapituluaren corpusetan topatu ditudan [Izen + *egin*]<sub>A</sub> aditz-lokuzioak aztertzean datza, hainbat test sintaktikotan oinarrituz<sup>4</sup> lokuzioen arteko desberdintasunak antzemateko. Proba sintaktiko horien emaitzetan oinarrituz, aditz-lokuzioen sailkapen hirukoitza proposatuko dut eta testek erakusten duten osagaien arteko lotura mailen arabera, *continuum* batean kokatuko ditut lokuzioak.

3. kapituluko testen emaitzak begien aurrean izanik, inkorporazio sintaktikoaz baliatuko naiz 4. kapituluaren, [I+*egin*]<sub>A</sub> lokuzioen osagaien arteko lotura estua erakusten duten egiturak azaltzeko. Osagaien arteko lotura askeagoa erakusten duten aditz-lokuzioen azalpen sintaktikoa, ordea, inkorporaziorik gabe emango dut. Horrez gain, DS versus IS bereizketa proposatuko dut, lokuzioetan atzemandako beste desberdintasunen berri emateko. Bestalde, Jackendoffen (1990) adierazpena baliatuko dut aditz-lokuzio guztien ezaugarri komuna den unitate kontzeptualaren berri emateko.

Bosgarren kapituluaren ondorioak jasoko ditut eta etorkizun hurbilean eman daitezkeen aurrera pauso batzuk aipatuko ditut. Aditz-lokuzioak ez direla mota berekoak egiaztatuko dut, ez morfologikoki, ez sintaktikoki ezta semantikoki ere. Eta

---

<sup>4</sup> Hauek dira aditz-lokuzioei aplikatuko dizkiegun testak: galdegaia hainbat egituratan, partitiboan ezezko egituratan, elipsia koordinazioan, agintera, mendeko perpaus osagarria eta lokailua.

desberdintasun horietan oinarrituz, aditz-lokuzioen sailkapen hirukoitza izango da lan honen ekarpenik nagusienetakoa.

Amaitzeko aipatu nahi nuke, ikerketa honi egun luzeak eskaini dizkiodala. Hizkuntzalari askok parte hartu du lan honetan, bere iruzkin eta aholku interesgarriengatik bereziki eskertzen dudan Miren Azkarate nire zuzendariak eta aipatu ditudanak.

Lan honen bitartez hizkuntzalaritzaren ezagutza-arlo zabalean murgiltzeko aukera izan dut, eta, aditz-lokuzioetan sakondu ahala, ezagutzeko geratzen zaidana are zabalagoa dela ohartu naiz.

Espero dut ikerketa honek eztabaida sortzeko balio izatea eta datozen urteetan euskararen mesederako erabilia izatea, euskararen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan nahiz berrikuntzan.



# 1. [IZEN + EGIM]<sub>A</sub> ADITZ-LOKUZIOAK

## 1.0. SARRERA

[Izen(+/- -a) + *egin*]<sub>A</sub> aditz-lokuzioen azterketa, lan honen helburu nagusia izanik, aditz-lokuzio kontzeptua definitu eta egitura konplexu horien aurkezpen orokorra egingo dugu kapitulu honetan.

Egitura mota bereko beste hainbat lokuzio badirela kontuan hartuz, hala nola izenaz eta *hartu*, *eman* eta *eduki* aditzez osatutako lokuzioak<sup>1</sup>, besteak beste, ugarienak<sup>2</sup> eta emankorrenak izateagatik *egin* aditzaz osatzen diren aditz-lokuzioak aukeratuko ditugu lan honen aztergaitzat. Ikusiko dugunez, badira, izenaz gain, beste elementu batzuez osatzen diren aditz-lokuzioak ere, izenondoez, aditz-oinenez edota beste elementuez osatzen direnak, alegia. Hala eta guztiz ere, azterketaren mugak murrizteko, izenez osatutako aditz-lokuzioak aukeratuko ditugu aztergai gisa<sup>3</sup>, horiek direlako aipatutakoen artean ugarienak.

<sup>1</sup> Aditz-lokuzioak letra etzanez emango dira.

<sup>2</sup> Sarasolaren Euskal Hiztegiak (1996) [I+*egin*]<sub>A</sub> motako 180 forma bereizten ditu. Horrez gain, -a artikulua mugatzaile singularraz edota determinatzailez izenaz osatutako 50 forma baino gehiago bereizten ditu eta 30 formatan, *egin* aditzaren aurreko elementua postposizioa izan daitekeela aipatzen du (lekuzkoa, -ka atzizkiarekin osatutako elementua, ablatiboa, eta abar). Lan honetan aztertuko ditugun aditzen corpusa, hiztegi horretatik hartutako aditzez osatutako bilduma izango da, besteak beste.

<sup>3</sup> Lokuzio horien artean ditugu, *agur egin*, *aharrausi egin*, *aitor egin* (Leizarragak eta Hiribarrenek *ait(h)orra egin* darabilte), *aldarri egin*, *alde egin*, *algara egin*, *amets egin*, *apustu egin*, *arnas(a) egin*, *arrantza egin*, *arraun egin*, *aurre egin*, *barau egin*, *barre egin*, *behaztopa egin*, *bekatu egin*, *berba egin*, *bero(a) egin*, *birao egin*, *borbor egin*, *bultza egin*, *burla egin*, *burrumba egin*, *dantza egin*, *dei egin*, *desafio egin*, *doministiku egin*, *duda egin*, *ehiza egin*, *ekaitza egin*, *elurra egin*, *errieta egin*, *estropezu egin*, *euria egin*, *eztanda egin*, *eztul(a) egin*, *galde egin*, *garrasi egin*, *haizea egin*, *hanka egin*, *hitz egin*, *hots egin*, *hotz(a) egin*, *huts egin*, *ihes egin*, *ikara egin*, *iseka egin*, *irain egin*, *irrist egin*, *iruzur egin*, *izotza egin*, *juramentu egin*, *kaka egin*, *kalte egin*, *kasu egin*, *keinu egin*, *lan egin*, *leher egin*, *lo egin*, *min egin*, *murgil egin*, *negar egin*, *oihu egin*, *otoitz egin*, *piper egin*, *pixa egin*, *porrot egin*, *saka egin*, *salto egin*, *sargori egin*, *so egin*, *solas egin*, *talka egin*, *txalo egin*, *tiro egin*, *topo egin*, *txingorra egin*, *txistu*

Hitzaurrean aipatu moduan, [Izen(+/--a) + *egin*]<sub>A</sub> aditz-lokuzioetan sakontzea da lan honen helburu nagusia eta determinazioaren arabera desberdintasun morfologikoz gain, aditz-lokuzioak semantikoki eta sintaktikoki desberdintzeko saiakeran datza lan honen funtsa.

Lehenik eta behin, aditz-lokuzioa definitzeko euskal gramatikariek egitura horiei buruz esandakoak aintzat hartuko ditugu (1.1.1.). De Rijk<sup>4</sup> (2008), proposatzen duen aditz-lokuzioen sailkapena aurkeztuko dugu (1.1.2.) eta bereizten dituen aditz-lokuzioen artean, [Izen+*egin*]<sub>A</sub> egiturak aztertuko ditugu.

Bigarrenik, [Izen+*egin*]<sub>A</sub> lokuzioaz osatutako egiturak aurkeztu eta horiek deskribatzeko ezaugarri morfosintaktiko eta semantiko batzuen berri emango dugu, modu orokorrean (1.2.).

Hirugarrenik, aditz-lokuzio egituraren parte hartzen duten osagaien deskribapena egingo dugu (1.3.), izenari dagozkion ezaugarriak (1.3.1.) eta aditzari dagozkionak (1.3.2.) bereiziaz. Izenari dagokionez, determinazioa (1.3.1.1.), erreferentzialtasuna (1.3.1.2.) eta izen sintagmak betetzen duen funtzio sintaktikoaz nahiz aditz-lokuzio egituraren iragankortasunaz arituko gara (1.3.1.3.). Aditzari dagokionez, *egin* aditza arina dela eta muga semantikoak dituela argudiatuko dugu (1.3.2.1.), eta euskaraz ez ezik, beste hizkuntza

---

*egin, uko egin, ulu egin, usain egin, zaunka egin, zin egin, zintz egin, zirimiria egin, zurrut egin*, eta abar. *Irrist* eta *topo* osagaiak hiztegi batuaren argitan aztertu ditugu, kategoria mugatzeko. Bi egiturak agertzen dira sarrera moduan; *irrist egin* eta *topo egin*. *Irrista*, izena kategoria moduan agertzen da, *topo*, ordea, ez. Badira, horiez gain, *egin* aditzaz osatzen diren beste aditz-lokuzio batzuk ere. Dena den, erabileraren maiztasunari dagokionez desberdintasun nabarmenak antzematen ditugu eta batzuk azterketatik kanpo uzteko arrazoia izan da agerraldi gutxi topatu izana. Izan ere, *amor egin, autostop egin, surf egin, yoga egin, tai chi egin*, eta beste aditz-lokuzio batzuen agerraldiak oso urriak dira *corpusetan*. Esan behar dugu, dena den, gaur egungo gizartearen beharrei erantzuten dieten aditz-lokuzio berriak etengabe sortzeak, euskaraz, egitura hauek emankorrak direla erakusten duela.

<sup>4</sup> De Rijk ez da aditz-lokuzioak sailkatu dituen euskal hizkuntzalari bakarra. Besteak beste, Rodríguez eta García Murgak (2001), Etxeparek (2003) eta Zabalak (2004) egin dituzte aditz-lokuzioen sailkapenak.

batzuetan aurkitzen ditugun aditz arinez osatutako egitura konplexuak aurkeztuko ditugu. Bestalde, aspektu-kategoria mugatzeko, Dowtyk (1979) proposatzen dituen testak aplikatuko dizkiegu (1.3.2.2.) aditz-lokuzioei.

Amaitzeko, izenaz eta *egin* aditzaz osatzen diren beste antzeko egitura batzuen berri emango dugu 1.4. azpiatalean. Hala nola [Izen-*ak* + *egin*]<sub>A</sub> motako bi egitura (edo determinatzaile plurala duten DSz osatzen direnak), [DS-lekuzko kasua + *egin*]<sub>A</sub> motakoak, [Izen-*arena* + *egin*]<sub>A</sub> egiturak eta [Izen-*ka* + *egin*]<sub>A</sub> motakoak, eta horiek guztiak aztergai ditugun aditz-lokuzioetatik zertan bereizten diren azalduko dugu.

## 1.1. ADITZ-LOKUZIOAK LITERATURAN

Euskal gramatikariek aditz-lokuzioa definitzeko egin dituzten saiakerak aurkeztuko ditugu azpisail honetan (1.1.1). De Rijken sailkapena abiapuntu gisa hartu eta aztergai ditugun aditz-lokuzioak mugatuko ditugu (1.1.2.) .

### 1.1.1. ADITZ-LOKUZIOAK EUSKAL GRAMATIKETAN

Aurrekari gisa, batetik, R.M. Azkue (1920 1923-25)<sup>5</sup>, L. Villasante (1974) eta P. Lafitte (1979) aipatu behar ditugu, konposizioa aztertzean, lokuzio-kontzeptuari erreferentzia egiten dioten euskal gramatikari klasikoen artean. Bestetik, hizkuntzalari garaikideen deskribapenak gogora ekarriko ditugu; Michelena (1977), Azkarate (1990), Perez (1993), Hualde eta Ortiz de Urbina (2003) eta Zabala (2004) hizkuntzalarien ekarpenak, besteak beste. Horrez gain, Euskaltzaindiak (1991b) egin duen aditz elkartuen eta aditz-lokuzioen arteko bereizketaren berri emango dugu.

Bestalde, labur aipatuko dugu, aurrekari gisa ere, sintaxi lanetan egitura horien berri emateko inkorporazioaren inguruan sortu den eztabaida.

---

<sup>5</sup> (1969) urteko bertsioa erabili dut.

Azkueren eta Villasanteren arabera, elipsia da konposizioaren funtsa. Konposaketari buruz hau dio Azkuek (1920), Darmestetterri jarraituz eta justaposizioa konposaketatik bereizteko saiakeran:

«*No la unión más o menos íntima sino la elipsis es el alma de la composición lexica*», (Azkuek 1920: 162)<sup>6</sup>.

Azkuek (1920) hizkuntzalariek egiten duten izen konposatuen arteko bereizketa aipatzen du, izen konposatu sintaktiko eta ez sintaktikoen artekoa. Konposatu sintaktikoak dira, Azkuek dioenez, arau sintaktikoen baldintzapean elkartzen diren elementuez osatzen diren egiturak. Euskaraz, benetako konposatu sintaktiko gutxi daudela dio eta horien artean aipatzen ditu, besteak beste, *atzerabide*, *elizarabide*, *oyanerabide* eta *mendiraro* konposatuak, non elementu eliptikoak *-ko* eta *yoateko* diren, hurrenez hurren: *elizarako bidea*, *oyanerako bidea* eta *mendirako yoateko aroa*, alegia.

Horiez gain, konposizioaz baino areago, justaposizioaz azaldu beharko liritekeen euskarazko izen batzuk aipatzen ditu, azken hauetan ez delako elipsirik gertatzen: *Ibarekolanda*, *Kazporenzaldi*, eta abar<sup>7</sup>.

<sup>6</sup> «*La elipsis, que da lugar a nuestros nombres compuestos, es a veces omisión de la conjunción copulativa: senar-emazteak por senarra ta emaztea [...]. Otras veces es omisión del sufijo -dun [...]: Arai buru-andi, agin-zorrotz, laru-mea. Apelativos que equivalen a buru andiduna, agin zorozduna, laru meduna. Otras veces consiste esta elipsis en la omisión de alguna conjunción disyuntiva: gazi-gazan ikusi equivalente a gazi ala gaza [...]. Lo que acaso más generalmente se omite en nuestros compuestos es alguna desinencia casual (partícula de declinación), especialmente el posesivo: Uriarte, Mendiondo, Aizkibel, Aitorde, Otondo... son Uriaren artea, Mendiaren ondoa, Aitzaren gibela, Aitaren ordea, Ogiaren ondoa... Hay vocablos compuestos cuya elipsis es una frase, tales como: baru-txiztua. equivalente a barurik ateratzen degun txiztua*», (Azkue 1920: 163).

<sup>7</sup> «*Morfológicamente distinguen entre compuestos sintácticos y asintácticos. Son de la primera clase aquellos cuyos elementos se unen conforme a las leyes de la Sintáxis, llevando el primero alguna desinencia casual: terremotus y legislator con desinencia de genitivo. También entre nosotros hay vocablos de esta naturaleza, tales como Ibarekolanda en Deusto, Arabakolanda al pie de la cresta del Gorbea, Kazporenzaldi, nombre de un peñón de Lekeitio.*

Baina, konposatuen artean sartzen ditu baita onomatopeikoak ere, elipsirik gabe osatzen diren konposatuak, azken horiek, eta hori kontraesana dirudi bere aipamenean dioena aintzat hartuz<sup>8</sup>. Izan ere, semantikan oinarrituz lau konposatu mota hauek bereizten ditu: kopulatiboak, posesiboak, onomatopeikoak eta mendekoak.

Villasantek (1974), halaber, elipsia hartzen du lotura estuaren oinarritzat:

*«Llamamos composición, al procedimiento por el que, de la unión de dos o más palabras, se crea una nueva. En la composición, se realiza una suerte de unión íntima, cuya alma, secreto y razón de ser radica en la elipsis (Villasante 1974: 9), [...]. La elipsis es el alma de la composición», (Villasante, 1974: 14).*

Konposizioa bada, bi hitzen loturatik hitz berri bat sortzeko prozesu gisa ulertzen du eta elipsia lotura estu horren bereizgarritzat hartzen du. Konposizio “propioa eta inpropioa” bereizten ditu Villasantek. Konposizio propioa elipsian oinarritzen dena da, eta ezabatzen den elementuaren arabera<sup>9</sup> konposatu kopulatiboak, posesiboak eta mendeko konposatuak bereizten ditu. Horiez gain,

---

*[...] Pero estos vocablos más que nombres verdaderamente compuestos parecen producto de mera yuxtaposición. ¿Dónde está en ellos la elipsis, nervio de la composición léxica? Compuestos sintácticos verdaderamente tales ofrece muy pocos nuestra lengua. Sólo una desinencia conozco la del caso directivo-a o -ra que da lugar a ellos, Atzerabide «obstáculo, causa de retraso», Elizarabide, oyanerabide, mendiraro, inoraro, [...] La elipsis de estos compuestos [...] consiste en la omisión de la desinencia proverbial -ko o de un verbo como yoateko: Elizarako bidea, mendira yoateko arorik», (Azkue 1920: 164-165).*

<sup>8</sup> «Hay, tanto en nuestra lengua como en otras, compuestos que no envuelven esa elipsis: son los onomatopéyicos tales como azur-mazurak, isil-misilka, tarteka- marteka, etc», (Azkue 1920: 165).

<sup>9</sup> Batzuetan eta juntagailua ezabatzen da: *aita-amak, gorputz-odolak, ate-leioak, gaur-biharretan*, eta abar. Besteetan, *-dun* atzizki da isilpean dagoena: *mantal-gorri*<sup>9</sup>. Adibide hauetan, *ala* konjuntzio disjuntiboa da ezabatzen den elementua: *gazi-gezan ikusi, ezbaian egon*. Maiz, deklinabide kasu bat ezabatzen da, hala nola noren kasua *txori-etxe, kuku-fraka* eta *eliz-inguru* adibideetan. Perpaus oso bat ere ezaba daiteke: *baru-txistua* (barau egitean jariatzen den txistua), *kanpan-baru* (kanpaiek jotzen dutenean egiten den baraua), *odei-gari* (hodeiak uxatzeagatik ematen den garia), eta abar, (Villasante 1974: 14-16).

konposatu "inpropioak" bereizten ditu eta sasi-konposatu edo *composición impropiamente dicha* deitzen die, elipsirik gabe osatzen diren egitura horiei. Inpropioen taldean kokatzen ditu aditz-lokuzioak ez ezik, justaposizioak, hots-uztarduraz eta sinbolismo fonetikoaz osatzen diren egiturak eta aditz arazleak. *Composición impropiamente dicha* azpitaldean, bada, hauek bereizten ditu, (Villasante 1974: 13):

(1.1) justaposizioak: *neska-zahar*

errima-bikoteak: *esa-mesak, arteka-marteka*, eta abar.

aditz arazleak: *geldiarazi* eta mota horretakoak

lokuzioak: *agur egin, atsegin hartu, bihotz eman*, eta abar.

Lokuzio edo aditz perifrasi konposatu deitura dutenen taldean bi azpitalde egiten ditu. Alde batetik, *arazi* aditzaz osatutako egiturak; *geldi arazi, iraun arazi, senti arazi*, eta abar. Bestetik, [I+ *egin / eman / hartu*] egiturak. Hala nola *egin* aditzaz osatutakoak; *eztul egin, irri egin, lo egin, hitz egin, othoitz egin, iuramentu egin, kontu guti egin, laster egin, so egin, zin egin*, eta abar. *Eragin* faktitiboaz osatutako *bekatu eragin, gainez eragin*, eta abar. *Eman* aditzaz osatutakoak; *bihotz eman, kontu eman, meza man*, eta abar. Eta *hartu* aditzaz osatutako perifrasiak; *damu hartu, ephe hartu, gogo hartu, min hartu, xedea hartu*, eta abar, (Villasante 1974: 15).

Beraz, konposatu "inpropioen" taldean sartzen ditu Villasantek aditz-lokuzio horiek guztiak.

Lafittek (1979) aditz-lokuzioak konposizio-prozeduraz sortzen direla esaten du. Konposizioa, euskaraz, prozesu arrunta da Lafitteren arabera, eta prozesu horren bidez sortutako hitzei hitz bakun elkartuak edo *mots simples réunis* deitzen die.

«C'est un procédé de composition très courant en basque. On forme ainsi:  
a) Des nombres : -avec deux noms unis par une désinence casuelle; ex. :  
*aitoren seme, fils de famille,[...]avec deux noms coordonnés unis sans*

*conjonction; ex. : senhar-emazte, mari et femme,[...].*  
*b) Des verbes : -avec un nom et un verbe; ex.: hitzeman, promettre (litt. donner parole) ; hatzeman, attraper (litt. mettre batte) ; ihes egin, fuir (litt. faire fute), avec un adjectif et un verbe : onhartu, approuver (litt. prendre bon)[...]]», ( Lafitte 1979: 38).*

Lafittek, beraz, konposizioan oinarrituz azaltzen ditu aztergai ditugun aditz-lokuzioak eta izenaz eta aditzaz osatutako egitura horiek hitz elkartu bakuntzat hartzen ditu.

Euskaltzaindiak (1987)<sup>10</sup> aditz elkartu motak bereizten ditu eta horien artean kokatzen ditu aditz-lokuzioak. Hala eta guztiz ere, beste aditz elkartuekin alderatuz, lokuzioak bestelako aditz-esapideak direla aipatzen du:

-Berezkoak: *onetsi, oniritzi, luzetsi, berantetsi...*

-[Izena + *izan / ukan*] egiturakoak: *maite izan, nahi izan, behar izan, balio izan, higuin izan, ezagun izan...*

-[Izena + *egin / eman / hartu*] egiturakoak: *negar egin, alde egin, lo egin, hitz egin, berba egin, huts egin, min eman, hitz eman, bide eman, min hartu, kontu hartu...*

«[...] Hirugarren sail horren eta aurrekoaren artean bada desberdintasun nabarmena egitura aldetik: *biak NOR-NORK motakoak izanik ere, [Izena + izan / ukan] motako egituraz osatzen diren perpausetan, beste izen sintagma absolutu bat [NOR kasuan] ager daiteke (“maite ditut gure bazterrak”). [Izena + egin / eman / hartu] egiturakoekin, ordea, ezin daiteke halakorik gerta, negar, berba, hitz, min, etab. baitira hasierako izen sintagma absolutu mugagabeak, gaur egun esapide horietako izena batzuetan iharturik badago ere. Izen ihartu horrek bere aztarna uzten du, eta horregatik dira perpaus hauek ez gramatikalak:*

(a) \**Iñakik etxea alde egin du*

<sup>10</sup> (1997.) urteko berrargitalpena baliatu dut.

(b) \**Iñakik bere andregai alde egin du*

(c) \**Ez du egia hitz egin*

*Zernahi gisaz, bada salbuespenik: Trena huts egin du*», (Euskaltzaindia 1997: 43-46).

Mitxelenak (1977) eta Azkaratek (1990) aditz-lokuzioak benetako konposatuetatik bereizteko irizpideak ematen dituzte. Horrez gain, aztergai ditugun aditz konplexuak egitura sintaktiko “puruetatik” bereizteko ezaugarri batzuk proposatzen dituzte.

Mitxelenak (1977) esaera perifrastikoak konposatuetatik bereizi behar direla aipatzen du eta esaera perifrastikoen adibideen artean aipatzen ditu *izan, egon, \*edun, eduki, egin, eman, hartu* eta beste aditz batzuek osatutako egiturak. Hala nola *dei egin du, hitz egin du, elerran du* (erronkarieraz), *hitz eman du, on(tzat) hartu du*, eta abar, (Michelena 1977: 274).

Esaera perifrastikoak konposatuetatik bereizteko erabil daitekeen irizpidea osagaiak banatu ahal izatea edo banaezinak izatea izan daiteke. Gauzak horrela, *amore eman* egituraren osagaiak, esate baterako, banaturik ager daitezkeela dio Mitxelenak:

«*Así permutan lugares en una frase yusive-hortativa como demogula lekhu, demogula amore hirari, traducción o aplicación de date locum trae* (Axular, p. 291)».

Azkaratek (1990) aditz-esapide terminoa darabil izen batez eta *egin, eman eta hartu* aditzek osatutako egiturei erreferentzia egiteko, hala nola *negar egin, min egin, kontu hartu* eta motakoak. *Egin, eman eta hartu* aditzekin osatzen diren egiturak aditz elkartuetatik bereizten ditu, eta horretarako, hitz elkartuak<sup>11</sup>

<sup>11</sup> Izenak eta izenondoak sortzen dituen hitz-elkarketa aditzak sortzen dituen baina emankorragoa den arren, euskarazko aditz elkartuen adibide sorta hau osatzen du Azkaratek

deskribatzeko erabiltzen dituen irizpide hauek ez direla betetzen erakusten du: osagaien hurrenkera finkoa, osagaiak bakanka modifikatu ezin izatea, osagaiak bakanka hedatu ezina, eta abar, (Azkarate 1990: 407).

Aditzaren aurreko izena galdegaia izatea da Azkaratek darabilen beste irizpide bat, aditz-lokuzioen izenak sintaxi-egituretan bezala jokatzen duela erakusteko. Azkaratek adierazi legez, *beren* izenlaguna ondorengo adibidean, aditz-esapideko *kontu* izenari dagokio soilik, eta ez *kontu ematera* egitura osoari, azken hori aditz elkartua balitz gertatuko litzatekeen bezala, (Azkarate 1990: 410) :

- (1.2) «Amar agindu daude emanak  
kristau guzian artera,  
egunen baten joan bear degu  
*beren kontu ematera*» (Kantari Nator, 16)<sup>12</sup>

Osagaien hurrenkeraren haustura erakusten duen Enbeitaren ondorengo adibideak ere erakusten du *agur egin* lokuzioaren osagaiek (*agur* eta *egin*) sintaxi-egituretan dituzten ezaugarriak gordetzen dituztela. Aditz elkartuetan, ordea, ezinezkoa litzateke osagaien arteko banaketa, (Azkarate 1990: 410-413):

---

(2002: 98): *bihotz-ukitu* (Orixe, Etxaide), *eraberritu*, *eskua-etendu* (Mogel), *gogobete* (Oihenart), *gurutziltzatu*, *hotzarritu* (Oihenart), *irudi-aldatu*, *indar-behartu* (Lizardi), *indarberritu* (Orixe), *itxuraldatu*, *odolustu*, *hostobakandu* (Lizardi), *hostoberritu* (Basarri), *hozberritu* (Orixe), *poz-berritu* (Orixe), *urase* (Orixe), *maiteberotu* (Orixe), *maitemindu* (Xalbador), *antzaldatu*, *gaitzoztu* (Mirande), *larririki* (Ubillos), *odol-hoztu*, *herrialdatu*, *lokartu*, *hotzildu* (Mitzelena).

<sup>12</sup> Azkaratek (1990) *corpusa* osatzeko erabiltzen duen bibliografiatik hartuak:

- "Basarri", Eizmendi, I. (1960), Kantari Nator. Zarautz, Itxaropena.
- Enbeita, K. (1971), Gure Urretxindorra. Enbeita´tar Kepa´ren bertso-lanak osorik, Aita Onaindiak paratua. Buenos Aires, "Ekin", Euzkal Argitaraldia.
- "Orixe", Ormaetxea, N. (1929), Santa Kruz Apaiza. San Sebastian, Loyola´tar Iñakiren irarkola.

(1.3) itz neurtu ederrakaz *ein* dauskuzu *agur* (Enbeita'tar Kepa. Gure Urretxindorra, 194)

Izen horiek sintaxi-egituretan bezala jokatzeko badute, galdegai ere izan ahalko direla aipatzen du Azkaratek, eta hala, galdegai kontrastibotzat hartzen ditu adibide honetan aditzaren aurrean kokatzen diren izenak:

(1.4) «Lizarra ondo ondotik pasa, ta *su egin bearrean agur eginda* utzi» (Santa Kruz apaiza, 63).

Aitzitik, izena soilik galdegaia izatea ezinezkoa litzateke aditz elkartuetan, aditz elkartuen izenak sintaxi-egituretan dituen ezaugarriak ez dituelako gordetzen eta aditzarekin kategoria bakar bat osatzen duelako.

Ilido beretik, Euskaltzaindiak (1991b) aditz elkartu edo konposatuetatik bereizten ditu aditz-esapidetzat hartzen dituen izen+*egin* / *hartu* / *eman* egiturak. Horiekin batera zerrendatzen ditu *eragin* edo *egin* arazleaz osatutako hainbat aditz-esapide ere bai<sup>13</sup>. Egitura horiek aditz-esapide direla baieztatzeko arrazoietakoa bat hau da: izenak egitura hauetan beste edozein osagarri zuzen bezala jokatzeko du, eta bere berezitasuna mugagabetasuna da. Gauzak horrela, izenak partitibo marka har dezakeela aipatzen du, baita galdegai / mintzagai gisa lekuz alda daitekeela ere (ikus adibideak 3. kapituluaren).

Perezek (1993) bi egitura mota hauek bereizten ditu hitz elkartuen artean:

- Sarrera-buru osoa duten forma ihartu edo lexikalizatuak. Horien adibidetzat hartzen ditu *galdegin*, *hauteman* eta *onartu* forma ihartuak.
- Osagaiak oraindik ere beregainak direla antzemateko bidea ematen duten *egin*, *eman* eta *hartu* aditzez osatutako aditz-esapideak. Horiek, Perezi jarraituz, «*osagai duten izenaren azpisarrera izango dira eskuarki (LEHER GAIZTO EGIN, LO EGIN, MIN EMAN... leher, lo, min lemen pean, esate baterako)*», (Perez 1993: 668).

<sup>13</sup> amets eragin, atsedeen eragin, dardar eragin, gogait eragin, ihes eragin, leher eragin, negar eragin, barre eragin, juramentu eragin, zin eragin, eta abar, (Euskaltzaindia 1991b: 8).

J.I. Hualdek eta J. Ortiz de Urbinak (2003) konposatuen azpitalde gisa deskribatzen dituzte inflexiorik gabeko izenez eta *egin* nahiz *eragin* aditzez osatutako egitura hauek: *lo egin*, *lan egin*, *negar egin*, *hitz egin*, *alde egin*, *barre egin*, *zin egin*, *kontu egin* eta *topo egin*. Aditz konposatutzat hartzen badituzte ere, ez dute horien definiziorik ematen. Bestalde, [I+A] osagaiez osatutako konposatu horietan izena aditzaren o.z. funtzioa betetzen duen sintagmaren burua dela aipatzen dute, *harjo* salbu, izena, kasu horretan, izen sintagma subjektuarekin identifikatzen delako.

Zabalak (2004) [XS+A] hurrenkeraz osatutako euskarazko predikatu konplexuen artean kontsideratzen ditu aztergai ditugun [Izen(+/- -a) + *egin*]<sub>A</sub> motako egiturak, konkretuki [IS/DS + A] azpimultzokoen taldean.

[XS + A] motako egiturak morfologiaren eta sintaxiaren arteko mugan daudela argudiatzen du. Alde batetik, morfologian soilik osatzen diren aditz konposatuetatik bereizten ditu predikatu konplexu horiek. Lehen osagaia, izena, modifikatu daitekeela dio, baita izen horiek kasu absolutiboa hartzen dutela ere eta partitiboa har dezaketela. Bestetik, predikatu konplexuaren osagaiak banandu daitezkeela dio. Aitzitik, hori ezinezkoa da aditz elkartuetan. Hona hemen *odolustu* aditz elkartuaren eta *lan egin* predikatu konplexuaren arteko kontrastea, (Zabala 2004: 446-447):

(1.5) \*odol asko hustu / \*odol gorri hustu

(1.6) \*ez du odolik hustu

(1.7) \*gizona hustu da odol

baina,

(1.8) lan handia egin<sup>14</sup>

<sup>14</sup> Egitura horrek adiera desberdinak izan ditzake eta testuinguruak argituko du aditz-lokuzioaz osatutako egituraz ari garen ala ez. Ugariak dira EPG *corpusean* topatu ditugun mota horretako adibideak:

(1.9) ez du lanik egin

(1.10) gizonak egin du lan

Horrez gain, predikatu konplexuak egitura sintaktiko arruntetik bereizteko argudioak ematen ditu, hala nola determinatzailerik gabeko XS nominala agertzea, osagarri nominalaren ordean postposizio osagarria agertzea, eta abar. Egitura sintaktiko arruntean, berriz, determinatzailerik gabeko XS absolutiboa ez da gramatikala, (Zabala 2004: 450-451):

(1.11) Jonek zure lana egin du / \*Jonek zure lan egin du (egitura sintaktiko arrunta).

(1.12) Jonek lan egin du (IS mugagabeaz osatutako aditz-lokuzioa).

(1.13) Txoriak hegaz egin du (postposizioaz osatutako aditz-lokuzioa).

Predikatu konplexuen arteko jokaera sintaktiko asimetrikoak aipatzen ditu Zabalak, eta hala, egitura horiek ez dutela talde homoginoa osatzen esaten du. Halaber, egitura sintaktiko zurrinak eta ez hain zurrinak bereizten ditu Martínezek (1996) eta inkorporazio mailetan oinarrituz azaltzen ditu desberdintasun horiek.

Ildo beretik, aditz-lokuzio batzuek partitiboa eta modifikatzaileak onartzen dituztela dio Zabalak (2004), beste lokuzio batzuek, ordea, ez, (Zabala 2004: 452):

- 
- (i) Euskaltzaindiak *lan handia egin* du maila honetan, eta lan hori egin ahal izan du, bestek beste, gizartean onarpen zalantzagabea izan duelako. EPG, *Euskararen etxea*, Pello Salaburu (Alberdania, 2002). *Ha hecho un gran trabajo* adieraz uler dezakegun egitura hori ez dugu aditz-lokuziotzat edo predikatu konplexutzat hartuko, lan jakin bati erreferentzia egiten dion eta semantikoki ahula ez den *egin* aditzaz osatzen den egitura gisa baizik.
- (ii) Bertsolaritza irakaskuntzan txertatzeko *lan handia egin* da azken hogeitun urteotan. EPG, *Bat-bateko bertsolaritza*, Juan Garzia / Andoni Egaña / Jon Sarasua (Bertsozale Elkarteak, 2005). Egitura inbertsonal horrek *lan asko egin / asko lan egin* irakurketa izan dezake (*se ha trabajado mucho* adiera, alegia). Irakurketa horretan oinarrituz, *egin* arinaz osatutako aditz-lokuziotzat edo predikatu konplexutzat har dezakegu *lan egin* egitura..

- (1.14) Haurrak negar asko egin du
- (1.15) \*Haurrak laprast asko egin du
- (1.16) Haurrak ez du negarrik egin
- (1.17) \*Haurrak ez du laprastik egin

Galdera-hitzaz osatutako egitura dugunean ere, hitz-ordena hauek bereizten ditu, (Zabala 2004: 453):

- (1.18) Nork egin du lo
- (1.19) \*Nork lo egin du?
- (1.20) \*Nork egin du hitz
- (1.21) Nork hitz egin du

Aurrekariekin amaitzeko aipatu behar da, [I+egin] motako egiturek eztabaida sortu dutela inkorporazioaren inguruan, eta hala, hizkuntzalariek azalpen desberdinak eman dituzte egitura horiei buruz. Batzuen ustez, egitura horietan ez da ISren buruaren inkorporaziorik gertatzen eta IS batez eta aditzaz osatutako egitura iragankor gisa deskribatzen dituzte. Euskaltzaindia (1986), Laffite (1962), Levin (1983), Ortiz de Urbina (1986), eta abar. Beste batzuen ustez, egitura horiek iragankorrak baino areago, ez-ergatiboak dira, eta hala, lexikoan (I+A) unitatea osatzen dute; López eta Austin (1995), Fernández (1997)<sup>15</sup>. Uribe-Etxeberria (1989) lokuzioen osagaien jokaera askean oinarritzen da egitura horiek, oro har, inkorporaziorik gabe azaltzeko. Hala eta guztiz ere, Oyharçabalek egiten duen bezala (1993), inkorporazioaz azaltzen du *hitz egin* lokuzioa, kasu horretan unitate konplexu bat osatzen dela argudiatuz. Lakak (1993), bestalde, inkorporazio gabe azaltzen ditu ez-ergatibo gisa deskribatzen dituen egiturak.

Rodríguez & García Murga (2003), bestalde, adieran oinarritzen dira [I+egin] predikatuak deskribatzeko. Aditz arinaz osatutako egitura horien esanahia ez

---

<sup>15</sup> Hala ere, konputazio sisteman ematen den inkorporazioa aipatzen du Fernandezez (1997). Izan ere, batzuetan ez daude garbi hurbilketen arteko mugak eta tartean dauden ikuspuntuak ere badira.

konposizionala dela aipatzen dute eta esaera idiomatikoa izateagatik bereizten dituzte. Hala ere, desberdintasunak desberdintasun, hizkuntzalari hauek guztiak jokaera homogenea erakusten duten egitura gisa azaltzen dituzte [+egin] egiturak.

Baina, aditz-lokuzioen jokaera sintaktikoetan oinarrituz, aditz-lokuzioek ez dutela talde homogenea osatzen argudiatzen dute Martínezek (1996) eta Oyharçabalek (2006). Martínezek (1996) test sintaktiko batzuk aplikatzen dizkie aditz-lokuzioei<sup>16</sup> eta egiturek erakusten duten jokaera sintaktiko desberdinen berri emateko inkorporazio mailak bereizten ditu. Inkorporazioaz azaltzen dituen aditz-lokuzioak determinatzailerik gabeko izenaz osatzen dira guztiak<sup>17</sup> eta determinatzaileduz izenaz osatzen direnak izen inkorporaziorik gabe azaltzen ditu. Oyharçabalek (2006) ildo beretik, kasu ezarketari eta inkorporazio analisiari dagozkion zalantzak planteatzen ditu aditz arinez osatutako euskarazko egiturak aztertzen dituen artikuluan. Hitzunek darabilten hiru egitura mota bereizten ditu eta jokaeraren arabera erabakitzen du aditz-lokuzio bat bera inkorporazioaz azaldu behar den ala ez. Izenaren eta aditzaren arteko banaketa erakusten duen aditz-lokuzioaren erabilera inkorporaziorik gabe azaltzen du eta osagaien arteko lotura estua erakusten duen lokuzio beraren erabilera, inkorporazioaz (ikus adibideak 3.1.1. azpisailean).

Aditz-lokuzioen arteko desberdintasun sintaktikoak sakonki aztertuko ditugu 3. kapituluan, eta horretarako, hainbat corpusetan aurkitutako aditz-lokuzioei aplikatuko dizkiegu aurretik baliatu diren test sintaktikoak nahiz besteak.

Aurrekariak abiapuntu gisa aipatu ondoren eta aditz elkartuen eta aditz-lokuzioen arteko desberdintasunak ikusita, De Rijken (2008) sailkapenean murgilduko gara. Esan gabe doa bereiziki interesatuko zaizkigula izenaz eta *egin* aditzaz osatutako aditz-lokuzioak.

<sup>16</sup> Galdegaiari dagozkion hiru test nahiz partitiboari, aginterari, koordinazioari eta lokailuei dagozkien test sintaktikoak.

<sup>17</sup> Baina badira determinatzailerik gabeko izenaz osatzen diren aditz-lokuzioak, inkorporaziorik gabe azaltzen dituenak.

### 1.1.2. [IZEN + EGIM]<sub>A</sub> LOKUZIOAK ETA DE RIJKEN (2008)

#### SAILKAPENA

Euskal gramatikarien artean, aditz-lokuzioen hainbat sailkapen egin izan dira, hala nola, Rodriguez eta García Murga hizkuntzalariek (2001) eta Etxeparek (2003) esanahian oinarrituz egiten duten sailkapena, Zabalaren (2004) sailkapen sintaktiko-semantikoa eta De Rijkena (2008) bera. Guztiak kontutan hartuko baditugu ere, De Rijken sailkapena baliatuko dugu, argitaratu den azkena izateaz gain, ugariak direlako zerrendatzen dituen [+egin] motako aditz-lokuzioak.

*Egin* aditzaz osatutako egituren tipologiari dagokionez, izen hutsaz<sup>18</sup> osatzen diren aditz-lokuzio ugari bereizten ditu De Rijkek. Horiek ez ezik, beste osagai batzuez osatzen direnak ere bereizten ditu. Hala nola izenondoaz eta *egin* aditzaz osatutako egitura iragankorrak, izenondoa eta aditz-oina errepikatuz osatzen direnak, genitiboaz eta *egin* aditzaz osatzen direnak, eta abar.

Lehenik eta behin, [Izen+ *egin*]<sub>A</sub> egituraz osatzen diren eta De Rijken sailkapenean ugariak diren aditz-lokuzioak aurkeztuko ditugu. Horien artean, determinatzaile gabeko izenaz eta determinatzaile izenaz osatzen direnak bereiziko ditugu, azken horiek determinatzaile gabeko izenaz osatutakoak baino askoz urriagoak diren arren. Ondoren, izenondoez eta aditz-oinaz osatzen diren egiturak aurkeztuko ditugu.

Adieran oinarrituz, zortzi azpitalde hauetan banatzen ditu De Rijkek determinatzaile gabeko izenaz<sup>19</sup> osatzen diren aditz-lokuzioak: mugimendu-modua adierazten dutenak (1.22), emisio-esaerak<sup>20</sup> (1.23), komunikazioari eta

<sup>18</sup> *Izen soil* eta *izen biluzi* ere erabiltzen da hizkuntzalaritzan, *bare noun* izenari erreferentzia egiteko, Sareko Euskal Gramatika (SEG) eta besteak.

<sup>19</sup> Ikus dezakegunez, hainbat kasutan aditzaren aurreko atala zer den galde diezaiokegu geure buruari. Izan ere, egitura hauetan agertzen diren batzuk ez dira hiztegien hitz sarreretan ageri. Hala nola *larrapast* (*laprast*), *irrist* (*irristada* bai), *dir-dir*, *pio-pio*, *txio*, *kili-kili*, *molokot*, eta abar.

<sup>20</sup> Igorpen-aditzei dagokienez, bereizketa hirukoitza egiten dute Rodriguez eta García Murga (2001), Etxepare (2003) eta Zabala (2004) hizkuntzalariek. Hala nola soinuen igorpena

elkarreraginari dagozkionak (1.24), ekintza mentalei dagozkien esaerak (1.25), gorputz ekintzei dagozkien esaerak (1.26), giza ekintzei dagozkienak (1.27), esperientziei dagozkienak (1.28) eta bestelakoen azpitaldea (1.29).

Aipatu dugu De Rijk ez dela lokuzioak sailkatzen dituen hizkuntzalari bakarra. Zabalak (2004) lau talde hauetan banatzen ditu [XS + *egin*] aditz-egiturak eta talde bakoitzari dagozkion aditz-lokuzioak zerrendatzen ditu:

a) emisioa adierazten duten aditzak (horren barnean aipatutako hiru azpitaldeak bereizten ditu).

b) ekintza fisikoak eta adimen ekintzak adierazten duten aditzak. Horren barnean lau azpitalde hauek bereizten ditu; ekintza kognitiboak edota borondatezko ekintzei dagozkion aditzak, behar fisikoei dagozkion aditzak, norbaiten edo zerbaiten kontrako ekintzak eta mugimendu aditzak.

c) bestelako egiturak

d) eguraldiari dagozkion aditzak

Antzekotasunak eta desberdintasunak atzeman daitezke De Rijken eta Zabalaren sailkapenak alderatuz. Desberdintasunei dagokienez, De Rijken sailkapena morfologian eta semantikan oinarritzen dela esan dezakegu. Zabalarena, ordea, esanahia ez ezik, [SX+*egin*] egitura sintaktikoa kontuan hartzen du. Adierari dagokionez, ezaugarri komun asko atzeman daitezke taldekatze horien artean. Bietan bereizten dira mugimendu aditzak, emisio aditzak, komunikazio aditzak, ekintza mentalak edo kognitiboak, gorputz ekintzak edo ekintza fisikoak, eguraldiari dagozkion aditzak<sup>21</sup>, eta abar. Bi sailkapen horiek nahiz besteak baliagarriak izan badakizkiguke ere, De Rijkena aurkeztuko

---

adierazten duten aditzak, komunikazio linguistikoari dagozkion aditzak eta argi-igorpenari dagozkionak.

<sup>21</sup> Rodriguez eta García Murga (2001) nahiz Etxeparek (2003) ere bereizten dute eguraldiari erreferentzia egiten dioten aditzen taldea.

dugu, argitaratu den azkena, aztergai ditugun lokuzioen oinarri gisa. Hauek dira De Rijkek egiten dituen taldeak eta talde bakoitzari dagozkion aditz-lokuzioak:

## 1. MUGIMENDU-MODUA ADIERAZTEN DUTEN ESAERAK:

(1.22)	<i>BIDAIA EGIN</i>	<i>JAUZI EGIN</i>
	<i>BIDE EGIN</i>	<i>LABAIN EGIN</i>
	<i>DANTZA EGIN</i>	<i>LARRAPAST EGIN</i>
	<i>ESTROPEZU EGIN</i>	<i>LASTER EGIN</i>
	<i>HANKA EGIN</i>	<i>MURGIL EGIN</i>
	<i>HERREN EGIN</i>	<i>SALTO EGIN</i>
	<i>IGERI EGIN</i>	<i>ZABU EGIN</i>
	<i>IHES EGIN</i>	<i>ZIRKIN EGIN</i>
	<i>IRRIST EGIN</i>	

## 2. EMISIO-ESAERAK:

(1.23)	<i>ADAUSI EGIN</i>	<i>KIRRINKA EGIN</i>
	<i>ALDARRI EGIN</i>	<i>KURRINKA EGIN</i>
	<i>ARGI EGIN</i>	<i>MARMAR EGIN</i>
	<i>ARRANTZA EGIN</i>	<i>MARRU EGIN</i>
	<i>AUHEN EGIN</i>	<i>MARRUMA EGIN</i>
	<i>BURRUNBA EGIN</i>	<i>ÑIR-ÑIR EGIN</i>
	<i>DEIADAR EGIN</i>	<i>OIHU EGIN</i>
	<i>DIR-DIR EGIN</i>	<i>ORRO EGIN</i>
	<i>DIRDIRA EGIN</i>	<i>PIO-PIO EGIN</i> <sup>22</sup>

<sup>22</sup> Martínezek (2003) *egin* aditzaz osatutako aditz-lokuzio onomatopeikoen taldea bereizten du, izen onomatopeikoez osatzen dena, hain zuzen ere. Horien artean zerrendatzen ditu haur hizkeran bereziki erabiltzen diren hauek guztiak: *pa egin* / *eman*, *purrut egin*, *pis-pis* / *pipi egin*, *tturttur egin* (kaka egin), *apatx(o/i) egin*, *ñam-ñam egin*, *aupa egin*, *fu egin*, *putz egin*, *burrun-burrin* / *brun-brun* / *tar-tar-tar egin* (traktoreak edo antzeko zaratadun motorrak egiten duena),

<i>DISTIRA EGIN</i>	<i>TXILIO EGIN</i>
<i>DIZ-DIZ EGIN</i>	<i>TXIO EGIN</i>
<i>EZTANDA EGIN</i>	<i>UHURI EGIN</i>
<i>GARRASI EGIN</i>	<i>ULU EGIN</i>
<i>HEIAGORA EGIN</i>	<i>ZAPART EGIN</i>
<i>HOTS EGIN</i>	<i>ZAUNKA EGIN</i>
<i>IRRINTZI EGIN</i>	<i>ZURRUNGA EGIN</i>
<i>KARRANKA EGIN</i>	<i>ZURRUST EGIN</i>

### 3. KOMUNIKAZIOARI ETA ELKARRERAGINARI DAGOZKION ESAERAK:

(1.24) <i>AGIRAKA EGIN</i>	<i>GALDE EGIN</i>
<i>AGUR EGIN</i>	<i>HITZ EGIN</i>
<i>AHAKAR EGIN</i>	<i>IRAIN EGIN</i>
<i>AITOR EGIN</i>	<i>ISEKA EGIN</i>
<i>APA EGIN</i>	<i>KEINU EGIN</i>
<i>ARNEGU EGIN</i>	<i>LAIDO EGIN</i>
<i>ARREN EGIN</i>	<i>LAZTAN EGIN</i>
<i>AXUT EGIN</i>	<i>MUIN EGIN</i>
<i>BERBA EGIN</i>	<i>OLES EGIN</i>

---

*kan-kan-kan egin* (mailu-hotsa), *plisti-plasta egin*, *txipli-txapla egin*, *plof egin*, *krak egin*, *po-poo / pi-pii egin* (bozina jo), *dan-dan-dan egin* (atea ozenki jo), *txalo-(pin)-txalo egin*, *punba / punbala egin*, *pun-pun egin*, *kilin-kolon egin*, *dilin-dalan egin* (kanpaiak), *tik-tak egin* (erlojuak), *kist-kast egin* (guraizeekin moztu), *tas-tas / zarta-zarta egin*, *atxis egin* (doministiku egin), *tuju-tuju egin* (estula egin), *parrast egin* (likidoa isuri), *kili-kili egin*, *txarraxt-txarraxt egin*, *txirrist egin*, *arre-arre egin* (astoari edo behorrari), *trakatan-trakatan* (zaldiak). Horrez gain, azpitalde bat osatzen du animaliek igortzen dituzten soinuak adierazten dituzten aditz-lokuzio onomatopeikoekin, oso arruntak haur hizkeran, ondorengoak ere: *pio-pio egin* ez ezik, *txio-txio egin*, *kurrin-kurrin egin*, *uau-uau egin*, *miau-miau egin*, *muu egin*, *bee egin*, *krua-krua egin*, *kli-klo egin*, *ku-ku egin*, *auuu / ulu egin*, *kukurruku / kokoroko / kakara egin*, *kir-kir egin*, *kua-kua egin*, eta abar. Hala eta guztiz ere, horien agerraldi gutxi topatu ditugu EPG, EPD, EKC, ETC, eta Goenkale *corrpusean*, eta horregatik, gure azterketatik kanpo utziko ditugu.

<i>BIRAO EGIN</i>	<i>OTOITZ EGIN</i>
<i>BURLA EGIN</i>	<i>POT EGIN</i>
<i>DEI EGIN</i>	<i>TRUFA EGIN</i>
<i>ERREGU EGIN</i>	<i>TXALO EGIN</i>
<i>UKO EGIN</i>	<i>ZIN EGIN</i>
<i>ERRIETA EGIN</i>	<i>EZETZ EGIN</i>

#### 4. EKINTZA MENTALEI DAGOZKIEN ESAERAK:

- (1.25) *AMETS EGIN*  
*DUDA EGIN*  
*GOGOETA EGIN*  
*JARAMON EGIN*  
*KASU EGIN*  
*KONTU EGIN*  
*ZALANTZA EGIN*

#### 5. GORPUTZ EKINTZEI DAGOZKIEN ESAERAK:

- |                          |                    |
|--------------------------|--------------------|
| (1.26) <i>ABARO EGIN</i> | <i>MUZIN EGIN</i>  |
| <i>AHARRAUSI EGIN</i>    | <i>NEGAR EGIN</i>  |
| <i>ATXIMUR EGIN</i>      | <i>OKA EGIN</i>    |
| <i>ATZAPAR EGIN</i>      | <i>OSTIKO EGIN</i> |
| <i>BARAU EGIN</i>        | <i>PIPER EGIN</i>  |
| <i>BARRE EGIN</i>        | <i>PIXA EGIN</i>   |
| <i>BELTZURI EGIN</i>     | <i>PLANTO EGIN</i> |
| <i>BULTZA EGIN</i>       | <i>PUTZ EGIN</i>   |
| <i>DOMINISTIKU EGIN</i>  | <i>SAKA EGIN</i>   |
| <i>EZTUL EGIN</i>        | <i>SO EGIN</i>     |
| <i>GERNU EGIN</i>        | <i>TIRA EGIN</i>   |

<i>HATZ EGIN</i>	<i>TU EGIN</i>
<i>IKARA EGIN</i>	<i>TXISTU EGIN</i>
<i>IMURTXI EGIN</i>	<i>TXIZA EGIN</i>
<i>IRRI EGIN</i>	<i>UFA EGIN</i>
<i>IRRIBARRE EGIN</i>	<i>USAIN EGIN</i>
<i>JOLAS EGIN</i>	<i>USIN EGIN</i>
<i>KAKA EGIN</i>	<i>ZIMIKO EGIN</i>
<i>KOSK EGIN</i>	<i>ZINTZ EGIN</i>
<i>LAGUN EGIN</i>	<i>ZOTIN EGIN</i>
<i>LISTU EGIN</i>	<i>ZURRUST EGIN</i>
<i>LO EGIN</i>	<i>ZURRUT EGIN</i>

#### 6. GIZA EKINTZEI DAGOZKIEN ESAERAK:

(1.27) <i>BEKATU EGIN</i>	<i>MEN EGIN</i>
<i>BORTXA EGIN</i>	<i>OKER EGIN</i>
<i>EGUR EGIN</i>	<i>PETO EGIN</i>
<i>GERRA EGIN</i>	<i>SU EGIN</i>
<i>GUDU EGIN</i>	<i>UZKUR EGIN</i>
<i>HOBEN EGIN</i>	<i>ZOTZ EGIN</i>
<i>JAI EGIN</i>	

#### 7. ESPERIENTZIEI DAGOZKIEN ESAERAK:

(1.28) <i>DOLU EGIN</i>
<i>GOGAIT EGIN</i>
<i>IRUZUR EGIN</i>
<i>KILI EGIN</i>
<i>KILI-KILI EGIN</i>
<i>MIN EGIN</i>

## 8. BESTELAKOAK:

- (1.29) *BURU EGIN*  
*ENBARAZU EGIN*  
*GAITZ EGIN*  
*KALTE EGIN*  
*LEHER EGIN*  
*MESEDE EGIN*  
*MOLOKOT EGIN*  
*OZTOPO EGIN*  
*PORROT EGIN*

Azpitaldeetan banatzen diren aditz-lokuzio horiek erakusten dute, adierari dagokionez, mota desberdinetakoak direla<sup>23</sup>. Horrenbestez, nekez aurki dezakegu egitura horiek guztiek elkarren artean duten ezaugarri semantikorik. Hala ere, aditz-lokuzioan parte hartzen duen izenaren ezaugarri semantikoak 1.3.1. azpisailean aztertuko ditugu.

Determinatzaileak izenaz osatzen diren aditz-lokuzioei dagokienez, eguraldiari dagozkion esaerak<sup>24</sup> bereizten ditu De Rijkek (2008):

- (1.30) *ELURRA EGIN*  
*EURIA EGIN*

<sup>23</sup> Desberdintasun semantikoak ez ezik, beste desberdintasun batzuk topatu ditugu De Rijkek zerrendatzen dituen aditzen artean. Izan ere, guztiak ez dira [+egin] motakoak, hala nola *ezetz egin*, *agiraka egin*, *oker egin*, eta abar. Bestalde, erabilerari dagozkion desberdintasun nabarmenak atzeman ditugu. Horietako batzuk oso gutxitan ageri dira *corpusetan*, hala nola onomatopeikoak nahiz besteak, *dir-dir egin*, *pio-pio egin*, *kili-kili egin*, *molokot egin*, eta abar. Arrazoi horiek direla eta, gure azterketatik kanpo utzi ditugu zerrenda horietan agertzen diren aditz batzuk.

<sup>24</sup> Aditz-lokuzio meteorologikoen azpitalde zabalagoa proposatzen dute Rodríguez eta García Murga hizkuntzalariek (2001), baita Martínezek (2003) eta Etxeparek (2003) ere.

HARRIA EGIN

IZOTZA EGIN

TXINGORRA EGIN

De Rijkek berak dioenez, eguraldiari dagozkion esaerak izenondo moduan funtziona dezaketen izen hutsez ere adieraz daitezke, eta hala, *bero*, *epel* eta *hotz* formek, izen eta izenondo gisa funtziona dezakete eta *egin* aditzarekin aditz-lokuzioa osatu:

(1.31) *BERO EGIN*

*EPEL EGIN*

*HOTZ EGIN*

Oyharçabalek (2006) ere aipatzen du aditzaren aurreko elementua, izenaz gain, izenondoaz edo postposizioaz osatzen den adberbioa izan daitekeela, aditz arinaz<sup>25</sup> osatutako egituretan, (Oyharçabal 2006: 787):

(1.32) a. N+V *negar egin* [tear + make] “cry”

b. A+V *on hartu* [good + take] “accept”

c. P+V *goiti egin* [up + make] “vomit”

Euskaraz hiru egitura mota horiek aurki daitezkeen arren, mota bakoitzaren maiztasuna desberdina dela aipatzen du Oyharçabalek. Izenaren erabilera ohikoagoa dela dio, izenondoaz edo kasu-markaz osatutako adberbioen erabilera baino eta azken bi horiek lexikalizazio maila handia dutela dio.

Horrez gain, izenondoaz eta *egin* aditzaz osatutako egitura iragankorrak bereizten ditu De Rijkek (2008). Hala nola *zoriontsu egin* eta *gogor egin* egiturak. De Rijkek berak ematen duen adibidea ez ezik, EPG *corpusean* ugariak dira horiez osatzen diren perpausak:

<sup>25</sup> Aditz-arinaz sakonkiago arituko gara tesi honetan aurrera egin ahala, (ikus 1.2 eta 1.3.2.1.).

- (1.33) Eta bai, *zoriontsu egin* zuen egun hartan Ainhoa ((Atxaga, Bam II,5) De Rijk 2008: 295)).
- (1.34) Beste inoren zorionak ez du gizakia *zoriontsu egiten*, zeren zoriontsu izateko hari jarraitzen zaionean, bestearen bidetik izan nahi du, hau da, guztion ongia den egia aldaezinarekin bat eginez. EPG (Ereduzko Prosa Gaur), *Hainbat idazlan*, San Agustin / Imanol Unzurrunzaga (Klasikoak, 2003: 144).
- (1.35) Denek *gogor egin* zioten gizatxar hari eta deabruak hartua zegoela aurpegiratu zioten. *Asisko Frantzizko, Asisko Klara, / Askoren artean* (Arantzazu, 2002: 330).
- (1.36) Sararen eskaera hau Abrahami *gogor egin* zitzaion. (De Rijk 2008: 295).

Baina, egitura horiek aztertuz ohartzen gara gehienak ez direla aditz-lokuzioaz osatutako egiturak, bestelako egitura iragankor arruntak baizik.

Batetik, *norbaitek [norbait zoriontsu egin]* motako egitura iragankorra dugu, subjektu batez (*norbaitek* edo *zorionak* eta *denek* aurreko adibideetan), osagarri zuzen funtzioa betetzen duen IS /DS aske batez (*norbait* edo *Ainhoa eta gizakia*), adierari dagokionez osoa den *egin* aditzaz eta, *zoriontsu*, osagarri predikatiboaz osatzen dena (SEG), morfologikoki izenondoa, adibide horietan.

Horrez gain, *gogor egin* egituraz osatutako egitura mota desberdinak topatu ditugu.

Batetik, [izond + *egin*] aditz-lokuzioaz osatutako *norbaitek norbaiti [gogor egin]* egitura aurkitu dugu, non nor-nori-nork aditz laguntzaile iragankorra agertu arren, nor / zer argumentua pentsaezina den (1.35 adibidea).

Bestetik, *norbaiti [zerbait gogor egin]* motako egitura topatu dugu, espero dugun nor-nori aditz laguntzaile iragangaitzaz (*zaio/zait*) eta *egin* aditz sendoaz osatzen dena eta horretan ere, *gogor* edo *gogorra* osagarri predikatiboa dugu.

Errepikatzen diren izenondoez nahiz aditz-erroez osatutako egiturak ere bereizten ditu De Rijk, hala nola izenondoa errepikatuz osatzen diren hauek:

- (1.37) *BERO-BERO EGIN*  
*GORRI-GORRI EGIN*  
*TXIKI-TXIKI EGIN*  
*ZABAL-ZABAL EGIN*  
*ZURBIL-ZURBIL EGIN*

EPG *corpusean* mota horretako adibide hauek aurkitu ditugu:

- (1.38) Hire politikoaen alde agertzen bahaiz, hezurak *txiki-txiki egingo* dizkiat denen begien aurrean. EPG, *Mirarien kalezuloa*, Nagib Mahfuz / Patxi Zubizarreta (Alberdania-Elkar, 2006: 113).
- (1.39) Ondoren, jendeak Baalen jauretxera joan eta lurrera bota zuen; *xehe-xehe egin* zituen hango aldare eta irudiak, eta Baalen apaiza zen Matan hil egin zuten aldarearen aitzinean. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004). 2 Erg 11,18
- (1.40) Begiak *zabal-zabal egin* zituen. EPG, *Txoria*, Oh Jung-hi / Juan Kruz Igerabide (Alberdania, 2006: 59).

Aurreko erabileretan ikusi dugun bezala, *norbaitek [zerbait txiki-txiki egin]*, *[zerbait xehe-xehe egin]* edota *[zerbait zabal-zabal egin]*, egitura iragankor arruntak dira eta ez aditz-lokuzioez osatutako egiturak. Horietan ere *txiki-txiki*, *xehe-xehe* eta *zabal-zabal* osagarri predikatiboak ditugu. Adierari dagokionez, egitura horien ezaugarria da egoera aldaketa adierazten dutela. Izan ere, ekintza burutua dela adierazteko erabiltzen den *-tu* aspektu burutudun aditzaz ordeztu daitezke; *txikitu*, *handitu*, *loditu*, *zabaldtu*, eta abar, adiera guztiz berbera ez izan arren. Aditz-lokuzio gehienek, ordea, ez dute horrelakorik onartzen; \**negartu*, \**hiztu*, \**aldetu*, \**zindu*, eta abar.

Laburbilduz, De Rijkek [izenondo + *egin*] aditz-lokuziotzat hartzen dituen egitura horien azterketa zuzena bestelakoa dela esan behar dugu. Azken egitura horiek, *zoriontsu egin* motakoa eta nor-nori motako *gogor egin* egitura bateratzen dituen ezaugarria da formaz izenondoa denak funtzio predikatiboa betetzen duela, baita *egin* aditza sendoa dela eta jokaera sintaktiko askea duten argumentuez osatzen direla. Beraz, horiek ez lirateke [izond.+*egin*] aditz-lokuzioez osatutako egiturak, egitura iragankor arruntak baizik. Aditz-lokuzioaz osatutako egitura bakarra, horien artean, *norbaiti gogor egin* (1.35) litzateke eta horien parekoak.

Aditz-oina errepikatuz osatzen diren egiturei dagokienez, hauek bereizten ditu De Rijkek:

(1.41) *ASPER-ASPER EGIN*

*NEKA-NEKA EGIN*

*SUMIN-SUMIN EGIN*

Mota horretako egitura "partzipio adberbialaz" erabiltzen da maizen, eta izen sintagmaz predikatzen duten horiek ere osagarri predikatiboak dira.

(1.42) Telebistari begira *asper-asper eginda* egon besterik ez. EPG, *Bost ahizpa*, Aitor Arana (Euskaltzaindia-BBK, 2005: 49).

(1.43) Claude eta Florent, izan ere, *neka-neka eginda* eta pozik itzuli ziren. EPG, *Parisen sabela*, Emile Zola / Karlos Zabala (Alberdania-Elkar, 2004: 284).

Elhuyar Hiztegian eta beste hauetan *nazka-nazka eginda* egiturari dagozkion sarrera hauek agertzen dira, partzipio adberbialak ere hauek guztiak:

(1.44) *nazka-nazka eginda egon* AS: morirse de asco, estar muerto de asco; estar harto, -a; estar asqueado, -a), Elhuyar hiztegian.

- (1.45) *nazka(-)nazka eginda*: I. Urbietta ("Nazka-nazka eginda ihes joan ziren"), J.J. Iribar ("ETBko ikerlari eta heriotzekin nazka nazka eginik ez bazaudete"), M. Garmendia ("Nazka-nazka eginda geunden"), X. Mendiguren B. ("Aita nazka-nazka eginda dago")

[http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com\\_hiztegiabilat\\_u&Itemid=189&adm=&aurreatu=1&err=&eus=&gar=&kat=&lang=en&layout=aurreatua&num=&ona=&orria=2709&sai=&sarrera=&view=frontpage&xehe=7](http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_hiztegiabilat_u&Itemid=189&adm=&aurreatu=1&err=&eus=&gar=&kat=&lang=en&layout=aurreatua&num=&ona=&orria=2709&sai=&sarrera=&view=frontpage&xehe=7)

- (1.46) Bizimodu zikin honetaz *nazka-nazka eginda* nagok. EPG, *Manhattan Transfer*, John Dps Passos / Lopez de Araba (Ibaizabal, 1999: 42).

Azken adibideen erakusten dute, halaber, horiek ez direla aditz-lokuzioak. Beraz, De Rijkerek bereizten dituen egitura horiek aztergai ditugun aditz-lokuzioetatik desberdindu behar ditugu. Hala eta guztiz ere, izenaz osatzen diren bestelakoez ere arituko gara 1.4. atalean.

Izenaz eta *egin* aditzaz osatutako egitura konplexuetan murgilduz, determinatzailerik gabeko izenaz osatzen diren aditz-lokuzioak nahiz -a determinatzailekun izenaz osatzen direnak bereiziko ditugu, baita bietara erabil daitezkeen gutxi batzuk ere. Gure aztergaiaren eremutik kanpo geratzen direlako, bestelakoen artean aurkeztuko ditugu 1.4. azpisailean, IS-ak (mugatzaile pluralaz osatutako DSz), DS-lekuzko kasuaz, IS-ka, nahiz beste egitura konplexuagoz osatzen direnak.

Esan behar dugu, aurkeztu berri ditugun De Rijkere zerrendetan agertzen diren aditz-lokuzio batzuk maiztasun apalekoak direla gaurko euskararen. Horregatik, agertzekotan oso gutxitan ageri dira datu iturri moduan erabili ditugun *corpus*etan. Horien artean ditugu *beltzuri egin*, *gernu egin*, *saka egin*, *egur egin*, *molokot egin*, eta abar, oso urriak direlako gure azterketatik kanpo utziko ditugunak.

## 1.2. [IZEN+EGIM]<sub>A</sub> LOKUZIO EGITUREN AURKEZPENA

Lehenik eta behin, lan honen aztergai ditugun aditz-lokuzioez osatutako egiturak aurkeztuko ditugu, izen batez eta *egin* aditzaz osatzen diren aditz-egiturak<sup>26</sup>. Hasteko, egitura horien deskribapen orokor bat egingo dugu, eta ondoren, osagai bakoitzaren ezaugarri jakinetan murgilduko gara.

Hiru egitura hauek aurkeztuko ditugu; *alde egin* aditz-lokuzioaz osatzen dena, (1.47), *negar egin* aditz-lokuzioaz osatzen dena (1.48) eta *euria egin* aditz-lokuzio meteorologikoaz (1.49) osatzen dena, hurrenez hurren:

(1.47) Taupada bizian dut bihotza, huts egin didate indarrek, *alde egin* dit begietako argiak ere. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Sal 38,11.

(1.48) Buruzagi eta arduradunek *negar egin* zuten, neska-mutil gazteak ahuldu egin ziren, emakumeen edertasuna zimeldu. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), M 1,26.

(1.49) *Euria egin* zuen egunetan eta gauetan ezin eutsi izan nion neure errutinari: neure bazkaria prestatzea, etxeko lan batzuk egitea Madame eta Monsieur bizi ziren etxe nagusian, ondoren oinez joatea eskolara, zeinetan emakumezkoak baitziren ikasle guztiak, haien lagunarte haurregia saihestea, etxera itzultzea, Madamerentzako mandatuak egitea, [...] EPG, *Nire amaren autobiografia*, Jamaica Kincaid / Alberto Martínez de la Cuadra (Alberdania-Erein-Igela, 2012: 71).

Begi-bistakoa da egitura horiek badituztela berezitasunak:

<sup>26</sup> Aztertuko ditugun aditz-lokuzioen osagaiak kategoria berekoak izan arren, lehen osagaia izena eta bigarren osagaia aditza, badugu *ahalegin* izen kategoria, salbuespentzat hartuko duguna:

(i) Itxieraren harira, euskara eta euskal kultura «krimenarekin lotzeko *ahaleginak*» eta «sistematikoki susmopean jartzeko eta biolentziaren munduarekin lotzeko jarrerak» gaitzetsi ditu Eusko Jaurlaritzak, eta jokabide horiek «ez gizarte honen bizikidetzan ez eta bakea lortzen ere ez dutela lagunduko ohartarazi du». EPG, *Berria*, Euskal Herria saila, Erredakzioa, (2004, 2006).

Izenari dagokionez, izena determinatzailearik gabekoa dela dakusagu (1.47) eta (1.48) egituretan, hainbat gramatkarik aipatu bezala, Euskaltzaindia (1991a), Hualde eta Ortiz de Urbina (1987), Zabala (2004), eta abar. Hala eta guztiz ere, egitura horiek gramatikalak dira. Euskaraz izen sintagma gramatikala izateko determinatzaile batez markatua izan behar duela dioen araua<sup>27</sup> ez da errespetatzen, beraz, determinatzailearik gabeko izenaz osatzen diren egitura horiek morfologikoki bereziak direla esan dezakegu<sup>28</sup>.

Gertakari meteorologikoari erreferentzia egiten dion aditzaz osatutako (1.49) egituren, ordea, determinatzailedun izena ageri da. Hala eta guztiz ere, aukera hori mugatua da, *-a* artikulua mugatzailea baita egitura horrek onartzen duen determinatzaile bakarra<sup>29</sup>.

<sup>27</sup> Izen gutxi batzuk alde batera utzita, izen sintagma osatzeko behar beharrezkoa da, euskaraz, determinatzailea, SEG (ikus 1.3.1.1.).

<sup>28</sup> Determinatzailearik gabeko izenaz osatzen dira *alde egin* eta *negar egin* ez ezik, aditz-lokuzio hauek ere: *agur egin, aharrausi egin, aitor egin, aldarri egin, alde egin, algara egin, amets egin, apustu egin, arrantza egin, arraun egin, aurre egin, barau egin, barre egin, behaztopa egin, bekatu egin, berba egin, birao egin, borbor egin, burla egin, burrunba egin, dantza egin, dei egin, desafio egin, doministiku egin, duda egin, ehiza egin, errieta egin, estropezu egin, eztanda egin, galde egin, garrasi egin, hanka egin, hitz egin, hots egin, huts egin, ihes egin, ikara egin, iseka egin, irain egin, irrist egin, iruzur egin, juramentu egin, kaka egin, kalte egin, kasu egin, lan egin, leher egin, lo egin, min egin, murgil egin, negar egin, oihu egin, otoitz egin, piper egin, pixa egin, porrot egin, saka egin, salto egin, sargori egin, so egin, solas egin, talka egin, txalo egin, tiro egin, topo egin, txistu egin, uko egin, ulu egin, usain egin, zaunka egin, zin egin, zintz egin, zurrut egin, eta abar.*

<sup>29</sup> Aditz-lokuzio meteorologikoen artean ditugu, *euria egin* aditz-lokuzioaz gain, *eguzkia egin, ekaitza egin, elurra egin, haizea egin, izotza egin, kazkabarra egin, tximista egin, txingorra egin, zirimiria egin*, eta abar. *Sargori egin* salbuespena dugu eta *eguzki egin* eta *euri egin* aditz-lokuzioez osatutako adibide bakarra aurkitu dugu EPG corpusean (ikus 1.3.1.1.). Horrez gain, badira bi aukerak onartzen dituzten aditz-lokuzioak. 1.3.1.1. azpisailean ikusiko dugunez, bietara erabil daitezke, *hotz(a)egin* eta *bero(a) egin* lokuzio meteorologikoak, baita meteorologikoak ez diren *eztul(a) egin* eta *arnas(a) egin* aditz-lokuzioak ere. Hala ere, horietan guztietan aukera morfologikoa ez da semantikoki pertinentea.

Aztergai ditugun aditz-lokuzioen izen guztiak ez erreferentzialak direla esan dezakegu, izen horien erreferentzia jakina baino areago generikoa delako, Zabalak (2004) aipatzen duen moduan:

«*El primer elemento del predicado complejo tiene siempre una lectura genérica independientemente de que presente o no presente determinante y del tipo de nombre que sea*», (Zabala 2004: 470).

Erreferentziasuna, eduki semantiko jakinarekin bat datorren ezaugarria dela ulertzen dugu. Horregatik, determinatzailedun izenaz osatutako aditz-lokuzioa ere ez erreferentziala denez, lokuzioen kasuan *-a* mugatzailea agertzeak, ondorio semantikorik ez duela esan dezakegu. Beraz, determinatzailea, DSz osatutako aditz-lokuzioetan, DSa osatzeko ezinbestekoa den marka morfologiko soilizat hartuko dugu<sup>30</sup>, Euskaltzaindia (1991a), Laka (1993).

Funtzio sintaktikoari dagokionez, aditz-lokuzioaren izen sintagmak osagarri zuzen funtzioa betetzen duela defendatuko dugu lan honetan<sup>31</sup>. Izan ere, o.z funtzioa betetzen duen eta absolutibo kasuaz markatzen den beste izen sintagmarik agertu ezina, o.z. funtzioa betetzen duen IS absolutiboa dugulako azal dezakegu, euskaraz ez direlako absolutibo kasuaz markatzen diren bi DS onartzen:

(1.50) \*Mikelek liburua lan egin du

baina,

---

(i) Arnasa sakon hartu, eta *eztul egin* zuen. EPG, *Hilabete bat Montalbanorekin*, Andrea Camille-ri / Fernando Rey (Igela, 2011: 336).

(ii) Pianoa, tabernako barra hura balitz bezala dago jarrita: ehun eta berrogei urteko agureak *eztula egin* eta pianoa jotzen jarraitzen du. EPG, *Piano gainean gosaltzen*, Harkaitz Cano (Erein, 2000: 155).

<sup>30</sup> Bestela ere, *-a* determinatzailea agertzeak ez dakar beti erreferentzia semantiko jakinik, euskaraz, Euskaltzaindia (1991a).

<sup>31</sup> (1.3.1.) azpiatalean izenaz osatutako sintagmaren funtzio sintaktikoa eta lokuzioaz osatutako egituraren iragankortasuna frogatzeko argudio gehiago emango ditugu.

## (1.51) Mikelek liburua irakurri du

Bi adibide horien artean bada diferentzia nabarmena egitura aldetik. *Irakurri* aditz iragankorraz osatutako egitura izen sintagma absolutibo bat ager daiteke, *liburua*. *Lan egin* aditz-lokuzioa dugunean, ordea, ezin daiteke aditz konplexu horren ondoan beste IS absolutiborik agertu, aditzaren osagaia den *lan* izen sintagma bera baita sintagma absolutiboa.

Bestalde, aditz-lokuzioaz osatutako egitura iragankorra dela islatzen du aurkeztutako egituretan nor-nork motako aditz laguntzailea agertzeak (*du*). Izan ere, aditz-laguntzaile hori subjektuarekin eta objektuarekin komunztatzen duen laguntzailea dugu:

(1.52) Mikelek<sub>i</sub> negar<sub>j</sub> egin  $d_j u - \emptyset_i$  (aditz-lokuzioa)

Aditz elkartuetan ez bezala, aditz laguntzaile iragangaitzaren presentzia ezinezkoa da aditz-lokuzioaz osatutako egitura. Aitzitik, aditz elkartuez osatutako egitura asko iragangaitzak dira<sup>32</sup> eta iragangaitzak izatea bat dator aditz laguntzaile iragangaitza agertzearekin. Horixe erakusten du bi egitura hauen arteko kontrasteak:

(1.53) Mikelek *itxuraldatu du* / Mikel *itxuraldatu da* (aditz-elkartua)

baina,

(1.54) Mikelek *lan egin du* / \* Mikel *lan egin da* (aditz-lokuzioa)

Are gehiago, aditz-lokuzioaren izenaz osatutako ISk, jokaera sintaktiko askea erakusten duela esan dezakegu, oro har, zurruna den aditz elkartuen izenaren jokaeraren aldean<sup>33</sup>. Aditz-lokuzioaren *negar* izena, aske mugi daiteke egitura

<sup>32</sup> Baina, iragankorrek izan daitezke:

(i) Aireportuari esker entzun izan du jende askok herriaren izena, eta *azpiegitura hori izan zen* hain zuzen, 50eko hamarkadan *herria guztiz itxuraldatu zuena*.

<http://bizkaia.hitza.info/2012/01/27/noren-alde-lan-egin-behar-dudan-ikusten-dut-balkoitik-begiratzean/>

<sup>33</sup> \**aldatu itxura* edo motakorik ez da existitzen, sintaxi-egitura ez den hitz elkartuaren kasuan.

sintaktikoan zehar, eta hala, egitura iragankor arrunten IS absolutiboak bezala, hitz-ordena desberdinetan topa dezakegu o.z. funtzioa betetzen duen izen sintagma:

(1.55) Mikelek *negar* egin du

(1.56) *Negar* Mikelek egin du

(1.57) Mikelek egin du *negar*

(1.58) Egin du Mikelek *negar*

(1.59) Egin du *negar* Mikelek

Hala eta guztiz ere, badira aditz-lokuzioaren ISren kokapenari dagokionez, desberdintasun esanguratsuak. Lehen begirada batean, *alde egin* aditz-lokuzioa ihartua<sup>34</sup> edo sintaktikoki zurrunagoa dela atzematen dugu, *negar egin eta euria egin* aditz-lokuzioekin konparatuz. *Alde egin* aditz-lokuzioaren hurrenkera banaezina da, aditz elkartuen hurrenkera bezala. Aitzitik, *negar egin* nahiz *euria egin* lokuzioen osagaien hurrenkera malguagoa da, egitura iragankor arrunten IS absolutiboen ordena askea bezala:

(1.60) \*Mikelek atzo *egin* zuen *alde*

(1.61) Mikelek atzo *egin* zuen *negar*

(1.62) *Euria* atzo *egin* zuen

Ez gara hemen horretaz luzatuko, aditz-lokuzioen jokaera sintaktikoak xeheatasunez aztertzea baita 3. kapituluaren helburua.

---

<sup>34</sup> *Alde egin* aditz-lokuzioan ez ezik, beste aditz-lokuzio batzuetan ere izena iharturik dagoela ikusiko dugu 3. kapitulan eta Euskaltzaindiarekin bat eginez (1997: 45-46), izen ihartuak ere aztarna uzten duela proposatuko dugu.

Aditzari dagokionez eta *egin* aditzaren semantikan oinarrituz, bi *egin* bereiz ditzakegu, euskaraz: *egin* aditz sendoa<sup>35</sup> eta *egin* aditz arina. Aditz-lokuzioen aditza arina da eta *egin* arinaren berezitasuna, semantikoki astuna ez izatean datza. Horrexegatik du aditz arinak izenaren beharra; esanahia osatzeko, hain zuzen ere<sup>36</sup>. *Egin* arinaren eta *egin* sendoaren arteko desberdintasuna egitura hauetan ikus dezakegu:

- (1.63) Ekin *egin* nion, jakina, eta sega eman zidaten, eta segan *egin* nuen, edo segalariaren itxura *egin* nuen; eta igeltsero *lan egin* nuen, eta altzariak etxerik etxe banatzen; zeregin osasuntsuak denak ere denak, harik eta egun batean abokatua nintzela eta frantsesez nekiela, eta takigrafia eta historia pixka bat ere banekiela jakin zuten arte; jendarmeen sarjentu baten idazkari izendatu ninduten". EPG, *Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan*, Edorta Jimenez (Susa, 2003: 111).

Adibide horretan ez dugu ekintzaren emaitza den objekturik; aitzitik, [I+*egin*]<sub>A</sub> osagaien arteko lotura estuak, hots, *lan egin* aditz konplexuak amaitu ez den ekintza adierazten du, ekintza ez telikoa, literaturan erabiltzen den terminoaz, Dowty (1979).

- (1.64) Bordeletik Arroxelarako burdin bidearen *eraikuntza egin zuten* denboran bi eiheren arteko eremuak funditu zituzten eta bihiekin eiherara hurbiltzea arras mugertu zieten. EPG, *Galerna*, Piarres Trounday (Maiatz, 2012: 208).

Horretan, ordea, *egin* aditzak adierazten duen ekintzaren emaitza da *eraikuntza*, hots, objektu jakina. Beraz, *egin* aditz sendoak *sortu* adiera du azken adibidean.

Laburbilduz, *egin* sendoak zerbaiten sormena adierazten duela esan dezakegu, zerbait hori emaitza fisiko jakina edo zerbait abstraktuagoa ere izan

<sup>35</sup> *Astuna* terminoa era erabiltzen da hizkuntzalaritzan.

<sup>36</sup> Ikus aditz arinaren definizioa 1.3.2.1. azpisaillean.

daitekeela<sup>37</sup>. Are gehiago, *egin* aditz sendoak *sortu* adiera ez ezik, beste esanahiak ere izan ditzake, testuinguruaren arabera. Horien artean aipagarriak dira, *prestatu*, *bete*, *eraiki*, *ordaindu*, eta besteak beste, *idatzi* edo *moztu* adiera duten *egin* aditzak, Euskaltzaindiaren Hiztegia (2012):

(1.65) *Ohea / bazkaria egin* dugu (*prestatu* adieraz)

(1.66) *Amonak laurogei urte egin* ditu (*bete* adieraz)

(1.67) *Mikelek etxea egin* du (*eraiki* adieraz)

(1.68) *Nork egin* du *kontua?* (*ordaindu* adieraz)

(1.69) *Nork egin* du *liburua?* (*idatzi* adieraz)

Bitxiagoa da *moztu* adiera, *egin* aditza *bizarra* izenarekin agertzen denean:

(1.70) *Jonek bizarra egin* du (*moztu* adieraz)

Adibide horietan, *egin* astunak adierazten duen ekintzaren<sup>38</sup> emaitzak dira *bazkaria*, *urteak*, *etxea*, *kontua*, *liburua* eta *bizarra* izenak, hurrenez hurren. Kasu horietan guztietan, predikatu telikoa dugu eta aditz horiek burutzapenak dira, Vendlerren (1967) eta Dowtyren (1979) sailkapen semantikoan oinarrituz<sup>39</sup>.

Aditz-lokuzioaren edukiari dagokionez, lokuzio gehienek esanahia konposizionala dela esan behar dugu, hau da, osagaietatik eratortzen den esanahia:

<sup>37</sup> Adibidez, *tratu* / *paktu* *egin*.

<sup>38</sup> *Ekintza* zentzurik zabalenean, ez Dowtyk egiten duen aspektu bereizketari dagokion zentzuan.

<sup>39</sup> Bada hirugarren *egin* bat, euskaraz, indargarri marka gisa erabiltzen dena. Aditzak adierazten duen ekintza galdegaia dela adierazteko erabiltzen dugu *egin* laguntzaile fokalizatzailea eta aditz perifrastikoaren ondoren kokatzen da. Ez dugu *egin* hau aditz-lokuzioen *egin* aditz arinarekin nahasi behar, [I + *egin*]<sub>A</sub> lokuzio-egituraren aldean, A+*egin* egitura fokalizatzailea baitugu, aditza galdegai dela markatzeko darabilguna:

(i) *Zer egin du Mikelek? irakurri egin* du

- (1.71) Sethek *irribarre egin* zuen. EPG, *Maitea*, Toni Morrison / Anton Garikano (Alberdania, 2004: 25).
- (1.72) Unibertsitateko presidenteari gutunak bidaltzeko *dei egin* du euskal diasporako elkarteak. EPG, *Berría*, Euskal Herria saila, «Aznar Georgetownen irakasle izan ez dadin kanpaina abiatu du Ibok», Imanol Murua Uria (2004-06-26).
- (1.73) Biok batera *negar egingo* dugu. EPG, *Zazpi urkatuak*, Leonida Nikolaievitx Andreiev / Jose Morales (Alberdania-Elkar, 2006: 152).
- (1.74) Gosarirako platerak ikaragarrizko tintina egin zuten, emakumeak mahaiaren kontra *talka egin* zuenean. EPG, *Manhattan Transfer*, John Dos Passos / Lopez de Arana (Ibaizabal, 1999: 376).

Dena den, aditz-lokuzio gutxi batzuen esanahia berezia da. Izena ez erreferentziala izanik eta *egin* aditza arina, bi osagaietatik eratortzen den esanahia ez da konposizionala, idiomatikoa<sup>40</sup> baizik. Horrelakoetan, aditz-lokuzioak osagaien banan-banako esanahiekin zerikusirik ez duen zerbait adierazten du, beste hizkuntzetara hitzez hitz itzuli ezin daitekeena<sup>41</sup>:

- (1.75) Bera hasi zen, orduan, ero keinuak egiten eta ni beldurtu egin nintzen eta *hanka egin*<sup>42</sup> nuen. EPG, *Denak hasperenka*, Gianni Celati / Pello Lizarralde (Igela, 2005: 66).

<sup>40</sup> *Idiomatikós* grekerazko hitzak *partikularra* adierazten du.

<sup>41</sup> Adiera idiomatikoa duten lokuzio gehienek ezaugarria da, bestalde, erakusten duten jokaera sintaktiko zurruna.

<sup>42</sup> Egitura horrek esanahi idiomatikoa duenean *alde egin* adierazten du eta zurruntasun sintaktikoa, partitiborik onartzen ez duela erakusten duen egitura honetan dakusagu:

(i) \*Mikelek ez du hankarik egin

Hala eta guztiz ere, egitura iragankor arrunt horrek, esanahi konposizionala ere izan dezake testuinguru jakin batean. Demagun eskulan saio batean panpina bat egiten ari direla Mikelek eta Amaiak eta Mikel panpinaren hankak egiteaz arduratu dela. Kasu horretan esanahi konposizionala duen egitura iragankor arrunt hau genuke, *hanka* DSz eta *egin* astunaz osatzen dena (ez aditz-lokuzio egitura):

(ii) Mikelek hanka egin du eta Amaiak burua

- (1.76) *Piper egitea* zer den ez dakitenentzat: *piper egitea* lehen, zen, urteko egiten zenaz gain, mutil nagusien arteko tratua ez betetzea, ez zutelakoz adostasunean betetzen ahal ukaiten urteko egina zuten tratua. EPD (Ereduzko Prosa Dinamikoa), *Luzaiden gaindi 2*, Angel Aintziburu (Elkar, 2009: 72).
- (1.77) KARLOS.— Mariano agertuko balitz. *Hots egidak* telefonoz... berehala etorriko nauk. Goenkale corpora, 34 atala, Hogeita hamaika eskutik, Sek.:7.

Aditz-lokuzio horien esanahia ezin denez osagaien esanahietatik eratorri, esanahia aurrean ezina dela esan dezakegu<sup>43</sup>.

Beste batzuetan, bi adierak dira posible; adiera idiomatikoa nahiz adiera konposizionala edo osagaien esanahietatik eratortzen dena. Bi irakurketak posible direla erakusten dute *arraun egin* aditz-lokuzioaz osatutako adibide hauek:

- (1.78) Estatuaren aparatu desberdinek ez dute norabide *berean arraun egiten*. (irakurketa idiomatikoa edo metaforikoa)

<http://www.argia.com/argia-astekaria/2298/inigo-iruin/inprimatu>

- (1.79) Lagunei gogor *arraun egiteko* agindu nien, heriotzetik ihes egin ahal izateko. (irakurketa idiomatikoa). EPG, *Ulises*, Homero / Juan Kruz Igerabide (Erein, 2000: 64). (irakurketa konposizionala)

Esanahi idiomatikoa duten egiturak ekintza orokorreari erreferentzia egiteko erabiltzen direla erator daiteke Nunbergen (1994) aipamen honetatik:

---

<sup>43</sup> Hala eta guztiz ere, desberdintasunak atzeman ditzakegu lokuzioa osatzen duten osagaien esanahia dela eta; *piper egin* egituraren esanahia guztiz aurrean ezina den arren, *hots egin* egituraren esanahiak osagai bakoitzaren esanahiarekin lotura baduela esan dezakegu. Edozein kasutan, esanahi idiomatikoa aditz-lokuzio gutxi batzuen ezaugarri bereizgarritzat hartuko dugu, ez guztiena.

«Idioms are typically used to describe -and implicitly- to explain- a recurrent situation of particular social interest (becoming restless, talking informally, divulging a secret or whatever) in virtue of its resemblance or relation to a scenario involving homey, concrete things and relations -climbing walls, chewing fat, spilling beans», (Nunberg 1994: 493).

Aitzitik, ekintza jakin ez orokor bati erreferentzia egiteko, esanahi konposizionala duen egitura iragankor arrunta erabiltzea espero dugu<sup>44</sup>.

Beraz, aditz-lokuzio idiomatikoak, euskaraz ere, eguneroko ekintzak adierazteko erabiltzen direla esan dezakegu, baina horrek ez du esan nahi eguneroko ekintzak adierazteko erabiltzen diren aditz-lokuzio guztiek esanahi metaforikoa dutenik. Ekintza orokorrak adierazteko darabilgun aditzen artean, askoz ugariagoak dira esanahi konposizionala duten lokuzioak esanahi idiomatikoa dutenak baino. Aditz-lokuzioen arteko desberdintasun semantikoez eta sintaktikoez sakonkiago arituko gara 3. kapituluan<sup>45</sup>.

### 1.3. OSAGAIEN DESKRIBAPENA

1.2 azpisailean aditz-lokuzio egituraren osagaien ezaugarri orokor batzuk aipatu ditugu eta azpisail honetan xehetasunez deskribatuko ditugu aditz-lokuzioan parte hartzen duen izena eta *egin* aditza, osagai horiek ez ezik, aditz-lokuzio egitura osotasunean aintzat hartuz.

---

<sup>44</sup> Aditz-lokuzio motako egiturak eguneroko ekintzei edota ekintza orokorrei erreferentzia egiten dieten egitura gisa deskribatu dira hizkuntzetan zehar, eta Mithunek (1984) "instituzionalizatu" ideia darabil giza talde batek atzematen duen eguneroko ekintzari erreferentzia egiteko: «*The activity or quality designated by the NV compound is viewed as a recognizable, unitary concept, rather than the chance co-occurrence of some action or state and some activity*», (1984: 850). Mithunen ideia aditz-lokuzioak semantikoki deskribatzeko baliagarria izan dakiguke, aditz-lokuzioak eguneroko ekintzei erreferentzia egiten dieten heinean.

<sup>45</sup> Egitura idiomatikoak sintaktikoki zurrunik izateagatik bereiz ditzakegula aipatu dugu. Egitura idiomatikoaren muga sintaktikoez ikus Rodriguez eta Murga (2003).

Izenari dagokionez, determinazioaz, erreferentzialtasunaz eta izen sintagmak egituran betetzen duen funtzioaz arituko gara. Egitura iragankor arruntean parte hartzen duen izenarekin alderatuz, aditz-lokuzioaren izenak muga morfosintaktikoak eta semantikoak dituela ikusiko dugu.

Aditzari dagokionez, *egin* aditza arina izatea zertan datzan azalduko dugu, euskaraz nahiz beste hizkuntzetan, eta aditz-lokuzioak aspektuari dagokionez deskribatuko ditugu, Dowtyk (1979) proposatutako testak aplikatuz.

### 1.3.1. IZENA

Izenak sailkatzeko erabili izan den irizpideetako bat izen arrunt versus izen berezi bereizketa izan da, eta horien artean bereizteko irizpide formala eta irizpide semantikoa biak baliatu dira.

Formari dagokionez, baldintzapen morfologikoez hitz egin dezakegu aditz-lokuzioen izena deskribatzeko<sup>46</sup>. Irizpide semantikoari dagokionez, izen bereziek erreferentzia zehatza dute, izen arruntak, ordea, kategoria jakin bateko elementuak izendatzeko erabiltzen dira<sup>47</sup>. Irizpide morfologikoa eta semantikoa batzuetan gurutzatu egiten dira. Eta hala, adibide hauetan dakusagunez, erreferentzia jakinik ez duen izena determinatzaile duna da (*euria*) eta erreferentzia jakina duena (*Mikel*) determinatzailerik gabekoa:

(1.80) *Mikel* etorri da

(1.81) *Euria* egin du

Baina, edozein izenek ez du aditz-lokuzio egituran parte hartzen. Aditz-lokuzioak egitura emankorrak diren arren eta aditz-lokuzioetan parte hartzen

<sup>46</sup> Aditz-lokuzioen izena arrunta denez, berezia dela ikusi dugu, determinatzailea behar duela dion araua betetzen ez den heinean, SEG, (ikus 1.2. eta 1.3.1.1.).

<sup>47</sup> Izenak sailkatzeko beste irizpideak, zenbakarri / zenbakaitza, neurgarri / neurgaitza, bizidun / bizigabea izan dira. Horrez gain, izena bakun eta konplexu gisa sailkatu izan da, baita eratorri eta konposatu gisa ere, bere barne-egituraren arabera.

duten izenak ugariak diren arren, talde itxi bat osatzen dutela esan dezakegu, aditz-lokuzioek talde itxi bat osatzen duten moduan.

Zabalak aipatzen duenez (2004), *egin* aditzarekin aditz-lokuzioa osatzen duten osagaien artean, badira gutxi batzuk beste testu-inguru sintaktikoetan agertzen ez direnak. Hala nola *turrut egin*, *laprast egin* eta *diz-diz egin* aditz-lokuzioen osagai diren *turrut*, *laprast* eta *diz-diz* elementuak izenak diren galde diezaiokegu geure buruari, baita, *alde*, *ospa*, *leher* eta *irrist* osagaiak zer diren ere. Izan ere, *turrut*, *laprast*, *leher* eta *irrist* osagaiak ez dira hiztegieta azaltzen<sup>48</sup>.

Aditz-lokuzioetan parte hartzen duten izenek badituzte ezaugarri komun batzuk; guztiak dira izen arruntak eta guztiak dira bizigabeak. Aditz-lokuzio egituretan izen berezirik eta izen bizidunik ez egotea, aditz-lokuzioaren osagaia subjektua edo egilea ez izatearekin bat dator, aipatu dugu aditz-lokuzioan parte hartzen duen osagaia nahi eta nahi ez objektua dela<sup>49</sup>.

Aditz-lokuzioetan parte hartzen duten izenen beste ezaugarri komuna, ez erreferentzialtasuna da. Baina, ezaugarri horrez gain, zaila da aditz-lokuzioen izen guztiak bil ditzakeen ezaugarri semantikoa aurkitzea.

Izenak bi talde nagusitan sailkatu dira tradizionalki: izen zehatzak, batetik, emaitza adierazten dutenak, eta, prozesu edo izen abstraktuak, bestetik, Anderson (1983-1984), Lebeaux (1986), Zubizarreta (1987), eta abar. Konkreto

<sup>48</sup> *Irristada* eta *laprastada* topatu ditugu Euskaltzaindiaren Hiztegi (2012), baina ez *irrist* edo *laprast*. *Alde* izena ere topatu dugu, baina, *gauza baten ingurua*, *zati*, *lurralde*, *alderdi* edota *gorputz atala* esanahiaz. *Diz-diz*, adizlagun kategoria moduan agertzen da eta *turrut* soinu onomatopeiko moduan deskribatzen da. Elhuyar hiztegi, *turrut egin* azpisarrera dago, *burla egin* eta *porrot egin* adierak dituena, *turrut*, soilik, ordea, ez da agertzen. *Ospa interj.* ihartu modura agertzen da, *alde!* eta *hanka!* sinonimoak bezala, eta *norbaiti dagoen tokitik alde egin dezala* adierazteko erabiltzen den izen gisa deskriba daiteke.

<sup>49</sup> 2. kapituluaren ikusiko dugu izen inkorporazioaren oinarrian dauden hatsarreak ere baliagarriak zaizkigula subjektuen inkorporazioa ezinezkoa dela erakusteko.

versus abstraktu irizpidean oinarrituz, aditz-lokuzioen osagai diren izenak abstraktuak edo konkretuak diren galde diezaiokegu geure buruari.

Batetik eta izenean soilik erreparatuz, esan dezakegu ugariak direla aditz-lokuzioetan parte hartzen duten izen konkretuak, oro har, objektu zehatzei erreferentzia egiten dieten izenak. Hala nola *dantza, oihu, kaka, barre, dei, otoitz, birao, apustu, hitz, bekatu, hanka, hatz*, eta abar, izen konkretu eta zenbagarriak dira. Bestetik, badira aditz-lokuzioen izenen artean izen abstraktuak edo objektu zehatzei erreferentzia egiten ez dietenak. Ekintza mentalak adierazten dituzten aditz-lokuzioen izen hauek nahiz besteak: *amets, hausnar, duda, min, aurre, arrantza, ehiza*, eta abar. Hauetako asko zenbakaitzak dira; *hausnar, aurre, ehiza, arrantza*, eta abar, baina ez guztiak; *amets bat, min bat, duda bat*, etab.

Dena den, badira ere aditz-lokuzio egituretan parte hartzen ez duten izen konkretuak. Hala nola *\*etxe egin, \*mahai egin, \*liburu egin*, eta abar, baita aditz-lokuzioetan parte hartzen ez duten izen abstraktuak ere. Hala nola *\*amorrú egin, \*poz egin, \*alaitasun egin, \*tristura egin, \*beldur egin*, eta abar.

Beraz, konkretu / abstraktutasuna (objektu konkretu bati erreferentzia egitearen zentzuan) edota zenbakarria / zenbakaitza ezin dira irizpide bereizgarriak izan aditz-lokuzioetan parte hartzen duten izenak deskribatzeko.

Beste ildotik eta Uribe-Etxebarriari jarraituz (1989), jardueren taldean koka daitezkeen izenak abstraktutasun komuna duten osagai gisa deskribatu izan dira. Ideia hori aditz-lokuzioen izenei aplikatuz, bereizketa bat egin dezakegu jarduera baliorik ez duten eta jarduera balioa izan dezaketen izenen artean, aditz-lokuzioen izenak azken mota horretakoak izanik. Hau da, izena, edozein motatakoa izan ba daiteke ere, konkretua edo abstraktua, jarduera adierazteko erabiltzen den osagai gisa deskriba genezake, *egin* aditzarekin aditz-lokuzio egitura konplexua osatzen duenean.

Leechek (2006), halaber, abstraktu gisa deskribatzen du aditz arinaz osatutako egituraren izena, *light verb construction* egitura definitzeko egiten duen saiakeran:

*«The light-verb construction is built by combining three elements: (i) a so-called light verb like make or have; (ii) an abstract noun like claim or hope; (iii) a phrasal modifier of the noun which supplies most of the content of the sentence. The following are typical examples of the construction:*

*a. John made the claim that he was happy», (Leech 2006: 25).*

Aztergai ditugun aditz-lokuzioen izena, aditzarekin egitura konplexu bat osatzen duena, erreferentzia jakinik ez duen heinean eta jarduera adierazten duen heinean deskriba dezakegu abstraktu gisa. Gauzak horrela, jarduera bat adierazten ez duen izen zehatzak, lokuzio-egituraren osagai ez izatea uler dezakegu. *Etxe* izenak, esate baterako, ez du jarduerarik adierazten; aitzitik, *egin* astunak adierazten duen sortzearen ondorio den emaitza adierazten du. Horregatik uler dezakegu \**etxe egin* edo motako lokuziorik ez existitzea.

Aditz-lokuzioen izenak egitura iragankor arrunten izenekin alderatuz bereziak direla erakutsiko dugu ondoren. Hainbat ezaugarri morfologiko, semantiko nahiz sintaktikotan oinarrituz, aditz-lokuzioaren izenak, mugak erakusten dituela ikus dezakegu egitura iragankor arrunten izenarekin alderatuz:

a.- Muga morfosintaktikoak: ISren modifikatzaileak:

.- Alde batetik, determinazioari dagozkion mugak ikusi ditugu. Aditz-lokuzio askoren izen arrunta determinatzailearik gabekoa izan arren egitura gramatikala dela ikusi dugu. Aitzitik, determinatzailearik gabeko izen arruntaz osatutako IS ez

da gramatikala egitura iragankor arruntean<sup>50</sup>. Ildo beretik, lokuzio izenak ez du modifikatzailearik onartzen. Aditz iragankor arrunta dugunean o.z. funtzioa betetzen duen izen sintagmaren buruak, berriz, modifikatzailea onartzen du<sup>51</sup>:

Aditz-lokuzioa:

(1.82) \*negar luzea egin du

(1.83) \*hitz polita egin du

Aditz iragankor arrunta:

(1.84) liburu interesgarria irakurri du

.- Aditz-lokuzioen izenek ez dute *zein* galdera-hitzaz osatutako galderarik onartzen, egitura iragankor arruntaren izenek, ordea, bai:

Egitura iragankor arrunta:

(1.85) Zein liburu irakurri zuen Mikelek?

Aditz-lokuzioa:

(1.86) \*Zein dantza egin zuen?

(1.87) \*Zein lo egin zuen?

*Zein* galdera-hitzaz osatutako galdera ez onartzea, bat dator modifikatzailearik ez onartzearekin, baita determinatzailearik ez onartzearekin ere, *zein* galderari

---

<sup>50</sup> Egitura iragankor arrunt honetan ikus dezakegunez, determinatzailearik gabeko izen arruntaz osatutako egitura ez da gramatikala; beraz, determinatzailea ezinbestekoa da baiezkotako egituraren eta partitiboa ezezkoan:

(i) \*Mikelek *etxe* erosi du / Mikelek *etxea* erosi du. (egitura iragankor arrunta)

(ii) \*Mikelek ez du *etxe* erosi / Mikelek ez du *etxerik* erosi. (egitura iragankor arrunta)

Aitzitik, determinatzailearik edota partitiborik gabeko IS duen egitura gramatikala da aditz-lokuzioa dugunean:

(iii) Mikelek *negar* egin du / Mikelek ez du *negar(ik)* egin (lokuzio egiturak)

<sup>51</sup> Modifikatzailearik ez onartzeak ba du loturarik DS ez izatearekin.

erantzutean, izenari buruz informazio zehatza ematen ari garelako edota izena mugatzen ari garelako.

.- Aditz iragankor arruntean osagarri zuzen funtzioa betetzen duen sintagmaren buruak genitiboz markatzen diren osagarriak onar ditzake, aditz-lokuzioetan o.z. funtzioa betetzen duen sintagmaren buruak ez du honelakorik onartzen:

Egitura iragankor arrunta:

(1.88) amaren / eskolako liburua irakurri du

Aditz-lokuzioa:

(1.89) \*amaren barre egin du

(1.90) \*eskolako amets egin du

.- Uribe-Etxebarriak (1989) aipatzen duenez, zenbait euskalkitan osagarri zuzen funtzioa betetzen duen sintagmaren izena genitiboz marka daiteke mendeko infinitibozko egituretan, aditz-lokuzioaren izena inoiz ez, (Uribe-Etxebarria 1989: 3):

(1.91) pro lagunaren ikustera noa

(1.92) \*pro hitz-aren egitera noa

b.- Muga semantikoak: izena ezabatzea

Murriztapen semantikoan oinarrituz, [I+egin]<sub>A</sub> konplexuaren esanahia izenean oinarritzen dela aipatu dugu eta aditzaren esanahi mugatuarekin konbinatuz esanahi sendoa duen aditz konplexua lortzen dela. Beraz, aditzaren muga semantikoaren ondorioz, izen horiek ezinbestekoak dira adiera osoa duen predikatu bat lortzeko. Adibide honek izenaren eta aditzaren arteko lotura erakusten du eta ageriko izena ezinbestekoa dela [I+A] dakusagu *alde egin* aditz-lokuzioa dugunean :

(1.93) Mikelek alde egin du

(1.94) \*Mikelek egin du

Egitura iragankor arrunta dugunean, berriz, osagarri zuzen funtzioa betetzen duen sintagma sintaktikoki askea da. Are gehiago, IS objektua agertzea ezinbestekoa ez dela erakusten du (1.96) adibideak, IS eliptikoa izan daitekeela, alegia:

(1.95) Mikelek liburua irakurri du

(1.96) Mikelek irakurri du (testuinguru jakin batean)

Aditz-lokuzio idiomatikoa dugunean, izena ezin da sinonimo batez edo antzeko esanahia duen kategoria bereko elementu batez ordeztu. Esanahi idiomatikoa ez da osagaietatik eratortzen, eta ondorioz, zentzurik ez duen egitura bat lortzen dugu, izena beste elementu batez ordeztuz.

Egitura iragankor arrunt honetan, ordea, posible da aditzaren osagarria ordezte, esanahia konposizionala delako:

(1.97) Mikelek liburua / ipuina / olerkia irakurri du (egitura iragankor arrunta)

(1.98) Mikelek *hanka egin du* / *\*oin egin du* (aditz-lokuzio idiomatikoa)

c.- Muga sintaktikoak:

.- Lokuzio izenek ez dute egitura pasiboa onartzen, egitura iragankor arruntan izenek, ordea, bai:

(1.99) liburua irakurria izan da

baina,

(1.100) \**Negar* / \**amets* / \**barre egina* izan da

.- Lokuzioaren izenak ezin du erlatibozko perpaus baten aurrekari gisa funtzionatu; egitura iragankor arruntetan osagarri zuzen funtzioa betetzen duten sintagmen izenek, ordea, bai:

(1.101) Mikelek *irakurri zuen liburua* interesgarria zen

baina,

(1.102) \*Mikelek *egin zuen hitz / negar* hunkigarria izan zen

Aditz-lokuzioaren ISren kokapena eta egitura iragankor arruntaren IS absolutiboaren kokapena ez datozela bat atzematen du Oyharcabalek (2006), *ongi* eta *gaizki* moduzko adberbioak jokoan direnean. Horrez gain, egitura horien artean ordena neutroaren eta markatuaren arteko desberdintasunak daudela erakusten du. Egitura iragankor arruntetan, *ongi* adberbioa ez da subjektuaren eta objektuaren artean ageri, ordena neutroa denean. Aitzitik, osagarri zuzenaren eta aditzaren artean ageri da, oro har, (Oyharcabal 2006: 794)<sup>52</sup>:

(1.103) Pellok zure lana *ongi* egin du. (hitz-ordena neutroa)

baina,

(1.104) Pellok *ongi* zure lana egin du (hitz-ordena markatua)

Aditz-lokuzioaz osatutako egitura dugunean, ordea, kontrako jokaera atzematen du. Aditz-lokuzioaren ISren aurreko adberbioa, hitz-ordena neutroarekin bat dator eta adberbioa ISren eta aditz arinaren artean kokatzen denean, hitz-ordena markatua da:

(1.105) Pellok *ongi* lan egin du (hitz-ordena neutroa)

---

<sup>52</sup> «*In ordinary transitive sentences with SOV order, it is unusual for manner adverbs (ADV<sub>man</sub>) such as ongi 'well' and gaizki 'badly' to occur between S and O; the unmarked order is S-O-ADV<sub>man</sub>, as illustrated by the following examples*», (2006: 794).

(1.106) ?Pellok lan ongi egin du<sup>53</sup> (hitz-ordena markatua)

Are gehiago, hainbat kasutan atzematen dugunez, ISren aurreko kokapena da adberbioaren kokapen bakarra, bestea ez gramatikala delako:

(1.107) Mikelek ongi hitz egin zuen (hitz-ordena neutroa)

(1.108) \*Mikelek hitz ongi egin zuen

.- Aditz-lokuzio batzuen izenek, banaezina den unitatea osatzen dute *egin* aditzarekin<sup>54</sup>. Egitura iragankor arrunten izenak, ordea, aske mugi daitezke egituran zeha, beraz, hitz-ordena desberdinak posible dira:

(1.109) Mikelek liburua irakurri du

(1.110) Liburua Mikelek irakurri du<sup>55</sup>

(1.111) Mikelek hitz egin du

(1.112) \*Hitz Mikelek egin du

Adibide horiek erakusten dutenez, *hitz egin* aditz-lokuzioaren osagaiak banatu ezin den unitatea osatzen dute. [+egin] osagaien arteko lotura eta hurrenkera dela eta egon daitezkeen desberdintasunak 3. kapituluan aztertuko ditugun arren, atal honetan, aditz-lokuzioen izenaren eta aditz iragankor arrunten izenaren arteko hainbat desberdintasun azaldu ditugu.

### 1.3.1.1. DETERMINATZAILEA

Sail honetan determinatzailearen hedaduraren berri emango dugu, eta horretarako, euskaraz aurkitzen ditugun testuinguru mugatu eta mugagabeak aurkeztuko ditugu. Aditz-lokuzioak mota desberdinetakoak direla ikusiko dugu

<sup>53</sup> Oyharçabalek egitura horri galdera ikurra jartzen badio ere, perpaus horren gramatikaltasuna ez da zalantzazkoa mendebaldeko hiztunentzat.

<sup>54</sup> Hala eta guztiz ere, hori ez da aditz-lokuzioaren ezaugarria bakarrik, esanahi idiomatikoa duten egitura guztien ezaugarria baizik.

<sup>55</sup> Beste hitz-ordenak ere dira posible.

determinatzaileari dagokionez eta irizpide hori aintzat hartuz azpisailak egingo ditugu.

Determinatzaile Sintagmaren hipotesia euskararen funtzionamendua deskribatzeko egokitzat hartuz, aipatutako araua gogora dezakegu:

(1.113) Izen Sintagma euskaraz gramatikala izateko determinatzaile batez markatua izan behar da. Hau da, izen gutxi batzuk alde batera utzita, izen bereziak<sup>56</sup>, esate baterako, izen-sintagma osatzeko behar-beharrezkoa da determinatzailea, SEG<sup>57</sup>, (<http://www.ehu.es/seg/morf/5/6/0>).

Artiagoitiak SEGn aipatzen duenez, tradizionalki izen-sintagma deitu izan den egitura-multzoaren izenak determinatzaile deitu daitekeen elementu funtzionalaren behar larria du eta forma hutsaren ikuspegitik, behintzat, determinatzaile hori izena bezain garrantzitsua da, (<http://www.ehu.eus/seg/morf/5/6/0>).

Gauzak horrela, determinatzaile sintagmaren egitura adierazten duen araua hauxe genuke<sup>58</sup>, euskaraz:

(1.114) DS → IS+D

<sup>56</sup> SEGn aipatzen denez, izen bereziak ez dute determinatzaileari behar izen sintagma osatzeko. Ezaguna den erreferentzia bakarreko gizakiak edo objektuak izendatzen dituzte eta izen arruntekin alderatuta, ematen du izen bereziak inkorporatua dutela artikulua, azken horrek "lehen aipatua den" balio ezaguna izanik. Horregatik dira berezi, hain zuzen ere, (<http://www.ehu.es/seg/morf/5/6/0>).

<sup>57</sup> SEGn aipatzen denez, (<http://www.ehu.es/seg/morf/5/6/0>), *Miren* bezalako izen bat nahikoa da izen sintagma osatzeko, baina, izen berezia salbu, izen hutsa ez da nahikoa sintagma gramatikala osatzeko. *Bi* eta *hori* determinatzaileak, berriz, nahikoa dirudite izen sintagma osatzeko, testuinguruaren arabera izenen bat egongo delako isilpean. Beraz, hemendik erator daiteke, izen bereziak alde batera utzita, determinatzailea ezinbestekoa dela, euskaraz, IS osatzeko, (SEG).

<sup>58</sup> DSri buruzko xehetasunak ikusteko, Artiagoitia (1998), Trask (2003) eta Oyharçabal (2006).

Jakina denez, sintagma motak bereizteko sintagmaren burua zein den hartzen da aintzat hizkuntzalaritzan, hau da, «delako sintagma batek burua (edo gunea) duen gramatika kategoriaren izena hartzen du», SEG, (<http://www.ehu.es/seg/morf/5/3>).

Hori aintzat hartuz, aditz-lokuzioen artean bi mota hauek bereiziko ditugu; ISz osatzen diren lokuzioak (izen hutsaz osatzen direnak) eta DSz osatzen direnak (-a determinatzaile-dun izenez osatzen direnak)<sup>59</sup>. Azken horietan determinatzailea ezinbestekoa da, baita IS horren burua erreferentzialtasunarekin bat ez datorrenean ere (1.3.1.2.).

Beraz, DS kontsideratuko ditugu IS gisa deskribatu izan diren hainbat egitura. Izan ere, badira arrazoiak *etxea* edo *liburua* gisako sintagmaren burua -a determinatzailea dela baieztatzeko eta determinatzaile horrek osagarri moduan IS hartzen duela pentsatzeko, Artiagoitia (1998). Determinatzaileaz markatu behar direlako azal ditzakegu izen arruntaz osatzen diren adibide hauen gramatikaltasun emaitzak:

(1.115) Mikelek liburua erosi du / \*Mikelek liburu erosi du

Baina, badira, euskaraz, arau horren kontra, gramatikalak diren determinatzaile-rik gabeko izenez osatutako egiturak eta aztergai ditugun aditz-lokuzio gehienak determinatzaile-rik gabeko egituren azpitalde honetan koka daitezke:

- Izen bereziaz osatutako egiturak (1.116)
- Egitura partitiboa (1.117)
- Bokatiboz eta harriduraz markatutako testuinguruak (1.118)
- Osagarri predikatiboez osatutako egiturak (1.119)
- Aditz-lokuzioez osatutako egiturak (1.120)

<sup>59</sup> Bietara erabil daitezkeen gutxi batzuk salbu (ikus 29. oin-oharra).

Egitura mota horietako bakoitzari dagozkien adibide bana bana hauek izan zitezkeen:

(1.116) *Mikel* etorri da

(1.117) Ez dut dirurik

(1.118) Hi lagun, etorri hona!

(1.119) Mikel soldadu joan da<sup>60</sup>

(1.120) Mikelek negar egin du

Izen hutsa edo *bare noun* deritzona, beraz, aditz-lokuzioen izenaren bereizgarritzat har dezakegu, egitura iragankor arruntetan edo *egin* aditz sendoaz osatutako egituretan determinatzailearik gabeko izen arrunta ez gramatikala baita.

Hala ere, desberdintasunak atzeman ditzakegu, aditz-lokuzioaren izenaren determinazioari dagokionez ere. *Hotz(a) egin eta bero(a)egin* aditz-lokuzio meteorologikoen eta meteorologikoen ez diren *eztul(a) egin* eta *arnas(a) egin*

---

<sup>60</sup> Adibide horretan, *soldadu* morfologikoki izena da, eta aldi berean IS, baina ez DS, determinatzailearik ez dagoelako. Semantikoki, nolakotasuna adierazten duen elementua da, osagarri predikatibo ((SEG eta Euskaltzaindia (1991)), bigarren mailako predikatu (SEG), edo predikatu adjuntu deituraz deskribatua, Zabala (2004) eta besteak. Adibidean, Mikeli buruz *soldadu* joatea predikatzen dugu eta horixe da osagarri predikatiboa. Izan ere, izen sintagma (edo DS) bati buruz predikatzen duelako deitzen zaio osagarri predikatiboa, hain zuzen ere. Mota berekoak dira, *izendatu*, *hautatu*, *hartu*, *aukeratu*, *bilakatu*, *bihurtu*, *egon*, *bidali*, eta abar. Hala nola *presidente izendatu* egituraz topatutako adibidea:

(i) Adnan Patxatik karguari uko egin ondoren, Gazi Al Jauar sunita *izendatu* dute behin-behineko *presidente*. EPG, *Berria*, Mundua, «36 pertsona hil dira gobernu berria sortu den egunean, bi erasotan», Kristina Berasain (2004-06-02).

Literaturan aurki ditzakegun aditz bakan batzuek, bestalde, o.z. funtzioa beteko lukeen izen mugagabea daramate. Baina, azken hauek ez dirudite sail luzeago baten adierazle, (Euskaltzaindia 1991b: 11):

(ii) baimen / barkhamendu / kontu eskatu

(iii) eremu galdu

(iv) gaitz erran

lokuzioek, bi aukerak onartzen dituztela ikus dezakegu adibide hauetan, determinatzailekun izenez nahiz determinatzailekerik gabeko izenez osatutako egiturak, alegia:

(1.121) Irekiko al didazu atea, *hotz egiten* du eta!

[http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/irradi-nobelak-fitxa?p\\_p\\_id=56\\_INSTANCE\\_0Hhd&p\\_p\\_lifecycle=0&p\\_p\\_state=normal&p\\_p\\_mode=view&p\\_p\\_col\\_id=column-1&p\\_p\\_col\\_count=1&articleId=120630&groupId=10138](http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/irradi-nobelak-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_0Hhd&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&articleId=120630&groupId=10138)

(1.122) *Hotza egiten du*. Hace frío.

<http://tatoeba.org/spa/sentences/show/412692>

(1.123) *Beroa egiten duenean* Joxe eta Manurekin auzoko hondartzara joaten da neskak ikustera. EPG, *Bizia lo*, Jokin Muñoz (Alberdania, 2003: 87).

(1.124) Isiltasun sakon bat geratu zen etxe osoan: inork ez zuen ezer jan nahi, *bero egiten zuen* oraindik eta oso bitxia gertatzen zen dena. EPG, *Anne Franken egunkaria*, Anne Frank / Josu Zabaleta (Erein, 2004: 32).

(1.125) -Ez diogu utziko, noski - Einsteinek *eztul egin* zuen, hasieran leun, baina gero eta bortitzago. EPG, *Gloria Mundi*, Fernando Morillo (Elkar, 2004: 94).

(1.126) Bigarren txalupa oso hurbil zegoen; motoreak *eztula egin* zuen eta lasai hasi zen purrustadaka. EPG, *Manhattan Transfer*, John Dos Passos / Lopez de Arana (Ibaizabal, 1999: 434)

(1.127) Bukatzen zuenean haren gainean jarri eta bere gorputzarekin beldur guztiak uxatzen zizkiolako eta ez zuelako hitz egiten, *arnasa egiten zuen* eta kito, eta han egoten zen. EPG, *Zenbaki lehenen bakardadea*, Paolo Giordano / Koldo Biguri (Alberdania, 2009: 230).

(1.128) [...] baina nengoen egoeran, kartzelan alegia, ez nuela probetxuzko gauza askorik egiterik, ez zela lehen bezala, aske nintzenean, gora eta behera nenbilenean, lo egiteko denborarik gabe, *arnas egiteko* denborarik gabe, ez zela borrokan zoriontsu bizi nintzen. EPD, *Ospitalekoak*, Mikel Antza (Susa, 2010: 142).

Aditz-lokuzio horiek alternantzia erakusten badute ere, ugaritasunari dagokion desberdintasunak atzematen ditugu EPG eta EPD *corpusetan* topatu ditugun bi erabilera horien artean. *Arnasa egin* aditz-lokuzioaz osatutako adibideen kopurua, *arnas egin* aditz-lokuzioaz osatutakoekin alderatuz bikoitza da. *Eztul egin* aditz-lokuzioaz osatutako adibideen kopurua, ordea, *eztula egin* aditz-lokuzioaz osatutako kopuruaren bikoitza da. Gertakari meteorologikoei erreferentzia egiten dieten, *bero(a) egin* eta *hotz(a) egin* aditz-lokuzioei dagokionez, ohikoagoak dira determinatzailearik gabeko *bero egin eta hotz egin* egiturak, determinatzailearen izena<sup>61</sup> dutenak baino.

Aipatu dugu, determinatzailea agertzeak ez duela ondorio semantikorik, beraz, sinonimo gisa deskriba ditzakegu *hotz egin / hotza egin*, *bero egin / beroa egin*, *eztul egin / eztula egin* eta *arnas egin / arnasa egin* aditz-lokuzioak<sup>62</sup>:

*Sargori egin* gertakari meteorologikoari erreferentzia egiten dion aditz-lokuzioa, bestalde, determinatzailearik gabeko izenaz osatzen da, adibide honetan ikus dezakedun moduan:

<sup>61</sup> EPG *corpusetan* aurki daitezkeen *hotza egin / beroa egin* motako egitura gehienak ez dira aditz-lokuzio egiturak, bestelako egitura iragankor arruntak baizik:

(i) Santo Tomas bezpera da eta *egundoko hotza egiten* du. EPG, *Piano gainean gosaltzen*, Harkaitz Cano (Erein, 2000: 108).

<sup>62</sup> (i) Arnasa sakon hartu, eta *eztul egin* zuen. EPG, *Hilabete bat Montalbanoarekin*, Andrea Camilleri / Fernando Rey (Igela, 2011: 336).

(ii) Pianoa, tabernako barra hura balitz bezala dago jarrita: ehun eta berrogei urteko agureak *eztula egin* eta pianoa jotzen jarraitzen du. EPG, *Piano gainean gosaltzen*, Harkaitz Cano (Erein, 2000: 155).

(1.129) JOSEMARI.— *Sargori egiten* du gaur, e? Goenkale corpora, 1002 atala, Gizona bere bakardadean, Sek.: 6.

Horrez gain, *eguzki egin* eta *huri egin* aditz meteorologikoez osatzen den egitura bat aurkitu dugu, eta, *eguzkia egin* nahiz *huria egin* egituren kopuru esanguratsua aintzat hartuz, salbuespentzat hartuko dugu adibide hau:

(1.130) Marigorringo bat topatu agudo, gaur bertan! Eta eskuan goxo-goxo hartu, hatz puntta baterantz igotzen utzi, eta kantatu: doinu gabe edo doinua asmatuta —: Marigorringo —, Marigorringo, bihar ta etzi eguzkia egingo! Eta itxaron. Hegan egin ez badizu, abestu beste hau —: Marigorringo —, Marigorringo, *bihar eguzki etzi huri egingo*.  
<https://euskaljakintza.wordpress.com/2009/07/01/marigorringo/>

Determinatzailedunak dira, ordea, egitura hauek guztiak:

Egitura existentzialak (1.131)

Aurkezpen egiturak (1.132)

Testuinguru generikoak (1.133)

*Eskatu / galdu / bilatu / behar izan / aukeratu* eta antzeko predikatuez osatutakoak (1.134)

Aditz-lokuzio meteorologikoak (1.135)

Egitura horien adibideak hauek izan litezke, hurrenez hurren:

(1.131) Bada ardoa ganbaran<sup>63</sup>

(1.132) Lehenengo kapitulua

(1.133) Ura gardena da

(1.134) Dirua behar dut

---

<sup>63</sup>-A artikulua mugatzaileaz osatutako egitura existentzial horien ondoan, artikulurik gabekoak aurki daitezke ekialdeko euskalkietan:

(i) bada ardo

## (1.135) Elurra egin du

Lokuzio meteorologikoak talde horretan txertatzea bidezkoa dirudi, zehaztasunari erreferentzia egiten ez dion determinatzailearen agerrera ari garenean. Egitura horien guztien ezaugarri semantiko bereizgarria da, -a determinatzaileaz burutzen den izena ez erreferentziala izatea. Beraz, aditz-lokuzioaz osatutako adibidean, aditzaren eta izenaren arteko loturaren ondorioz, ekintza adiera semantiko unitarioa lortzen da eta adiera horrek ez du zer ikusirik semantikoki astuna den *egin* aditzaren *zerbait sortzearen* adierarekin.

Determinazioa -a artikuluari mugatzen zaiola aipatu dugu, *asko* zenbatzaileaz osatutako adibide urriak aurki daitezkeen arren, beraz, beste edozein aukera ez gramatikala da, lokuzio egituraz ari garenean. Gauzak horrela, egitura iragankor arrunt batean posible litzatekeen determinatzailearen ordezkapena ezinezkoa da aditz-lokuzio meteorologikoa dugunean:

(1.136) *Elurra egin du*<sup>64</sup>

baina,

(1.137) \**Elur hori egin du*(1.138) \**Elur bat egin du*(1.139) \**Elurrak egin ditu*


---

<sup>64</sup> *Asko* zenbatzaile mugagabeaz osatutako egiturak aurki daitezke, baina, horietan ere, gertakari meteorologikoari buruzko informazioa ematen ari garela uste dugu, ez izena soilik zenbakiari dagokionez mugatzen. *Euria egin* aditz-lokuzioaz osatutako adibide honetan, aditzak singularrean komunztatzen duela dakusagu:

(i) *Euri asko egin du* egun hauetan, eta zenbait lekutan ibai eta errekek hazita doaz. EPG, *Berria*, Harian, (2005-2006).

(ii) *Liburu asko irakurri ditu*

Azken adibidean, *asko* zenbatzaileak *liburu* kopurua mugatzen du, ez aditzak adierazten duen ekintza, eta hala islatzen du aditzean ageri den komunztadura pluralak.

Gertakari meteorologikoari erreferentzia egiten dion izenak edozein determinatzaile onartzen ez duenez, lokuzio meteorologikoen determinazio mugatuaz hitz egin dezakegu.

Determinatzailerik eza, aditz-lokuzioak aditz-lokuzio ez diren pareko egitura iragankor arruntetatik bereizteko ezaugarria izan daiteke, bi aukerak gramatikalak diren kasuetan<sup>65</sup>. *Lan egin* versus *lana egin* / *lanak egin* bi egitura horien arteko kontrastea dakusagu adibide hauetan, izen +/- determinatzaileduna, bi aukerak posible direnean:

(1.140) Denok *lan egiten* dugu, eriek izan ezik. EPG, *Hau gizon bat bada*, Primo Levi / Mikel Irurtia (Alberdania, 2011: 37).

(1.141) *Lana eginarazten diot*, majo, azalak zuritzen, bata bestearen atzetik. EPG, *Fahrenheit*, Ray Bradbury / Nagore Tolosa (Txalaparte, 2010: 41).

(1.142) *Lanak egiten* eta bikainak lortzen jarraituko nuen, gai bainintzen horretarak. EPG, *Zorion handiegia*, Alice Munro / Nagore Tolosa / Naroa Zubillaga / Aiora Jaka / Itziar Otegi (Meetok, 2012: 104).

*Lan egin* aditz-lokuzioaz osatutako egituran, IS hutsa dugu. Egitura iragankor arrunt paraleloetan, ordea, izena determinatzaileduna da ezinbestez eta mugatzailea singularra edo plurala izan daiteke, beste determinatzaile motak beste.

Determinatzailerik gabeko izenaz osatutako lokuzio-egituraren izena determinatzailedun egiten dugunean, aditz-lokuzio egitura izatetik egitura iragankor arrunta izatera pasatzen gara, hots, jarduera adierazten duen predikatu bat izatetik zerbait jakina burutu dela (*lana* edota *lanak*) adierazten duen predikatua izatera.

<sup>65</sup> Aipatu dugu dena den, lokuzio gehienetan ez dela existitzen -a determinatzaileaz osatutako egitura iragankor arrunt paraleloa: \**auhena egin*, \**aldea egin*, \**arrauna egin*, \**elea egin*, \**estropezua egin*, \**hitza egin*, \**jaramona egin*, \**loa egin*, \**muzina egin*, \**ostikoa egin*, \**plantoa egin*, \**sargoria egin*, eta abar, ez dira *corpusetan* aurkitzen.

Laburbilduz, aditz-lokuzioak hiru azpisail hauetan bana ditzakegu, izenaren determinazioaren arabera:

a) Determinatzailerik gabeko izenaz osatzen diren aditz-lokuzioak. Aditz-lokuzio gehienak mota horretakoak dira, aditz-lokuzio meteorologikoak salbu. Dena den, badugu salbuespen bat aditz meteorologikoen taldean ere, *sargori egin*, determinatzailerik gabeko aditz-lokuzioa, hain zuzen ere. Azpitalde honetan ditugu, beraz, *agur egin, aharrausi egin, aitor egin, aldarri egin, alde egin, algara egin, amets egin, arrantza egin, arraun egin, aurre egin, barau egin, barre egin, behaztopa egin, bekatu egin, berba egin, birao egin, borbor egin, burla egin, burrunba egin, dantza egin, dei egin, desafio egin, doministiku egin, duda egin, ehiza egin, errieta egin, estropezu egin, eztanda egin, galde egin, garrasi egin, hanka egin, hitz egin, hots egin, huts egin, ihes egin, ikara egin, iseka egin, irain egin, irrist egin, iruzur egin, juramentu egin, kaka egin, kalte egin, kasu egin, lan egin, leher egin, lo egin, min egin, murgil egin, negar egin, oihu egin, otoitz egin, piper egin, pixa egin, porrot egin, saka egin, salto egin, sargori egin, so egin, solas egin, talka egin, txalo egin, tiro egin, topo egin, txistu egin, uko egin, ulu egin, usain egin, zaunka egin, zin egin, zintz egin, zurrut egin.*

b) Determinatzaile duna izenaz osatzen diren aditz-lokuzioak. Gertakari meteorologikoa adierazten duten izenez osatutako aditz-lokuzioak ditugu talde honetan, aurreko taldean kokatu berri dugun *sargori egin* lokuzioa salbu. Hala eta guztiz ere, -a artikulua mugatzailea da determinatzaileen artean aditz-lokuzio meteorologikoen onartzen duten aukera bakarra. Talde hau osatzen dute, *eguzkia egin*<sup>66</sup>, *ekaitza egin, elurra egin, euria egin, haizea egin, izotza egin, kazkabarra egin, trumoi egin, tximista egin, txingorra egin, zirimiria egin, eta abar.*

---

<sup>66</sup> *Eguzki egin* eta *huri egin* aditz-lokuzioez osatutako adibide bakarra topatu dugu *corpusetan*. Determinatzaile duna egitura da nagusi. Horregatik, determinatzaile duna izenaz osatutakoen taldean kokatuko ditugu horiek biak.

c) Bietara erabil daitezkeen aditz-lokuzioak, determinatzailedun izenez nahiz determinatzailearik gabeko izenez. Mota honetakoak askoz urriagoak dira aurrekoak baino, beraz, kopuru mugatu batez osatutako aditz-lokuzioen taldea osatzen dute, hala nola *apustu(a) egin, arnas(a) egin, bero(a) egin, ezgul(a) egin* eta *hotz(a) egin*.

### 1.3.1.2. ERREFERENTZIALTASUNA

SEGN adierazten den moduan, izen bereziek berezkoa dute erreferentzia zehatza, izen arruntek, berriz, ez (<http://www.ehu.es/seg/morf/5/6/0>).

Erreferentzialtasuna, beraz, zehaztasunarekin bat datorren ezaugarria dela esan dezakegu. Eduki semantiko zehatzik ez duen edo ezezaguna den izena, ez erreferentziala dela esan dezakegu eta lehendik ezaguna den izena, erreferentziala.

Aztergai ditugun aditz-lokuzioen izena ez erreferentziala dela aipatu dugu 1.2. atalean, baita aditz-lokuzio meteorologikoen determinatzailedun izena ere. Izen ez erreferentzialak *egin* aditz arinarekin (1.3.2.1.) unitate semantiko bat osatzen duela esan dezakegu eta lotura estu honen ondorioz jarduera edo ekintza adierazten duen predikatu konplexua lortzen dugu. Aditz-lokuzioaren izen ez erreferentzialak objektu jakina baino areago ekintza adierazten duelako eman dezakegu kontraste honen berri, erlatibozko egitura jokoan denean:

(1.143) Mikelek liburua irakurri du (*liburua* erreferentziala da)

(1.144) Mikelek irakurri duen liburua interesgarria da

(1.145) Mikelek hitz egin du (*hitz* ez da erreferentziala, *egin* aditzarekin ekintza adierazten du)

baina,

(1.146) \*Mikelek egin duen hitz...

Hizkuntzalariak bat datoz lokuzioetan parte hartzen duen izena semantikoki definitzeko orduan eta ez erreferentzialtasuna nahiz zehaztasun eza dira aipatzen dituzten ezaugarriak:

«[...] *the noun [is] generic, nonreferential, or indefinite*», de Reuse (1994), (Carlson 2006: 38).

Aditz-lokuzioetan parte hartzen duen izenaren ez erreferentzialtasuna, eduki semantiko jakinik ez izatea baino areago, muga semantikoak erakusten dituen izena izatearekin erlazioa dezakegu. Ideia hori bat dator SEGn egiten den aipamenarekin, erreferentzialtasuna objektu edo pertsona ezagun eta zehatzarekin erlazionatzen duena. Ildo honetatik, esan genezake pisu semantikoa duen izena izen erreferentziala dela eta atzetik aurrera, izen ez erreferentziala, pisu semantikorik ez duen izentzat har dezakegu, edo pisu semantiko gutxiago duen izentzat, esanahiari dagokionez ahulagoa, nolabait esateko.

McNally eta Van Geenhoven hizkuntzalariak (1998) erreferentzia jakinik gabeko izenak ahulak direla aipatzen dute. Autoreek darabilten terminoa aditz-lokuzioen izenei aplikatuz, izen horiek zehaztasunik eza denotatzen duten heinean ahulak direla esan dezakegu<sup>67</sup>.

Aitzitik, aditz-lokuzio egituraren paraleloa den egitura iragankor arruntaren izenak, determinatzaileduna izateaz gain, erreferentzia zehatza du, ezinbestez, eta hala, semantikoki astuna edo pisu semantikoa duen izena dela esan dezakegu.

---

<sup>67</sup> De Hoopék (1992) ere IS ahul terminoa (*weak NP*) darabil, erreferentzia jakina ez duten izenez osatutako sintagmak deskribatzeko. Milsarkenek (1977), ildo beretik, mugatutasunaz hitz egin beharrean nahiago du *strong* eta *weak* testuinguruez hitz egin. Lehendabiziko testuinguruak erakusleak, izenordainak, *all* eta *each* motako zenbatzaile unibertsalak dituztenak dira eta testuinguru ahulak, aldiz, artikulua eta zenbatzaile mugagabeak dituztenak.

Aipatu dugu, determinatzailedun izenaz osatutako egitura iragankor arrunta nahiz determinatzailearik gabeko izenaz osatutako lokuzioa, bi egiturak existitzen diren kasuetan, determinatzailea dela egitura horien arteko desberdintasun nabarmena. Determinatzailea agertzeak ala ez, ondorio zuzenak dakartza erreferentzialtasunari dagokionez. Izan ere, determinatzailearik gabeko izenaz osatutako aditz-lokuzio egituran izena ez erreferentziala bada ere (espero moduan), determinatzaileaz osatzen den egitura iragankor arruntean, izenak erreferentzia jakina du, ezinbestez. Beste edozein egitura iragankor arrunten izena, ordea, zehatza edota zehaztugabea izan daiteke adibide hauek erakusten duten moduan:

(1.147) Mikelek sagarra jan du

(1.148) Amaiak etxea egin du

*Sagarra* eta *etxea* izenek, erreferentzia zehatza eta zehaztugabea izan ditzakete, aurreko egituretan. Aitzitik, lokuzio-egituraren paraleloa den egitura iragankor honetan izenak erreferentzia zehatza du, nahi eta nahi ez:

(1.149) Mikelek lana egin du

Erreferentzia zehaztugabea duen irakurketa ez da posible aurreko adibidean.

*Corpusetan* aurkitutako adibide hauek aditz-lokuzioaren eta egitura iragankor arruntaren arteko kontrastea erakusten dute, *agur egin* versus *agurra egin*, *apustu egin* versus *apustua egin*, bi egiturak existitzen diren kasuetan:

(1.150) eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti *agur egin* zion. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Lk 1,40

(1.151) Orduan denak lerrotan emaiten ziren, eta kanpalekuan sartzen ginen urrats neurkatuan, xut zeuden postako soldadoei *agurra egin*ez. EPG, *Alemaniarra deportatua*, Grégoire Joannateguy / Marzel Etxehandi (Elkarlanean, 2003: 51).

(1.152) AMAIA.— Ez dakit, baina *apustu egingo* nuke. Goenkale corpora, 402 atala, Hotel berria, arazo zaharrak, Sek.: 13.

(1.153) «Filosofia eta proiektu aldaketaren aldeko *apustua egin* dugu, eta hori aurrera eramateko oinarria zehaztu dugu: etorkizuneko gazteak, lanerako grina dutenak. EPG, *Berria*, Kirola, «Filosofia berria ala eskasiaren ondorioa?», Julen Etxeberria (2004-05-29).

Laburbilduz, aditz-lokuzioen izena, determinatzailedun ala ez, ez erreferentziala da kasu guztietan. Aitzitik, determinatzailedun izenak, egitura iragankor paraleloan, erreferentzia zehatza<sup>68</sup> du, ezinbestez.

Aztergai ditugun aditz-lokuzioak determinazioari dagokionez erakusten dituzten desberdintasunak deskribatu ondoren eta bereizi ditugun hiru azpisailen ezaugarri komuna ez erreferentzialtasuna dela ikusi ondoren, esan dezakegu erreferentzialtasuna ez dela, euskarazko aditz-lokuzioetan, determinatzailea agertzea baldintzatzen duen arrazoa. Determinatzailearen presentzia beste arrazoiak direla eta justifikatu behar da, determinatzaileaz osatzen diren aditz-lokuzioetan ez ezik, aurkeztu ditugun testuinguru mugatu ez erreferentzialetan ere.

Berriz ere, aditz-lokuzioak bereziak direla esan behar dugu eta SEGn izen arruntei buruz oro har esaten denaren kontra<sup>69</sup>, ez dirudi aditz-lokuzio meteorologikoetan nahiz beste gutxi batzuetan izenak determinatzailedunak izateko arrazoa izena zehaztea denik. Ildo honetatik, Himmelmannen (2001)

---

<sup>68</sup> Adibide hauetan, erreferentzia zehatza duten *azken agurra egin* eta *gabon-agurrak egin* egiturez osatuak, DS konplexuagoak ditugu:

- (i) Ondoren, Moisesek *azken agurra egin* zion bere aitagarrebari, eta hau bere herrialdera itzuli zen. EPG, Elizen arteko Biblia, Askoren artean (Idatz, 2004), Ir 18,27.
- (ii) Denak prest zeudela ikusirik, izeba Katek ateraino lagundu zien eta *gabon-agurrak egin* zituzten: EPG, Dublindarrak, James Joyce / Irene Aldasoro (Alberdania, 1999: 319).

<sup>69</sup> Izenek (gutxi batzuk alde batera utzita) determinatzailearen bat edo beste behar dute izen sintagma osatzeko eta determinatzaileen izateko arrazoa izenak osatzea, zehaztea da, SEG, (<http://www.ehu.es/seg/morf/5/6/0>). Aditz-lokuzioetan parte hartzen duten izenak, beraz, salbuespenak diren horien artean sartuko genituzke, SEGn oinarrituz, determinatzailearik gabeko izenaz osatu arren, gramatikalak direlako.

aipamena ekar dezakegu gogora, mugatu ezaugarria artikularen atal bat besterik ez dela aipatzen duena:

*«Definiteness, though undeniably of central importance to the grammar and typology of the articles, is only one of a number of meanings that can be conveyed by articles»*, (Himmelman 2001: 832).

Lakarekin bat etorri (1992), determinatzaile sintagmaren estatusa dela eta justifika dezakegu izen determinatzailearen agerrera, determinazioa erreferentzialtasunarekin bat ez datorren aditz-lokuzioetan.

### 1.3.1.3. FUNTZIO SINTAKTIKOA

1.2. azpisailean, aditz-lokuzioaren izena burutzen duen ISk osagarri zuzen funtzioa betetzen duela argudiatu dugu. Izena xehetasunez definitzen jarraitzeko saiakeran izenaren estatusa aztertuko dugu eta iragankor - iragangaitz kontzeptuei buruz hizkuntzalariek esandakoak gogoratuko ditugu. Beraz, aditz-lokuzioak, iragankortasunari dagokionez deskribatzen saiatuko gara, literaturan eman diren ikuspuntuak aintzat hartuz.

Gramatika deskriptibo tradizionaletan (Lafitte 1944), iragankor gisa deskribatu dira aztergai ditugun aditz-lokuzioak, baita literatura sortzailean ere, Levin (1983), Uribe-Etxebarria (1989), Laka (1993), eta abar. Hala eta guztiz ere, irizpideak ez datoz bat iragankortasuna definitzeko orduan.

Aditz-lokuzioak iragangaitzak edo iragankorrak diren erabakitzeko, besteak beste, Euskaltzaindiak (1987) proposatutako aditzen sailkapena aintzat har dezakegu, eta horretan oinarrituz, nor, nor-nori-nork, nor-nork eta nor-nori aditz motak bereiz ditzakegu, aditzak hautatzen dituen argumentuen arabera.

Aditz bat iragankorra edo iragangaitza den erabakitzeko, aditz laguntzaile mota izan da hizkuntzalariek erabili duten beste irizpide morfologikoa. Aditz baten laguntzailea *izan* edo (\**edin*) bada iragangaitza da eta \**edun* edo (\**ezan*) bada, ordea, iragankorra. Aditz laguntzailean morfologia ergatiboa agertzen bada,

aditza iragankortzat jotzen da eta ergatiboa ageri ezpada, iragangaitzat. Irizpide horretaz baliatuko gara hemen ere, aditz-lokuzioak iragankortasunari dagokionez definitzeko.

Sailkapen klasiko horiez gain, Perlmutterrek (1978) proposatzen duen aditz iragangaitzen sailkapen bikoitza aipatu behar dugu. Perlmutterrek, bi predikatu iragangaitz desberdintzen ditu argumentu bakarrekoen artean: ez-akusatiboak eta ez-ergatiboak. Predikatu ez-akusatiboa, hautatzen duen argumentu bakarrari absolutibo kasua ezartzen dion aditza da eta argumentu hori gaia izaten da. Predikatu ez-ergatiboa, hautatzen duen argumentu bakarrari, ergatibo kasua ezartzen dion aditza da eta argumentu hori egilea izaten da. Perlmutterrek proposatzen duen aditz iragangaitzen sailkapen bikoitza, beraz, aditzak hautatzen dituen argumentu kopuruan eta izaeran oinarritzen da. Absolutiboa edota gaia hautatzen duen aditza iragangaitz ez-akusatiboa da eta ergatiboa edota egilea hautatzen duena ez-ergatiboa.

Etxeparek (2003), bestalde, aditzaren egitura lexikoa eta aditz laguntzailearen egitura morfologikoa bereizten ditu. Iragangaitz, iragankor nahiz iragankortasun bikoitza kontzeptuak, *intransitive*, *transitive* eta *ditransitive*, aditz laguntzailearen egitura morfologikoan oinarrituz zehazten ditu, hau da, iragankor/iragangaitztasunak, aditzaren morfologian oinarrituz bereizten ditu. Izan ere, aditz laguntzailean marka ergatiboa agertzen denean, aditza iragankortzat hartzen du. Baina, aditz laguntzaileari dagozkion ezaugarri morfologiko horiek, ez datoz bat, nahi eta nahi ez, *valency*<sup>70</sup> terminoaz azaltzen duen egitura lexikoaren ezaugarriekin, egitura lexikoa, *monovalent*, *divalent*,

---

<sup>70</sup> *Valency* kontzeptua predikatu batek hartzen dituen argumentu tematikoei erreferentzia egiteko erabili izan da literaturan. (<http://www.ling.upenn.edu/~beatrice/syntax-textbook/ch3.html>)

*Predicates have a valence; they determine the number and type of arguments that can or must appear in their environment.* ([http://en.wikipedia.org/wiki/Argument\\_\(linguistics\)](http://en.wikipedia.org/wiki/Argument_(linguistics)))

edo *trivalent* izan daitekeelako, hain zuzen ere, “balentziaren” edota argumentu kopuruen arabera<sup>71</sup>.

Etxeparek aipatzen duen irizpide morfologikoaren eta lexikoaren arteko bat ez etortzea aztergai ditugun lokuzioetan atzeman dezakegu. *Alde egin* aditz-lokuzio ihartuan nahiz besteetan, esate baterako, aditzaren ezaugarri lexiko-semanticokoak eta ezaugarri morfologikoak bat ez datozela dakusagu:

(1.154) Mikelek alde egin du

Irizpide morfologikoan oinarrituz, \**edun* laguntzaileak egitura iragankor bat dugula pentsatzera garamatza. Irizpide lexiko-semanticokoan oinarrituz, ordea, IS bakarreko egituratzat hartzea bidezkoa dirudi, *Mikelek*, eta *nor* edo *zer* IS, pentsaezina baitirudi *alde egin* egitura horretan.

Mosel eta Hovdhaugen (1992) hizkuntzalariek osagaien ezaugarri semanticokin erlazionatzen dute iragankortasuna. Iragankortasun mailerik hitz egiten dute eta izenak erreferentzia jakinik ez duenean, perpausak «*iragankortasun maila gutxiago*» duela adierazten dute. Halaber, egituren iragankortasun maila gutxitzen dela dio Carlsonek (2006: 49), izena ez erreferentziala denean:

«[...] *the noun no longer refers to an individuated specific or unspecific participant, and thus the whole clause shows a lesser degree of transitivity*».

Carlsonen aipamena *alde egin* aditz-lokuzioari aplikatuz, lokuzioa iragankortasun maila baxukoa dela esango genuke, *alde* izena ez erreferentziala delako.

Hale eta Kayser hizkuntzalarien arabera (1992) euskarazko aditz ez-ergatiboak ingelesezko *do* aditzaren parekoa den aditz iragankor batez eta berari atxikitako osagarri zuzenez osatzen dira.

<sup>71</sup> Ikus Etxeparek (2003) egiten duen aditzen sailkapena, bi irizpide horiek uztartzen dituenak.

Fernandezek ere (1997) egitura ez-ergatiboen artean kokatzen ditu [+egin] aditz hauek, izenetatik eratorriak direla aipatuz: *barre egin, lan egin, berba egin, lo egin, hitz egin* eta *zintz egin*.

Aipatu ditugun irizpide morfosintaktikoak aintzat hartuz eta *alde egin* eta mota bereko egiturek sorrarazten dituzten zalantzak aurkeztu berri ditugun arren, aditz-lokuzioak egitura iragankorrak direla defendatuko dugu irizpide hauetan oinarrituz: aditz laguntzailea \**edun* motakoa da, subjektua ergatiboz markatzen da, perpausa NOR-NORK motakoa da eta NOR-NORI-NORK motakoa izan daiteke. Eta hala, aditz-lokuzioaz osatutako egituraren izen sintagmak osagarri zuzen funtzioa betetzen duela erakutsiko dugu hurrengo argudioetan oinarrituz.

Aditz-lokuzioak iragankorrak direla baieztatzeko irizpide morfologikoa izan daiteke \**edun* edo nor-nork motako laguntzailearen aukeraketa, aditz-lokuzio egituretan islatzen dena. Aurretik aipatu dugu hori dela, euskaraz, egitura iragankor arruntetan nahiz egitura iragankor ez-ergatiboetan (Perlmutter (1978)) ageri den laguntzailea.

Euskaltzaindiak (1991b) aipatzen duen moduan, aditz-lokuzioaren izen sintagmak, osagarri zuzen funtzioa betetzen duen beste edozein sintagma bezala jokatzen du eta aditz-lokuzioaren berezitasun bakarra bere mugagabetasuna da. Euskarak ez ditu egitura berean bi IS<sup>72</sup> absolutibo onartzen; beraz, aditzaren aurreko argumentu sintaktikoa<sup>73</sup> objektu funtzioa

<sup>72</sup> IS darabilgu (determinatzailearik ez dugulako), IS/DS desberdintasunaren xehetasunetan sartu gabe.

<sup>73</sup> *Argumentu* terminoaren erabilera argitze arren, bereizketa bat egin behar dugu argumentu sintaktiko eta argumentu semantiko kontzeptuen artean. Gramatika gehienetan honela definitzen da argumentu sintaktikoa: «*aditz (predikatu) baten esanahia osatzen laguntzen duen hitza edo osagarria*», Ternière, L. (1969: 128). Aditz moten arabera, predikatu bakoitzak argumentu sintaktiko kopuru eta mota desberdinak izan ditzake eta betetzen dituzten funtzio sintaktikoak, subjektua, objektua edo osagarri zuzena, zeharkako objektua, lekuzkoa, denborazkoa, eta abar, izan daitezke. Euskaraz, kasu morfologikoa duen hizkuntza, aditzaren argumentuak dagokien kasu-markaz markatuko dira, ergatiboz, absolutiboz edo datiboz aditzarekin komunztatzen duten kasu gramatikalez eta leku-denborazko kasuez markatuko

betetzen duen eta absolutibo kasuaz markatzen den IS bada, ezin da egitura beste IS absolutiborik agertu:

(1.155) \*Mikelek zerbait negar egin du

Egitura horrek ez du lokuzioaren izena izan ezik, o.z funtzioa betetzen duen beste argumentu sintaktiko absolutiborik onartzen. *Negar* izen sintagma o.z. funtzioa beteko ez balu zilegi litzateke beste osagarri zuzen bat txertatzea, aditz iragankorrak kasu absolutiboa ezarriko liokeelako. Beraz, egitura hori gramatikala ez izatea, o.z. funtzioa betetzen duten bi sintagma absolutibo ezin direlako egon azal daiteke<sup>74</sup>.

Partitiboa kasu marka dela argudiatzen dutenekin bat eginez, Laffite (1944), Euskaltzaindia (1991a), De Rijk (1972 2008), eta abar, partitiboa agertzea

---

dira, aditzarekin komunztatzen ez dutenean. Zentzu horretan erabiliko dugu argumentu sintaktiko terminoa eta zentzu horretan darabilte Bakerrek (1985, 1988a, 1988b, 1996), Levinek (1983a), Burziok (1986), Larsonek (1988), Zaenenek (1994), Bittnerrek (1994), Chomskyk (1981, 1993, 1995), Lakak. (1993), Kaynek (2005) eta beste hainbestek.

Argumentu semantiko terminoa, bestalde, predikatu baten esanahiarekin erlazio estuan dagoen kontzeptua adierazteko erabiliko dugu. Predikatu edo aditz baten adieraren arabera, testuinguru baten parte hartzaileak zeintzuk diren erabaki dezakegu. Eta hala, predikatu baten argumentuak bere semantikaren arabera sailka ditzakegu eta argumentu semantikoez hitz egin. Hizkuntzalaritzan bereizten diren rol tematikoak aintzat hartuz, argumentu hauek bereiz ditzakegu: egilea, gaia, jasailea, esperimintatzailea, onuraduna, bitartekoa, lokatiboa, helburua, iturria eta proposizioa, (Artiagoitia (2002a)). Argumentu semantiko kontzeptua, argumentu tematikoa eta rol tematikoak aztertzen dituzten hizkuntzalariak ditugu Jackendoff (1983 1987), Baker (1988a) Grimshaw (1990, 2005), Dowty, (1991), Palmer, Gildea, eta Kingsbury (2005), eta besteak.

<sup>74</sup> Kurioski, egitura hau gramatikala da, aditz-lokuzioaren osagarri gisa mendeko perpaus osagarria duena:

(i) Gauez, [*bere armairuan borrokan zihardutela*] *amets egiten* zuen; fusil tiroak, galtzadatik erauzitako harriak biraka, ahots zalapartariak, garaipen oihuak entzuten zituen: haren dirua ere oposiziokoa zen. EPG, *Parisen sabela*, Emile Zola / Karlos Zabala (Alberdania-Elkar, 2004: 400). Bi IS ezinezkoak direla aintzat hartuz, egitura horren berri eman behar dugu, -ela perpaus osagarria eta aditz-lokuzio egitura dugunean. Horri buruzko hausnarketa 3. kapituluko 3.5. azpisailan egingo dugu.

argudio moduan erabil dezakegu partitibodun izenaz osatzen den IS o.z. funtzioa betetzen duela baieztatzeko. Euskaltzaindiak (1991b) dioenez, partitibo marka froga izan daiteke horrela markatzen den izen sintagmak o.z. funtzio sintaktikoa betetzen duela argudiatzeko eta ez du *lanik egin, ez du negarrik egin eta ez du minik hartu* aditz-lokuzioez osatutako egiturak ematen ditu, edozein euskaldunek erabil ditzakeen adibide gisa. Adibide hauetan ikus dezakegunez, ugariak dira partitibodun ISz markatzen diren aditz-lokuzioez osatutako egiturak:

(1.156) Mikelek ez du lanik egiten / Mikelek ez du inoiz barrerik egiten

Hala eta guztiz ere, badira partitiborik onartzen ez duten aditz-lokuzioak:

(1.157) \*Mikelek ez du alderik egin / \*hankarik egin / \*osparik egin

Aditz-lokuzio ihartuak direlako eman dezakegu jokaera horien berri, izenak eta aditzak, lotura estua osatzen dutelako, hain zuzen ere.

Aditz-lokuzio bat berean dakusagun jokaeren berri nahiz lokuzioen arteko jokaera sintaktiko desberdinen berri xehetasunez emango dugu 3. kapituluan.

Ondorengo adibideak ere har daitezke aditz-lokuzioaren izen sintagmak osagarri zuzen funtzioa betetzen duela erakusten duten frogatzat. Euskarazko gramatikan oinarrituz espero dugun moduan, [I+egin] aditz-lokuzioez osatzen diren egituretan, datiboz markatzen den sintagma ageri da, aditz-lokuzioaren IS objektuaz gain, aditz arazleak jokoan diren kausatiboetan:

(1.158) Izan ere, jakinduriak *hitz eragin zien mutuei*, argi eta garbi mintzarazi haurtxoei ere. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Jkd 10,21.

(1.159) *Amak niniari negar eginarazi dio.*

<http://31eskutik.com/2013/11/09/egin-eta-eginarazi/>

*Arazi* aditzaren erregimenari buruz, mendebaldeko zenbait euskalkitan datiboa erabiltzeko joera agertzen dela aipatzen da Euskaltzaindian, aditz arazleari

dagokion sintagma biziduna eta pertsona denean

([http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua\\_0043.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua_0043.pdf)).

Are gehiago, subjektu ergatiboa objekturik gabe hiru egoeratan ager daitekeela aipatzen da: aditza deponentea<sup>75</sup> denean edo aditza objekturik izan gabe objektua balu bezala erabiltzen denean, hala nola *iraun*, *irakin*, *irten* eta motako aditzen erabilera mendebaldean; objektu zehaztugabea ezabatua duten aditza dugunean (*jan*, *edan*, *kantatu*); edo objektua aditzari lotua duten aditzekin (*irri egin*, *hitz egin*, *min hartu...*)<sup>76</sup>.

Beraz, egitura ez gramatikal hau, *negar* sintagmak o.z. funtzioa betetzen duelako azal daiteke<sup>77</sup>:

<sup>75</sup> Aditz deponenteari subjektua edo objektua falta dakioko adibide hauek erakusten duten moduan:

- (i) Euria ari du (subjekturik gabeko aditz deponentea)
- (ii) Urak irakiten du (objekturik gabeko aditz deponentea)

<sup>76</sup> Subjektu ergatiboa datiboan agertzea da perpaus kausatiboetan azken bi motakoen joera nagusia, aditz-lokuzioez osatutako adibide hauetan ikus daitekeen moduan:

- (i) *Nik* irri egin dut // Gizon horrek irri eginarazten dit (*niri*)
- (ii) *Guk* euskaraz hitz egin genuen // Euskaraz hitz eginarazi ziguten (*guri*)

Iparraldean, ordea, beste jokoera bat ere aurki daitekeela aipatzen da, subjektua absolutiboan markatzen duena. Dena den, hau ez da gomendatzen euskara batuan:

- (iii) irri egin arazten nauzu

Sekula objekturik hartzen ez duen aditz deponenteei dagokienez, gauzak nahasiagoak dira: aditzak subjektu biziduna eskatzen duenean, datiboaz agertzen dira aditz arazleaz osatutako egituran, baina, aditzak subjektu bizigabea eskatzen duenean, absolutiboan ematen ohi dira:

- (iv) *Inori* ez diogu debaldetan *sufriarazi* behar
- (v) *Ura irakin arazi* behar da lehenik

Egitura kausatiboei buruzko arau horiek baliagarria izan dakizkiguke aditz deponenteak aditz-lokuzioetatik bereizteko.

<sup>77</sup> Epeldek (2013) ere adierazten du, gaurko nafar-lapurtera mintzatuan, belaunaldi gazteenean bereziki, ez dela arraroa honelako egiturak entzutea:

- (i) (*zuk*) (*ni*) *irri eginarazten nauzu*

Epelderi jarraituz, badirudi orain arte ezinezko ziren egitura batzuk indarra hartzen ari direla hitzun batzuen hizkeran behintzat, arazleaz osatutako edozein aditz iragankorrekin aukera bakarra datiboa bazen ere. Epeldek aipatzen duenez, euskararen barnean aldaketa bat baino,

(1.160) \**Amak ninia negar eginarazi du*

<http://31eskutik.com/2013/11/09/egin-eta-eginarazi/>

Hizkuntzalaritzan egitura bat iragankorra dela frogatzeko beste irizpide sintaktikoa izan da partizipio absolutiboaz osatutako egitura onartzea. Aditz-lokuzioek hauek erakusten dutenez, ez dago inolako arazorik partizipio absolutiboak erabiltzeko, izen sintagmak o.z. funtzioa betetzen duela erakusten duten egitura hauetan:

(1.161) Zer irabazten dun *negar eginda*? EPG, *Azkenaz beste*, Anjel Lertxundi (Alberdania, 2005: 35) .

(1.162) Eztabaidatzeari *uko eginda*, burua ezker-eskuin mugitzen zuen.  
[http://www.santurtzi.net/es-ES/Noticias/2012/20120522\\_atertuko.pdf](http://www.santurtzi.net/es-ES/Noticias/2012/20120522_atertuko.pdf)

Aditz-lokuzio gehienetan subjektua ergatiboz markatzea eta \**edun* edo nor-nork motako aditz laguntzailean ergatibo markaren komunztadura agertzea aditz-lokuzio hauek iragankorrak direla baieztatzeko beste argudio gisa erabil dezakegu:

(1.163) Guki negarj egin dj-u-gui.

Hala eta guztiz ere, gertakari meteorologikoei erreferentzia egiten dieten aditz-lokuzioak bereziak dira, hauetan ez baita subjekturik ageri<sup>78</sup>:

(1.164) \*Guk *euria egin* dugu

---

frantsesaren eraginez gertatutako aldaketa gisa uler zitekeen, «causee *delakoa* (ninia) *frantsesez akusatiboa izateak ekarria*», (<http://31eskutik.com/2013/11/09/egin-eta-eginarazi/>), (ikus aurreko oin-oharra).

<sup>78</sup> Gertakari meteorologikoei erreferentzia egiten dieten aditz-lokuzioei dagokionez, ez dugu *corpus*etan partizipio absolutiboaz osatutakorik aurkitu eta subjekturik ez egotearekin erlaziona genezake horrelakorik ez egotea ere bai:

(i) \*Euria eginda...

Ageriko subjekturik gabeko egituran agertzen den aditz laguntzaile iragankorraren berri emateko, aditzarekin komunztadura egiten duen baina fonologikoki gauzatzen ez den sasi-argumentu kontzeptua erabili izan da, aditz-lokuzio meteorologikoaz osatutako egituraren iragankortasuna azaltzeko baliagarria zaiguna, M. Brody (1993). Chomskyk (1981) aditz meteorologikoak subjekturik gabe ager daitezkeela aipatzen du eta sasi-argumentu kontzeptua darabil horien berri emateko:

*«a weather-verb is a verb expressing a meteorological condition, such as rain or snow, which is a predicate either without an argument or with a quasi-argument (Cf.: it rains)»*, (Chomsky 1981: 215).

Sasi-argumentu kontzeptua baliagarria da, beraz, ingelesezko egiturak ez ezik, alemanezko nahiz frantsesezko aditz meteorologikoez osatutako egitura hauen berri emateko:

(1.165) it rains, it snows, it pours down, it drizzles, it shines, it hails, it thunders, eta abar.

(1.166) es regnet, es nieselt, es hagelt, es schneit, es gewittert, es stürmt, eta abar.

(1.167) il pleut, il neige, il grêle, il bruine, il brille, eta abar.

Mota horietako egituretan, euskaraz, subjektu ergatibo bat egotea uler genezake, eta hala, eguraldiari erreferentzia egiten dieten aditz-lokuzioez gain, *ekarri*, *bota*, *isuri* edo *hasi* aditzez osatutako egitura meteorologikoen berri eman genezake. Gertakari meteorologikoari erreferentzia egiten dioten [I+egin] egiturak ez ezik, ugariak dira mota honetakoak ere:

(1.168) Gatza bezala lurrera *ixurtzen du izotza*, eta hormatzen denean, kharloaren arrantzeak iduri egiten da. EKC, Duvoisin Jean Pierre, *Bible Saindua (II). Testament Zaharra, 2. zathia* (1859-1865).

- (1.169) Mahi teknikoa batzartuta dago; izan ere, *euria etengabe bota du* eta. [http://www.ehu.es/azpidazki/PDFak/Fraseologia\\_Hiztegia.pdf](http://www.eitb.com/eu/albisteak/gizartea/oso/1226476/alerta-<u>euria-euskadi--uholde-arriskua-euskadin-eta-elurra-nafarroan/</u></a></p>
<p>(1.170) Euria egingo duela uste al duzu? <i>Elurra botako duela</i> esan dute telebistan.<br/><a href=)
- (1.171) *Euria gogotik bota du.*  
[http://www.santurtzieus.com/gela\\_irekia/materialak/ikastaro/kultura\\_hizkuntzan/edukia/eguraldia\\_testua.htm](http://www.santurtzieus.com/gela_irekia/materialak/ikastaro/kultura_hizkuntzan/edukia/eguraldia_testua.htm)
- (1.172) *Euria dakarrela* ematen du.  
[http://www.santurtzieus.com/gela\\_irekia/materialak/ikastaro/kultura\\_hizkuntzan/edukia/eguraldia\\_testua.htm](http://www.santurtzieus.com/gela_irekia/materialak/ikastaro/kultura_hizkuntzan/edukia/eguraldia_testua.htm)
- (1.173) Egun on! Halan ekarri!  
[http://www.santurtzieus.com/gela\\_irekia/materialak/ikastaro/kultura\\_hizkuntzan/edukia/eguraldia\\_testua.htm](http://www.santurtzieus.com/gela_irekia/materialak/ikastaro/kultura_hizkuntzan/edukia/eguraldia_testua.htm)
- (1.174) Arropa sartzen lagundu, *euria hasi du* eta.  
[http://www.santurtzieus.com/gela\\_irekia/materialak/ikastaro/kultura\\_hizkuntzan/edukia/eguraldia\\_testua.htm](http://www.santurtzieus.com/gela_irekia/materialak/ikastaro/kultura_hizkuntzan/edukia/eguraldia_testua.htm)

Naturaren ikuspegi animista, fenomeno atmosferikoez gain, subjektu ergatiboa duten adibide hauetan ere islatzen da:

- (1.175) Etxea suak hartu du.  
[http://www.santurtzieus.com/gela\\_irekia/materialak/ikastaro/kultura\\_hizkuntzan/edukia/eguraldia\\_testua.htm](http://www.santurtzieus.com/gela_irekia/materialak/ikastaro/kultura_hizkuntzan/edukia/eguraldia_testua.htm)
- (1.176) Mikel ibaiak hil zuen.  
[http://www.santurtzieus.com/gela\\_irekia/materialak/ikastaro/kultura\\_hizkuntzan/edukia/eguraldia\\_testua.htm](http://www.santurtzieus.com/gela_irekia/materialak/ikastaro/kultura_hizkuntzan/edukia/eguraldia_testua.htm)
- (1.177) Inor ez da konturatzen ordaindu egiten dugula karpa baten pean hotzak hilda edo beroak itota egotearren.  
<http://haserrenago.blogia.com/2007/junio.php>

Aditz-lokuzioak egitura morfosintaktiko iragankorrak direla erakusten dute aurkeztu ditugun adibideek eta lokuzio egituraren osagai den izen sintagmak osagarri zuzen funtzioa betetzen duela esan dezakegu. Aditz-lokuzioen iragankortasun morfosintaktikoa egitura horien jatorrian erreparatuz azal genezake, egitura iragankorrak izango zirela pentsatuz. Gauzak horrela, jatorrian ere ergatibo kasua eskatuko zutela pentsa dezakegu, Traskek (2002) ingeleseko *barre egin, lo egin, zurrunka egin, on egin, min egin, hitz eman* eta mota horretako egiturei buruz egiten duen aipamenaren ildotik, (Trask 2002: 271):

*«It seems far more plausible to conclude that the vitm verbs which are compound in form are morphologically transitive for that very reason: etymologically, they are collocations with such literal senses as ‘do sleep’, ‘do laughter’, ‘do snoring’, ‘do good’, ‘give pain’ and ‘give word’, and so their transitive morphology can be entirely explained by their origin, with no appeal to semantics».*

### 1.3.2. ADITZA

Azpisail honetan aditz-lokuzioetan parte hartzen duen *egin* aditza semantikoki arin gisa deskribatuko dugu. Ez da euskara hizkuntza bakarra horrelako egitura konplexuak dituen, izan ere, aditz arinaz osatutako predikatu konplexuak hizkuntzetan zehar aurki daitezke. Gauzak horrela, hainbat hizkuntzatan komuna den *light verb construction* delakoaren ezaugarriak aurkeztuko ditugu, jarraian.

Horrez gain, aditz-lokuzioak aspektuari dagokionez deskribatuko ditugu, *aktionsart* edota aspektuaren inguruan hizkuntzalariek egindako ikerketak aintzat hartuz.

### 1.3.2.1. EGIN ARINA EUSKARAZ - LIGHT VERB CONSTRUCTION BESTE HIZKUNTZA BATZUETAN

Izenaren hainbat ezaugarri azaldu ondoren aditzaren ezaugarriak deskribatzeko saiakera egingo dugu atal honetan. 1.2. azpisailean aurreratu dugunez, arin gisa karakteriza dezakegu aditz-lokuzioen *egin* aditza. *Egin* aditzaz ez ezik [+*egin*] aditz-egituraz ere arituko gara azpisail honetan, hau da, *egin* arina agertzen den testuinguruan azalduko dugu eta arin izateak aditz-lokuzio egitura duen eraginaz arituko gara. Ildo horretatik, beste hizkuntza batzuetan antzekoak diren zenbait egitura sintaktiko konplexu aurkeztuko ditugu, *light verb construction*<sup>79</sup> deituraz ezagutzen ditugunak.

Aditz arinaz osatutako egitura, aditzak bere baitan eduki gutxi izateagatik beste elementu batekin, normalean izen batekin, egitura konplexuagoa osatzen duen egitura gisa definitu daiteke.

*Light verb* deitura Jespersenek (1954) asmatu zuen eta ingelesaren [A+IS] motako hainbat egituraren berri emateko erabili zuen. Hala nola *have*, *take* eta *give* aditzez osatutako egiturak (1954: 117):

(1.178) *have a rest, a read, a cry, a think*

*take a sneak, a drive, a walk, a plunge*

*give a sight, a shout, a shiver, a pull, a ring, a call*

*Have a read* adibidearen interpretazioa *irakurri* dela esan behar dugu, *irakurketa bat eduki* baino areago, esanahi literala izango litzatekeena. *Dei bat eman* baino areago (*give a call* egituraren esanahi literala), *deitu* adierazi nahi dugu, eta, *negar bat eduki baino areago* (*have a cry* egituraren esanahi literala), *negar egin*.

<sup>79</sup> *Verbos ligeros*, gaztelaniaz, *Funktionsverben*, alemanez, eta *verbes support*, frantsesez.

Ezin dugu esan mota horretako aditzak semantikoki hutsak direnik, egitura konplexuaren esanahia aditzek duten esanahian ere oinarritzen delako. Baina, aditz arina mugatua dela baieztatu dezakegu, bere osagarriaren esanahia behar duelako egitura konplexuaren adiera osatzeko.

Leechek (2006), honela definitzen du *light verb* aditza:

«A common and versatile lexical verb like *do, give, have, make or take*, which is semantically weak in many of its uses, and can be combined with nouns in constructions such as *do the cleaning, give (someone) a hug, have a drink, make a decision, take a break*. The whole construction often seems equivalent to the use of a single verb: *make a decision=decide*».

(<http://grammar.about.com/od/il/g/lightverbterm.htm>)

Hau da, *egin, eduki eta hartu* motako aditz arrunta, maiz semantikoki ahula dena, izenekin konbina daiteke, *garbiketa egin, norbaiti besarkada bat eman, edari bat hartu, erabaki bat hartu, atsedena hartu* edo antzeko egituretan. Autoreak dioenez, askotan antzekoak dira aditz arinaz osatzen den egituraren esanahia eta aditz bakunarena:

(1.179) *erabaki bat hartu = erabaki*

Kasu batzuetan, aditz arinaz eta beste osagaiak osatutako egitura konplexua edukiari dagokionez sinonimoa den aditz bakun jokatu gabeaz ordeztu daiteke. Euskaraz, esate baterako, *-tu* formaz osatutako partizipioaz ordeztu daitezke [+egin] aditz-lokuzio hauek; *dei egin / deitu, dantza egin / dantzatu, txalo egin / txalotu, leher egin / lehertu, amets egin / amestu, topo egin / topatu*, eta abar. Badira, dena den, bi aukerak onartzen ez dituzten aditz-lokuzioak. Hala nola *negar egin, barre egin, hitz egin, alde egin, birao egin*, eta abar, \**negartu, \*barretu, \*hiztu, \*aldetu* edo \**birautu* motakorik ez da existitzen.

Gaztelaniaz, era berean, batzuek bigarren forma onartzen dute; *hacer fiesta / festejar, hacer mención / mencionar, hacer juramento / jurar, hacer elogio /*

*elogiar, hacer chantaje/chantajear, hacer daño / dañar, hacer huelga / holgar*<sup>80</sup>, *hacer ayuno / ayunar*, eta abar. Beste batzuek, ordea, ez; *hacer mérito, hacer juerga, hacer luto, hacer turismo, hacer dinero*, eta abar.

Frantsesez, halaber, bi aukera hauek onartzen dituzte; *faire mention / mentionner, faire (de) la cuisine / cuisiner, faire de la grève / grever*<sup>81</sup>, *faire la recolte / recolter, faire du progrès / progresser, faire le nettoyage / nettoyer, faire des études / étudier, faire de l'ombre / ombrager*, eta abar<sup>82</sup>. Beste batzuk, ordea, aditz perifrastikoaz osatzen dira, soilik; *faire du sport, faire du tourisme, faire la ronde, faire la revue, faire l'amour, faire la guerre, faire fortune*, eta abar.

Euskararen, gaztelaniaren eta frantsesaren arteko antzekotasun horiek ez ezik, deigarria da ingelesez aditz arinaz osatzen diren [I+A] egiturak, euskaraz ere, [I+A] lokuzio egiturez gauzatzen direla. Are gehiago, egitura mota horien oinarrian dauden aditz kategoriak bat datoz hainbat kasutan bi hizkuntzetan. Hala nola:

(1.180) Ingelesez	Euskaraz
take a break / a nap	<i>atseden hartu (siesta egin)</i>
<i>take part</i>	<i>parte hartu</i>
<i>give a choice</i>	<i>aukera eman</i>
<i>give a kiss</i>	<i>musu eman</i>
<i>give a sight</i>	<i>begi eman</i>

<sup>80</sup> Adibide honetan ñabardura semantiko berezi bat atzeman daiteke bi aditzen artean, dena den, semantikoki erlazionatuta daudela esan dezakegu.

<sup>81</sup> Adiera desberdina dute batak eta besteak; *faire de la grève* - greba egin, *grever* - grabatu.

<sup>82</sup> Ohar gaitezen, frantsesezko egitura horietan ez dugula *bare noun* delakoa edo izen hutsa, eta *de/du/(de)la/le/des* determinatzaileez nahiz partitiboaz osatzen diren egitura konplexu horien azterketa, etorkizun hurbilerako eginkizuna izan zitekeen, baita hizkuntzetan zehar aurkitzen ditugun egitura horien arteko konparaketa ere.

<i>give (an) account</i>	<i>kontu eman</i>
<i>have an intention</i>	<i>intentzio eduki</i>
<i>give a chance / a choice</i>	<i>aukera eman</i>
<i>do a trick</i>	<i>tranpa egin</i>

Eta oinarrian dagoen aditza bat ez etorri arren, bi hizkuntzetan semantikoki arina den aditzaz osatutako egiturak ditugu hauek ere:

(1.181) Ingelesez	Euskaraz
<i>have a cry</i>	<i>negar egin</i>
<i>give a shout</i>	<i>garrasi egin</i>
<i>have a thought</i>	<i>hausnar egin</i>
<i>have a dream</i>	<i>amets egin</i>
<i>give a call</i>	<i>dei egin</i>

Aipagarria da, bestalde, hizkuntza batek aditz arin bakarra duenean, aditz hori *do* (*egin*) aditza izaten dela maiz. *Do*, ingelesez, (*do laugh* > *laugh*, *do neigh* > *neigh*, *do sneeze* > *sneeze*), *suru*, japonieraz, *egin*, euskaraz, eta abar. *Egin* aditzaz ez ezik, beste aditz batzuek egitura horietan parte hartzen dutenean, *have* (*eduki*), *give* (*eman*), *take* (*hartu*) aditzak izaten dira hizkuntzetan zehar.

Izenak ez dio objektu jakin edo ezagun bati erreferentzia egiten, *egin* aditz arinarekin predikatu konplexua osatzen duen egitura horietan. Aitzitik, jarduera adierazten du. Ildo beretik, jarduera organikoak, euskaraz, *egin* aditzaz osatzen direla aipatzen du Azkuek (1905) eta *egin* aditzari laguntzen dion izena, ekintza organikoa adierazten duen izen gisa deskribatzen du:

*«EGIN se usa como laguntzaile, por decirlo así, de nombres. Así como las pasiones se acompañan de IZAN, así las acciones orgánicas se acompañan de egin. No hay pasión ni acción que por sí misma forme verbo en esta lengua. “Temer, amar, querer, poder”, en vascuence son: BELDUR*

IZAN, MAITE IZAN, NAI IZAN o GURA IZAN, AL o AHAL IZAN. Así mismo, “llorar, toser, estornudar, sonarse, dormir”, y otras acciones por estilo que en castellano y en francés son verbos, en vascuence no son más que nombres acompañados de EGIN: NEGAR EGIN, EZTUL EGIN, USIN EGIN, ZINTZ EGIN, LO EGIN. Hay algunas ideas que fluctúan entre acciones orgánicas y exteriores, como “morder”. Esta idea unos la expresan con un verbo: USEGI, AUSIKI, etc.; Otros con nombre acompañado de EGIN: AGINKA EGIN, OZKA EGIN», (Azkue 1905: 221).

Grimshawek eta Mesterek (1998) japonieraren *suru* aditza deskribatzeko erabiltzen dute aditz arina kontzeptua eta arina izatearen arrazoia argumentu-egitura osoa ez izatean datzala esaten dute:

«We use the term *light verb* to refer to verbs like *suru* that cooccur with *theta-transparent NPs*», (Grimshaw eta Mester 1998: 207).

Euskaraz, izenak *egin* aditz arinari astuna izateko behar duen edukia transferitzen dion bezala, japonieraz ere, *suru* aditz arina rol ezartzaile bilakatzen da izenari ezker. Aditz arinak bere osagarriari rol tematikorik ez ezartzearen ondorioz, predikatu konplexuan gertatzen den prozesu baten bidez transferitzen dio izen sintagmak behar duen argumentu tematikoa<sup>83</sup>.

Di Sciullok eta Rosenek (1990) italiararen egiturak aztertzen dituzte, *volare* aditz arinaren argumentu egitura hutsa dela aipatuz. Argumentu egiturak fusio prozesua jasaten duela aipatzen dute hizkuntzalariek:

<sup>83</sup> *Argument transfer* kontzeptua darabilte ondorengo adibidean gertatzen den prozesua adierazteko:

(i) John-wa Mary-ni hanashi-o shita  
John-Top Mary-to talk-Acc suru  
“John talked to Mary”  
“Jonek Mariari hitz egin zion”

«*This process takes the empty argument structure of the light verb and superimposes it on the fully specified structure of the embedded verbs*», (Di Sciullo and Rosen 1990: 447).

Marantzek (1997) errorik gabeko aditz funtzional gisa definitzen ditu aditz arinak eta Adgerek (2003), *v* aditz gisa identifikatzen ditu<sup>84</sup> (Chomskyren sintaxi sortailean oinarrituz).

Samek-Lodovicik (2003) aditz arinaz eta *-ata* forma nominalizatuaz osatutako italieraren predikatu konplexuak aztertzen ditu eta hainbat egituratan, aditz arinak bere izen osagaiaren irakurketa bereganatzen duela dio:

«[...] *the light verb “to give” inherits the interpretation of its complement, denoting the action of “washing” rather than a transfer of possession*», (Samek-Lodovici 2003: 837):

(1.182) Dare      una lavata      alle camicie  
                  to give      a washing      to.the shirts  
                  To wash the shirts

Aditzak izenaren esanahia bereganatzen du adibide horretan, eta hala, *dare una lavata* aditz arinaz osatutako egiturak *garbitu* adierazten du, *garbiketa eman* irakurketa literalaren aldean. Dakusagunez, *eman (to give)* aditza da, oraingoan ere, aditz arina, *light verb construction* delakoan.

Johnsek (2005) *light v* terminoa darabil aditz arinei erreferentzia egiteko eta egitura horiek *V* lexikalik gabeko edo errorik gabeko egitura gisa definitzen ditu. Inuktitut hizkuntzan aurki daitekeen egitura honetan izen hutsa aditzarekin morfologikoki lotuta ageri dela dakusagu, (Johns 2005: 15):

---

<sup>84</sup> Chomsky (1957) izan zen *v* ideiaaren asmatzailea eta aditz laguntzaileei eta aditz modalei erreferentzia egiteko erabili zuen adierari dagokionez ahula izatearen kontzeptu hau.

(1.183) qukiuti-taaq-tunga

rifle-get-intr.part.1s.

“I got a rifle” (Inuktitut - Mittimatalingmiutut)

“Eskopeta bat eskuratu dut”

Aditz arinek bestelako funtzioak ere izan ditzakete. Buttek (2003) predikatu konplexu gisa sailkatzen ditu hindi eta urdu hizkuntzen aditz-egitura arinak eta hizkuntza horietan aditz arinak predikatu konplexuaren aspektua eragiten duela aipatzen du. Urdu hizkuntzaren adibide honetan, aditz arinak predikatu osoari telikotasuna eransten diola erakusten du Buttek (2003: 2):

(1.184) nadya=ko                    xat                    hk                    ly-ya

Nadya.M.sg=erg    letter.M.nom write    take-Perf.M.sg

“Nadia wrote a letter (completely).”

“Nadiak gutuna idatzi zuen (ekintza burutua).

Aditz arinek hizkuntzetan zehar antzeko berezitasunak dituztela ikusi badugu ere, ezin dugu gauza bera esan aditzarekin egitura konplexua osatzen duen osagaiari buruz. Aditz aurreko atalaren sailkapena ez da aditz arinarena bezain mugatua, izan ere, izenaz gain, izenondoak, postposizioak, eta adberbioak ager daitezke<sup>85</sup>, baita zenbait hizkuntzatan beste aditz bat ere. *Serial verbs* terminoaz ezagutzen ditugu aditz arin baten aurreko osagai gisa beste aditz bat duten egiturak. Egitura horiek Afrikako mendebaldeko eta

<sup>85</sup> Euskaraz ez ezik (ikus De Rijken sailkapena), Australiako hizkuntzetan ere aditz arinarekin osagai desberdinak ager daitezkeela erakusten dute Bowernen adibideak (2006):

(i) a. izenak:

*giringg* (eztula); -->*giringg -ar-* (eztula egin)

b. izenondoak:

*ngaada* (motza) -->*ngaada -joogooloo-* (bitan moztu)

c. adberbioak:

*angan* (gertura) -->*angan -ganyi-* (gerturatu)

Asiako hizkuntzetan aurkitzen dira, besteak beste<sup>86</sup>, eta, Crowley (2002), S. Choi (2003) eta Newmeyer (2004) hizkuntzalariek aztertzen dituzte.

Laburbilduz, aditz arinek muga semantikoak erakusten dituzte, euskaraz ez ezik, beste hizkuntzetan ere. Edukiari dagokionez, astunak ez direla ikusi dugu eta astunak izateko, izenak gehitzen duen esanahia behar dute (euskaraz nahiz beste hainbat hizkuntzatan). Japonieraz, aditz arinaren argumentu egiturari dagozkion irregulartasunen berri eman dugu, *suru* aditz arinak ezin duelako rol tematikorik ezarri, Grimshaw eta Mester (1988). Italieraz, halaber, *volare* aditz arinaren argumentu egitura hutsa dela erakusten dute Di Sciullo eta Rosenek (1990), eta ikusi dugu aditz arinak beste funtzioak izan ditzakeela, adibidez, telikotasuna eranstea, Buttek (2003) erakutsi bezala. Hizkuntzen ezaugarri unibertsaletan oinarrituz eman dezakegu aditz arinek hizkuntzetan zehar erakusten dituzten berezitasun eta muga morfosintaktiko nahiz semantiko komun horien berri<sup>87</sup>.

Azpiatal honetan aditz-lokuzioen osagaiak banan-banan deskribatu ditugu. Lokuzio izenak, gehienetan determinatzailezik gabekoak direla ikusi dugu, baita ez erreferentzialak edota ez zehatzak direla ere. Horrez gain, muga sintaktikoak erakusten dituztela erakutsi dugu, pasiborik ez, erlatibozkorik ez, galderarik edo modifikatzailezik ez, eta abar<sup>88</sup>. Ikusi dugu, bestalde, *egin* aditza semantikoki mugatua edo arina dela eta izenaren beharra duela, semantikoki astuna izateko. Muga horiek guztiek lokuzioak bereziak direla baieztatzen garamatzate eta izen

<sup>86</sup> Japonieraz ere aditz nominalizatua ager daiteke aditz arinarekin egitura konplexua osatzen:

(i) *benkyo suru* "to study"

<sup>87</sup> Bakerren (2008) teoria makro-parametrikotan oinarrituz ere eman genezake hizkuntzen arteko antzekotasun horien berri, eta Bakerri jarraituz, makro-parametroak zeintzuk diren erabakitzea litzateke hizkuntzalari sortzaileen zeregina, (Baker 2008.b: 360):

«*There is some reason to think that there are macroparameters out there hiding in a forest of microparameters, and the generative linguistic community should be trying harder to seek them out*».

<sup>88</sup> Aditz-lokuzioen banan-banako jokaera sintaktikoak eta horien arteko desberdintasunak 3. kapituluaz aztertuko ditugu.

horien bereizgarri morfologikoak, semantikoak eta sintaktikoak hizkuntzalaritzaren teorien argitan azaldu behar ditugu.

### 1.3.2.2. ASPEKTUA (AKTIONSART)

Hizkuntzalaritzan proposatu diren sailkapenak aintzat hartuz eta aztergai ditugun aditz-lokuzioak aspektuari dagokionez deskribatzeko, Vendlerrek (1967) eta Dowtyk (1979) ingeleserako proposatzen dituzten testak aplikatuko dizkiegu aditz-lokuzioei.

Aspektuarekin estuki lotuta dagoen *aktionsart* kontzeptuak Aristotelesen Metafisikan IX (335-323 K.a) du bere jatorria. Aristotelesek *energeia* eta *kinesisa* bereizten ditu, ingurune naturalean aurki ditzakegun egoera motak izendatzeko. *Energeia*, burutu gabeko mugimendua da, prozesua. *Kinesisa*, ordea, mugimendu burutua da eta gaurkotasuna adierazten du.

Vendlerrek (1967) lau aditz kategoria bereizten ditu, *aktionsart* desberdinetan oinarrituz: egoerak, jarduerak, burutzapenak eta erdiespenak<sup>89</sup>. Progresibotasunean oinarrituz, aditz progresiboak eta ez progresiboak bereizten ditu; egoerak eta erdiespenak ez progresiboak dira; jarduerak eta burutzapenak, progresiboak<sup>90</sup>.

<sup>89</sup> Jarraian lau aditz kategoria bereizi zituen lehen hizkuntzalariaren sailkapena aurkezten dugu eta sail bakoitzari dagokion aditz *corpusa*:

STATES	ACTIVITIES	ACCOMPLISHMENTS	ACHIEVEMENTS
KNOW	RUN	PAINT A PICTURE	RECOGNIZE
BELIEVE	WALK	MAKE A CHAIR	SPOT
HAVE	SWIM	DELIVER A SERMON	FIND
DESIRE	PUSH A CART	DRAW A CIRCLE	LOSE
LOVE	DRIVE A CAR	PUSH A CART	REACH
		RECOVER FROM ILLNESS	DIE

<sup>90</sup> *What are you doing? edo zer egiten ari zara?* galderari, *I am running, korrika egiten ari naiz erantzun diezaiokegu baina ez \*I am knowing jakiten ari naiz. korrika egin jarduera da; jakin, egoera.*

Ez progresiboen artean, egoera aditzak ez dinamikoak direla aipatzen du Vendlerrek, erdiespen aditzek, ordea, momentuko aldaketei egiten diete erreferentzia. Aditz progresiboen arteko bereizketa, bestalde, telikotasunean datza. Jarduerak ez telikoak dira, burutzapenak, telikoak<sup>91</sup>. Jardueren eta burutzapenen arteko inplikazioei dagokien beste desberdintasuna, aditz mota horiek adierazten dutena egiteari uzten zaionean eratoritzen den esanahian oinarritzen da. Norbait ibiltzen ari bada eta gelditzen bada, egia da ibili dela, baina, norbait zirkulu bat egiten ari bada eta zirkulua egiteari uzten badio, ezin dugu esan zirkulua egin duenik, (Vendler 1965: 100-106): *Ibili* jarduera da, *zirkulua egin* burutzapena. *Amaitu* eta *X egiten ari* egituraren inplikazioari dagozkion testak euskarari aplikatuko dizkiegu eta baliagarriak izango zaizkigu testa aplikagarria den aditz-lokuzioen artean<sup>92</sup> burutzapenik ez dugula frogatzeko.

Dowty aipatzen duenez (1979), aditzen arteko erlazioak morfologikoki atzeman daitezke<sup>93</sup> eta aditzak egitura logikoan agertzen diren operadoreen arabera sailka daitezke. Aditz bakoitzari egitura logiko semantiko bat dagokio<sup>94</sup>

<sup>91</sup> Burutzapenen eta jardueren arteko beste desberdintasuna, denborazko adberbioak agertzen direnean lortzen diren inplikazioetan datza. *Jon ordubetez ibili da* egia bada, egia da ordu horretan edozein momentutan Jon ibili zela. *Jonek koadroa ordubetean margotu du* egia bada, ordea, horrek ez du inplikatzeko, segundo guztietan Jonek koadroa margotzen jardun duenik: «If  $\emptyset$  is an activity verb, then  $x \emptyset$ ed for  $y$  time entails that at any time during  $y$ ,  $x \emptyset$ ed was true. If  $\emptyset$  is an accomplishment verb, then  $x \emptyset$ ed for  $y$  time does not entail that  $x \emptyset$ ed was true during any time within  $y$  at all», (Dowty 1979:57).

<sup>92</sup> Test hau ez da aplikagarria *ari* egitura onartzen ez duten aditz-lokuzioa dugunean, hala nola erdiespen aditza dugunean eta (ez da aplikatzen) moduan markatuko dugu.

<sup>93</sup> Ingelesean esate baterako, *Y [be] cool* (state), *Y cool* (achievement) eta *X cool Y* (accomplishment). Hala nola:

- (i) The soup is cool (state) *Salda hotza dago* (egoera)
- (ii) The soup cooled (achievement) *Salda hoztu da* (erdiespena)
- (iii) John cooled the soup (accomplishment) *Jonek salda hoztu du* (burutzapena)

<sup>94</sup> Lokuzioak deskribatzeko baliagarria den egitura logikoan murgilduz, aipagarria da hizkuntza askotan aurkitzen ditugula ingelesezko “DO” jarduera orokorraren parekoak: koreanoz, *ha*, japonieraz, *suru*, thaieraz, *theam* eta euskaraz, *egin* aditza. Aditz-lokuzioek *egin* “DO”

eta *become* eta *cause* operadoreak direla medio aditzen arteko erlazioak sortzen dira. Egoerak eta jarduerak “aditz primitiboak” dira eta erdiespenak eta burutzapenak horietatik eratorzen dira. Dowtyrekin (1979) bat eginez<sup>95</sup> aspektua zentzu zabalean ulertuko dugu eta aditza deskribatzean, aintzat hartuko dugu, bai aditz mota bakoitzaren ezaugarri semantikoa, hau da *aktionsart* edota egitura logikoa, bai egituran ageri diren aspektu marken arteko erlazioa. Testuinguruak, aditzaren kategoria alda dezake, eta hala, aditz baten *aktionsarta* mota batekoa izanagatik, osagarri zirkunstantzial funtzioa betetzen duen postposizio edo adberbio sintagma mota bat edo bestea txertatzeak, aditzaren aspektuan eragina izan dezake, aditza beste *aktionsart* motakoa izatera pasatuz.

Hizkuntza bakoitzak bere egitura propioak ditu ideiak adierazteko eta ideia bat bera adierazteko erabiltzen diren egiturak ez datoz bat hizkuntzetan zehar. Horregatik, Dowtyk ingeleserako proposatzen dituen testen artean<sup>96</sup>, euskarari

---

predikatua dute, euskaraz.. Ingelesez ere, “DO” operadorea duten jarduera iragangaitz asko *izen* eta *egin* aditza konbinatuz sortzen dira. Beraz, bi hizkuntzen arteko antzekotasunak atzematen ditugu, Dowtyren egitura logikoa aplikatuz:

(i) *run* (DO(x),[*run*'(x)])

(ii) *korrika egin* (EGIN (x)[*korrika*'(x)])

<sup>95</sup> «*It is because of this intricate interaction between classes of verbs and true aspect markers that the term aspect is justified in a wider sense to apply to the problem of understanding these classes of verbs as well, and it turns out to be this same classification of verbs which is the subject of the Aristotelian categorization*», (Dowty 1979: 52).

<sup>96</sup>

	ACCOMP.	ACHIEV.	STATES	ACTIVITIES
1. meets non-stative tests:	no	yes	yes	?
2. has habitual interpretation in simple present tense:	no	yes	yes	yes
3. ∅ for an hour, spend an hour ∅ing:	OK	OK	OK	bad
4. ∅ in an hour, take an hour to ∅: bad	bad	OK	OK	
5. ∅ for an hour entails ∅ at all the times in the hour:	yes	yes	no	d.n.a.
6. x is ∅ing entails x has ∅ed: d.n.a.	d.n.a.	no	d.n.a.	
7. complement of stop:	OK	OK	OK	bad
8. complement of finish:	bad	bad	OK	bad
9. ambiguity with almost:	no	no	yes	no

egokitzen zaizkionak aplikatuko ditugu, [Izen + egin]<sub>A</sub> aditzen aspektua mugatzeko esanguratsuak direnak, alegia. Hala nola:

1.- Ez egoera aditzak identifikatzeko baliagarriak diren testak

1.- Nahita (ez egoera aditzek onartzen dute, soilik):

*Nahita* testa euskarari aplikatuz, *nahita* onartzen duten aditz-lokuzioak ez direla egoera aditzak erabaki ahal izango dugu. Hauek dira *corpusetan* aurkitutako egoera aditz ez diren lokuzioez osatutako egitura batzuk, *nahita* testa onartzen dutenak.

- (1.185) Agian, gure lehen eztabaidako ondorioak ahaztuta, ukatuko ote duzu, bada, guk *nahita egiten dugula bekatu*, horretara ezin gaituela eraman inongo izakirik, ez goikorik, ez behekorik eta ez gure pareko izakirik? EPG, *Hainbat idazlan*, San Agustin / Imanol Unzurrunzaga (Klasikoak, 2003: 152).
- (1.186) Pentsatuko dik gizon batek *nahita bultza egiten diola*, igoeran edo jaitsieran jendea pasatzen den bakoitzean. EPG, *Estilo-Ariketak*, Raymond Queneau / Xabier Olarra (Igela, 2005: 35).
- (1.187) Eta penalti Slytherinen alde, *nahita kalte egin diotelako* bere jazarleari! EPG, *Harry Potter eta sorgin harria*, J.K. Rowling / Iñaki Mendiguren (Elkar, 2000: 249).
- (1.188) Garrasi egin, aita Smeltings-eko makilaz jo, *nahita oka egin*, amari ostikoz eraso eta dortoka berotegiko sabaitik barrura bota arren, artean bere gela berreskuratu gabe zegoen. EPG, *Harry Potter eta Azkabango presoak*, J.K. Rowling / Iñaki Mendiguren (Elkar, 2002: 39).

---

10. x Øed in an hour entails x was Øing during that hour:	d.n.a.	d.n.a.	yes	no
11. occurs with studiously, attentively, carefully, etc:	bad	OK	OK	bad

Baina, horrek ez du esan nahi *nahita* testa onartzen ez duten aditz-lokuzio guztiak egoera aditzak direnik. Izan ere, animaliek igortzen dituzten soinuak adierazten dituzten aditz-lokuzioek, espontaneoki gertatzen den gertakizuna adierazten dutenek, puntualtasuna adierazten duten zenbait aditzek, eta abar, ez dute ohiko erabileran nahitasuna edo borondatea adierazten duen partikula hori onartzen eta ez dira egoerak:

(1.189) \*Mikelek *nahita egin du estropezu*<sup>97</sup>

*Estropezu egin* aditzak ez du *nahita* testa onartzen. Izan ere, perpausa horren subjektua (Mikel) borondaterik gabe garatzen den ekintzaren jasailea da.

Gertakari meteorologiko bati erreferentzia egiten dieten *euria egin* eta mota horretako aditz-lokuzioek subjekturik ez dutenez, ez dute, salbuespenak salbuespen, nahitasuna adierazten duen elementurik onartzen. Horrelako kasuetan, testa ez dela aplikatzen (ea) adierazi dugu:

(1.190) \**euria nahita egin du (ea)*

II.- *Ari* progresiboa (ez egoera aditzek onartzen dute, soilik):

*Ari* testak, lehenik eta behin, testa onartzen duten aditzak ez egoeratzat hartzeko balioko digu. Baina, horrek ez du esan nahi, *ari* testa onartzen ez duten aditz-lokuzio guztiak egoera aditzak direnik.

Test guztiak aintzat hartuz, eta behin, erabakita, aditz-lokuzio bat ez dela egoera, jardueren eta erdiespenen artean desberdintzeko baliagarria izan dakiguke *ari* testa. *Ari* testa onartzen duten aditz gehienak jardueratzat hartuko ditugu (salbuespenak salbuespen) eta *ari* onartzen ez dutenak, erdiespentzat, (salbuespenak salbuespen). Baina, badira *ari* testa onartzen ez duten jarduerak, baita *ari* testa onar dezaketen erdiespenak ere. Horrexegatik, irizpide hori, soilik,

---

<sup>97</sup> Oso testuinguru bitxian posible litzateke egitura hori. Demagun antzerki batean, non antzerkilariak *nahita egin* duen *estropezu*.

ez da nahikoa izango aditz-lokuzioa aspektuari dagokionez karakterizatzeko eta beste irizpideak ere baliatuko ditugu.

*Corpusetan ari* testa onartzen duten aditz-lokuzio hauez osatutako adibideak topatu ditugu:

(1.191) Ikusi dut hura *lan egiten ari* zela

<http://www.ehu.es/euskalosasuna/irakurgaiak/lturrioz.pdf>

(1.192) Norekin *hitz egiten ari da?*

<http://tatoeba.org/spa/sentences/show/865065>

(1.193) *Negar egiten ari da. Barre egiten ari da.*

<https://www.google.es/webhp?sourceid=chrome-instant&ion=1&espv=2&ie=UTF-8#q=negar%20egiten%20ari%20da>

(1.194) Upelategi bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina, oro har, txakolina egiten diharduten mahastizain gehienek graduazio gehiago eta garraztasun gutxiago duen edari baten alde *apustu egiten ari* dira. ETC, *Berria*, Harian, «Mahats uzta oso handia izan da Euskal Herrian», Ivan Santamaria (2003-11-09).

(1.195) Trantsizio sistemez *berba egiten ari* izan dira parte-hartzaileak, udal nekazaritza politikaren beharraz iradokitze lanetan ari ziren bitartean. ETC, *Berria*, Iritzia, «Udal-hiri-nekazaritza», Jurgi San Pedro Guillen, (2005-01-12).

(1.196) Ez naiz, ez, hemengoek sarritan kontaktzen duten txisteko udatiarra: udatiar bat, euritik ihesi, taberna batean sartu da etabertan *zurrut ari den*<sup>98</sup> bezero bretoiari galdetzen dio: 'aizu, beti euria egiten al du hemen? ETC, *Berria*, Kultura, «Eurria sarri-sarri: dagidan lo», Anjel Lertxundi, (2005-07-30).

---

<sup>98</sup> *Egin* aditza isilpean dagoela ulertzen dugu.

-*Ari* onartzen duten aditz horiek guztiak jarduerak dira. Hala eta guztiz ere, badira *ari* egituran *corpusetan* topatu ez ditugun aditz-lokuzio batzuk; *boikot egin*, *dar-dar egin*, *duda egin*, *burrunba egin*, *aipu egin*, *aitor egin*, *zirkin egin*, *arrantza egin*, *zaunka egin*, eta abar, beste irizpideetan oinarrituz, jardueratzat hartuko ditugunak.

Ohiko erabileran puntualtasuna adierazten duten erdiespen batzuek, bestalde, *ari* progresiboa onar dezakete, testuinguru jakin batzuetan. Kasu horietan, puntualtasun adierazleak onartzea eta *luzaroan* edo *kontuz* erabili ezin izatea izango dira irizpide, erdiespenak direla egiaztatzeko:

(1.197) Mikel *tiro egiten ari* da

baina,

(1.198) *Halako batean* [...] eskopeta altxatu eta *tiro egin* zuen<sup>99</sup>.

[http://www.xn--abadio-0wa.org/eu-](http://www.xn--abadio-0wa.org/eu-ES/Zerbitzuak/Euskara/lpuin%20lehiaketa%2020132014/Aitor%20Larrea%20Txikitako%20ipuinak.pdf)

[ES/Zerbitzuak/Euskara/lpuin%20lehiaketa%2020132014/Aitor%20Larrea%20Txikitako%20ipuinak.pdf](http://www.xn--abadio-0wa.org/eu-ES/Zerbitzuak/Euskara/lpuin%20lehiaketa%2020132014/Aitor%20Larrea%20Txikitako%20ipuinak.pdf)

III.- *Arazi* kausatiboa (ez egoera aditzek onartzen dute, soilik):

*Arazi* testak, *ari* eta agintera testekin batera balioko digu, arazlea onartzen duten aditz-lokuzioak ez direla egoerak baieztatzeko. Hona hemen *corpusetan* aurkitu ditugun hainbat adibide:

(1.199) Jendalde polita bildu da eta uste dut gustatu ere zaion zeren ainitz *irri eginarazi* baitute. EPG, Prentsa, Herria 2001-2005, "Herrietako kronikak: Lapurdi", sinadurarik gabe, (2001-10-04, 4. orr.).

(1.200) Bai, bazakiat baloiek ez dutela hitz egiten, baina gutxi batzuek, bai, *hitz eragin* ziezaieketek, ametsetan... eta dantzarazi ere bai, errealitatean: futbolaren magoak dituk, oin-buruetan makilatxo

<sup>99</sup> *Kontuz* edo *luzaroan* adberbioez osatzen den egiturarik ez dugu topatu *tiro egin* aditzarekin.

magiko ikusezin bat dutenak. EPG, *Odolean neraman*, Joan Mari Irigoien (Elkar, 2004: 18).

(1.201) *Boten sokekin estropezu eginarazten zioten, eta...*

<http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0CDQQFjAA&url=http%3A%2F%2Fwww.ehu.es%2Fetc%2Ffitxategia%3Fbila%3Dlaxatu&ei=1ySwUoT1BfGY0AX86oDAAg&usq=AFQjCNFHVty-qkD1g4OouV08Mu0vb0-Mw&sig2=xffejvQsLNavWu14y99q1w&bvm=bv.57967247,d.bGQ>

(1.202) *Amak niniari negar eginarazi dio.*

<http://31eskutik.com/2013/11/09/egin-eta-eginarazi/>

(1.203) *Hatsa hartzea ere ez zen haientzat erraza bekatu egin edo eginarazi gabe.* <http://www.armiarma.com/monzon/arti0110.htm>

IV.- Agintera (ez egoera aditzek onartzen dute, soilik):

Testa baliagarria da agintera onartzen duten aditz-lokuzioak ez direla egoerak baieztatzeko<sup>100</sup>.

(1.204) *Orduan, esan zioten Salomoni: - Salomon erregearen beldur da Adonias eta aldareko adarrei atxikia dago. Honela dio: "Zin egin diezadala Salomonek ez nauela ezpataz hilko".* EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Erg 1,51.

(1.205) *Egin dezagun otoitz* Fukushima piztina husten asma dezaten. Husten-asma-dezaten

<http://www.argia.com/argia-astekaria/2390/egin-dezagun-otoitz-fukushima-piztina-husten-asma-dezaten>

(1.206) *Guztiek lan egin dezagun.*

<http://langabezian.crearblog.com/?p=363>

<sup>100</sup> Test hori ezin zaie aplikatu gertakari meteorologikoa adierazten duten subjekturik gabeko aditzei; beraz, (ea) moduan adieraziko dugu.

V.- *Bat-batean* / *halako batean* adberbioak (ez egoera + puntualtasuna adierazten duten aditzek onartzen dute, soilik):

Erdiespen aditzak dira, oro har, puntualtasuna adierazten duten lokuzioak, eta hala, test horiek onartzen dituztenak:

- (1.207) Nire kabiltzarrari lotutako arrantzontziak *bat-batean marro egin* zuen, lotan dagoen gizakoteak ametsen batek asaldaturik eta esnatzeke egingo lukeen bezala. EPG, *Lagun izoztua*, Joseba Sarrionandia (Elkar, 2001: 152).
- (1.208) *Bat-batean* sistema ekonomikoak *eztanda egin zuen* ondorio latzak ekarriz: langabezi tasa izugarria eta poltsiko gehienetan diru gutxi, besteak ... <http://www.hirian.com/2012/01/23/zerbait-egin-beharko-da/>
- (1.209) HORTENTSIA kiosko aldera doa oinez. *Halako batean ostiko egiten dio* zer edo zeri. Behera begiratu eta larrosa bat da bere zelofanean bilduta. HORTENTSIk jaso eta kioskoa zabaltzen du. Barrura sartu eta ontzitxo batean sartzen du larrosa. Larrosari begira geratzen da pixka batean, eta orduantxe JOSU eta MERTXE agertzen dira. HORTENTSI berehala JOSU aztertzen [...] Goenkale corpora, 550 atala, Basurde zahar baten alkandora, Sek.: 2
- (1.210) Halako batean haien begiradek *talka egin zuten*, talka bortitza. EPG, *Behi eroak*, Patxi Iturritegi (Elkar, 2003: 105).
- (1.211) *Halako batean* IÑIGOrekin *egiten dute topo*. Bat-batean gertatu da enkontrua, eta IMANOLEk ez du saihesterik izan. Goenkale corpora, 530 atala, Josemariren bihotz-bazterrak, Sek.: 10.
- (1.212) JOSU ikusten dugu, bakarrik, paseo bat ematen ari dela. Geroago, telebistako kameralaria ikusten dugu haren atzean, grabatzen ari zaiola. Kazetaria eta MERTXE bera ere han inguruan daude. *Halako batean*, ordea, JOSUk *estropezu egiten du* eta ia lurrera

erortzen da. Goenkale corpora, 584 atala, Amets, zatoz jada nigana, Sek.: 6.

(1.213) Eta sendatuta nengoela esan zidaten egunean, *bat-batean salto egin zuen* bide-lapur nomadak eta lasterka alde egin zuen arrapaladan ospitaletik. EPG, *Denak hasperenka*, Gianni Celati / Pello Lizarralde (Igela, 2005: 160).

(1.214) "Ederra da izarpe honetan hiltzea", esan zuen Vladimirrek *bat-batean hasperen eginez*, eta bere begi sakonak izar haietako bati begira geratu ziren betiko, eta bere sudur hegalen mugimendutxo gelditu egin zen guztiz. ETC, *Soinujolearen semea*, Bernardo Atxaga (Pamiela, 2003).

Puntualtasuna adierazten duten aditz-lokuzio horiek guztiak erdiespenak dira. Baina, badira *bat-batean* testa onar dezaketen jarduerak ere eta horixe erakusten dute adibide hauek:

(1.215) Hughek *bat-batean barre egin zuen*, ez oso ozen, segurutik ezergatik ere ez: mugimendu zoli batez tentetu eta jauzi egin zuen karel gainera. ETC, *Sumendiaren azpian*, Malcolm Lowry, Karlos del Olmo (Elkar, 2008).

(1.216) KOLDOK ez du berehala erantzuten, grazia egin dio neskaren ateraldiak. MARIK oker ulertzen du isiltasun hori; *bat-batean hitz egiten hasten da. Haur eder baten bila*, Goenkale corpora, 2001.

(1.217) *Bat-batean intziri egin*, eta burua astindu zuen. ETC, *Roger Ackroyden hilketak*, Agatha Christie, Ainhoa Eder (Igela, 2004).

(1.218) *Halako batean dei egin zion* zerbitzariari, atzamarrak kriskitin, filme zaharretan iduri. ETC, *Berria*, Iritzia, «Garçon!», Koldo Alduntzin (2010-07-08).

(1.219) Baina *batbatean atzera jauzi egin zuen*. ETC, *Reckless - Harrizko haragia*, Cornelia Funke / Aiora Jaka (Elkar, 2010).

Beraz, jarduera aditzek puntualtasuna adieraz dezakete, egoera jakin batean. Izan ere, *hitz egiten hasi* egiturak puntualtasun ñabardura erantsia du, *hitz egiten ari* egiturak ez duena.

VI.- *Luzaroan* / kontuz<sup>101</sup> (ez egoerak + ez puntualtasuna duten aditzek onartzen dute, soilik):

Adberbio horietan oinarritzen den testa jarduerak antzemateko baliagarria izango zaigu. Erdiespenek ostera, ez dute test hori onartuko, puntualak direlako.

- (1.220) Azalduko dugu zer eragin izan duten jakintsuen elkarte horiek giza espirituaren aurrerakuntzan, hesi bat baitira *luzaroan aurka egingo diona* hitzontzikeriari eta jakintza faltsuari; [...] EPG, *Pentsamendu ilustratua - idazlan hautatuak II*, Kant, Burke, Volney, Cordoncet / Haritz Monreal (2005: 390).
- (1.221) Ez dago borondate subiranorik, ezta aurreiritzi nazionalik ere, prezio merkearen kontra *luzaroan borroka egin* dezakeenik. EPG, *Amerikako demokrazia I*, Alexis de Tocqueville / Iñaki Mendiguren (1995: 7).
- (1.222) Mélissak *luzaroan hitz egin* zuen. EPG, *Loroaren teorema*, Denis Guedj / Jon Muñoz (EHU, 2006: 507.)
- (1.223) Izaki matematiko horiek eginiko ibilbideari buruz *luzaroan egin zuen* Ruche jaunak *gogoeta*. EPG, *Loroaren teorema*, Denis Guedj / Jon Muñoz (EHU, 2006: 310).

---

<sup>101</sup> *Kontuz* testa aplikatzean aldagai asko hartu behar dira kontuan. Izan ere, subjektu biziduna ez denean ezin da *kontuz* testa aplikatu, *luzaroan* berriz bai. Are gehiago, subjektua biziduna izan arren, adierazten den ekintzaren kontrola ez duenean, ezin da *kontuz* testa aplikatu, *luzaroan* berriz bai. Horrez gain, badira jarduera aditzak *kontuz* testa onartzen ez dutenak eta *luzaroan* bai.

- (i) \*Argiak *kontuz egin du distira* / argiak *luzaroan egin du distira*  
(ii) \**kontuz elurra egin du* / *luzaroan elurra egin du*  
(iii) \**kontuz amets egin du* / *luzaroan amets egin du*  
(iv) \*Trenak *kontuz txistu egin* / trenak *luzaroan txistu egin du*  
(v) \*Mikelek *kontuz trufa egin du* / Mikelek *luzaroan trufa egin du*

(1.224) Ipurmasail bakoitzean *hazka egingo dugu luzaroan*, goitik behera eta erdialdetik aldakarantz; igurtzi bakoitzean hatz markak nabarmenduko dira azalean. EPG, *Sexua noiznahi*, Luis Elberdin, (Gaiak, 2005: 143).

(1.225) Eta gogoratu zuen beste batean mutila gaixorik sentitu zela mendian eta botaka aritu zela; gero, *lo egin zuen luzaroan*. *Alkimista*, Paulo Coelho / Xabier Aranburu (Txalaparta, 2001: 183).

(1.226) *Euria luzaroan egiten du*  
<http://zientziakaiera.com/2014/02/25/eguraldiaz-txioka-meteorologiaren-oinarrizko-kontzeptuak-labur-labur/>

baina,

(1.227) \*Mikelek *luzaroan / kontuz behaztopa egin du*

Adibideak erakusten duenez, erdiespen aditzek ez dute ez bata ez bestea onartzen.

2.- Jarduerak eta burutzapenak bereizteko testak

VII.- *Amaitu* (burutzapenek onartzen dute):

Telikotasuna edo ekintzaren amaiera adierazten duen *amaitu* predikatua, burutzapenak eta jarduerak desberdintzeko erabiltzen du Dowtyk. Test hori euskarazko aditz-lokuzioei aplikatuz, *amaitu* testa onartzen duten aditz-lokuziorik ez dugula aurkitu esan behar dugu, beraz, aditz-lokuzioen artean, burutzapenik ez dugula baieztatzeko balio digu test horrek. Izan ere, corpusetan ez dugu honelako adibiderik aurkitu:

(1.228) \**alde egiten amaitu du*

VIII.- Progresiboaren inplikazioa, burutzapenak eta jarduerak bereizteko beste irizpidea izan daiteke:

*X egin*, jarduera bada, *X egiten ari da* egiturak, *X egin du* inplikatzen du.

*X egin*, burutzapena bada, *X egiten ari da* egiturak, ez du *X egin du* inplikutzen.

(1.229) Ni *negar eta negar* ari nintzen, liburua irekitzeko eta irakurtzeko inor ere agertu ez zelako. (EPG)<sup>102</sup>

*Negar eta negar ari* egitura horrek<sup>103</sup>, *negar egin nuela* inplikutzen du, beraz, *negar egin* jardueratzat har dezakegu. Arrazonamendu berean oinarrituz kontsideratuko ditugu jarduerak egitura hauetako aditz-lokuzioak ere:

(1.230) Waterpolo Tximistarri klub txiki bat da, duela 8 urte sortu zen eta oso gogor *egiten ari da lan* gazteek uretan kirola *egiten* jarrai dezaten. <http://tximistarrikirolelkarrea.blogspot.com/2010/06/txikia-handi-egiten-ari-da.html>

(1.231) Ingelesez *ari da hitz egiten*, eta berak esandakoak azpтитuluetan jasotzen dira.

[http://www.euskadi.net/contenidos/informacion/campos\\_trab\\_video/eu\\_0/transkripzioa.html](http://www.euskadi.net/contenidos/informacion/campos_trab_video/eu_0/transkripzioa.html)

(1.232) Bigarrenaren arabera, berriz, gidari batek errepidean *autostop egiten ari* den neska bat hartzen du autoan. EPG, *Groenlandiako lezioa*, Bernardo Atxaga (Erein, 1998: 71)<sup>104</sup>.

(1.233) *euria egiten ari da*.

[http://mylanguages.org/es/euskera\\_vocabulario.php](http://mylanguages.org/es/euskera_vocabulario.php)

(1.234) Euskal Herrian ezohiko *beroa egiten ari da*; horri aurre egiteko, adituek urarekin freskatzeko eta eguzkitik babesteko aholkatu dute. [http://www.berria.eus/paperekoa/1537/010/001/2013-08-02/bero\\_sapari\\_aurre\\_egiteko\\_itzal\\_bila.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1537/010/001/2013-08-02/bero_sapari_aurre_egiteko_itzal_bila.htm)

<sup>102</sup> Hala ere, Ereduzko Prosa Gaur *corpusean* aurkitu ditugun adibideak kontuan hartuz *negarrez ari* egitura, *negar egiten ari* baino komunagoa dela esan behar dugu.

<sup>103</sup> *Egin* aditza eliptikoa da egitura horretan.

<sup>104</sup> *Autostop egin* aditz-lokuzioaren adibide gutxi topatu ditugun arren, horien artean gehienak, *ari* progresiboa duten egituretan agertzen dira.

Hualde eta Ortiz de Urbina hizkuntzalariek (1987) aditz gisa deskribatzen dute *ari* elementua eta *ariren* ezaugarrienetako bat “ditransitibizazio” prozesua eragitea dela aipatzen dute:

«*ari is a detransitivizer (since it selects intransitive auxiliaries even when used in conjunction with transitive verbs)*», (Hualde and Urbina 1987: 428).

Idea hau bat dator aditz-lokuzioez osatutako egituretan atzematen ditugun ezaugarriekin. Bi IS dituzten aditz-lokuzio egituretan, subjektu funtzioa betetzen duen izen sintagmaren kasu-marka aldatzen dela dakusagu *ari* elementua jokoan denean. Hau da, oinarrizko egituren ergatiboz markatzen den IS, absolutiboz markatzen da *ari* aditzaz osatutako egituren eta aditz laguntzailea (*\*edun*) iragankorra izatetik (*izan*) laguntzaile iragangaitza izatera pasatzen da.

*Euria egin* eta beste aditz-lokuzio meteorologikoei dagokionez, kanpo argumenturik ez dugunez edota ergatiboz markatzen den izen sintagmarik ez dugunez, ez dugu aldaketarik atzematen absolutiboaz markatzen den argumentu bakarrean. Hala eta guztiz ere, aditz laguntzailea iragankor izatetik iragangaitz izatera pasa daiteke<sup>105</sup>.

Hainbat kasutan, dena den, *\*edun* aditz laguntzaile iragankorrak jarraitzen dio *ari* elementuari gertakari meteorologikoez osatutako egituretan:

<sup>105</sup> *Ariren* jokaera bitxi hori berregituratze prozesuan oinarriz azaltzen dute Hualdek eta Urbinak (1987):

«*Ari is a verb in all constructions it occurs in. Apparent deviations of ari structures from general syntactic patterns can be accounted for in a straightforward manner if we assume a restructuring process that creates monoclausal structures with one single complex verb out of biclausal structures with nominalized complements quite common elsewhere in the language*», (Hualde eta Urbina 1987: 451).

Horrekin bat dator Euskaltzaindiaren Hiztegia (2012) *ariri* buruz esaten dena, *ari* elementuak osagarri moduan era burutugabea agertzen den aditz bat edo horren parekoa den adberbio bat hartzen duela, (Euskaltzaindiaren Hiztegia 2012: 49).

(1.235) *euria, haizea, elurra ari du. Euskaltzaindiaren Hiztegia* (2012: 49).

Hona hemen, bestelako adibidea, *ari* elementuaz osatutako egituraren beste inplikazio bat erakusten duena:

(1.236) Jon Arretxe idazlea Bilboko auzoei buruzko *eleberria ari da idazten*. <http://www.eitb.com/eu/bideoak/osoa/856486/jon-arretxe-idazlearen-bideoa--bilboko-auzoei-buruzko-eleberria-ari-da-idazten/>

*Ari* delakoak eragindako "ditrantsitibizazioa" ez ezik, aipagarria da azken egiturak inplikatzeko duena ez datorrela bat aurreko adibideek inplikatzeko dutenarekin. *Eleberria idazten aritzeak* ez du inplikatzeko *eleberria idatzi duenik*, beraz, adibideak argi erakusten du *idatzi* aditza ez dela jarduera, burutzapena baizik.

Laburbilduz, aditz-lokuzioen aspektua mugatzeko, euskarari aplikatzen dakizkiokeen test hauek baliatuko ditugu: 1 *nahita*, 2 *ari*, 3 *arazi*, 4 *agintera*, 5 *bat-batean*, 6 *luzaroan*, 7 *amaitu* eta 8 *x egiten ari* → *x egin du* progresiboaren inplikazioa. Test horiek Orotariko Euskal Hiztegian, Euskaltzaindiaren Hiztegian, Ereduzko Prosa Gaur *corpusean*, Ereduzko Prosa Dinamikoa *corpusean*, Goenkale *Corpusean*, Euskal Klasikoen *Corpusean*, Egungo Testuen *Corpusean*, Pentsamenduaren Klasikoak *corpusetan* nahiz Egungo Euskararen Hiztegian aurki daitezkeen lokuzio egiturei aplikatuko dizkiegu.

Hurrengo taulan testak aditz-lokuzioen corpus zabal bati aplikatuz lortu ditugun gramatikaltasun emaitzak aurkeztuko ditugu<sup>106</sup>: Parentesi modura esan behar dugu *nahita* eta *kontuz* testak, subjektu biziduna duen aditzari aplikatu ahal zaizkiola, soilik. Aditz meteorologikoei eta subjektu ez bizidunak dituzten

<sup>106</sup> *Corpusa* osatzeko, batetik, Sarasolaren Euskal Hiztegia (1996) agertzen diren aditzak hartu ditugu. Bestalde, aditz-lokuzioen sailkapen desberdinetan agertzen diren aditzekin osatu dugu *corpusa*, hala nola Rodríguez eta García Murgaren sailkapena (2001), Martínezen sailkapena (2003), Hualde eta Ortiz de Urbina (2003), Etxeparerena (2003) eta De Rijken (2008) sailkapenak, Zabalarenak (2004) eta abar.

aditzei ezin zaizkienez aplikatu, taulan ea (ez da aplikatzen) modura adierazi dugu. *Nahita* testa ez da bateragarria subjektu biziduna izanagatik, jardueraren kontrola ez duen ekintzaren subjektuarekin edo jarduera espontaneo adierazten duten aditz-lokuzioekin eta kasu horietan (-) markatu dugu<sup>107</sup>. Agintera testa ez da aplikagarria subjekturik gabeko egitura meteorologikoak ditugunean eta honelakoetan ere (ea) moduan adierazi dugu. Azkenik, aipatu behar dugu ez diogula *amaitu* testa aplikatu *ari* progresiboa onartu ez duten aditz multzoari eta (ea) moduan markatu ditugu azken horiek ere.

Taula honetan gramatikaltasun emaitzak jasotzen ditugu:

---

<sup>107</sup> (i) \*Antibiotikoak *nahita kalte egin* dit (ea)  
(ii) \*Mikelek *nahita zalantza egin* du (-)

(1.237)

ADITZA	nahita	Ari	arazi	agintera	bat-batean	kontuz / luzaroan	amaitu x egiten--> x egin du	ASPEKTUA
ADAUSI EGIN	-	+	+	+	-	+	+	jarduera
AGUR EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
AHARRAUSI EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
AUHEN EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
AITOR EGIN	+	-	+	+	-	+	+	jarduera
AIPU EGIN	+	-	+	+	-	+	+	jarduera
ALDARRI EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
ALDE EGIN	+	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
ALGARA EGIN	+	+	+	+	+	+	+	jarduera
AMETS EGIN	-	+	-	+ <sup>108</sup>	-	-	+	jarduera
APUSTU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
ARGI EGIN	ea	+	-	ea	-	+	+	jarduera
ARNAS(A) EGIN	-	+	+	+	-	+	+	jarduera
ARRANTZA EGIN	+	-	+	+	-	+	+	jarduera
ARRAUN EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
AUKERA EGIN	+	+	+	+	- <sup>109</sup>	+	+	jarduera
AURRE EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
DESAFIO EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
BARAU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
BARRE EGIN	+	+	+	+	+	+	+	jarduera
BEGITARTE EGIN	+	+	+	+	-	+	--+	jarduera
BEHAZTOPA EGIN	-	-	+	+	+	-	ea	erdiespena

<sup>108</sup> *Amets egin aginteran zentzu figuratuan erabil daiteke, soilik.*

<sup>109</sup> *Bat-batean aukeratu zuen posible litzateke.*

ADITZA	nahita	Ari	arazi	agintera	bat-batean	kontuz / luzaroan	amaitu x egiten--> x egin du	ASPEKTUA
BEKATU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
BERBA EGIN	+	+	+	+	+	+	+	jarduera
BERO(A)EGIN	ea	+	+	ea	-	+	+	jarduera
BIRAO EGIN	+	+	+	+	+	+	+	jarduera
BOIKOT EGIN	+	-	+	+	-	+	+	jarduera
BORBOR EGIN	ea	+	+	+	-	+	+	jarduera
BORROKA EGIN	+	+	+	+	+	+	+	jarduera
BULTZA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
BURLA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
BURRUNBA EGIN	-	-	+	+	-	+	+	jarduera
BURU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
DANTZA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
DAR-DAR EGIN	-	-	+	+	+	+	+	jarduera
DEI EGIN	+	+	+	+	+	+	+	jarduera
DEIADAR EGIN	+	+	+	+	+	+	+	jarduera
DISTIRA EGIN	ea	+	+	+	-	+	+	jarduera
DOLU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
DUDA EGIN	-	-	+	+	-	+	+	jarduera
EHIZA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
EKAITZA EGIN	ea	+	+	ea	-	+	+	jarduera
ELE EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
ELURRA EGIN	ea	+	+	ea	-	+	+	jarduera
ENBARAZU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
ERREGU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
ERRIETA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
ESTROPEZUEGIN.	-	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
EURIA EGIN	ea	+	+	ea	-	+	+	jarduera
EZTANDA EGIN	ea	-	+	+	+	-	ea	erdiespena

ADITZA	Nahita	Ari	arazi	Agintera	bat-batean	kontuz / luzaroan	amaitu x egiten-> x egin du	ASPEKTUA
EZTUL EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
FESTA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
GAITZ EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
GALDE EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
GARRASI EGIN	+	+	+	+	+	+	+	jarduera
GOGAIT EGIN	-	+	+	+	-	+	+	jarduera
GOGOETA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
HAIZEA EGIN	ea		+	ea	-	+	+	jarduera
HANKA EGIN	+	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
HASPEREN EGIN	+	-	+	+	+	-	+	erdiespena
HAUSNAR EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
HEGAN EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
HEIAGORA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
HERREN EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
HITZ EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
HOTS EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
HOTZ(A) EGIN	ea	+	+	ea	-	+	+	jarduera
HUTS EGIN	+	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
IHES EGIN	+	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
IKARA EGIN	-	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
INTZIRI EGIN	-	-	+	+	+	-	+	erdiespena
IRAIN EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
IRRIBARRE EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
IRRIST EGIN	-	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
IRUZUR EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
ISEKA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera

ADITZA	Nahita	Ari	arazi	Agintera	bat-batean	kontuz / luzaroan	amaitu x egiten-> x egin du	ASPEKTUA
ISKIN EGIN	+	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
IZOTZA EGIN	ea	+	+	ea	-	+	+	jarduera
JARAMON EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
JAUZI EGIN	-	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
JOLAS EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
JURAMENDU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
KAKA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
KALTE EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
KASKABARRA EGIN	ea	+	+	ea	-	+	+	jarduera
KASU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
KEINU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
KONTU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
KOSKA EGIN	+	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
KUKU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
KURRIN EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
LABAIN EGIN	-	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
LAN EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
LAPURRETA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
LAZTAN EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
LEHER EGIN	ea	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
LO EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
LISTU EGIN	-	+	+	+	-	+	+	jarduera
MARRU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
MEN EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
MESEDE EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
MIN EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
MURGIL EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
MUZIN EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera

ADITZA	nahita	Ari	arazi	agintera	bat-batean	kontuz / luzaroan	amaitu x egiten-> x egin du	ASPEKTUA
NEGAR EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
OIHU EGIN	+	+	+	+	+	+	+	jarduera
OKA EGIN	-	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
ORRO EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
OSTIKO EGIN	+	+	+	+	+/-	+	+	jarduera
OTOITZ EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
PARRANDA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
PASO EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
PIPER E	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
PLANTO EGIN	+	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
PORROT EGIN	-	+	+	+	-	+	+	jarduera
PROMES EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
PROTESTA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
PUTZ EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
SALTO EGIN	+	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
SAKA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
SARGORI EGIN	Ea	+	+	ea	-	+	+	jarduera
SO EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
SOLAS EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
TALKA EGIN	-	-	+	+	+	-	+	erdiespena
TIRO EGIN	+	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
TOPO EGIN	-	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
TRABA EGIN	+	+	+	+	-	+		jarduera
TRANPA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
TRUFA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
TRUKE EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
TRUMOIA EGIN	ea	+	+	ea	-	+	+	jarduera
TUJUST EGIN	-	-	+	+	+	-	ea	erdiespena

ADITZA	nahita	Ari	arazi	agintera	bat-batean	kontuz / luzaroan	amaitu x egiten--> x egin du	ASPEKTUA
TXALO EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
TXIKARRA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
TXIMISTA EGIN	ea	+	+	ea	-	+	+	jarduera
TXIO EGIN	-	+	+	-	-	+	+	jarduera
PIXA EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
TXISTU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
UHURI EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
UKO EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
ULU EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
USAIN EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera
USIN <sup>110</sup> EGIN	-	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
ZIRIMIRI EGIN	ea	+	+	ea	-	+	+	jarduera
ZALANTZA EGIN	-	-	+	ea	-	+	+	jarduera
ZAUNKA EGIN	-	-	+	+	-	+	+	jarduera
ZAUSK EGIN	-	-	+	-	+	-	ea	erdiespena
ZIN EGIN	+	-	+	+	-	+	+	jarduera
ZINTZ EGIN	-	+	+	+	-	+	+	jarduera
ZIRKIN EGIN	+	-	+	+	-	+	+	jarduera
ZIZT EGIN	+	-	+	+	+	-	ea	erdiespena
ZOTIN EGIN	-	+	+	+	-	+	+	jarduera
ZURRUT EGIN	+	+	+	+	-	+	+	jarduera

+: gramatikala

-: ez gramatikala

ea: ez da aplikatzen

Aditz-lokuzioen *corpusari* testak aplikatu ondoren lortu ditugun emaitzetan oinarrituz, aditz-lokuzioak bi azpisailetan bana ditzakegu, aspektuari dagokionez. Aztertutako lokuzio gehienak telikotasuna adierazten ez duten jarduerak dira, % 81a, hala eta guztiz ere, erdiespenen talde bat ere badugu, % 19a. Emaitzek erakusten dutenez, ez dugu aditz-lokuzio horien artean burutzapenik ezta egoera aditzik ere.

<sup>110</sup> *Urtzintz egin / doministiku egin* (BN/L)

Hona hemen aspektuari dagokion aditz-lokuzioen sailkapen bikoitza, non jarduerak eta erdiespenak bereizten ditugun:

(1.238) Jarduerak:

*adausi egin, agur egin, aharrausi egin, auhen egin, aitor egin, aipu egin, aldarri egin, algara egin, amets egin, apustu egin, argi egin, arnas(a) egin, arrantza egin, arraun egin, aukera egin, aurre egin, desafio egin, barau egin, barre egin, begitarte egin, bekatu egin, berba egin, bero(a) egin, birao egin, boikot egin, borroka egin, bultza egin, burla egin, burrunba egin, buru egin, dantza egin, dardard egin, dei egin, deiadar egin, distira egin, dolu egin, duda egin, ehiza egin, ekaitza egin, ele egin, elurra egin, enbarazu egin, erregu egin, errieta egin, euria egin, eztul(a) egin, festa egin, gaitz egin, galde egin, garrasi egin, gogait egin, gogoeta egin, haizea egin, hausnar egin, hegan egin, heiagora egin, herren egin, hitz egin, hots egin, hotz(a) egin, irain egin, irribarre egin, iruzur egin, iseka egin, izotza egin, jaramon egin, jolas egin, juramentu egin, kaka egin, kalte egin, kazkabarra egin, kasu egin, keinu egin, kontu egin, kuku egin, kurrin egin, lan egin, lapurreta egin, laztan egin, lo egin, listu egin, marru egin, men egin, mesede egin, min egin, murgil egin, muzin egin, negar egin, oihu egin, orro egin, ostiko egin, otoitz egin, parranda egin, paso egin, piper egin, porrot egin, promes egin, protesta egin, putz egin, saka egin, sargori egin, so egin, solas egin, traba egin, tranpa egin, trufa egin, truke egin, trumoia egin, txalo egin, txikarra egin, tximista egin, txio egin, pixa egin, txistu egin, uhuri egin, uko egin, ulu egin, usain egin, zirimiri egin, zalantza egin, zaunka egin, zin egin, zintz egin, zirkin egin, zotin egin, zurrut egin.*

(1.239) Erdiespenak:

*alde egin, behaztopa egin, estropezu egin, eztanda egin, hanka egin, hasperen egin, huts egin, ihes egin, iskin egin, ikara egin, intziri egin, irrist egin, jauzi egin, koska egin, labain egin, leher egin, oka egin, planto egin, talka egin, tiro egin, topo egin, tupust egin, usin egin, zausk egin, zizt egin.*

Aditz-lokuzioei test horiek aplikatuz lortzen ditugun emaitzak ondorio hauetara garamatzate:

1. Venderrek, jarduera aditz denbora mugagabea garatzen dela aipatzen duenean, nahitasun propietateari erreferentzia egiten dio eta jarduera *nahita* garatu daitekeela aipatzen du. Aditz-lokuzio gehienek prozesu bati erreferentzia egiten badiote ere, nahitasuna ez da nahi eta nahi ez aditz horien ezinbesteko ezaugarria, ezta biziduna izatea ere. *Amets egin*, esate baterako, jarduera gisa deskribatuko dugu, nahitasuna testa ez onartu arren:

(1.240) \**amets nahita egin* du

Ikusi dugu, bestalde, gertakari meteorologikoari erreferentzia egiten dieten *euria egin* eta mota horretako aditz-lokuzioek, ez dutela, salbuespenak salbuespen, nahitasuna adierazten duen elementurik onartzen, subjektu eza dela eta:

(1.241) \**euria nahita egin* du

Horregatik, kasu horietan testa ez dela aplikatzen adierazi dugu (ea) eta beste irizpideak aintzat hartuz, jarduera gisa karakterizatu ditugu aditz meteorologiko horiek guztiak.

Aditz meteorologikoak ez ezik, badira *zaunka egin*, *kuku egin*, *kurrin egin*, *marmar egin*, *dar-dar egin*, eta mota horretako aditz-lokuzioak, animaliek igortzen dituzten soinu ekintzak nahiz ekintza espontaneoak adierazten dituztenak. Kasu horietan, ezin dugu nahitasunaz hitz egin, ezta egiletasunaz ere. Subjektuak ekintza kontrolatzen ez duenez, horiek guztiek ez dute nahitasuna testa onartzen, ez dira borondatez garatzen diren ekintzak, hala eta guztiz ere, jarduera gisa karakterizatu ditugu:

(1.242) \**dar-dar nahita egin* du

Aditz meteorologikoak, ekintza espontaneoak eta animaliek igarritako soinuei dagozkien aditzak salbu, gainerakoak nahitasun eta bizidun propietateekin bat

datoz. Hauek bai, Vendlerren definizioari egokitzen zaizkio, jarduera aditza eta nahitasuna bat datozela aipatzen duena. Kasu horietan egiletasunaz hitz egin dezakegu, izan ere, espero ditugun ergatiboz markatutako subjektu bizidun egile edo kontrolatzaileak topatu ditugu adibideetan (*guk nahita egiten dugula bekatu*).

Nahitasun testak, ez du balio, euskaraz, erdiespenak jarduera aditzetatik bereizteko:

- (1.243) Ez dakigu buffetetik irten berria zen edo whistean ohi baino dirualde handiagoak jokutzen ziren gelatxo berde batetik, ez dakigu *nahita alde egin zuen* edo indarrez kanporatu zuten, baina, hori bai, pozik eta alaitsu zetorren, prokuradorea besotik heldurik zekarrela. EPG, *Arima hilak*, Nikolai Gogol / Jose Morales (Ibaizabal, 1998: 251).

Baina, mota honetako adibiderik ez dugu *corpusetan* aurkitu:

- (1.244) \*Mikelek *nahita estropezu egin zuen*

Hau da, erdiespen batzuek *nahita* testa onartzen dute, beste batzuek ez:

2. Dowtyri jarraituz, aditz batek *ari/arazi* edo agintera testa onartzen badu, ez dela egoera aditza esan dezakegu. Corpus honetako aditz gehienek, hiru testak onartzen dituztela ikusi dugu eta hirurak onartzen ez dituztenek, erdiespen aditzek, baten bat onartzen dute. Beraz, lokuzio horien artean ez dugula egoera aditzik baieztatu dezakegu.

Dowtyk adierazten duenez, *ari* progresiboa aditz puntualei aplikatzean emaitza ez gramatikala lortzen dugu. Euskaraz ere ez gramatikaltasuna lortzen dugu hainbat kasutan, *ari* progresiboa aplikatzean, eta hala, \**estropezu egiten ari* edo \**talka egiten ari* motako egiturarik ez dugu aurkitu. Hala eta guztiz ere, ikusi dugunez, badira, euskaraz, Dowtyren egitura logikoan oinarrituz puntualak izanik, *ari* progresiboa onartzen duten aditzak:

- (1.245) *Tiro egiten ari zen* gizon bat atxilotu dute.

<http://www.eitb.com/eu/bideoak/osoa/713331/zalla-eskopetarekin-tiro-egiten-ari-zen-gizon-atxilotu-dute/>

Aipatu moduan, beraz, *ari* testean oinarrituz soilik, ezin ditugu jarduerak erdiespen aditzetatik bereizi eta beste irizpideak beharko ditugu bereizketa hori egiteko.

3. *Bat-batean / halako batean* testak erdiespen aditzak erdiespen ez direnetatik bereizteko baliagarria izan zaizkigu, oro har. Hala eta guztiz ere, ikusi dugu badirela puntualtasun testak onar ditzaketen jarduerak ere.

4. *Luzaroan* adverbioarekin konbinatuz ez gramatikaltasuna lortzen badugu, aditz hori erdiespena dela esan dezakegu eta espero bezala, 19 dira, *luzaroan* adverbioa onartzen ez duten erdiespenak.

5. *Amaitu* testa, telikotasuna antzemateko erabili dugu eta jarduera aditza ekintza ez teliko eta ez burutuarekin identifikatzeko balio izan digu. Test hori aplikatuz esan dezakegu progresioa onartzen duten aditz-lokuzioek ez dutela emaitza jakinik adierazten, eta hala, jarduerak ekintza ez burutuak direla esan dezakegu.

6. *X egiten ari da* egituraren inplikazioa erabili dugu jarduerak burutzapenetatik bereizteko irizpide gisa eta emaitzak bat datoz *amaitu* testa aplikatzean lortu ditugun emaitzekin. *X egiten ari da*, *x* jarduera denean, *x egin du* inplikatzeko du, eta inplikazio hori islatzen duten aditz guztiak jarduerak direla frogatzeko erabili dugu argudioa.

Ikusi dugunez, egiletasuna eta subjektu biziduna ez dira jarduera aditzen ezinbesteko ezaugarriak, ez euskaraz, ezta bestelako hizkuntzetan ere. Eta hala, aditz-lokuzioen subjektua ez da biziduna *distira egin*, *borbor egin*, *porrot egin* eta abar jarduerak izan arren:

(1.246) Gero, bat-batean, Pippinek begirada jaso zuen, *eguzkiak oraindik distira egiten zuela* eta zutoihalak haize leunarekin mugitzen zirela

ikusiz. EPG, *Eraztunen Jauna III*, J.R.R. Tolkien / Agustin Otsoa (Txalaparta, 2004: 38).

(1.247) Hurrengo geltokian, aldiz, ideiek eta *gertaerek bihotzean borbor egin zidaten*. EPG, *Europako mugetan barrena*, Edorta Jimenez (Txalaparta, 2000: 105).

(1.248) Hainbat mendetako proba eta hutsegiteen ondoren, politika - eta *eliz esperimentu honek porrot egin zuen*, eta porrotaren zergatikoak Azterlan honetan lehenago jorratu dira. EPG, *Historiaren azterketa II*, A.J. Toynbee / Iñaki Mendiguren (Klasikoak, 2000: 103).

Van Valin eta LaPolla (1997)<sup>111</sup> hizkuntzalariekin bat eginez, jarduera aditz horien subjektua *effector* gisa karakterizatu genezake, eta hala, *effector* kontzeptuaren definizio formala, egitura logiko hauen x elementua litzateke:

(1.249) (DO (x) [shine' (x)]) (ingelesez)

(EGIN (x) [distira' / zotin' (x)]) (euskaraz)

Jarduera aditzak, beraz, egiletasuna eta ez egiletasuna adieraz dezake eta "DO" operadoreak jarduera aditz baten berezko ergatibotasunaren berri emango digu<sup>112</sup>.

<sup>111</sup> Autore horiek *effector* eta *agent* kontzeptuen definizio hauek proposatzen dituzte:

«Effector: *the doer of an action, which may or may not be willful or purposeful, as in Max breaking the clock accidentally, a dog chewing up Maria's new shoes*», (Van Valin eta LaPolla 1997: 75). Hots, jarduera baten egilea, ekintza horren nahitasuna aukerakoa denean, hala nola *Maxek erlojua ustekabean hautsi du*.

«Agent: *a willful, purposeful instigator of an action or event, such as in Leslie breaking the glass on purpose*», (Van Valin eta LaPolla 1997: 75). Hots, jarduera nahita egiten duen egilea, hala nola *Lesliek urontzia nahita hautsi du*.

<sup>112</sup> Holiskyren iritiz (1987), aldiz, "DO", egitura logikoan agertuko da aditza agentiboa bada, soilik.

Egilea egitura logikoan Rossiren (1972) eta Dowtyren (1979) ondorengo azalpenean ikus dezakegu, egilea x izanik:

Laburbilduz, aztergai ditugun aditz-lokuzioak bi talde nagusitan sailka daitezke aspektuan erreparatuz: jarduerak eta erdiespenak. Erdiespenak eta jarduerak elkarren artean bereizteko irizpide bat puntualtasuna izan ahal da, baina irizpide hori ez da nahikoa aditzaren aspektua erabakitzeko, eta horretarako, *luzaroan/kontuz* testak ere balia ditzakegu. Jarduerak ez dira puntualak, oro har, erdiespenak, berriz, bai. Dena den, ikusi dugunez, jarduerak ñabardura puntuala onar dezakete hainbat testuingurutan. Jardueren eta erdiespenen arteko beste desberdintasuna progresibotasuna dugu. Jarduera gehienak progresiboak dira, *ari* testa onartzen dute, erdiespen gehienak, ordea, ez dira progresiboak. Dena den, ikusi dugu badirela *ari* progresiboa onartzen duten erdiespenak ere. Horrez gain, aztertutako [I+egin]<sub>A</sub> aditz-lokuzioen artean burutzapenik eta egoera aditzik ez dugula esan dezakegu, *amaitu* eta *X egiten ari* testen aplikazioan oinarrituz.

Zabalak (2004) hiru aspektu motatan banatzen ditu *egin* aditz arinaz osatutako predikatuak: jarduerak (*lan egin*), erdiespenak (*alde egin*) eta egoerak (*bero egin*). *Bero egin* eta mota horretakoak egoerak kontsideratzeko darabilen irizpidea denboran hedatzen dela adierazten duen *ari* partikula progresiboa ez onartzean datza. Guk, ordea, jardueren azpitaldean sailkatu ditugu aditz-lokuzio meteorologikoak, *ari* partikula onartzen dutela erakusten duten adibideetan oinarrituz (1.233, 1.234). *Ari* partikula onartzea ez ezik, aditz meteorologiko horiek denboran hedatzen direla erakusten duten adibideak ere topatu ditugu eta hori izan daiteke beste irizpidea, egoera baino areago, jarduerak kontsideratzeko.

(1.250) Britainian azken egunotan *euria etengabe egin du* eta uholdeak baziren non-nahi, bereziki, Finistere, Ille-et-Villaine eta Morbihan departamenduetan. ETG, *Egunkaria*, Mundua, Erredakzioa, (2001-01-07).

---

(i) DO (x, [do (x [...])])

(1.251) Miami izan ezik, beste edozein toki ematen zuen, ordea, Trinitateak, *euria geratu gabe ari* baitzuen. ETG, *Egunkaria*, Kultura, Ainhoa Oiartzabal (2001-07-29).

Meteorologikoak jardueren taldean kokatzeko beste arrazoia izan daiteke *ari* progresiboaz osatutako egiturak inplikatzeko duena. *Euria ari du* edo *euria egiten ari da*, *euria egin duela* inplikatzeko du, beraz, burutzapenak baino areago, jarduerak lirerateke, irizpide horretan oinarrituz.

Hurrengo (1.4.) azpiatalean aditz-lokuzioekin alderatuz antzekoak diren hainbat egitura aurkeztuko ditugu eta zertan bereizten diren laburbilduko dugu.

## 1.4. BESTELAKO EGITURAK

Aditz-lokuzio emankorrenak eta ugariak *egin*<sup>113</sup> aditzaz osatzen diren egiturak izan arren, badira beste zenbait aditzez osatutako aditz-lokuzioak ere. Horien artean *eman* eta *hartu* aditzez osatzen diren egiturak ditugu<sup>114</sup> eta

<sup>113</sup> *Egin* aditzaz osatzen diren aditz-lokuzio egiturez gain, *eragin* eta *eginarazi* forma arazleez osatzen direnak badirela esan behar dugu. Euskaltzaindiak (1991b) aditz-lokuzioekin aukeratu beharreko forma arazleaz araurik ematen ez duen arren, praktikan biak erabil daitezkeela dakusagu. *Hitz sarrerari dagokionez*, bi azpisarrerara hauek topatzen ditugu *Hitzegi Batuan*: *hitz eragin* eta *hitz eginarazi*. *Barre, lan* eta *negar sarreretan*, ordea, *barre eragin*, *lan eragin* eta *negar eragin* agertzen dira. Praktikan erabiltzen direnen artean ditugu, horiez gain, *amets eragin*, *atseden eragin*, *dar-dar eragin*, *gogait eragin*, *ihes eragin*, *leher eragin*, *juramentu eragin*, *zin eragin*, eta abar, Euskaltzaindia (1991b). Beraz, forma arazleez osatutako aditz-lokuzioek ere azpimultzo bat osa dezakete.

<sup>114</sup> Zabalak (2004) mota sintaktiko-semanticoko hauetan sailkatzen ditu [IS/DS+ *eman/hartu*] motako aditz predikatuak: kontrol gehiago ala gutxiago duten ekintza fisikoak, ekintza edo egoera psikologikoak, elkarren arteko harremanei dagozkien ekintzak, ekintza mentalak eta komunikazioari dagozkionak, eta amaiera adierazten duten ekintzak, (Zabala 2004: 403-404). Esan gabe doa, tesi honetan aztertuko ditugun aditz-lokuzioak *egin* aditzaz osatzen diren egiturak izateaz gain, ez dugula horien artean burutzapenik edo ekintzaren amaiera adierazten duen aditzik. Beraz, Zabalak aipatzen dituen egitura asko, bereziki amaiera adierazten duten ekintzak, gure azterketa eremutik kanpo geratzen direla esan behar dugu. De Rijkek (2008) ere bereizten ditu determinatzailerik gabeko izenez eta *hartu* nahiz *eduki* aditzez osatutako egiturak.

urriagoak dira *eduki* aditzaz osatutakoak. Hona hemen *hartu*, *eman* eta *eduki* aditzez osatutako aditz-lokuzioak, besteak beste:

(1.252)

I + HARTU	I + EMAN	I + EDUKI
ARNASA HARTU <sup>115</sup> HATS HARTU GOGO HARTU	AMORE EMAN ARRETA EMAN DAMU EMAN	ESKU EDUKI INTENTZIO EDUKI KONTU EDUKI
MIN HARTU ESKU HARTU	MIN EMAN FEDE EMAN	ON EDUKI ARRAZOI EDUKI
KARGU HARTU PENA HARTU SU HARTU PARTE HARTU GORROTO HARTU TOKI HARTU	HITZ EMAN ANIMO EMAN LUR EMAN AURPEGI EMAN AMORRU EMAN BURU EMAN	MIN EDUKI PENA EDUKI
LUR HARTU NEURRI HARTU POZ HARTU	GIBEL EMAN HITZ EMAN KONTU EMAN	
ATSEDEN HARTU ONARTU <sup>116</sup> ADORE HARTU FIN HARTU KONTU HARTU ATSEGIN HARTU DAMU HARTU INDAR HARTU	MUSU EMAN OHORE EMAN POZ EMAN SU EMAN HATS EMAN KONTSEILU EMAN KUNPLIMENDU EMAN BEGI EMAN	
PLAZER HARTU ETSENPLU HARTU	PARTE EMAN HAUTEMAN IKARA / BELDUR EMAN ERRIETA EMAN	

<sup>115</sup> *Arnasa egin* aditz-lokuzioari dagokionez, izena determinatzaileduna eta determinatzailearik gabekoa izan daitekeen moduan, esanahia bat bera izanik, *arnasa hartu* egitura dugunean, determinatzailedun izena da aukera bakarra (*arnasa*).

<sup>116</sup> *Ohar gaitezen onartu* eta *on eduki* aditz-lokuzioak izenondoaz osatzen direla, ez izenez, besteak bezala.

I + HARTU	I + EMAN	I + EDUKI
	AUKERA EMAN	
	PENA EMAN	
	ARRAZOI EMAN	
	ESKER EMAN	
	ATZEMAN	
	LAZTAN EMAN	
	LEKU EMAN	
	GOGO EMAN	
	BIZKAR EMAN	
	ARGI EMAN	

Kasu batzuetan aditz desberdinez osatzen diren aldaerak sinonimoak dira edo semantikoki oso antzekoak, itzulpenak erakusten duen moduan. Hala nola *esker egin / esker eman* (agradecer), *arnas(a) egin / arnasa hartu* (respirar), *min egin / min eman* (hacer daño), eta abar. Gehienetan, ordea, aditz bakoitzari dagokion esanahia ez dator bat. Hala nola *hitz egin* (hablar) ≠ *hitz eman* (prometer), *damu hartu* (arrepentirse) ≠ *damu eman* (causar arrepentimiento), *pena hartu* (tener pena) ≠ *pena eman* (dar pena), *errieta egin* (discutir) ≠ *errieta eman* (reñir), *ikara egin* (temblar) ≠ *ikara eman* (asustar), *kontu egin* (preocuparse de, cuidar) ≠ *kontu hartu* (tener en cuenta, pedir cuentas) ≠ *kontu eman* (dar cuenta, dar explicaciones), *arrazoi eman* (dar la razón) ≠ *arrazoi eduki* (tener razón), eta abar.

Egin aditzaz ez ezik, beste aditz batzuez osatutako aditz-lokuzioak aurkeztu ondoren eta aditzaren aurreko elementuan erreparatuz, izen hutsaz osatzen ez diren elementuez osatutako aditz-egitura batzuk aurkeztuko ditugu eta aztergai ditugun aditz-lokuzioetatik bereiziko. Egitura horien arteko desberdintasunak agerian uzteko, bere ezaugarri bereizgarrien berri emango dugu.

Aipatu dugunez Zabalak [XS+A] predikatu konplexuen eremu zabalagoa aztertzen du eta lau azpitalde hauetan bereizten ditu mota horretako egiturak, Zabala (2004: 461):

[XS+A] aditz arinaz osatzen diren egiturak: *lan egin, turrut egin, itxura(k) egin eta haginka egin.*

[IS/DS+A] egiturak: *min hartu, txaloak jo, hanka sartu.*

[DS-kasua +A] egiturak: *buruak egin*

[PS+A] egiturak: *buruak eman, hegaz egin, harira etorri, larrutik pagatu, boladan egon, kontuan hartu, aintzakotzat hartu.*

Egitura mota bakoitzari dagokion aditz arin versus aditz astun bereizketari buruzko eztabaida geroko utzita<sup>117</sup> eta Zabalak aipatzen duen [XS+A] eremu zabala aintzat hartuz, izen sintagmaz, soilik, osatzen ez diren *egin* aditzaz osatutako egitura hauek bereiziko ditugu guk ere, bi motako [DS+egin] egiturak, [DS-lekuzko kasua+egin] egiturak, papera edo errola elementu eliptikoaz osatzen den [I-arena+egin] egitura konplexuagoak, [Izen-ka+egin] motakoak, eta abar, eta aztergai ditugun aditz-lokuzioekin konparatuko ditugu:

- (1.253) A. [Izen-ak + egin]<sub>A</sub> (egitura iragankor arruntak)
- B. [Izen-ak + egin]<sub>A</sub> (egitura idiomatikoak)
- C. [DS-n/ean + egin]<sub>A</sub>
- D. [Izen-arena + egin]<sub>A</sub>
- E. [Izen-ka + egin]<sub>A</sub>

---

<sup>117</sup> Gure aztergai [I+egin] egiturak dira oraingoz. Nolanahi ere, *hartu, eman, eduki* eta beste zenbait aditzaz osatutakoak aztertzea geroko eginkizuna izan zitekeen..

A. [Izen-ak + *egin*]<sub>A</sub> egitura iragankorrek:

(1.254) *BAKEAK EGIN*

*BARREAK EGIN*

*EGINAHALAK EGIN / AHALEGINAK EGIN*<sup>118</sup>

*EROSKETAK EGIN*

*KONTUAK EGIN*

*ITXURAK EGIN*

*MAÑAK EGIN*

*URTEAK EGIN*<sup>119</sup>

(1.255) Chillidak eta Oteizak *bakeak egin* zituzten 1997an.

<http://www.eitb.com/eu/bideoak/osoa/1281626/bideoachillidak-eta-oteizak-bakeak-egin-zituzteneskerrik-askopetrov/>

(1.256) Pedofiloak hainbat identitate eta helbide elektronikoko erabiltzen ditu, eta ia beti gazte baten *itxurak egiten ditu*.

[http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42-440/eu/contenidos/noticia/2014\\_03\\_15\\_18346/eu\\_18346/18346.html](http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42-440/eu/contenidos/noticia/2014_03_15_18346/eu_18346/18346.html)

(1.257) *Urteak egin* nituen Achosten, ezkondu arte. EPG, *Zamaontzia*, Iñigo Aranbarri (Susa, 2011).

Lan honen aztergaitzat aukeratu ditugun aditz-lokuzioen izena kasu guztietan ez erreferentziala dela aipatu dugu, baita -a determinatzaileaz osatzen den izen meteorologikoa ere. Horrez gain, *egin* aditza semantikoki arin

<sup>118</sup> Egitura horiek iragankor arruntak direnez, singularrean eta pluralean bietara erabil daitezke, adibide honetan dakusagun moduan:

(i) Ikusteko *eginahala egin* nuen baina han irazki aski txikiko gizon bat baizik ez nuen ikusi, burges aberatsaren estiloan jantzia, larruzko iduneko altxatua zuela, kapela marroia eta makila beltza eskuinean. EPG, Hiltzaile baten aitormena, Joseph Roth / Matías Múgica (Igela, 2004: 139).

<sup>119</sup> *Egunak, asteak, hilabeteak, urteak* eta motako izenekin denbora adierazteko erabil daiteke *egin* aditza. Baita *urteak bete* adieraz ere.

gisa deskribatu dugu eta komunztadura singularrera mugatzen dela ikusi dugu. Horregatik, [IS-ak+ *egin*] egiturak, batetik, morfologikoki bereiz ditzakegu, aztergai ditugun aditz-lokuzioetatik. Begi bistakoa da, azken horietan, -ak artikulua mugatzaile pluralaz osatzen den DSa dugula, aditz-lokuzio gehienetan agertzen den IS hutsaren aldean. Aditz laguntzaileak, bestalde, osagarri zuzen funtzioa betetzen duen izen sintagmarekin komunztadura egiten duela dakusagu, -*it-* pluralgilearen bitartez. Egitura horiek, egunerokotasunean maiztasunez erabiltzearen ondorioz unitate finkoa osatu dutela esan dezakegu, euskaraz, eta horixe izan zitekeen egitura horiek egitura iragankor arruntetatik bereizteko ezaugarri bat.

B. [Izen-ak + *egin*]<sub>A</sub> egitura idiomatikoak:

- (1.258)        *ERROAK EGIN*<sup>120</sup> / *ZAINAK EGIN*  
                   *GUREAK EGIN* / *BEREAK EGIN*<sup>121</sup>  
                   *AZKENAK EGIN*  
                   *PAZKOAK EGIN*  
                   *LEHERRENAK EGIN*

Esanahian oinarrituz egin dezakegu azken bi taldeen arteko bereizketa. Dena den, azpitalde horietan mota desberdinetako egitura sintaktikoak ditugula ikusiko dugu jarraian.

Azken talde horretan ditugun egituren esanahia, ezin da osagaien esanahietatik eratorri, izan ere, hitzez hitz itzuli ezin daitekeen zerbait adierazten dute. *Erroak egin* esaerak, esate baterako, *integratu* adierazten du ondorengo

<sup>120</sup> *Baina erroak bota* egituraren maiztasuna ez da hain apala.

<sup>121</sup> Euskal lokuzioak sarean deritzon Intza proiektuan, (*inorenak*) *egin* sarreraren menpe agertzen dira, *gureak egin*, *zureak egin*, *hireak egin*, *ayenak egin*, *arenak egin* eta *horrenak egin* egiturez osatutako adibideak. Horietan guztietan, -a artikulua mugatzaileaz osatzen den eta subjektu funtzioa betetzen duen DS erगतiboa dugu, aditz laguntzailearekin komunztadura singularrean egiten duena. (<http://intza.armiarma.com/cgi-bin/bilatu2.pl?kodea=el02725>)

adibidean, *gureak egin (amaitu<sup>122</sup>)*, *azkenak egin (hil)*, *leherrenak egin (asko saiatu)*, eta abar. Beraz, esanahi idiomatikoa, egitura horien ezaugarri bereizgarria dela esan dezakegu, esanahi konposizionala dutenen aldean.

Badira, dena den, azpitalde horietan kokatu ditugun egituren arteko diferentzia nabarmenak:

(1.259) Baina antzerkiak *erroak egiten ari zituela* Euskal Herrian baitio, [...].

<http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/50663.pdf>

(1.260) [...] gure historia berreskuratzen ez badugu, *gureak egin du*.

[http://www.euskalmemoria.com/cont/es\\_ES/13/Revista+Euskal+Memoria++N%C2%BA+1.html&format\\_id=13](http://www.euskalmemoria.com/cont/es_ES/13/Revista+Euskal+Memoria++N%C2%BA+1.html&format_id=13)

(1.261) Iñoz ikusi dezute tximirritarik iltzeko yausitakoan, xomorroek yana nola dagoen *azkenak egin* eziñik? Bero gozoa! Yantoki alez betea! Laztan eztiak goizean! Agur, agur! EKC, *Biotz-begietan*, Xabier Lizardi, (1932).

(1.262) *Leherrenak egin* doguz umea eskolara joan daiten.

<http://hiztegia.labayru.net/CargaPalabraeu.asp?resul=leherrenak%20egin>

Adibideek erakusten dutenez, *erroak egin / zainak egin*, *azkenak egin* eta *leherrenak egin* egiturek aditzarekin komunztatzen dute, aditz aurreko osagaia osagarri zuzen funtzioa betetzen duen IS delako, *-ak* artikulua mugatzaile pluralaz osatutako nor/zer IS, hain zuzen ere. *Gureak egin* egiturak, ordea, singularrez komunztatzen du, kasu honetan DS ergatiboa baita *egin* aditzarekin egitura idiomatikoa osatzen duen sintagma<sup>123</sup>.

<sup>122</sup> Baita *hil* esanahia ere.

<sup>123</sup> De Rijkek (2008: 297) *zure aldiak egin du* eta *gure aldiak egin du* motako egiturak hartzen ditu horien jatorrian egon zitezkeen egituratzat. Horrez gain, DS ergatiboaz, osagarri zuzenik gabe eta *egin* aditzaz osatutako ondorengo egitura ematen du adibide moduan, *amaitu* adiera duena:

(i) *Nire indarrak egin du* (Larréguy I, 233)

Aipatzekoa da, bestalde, *azkenak egin*, *erroak egin*, *leherrenak egin* eta motakoetan *-ak* artikulua mugatzaile plurala dela ezinbesteko determinazio aukera eta *-a* mugatzaileaz edo determinatzailezik gabeko izenaz osatutako egitura ezinezkoa dela, hau da, *\*zain(a) egin*, *\*azken(a) egin*, *\*pazko(a) egin* edo motakorik ez da existitzen<sup>124</sup>. Egitura idiomatiko horietan, bestalde, ezinezkoa da partitiboaren erabilera, adibide hauen ez gramatikaltasunak erakusten duen moduan:

(1.263) *\*ez du zainik egin / \*ez du azkenik egin*

Muga horiek guztiek egitura idiomatikoen ezaugarria den zurruntasun sintaktikoa islatzen dute. Ondorengo adibideak erakusten duenez, ezezkoa posible da idiomatikoak ez diren eta formaz berdinak diren aurreko azpisaileko egituretan:

(1.264) *ez du erosketarik egin*

Talde berean kokatu ditugun egitura horiek guztiek eta zenbait aditz-lokuzioek elkarren artean duten adiera metaforikoa eta zurruntasun sintaktikoa<sup>125</sup>, egitura horiek guztiak egitura iragankor arruntetatik bereizteko irizpidea izan daiteke. Hala eta guztiz ere, ikusi dugu badirela egiturari dagokionez desberdintasun nabarmenak. Batzuk osagarri zuzenaz osatzen diren egitura iragankorrak dira, besteak, ordea, ez-ergatibo gisa deskriba genitzakeen osagarri zuzenik gabeko egiturak direlako.

<sup>124</sup> Badira *-a* artikulua mugatzaile singularraz osatzen diren eta adiera metaforikoa duten egiturak ere, horiek oso urriak badira ere. Hala nola *lepoa egin* eta *burua egin*, *apustu egin* adierazten duten:

(i) *Lepoa egingo nuke* hori horrela dela.

<http://www1.euskadi.net/harluxet/hiztegia1.asp?sarrera=lepo>

(ii) *Lepoa egingo nuke* lerro hauek irakurtzen dituzuenetako batek baino gehiagok ikusi zenutela azaroaren 10ean goian azaltzen den izenburua zeukan antzezlanak!

<http://ikasgela.santurtzieus.com/mod/forum/discuss.php?d=300>

<sup>125</sup> 3. kapituluaren xehetasunez aztertuko ditugu aditz-lokuzioen jokaera sintaktikoak.

C. [DS+n/(e)an + egin]<sub>A</sub>:

(1.265)	<i>AITZURREAN EGIN</i>	<i>IGERIKETAN EGIN</i>
	<i>ARDATZEAN/ ARDAZKETAN EGIN</i>	<i>KARTETAN EGIN</i>
	<i>ARINEKETAN EGIN</i>	<i>ERRIETAN EGIN</i>
	<i>ARRANTZAN EGIN</i> <sup>126</sup>	<i>FUTBOLEAN EGIN</i>
	<i>ARRAUNEAN EGIN</i>	<i>LAPURRETAN EGIN</i>
	<i>BORROKAN EGIN</i>	<i>LARRUTAN EGIN</i>
	<i>DANTZAN EGIN</i>	<i>MUSEAN EGIN</i>
	<i>EHIZAN EGIN</i>	<i>OINKETAN EGIN</i>
	<i>GORUETAN EGIN</i>	<i>SEGAN EGIN</i>
	<i>HIZKETAN EGIN</i>	<i>TXORTAN EGIN</i>

Lehenik eta behin, morfologikoki, *-n* atzizki inesiboaz osatutako izenak direlako bereiz ditzakegu egitura horiek aztergai ditugun aditz-lokuzioen *bare noun* deitzen zaien izenetatik. Hala eta guztiz ere, aipatu behar dugu, horietako batzuk, izen hutsaz osatutako aditz-lokuzio egituraren aldaerak direla eta bi egituren esanahia, kasu hauetan, bat bera dela:

(1.266)	<i>dantza egin / dantzán egin</i>
	<i>arrantza egin / arrantzán egin</i>
	<i>ehiza egin / ehizán egin</i>
	<i>arraun egin / arraunean egin</i>
	<i>hitz egin / hizketan egin</i>
	<i>errieta egin / errietan egin</i>
	<i>borroka egin / borrokan egin</i>

<sup>126</sup> *Arrantzán egin* eta *arrantza egin* bi egiturak existitzen dira, baita *ehizán / ehiza egin*, *borrokan / borroka egin*, *arraunean / arraun egin*, *hizketan / hitz egin*, *errietan / errieta egin*, eta abar.

Semantikoki ondoriorik ez duen alternantziak, determinatzaileaz eta determinatzailearik gabe erabil daitezkeen aditz-lokuzioak dakarzkigu gogora. Bietara erabil daitezkeenetan, desberdintasun morfologikoa semantikoki pertinentea ez dela ikusi dugu, hala nola *arnas(a) egin, eztul(a) egin, bero(a) egin, hotz(a) egin* egituretan. Beraz, erreferentzia zehatzik eza [I+(-a)+egin] motako aditz-lokuzio guztien ezaugarri komuna den moduan, zaila da talde horretan aurkeztu ditugun aldakiak desberdintzeko ezaugarriak topatzea.

Are gehiago, gure buruari galde diezaiokegu zergatik diren horiek eta ez besteak bi aukerak onartzen dituzten aditz-lokuzioak. Galdera honi erantzuteko esan genezake, izen horiek jarduerak direla, eta hala, *zertan jardun / ibili / aritu zara?* galderari *hizketan, kartetan, ehizan*, eta abar, erantzun diezaiokegu. Erantzunak erakusten du izen lokatiboak gertakizuna adierazten duela. Are gehiago, izen-*n/-e)an* + *egin* predikatua, predikatu iragangaitz batez ordeztu daiteke, *ari, ibili*, aditzez. Izan ere, *hizketan egin, hizketan aritu* egituraz ordeztu dezakegu eta *ehizan edo arrantzan egin* egituren ordez, *ehizan edo arrantzan ibili* egiturak aurki ditzakegu, eta abar:

(1.267) *Hizketan egiten* zuten bitartean, andrea oroimenean betiko finkatzen saiatu zen Duffy jauna. EPG, *Dublindarrak*, James Joyce / Irene Aldasoro (Alberdania, 1999: 158).

(1.268) Hartara, *ehizan edo arrantzan egin ahal izango zuen*. EPG, *Peaceful soldadua*, Michael Morpurgo / Mirentxu Larrañaga (Alberdania, 2006: 40).

Zerrenda horretan bestalde, *-keta* atzizkiaz osatutako izenak azaltzen dira: *ardazketa, arineketa, arraunketa, hizketa, igeriketa, oinketa*, etab. Azkuek aipatzen duenez (1969), *-keta* atzizkiak okupazioa edo jarduera adierazten du,

eta hala, *-keta* atzizkia, maiz izenaren gertakizun esanahiaren baldintzapean dagoen ezaugarri gisa uler daiteke, beste esanahiak beste<sup>127</sup>.

D.[ Izen-arena + egin]<sub>A</sub>:

- (1.269)        *ASTOARENA EGIN*  
                   *GAZTEARENA EGIN*  
                   *GORRARENA EGIN*  
                   *NAGUSIARENA EGIN*  
                   *PAILASOARENA EGIN*  
                   *TXOROARENA / ZOROARENA / TONTOARENA EGIN*

Zerrenda horretako aditzek, *norbaiten papera egin* edo *norbaiten errola bete* adierazten dute, *paper* edo *rol* izenak agerian ez egon arren:

<sup>127</sup> *Keta* atzizkiak bestelako adierak ere izan ditzake; multzoa adierazten duena: *mendiketa*; prozesua adierazten duena: *eztiketa*, *gaztaketa*, *lurrinketa*, eta abar. Hauxe dio Azkuek (1969), atzizki horrek izan ditzakeen esanahiei buruz:

«Prescindiendo aquí de la acepción de *keta*, reemplazante de *tute* y *tze*, expuesta en la página 54, como en geiketan «llamando» que dicen en Zigoitia (B) y bedarra etxeraketan por etxeratzen que se oye en Oñate (B); pasando también por encima de su significación como sufijo colectivo – *Mendiketa* (AN-aezkoa) cordillera, serie de montañas – aquí se expondrán las tres acepciones que tiene dentro de este grupo de operativos: a) mera ocupación, b) rebusca, c) fenómeno atmosférico». Bestalde, *-keta* atzizkiaz osatutako hitzen zerrenda hau ematen du: *arilketa* (AN,B,L), (G): *Arilketa*, *nekaketa*; *laiaketa*, *yostaketa*, el hacer ovillos es cansancio; el layar, una diversión; *araketa* (B), *ardazketa* (AN,B, G), *barriketa* (B), *beroriketa* (B), *biozketa* (B), *elheketeta* (BN,L), *eskuketa* (B), *erosketa* (AN), *estalketa* (G), *eztiketa* (B), *garbiketa* (B,G,L), *gasnaketa* (AN), *indarketa* (B), *ibilketa* (BN), *yostaketa* (BN), *(h)izketa* (G,BN), *iraulketa* (G), *ikusketa* (G), *ipurxikinketa* (AN), *itanketa* (B), *laiaketa* (B), *larrinketa* (B), *leunketa* (B), *lotsaketa* (B), *mailuketa* (B,G), *mozketa* (B), *muturketa* (AN), *nekaketa* (G), *oarketa* (AN,BN), *ontasunketa* (L), *orrazketa* (B), *osaketa* (B), *saraketa* (B), *salaketa* (G), *sastaketa* (G), *sendaketa* (G), *solasketa* (AN,L), *sozketa* (G), *txistuketa* (B), *umeketa* (L), *zezenketa* (B,G), *zorrozketa* (B;G), *zuketa* (B;G) etab. Azkuek adierazi legez *-keta* multzoa adierazteko ere erabiltzen dela dakusagu, *ardiketa*, *behiketa*, *behorketa*, *gizonketa*, eta abarretan, (Azkue 1969: 114-115).

(1.270) Beraz, prestatu, ur botila prestatu, ahotsa berotzen saiatu, bueno *tontoarena egin* eta grabatzera.

<http://jarraipenbereziak.musikazuzenean.com/smoking-hil/ahotsak-sartzen-jada/>

*Norbaiten papera egin* adierazteko erabiltzen diren mota horretako egitura emankorrak etengabe sortzen dira, euskaraz, bai izen arruntaz osatutakoak, baita izen bereziaz osatutakoak ere. Hala nola *trabestiarena egin*, *tuntunarena egin*, *Michael Jacksonena egin*, *Messirena egin*, eta abar:

(1.271) Bada garaia gure gudari hori putarena edo *trabestiarena egiten* hasteko.

<http://zarautz.hitza.info/2012/03/16/%C2%ABeuskal-kultura-berriz-%E2%80%98putifikatu%E2%80%99-%E2%80%98pornifikatu%E2%80%99-eta-sexualizatu-beharda%C2%BB/>

De Rijkek (2008: 297) aipatzen duenez, mota honetako egiturak ezezkotan erabiltzen direnean, genitiboa ezaba daiteke:

(1.272) *EZ ADITUARENA EGIN / EZ ADITU EGIN*

*EZ ENTZUNARENA EGIN / EZ ENTZUN EGIN*

*EZ IKUSIARENA EGIN / EZ IKUSI EGIN*

Hauek dira De Rijken ematen dituen adibideak nahiz besteak:

(1.273) Oraingo honetan, ez *entzunarena egingo* dut.

[http://www.santurtzieus.com/gelairekia/ariketak/3/lexi/ordezkaketa\\_5htm](http://www.santurtzieus.com/gelairekia/ariketak/3/lexi/ordezkaketa_5htm)

(1.274) *Ez ikusiarena egiten* zioten filosofoek, behe mailako izakien berezko patua horixe.

<http://www.gureliburuak.com/documentos/primercapitulopdf/7609.pdf>

(1.275) Baina nik ez *aditua egin* nuen ((Atxaga, Obab. 91), De Rijk (2008: 297)-etik hartua).

(1.276) *Ez aditu egin* ((Atxaga, Obab. 144), De Rijk (2008: 297)-etik hartua).

Mota horretako egiturak [Izen + *egin*]<sub>A</sub> lokuzioetatik ezaugarri hauek direla eta bereiz daitezke. Alde batetik, ASri dagokion izena, o.z. funtzioa betetzen duena, eliptikoa dela dakusagu (*paper*). Bestetik, DS honen egitura konplexua dela esan behar dugu, noren izenlagunaz eta agerian ez dagoen izenaren determinatzaileaz osatzen dena. Horrez gain, izenak erreferentzia jakina du<sup>128</sup>, determinatzailearen izenaz osatzen diren aditz-lokuzioetan ez bezala.

Horrez gain, genitiboaz eta *-ak* mugatzaile pluralaz osatzen diren egiturak bereiz ditzakegu. Horien artean ditugu, *kristorenak egin*, *astoarenak egin*, *zoroarenak egin*, eta abar. Egitura horiek ez dute *norbaiten papera egin* adiera, *izugarritzko estropezuak*, *txorakeriak egin* edo *tontakeriak egin* baizik, hurrenez hurren. Beraz egitura horiek ihartuak daudela esan behar dugu, esanahia ikasi egin behar dela, alegia:

(1.277) [...] herri kirol bat da eta kanpotarrek badakite basoan aizkora batekin *kristorenak egin* ditzakegula. <http://euskaletxea.antville.org/>

E. [Izen-ka + *egin*]<sub>A</sub>:

(1.278) ADARKA EGIN

ATZAPAR(KA) EGIN

AITZURKA EGIN<sup>129</sup>

BORBOR(KA)EGIN

<sup>128</sup> *Ez aditu egin* motakoetan determinatzaile sintagma ez ezik, izenlaguna agerian ez dagoen arren, esanahia bat dator aipatu berri dugunarekin.

<sup>129</sup> Eibarko euskararen eta beste leku askotan ere bai, *atxurka egin* aditz-lokuzioa erabiltzen da, baita *atxurketan egin* eta *atxurrian egin* ere, *aitzurrarekin lan egin* adierazteko:

(i) Andra gazte ederra izan arren, *atxurka eitten* dau erreme soluan. <http://www.eibarko-euskara.com/node/932?ikuspegi=lerroka>

*EZTUL(KA) EGIN**HAGINKA EGIN**JAUZI(KA) EGIN**KORRI(KA) EGIN**MUSU(KA) EGIN**OIHU(KA) EGIN**SALTO(KA) EGIN*<sup>130</sup>*ZOTIN(KA) EGIN**ULU(KA) EGIN*

Aurreko zerrendan agertzen diren egituretan dakusagunez, gehienetan aukerakoa da *-ka* atzizkia. Hala nola *borbor(ka) egin*, *laster(ka) egin*, *salto(ka) egin*, *atzapar(ka) egin*, *eztul(ka) egin*, *jauzi(ka) egin*, *korri(ka) egin*, *oihu(ka) egin*, *zotin(ka) egin*, *musu(ka)*, *korri(ka) egin*, *ulu(ka) egin*, eta abar.

Besteak beste, adibide hauek aurkitu ditugu EPG *corpusean*, *zotin(ka) egin* aditz-lokuzioaren bi aldakien erabilera erakusten dutenak eta *negar egiteko modu jakin bat* adierazten dutenak:

(1.279) *Zotin egiten* zuen, eta malkoak isurtzen zitzaizkion begi itxietatik.

EPG, *Nire aitaren fusila*, Hiner Saleem / Juan Kruz Igerabide (Alberdania, 2004: 64)

(1.280) Agur esan Hagridi eta gaztelurantz abiatu ziren, tarteka Ronek

*zotinka egiten* zuela, baina bi bare txiki bakarrik kanporatuz. EPG, *Harry Potter eta sekretuen ganbera*, J.K. Rowling / Iñaki Mendiguren (Elkar, 2001: 102).

EPG *corpusean* topatu ditugun adibideetan oinarrituz, aipatzekoa da bi aukerak daudenean *-karik* gabeko aditz-lokuzioa dela maiztasun handienekoa, salbuespenak salbuespen. Aipatzekoa da ere, *saltoka egin* egitura oso gutxitan

<sup>130</sup> Labayru hiztegian, aditz-lokuzio sarrera gisa ageri da, *correr* itzulpenaz eta *dau* aditz laguntzaileaz jokatzeko den egitura modura. *Galopan egin* eta *korrika egin* adierak ere aipatzen dira. (<http://hiztegia.labayru.net/CargaPalabraeu.asp?resul=saltoka%20egin>)

agertzen dela eta *ulu(ka) egin* egituraren agerraldi bakarra topatu dugula. *Korrika egin* formaren agerraldiak, bestalde, bikoiztu egiten dute *korri egin* lokuzioaren agerraldien kopurua. Gutxienetan, ordea, *-ka* atzizkiaz osatutako egitura da aukera bakarra: *adarka egin*, *haginka egin*, baina, *\*adar egin*, *\*hagin egin*. Hona hemen *adarka* adizlagunaz eta *egin* aditzaz osatutako adibidea, Hiztegi batuaren sarreran *adarkaturekin* batera agertzen dena.

- (1.281) Prusiako mendebaldeko Graudenzeko eskualdean "zezenak *adarka egin* dio" esan ohi dute. EPG, *Urrezko abarra II*, James George Frazer / Iñaki Iñurrieta (1995: 93).

*-Ka* atzizkiaren erabilera behin eta berriz errepikatzen den ekintzarekin erlazionatu izan da. Etxeparek (2003) aipatzen duenez, *-ka* atzizkia nahiz lekuzko atzizkia onar dezaketen aditzek esanahi iteratiboa dute, hala nola *dantza(n) egin*, *borroka(n) egin*, *errieta(n) egin*, nahiz, *oihu(ka)egin*, *salto(ka) egin* eta *jauzi(ka) egin*, (Etxepare 2003: 34). Ados gaude Etxeparek aipatzen duen ñabardura iteratiboarekin, izan ere, maiz denboran errepikatzen diren ekintzei erreferentzia egiten dieten jarduerak dira, hain zuzen ere, *-ka* atzizkiaz osatzen direnak. EPG *corpusean* aurkitu ditugun adibide hauek aipatutako ñabardura iteratiboaz irakur ditzakegu:

- (1.282) Gizonari etortzen zaio emakumearen gainera salto egiteko furia izugarri bat, eta tximu bat bezala hasten da gainean saltoka, alde guztietatik *besarka* eta *musuka egiten* diola. EPG, *Denak hasperenka*, Gianni Celati / Pello Lizarralde (Igela, 2005: 139).

- (1.283) Eta berehala danok kanpora errekreora, *saltoka* eta *korrika egitera*.

<http://www.diariovasco.com/v/20101111/al-dia-local/maistra-berri-20101111.html>

- (1.284) lazko otsailetik 10 milioi alditan *zotinka egin* duela uste du gitarra-jotzaile eta abeslariak.

[http://www.hiru.com/blog/eu/bitxikeriak/-/blogs/4679181/maximized?p\\_p\\_id=58&p\\_p\\_lifecycle=0&p\\_p\\_state=maximized&p\\_p\\_mode=view&p\\_p\\_col\\_id=column-3&p\\_p\\_col\\_count=6&58.struts.action=/login/forgot\\_password&urlVuelta=/blog/eu/bitxikeriak](http://www.hiru.com/blog/eu/bitxikeriak/-/blogs/4679181/maximized?p_p_id=58&p_p_lifecycle=0&p_p_state=maximized&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-3&p_p_col_count=6&58.struts.action=/login/forgot_password&urlVuelta=/blog/eu/bitxikeriak)

Kapitulu honetan aditz-lokuzioaz literaturan esan direnak aipatu ditugu eta lokuzio motak daudela aintzat hartuz, De Rijken (2008) sailkapena hartu dugu abiapuntutzat, lan honen mugak murriztu eta aztergai gisa, [I+egin]<sub>A</sub> motako aditz-lokuzioak aukeratzeko. [I+egin]<sub>A</sub> aditz-lokuzioen osagaiak banan-banan deskribatu ditugu eta ezaugarri bereizgarriak dituztela ohartu gara. [Izen+egin]<sub>A</sub> lokuzioen izen gehienak determinatzailearik gabekoak dira, -a determinatzaileaz osatzen diren aditz-lokuzio meteorologikoak salbu. Dena den, horiek guztiak ez erreferentzialak direla ikusi dugu. Aditzari dagokionez, *egin* aditza arin gisa deskribatu dugu eta *egin* aditza bera ez ezik, aditz-lokuzio egitura definitzeko saiakera egin dugu, hizkuntzetan zehar aurkitzen den *light verb construction* egitura komuna aintzat hartuz. Egitura iragankor gisa deskribatu ditugu aditz-lokuzioak, eta horien ISk osagarri zuzen funtzioa betetzen duela egiaztatzeko argudio batzuk eman ditugu. Ezaugarri horiek guztiak baliagarriak izan zaizkigu batetik, aditz-lokuzioak aditz elkartuetatik bereizteko, baita aditz-lokuzioak aditz iragankor arruntetatik bereizteko ere. Aditz-lokuzioen artean jarduerak eta erdiespenak bereizi ditugu Dowtyren aspektu testak aplikatuz. Izena ez erreferentziala izatea eta aditza semantikoki arina izatea, ez dira kasualitateak, semantika mailan bi osagaiek dituzten mugak islatzen dituzten aditz-lokuzioen ezaugarri bereziak baizik.

Hurrengo kapituluaren helburua da aditz-lokuzioen ezaugarri horien berri emateko marko teorikoa aurkeztea.



## 2. [IZEN + EGIM]<sub>A</sub> ADITZ-LOKUZIOAK TEORIA MAILAN

### 2.0. SARRERA

Kapitulu honetan, aditz-lokuzioak aztertzeko marko teorikoa izango dugu ardatz eta hori baliatuko dugu konposizioaren eta prozedura sintaktikoen arteko mugak finkatzeko. Izen inkorporazioaren teoria aurkeztuko dugu aditz-lokuzioen berri emateko eta hizkuntzalariak inkorporazioari buruz egiten dituzten hausnarketak aintzat hartuko ditugu.

Hizkuntzalari klasikoak hurbilketekin hasteko, Kroeberren (1909) teoria morfosintaktikoa eta Sapirren (1911) teoria morfologikoa aurkeztuko ditugu. Bigarrenik, inkorporazioa, sintaktikoa izatetik gertuen dagoen prozesu morfologikotzat hartzen duen Mithunen (1984) ikuspuntua aurkeztuko dugu. Hurbilketa morfosintaktikoaren ildotik jarraituz, Sadocken (1985-1991) adierazpen morfosintaktikoaren eta Lieberren (1992) Xmarra teoriaren berri emango dugu. Inkorporazioa prozesu sintaktiko gisa ulertzen dutenen artean, adjunkzioan oinarritzen diren Bakerren (1985-1988a-2005-2008) teoria aurkeztuko dugu. Horrez gain, mugimendurik gabeko hurbilketa sintaktikoan oinarritzen diren Massamen (2001) eta Van Geenhovenen (2002) pseudo-izen inkorporazioaren proposamenak hartuko ditugu aintzat. Azkenik, lexikoan oinarritzen diren Hale eta Keyser (1993) hizkuntzalarien eta Rosenen (1989) proposamenen berri emango dugu. Beraz, hizkuntzetan zehar gertatzen diren izen inkorporazioa prozesu morfologiko, sintaktiko, morfosintaktiko, edo lexiko moduan uler daitekeela ikusiko dugu.

2.2. azpisailean, banan-banan aplikatuko dizkiogu euskarari teoria horiek. 1. kapitulan aurkeztu ditugun aditz-lokuzioen ezaugarriak aintzat hartuz, [+egin] aditz-lokuzioen berri emateko teoria egokiena zein den erabakitzea izango da azpisaile honen helburu nagusia.

## 2.1. IZEN INKORPORAZIOARI BURUZKO TEORIAK

Hurbilketa teorikoak, hizkuntzek erakusten dituzten datuetan oinarritzen diren heinean, gerta daiteke hizkuntza baten xehetasunen berri emateko egokia den hurbilketak balio ez izatea beste hizkuntza baten egituren berri emateko. Horregatik, hizkuntza desberdinak aintzat hartzen dituzten izen inkorporazioari buruzko hurbilketen artean, Kroeberren (1909), Sapirren (1911), Mithunen (1984), Sadocken (1985), Bakerren (1988a), Massanen (2001 2005), Van Geenhovenen (2002), Rosenen (1989) eta Hale eta Kayserren (1993 2002) definizioak aurkeztuko ditugu<sup>1</sup> jarraian.

### 2.1.1. KROEBER (1909) ETA SAPIR (1911)

Izen inkorporazioaz lehendabiziko azterketak Kroeberrek (1909) eta Sapirrek (1911) egiten dituzte. Konposizioaren eta inkorporazioaren arteko mugak finkatu nahian eta inkorporazioa definitzeko saiakeran, inkorporazio ez diren hainbat prozesu bereizten ditu Kroeberrek (1909). Beste hizkuntzetan ez ezik, Ameriketako hizkuntza askotan ere aurkitzen diren aditz eratorriak, prozesu morfologikoaz soilik osatzen direla aipatzen du Kroeberrek, hitz bati atzizkiak gehituz.

Paiute hizkuntzan, adibidez, *gani-* (*etxe*) hitz-oinetik, *ganintcu etxe bat eraiki* osatzen da, besteak beste. Forma horien parekoak lirateke, ingelesez, *-ize (-ise)* atzizkiez osatzen direnak; *materialize, pauperize, apologize, advertise, victimize, terrorize, emphasize*, eta abar; (Kroeber 1909: 540). Modu berean azalduko genituzke, *gasteleraz, -izar* atzizkiak eratortzen direnak; *materializar, aterrorizar, victimizar, enfatizar*, edota euskaraz, *-tu / du* atzizkiak osatzen direnak; *beldurtu, azaldu, hanpatu*, eta abar.

<sup>1</sup> Marko teorikoari dagokionez, aipagarriak dira, hizkuntzalari hauen teorizazioak ere: Booker (1981), Haas (1941), Mardirussian (1975), Merlan (1976), Miner (1982 1983), Sugita (1973), Wolfart (1971), Woodbury (1975), eta abar.

Baina, hitz eratorketa soila litzatekeenaren aldean eta prozesu morfologikoaz soilik azal daitezkeen egituren aldean, honela definitzen du Kroeberrek (1909) izen inkorporazioa:

*«Noun Incorporation is the combination into one word of the noun object and the verb functioning as the predicate of a sentence»*, (Kroeber 1909: 541).

Izen inkorporazioa, alegia, hitz batean gertatzen den izen baten eta aditz baten konbinazioa da, izenak osagarri zuzen funtzioa beteaz eta aditzak predikatu funtzioa.

Definizio horretan funtzioari dagozkion baldintzak jartzen zaizkio inkorporazioan parte hartzen duen izenari eta horixe litzateke prozesu morfologikoen bidez sortzen diren aditz eratorrien eta morfologia eta sintaxia uztartzen dituen prozesu konplexuagoaz sortzen diren aditz inkorporatuen arteko muga.

Kroeberren ikuspegian, bada, baldintza morfologikoak eta sintaktikoak biak jokoan direla dakusagu, inkorporazioa definitzeko orduan:

Baldintza morfologikoari dagokionez, izen eta aditz baten lotura dugu eta Kroeberren (1909) arabera, funtsezkoa da kontuan hartzea izen inkorporazioaren emaitza hitz mono-lexiko bat dela. Bestela, erlazio sintaktiko asko inkorporatutzat hartuko genituzke eta prozesu hori mugarik gabe aplikatuko litzateke<sup>2</sup>. Baldintza sintaktikoari dagokionez, izenak egituraren osagarri zuzen gisa funtzionatu behar du; beraz, muga sintaktikoak jartzen zaizkio inkorporatzen den izenari.

---

<sup>2</sup> *«In the American construction man house he-it made, house is not incorporated into made through the pointing out of its syntactical relation to the verb by means of the pronominal it»*, (Kroeber 1909: 541).

Sapirrek (1911) Kroeberren ikuspegian morfologia eta sintaxia nahasten direla kritikatzeko du eta izen inkorporazioa prozesu morfologikoa edo sintaktikoa dela baieztatzen du:

*«Noun Incorporation is primarily either a morphological or a syntactic process; the attempt to put it under two rubrics at the same time necessarily leads to a certain amount of artificiality of treatment»*, (Sapir 1911: 255).

Kroeberrentzat izen inkorporazioa litzatekeena, to song-write (abesti-idatzi), [I+A] konposiziotzat hartzen du Sapirrek. Prozesuaren izate morfologikoa justifikatzeko izen sintagmaren erlazio logiko aldakorretan oinarritzen da eta horren funtzio sintaktikoa edozein izan daitekeela dio, (Sapir 1911: 257):

*«It is this process of compounding a noun stem with a verb that it is here proposed to call noun incorporation, no matter what the syntactic function of the noun logically is»*.

Sapirrek izen inkorporazioa konposatu-motatzat hartzen duela erator dezakegu aipamen horretatik eta inkorporatzen den izenaren funtzio sintaktikoa mota askotakoa izan daitekeela. Kroeberren definizioa baldintzapen sintaktikoei mugatua egotea kritikatzeko du Sapirrek, izen erro baten eta aditz erro baten artean erlazio sintaktiko ugari izan ditzakegula argudiatuz.

Kroeberrek, nahuatl nahiz paiute hizkuntzetan inkorporatutzat hartzen dituen izenek, o.z. funtzioa betetzeaz gain, instrumental, lekuzko eta predikatu subjektibo funtzioak bete ditzaketela dio Sapirrek (1911: 256):

*«If we form three verbs parallel to the compound nouns we have selected, “to steam-run”, “to concert-sing” and “to song-write”, it is evident that “steam”, “concert” and “song” are respectively related to the verbs “run”, “sing” and “write” as noun of instrument, locative noun, and direct object»*.

Prozesu hori konposizioaren parekoa da Sapirren ustez, izen konposizioan ere lehen osagaiak forma absolutiboaren atzizkia galtzen baitu. Beraz, nahuatl hizkuntzan, o.z. funtzioa betetzen duen izenaren inkorporazioa, konposizioaren parekoa den prozesu morfologikoaren erabilera besterik ez dela argudiatzen du adibide hauek emanez, (Sapir 1911: 259):

(2.1) ni-nica-qua

“I-flesh-eat” (o.z. funtzioa betetzen duen izen inkorporatua<sup>3</sup>)

(2.2) ni-k-tle-watsa

“I-it-fire-roast-the meat” (instrumental balioa duen izen inkorporatua)

(2.3) o-ki-kets-koton-ki

“(They) had-him-in the neck-cut the robber” (lekuzko funtzioa betetzen duen izen inkorporatua)

Izen inkorporazioaren ondorioz eratortzen den aditza deskribatzen saiatzen da eta bereizketa bat egiten du ekintza orokorra adierazten duten aditzen eta ekintza jakina adierazten duten aditzen artean, (Sapir 1911: 259):

*«The various syntactic types of verbs with incorporated noun [...] may be used in either a general or particular sense».*

Prozesu morfologiko gisa deskribatzen duen inkorporazioaren ondorio semantikoak aintzat hartzen ditu Sapirrek (1911), eta hala, izen inkorporazioaz osatutako aditz konplexuak adiera orokorra eta jakina, biak izan ditzake. Hala eta guztiz ere, (inkorporazioaz azal daitezkeen aditzek bi adierak izan ditzaketen

<sup>3</sup> Azpimarratzekoa da kasu horretan izen inkorporazioaz hitz egiten duela Sapirrek ere: «*The noun object of a transitive verb may in Nahuatl be either incorporated into the verb-complex by being inserted between the verb stem and the prefixed pronominal subject [...]*», (Sapir 1911: 260).

arren), adiera orokor versus adiera jakin bereizketa funtsezkoa izan daiteke, Sapirren ustez, inkorporazioaz osatutako aditzak beste egituretatik bereizteko.

Gauzak horrela, Ameriketako hainbat hizkuntzatan, izen inkorporatuaz osatutako aditzak ekintza orokorrek adierazteko erabiltzen direla dio Sapirrek eta ekintza jakinak adierazteko beste egitura mota erabiltzen dela. Izen inkorporazioa, alegia, ohiko jarduerak adierazteko erabiltzen da, errealitatean jarduera eta izena loturik daudenean, *rabbit-killing* (*untxi-hiltzen*), *looking for a trail* (*bide bila*), *setting a net* (*sarea eraikitzen*), eta abar, (Sapir 1911: 264). Lehmannek ere dio (1907) izen inkorporazioa adiera orokorra duten aditzekin erabiltzen dela, soilik.

Ohikoak ez diren jarduerak edo jarduera partikularrak adierazteko, aitzitik, egitura ez inkorporatuak erabiltzen dira. Azken horietan izena determinatzaile duna da, erreferentziari dagokionez zehatza eta sintaktikoki askea, hala nola *seeing a horse* (*zaldia ikusten*), *finding a stone* (*harria bilatzen*<sup>4</sup>), eta abar.

Aipatutakoa argi ikus daiteke nahuatl hizkuntzaren adibide honetan, non egitura inkorporatua erabiltzen den ekintza orokorra adierazteko:

(2.4) ni-nica-qua

“I eat flesh” (ekintza orokorra, egitura inkorporatua)

Aitzitik, ekintza jakina edo partikularra adierazteko, ez da egitura inkorporatua erabiltzen eta izena ohiko moduan markatzen da, aditzaren aurrean kokatzen den elementu pronominalaz:

<sup>4</sup> «*It can only be suggested that what may be called typical or characteristic activities, that is, those in which activity and object are found regularly conjoined in experience (e.g. rabbit-killing, looking for a trail, setting a net), tend to be expressed by verbs with incorporated objects, whereas “accidental” or indifferent activities (e.g. seeing a house, finding a stone) are rendered by verbs with independent, syntactically determined nouns*», (Sapir 1911: 264).

## (2.5) ni -c-qua in nacatl

“I it-eat the flesh” (ekintza jakina, egitura ez inkorporatua)

Beraz, izen inkorporazioaren ezaugarri formalak ez ezik, semantika ere jokoan dela erakusten dute aurreko adibideek.

Sapirren argudioan kontraesana atzematen dugula esan behar dugu. Determinatzailedun izena jokaera jakina adierazteko erabiltzen dela aipatzen duen arren, jokaera orokorraren adierazle gisa proposatzen ditu *looking for a trail* eta *setting a net* adibideak, determinatzailedun izenaz osatzen diren egiturak, espero dugunaren kontra.

Alde batetik, egia da determinatzailedun izenak ez diola *bide* edo *sare* jakin bati erreferentzia egiten eta [A+I(+det)] egiturak jarduera orokor bati erreferentzia egiten diola; beraz, aipatu ohikotasunaren ezaugarria betetzen dela dakusagu. Nolanahi ere, izen determinatzailedunaz osatzen diren heinean, egitura inkorporatuak diren galde diezaiokegu geure buruari eta inkorporatutzat hartuz gero, Sapirren zentzuan, egitura inkorporatuen artean mota desberdinetakoak daudela baieztatzeko argudioa izan daiteke. Edozein kasutan, morfologiari dagokionez, ezingo genituzke determinatzailedun izenaz osatzen diren egitura inkorporatu horiek egitura iragankor arruntetatik bereizi.

Beste kontraesana topatzen dugu Sapirren argudioan. Egitura inkorporatuek bi adiera izan ditzaketela adierazten duen arren, aldi berean, egitura ez inkorporatuetatik bereizteko baliatzen du Sapirrek adiera orokorra duen egitura. Izan ere, praktikan, egitura inkorporatuak adiera orokorra adierazten duela erakusten du nahuatk hizkuntzaren adibideak eta ekintza jakina adierazteko inkorporaziorik gabeko egitura erabiltzen dela.

## 2.1.2. MITHUN (1984): IZEN INKORPORAZIOA SINTAKTIKO IZATETIK GERTUEN DAGOEN PROZESU MORFOLOGIKO GISA

Mithunek (1984) prozesu morfologiko gisa ulertzen du izen inkorporazioa, nahiz eta prozesu morfologikoen artean, sintaktikoa izatetik gertuen dagoen prozesu gisa definitu:

*«Noun Incorporation is perhaps the most nearly syntactic of all morphological processes. Examination of the phenomenon across a large number of geographically and genetically diverse languages indicates that, where syntax and morphology diverge, incorporation is a solidly morphological device that derives lexical items»*, (Mithun 1984: 847).

Konposizioa deritzon prozesu morfologikoaren bidez unitate lexikalak eratortzen direla dio, eta hala, izen bat aditz batekin elkartuz, aditz konplexuagoa osatzen dela, (Mithun 1984: 847):

*«A N stem is compounded with a V stem to yield a larger, derived V stem as in Siberian koryak goya- “reindeer”+ -nm- “to kill”-->goyanm- “to reindeer-slaughter»*.

Aipagarria da, izen inkorporazioa, hitz-konposizioa delako fenomeno orokorraren barnean kontsideratzen duela Mithunek.

Ezaugarri diskurtsibo nahiz funtzioaletan oinarrituz, lau izen inkorporazio mota hauek bereizten ditu, mota bakoitza funtzio baterako erabiltzen dela proposatuz:

- I. mota: hitz berriak osatzeko
- II. mota: kasua manipulatzeko
- III. mota: diskurtoaren informazioa errekuperatzeko
- IV. mota: izenak sailkatzeko

- I. mota:

I. motako izen inkorporazioari dagokionez, konposizio lexikala eta morfologikoa bereizten ditu Mithunek.

Konposizio lexikalen erroak edozein kategoria gramatikaletakoak izan daitezke (izenak, izenondoa, aditzak, eta abar,) baita sortzen den konposatua ere: N+N>N, V+V>V, N+V>V, Adj+N>N, N+Adj>Adj, eta abar. Guri gehien interesatzen zaizkigunak N+V>V motakoak dira, aztergai ditugun aditz-lokuzioen osagaiak izena eta aditza diren heinean.

Mithuni jarraituz, inkorporazioa, aditz bat izen batekin elkartuz sortzen den konposatuari erreferentzia egiteko erabiltzen da; beraz, inkorporazioa konposaketa gisa ulertzen duela esan dezakegu. Izenak, jasaile, lokatibo edo tresna erlazio semantikoa betetzen du aditzarekiko eta erlazio semantikoari dagokion murrizketa hori ez da beste konposatuetan gertatzen. N+N>N motako konposatuetan, esate baterako, erlazio semantikoa askoz irekiagoa izan daiteke Mithunen arabera<sup>5</sup>.

Sapirren ildo beretik, egitura inkorporatuak jarduerak deskribatzeko erabiltzen direla aipatzen du Mithunek (1984), giza talde batek garatutako eguneroko jarduerak deskribatzeko edo giza talde bati zuzendutako jarduerak deskribatzeko:

*«Since incorporated objects are non-referential and thus non-individuated, these constructions are generally used to describe activities or events whose patients are neither specific nor countable –e.g. habitual, ongoing, or*

<sup>5</sup> «Alligator shoes *could conceivably be* shoes made for alligators, shoes shaped like alligators, shoes made of alligators *or* shoes meant to go with alligator costume» (Mithun 1984: 849). Hau da, *krokodilo zapatak* adiera asko izan ditzake, *krokodiloentzat egindako zapatak*, *krokodilo forma duten zapatak*, *krokodiloz egindako zapatak* edo *krokodilo mozorro batekin konbinatzeko zapatak*.

*projected activities: those done by several people together; or those directed at a non specific part of a mass*», (Mithun 1984: 850).

Aipamen horretan inkorporatzen den objektuari buruzko ezaugarriak zehazten dira: ez erreferentziala, ez indibiduala, zenbakaitza, eta abar. Bestalde, jarduera gisa deskribatzen da egitura horien aditza. Jarduerak, ezagunak diren kontzeptu “instituzionalizatuei” erreferentzia egiten diete edo giza talde batek oro har garatutako ekintzei. Mithunek proposatzen dituen *koko-txikitzea* eta *kopra-erosketa* adibideetan, *koko* edo *kopra* izenek ez dute erreferentzia jakinik; aitzitik, egitura konplexu horiek giza talde batek garatutako ekintzak adierazten dituzte, hurrenez hurren.

Ekintza komuna kontzeptua darabil Mithunek ideia hori adierazteko. *Berry-picking* edo *mountain-climbing*, esate baterako, jarduera “instituzionalizatuak” dira<sup>6</sup>. Aitzitik, *\*ladder-climbing* edo antzekorik ez da existitzen, ez delako giza talde batek atzemandako jarduera orokorra<sup>7</sup>.

Inkorporatzen den izena, ez erreferentziala izateaz gain, determinatzailearik gabekoa da. Izan ere, adibide honen ez gramatikaltasuna, ingelesez, determinatzailea agertzen delako azal daiteke:

<sup>6</sup> Hizkuntzalarien aipamen hauek, Mithunen “instituzionalizatu” ideiarene ildo beretik doaz, Carlston (2006: 4):

«[...] incorporation provides the lexical expression of a typical activity», (Axelrod 1990).

«Noun incorporation in Sm'algayax occurs when a habitual activity toward an object is expressed», (Mulder 1994).

«[the incorporated form] refers to habitual, permanent, chronic, specialized characteristics or unintentional activities or states, or localized events», (de Reuse 1994).

<sup>7</sup> «Ladder-climbing is not an institutionalized activity. If I did say it, you might suspect that ladder-climbing must refer to an activity recognized in some context, perhaps a new sport, or a test for joining the fire department. Compounds have a lexical status which their syntactic counterparts lack», (Mithun 1984: 848).

- (2.6) \*Bob went the berries-picking<sup>8</sup>  
 “Bob marrubiak biltzera joan zen”

Aitzitik, *berry-picking*, konposatua da, baldin eta izena ez erreferentziala eta determinatzailearik gabekoa bada eta jarduera orokor bati erreferentzia egiten badio:

- (2.7) He is off berry-picking  
 “Kanpoan da marrubi-biltzen”

I. motako konposizioan, izenak dagokion objektu estatusa galtzen du; beraz, [I+A] unitateak, predikatu iragangaitz gisa funtzionatzen du. Ezaugarri hori bereziki nabarmena da egitura iragankorren subjektuak ergatiboz markatzen dituzten hizkuntza ergatiboetan. Chirchwardek (1953) tongeraren adibide hauek ematen ditu:

- (2.8) Na´e inu ´a e kavá ´é Sione  
 PAST drink ABS CONN kava ERG John  
 ‘John drank the kava’  
 “Jonek kaba edan zuen”

- (2.9) Na e inu kava ´a Sione  
 PAST drink kava ABS John  
 ‘John kava-drank’  
 “Jon kaba-edan zen”

Lehenengo adibidean ez da o.z. funtzioa betetzen duen sintagmaren izena inkorporatzen eta subjektua ergatiboa da. Bigarrenean, berriz, objektu funtzioa betetzen duen sintagmaren burua inkorporatzen da eta subjektua ergatiboz markatua izatetik absolutiboz markatua izatera pasatzen da, hau da, berregituratze edo “ditrantsitibizazio” prozesu bat dakusagu, non, IS ergatiboa izatetik absolutibo izatera pasatzeaz gain, aditza, iragankorra izatetik iragangaitza

<sup>8</sup> *Berry-picking* ingelesezko forma euskarazko *lore-biltzen* formaren antzekoa da.

izatera pasatzen den. Euskaraz, hala eta guztiz ere, ez dugu mota horretako konposiziorik.

Konposizio morfologikoari dagokionez, hizkuntza askotan gertatzen den [I+A] lotura estua aipatzen du Mithunek<sup>9</sup>. konposatu horiek hitz bakuntzat hartzen dira eta hitzen barneko prozesu fonologiko ugari jasaten dituzte. Mithunek konposizio morfologikoaren ezaugarri gisa hartzen dituen prozesu fonologikoak, Azkuek (1923)<sup>10</sup> bereizten dituen hitz barneko prozesu fonologikoak gogorarazten digute.

- II. mota:

II. motako inkorporazioan ere determinatzailerik gabeko izena dugu eta inkorporazio mota honen bereizgarritasuna, kasu manipulazioa da. Izen sintagma inkorporatuak utzitako kasua zeharkako objektuak betetzen du, eta aditz bati osagarri zuzen funtzioa betetzen duen argumentu sintaktiko bat inkorporatzen zaionean, beste argumentu batek beteko du inkorporatzen den sintagmaren funtzioa. Tupinambá hizkuntzak, II. motako inkorporazioa erakusten du (I. motako inkorporazioaz gain), (Mithun 1984: 857):

*«Tupinambá also exhibits Type II NI. Objects may be incorporated into transitive V's to yield new transitive V's, resulting in the advancement of affected arguments to direct object status. Compare the object pronouns in the*

<sup>9</sup> Hona hemen Walmatjari hizkuntzan Hudson-ek (1978) bereizten dituen konposatuak:

- (i) pina-karri  
ear-stand  
'to listen'
- (ii) pir-many  
peep-say  
'to peep'

<sup>10</sup> Ezabaketa (*artalde*), ezabaketa eta ordezkaketa (*galburu*), azken bokaleen galera eta permutazioa (*eskakizun*), azken bokal nahiz kontsonanteen galera (*eguerdi*), t-/k-epentetikoaren gehiketa (*sutondo*), eta abar, ((Oñederra (2004), Hualde eta Ortiz de Urbina (2003)).

*V's below. Without NI, the direct object is the face, marked by the prefix -yos- [...] but with NI, the derived object is the owner of the face, marked in the V by the prefix -s-».*

Eta Mithunek adibide hau ematen du aurrekoa argudiatzeko:

(2.10) s-oβá a-yos-éy  
 his-face I-it-wash  
 'I washed his face'  
 "bere aurpegia garbitu nuen"

(2.11) a-s-oβá-éy  
 I-him-face-wash  
 'I face-washed him'  
 "berari aurpegi-garbitu nion"

Azken egituran, objektu funtzioa betetzen duen osagaia aditz iragankorrari inkorporatzen zaio eta osagarri zuzenaren estatusa jasoko duen zeharkako objektu baten aurrerapenaren ondorioz, aditzak iragankorra izaten jarraitzen du. Gauzak horrela, *face-wash*, inkorporazioaz osatzen den egituran, (*him*) osagarri zuzen eratorria, 3. pertsona singularra da (*hura*), tupinambá hizkuntzan -s- hizkiaz markatzen dena.

- III. mota:

III inkorporazio mota, egitura diskurtsiboa manipulatzeko erabiltzen da hizkuntza polisintetikoetan, inkorporatzen den izena galdegaia izan ordez informazio ezaguna edo garrantzi gabekoa adierazten duen osagaia denean. Mota honetako inkorporazioak ugariak dira testuetan eta ez dira "ekintza instituzionalizatuak" adierazteko erabiltzen soilik, ezta gorputz atalez osatutako ekintzak adierazteko soilik ere. Edozein izen izan daiteke egitura inkorporatu horien osagai.

Tiwa hizkuntzaren adibide honetan, esate baterako, *animalia* lehendabiziko aldiz aipatzen denez, ez da egitura inkorporatua erabiltzen, (Mithun 1984: 882):

(2.12) ki        teraka        a-wu-nu-maratinata  
           then wallaby        he-NONPAST-LOC-hop  
           ‘Next, a wallaby comes hopping up’  
           “ondoren, animalia saltoka dator”

Baina, egitura inkorporatua erabiltzen da *animalia* aurrekariari erreferentzia egiteko:

(2.13) ki        ne-niliwanti-na  
           then I-dead.wallaby-grab  
           ‘I pick it (the dead wallaby) up’  
           “animalia harrapatu nuen”

- IV. mota

IV. motako inkorporazioa edo inkorporazio sailkatzailea, izen inkorporatuak funtzio sailkatzailea betetzen duenean erabiltzen dena da, Mithun (1984).

Cherokee hizkuntzan, izen inkorporazio mota guztiak aurkitzen dira, baita inkorporazio sailkatzailea edo IV. motakoa ere. Hizkuntza horrek erakusten duenez, hainbat aditz erro formaz aldatzen dira jasailearen nolakotasunaren arabera edota jasaileak aditz formaren arabera sailkatzen direla dakusagu. Hau da, aditz iragankor nahiz iragangaitzen jasaileak bizidun, likido, luze, zurrun, malgu edo neutro moduan sailkatzen dira agertzen den aditz formaren arabera. Maiz *-ne-* artizkia da, likido propietatea adierazteko erabiltzen dena. Ondorengo adibideetan, esate baterako, *ga-la-3sg.S*, *-a*(orain aldiko) morfemen hurrenkeraz osatzen direnak, *-ne-* artizkiak egiten dio erreferentzia jasailearen izate likidoari, (Mithun 1984: 884):

(2.14) *ganhga*

‘a living thing is lying’

“izaki bizidun bat etzanda dago”

*ganeha*

‘a container of liquid is lying’

“likido edukiontzi bat etzanda dago”

*jiya*

‘a long, rigid object is lying’

“objektu luze, gogor bat etzanda dago”

*gana´a*

‘a flexible object is lying’

“objektu malgu bat etzanda dago”

*aha*

‘it [non of the above] is lying’

“zerbait [aurrekoak ezik] etzanda dago”

*ganehiya'a*

‘He leaves a liquid’

"Berak likido bat utzi du"

Mithunek (1984) aipatzen duenez, izen inkorporazioa hierarkia bat jarraituz garatzen den prozesua da. Eta *evolution of noun incorporation* kontzeptua darabil inkorporazio prozesuaren garapen hori adierazteko. Hierarkia horretan oinarrituz, I. motako inkorporazioa izatetik IV mota izatera pasa gaitzke<sup>11</sup>. Horregatik, IV.

<sup>11</sup> «*The implicational hierarchy suggests that, once NI appears, it develops along a specific path. The beginning is a type of lexical compounding, in which a N stem and a V stem are combined to form an intransitive V denoting a name worthy, unitary activity (Stage I). The IN loses its individual salience and syntactic role, becoming simply a component of the V. Next, the system may be extended to permit a significant oblique argument to assume the syntactic role vacated by an IN (Stage II). [...] In poly-synthetic languages, the system may be extended to the discourse level (Stage III). [...] Finally, a classificatory system may arise, whereby a generic N is incorporated to qualify the V, while a more specific external NP identifies the implied referent (Stage IV)*», (Mithun 1984: 874).

motako inkorporazioa duten hizkuntzek, III., II. eta I. motako inkorporazioa erakusten dute. Hala eta guztiz ere, badira, I. motako inkorporazioa soilik duten hizkuntzak, hala nola ixil eta aguacatec (Robertson 1980) baita I. eta II. motak dituztenak ere, esate baterako, yucatec hizkuntza (Bricker 1978)<sup>12</sup>. Beraz, inkorporazioa ez da, nahi eta nahi ez, I. motatik hasi eta IV. mota arte garatzen; aitzitik, prozesuaren emankortasun mailaren arabera hizkuntzen arteko desberdintasunak atzeman ditzakegu.

Aurkeztu ditugun Mithunen inkorporazio mota horiek prozesu morfologikoak edo sintaktikoak diren galde diezaiokegu geure buruari. Gerta daiteke, hizkuntza batean prozesu morfologikoaz osatzen den egitura, beste batean, prozesu sintaktikoaz gauzatzea. Izan ere, Mithunek bereizten dituen I. eta II. moten ezaugarriak; hala nola objektuaren inkorporazioa nahiz "ditrantsitibizazioa", prozesu hori morfologikoa dela pentsarazten digute, sintaktikoa baino areago. Beraz, horrela eratortzen diren formak konposizio soil gisa deskriba daitezke eta Mithunek egiten duen moduan konposatu-motatzat hartu.

III. motako inkorporazioan izenak betetzen duen funtzio anaforikoak, ordea, prozesua sintaktikoa dela pentsatzera garamatza. III motako izen inkorporazioa lexikoa balitz soilik, inkorporatzen den izenak ezingo lioke aurrekariari erreferentzia egin, hots, ezingo luke funtzio anaforikorik bete. Izan ere, Bakerrek (2005) sintaktikotzat hartzen ditu Mithunek bereizten dituen III, IV inkorporazio motak.

### **2.1.3. SADOCK (1985 1991): IKUSPUNTU MORFOSINTAKTIKOA**

Sadockek (1985) ko-analisan oinarritutako eredu deribazionala proposatzen du, izen inkorporazioa azaltzeko. Alderdi morfologikoa ez ezik, alderdi sintaktikoa

---

<sup>12</sup> «A comparison of NI types across related languages indicates that this hierarchy is not simply a static structural universal. Many families contain languages with different repertoires of NI», (Mithun 1984: 874).


aintzat hartzen du eta morfologia nahiz sintaxia banatuta aurkezten ditu azalpenetan. Morfologia, morfologikoak diren prozesuez arduratuko da, eta, sintaxia, prozesu sintaktikoez. Izen inkorporazioa, izen batez osatutako egitura gisa ulertzen du Sadockek, eta, izen hori, aldi berean, elementu sintaktikoa da, (Sadock 1985: 400):

*«I will call a construction noun incorporation if it involves a word containing a nominal subpart and that nominal subpart can be shown to have syntactic reality».*

Hau da, egitura bat izen inkorporazio gisa identifikatu daiteke baldin eta atal nominal batez osatutako hitza bada, atal hori errealitate sintaktiko bat izanik.

Sadocken (1985) *auto-lexical syntax* delakoan oinarrituz, adierazpen sintaktiko bakar batez aurkezten dira morfologiaren eta sintaxiaren arteko mugak. Ondorengo adierazpenean egitura sintagmatikoak azalpen sintaktikoan gauzatzen dira eta azalpen morfologikoan, hitzak:

### (2.15) SADOCK



Sadocki jarraituz, morfologikoki aberatsak diren hizkuntzetan sintaxia eta morfologia, biak kontuan hartzen dituen azalpena behar dugu izen inkorporazioaren berri emateko, (Sadock 1985: 382):

«When one reaches the most morphologically rich languages, those of the type often called poly-synthetic, one encounters phenomena such as noun incorporation that seems to cry out for another view».


«Autolexical representations are thus powerful enough to handle the facts of clitics, inflectional morphology, and as I shall show, the highly synthetic phenomenon of noun incorporation, while recognizing only two internally consistent modules –the syntax, in which all syntax and nothing else is done, and the morphology, which is responsible for all word building and for nothing else», (Sadock 1985: 386).

Sadockek (1991) mendebaldeko groenlandiera aztertzen du eta egitura “antipasiboaren” berri emateko inkorporazio sintaktikoaren aldeko argudioak ematen ditu<sup>13</sup>. *Hansi illoqarpoq* (*Hansek etxe bat du*) egitura inkorporatuaren azalpena morfologia goiko aldean eta sintaxia behekoan ordezkatzeko duen zuhaitz honen bidez ematen du:

---

<sup>13</sup> Groenlandieraren egitura “antipasiboan”, non egitura iragankorraren o.z. funtzioa betetzen duen sintagma egitura iragangaitzaren gai instrumental gisa agertzen den, izena, gehienetan, inkorporatzen da. Izen inkorporatua mendebaldeko groenlandieraz erreferentziala da eta mugatua izan daiteke aukeran (morfema eratorlearen ezaugarri lexikalen arabera). Horrez gain, modifikatzaileak posible dira eta izen inkorporatuak edozein kanpo argumentuk bezala komunztadura egiten du. Izen inkorporatu baten modifikatzaileak buruaren inkorporazioaren ondorioz desplazatua gelditzen denean ere, komunztadura egiten jarraitzen du.

(2.16)



«The well formedness of this example consists in the fact that the morphological tree satisfies the morphological requirements of every lexeme, and the syntactic tree satisfies all of their syntactic requirements. In particular the syntactic frame of the lexeme ‘-gar’ is satisfied by the existence of an instrumental  $N^2$  complement in the syntax, and the morphological requirement that it be attached to a noun stem is satisfied in the morphological representation»<sup>14</sup>, (Sadock 1985: 400).

<sup>14</sup> Adibide horren egokitasuna honetan datza: adierazpen morfologikoa, lexema guztien baldintza morfologikoekin bat dator, baita adierazpen sintaktikoa baldintza sintaktikoekin bat ere.

-Gar- lexemaren baldintza sintaktikoak, syntaxian betetzen dira,  $N^2$  konplementuaren agerrera dela eta. Izen erro bati lotzearen baldintza morfologikoa, bestalde, adierazpen morfologikoan gauzatzen da.

Sadocken teoria aplikatuz, bada, sintaxian gertatzen den prozesua eta hizkuntzaren eraikuntza morfologikoa elkarrekin aztertu ahal izango ditugu, izen inkorporazioaren ezaugarri morfosintaktikoen berri ematean.

#### 2.1.4. LIEBER (1992): X-MARRAREN TEORIA MORFOSINTAKTIKOA

Morfologiaren eta sintaxiaren arteko lotura hizkuntzalarien aztergai izan den arren, hitzen eta egituren propietateak nekez eratorri ahal izan dira hatsar bakar batean oinarrituta eta horretan datza, hain zuzen ere, Lieberren (1992) saiakera.

Lieberrek, teoria sintaktikoaren atal gisa kontsideratzen du morfologia eta X-marra teoriari aldaketa minimoak eginez<sup>15</sup>, sintagmez eratutako egiturak jokoan dituzten konposatu sintagmatikoen eta XSetan oinarritzen diren aditzen eraketaren berri ematen du<sup>16</sup>. Lieberrek egiturazko konfigurazioak mugatzen dituzten X-marra teoriaren parametroak<sup>17</sup> maila morfologikoa nahiz sintaktikoa aplikatzen direla argudiatzen du. Eta hala, haren teorian oinarrituz, parametro deribazionalak behin bakarrik definituko dira hizkuntza bakoitzean.

<sup>15</sup> Chomskyren (1981 1985 1986a 1986b) Gobernua eta Uztardura eredu teorikoa eta X-marra teoriaren hatsarre nagusiak oinarritzat hartuz, Tomanek (1983) *Wortsyntax* lanean egiten duen moduan.

<sup>16</sup> Ildo beretik, Sproatek (1985) ez du ezeztatzen hitzen formazioari soilik dagozkien hatsarreak daudenik, baina horiek ez dutela arau sintaktikoetatik desberdintzen den arau sistema bat osatzen aipatzen du:

«*The syntactic well-formedness and behavior of a word, like that of a phrase, can be determined by syntactic principles including, but not limited to, X-bar theory, Theta theory, Binding theory, Case theory and the Projection Principle*», (Sproat 1985: 2).

<sup>17</sup> Hauek dira Lieberrek aipatzen dituen X-marraren oinarritzko hatsarreak, (Lieber 1992: 38):

a.  $X^n \rightarrow \dots X^{(n-1,n)}$ , where recursion is allowed for  $n=0$ .

b. Licensing Conditions

i. Heads are initial/final with respect to complements.

- Theta-roles are assigned to left/right.

- Case is assigned to left/right.

ii. Heads are initial/final with respect to specifiers.

iii. Heads are initial/final with respect to modifiers.

c. Pre- or post-head modifiers may be  $X^{\max}$  or  $X^0$

[IZEN + EG/M]<sub>A</sub> ADITZ-LOKUZIOAK: INKORPORAZIO MAILAK

Gramatikaren arau eta hatsarre orokorrak  $X^0$ ren azpiko mailan aplikatuko ez balira, ezingo genuke hitzen eta sintagmen buru kokapenei dagozkien gobernu erlazioen berri eman, ezta konposatuek nahiz sintagmek erakusten dituzten antzeko erlazio tematikoen berri eman ere. Baina horrek ez du esan nahi, edozein arau  $X^0$ ren azpiko mailan aplika daitekeenik. Izan ere, aditzen formazioan parte hartzen duen X- mugimenduari dagozkion arauak, Kategoria Hutsaren Hatsarrean oinarritzen diren murrizketa sintaktikoak erakusten dituela ikusiko dugu jarraian (2.1.5.).

Lieberri jarraituz bada, ez dugu osagai morfologikoarentzat arau eta hatsarre gramatikal berezien beharrik izango, horiek hizkuntza bakoitzaren X-marra sisteman oinarrituz erator daitezkeelako<sup>18</sup>, Williamsen (1981b)<sup>19</sup> eskuineko buruaren proposamenaren kontra. Lieberren (1992) hausnarketa, bat dator aztertzen dituen hizkuntzen ezaugarriekin, hala nola tagalog hizkuntzaren, ingelesaren, frantsesaren eta nederlanderaren ezaugarriekin. Gauzak horrela, ez da kasualitatea, tagalog hizkuntzan, burua ezkerrean agertzea, egitura sintagmatikoetan burua ezkerrean agertzen denean. Baina, buruaren kokapenari

<sup>18</sup> Tagalog hizkuntzaren X-marra sistema ondorengoa izanik, hitz-eraiketaren berezitasunak hemendik eratortzen ditu, (Lieber 1992: 43):

Licensing Conditions: Tagalog

a.  $X^n \rightarrow X^{(n-1,n)}$ , where recursion is allowed for  $n=0$ .

b. Licensing Conditions (tagalog)

i. Head initial with respect to complements.

ii. Head initial with respect to specifiers.

iii. Head initial with respect to modifiers.

c. Pre- or post-head modifiers may be  $X^{\max}$  or  $X^0$

<sup>19</sup> Williamsen arabera (1981b), burua, morfologian, ez da X-marra hatsarre orokorren arabera definitzen, burua eskuinean kokatzen dela dioen arauan oinarrituz, baizik: «*In morphology we define the head of a morphologically complex word to be the right hand member of that word. We call this definition the Right-hand Head Rule (RHR)*», (Williams 1981b: 248). Hau da, morfologikoki hitz konplexu baten burua hitzaren eskuinean kokatzen den osagaia da beti.

dagokion proposamena unibertsala ez denez<sup>20</sup>, egokiago dirudi hizkuntzen arabera buruaren parametrizazioaz hitz egitea.

Beraz, morfologiaren eta sintaxiaren arteko elkarreragina azpimarratzen duen Lieberren teoria baliagarria izan dakiguke, euskarazko aditz-lokuzioen berri emateko, kontuan hartzen badugu horietan baldintza morfologikoak nahiz sintaktikoak daudela jokoan.

### 2.1.5. BAKERREN ADJUNKZIOA (1985 1988a 2005 2008)

Bakerrek (1988a) izenaren adjunkzio mugimenduan oinarrituz azaltzen du izen inkorporazioa, *head adjunction edo movement of N<sup>o</sup> to V<sup>o</sup>* deritzona.

Adjunkzioa, elementu bat alfa igoera mugimenduaren bidez gorago kokatuta dagoen lehen proiektzio gorenari atxikitzean datza. Prozesu hori hatsarre sintaktiko batzuen menpe dagoela baieztatzen du Bakerrek, maila lexikoan soilik gertatzen den hitz sorreraren aldean. Izen inkorporazioaren distribuzio mugatua eragiten duten baldintzak funtzio sintaktikoari dagozkionak nahiz baldintza morfologikoak, besteak beste, prozesuaren oinarrian dauden hatsarre teorikoetan oinarrituz azal daitezke<sup>21</sup>, hau da, Chomskyren Gramatika Sortzailearen Hatsarre eta Parametroen azpi-teorietan oinarrituz.


Woodburryk (1975) proposatzen dituen onondagaren adibide hauen arteko desberdintasunak Bakerren (1988a) inkorporazioan oinarrituz azal daitezke. Izan ere, lehen adibidea inkorporazioaz azal daiteke, hurrengoa, aitzitik, inkorporaziorik gabeko egitura iragankor arrunta dugu, (Baker 1988a: 76):

<sup>20</sup> Vietnamiera eta tagalog hizkuntzetan, burua hitz konplexuaren ezkerreko osagaia da, euskaraz, ordea, eskubikoa.

<sup>21</sup> Gramatika Sortzailearen Hatsarre eta Parametroen azpi-teoria hauek aukeratu ditugu eredu teoriko gisa, baliagarriak zaizkigulako aztergai ditugun aditz-lokuzioen berri emateko.




sintaxia bat datozela esan dezakegu. Inkorporazio mugimendua, bada, bi egitura horien oinarrian dagoen adierazpen sintaktiko berean oinarrituz azal daiteke:



Egitura horri inflexioari dagokion komunztadura gehituz lortzen dugu (2.18) egitura iragankor arrunta.

Alfa igoera mugimenduaren bidez azaltzen dugun ondorengo adierazpen sintaktikoan, berriz, izen erroak eta aditz erroak hitz bakar bat osatzen dute<sup>22</sup>. Beheko posizioan kokatuta dagoen izen erroa (*hwist*) aditzaren gunera igotzen da eta burutik bururako mugimenduaren ondorioz, aditz-egitura konplexua lortzen dugu:

<sup>22</sup> Hitz soilaren kontzeptua, Kroeberrek (1909) aipatutako monolexiko kontzeptuarekin bat dator.



Allen, Gardiner eta Frantz (1984) hizkuntzalariek deskribatzen duten southern tiwa hizkuntzan<sup>23</sup>, halaber, egitura inkorporatuaren eta ez inkorporatuaren arteko kontraste hau atzematen dugu:

(2.21) Ti-seuan-                    mu-ban                    (egitura                    inkorporatua)  
 1sgS/AO-man-see-PAST  
 'I saw the/a man'

(2.22) Seuan-ide    ti-mu-ban (egitura iragankor arrunta)  
 man-SUF    1sgS/AO-see-PAST  
 'I saw the/a man'

Azken aurreko adibidean, non izena aditz konplexuaren barnean ageri den, aipagarria da (-ide) kasu marka desagertu egin dela. Azken adibidean ordea, izena elementu lexikal askea da, (-ide) kasu marka duena eta aditzarekin komunztatzeko behar dituen markez osatua, Allen, Gardiner eta Frantz (1984).

<sup>23</sup> Iroquoia familiako ondorengo hizkuntzek ere egitura inkorporatuak dituzte: mohawk, Postal (1962 1979) eta Baker (1996), tuscarora, Williams (1976), nahuatl, Merlan (1976), southern tiwa, Allen, Gardiner eta Frantz (1984), eskimo, Sadock (1980, 1985, 1986), rembarnga, Mc Kay (1975), nunqgubuyu, Heath (1984), chuckche hizkuntzek, Spencer (1993), eta abar.

Adibide horietan dena den, ez dugu, izenaren determinazioari dagokionez, desberdintasunik atzematen, bi izenak determinatzailedunak dira, alegia.

Japonieraz, bestalde, izenak absolutibo kasu markarik jasotzen ez duenean inkorporatzen zaio aditzari, ezinbestez, Saito & Hoshi (2000) hizkuntzalarien adibide hauetan ikus daitekeen moduan:

(2.23) Mary-ga John-to (kinoo) kaiwa-o sita (egitura iragankor arrunta)

Mary-NOM John-with yesterday conversation-ACC did  
'Mary spoke to John (yesterday)'

(2.24) Mary-ga John-to (kinoo) kaiwa-sita (egitura inkorporatua)

Mary-NOM John-with yesterday conversation-did  
'Mary spoke to John (yesterday)'

Aipatu dugu adjunkzioaren oinarrian, besteak beste, Chomskyren (1981) Kategoria Hutsaren Hatsarrea eta Travisen (1984) Buru-mugimenduaren Murriztapen Hatsarrea daudela. Buru-mugimenduaren Murriztapen Hatsarreak honela dio:

(2.25) The Head Movement Constraint (H.M.C.)

«*An X<sub>0</sub> category can only adjoin to the head of the phrase that immediately dominates the maximal projection of Y*», (Travis 1984: 131)<sup>24</sup>:

<sup>24</sup> Buru-mugimenduaren Murriztapenaren Hatsarrearekin estuki lotuta Bakerren (1995) Buru-mugimendu Egokiaren Generalizazioa aipatu beharra dago edo *Proper Head Movement Generalization (PHMG)*, honela dioena:

«*A lexical category cannot move into a functional category and then back into a lexical category*». Hau da, kategoria lexikal bat ezin da kategoria funtzional batera igo eta atzera kategoria lexikal batera mugitu.


Hau da, Xo kategoria bat, gobernatzen duen sintagmaren buruaren gunera igo daiteke soilik, Yo, Xoren gainean dagoen lehen buru kategoria izanik.

Izen inkorporazioaren murriztapenak Hatsarre horretan oinarrituz azal daitezke eta Seiterek (1980) niuea hizkuntzaren adibide honen bidez azaltzen du burutik bururako mugimendua ezinbestekoa dela:

(2.26) Ne tutala a au ke he tau tagata  
 PAST-talk ABS-I to PL-person  
 'I was talking to the people'

(2.27) \*Ne tutala tagata a au (ke he)  
 PAST-talk-person ABS-I (to)  
 'I was people-talking to'

Azkenurreko egitura inkorporaziorik gabeko egitura arrunta dugu. Azken egituran, ordea, inkorporazioa teknikoki ezinezkoa da preposizioak izenaren mugimendua oztopatzen duelako:



Burutik bururako mugimendua errespetatu ahal izateko, izena preposizio burura mugitu beharko litzateke, lehenik, adierazpen sintaktikoan izenari jarraitzen dion lehen burua delako, beraz, adibide horretan, preposizioak oztopatzen du izenaren mugimendua aditzaren gunera.

Igoera mugimendu sintaktikoaren oinarrian, bestalde, Kategoria Hutsaren Hatsarrea dago eta Travisek (1984) aipatutako baldintza orokor hori, Chomskyk (1981) garatutako Kategoria Hutsaren Hatsarretik erator daiteke:

(2.29) The Empty Category Principle (E.C.P.)

«*An empty category must be properly governed*».

Hau da, kategoria huts bat ondo gobernatu behar da.

Hatsarre honen arabera, mugitu den elementu baten aztarna zilegi da baldin eta errekeratu dezakeen elementu batek gobernatua bada. Hatsarre horretatik erator daiteke izen inkorporazioaren ezaugarri deigarrietako bat; izenaren distribuzio mugatua. Mugimendua gertatu ondoren utzitako aztarna, mugitzen den izena o.z. betetzen duen sintagmaren burua denean goberna daiteke soilik; hau da, aztarna adierazpen sintaktikoan gobernatzen duen elementuarekiko beheragoko posizioan kokatzen denean.

Inkorporazioaren distribuzio mugatua, mohawk hizkuntzaren adibide honetan ikus daiteke, Baker (1988a):

(2.30)	O-wir-a'a	o'-nerohkw-a-ku	wa-ha-thvno-tsher-ita-'
	haurra(S)	kutxan	pilota(OZ)-jarri
	"Haurrak pilota-jarri zuen kutxan"		

Adibide horretan o.z. funtzioa betetzen duen sintagmaren edota gaia errola hartzen duen argumentuaren<sup>25</sup> inkorporazioa dugu eta izena eta aditza lotuta ageri dira. Hurrengo adibideek erakusten dute, bestalde, subjektuaren eta lekuzkoaren inkorporazioa ezinezkoa dela:

(2.31) \*O'-nerohkw-a-ku wa-ha-wir-ita' ne athvno'  
kutxan haurra(S)-jarri zuen pilota(OZ)

"Haurrak-jarri zuen pilota kutxan"

(2.32) \*O-wir-a'a wa-ha-'nerohkw-ita' ne athvno'  
"haurra(S) kutxan-jarri zuen pilota (OZ)"

"Haurrak kutxan-jarri zuen pilota"

Bakerren analisisian oinarrituz, egile argumentuak ez dira inkorporatzen, rol tematiko hori subjektuari kanpotik ezarria delako eta subjektuaren inkorporazioak Kategoria Hutsaren Hatsarrearen kontra egitea suposatzen duelako<sup>26</sup>. Aitzitik, inkorporatzen diren argumentuak gaia edo jasaile rol tematikoarekin bat etortzea zentzuzkoa dirudi. Egile rola duten izenak ez inkorporatzea, bada, konfiguraziozko arrazoi sintaktikoetan oinarrituz azal daiteke<sup>27</sup>. Izan ere,

<sup>25</sup> Argumentu sintaktikoa (o.z. funtzioa betetzen duena) nahiz semantikoa (gaia rol tematikoa duena).

<sup>26</sup> Kategoria Hutsaren Hatsarrean oinarrituz izen inkorporazioaren distribuzio mugatua azal dezakegu. Kategoria Hutsaren Hatsarrearen arabera izenaren aztarna bere aitzindariak gobernatu behar du eta hau ezinezkoa da adibide honetan, PS kategoriak, aztarna gobernatzea saihesten duelako:

(i) Lagunarengana joan nintzen

(ii) \*Lagunjoannintzen-arengana / \*Lagun-joan nintzen-arengana .

<sup>27</sup> Grimshawen (1990) hierarkia tematikoan oinarrituz ere, argumentu egituraren goren kokaturik dagoen argumentua, kanpo argumentua da eta barne argumentua beheago kokatuta dago, aditzetik gertuago, predikatuaren erlazio tematikoek erabakitzen dituzten hierarkian. Agente rola, goren kokaturik dagoen argumentuarekin bat dator eta jasaile rola jarraitzen dio, [IZEN + EG/M]<sub>A</sub> ADITZ-LOKUZIOAK: INKORPORAZIO MAILAK

inkorporazioa, objektuaren eta aditzaren arteko erlazio estuaren emaitza gisa uler dezakegu eta erlazio estu hori aditzaren eta gaia rola duen elementuaren artean ematen da<sup>28</sup>.

Inkorporatzen diren izenen distribuzio mugatua dela eta, Mithunek (1984) inkorporatzen diren izenek erakusten dituzten muga semantikoak aipatzen ditu eta inkorporazioa duten hizkuntza gehienetan, inkorporatzen diren izenak jasaileak direla dio (1984: 83):

*«Verb-internally, incorporated nouns bear a limited number of possible semantic relationships to their host verbs. If a language incorporates nouns of only one semantic case, they will be patients of transitive verbs. If a language incorporates only two types of arguments, they will be the patients of transitive and intransitive verbs -again regardless of the basic case structure of the language. The majority of incorporating languages follow this pattern».*

Perlmutterren (1978) iragankortasun banatua gogora ekarriz<sup>29</sup>, jakina da theta errolak erabiltzen dituela Perlmutterrek ere (1978) aditz iragangaitzen arteko

---

ondoren, helburua, jatorria eta lekuzkoa ageri dira, hurrenez hurren, eta azkenik, gaia. Argumentu tematikoen egitura, beraz, hauxe dugu:

Agent (Experiencer (goal / source / location (theme))).

Aditz agentiboetan, bada, agentea goren kokaturik dagoen argumentua izango da eta gaia beherago kokatuko da. Eta hala, Grimshawek proposatzen duen *erahil* aditzaren azalpena hauxe litzateke: murder: (x (y)) x:agent; y:theme

<sup>28</sup> Osagarri zuzen gisa gauzatzen den osagaia, oro har, barne argumentua da, eta subjektu gisa gauzatzen dena, kanpo argumentua, Perlmutterren (1978) iragankortasun banatuan, salbuespen, non egitura ez-akusatiboen barne argumentua edo gaia, subjektu moduan gauzatzen den.

<sup>29</sup> Perlmutterren (1978) Hipotesi ez-akusatiboak argumentu bakarreko bi aditz mota bereizten ditu. Aditz iragangaitz ez-ergatiboek subjektua edo kanpo argumentua dute eta aditz iragangaitz ez-akusatiboen "subjektua" oinarritzeko barne argumentua da (osagarri zuzena). Horrez gain, aditz ez-ergatiboek argumentu agentea edo esperimantatzailea izan ohi dute eta aditz ez-akusatiboek jasailea edo gaia.

bereizketa egiteko. Aditz iragankorren subjektuaren inkorporazioa ezinezkoa dela ikusita eta subjektu ergatiboak eta egile errola dutenak inkorporatzen ez direla aintzat hartuz, galdera hau egin diezaiokegu geure buruari:

Zein jokaera erakusten dute hizkuntzek Perlmutterrek (1978) bereizten duen egitura iragangaitz baten "subjektua" edo barne argumentua dugunean? Hipotesi ez-akusatiboan oinarrituz, aditz iragangaitz ez-akusatiboen osagaia inkorporatu ahal izatea espero dugu<sup>30</sup>.

Euskaraz, egitura iragangaitzen oinarrizko barne argumentuaren inkorporaziorik aurkitu ez dugun arren, (Perlmutterren zentzuan), badira mota horretako adibideak, iroquoia, southern tiwa eta onondaga hizkuntzetan, besteak beste.

Onondagaren egitura honetan, adibidez, egitura iragangaitzaren oinarrizko barne argumentua edo o.z. funtzioa betetzen duen IS inkorporatu da, aztarna AS-ren barnean gobernatua izanik eta Kategoria Hutsaren Hatsarrea errespetatuz, Chafe (1970) :

(2.34) [Neket] o-nqhs-akayqh

hau 3.sg-etxe-zahar

"Etxe hau zaharra da"

Beraz, inkorporazioaren azalpen sintaktikoa guztiz bat dator Perlmutterren hipotesi ez-akusatiboan oinarrituz espero dugunarekin.

<sup>30</sup> Subjektua ez inkorporatzea egitura iragankorretan nahiz egitura ez-ergatiboetan, subjektua egitura erlazional lexikoarekiko kanpo argumentua izateagatik azal dezakegu. Inkorporatzen dena subjektua izanik, ez da kategoria hutsaren hatsarrea errespetatzen, eta ondorioz, egitura ez gramatikalaren berri eman dezakegu. Aditz ez-akusatiboen "subjektua" edo oinarrizko barne argumentua inkorporatzea, ordea, zilegi dirudi eta badira hizkuntzak hori erakusten dutenak (onondaga, esate baterako).

Izen inkorporazioaren analisi gehienak, bat datoz izen inkorporatuak eta aditzak unitate bat osatzen dutelako hipotesiarekin, unitate hori [Izen + aditz]<sub>A</sub> argumentuez osatutako X<sup>0</sup> kategoria lexikoa izanik, Baker (1988a 1996 2005). Beste hitzetan, inkorporazio sintaktikoaren ondorio gisa uler daiteke izenak (ISren buruak) eta aditzak (ASren buruak) osatzen duten banatu ezineko unitate lexiko konplexua.

Inkorporazioaz hitz egiten dugunean, egitura konplexuak jokoan direnez, sintagma, alegia, (kategoria bakunen aldean), prozesua sintagma mailan gertatzen dela ulertu behar dugu. Bakerrek (1994) adierazten duenez, kategoria lexiko berrien sorrera, sintagmetan gertatzen den buru-mugimenduaren ondorioz azal daiteke:

*«representations of phrasal categories may constitute the input to the formation of lexical categories through head movement».*

Laburbilduz, Kategoria Hutsaren Hatsarrea eta Buru-mugimenduaren Murrizketaren Hatsarrea, baliagarriak dira inkorporazioaz sortzen diren egituren berri emateko, baita prozesu horren distribuzio mugatuaren berri emateko ere. Izan ere, subjektu/objektu asimetria, inkorporazioa kategoria sintagmatikoen barne prozesua dela frogatzeko beste argudioa izan daiteke. Horrez gain, hatsarreak baliagarriak dira hizkuntza naturaletan aurkitzen ditugun egitura gramatikalen eta ez gramatikalen berri emateko. 2.2. azpiatalean ikusiko dugunez Bakerren adjunkzio mugimendua baliagarria da aditz-lokuzioak teoria mailan sintaxi-egitura gisa azaltzeko. Eta hala, inkorporazioa, euskaraz, izen sintagman gertatzen den izenaren buru-mugimenduaren ondorioz azalduko dugu.

### **2.1.6. MASSAM (1998 2001) ETA VAN GEENHOVEN (2002): MUGIMENDURIK GABEKO TEORIA SINTAKTIKOA**

Sintaxian oinarritzen diren baina izenaren mugimenduaz baliatzen ez diren inkorporazioaren analisisien artean, Massam (2001) eta Geenhoven [IZEN + EG/M]<sub>A</sub> ADITZ-LOKUZIOAK: INKORPORAZIO MAILAK

hizkuntzalarien hurbilketak ditugu, Bakerren teoria sintaktikoaren aldaera gisa aurkez daitezkeenak.

Analisi horiek, hizkuntza jakinen egituren berri emateko proposatzen dira, eta hala, Massam, pseudo-inkorporazioaz baliatzen da, niuea hizkuntzan aurkitzen diren egituren berri emateko. Hona hemen Massamen adibidea, mugimendurik gabeko izenaren inkorporazioa erakusten duena, (Massam 2001: 157):


(2.34) Takafaga      ika      tumau      ni      a      ia  
                   hunt            fish    always      Emph ABS    he  
                   ‘He is always fishing’  
                   “Bera beti arrantzan dabil”

Niuea hizkuntza ASO (VSO) motako hizkuntza dela aintzat hartuz, espero ez dugun kokapenean dakusagu o.z. funtzioa betetzen duen sintagma. *Ika* (*arrain*) izenak, aditzari jarraitzen dio, honekin lotura estua osatuz, ondorengo egituren adierazten den moduan:

(2.35)  $Vp_i$  [hunt fish] INFL  $Tvp_i$

Johns eta Massam (1998) hizkuntzalarien arabera, izen inkorporazioa ez da hizkuntza guztietan egitura uniforme baten bitartez gauzatzen; aitzitik, izen inkorporazio bidez deskribatutako [I+A] sekuentziak sintaktikoki desberdinak izan daitezke. Egitura horiek duten ezaugarri bereizgarria kokapen edota funtzio desberdina duen IS litzateke. Izan ere, aurreko adibidean atzematen dugunez, aditzarekin lotura estua osatzen duen izenaren kokapena ez da ohikoa niuea hizkuntzan. Massamen hurbilketan oinarrituz, egitura hori oinarritzko syntaxian osatzen da eta ez dugu mugimendu sintaktikorik behar, horren berri emateko.

Oinarrizko sorrera sintaktikoan oinarritzen den beste ikuspuntua, Van Geenhovenena (2002) da. Van Geenhovenen teoriaren arabera ere, izena eta aditza oinarrizko sintaxian sortzen dira eskimo hizkuntzan, aditz konplexua osatuz:



Egitura horren berri emateko, bada, ez genuke izenaren mugimendurik behar.

Van Geenhovenen azalpenean oinarrituz, oinarrizko sintaxian sortzen diren eskimo hizkuntzaren egitura horiek morfologian sortzen direnetatik zertan bereizten diren galde diezaiokegu geure buruari. Van Geenhoveni jarraituz (2002), egitura horietan parte hartzen duten osagaiei eragiten dieten baldintzapen sintaktikoak izan litezke arrazoiak, morfologian baino areago, oinarrizko sintaxian sortzen direla esateko. Sadockek (1980), halaber, inkorporazioa, eskimo hizkuntzan, sintaktikoak diren arau batzuen menpe dagoela dio; kasu ezarketa eta izenarekin komunztadura, besteak beste.


### 2.1.7. HALE ETA KEYSER (1993 2002): TEORIA LEXIKOA

Ikuspuntu sintaktikotik aldentzen diren teorien artean, lexikoan, soilik, oinarritzen den Hale eta Kayser (1993 2002) hizkuntzalarien hurbilketa dugu, argumentu-egituran eta zatiketa lexikoan oinarritzen den teoria, hain zuzen ere.

Hale eta Keyserrek proposatzen duten zatiketa lexikoa edo *lexical decomposition* deritzon kontzeptua, egokia da elementu baten egitura lexikalaren berri emateko. Hizkuntzalari horien arabera, aditz baten argumentu-guneak, [IZEN + EG/M]<sub>A</sub> ADITZ-LOKUZIOAK: INKORPORAZIO MAILAK

egitura lexiko kontzeptualak mugatutako egituran kokatzen dira, eta hala, lexikoaren sintaxiaz hitz egiten dute, azalpen sintaktikoa maila lexikoan txertatzean datzan kontzeptuaz. Hale eta Kayserren teoria baliagarria da, adibidez, ingelesez inkorporazio bidez eratortzen diren aditz hauen berri emateko: “laugh” *farre egin*, “sneeze” *usin egin*, “neigh” *irrintzi egin*, “dance” *dantza egin*, eta abar. Hizkuntzalari horien arabera, *laugh* aditza, lexikoan gertatzen den mugimenduaren ondorioz eratortzen da:

(2.37)



Adierazpen honetan dakusagunez, lehenik eta behin, izena aditz arinaren kokapenera igotzen da. Maila lexikoan gertatzen den mugimendu honen ondorioz *laugh* (*barre egin*) aditz ez-ergatiboa eratortzen da eta ondoren, egitura sintaktikoa proiektatzen da. Hurrengo egituran dakusagunez, (*laugh*) jarduera adierazten duen aditzaren argumentu inplizitua *-a laugh-*, agerian izaten jarraitzen dugu:

(2.38) John laughed a laugh

‘Jonek barre bat barre egin zuen’

Prozesu hori hizkuntza bakan batzuetan eta egitura berezi batzuetan gertatzen da. Eta adibide horrek erakusten du, ingelesez, lexikoan gertatzen den prozesu

batez ari garela, sintaxian gertatuko balitz mugimenduaren ondorioz utzitako aztarna ezingo lukeelako beste elementu batek bete<sup>31</sup>.

### 2.1.8. ROSEN (1989): TEORIA LEXIKOA

Rosenen ustez (1989), izen inkorporazioa, lexikoan gertatzen den hitz eraketaren arauetatik (*word formation rules*) eratortzen den prozesu pre-sintaktikoa da. Hitz eraketan parte hartzen duten prozesuetan oinarrituz, konposizioaren antzekoak diren bi izen inkorporazio mota bereizten ditu Rosenek.

I. mota:

I. motari, izen inkorporazio konposatua deitzen dio Rosenek. Izen erro bat aditz erro batekin konbinatzen da, aditz konplexuaren argumentu egiturak argumentu bat gutxiago hartuz.

*«it is apparent that there are two separate word formation processes that languages may choose. In one, when a noun root combines with a verb root, the argument structure of the verb is altered such that the complex verb takes one less argument»*, (Rosen 1989: 294).

Aditz konplexua iragankorra izatetik iragangaitza izatera pasatzen da eta murrizketa honek Mithunek aipatzen duen “distrantsitibizazio” ezaugarria gogorarazten digu.

Seiterrek (1980) niuea hizkuntzaren adibide hau proposatzen du konposizio mota hori azaltzeko. Izan ere, adibide honetan dakusagunez, egitura inkorporatuak badu egitura ez inkorporatu paraleloa, non subjektua ergatiboz markatzen den eta objektua absolutiboz, niuea hizkuntzan ohikoa den moduan, (Seiter 1980: 69):

<sup>31</sup> Euskarari dagokionez, esate baterako, ez dugu *corpus*etan mota honetako agerraldirik topatu:

(i) \*Barrea barre egin du / \*Barre bat barre egin du

[IZEN + EG/M]<sub>A</sub> ADITZ-LOKUZIOAK: INKORPORAZIO MAILAK

(2.39) Takafaga tu; mau ni; e ia e tau ika

hunt always emph ERG he ABS pl fish

“He's always hunting fish”

(2.40) Tafaga ika tu: mau ni: a ia

hunt fish always emph ABS he

“he is always fish-hunting” (“he is always fishing”)

Azken egituran ikusten dugunez, inkorporazioaz osatzen den aditza, iragankorra izatetik (azken aurreko adibidean) iragangaitza izatera pasa da eta subjektua, ergatiboz markatua izatetik (azken aurreko adibidean) absolutiboz markatua izatera pasa da. Beraz, bi argumentuz osatutako aditza izatetik, argumentu bakarreko aditz egitura izatera pasa gara:

(2.41) hunt (x,y) --> fish-hunt (x)

II. mota:

II. motako izen inkorporazioan izenak eta aditzak bat egiten dute eta argumentu egitura ez da aldatzen, hau da, o.z. aditzari inkorporatu ondoren egitura iragankorra izaten jarraitzen dugu:

*«In the other form of NI, when a noun root combines with a verb root, the argument structure of the complex verb is unaltered»,*

Rosenek (1989) mota horri izen inkorporazio sailkatzaile deitzen dio, izen inkorporatuak sailkatzaile gisa jokatzen duelako. Egitura horretan bi IS agertzen dira, subjektu funtzioa betetzen duen IS a ez ezik; osagarri zuzen funtzioa betetzen duen IS eta inkorporatzen den izenaz osatutako IS. Bi IS horiek

semantikoki loturik daude, izen inkorporatu sailkatzailea sailkatzen duen izenari semantikoki loturik dagoen heinean:

«*The incorporated noun places a selectional restriction on the verb, such that the object NP must be within the class of objects delineated by the incorporated noun root*», (Rosen 1989: 293).

Izen inkorporatu sailkatzailea, osagarri zuzenaz osatutako IS baino orokorragoa izan behar da II. motako inkorporazioan, iroquoia hizkuntzaren adibide honek erakusten duten moduan:

(2.42) I animal-bought a dog

Gramatikaltasun irizpideak bat datoz aipatu berri dugun murriztapenarekin. Egitura hori gramatikala da, *animal* izena *dog* baino orokorragoa delako, eta atzetik aurrera, ondorengo egitura ez da gramatikala, inkorporatzen den izena o.z. funtzioa betetzen duen IS baino zehatzagoa delako.

(2.43) \*I dog-bought an animal

Rosenen II. motak, aurkeztu dugun Mithunen IV. mota edo inkorporazio sailkatzailea gogorarazten digu. Izan ere, Mithunek ematen dituen hizkuntzen adibideetan ere ikusi dugu inkorporatzen den izenak aditzaren eremua mugatzen duela.

Izen inkorporazioari buruz aurkeztu ditugun hizkuntzalarien hurbilketak honela laburbildu daitezke:

(2.44) Izen inkorporazioa eta marko teorikoa:

TEORIA MORFOLOGIKOAK:

Sapir (1911)

Mithun (1984)

[IZEN + EG/M]<sub>A</sub> ADITZ-LOKUZIOAK: INKORPORAZIO MAILAK

## TEORIA SINTAKTIKOAK:

Baker (1985 1988a. 2005 2008)

Massam (1998 2001) eta Van Geenhoven (2002)

## TEORIA MORFOSINTAKTIKOAK:

Kroeber (1909)

Sadocken Ko-analisia (1985 1991)

Lieberren X-marra (1992)

## TEORIA LEXIKOAK:

Rosen (1989)

Hale eta Kayser (1993)

**2.2. [IZEN + EG/M]<sub>A</sub> LOKUZIOEN BERRI EMATEKO TEORIA: BAKERREN ADJUNKZIOA (1985 1988a 2005 2008)**

Izen inkorporazioaren berri emateko hurbilketa teorikoak azaldu ondoren, euskarazko aditz-lokuzioei banan-banan aplikatuko dizkiegu 2.2.1.- 2.2.7. azpisailetan. Aditz-lokuzioak dituzten ezaugarrietan oinarrituz teoria horiek zenbateraino diren egokiak azalduko dugu eta haien argitan erabakiko dugu euskarazko aditz-lokuzioen berri emateko egokiena den hurbilketa; adjunkzioan oinarritzen den Bakerren mugimendu sintaktikoa (1985 1988a. 2005 2008), hain zuzen ere.

**2.2.1. KROEBER (1909) ETA ADITZ-LOKUZIOAK**

Kroeberrek (1909) definizioan aipatzen duen izen inkorporazioaz sortutako forma mono-lexikoaren ideia euskarari aplikatuz, inkorporazioa ez litzateke aditz konposatuetatik bereiziko, hots, [itxura [aldatu]<sub>A</sub>]<sub>A</sub>, edota [on [ets]<sub>A</sub>]<sub>A</sub> motako aditz formak ezingo genituzke bereizi [hitz [egin]<sub>A</sub>]<sub>A</sub> motako lokuzioetatik.

Lokuzioak konposatuetatik bereizteko ezinbestekoa da hainbat baldintza betetzea, hala nola izenaren funtzio sintaktikoari dagokiona, besteak beste. Inkorporazio prozesuan parte hartzen duen izen sintagmak, o.z. funtzioa betetzen duela aipatzen du Kroeberrek eta euskarazko aditz-lokuzioetan parte hartzen duen izen sintagmak ere, o.z. funtzioa betetzen duela argudiatu dugu 1. kapituluan.

Aditz konposizioan, ordea, izenak ez du osagarri zuzen funtziorik betetzen, (Euskaltzaindia 1991: 3-13)<sup>32</sup>, beste funtzioak baizik. *Itxuraldatu* konposatuan, esate baterako, *itxura* izenak instrumental funtzioa betetzen du, *itxuraz aldatu* aditzera emanez. *Gurutz-hiltzatu* konposatuan, izenak lokatibo funtzioa betetzen du, *gurutzean hiltzatu* aditzera emanez, Azkarate (1990). Izena instrumentala delako dira, hain zuzen ere, aditz elkartu gehienak nor motakoak. Salbuespena, *lo(a)kartu* aditz elkartua dugu, *-k* ergatiboaz markatzen dena. Hala eta guztiz ere, honek ere nor motako aditz laguntzailearekin komunztatzen du, Ereduzko Prosa Gaur *corpuseko* adibide honetan dakusagun moduan:

- (2.45) Atzean ondo eta erasoan aukera onenak bilatuz egin zituen lehen jokaldiak, baina azkar *lokartu zen* Murtziaren erritmoaz kutsatuta. EPG, (Jon Rejado, Berria, 2004-04-22).

### 2.2.2. SAPIR (1911) ETA ADITZ-LOKUZIOAK

Sapirrek (1911) jarduera komuna versus ez komuna bereizketa proposatzen du aditz inkorporatuak inkorporatuak ez diren egituretatik bereizteko. Hala eta guztiz ere, esan behar dugu, ekintza orokor edo ohiko bati erreferentzia egitea ezin daitekeela izan irizpidea, euskarazko aditz elkartuak aditz lokuzioetatik bereizteko. *Negar egin*, *amets egin*, *alde egin* eta beste aditz-lokuzioek, ekintza

<sup>32</sup> Horregatik ez gatoz bat Lafitterekin, *hitzeman* eta *ihes egin* aditz elkartu gisa karakterizatzen dituelako. Guk, aditz-lokuzio gisa deskribatuko ditugu sintaxi-egitura horiek, non izen hutsaz osatutako ISk o.z. funtzioa betetzen duen.

orokorrari erreferentzia egiten diote, baina baita *odolustu* edota *itxuraldatu* eta beste hitz elkartuek ere.

Hala eta guztiz ere, adiera orokorra bai izan daiteke euskarazko aditz-lokuzioak lokuzio ez diren egitura iragankor arruntetatik bereizteko irizpidea. Lokuzioan parte hartzen duen izenaren erreferentzialtasun eza nahiz abstraktutasuna, lokuzio egituraren jarduera komun adierarekin bat datozen ezaugarriak dira. Jarduera ez komuna edo partikularra, ordea, egitura ez inkorporatuaren ezaugarria litzateke, izen determinatzailekun (ez abstraktu) batez osatutako egitura iragankor arruntaren ezaugarria, aditzak, ekintza jakin burutu bat aditzera emanez:

(2.46) Mikelek *alde egin* du (jarduera komuna eta egitura inkorporatua)

(2.47) Mikelek etxea eraiki du (jarduera partikularra eta egitura ez inkorporatu iragankor arrunta)

Sapirrekin bat eginez, inkorporazioan parte hartzen duten aditzek jarduera komun orokorreari erreferentzia egiten dietela defendatuko dugu lan honetan eta ezaugarri horrekin estuki lotuta azalduko ditugu aditz-lokuzioan parte hartzen duen izenaren determinatzailezik eza nahiz erreferentzia jakinik eza.

Sapirren jarduera komun orokor delako kontzeptua Mithunen jarduera instituzionalizatu kontzeptuarekin bat dator, hurrengo lerroetan ikusi ahal izango dugun moduan.

### 2.2.3. MITHUN (1984) ETA ADITZ-LOKUZIOAK

Mithunek aipatutako jarduera orokorra kontzeptua -Sapirren "jarduera komuna" kontzeptuaren antzekoa dena- baliagarria zaigu aditz-lokuzioak adierari dagokionez deskribatzeko. Aditz-lokuzioa eguneroko jarduera orokorreari erreferentzia egiten dion aditz konplexua dela esan dezakegu, jarduera baten garapenaren ondorio den emaitza jakina adierazten duen predikatuaren aldean.

*Hitz egin, negar egin, elurra egin* eta horien parekoak, bada, "jarduera [IZEN + EG/M]<sub>A</sub> ADITZ-LOKUZIOAK: INKORPORAZIO MAILAK

komunak" dira edota Mithunen terminologia erabiliz, giza talde batek garatzen dituen jarduera instituzionalizatuak.

1. kapituluaren aurkeztu dugun aditz-lokuzioen aspektu-sailkapena gogoratu, esan behar dugu Mithunen jarduera orokor edo instituzionalizatu kontzeptua bat datorrela Dowtyren testak aplikatuz lortu ditugun emaitzekin, aditz-lokuzio gehienak jarduerak direla erakutsi dutenak. Ez dugu aditz-lokuzioen artean burutzapen bat ere aurkitu eta honek ere adierazten du, emaitza jakina eta ekintza burutua adierazten duen lokuzio egiturarik ez dela existitzen.

Beraz, Sapiroren jarduera komun eta orokor delako kontzeptua nahiz Mithunen jarduera instituzionalizatu kontzeptuak baliagarriak zaizkigu aditz-lokuzioen berri emateko.

Prozesu fonologikoak, bestalde, konposizio morfologikoaren barne ezaugarritzat hartzen ditu Mithunek eta irizpide hori, prozesu morfologikoak prozesu sintaktikoetatik bereizteko erabili dezakegu, euskaraz ere. Euskaraz, aldaketa fonologikoak aditz elkartuetan gutxitan gertatzen diren arren<sup>33</sup>, aditz-lokuzioetan ez dugu atzeman horrelako prozesurik.

Mithunek (1984) bereizitako I. motako konplexu lexikalak, Azkaratek (1990), objektu-aditz motako aditz elkartuen artean bereizten dituen *-tzen* atzizkiak osatutakoekin pareka ditzakegu:

(2.48) *diru batzen, egur biltzen, bertso botatzen, gorotz egiten, esne egosten, belar itzultzen, ari jasotzen, bertso kontatzen, urdai-lapurtzen, bertso-publikatzen* etab., (Azkarate 1990: 277).

Euskaltzaindian (1991: 50), batera ematen dira *bertso-kantatze* eta *bertso-kantatzen* egiturak, hala nola *-tze(n)* egituraz osatutako adibideak:

<sup>33</sup> Azkaratek (1990) aipatzen duenez, hitz-elkarketan, gehienetan ez da osagaien arteko aldaketa fonologikorik gertatzen.

(2.49) *adar jotze, aditz-jokatze, andra-ikuste, arbola botatze, arbola mozte(n), ardi biltze(n), gazta egite(n), ardi-jate, ardo edate(n), arpa jotze(n), arrautza egite(n), arta-jalkitze(n), arta-zuritze(n), arto urkultze, ate jotze, atun-jate, aurpegi-auste, barau hauste, auzo gobernatze(n), bonba-botatze, buru-lantze, [...].*

Dena den, horiek ez dira sintaxi-egiturak, ezta aditzak ere, horregatik ez dute aditz laguntzailerik onartzen.

Laburbilduz, Mithunen I. motako inkorporazioari dagokionez, horrela osatzen diren egitura horiek eta euskaraz aurkitzen dugun hitz-elkarketa konpara ditzakegu. Hitz-elkarketa, euskaraz ere, prozesu morfologiko soil gisa uler dezakegu eta aditz-lokuzioetan gertatzen diren prozesuetatik desberdindu.

Hurrengo adibideetan ikus dezakegunez, euskarazko [I+A]<sub>A</sub> aditz konposatu edo elkartuen berri prozesu morfologiko soilaz eman dezakegu, eta hala, sintaxi-egituratzat hartzen den eta o.z. funtzioa betetzen duen izen sintagmaz osatzen den egituraren aldean, maila morfologikoan geratzen den hitz-elkarketaz azal ditzakegu aditz elkartu hauek eta besteak, Azkarate (1990) eta Euskaltzaindia (1991b):

(2.50) odolustu / itxuraldatu da

Mithunek bereizten duen II. motako inkorporazioari dagokionez, esan behar dugu euskarazko lokuzioetan ez dela kasu manipulaziorik gertatzen. Izan ere, euskarazko egitura inkorporatuak ez du iragankortasuna galtzen. Aitzitik, inkorporatzen diren izen sintagmek, oro har, osagarri zuzen funtzioa betetzen jarraitzen dute, aztarna uzten dute eta ezin dira beste o.z. batez ordeztu. Egitura iragankorreari dagokion euskarazko \**edun* laguntzailea ez da aldatzen, ezta subjektuaren ergatibo marka ere.

Hala eta guztiz ere, zenbait kasutan, [I+A] osagaien lotura estuaren ondorioz, osagarri zuzenaren nozioa galdu dela esan dezakegu eta lexikalizazioa

gogorarazten duten erabilerak aurkitzen ditugu, esate baterako *alde egin* lokuzioaz osatutako egituretan. Kasu horretan, *alde* zer den galde diezaiokegu geure buruari, *alde* izena nekez aurkitzen baitugu beste egitura arruntetan. Gisa horretako egiturak ihartutzat hartuko ditugu.

Horrez gain, badira, euskaraz, ez emankorrak diren eta inkorporazio soila baino areago, lexikalizazio prozesua gogorarazten duten beste egiturak ere. Hala nola *galdu* adiera duen *huts egin* aditza, *zerbaiten berri eman* adierazten duen *hots egin* aditza, eta abar. Horietan, aditz konplexuaren argumentu egitura egile errola duen DS subjektu batez eta gaia errola duen eta o.z. funtzioa betetzen duen DS batez osatzen da, adibide hauetan dakusagun moduan:

- (2.51) Sistema oso bat neukan antolatuta; haren arabera, inoiz ez zuten hiru lagun baino gehiagok *eskola hutsegin* behar, inork ez zezan ezer susma. EPG, Batxilerren eguna, Franz Werfel / Juan Luis Agirre(Igela, 2008: 125).
- (2.52) Izan ere, Kristok ez ninduen bataiatzera bidali, *berriena hots egitera* baizik, eta hau ez giza jakinduriazko hitzez, Kristoren gurutzeak bere indarra gal ez dezan. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean(Idatz, 2004), 1 Ko 1,17.

Beraz, ihartze prozesuaren ondorioz lexikalizazioa gogorarazten duen prozesuaz azalduko ditugu hizkuntzan urriak diren egitura horiek. Izan ere, izenaren nozioa guztiz galdu da horietan eta [I+*egin*] aditz konplexuak aditz iragankor arrunt bat bezala funtzionatzen du, osagarri moduan, o.z. funtzioa betetzen duen beste IS bat onartuz.

Egitura diskurtsiboa manipulatzeko erabiltzen den Mithunen III motako inkorporaziorik ez dugu, euskaraz, ezta inkorporazio sailkatzailek ere.

Laburbilduz, Mithunek bereizten dituen I., II., III. eta IV. inkorporazio motak euskarari aplikatuz, esan dezakegu [Izen+ *egin*]<sub>A</sub> lokuzioak Mithunen I. motako

egiturei hurbiltzen zaizkiola gehien. Izenaren determinatzaile eza eta aditzaren jarduera orokorra delako karakterizazio semantikoa, aztergai ditugun lokuzioen berri emateko baliagarri zaizkigun ezaugarriak dira. Eta Mithunek proposatzen duen hierarkian, euskara, inkorporazioa lehendabiziko urratsean geratu den hizkuntzen artean sailka genezake, ixil eta aguacatec hizkuntzekin batera.

Hala eta guztiz ere, aipatu dugu, euskaraz, aditz-lokuzioa predikatu iragankorra dela eta subjektua ergatiboz markatzen dela, Mithunek deskribatutako egituretan ez bezala. Horregatik, euskarazko aditz-lokuzioak, egitura sintaktiko konplexuak direla defendatuko dugu eta prozesu sintaktikoan oinarrituz azalduko ditugu, Mithunek proposatzen duen hurbilketa morfologikoa lokuzioak azaltzeko nahikoa ez dela argudiatuz.

#### **2.2.4. SADOCKEN (1985 1991) IKUSPUNTU MORFOSINTAKTIKOA ETA ADITZ-LOKUZIOAK**

Izen inkorporazioaren berezitasunak berezitasun, Sadockek (1985) aipatzen duen egitura sintaktikoaren eta morfologikoaren arteko erlazioan, hatsarre hau mantentzen da:

*«If a Lexeme L combines syntactically with  $X^0$  to form a phrase, but morphologically with  $Y^0$  to form a word, then  $Y^0$  must be the syntactic head of a phrase that L governs»*, (Sadock 1985: 423).

Arau hau baliagarria zaigu euskarazko aditz-lokuzioetan gertatzen diren prozesuen berri emateko. Batetik, *egin* aditzak izenarekin aditz sintagma konplexu bat osatzen du. Beraz, morfologia mailan, aditz konplexu bat lortzen dugu bi osagaien arteko loturaren ondorioz; I+A> A. Bestalde, Sadocken arauaren alderdi sintaktikoa aplikatuz, izena ( $Y^0$ ), *egin* aditzak gobernatzen duen sintagmaren buru sintaktikoa da. Sadocken hurbilketa teorikoa, beraz, baliagarria zaigu morfologia eta sintaxia uztartzeko. Izan ere, euskarazko egitura

inkorparatuetan, baldintzapean sintaktikoak nahiz morfologikoak jokoan direla esan dezakegu:

Izen inkorporazioan parte hartzen duen izena, gehienetan determinatzaile gabea da ezinbestez (lokuzio meteorologikoen izena salbu), eta hau, prozesuaren baldintzapean morfologikoa dugu.

Ikusi dugu, bestalde, inkorparatzen den izenak, azterna uzten duela; beraz, sintaxia ezinbestekoa da fenomeno honen berri emateko. Beraz, Sadocki jarraituz, morfologia eta sintaxia, biak aintzat hartzen dituen hurbilketa morfosintaktikoa funtsezkotzat hartuko dugu, izen inkorporazioaren berri emateko baliagarria zaigun prozesu honen ezaugarri gisa.

### 2.2.5. LIEBERREN (1992) X-MARRA ETA ADITZ-LOKUZIOAK


Euskarazko datuak, bat datoz Lieberren (1992) X-marra teoriarekin. Sintagma mailan burua azken posizioan kokatzen den hizkuntza izanik, maila morfologikoan ere, burua hitz egituraren eskuinean kokatzen da, euskaraz, sintagma nahiz morfologia mailako egiturek erakusten duten moduan:

(2.53) AS [liburua **erosi**] du

(2.54) DS [liburu-**ak**]

(2.55) PrepS [ama-**rentzat**]

Aurreko adibideetan, sintagma horien burua azken posizioan dagoela dakusagu. euskaraz; beraz, sintagma mailako azalpen hau proposa dezakegu, Lieberri jarraituz:




Morfologiari dagokionez, burua eskuineko osagaia da, halaber, hurrengo hitz eratorrian eta konposatuan:

(2.58) [negar-ti] [I+lzond]<sub>izond</sub>

(2.59) [itxura-aldatu] [I +A]<sub>A</sub>

Egitura lexiko-morfologikoari dagokionez ere, hitz mailako egitura hau aplikatu dieziokegu euskarari ere:

(2.57) X<sup>o</sup>



X-marra teorian oinarritzen den Lieberren ikuspegia, egitura sintagmatiko eta hitz konposatuen oinarritzko eraketaren berri emateko baliagarria izan daiteke eta autoreak aipatutako buru sintagmatikoaren ideian oinarrituz azal ditzakegu aztergai ditugun aditz-lokuzioak. Interesgarria iruditzen zaigu Lieberren ideia, hainbat hitz formazio sintagma mailan kokatuz azaldu behar direla diona, izan ere, XP edo maila sintagmatikoan oinarritzen diren aditzen formazioa bereziki aipatzen du Lieberrek, adibide moduan<sup>34</sup>.

Aipatu dugu, ikuspuntu morfologiko soilean oinarritzen diren teoriak ez dutela balio euskarazko aditz-lokuzioen ezaugarriak azaltzeko. Horiek azalduko dituen

<sup>34</sup> Lieberren iritziz (1992), sintaxiaren hatsarreak hitzen formazioaren hatsarrekin bat datoz; X-marra teoria, buru-mugimenduaren hatsarrea, Kategoria hutsaren hatsarrea, rol tematikoen ezarketaren norabideari dagokion hatsarrea etab.. Hitz formazioari dagozkion prozesuetan XSk jokoan direla argudiatzen du Lieberrek eta hala gertatzen da, konposatu sintagmatikoetan, buru baten kasu markazioari dagokion prozesuetan eta XS bat oinarrian duten aditzen formazioan, lan honetan aztergai ditugun gisako egituretan, alegia.

gramatika batek sintaxia eta morfologia erlazionaturik ulertu beharko ditu, bada, elkarreraginean dauden arlo gisa ulertuz.

Arlo sintaktikoari dagokionez, Bakerren (1988a) adjunkzio mugimendua ezinbestekoa dela argudiatuko dugu jarraian, osagaien arteko lotura estua erakusten duten aditz-lokuzioen berri emateko.


## 2.2.6. BAKERREN (1988a) ADJUNKZIOA ETA ADITZ-LOKUZIOAK

Bakerren adjunkzioa, elementu bat alfa igoera mugimenduaren bidez gorago kokatuta dagoen lehen proiektzio gorenari atxikitzean datzan prozesua, egokia da euskarazko hainbat lokuzioen berri emateko. Izan ere, adjunkzioaren azalpena defendatu dute euskal hizkuntzalari batzuek ere aditz-lokuzio jakin batzuen berri emateko; Uribe-Etxeberria (1989) eta Oyharçabal (2006), besteak beste.

Mugimendu honek, Chomskyren (1981) Kategoria Hutsaren Hatsarrea eta Travisen (1984) Buru-mugimenduaren Murriztapen Hatsarrea errespetatzen ditu, beste hatsarreak beste, *hitz egin* aditz lokuzioaren ondorengo adierazpenaren bitartez azalduko dugun moduan:

(2.60) Mikelek *hitz egin* du

(2.61)



Adierazpenean dakusagunez *hitz* izena, aditzaren kokapenera igotzen da eta mugimenduaren ondorioz *hitz egin* aditz-lokuzio konplexua osatzen da. Prozesu horren oinarrian dauden aipatutako bi hatsarre sintaktikoak errespetatu direla esan dezakegu, besteak beste. Buru Mugimenduaren Hatsarreari dagokionez, *hitz* izena edo ISren burua, menperatzen duen aditz sintagmaren burura igo denez, aditzaren kokapenera, burutik bururako mugimendua errespetatu dela dakusagu. Kategoria Hutsaren Hatsarreari dagokionez, o.z. funtzioa betetzen duen izen sintagma, beste argumentu sintaktiko batez bete ezin daitekeen aztarna uzten du. Eta hala, adibide hauen ez gramatikaltasuna, ez delako Kategoria Hutsaren Hatsarrea errespetatu azal daiteke:

(2.62) \*Mikelek hori hitz egin du / \*Ez du egia hitz egin (Euskaltzaindia 1987b: 45-46)

Inkorporatutako izenak utzitako aztarna ezin du beste elementu batek ordeztu; beraz, adibide horiek prozesuaren izate sintaktikoa probatzen dute.

Inkorporazio sintaktikoaren aldeko beste proba, izenaren eta aditzaren arteko lotura estuaren ondorioz osatzen den unitate konplexuaren jokaera dugu, aske funtzionatzen duten bi atalez osatutako aditz sintagmaren aldean. Lotura estu hori lokuzio egituraren osagaien artean elementu bat txertatzean lortzen dugun ez gramatikaltasunean islatzen da<sup>35</sup>:

(2.63) \*Mikelek hitz asko egin du

Inkorporatzen diren osagaien funtzio sintaktikoak hizkuntzen arabera alda daitezkeen arren, objektuak edota gaia errola duten osagaiak dira inkorporatzeko

<sup>35</sup> 1.kapituluan ikusi dugunez, badira partitiborik onartzen ez duten aditz-lokuzioak eta inkorporazio sintaktikoan oinarrituz eman genezake, *-ik* partitiboa txertatzeak dakarren ez gramatikaltasunaren berri. Partitiboa onartzen duten lokuzioak, aitzitik, ezin ditugu adjunkzio bidez azaldu.

kandidatu<sup>36</sup>. Izan ere, euskaraz, inkorporazioa o.z. funtzioa edota gaia errola duen izen sintagmaren buruari murrizten zaio eta subjektu edota agente nahiz lekuzkoaren inkorporazioa ezinezkoa da hurrengo adibideetan dakusagun moduan:

(2.64) Jendeak etxean *hitz egin du* (osagarri zuzenaren / gaiaren inkorporazioa)

baina,

(2.65) \*Etxean hitza *jende egin du* (subjektuaren / egilearen inkorporazioa ezinezkoa da)


(2.66) \*Jendeak hitza *etxe egin du* (lekuzkoaren inkorporazioa ezinezkoa da)

Bakerrek (1995) adierazten duenez, egileak ez inkorporatzea, konfiguraziozko arrazoi sintaktikoetan oinarrituz azal daiteke. Beraz, adibide horiek eta dagozkien azalpen hauek subjektu/objektu asimetria erakusten dute:

---


<sup>36</sup> Chukchi hizkuntza, salbuespen, bi osagaien inkorporazioa onartzen duena (objektua eta adjunktua), Lambert (1999).

(2.67)



Aditzaren gaineko lehen adabegiak, aditz sintagmak, aditza menperatzen du. Hau da, aditz sintagmak mugitzen den izenak utzitako kategoria hutsa O-komandatzen du, o.z. funtzioa betetzen duen sintagmaren burua inkorporatzen denean. Ez, ordea, subjektua inkorporatzen denean:

(2.68)



Mugitzen den elementuak aztarna O-komandatu behar du eta baldintza hori ez da betetzen subjektu funtzioa betetzen duen izen sintagmaren burua inkorporatzen denean. AS-ren barnean baina A'-tik kanpo kokatzen den ISren burua ezin zaio aditzari inkorporatu, Kategoria Hutsaren Hatsarrea errespetatzen ez delako. Buru-mugimenduaren Murriztapenaren arabera ere, X<sup>0</sup> burua menperatzen duen sintagmaren buru kategoria batera atxiki daiteke soilik. *Jende* burua *egin* aditzaren aurreko kokapenera jeisten denean ez da burutik bururako mugimendua errespetatzen, *egin* aditza ez delako menperatzen duen sintagmaren buru kategoria.

Adjunkzio mugimendua posible egiten duten baldintzak azaltzeaz gain, mugimenduaren zergatiaz galde diezaiokegu geure buruari. Aditza semantikoki ahula izatea, batetik, eta izena determinatzaile gabea nahiz erreferentzia jakinik gabea izatea, bestetik, mugimendua justifikatu dezaketen arrazoiak izan daitezke. Izen inkorporazioa duten hizkuntza batzuen adibideak konparatuz ere, inkorporazioa ahalbideratzen duten hizkuntzen arteko ezaugarri komunak aurkitu ditugu. Southern tiwa eta onondaga hizkuntzei dagokienez, inkorporatzen den izena atzizkirik gabea dela ikusi dugu. Euskaraz, inkorporatzen den izena determinatzaile gabea eta modifikatzaile onartzen ez duen izena dela ikusi dugu. Eta japonieraz inkorporatzen den izena aditzetik kasu absolutiborik jasotzen ez duen izena dela ikusi dugu. Beraz, aztertutako hizkuntzen adibideek erakusten dute, inkorporatzen den izenak eta aditzak mugak dituztela hizkuntzetan zehar eta muga horiek izan daitezke, hain zuzen ere, inkorporazioa beharrezko egiten duten arrazoiak.

### **2.2.7. HALE ETA KEYSER (1993) HIZKUNTZALARIEN TEORIA LEXIKOA ETA ADITZ-LOKUZIOAK**

Hale eta Keyserren (1993) teoria lexikoak, soilik, ez du balio euskarazko lokuzioen berri emateko, lokuzio egitura konplexuetan gertatzen diren prozesuen berri emateko azalpen sintaktikoa ezinbestekoa delako. Osagarri zuzen funtzioa betetzen duen izen sintagmak beste argumentu sintaktiko batek ezin ordezkatu

dezakeen aztarna uzten duela ikusi dugu, adjunkzioa gertatu ondoren. Egitura hori lexikoan eratorria balitz, soilik, izenak ez luke egitura mailako aztarnarik utziko eta beste argumentu sintaktiko bat agertzea posible litzateke.

Datuek prozesu konplexu baten aurrean aurkitzen garela baieztatzera garamatzate. Beraz, proiektzio sintaktikoan oinarritzen den konfigurazio sintaktikoa behar dugu, Hale-k eta Keyserrek definitutako erlazio lexikoen egituraren proiektiotik areago.

Hale eta Keyser hizkuntzalariek, Ingeleseko *laugh* edo *dance* ez-ergatiboak, izenetatik eratorritako aditzak lexikoan azaltzen dituzten moduan, euskarazko ez-ergatiboetan gauza bera atzeman daitekeela aipatzen du Fernandezek (1997) eta hurrengo [I+egin] aditzak izenetatik eratorriak direla aipatzen du:

(2.69) <i>barre egin</i>	<i>lan egin</i>
<i>berba egin</i>	<i>lo egin</i>
<i>borrokatu</i>	<i>mintzatu</i>
<i>distiratu</i>	<i>solastatu</i>
<i>hitz egin</i>	<i>zintz egin</i>

[I+egin] predikatuak, bada, iragankor ez-ergatibotzat hartzen ditu Fernandezek<sup>37</sup>, objektua konputazio sisteman inkorporatu duten predikatu gisa deskribatuz.

Iragangaiztasun bikoitzean oinarrituz, (*split intransitivity*), ez-ergatiboen taldean kokatzen ditu Perlmutterrek ere, lokuzio egituren antzekoak diren jarduera

<sup>37</sup> Ez-ergatiboen artean hiru sail bereizten ditu Fernandezek (1997). *Mintzatu* motakoak (absolutu sailekoa) eta *borrokatu* eta *I+egin* sailekoak (absolutu-ergatiboak azken biak). *Mintzatu* motakoetan, objektua egitura lexiko erlaziozkoan inkorporatzen dela proposatzen du eta *borrokatu* eta *I+egin* motakoek objektua konputazio sisteman inkorporatzen dutela aipatzen du.

ekintzak. Hala nola ariketa ekintzak, hitz egiteko moduari buruzkoak, animalien soinuak adierazten dituzten predikatuak eta borondaterik gabeko gorputz prozesuak adierazten dituztenak. Baina, aditz-lokuzioak egitura iragankorrak direla argudiatu dugu tesi honetan, eta ez ez-ergatiboak, Permutterren zentzuan (ikus iragankortasunaren aldeko argudioak 1.kapituluan).

Laburbilduz, hizkuntzalarien analisisetan oinarrituz, izen inkorporazioaren ezaugarriak eta berezitasunak hizkuntzen arabera aldatzen direla erakutsi dugu kapitulu honetan, eta hala, hizkuntzen arteko antzekotasunak nahiz desberdintasunak topatu ditugu.

Bakerren adjunkzio mugimendua egokia da euskarazko *hitz egin* motako lokuzioetan gertatzen den prozesuaren berri emateko eta inkorporazio sintaktikoa baldintzatzen duten gramatika sortzailearen hatsarreetan oinarrituz azal ditzakegu aztergai ditugun aditz-lokuzio mota horiek. Buru Mugimenduaren Hatsarreen oinarrituz, izenaren mugimenduaren ondorio diren *hitz egin* motako aditz-lokuzioen berri eman dezakegu eta Kategoria Hutsaren Hatsarreen oinarrituz, euskarazko aditz-lokuzioek inkorporazioari dagokionez erakusten duten distribuzio mugatuaren berri eman dezakegu, subjektu/objektu asimetriaren berri, alegia.

Rosenek eta Mithunek aipatzen duten aditzen “ditrantsitibizazio” prozesua, ez dela euskaraz gertatzen argudiatu dugu. Euskaraz, inkorporazioa gertatu ondoren, sintaktikoki iragankorra den egitura izaten jarraitzen dugulako, mugimendua gertatu ondoren aztarna geratzen delako, eta ondorioz, o.z. funtzioa betetzen duen beste nor/zer sintagmarik onartzen ez duen egitura dugulako, salbuespenak salbuespen<sup>38</sup>. Horregatik, esan dezakegu Mithunek bereizten dituen sailkatzaile mota horretako egiturek ez dutela zer ikusirik, euskaraz, mugimendu sintaktikoaz azaldu ditugun aditz-lokuzioekin.

<sup>38</sup> *huts egin*, *hots egin* gisako egitura konplexu iragankorrak azaldu berri ditugu, egitura ihartuaren IS bera ez ezik, beste IS bat ere onar dezaketanak.

Hale eta Kayser hizkuntzalariak ingelesaren berri emateko proposatzen duten prozesu lexikoa, bestalde, ez da nahikoa aztergai ditugun aditz-lokuzioen berri emateko, hainbat lokuziotan gertatzen den [I+*egin*] osagaien arteko lotura estua azaltzeko Bakerren teoria sintaktikoa behar dugulako.

Aditza karakterizatzeko garatu diren hainbat kontzeptu, hala nola Sapiroren jarduera orokorraren kontzeptua eta Mithunen jarduera komun edo “instituzionalizatu” ideiak, baliagarriak zaizkigu lokuzioen ezaugarri semantikoen berri emateko. Bat gatoz Mithunen eta Sapiroren ideiekin aditz-lokuzioak jarduera gisa deskribatzeko orduan.

Sadocken “autolexical syntax” deritzon hurbilketa morfosintaktikoa eta Lieberren X-marra teoria, halaber, egokiak dira aditz-lokuzio egituren ezaugarri morfologikoak nahiz sintaktikoak azaltzeko. Uste dugu aditz-lokuzioetan gertatzen diren prozesuen berri emateko hizkuntzaren bi arlo horiek uztartu behar direla, baita, alderdi semantikoa ere.

Hainbat aditz-lokuziotan gertatzen den inkorporazioa prozesu sintaktikoa dela erakusteko saiakera egin ondoren [I+*egin*] motako aditz-lokuzioen jokaera sintaktikoak sakonki aztertzean datza hurrengo kapitulua. Besteak beste, Fernandezek proposatzen duen ez-ergatiboen sailaren aldean, ez ditugu [I+*egin*] aditz-lokuzioak jokaera berbera erakusten duten talde homogeneotzat hartuko. Eta aditz-lokuzioei test sintaktikoak aplikatuz, jokaera desberdinak atzeman daitezkeela egiaztatzeko saiakera egingo dugu.



### 3. [IZEN + EGIN]<sub>A</sub> LOKUZIOAK ETA TEST SINTAKTIKOEN APLIKAZIOA: SAILKAPENA

#### 3.0. SARRERA

Lehendabiziko kapituluan, [I+egin]<sub>A</sub> motako lokuzioak aurkeztu eta deskribatu ditugu. Lokuzioen osagaiak banan-banan aztertu ditugu eta haien arteko ezaugarri komunak nahiz desberdintzen dituzten berezitasunak atzeman ditugu.

Ezaugarri komunei dagokienez, lokuzio egituren izena ez erreferentziala dela ikusi dugu (1.2. eta 1.3.1.2.) eta *egin* aditza arin gisa deskribatu dugu, adierari dagokionez osoa den *egin* aditzaren aldean (1.2. eta 1.3.2.1.). Aspektuari dagokionez, aditz arinaz osatutako egitura horiek guztiek gertaera ez burutua adierazten dutela erakutsi dugu eta *egin* aditz sendoaz osatutako egitura iragankor arruntak telikotasunaz bereiz daitezkeela ikusi dugu (1.3.2.2.). [I+A] osagaien lotura estuaren ondorioz semantika mailan lortzen dugun ideia unitarioa, bestalde, aditz-lokuzioen ezaugarri komuntzat hartu dugu.

Desberdintasunei dagokienez, hiru azpitaldetan banatu ditugu aditz-lokuzioak determinazioaren irizpide morfologikoan oinarrituz; determinatzailerik gabeko izenaz osatzen diren lokuzioak, determinatzailedun izenaz osatzen direnak eta bietara erabil daitezkeenak.

Bereizgarri morfologiko hori ez ezik, lokuzio egitura konplexuaren edukia balia dezakegu bereizketak egiteko. Determinatzailedun izenaz osatzen diren aditz-lokuzio gehienek, fenomeno atmosferiko bat adierazten dute; beraz, horiekin guztiekin, gertakari meteorologikoei erreferentzia egiten dieten aditzen taldea osa dezakegu, De Rijkek (2008) eta Zabalak (2004) egin bezala. Determinatzailerik gabeko izenaz osatutako aditz-lokuzioek, ordea, ez dute talde semantiko homogeneorik osatzen, adierari dagokionez mota askotakoak baitira. Gogoan izan aurkeztu dugun De Rijken (2008) sailkapena (1.1.1.), adieran

oinarriz, 8 azpitaldez osatzen dena, edo Zabalarena (2004), 9 azpitalde sintaktiko-semantikoz osatua.

Are gehiago, gertakari meteorologikoei erreferentzia egiten dieten aditz-lokuzioek aspektuari dagokionez ezaugarri komunak dituztela esan dezakegu; jarduerak dira. Baina, determinatzailek gabeko aditz-lokuzioen artean jarduerak eta erdiespenak bereiz daitezkeela ikusi dugu, Dowtyren (1979) testak aplikatuz (1.3.2.2.).

Beraz, lokuzio meteorologikoen ezaugarri morfologiko eta semantiko komun horiek aintzat hartuz; determinatzailekun izena, gertakari atmosferikoari erreferentzia, aspektu mota bat bera, eta abar; baditugu arrazoiak gertakari meteorologikoei erreferentzia egiten dieten aditz-lokuzioen taldea desberdintzeko. Eta hala, aipatutako irizpideak aintzat hartuz, orain arte atzemandako lokuzio meteorologikoen taldea mantenduko dugu eta talde moduan aplikatuko dizkiegu kapitulu honetan baliatuko ditugun testak.

Determinatzailek gabeko izenak deskribatzeko ezaugarri komun aurkitzea zaila denez, bai edukiari dagokionez bai beste ezaugarriari dagokionez<sup>1</sup>, horiek ez dutela talde homogeneoa osatzen esan dezakegu. Hala ere, determinatzailek gabeko izenaz osatutako aditz horien artean, desberdintasun gehiago atzeman daitezkeen galde diezaiokegu geure buruari, eta horri erantzuteko, aplikatuko ditugun test sintaktikoen emaitzak izango ditugu irizpide.

Kapitulu honen muina, bada, [Izen + *egin*]<sub>A</sub> aditz-lokuzioen *corpus* zabal bati test sintaktikoak aplikatzean datza, *corpus*etan aurkitutako egituren analisisan oinarrituz ondorioak ateratzeko. Eta hala, lokuzioen artean jokaera desberdinak dauden frogatzeko test sintaktiko hauetaz baliatuko gara, batzuk aurreko lanetan erabiliak, Azkarate (1990), Euskaltzaindia (1991b), Oyharçabal (2006), Martínez (1994 1996 1997 2003), Petrirena (2011), eta abar:

---

<sup>1</sup> Ikus izenaren konketu-abstraktu ezaugarriak 1. kapitulan.

- 3.1. Galdegai ezaugarriari lotutako testak
  - 3.1.1. Galdegaiaren kokapena oro har eta [+egin] hitz-ordena
  - 3.1.2. Galdera-hitza galdegai gisa eta [+egin] hitz-ordena
  - 3.1.3. Aditza galdegai gisa eta *zer egin du?* galderari erantzunak
- 3.2. Partitiboa
- 3.3. Elipsia koordinazio egituretan: egitura kopulatiboak, egitura disjuntiboak eta egitura adbertsatiboak
- 3.4. Agintera
- 3.5. Mendeko perpaus osagarria
- 3.6. Lokailuak

Tesi honen aurrera pausoa *corpus*etan topatutako egituren emaitzak aztertzean datza. Eta hala, Orotariko Euskal Hiztegian, Euskaltzaindiaren Hiztegian, Ereduzko Prosa Gaur *corpusean*, Ereduzko Prosa Dinamikoa *corpusean*, Goenkale Corpusean, Euskal Klasikoen Corpusean, Egungo Testuen Corpora, Pentsamenduaren Klasikoak *corpus*etan nahiz Egungo Euskararen Hiztegian aurki daitezkeen lokuzio egiturak hartuko ditugu aztergaiaren abiapuntutzat. Horiez gain, kontuan hartuko ditugu interneteko hainbat web orritan topatutako adibideak. Baliatuko ditugun *corpus*etako adibideetan oinarrituz objetiboki frogatu ahal izango dira, aurreko lanetan<sup>2</sup>, nire hizkuntza-gaitasunean oinarritzen nituen osagaien arteko lotura maileri buruzko ondorioak.

---

<sup>2</sup> Martínez (1994 1996 1997 2003).

*Corpusen* abantaila gisa kontsideratzen dugu bertan aurkitzen diren adibideak ez direla hiztun bakar batek ekoiztutako idatzizko egiturak, hiztun askoren hizkuntza-gaitasunaren isla, baizik.

Analisi hau sinkronikoa da, eta hala, adibideak egungo euskara biziaren isla izanik, euskara estandarren egiturak aztertuko ditut. Aldaerak aldaera, helburua ez da euskalki bakoitzaren erabilerak alderatzea, ezta hiztunek darabiltzaten egiturak erkatzea ere, baizik eta lokuzioak sinkronian desberdintzea.

Kapitulua amaitzeko, test sintaktikoak lokuzioei aplikatuz lortutako emaitzen araberako sailkapena proposatuko dugu 3.7. azpiatalean.

### 3.1. GALDEGAI EZAUGARRIARI LOTUTAKO TESTA

Euskara SOA motako hizkuntza bada ere<sup>3</sup>, hitz-ordena ez markatua topikalizazio edo fokalizazio prozesuen eraginez alda daiteke. Nor, nori eta nork sintagmen ordena askea, euskaraz, aditz sistemaren morfologia aberatsarekin erlazioa daiteke, aditz jokatuena marka ugariez gauzatzen dena. Izan ere, ordena librearen isla dira marka morfologiko horiei esker egituren elementuekin gerta daitezkeen permutazioak, Euskaltzaindia (1991a). *Pro-drop* fenomenoak, Jaeggli eta Safir (1989) hizkuntzalariei jarraituz, aditzaren komunztadura marketan islatzen diren IS subjektu eta bi IS objektuekin gerta daiteke, ezabatzen diren izen sintagmen<sup>4</sup> ezaugarriak aditz komunztaduraz gauzatzen direlako, hain zuzen ere. Euskararen hitz-ordena askea, bestalde, osagaien funtzio gramatikala kokapenak markatzen ez duelako azaldu izan da edota funtzio gramatikal horiek betetzen duten osagaiei ez dagokielako perpausean aldatu ezin den kokapen finkorik, Euskaltzaindia (1991a).

---

<sup>3</sup> SOA osagaien ordena, euskaraz, ordena ez markatua dela erakusten duten proba sintaktikoak hizkuntzalari askok eman dituzte, besteak beste, Euskaltzaindiak (2011b), De Rijk (2008), Levinek (1983a), Salaburuk (1986), Uriagerekak (1992) eta Ortiz de Urbinak (1989).

<sup>4</sup> IS/DS bereizketa ez da azalpen honetan pertinentea.

Baina, egitura sintaktikoan oinarrituz, hitz-ordena askea dela esan dezakegun arren, mintzagai egitura<sup>5</sup> hartzen badugu kontuan, perpauseko osagaien arteko ordena ez da hain askea, ematen den informazioa ordena horren arabera baita. De Rijkek (2008) aipatzen duenez, galdegaia, euskaraz, aditzaren aurreko posizioa betetzen duen elementu hanpatua da. Euskaltzaindiak (1991a) ere aipatzen du, galdegaia, euskaraz, perpausaren atal bat denean, aditzaren aurrean kokatzen den elementua dela, eta halaber, informazio berria edo ezezaguna dakarren atala<sup>6</sup>. Are gehiago, galdegaia aditzaren ezkerrean kokatzeaz gain<sup>7</sup>, aditzarekin batera azentu bakarraz ahoskatu beharra dago, aditzarekin multzo foniko bakarra osatzen duelako; beraz, tartean etenik egin gabe.

Galdegaiak egitura hanpatuetan SOA ordena hausteko ahalmena duela aintzat hartuz, aditz-lokuzioaren osagaien artean galdegaia txertatzeak dakartzan ondorioak aztertuko ditugu jarraian, galdegaia perpaus osoa baino areago, perpausaren atal jakin bat denean. Gure helburua da, galdegaiari jarraitzen dion lokuzioaren osagaien hitz-ordena aztertzea eta ondorioak ateratzea<sup>8</sup>.

Informazio berria dakarren eta aditzaren aurrean kokatzen den elementu hanpatu hori perpausaren edozein osagai izan daitekeenez, galdegaia den

---

<sup>5</sup> Petrirenak adierazten duen moduan, perpaus bakoitzean bi analisi maila bereizi ditzakegu: batetik, gramatika egitura edo funtzio nahiz kasu marketan oinarritzen dena (egitura sintaktiko deitzen duguna). Bestetik, mintzagai egitura dugu, informazio klasean eta hizketaren unibertsoan oinarritzen dena, (<http://es.slideshare.net/patxipe/mintzagaia-8367862>). Aipatu berri dugu, bi horien arteko jokaera desberdina dela ordenari dagokionez, batean ordena zurrunagoa da bestean baino.

<sup>6</sup> Informazio berria edo lehendik ezagutzen ez duguna perpaus osoa izan daiteke, Euskaltzaindia (1991a).

<sup>7</sup> Betiere aditza bera galdegaia ez bada. Aditza galdegaia bada, pausa bat egingo da aurreko atalaren eta aditzaren artean.

<sup>8</sup> Jakina da, galdegaiak, euskaraz, aditzaren ezker aldeko kokapena hartzen duela, Euskaltzaindia (1991a).

elementua mota askotakoa izan daiteke: nor IS, nork IS, nori IS, mendeko perpausa, galdetzailea galderetan eta zehar galderetan<sup>9</sup>, aditzak adierazten duen ekintza, aditzaren baiezkotasuna edo ezezkotasuna, adberbioa, eta abar. Galdegaia agertzeak aditz-lokuzioaren osagaien hitz-ordena eragiten duen ala ez aztertzeko, ondorengo hiru azpiataletan banatuko dugu galdegai ezaugarriari lotutako testa. Azpitaldeak egiteko irizpide hauek hartuko ditugu aintzat, batetik, galdegaia den atala zein motakoa den, eta, bestetik, egitura sintaktikoa (non aditz-lokuzioa agertzen den):

3.1.1. azpisailean, baiezko egiturak izango dira nagusi eta galdegai diren hainbat osagaiz osatutako adibideak aztertuko ditugu; adberbioak<sup>10</sup>, nork eta nori sintagmak, mendeko perpausak, eta beste galdegaiez osatzen diren perpausak.

3.1.2. azpisailean, galdera-egiturak izango dira nagusi, eta hauetan, galdera-hitzaren eta aditz-lokuzioaren osagaien kokapena aztertuko dugu.

3.1.3. azpisailean, *zer egin du?* galderari erantzuten dion egitura aztertuko dugu, hau da, aditz-lokuzioaren osagaien hurrenkera aztertuko dugu, galdegaia aditzak adierazten duen ekintza denean.

---

<sup>9</sup> Mendeko galde-perpausak zehar galderak deitu ohi dira eta -eN hartzen dute mendekotasun marka gisa, Euskaltzaindia (1991a). Esan gabe doa horien galdegaia ere galdetzailea dela, baina, egitura sintaktikoan oinarrituz bereizi ditugu galde-perpausa nagusietatik.

<sup>10</sup> Adberbio gramatika-kategoria izendatzeko erabiliko dugun terminoa zehaztu behar dugu, beti ez ohi baitzaio izen berarekin erreferentzia egiten kategoria horri. Euskaltzaindiak (1991a), I. eta E. Zubirik (2012), eta beste gramatikek, bi sail nagusi bereizten dituzte adberbioen artean: adizlagunak eta aditzondoak. Adizlagunak bi motakoak izan daitezke. Kasu-markez osatzen direnak: *mailuaz, eskolara, mendiraino*, eta abar. Eta kasu-markez eta postposizioez osatzen direnak: *dirurik gabe, txostenari buruz, norbaiti esker, zerbaiten ondoan / gainean* eta abar. Aditzondoak, ordea, kasu-marka erantsi gabe eta elementu autonomo gisa bete dezake adberbioaren zeregina: *beti, atzo, berandu*, eta abar.

Lan honetan ez dugu bereizketa formal hori egingo eta adberbio gisa kontsideratuko ditugu horiek guztiak.

### 3.1.1. GALDEGAIAREN KOKAPENA ORO HAR ETA [I+egin] HITZ-ORDENA

Azpisail honen muina, galdegaia agertzen denean edota irazkinaren barnean elementu hanpatu bat dugunean<sup>11</sup>, aditz-lokuzioek *corpusetako* baiezko egituretan erakusten dituzten jokaera sintaktikoak aztertzean datza<sup>12</sup>.

Badira literaturan, galdegaia eta aditz-lokuzioen osagaien ordena erlazionatzen dituzten aipamenak. Euskaltzaindiak (1991b) aditz esaeren izena galdegai edo mintzagai gisa lekuz alda daitekeela aipatzen du. Eta hala, [I+egin] osagaien hurrenkera hautsi daitekeela erakusten duten adibide hauek aurkezten dira, galdegaia perpauseko beste atalen bat denean:

«*eguin det becatu*» HE07, 303 «*diz diz alaxen egiten dezu nola izarrak zeruan*» HE61, 77 «*eguizu farre gaizqui mintzacenbadut*» EJ00, 192 «*Hartzak ematen dit beldur, erantzun zuen nagusiak*» EJ53, 97 «*lanak ukan baitituzte katedralerat sartzeko bide ezin egin araziz*» HE14,159 «*egizu kontu egizu gogoeta, beste barik, egizu otoitz nire alde*» HEAX, 87 [...]], (Euskaltzaindia 1991b: 11).

Petirenak (2011) aditz-lokuzioetan gertatzen den osagaien ordena-aldaketak aztertzen ditu. Petirenarekin bat gatoz [I+egin]<sub>A</sub> motako lokuzioetan, hots, *lan egin, lo egin, parte hartu* eta besteetan, osagaien hurrenkera galdegaiak eraginda alda daitekeela dioen adierazpenarekin. Hona hemen egiten duen bereizketa, (Petirena 2011: 75):

---

<sup>11</sup> Euskaltzaindiak (1991a) dioenez, galdegaia, irazkinaren barnean hanpatua den elementu gisa kontsidera daiteke. «*Irazkina, predikazioaren edukia biltzen duten sintagmek osatzen dute eta mintzagaiari buruz esaten dena gorpuzten duela dirudi*», (Euskaltzaindia 1991a: 364). Baina, egituraren elementu hanpatu guztiak ez dira galdegaiak. Izan ere, mintzagai-galdegai egituretan mintzagai hanpatua da galdegaiaren ezkerrean kokatzen den atala.

<sup>12</sup> Aditzak adierazten duen ekintza bera galdegai diren testuinguruetan salbu, horiek hurrengo azpisailetan aztertuko baititugu.

(3.1) Munduko kirolaririk onenek *parte hartu* dute.

(3.2) Gaur hogei mila hegazkinek hartu dute parte.

Petrirenari jarraituz, esan dezakegu azken egituran gehiago markatzen dela galdegaia azken aurrekoan baino, eta hanpadurari dagokion ñabardura horrek aditz-lokuzioaren osagaien ordenarekin zerikusi zuzena duela pentsa dezakegu. Hala eta guztiz ere, 1. kapituluari aipatu eta jarraian xehetasun gehiagorekin frogatuko dugunez, aditz-lokuzio batzuek dute ordena aldaketa horiek egiteko aukera, ez guztiek.

Horrez gain, hizkeren arabera lokuzio bat berak joko desberdina izan dezakeela aipatzen du Petrirenak.

Aipatzen du ere, zenbat eta ihartuago egon lokuzioa orduan eta aldagaitzagoa dela osagaien ordena eta ihartutzat hartzen ditu *hitz egin*, *huts egin* eta *hots egin* lokuzioak, hurrenkera horretan agertzen baitira maizenik tradizioan, baita galdegai markatuarekin ere:

(3.3) Ezpain-dardarka hitz egin zuen.

Esanahi berbera duen *berba egin* lokuzioak, ordea, beste jokaera sintaktikoa duela erakusten du:

(3.4) Une horretan, inozotasuna albo batera utzi eta duintasunez *egin* zuen *berba*. (Petrirena 2011: 75)

Bestalde, bietara erabiltzen diren *lan egin*, *lo egin* eta *parte hartu* aditzak bereizten ditu, XX. Mendeko Euskararen Corpuseko adibideetan oinarrituz:

a) Galdegaiak ez du ordena aldarazten:

(3.5) Itsasok, erdi sekretuan horrenbeste maite zuen emakumeak, gela berean *lo egin* zuen.

b) Galdegaiak ordena aldarazten du:

(3.6) Luzaroan *egin* zuen *lo*. (Petrirena 2011: 75-76)

Bi erabilerak zilegi diren arren, ordena aldatuz galdegaia argiago marka daitekeela aipatzen du, (Petrirena 2011: 76), eta ñabardurak atzematen ditu adibide hauetan:

- (3.7) Mundu osoan, 5-15 urte bitarteko 250 milioi hurrek *lan egiten* dute.

«Horrela esanda, bi ñabardura hauek izan ditzake perpausak hainbeste haur lanean aritzen dira eta hainbeste haur aritzen dira lanean». Nahi badugu, gai horretaz hitz egiten ari garela, kopuruaren handia azpimarratu (aipatutako bigarren aukera), ordena honek ez digu zalantzarik uzten:»

- (3.8) Mundu osoan, 5-15 urte bitarteko 250 milioi hurrek *egiten* dute *lan*.

Oyharçabalek (2006), halaber, ordena desberdinak atzematen ditu egitura iragankor arrunten eta aditz arinaz osatutako egituren artean. Moduzko adberbioen kokapenari dagokionez, ordena ez markatua egitura iragankor arruntetan S-O-aditzondo-A dela aipatzen du eta aditz arinaz osatutako egituretan, ordea, S-aditzondo-aditz arinaz osatutako egitura dela hitz-ordena neutroa.

Egitura iragankor arrunta:

- (3.9) Pellok zure *lana* ongi *egin* du.

- (3.10) \*Pellok ongi zure *lana* *egin* du.

Aditz arinaz osatutako egitura:

- (3.11) Pellok ongi *lan* *egin* du.

- (3.12) ?Pellok *lan* ongi *egin* du. (Oyharçabal 2006: 799)

Are gehiago, hiztunen arabera nahiz euskalkien arabera [Izen + *egin*]<sub>A</sub> lokuzio beraren erabilera desberdinak aurki ditzakegula aipatzen du. *Gutxi* zenbatzailearen erabilerari dagokionez, eta *lo* *egin* aditz-lokuzioa adibide

moduan hartuz, hiztun kopuru altu batek, *gutxi* zenbatzailea *egin* aditzaren aurretik onartzen duela dio, *gutxi* galdegaia denean, (Oyharçabal 2006: 801):

(3.13) *Lo gutxi egin duzu / Gutxi egin duzu lo.*

Beste batzuek ondorengo ere onartzen dutela dio, non [+*egin*] osagaiak unitate moduan funtzionatzen duten:

(3.14) *Gutxi [lo egin] duzu.*

*Hitz egin* aditz-lokuzioari dagokionez, ordea, beste jokaera hauek atzematen ditu, non izena eta aditza ezin dira elkarrengandik banatu:

(3.15) *Pellok gutxi / gehiegi hitz egin du*

(3.16) *Oso ondo hitz egin du Pellok*

baina,

(3.17) ??*Pellok hitz gutxi / gutxiegi egin du*<sup>13</sup>

(3.18) ??*Oso ondo egin du Pellok hitz*

Aipatutakoa erakusten dute elementu hanpatu gisa modu aditzondoez eta *lan egin* eta *parre egin* (*par egin*) lokuzioez osatzen diren adibide hauek ere:

(3.19) *Ez dezu ondo lan egiten*

(3.20) ??*Ez dezu ondo egiten lan*

(3.21) ??*Lan ez dezu ondo egiten*

(3.22) *Gutxi par egin det*

(3.23) ??*gutxi egin det par*

---

<sup>13</sup> Bi galdera ikur dituen adibide horretaz, erdialdeko euskalkietan onar litekeen erabilera dela dio Oyharçabalek (2006).

Osagaien arteko lotura estua erakusten duten adibideak erabiliagoak direla aipatzen du Oyharçabalek (2006) eta aurreko adibideetan bi zalantza ikur dituzten egiturak askoz markatuagoak direla, (Oyharçabal 2006: 801):

*«the one without splitting of the LVC is the more frequent, while the other is definitely more marked».*

Horrez gain, gipuzkeraz hitz egiten duten hainbat hiztunek aditz-lokuzioaren osagaiak banatzeko arazoak dituztela aipatzen du, (Oyharçabal 2006: 800, 10. oin-oharra):

*«I have observed a tendency among some speakers of the Gipuzkoan dialect to avoid the NP treatment, at least with some LVCs in oral usage».*

Galdegaiaren testean murgilduz, lehenik, galdegaiaz osatzen diren baiezko egiturak eta aditz-lokuzioen osagaien hitz-ordena aztertuko dugu (3.1.1.) azpisailean. Ugariak dira *corpusetan* aurkitu ditugun galdegaiaz eta aditz-lokuzioaz osatutako egiturak. Izan ere, adberbio mota desberdinetako galdegaiez osatutako egiturak ugarienak diren arren, nork edo nori sintagma hanpatuez edota beste galdegaiez osatutako egiturak ere aurkitu ditugu, aditz-lokuzio desberdinekin konbinatzen direnak.

Bi jokaera nagusi hauek bereiz ditzakegu, aurreko hausnarketekin bat datozenak eta hurrenkeraren haustura erakusten duten lokuzioen artean, bi hitz-ordena aurkitu ditugu:

- a) **[I+egin] hurrenkera mantentzen duten aditz-lokuzioak**
- b) **[I+egin] hurrenkeraren haustura erakusten duten aditz-lokuzioak**
  - b.a) **gald + egin + I**
  - b.b) **I + gald + egin**

Berria den zerbait jakinarazten dugun eta aditzaren aurretik kokatzen dugun atala galdegaia dela aipatu dugu. Eta aldeztu aurretik ezagutzen duguna errepikatzen duen atalari eta perpausean nolabait azpimarratu nahi delako jasotzen denari, mintzagaia<sup>14</sup> deritzogu, (Euskaltzaindia 1991a: 18). Galdegaia nahiz mintzagaia nabarmen daitezten nahi dugunean, perpausean markatu egiten ditugu eta horiek markatzeko euskarak duen modua leku berezian jartzea da<sup>15</sup>.

Galdegaia aditzaren aurrean kokatzen dela aipatu dugu eta euskarak baditu moduak mintzagaia hanpatua dela markatzeko ere. Mintzagai hanpatua perpaus hasieran kokatzen da eta enfasi berezi bat eman nahi diogunean irazkinaren ezkerrean agertzen den horren ondoren pausa bat egiten da. Beste zenbait kasutan, morfema batzuen laguntzarekin hanpatzen dugu mintzagaia edo aldeztu aurretik ezagutzen dugun informazioa, hala nola *behintzat*, *aldiz*, *berriz*, *aitzitik* eta beste motako elementu batzuekin<sup>16</sup>, Euskaltzaindia (1991a: 362).

Gauzak horrela, I + galdegai + A ordena erakusten duten adibideak (aurreko b.b mota), galdegai-mintzagai egituraren isla direla esan dezakegu. Eta hala, galdegaia izanik aditzaren ezker aldeko kokapenean dagoena, horren ezkerrean doan (edo doazen) osagarriak ere hanpatuak direla esango dugu, mintzagai gisa hanpatuak, (Euskaltzaindia 1991a: 362).

---

<sup>14</sup> Topiko edo tema ere deitu ohi zaio.

<sup>15</sup> Baina alderantzizkoa ez da beti egia. Hau da, leku jakin horietan agertzen diren atalak ez dira nahi eta nahi ez hanpatuak.

<sup>16</sup> Mintzagaia hanpatzeko erabiltzen den *behintzat* lokailuak lotura bat salatzen du, aurretik aipatutako zerbaiten eta esaldian esaten denaren artean:

(i) *Lo behintzat egin ahal izango balitz*, ondo lo egin berorik eta hotzik gabe, neke handiko gauetako ezerezte horrekin lo egin, ametsik gabe lo egin...EPG, *Fantasiatzko ipuinak*, Guy de Maupassant / Josu Zabaleta (Ibaizabal, 2000: 106).

Mota horretako egiturei buruz 3.6. azpiatalean jardungo gara.

Galdegai + A + I hitzen hurrenkera dugunean, ordea, (b.a mota), elementu hanpatu bakarra dugu, galdegaia, eta eskuinean kokatuta dagoen izena ez da mintzagai hanpatu, kasu horretan.

a) Azpiatalean, perpausean galdegaia edo elementu hanpatua izan arren, [I+A] hurrenkera mantentzen duten aditz-lokuzioez osatutako adibideak aurkeztuko ditugu, osagaien arteko lotura estua mantentzen duten lokuzioez osatutako egiturak, alegia. Aurkitu ditugun mota horretako egiturak azpitaldeetan bildu ditugu, galdegaiaren arabera; galdegai gisa leku-denborazko adberbioa dutenak, moduzko adberbioa dutenak, maiztasuna adierazten duen adberbioa denean, norekin kasu-markaz osatzen direnak, norengatik kasu-marka dutenak; nori IS galdegaia duten egiturak, nori IS galdegai gisa dutenak, zerez/zertaz kasuaz markatzen den adberbioaz osatzen dena, mendeko denborazko perpausa duten adibideak:

.- Galdegaia, leku-denborazko adberbioa denean:

- (3.24) Orduan, oneratzen zer ordutan hasi zen galdegin zien. Eta haiek erantzun: - *Atzo eguerdiko ordu batean alde egin zion sukarrak. EPG, Elizen arteko Biblia, Askoren artean (Idatz, 2004), Jn 4,52.*
- (3.25) Egin kontu: Zarautzek *TKE Ligan arraun egingo du*<sup>17</sup> aurtengo denboraldian (Traineru Kluben Elkartea). EPG, *Berria*, 2004, 2006, Kirola, «Behe laino artetik, han dator ontzia», Igor Susaeta, (2006-01-25).
- (3.26) Baina honela zebilen bitartean, *laster huts egin* zioten Jainkoaren kontsolamenduek, eta tentaldi larriek astindua

---

<sup>17</sup> Azentu bakarra eta etenik egin gabe ahoskatzearen baldintza betetzen dela ulertuz esan dezakegu *TKE ligan* galdegaia dela (eta baldintza horiek zalantzarriak diren beste adibideei ere aplika diezazkiekegu).

aurkitu zen. EPG, *Asisko Frantzizko, Asisko Klara, / Askoren artean* (Arantzazu, 2002: 300).

- (3.27) Ez dakit txoriek goian *argitasun horretan txio egiten* zuten edo nire ahosabaian. EPG, *Hatsaren kulunka*, Hertha Muller / Ibon Uribarri (Elkar, 2010: 257).
- (3.28) *Mendian leher egingo du* tragediak. EPG, *Eguzkipekoak*, Pablo Sastre (Alberdania, 2003: 171).
- (3.29) "Ea ba," *esku ahurretan listu egin* zuen Joxemarik; "zer egin behar da?". EPG, *Elurretan hotsak*, Pablo Sastre (Susa, 2004: 161).
- (3.30) *Haren ondoko txapituletan lo egiten* zuten bi mutil haiek. EPG, *Parisen sabela*, Emile Zola / Karlos Zabala (Alberdania-Elkar, 2004: 95).
- (3.31) *Bere bekatuan estropezu egiten du* Efraimek, Israel herriak, eta harekin batera egingo du estropezu Judak ere. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Os 5,5.
- (3.32) -Ez hasi orain Pocharekin bueltaka -pasabidean ibili, loreontzi batean behaztopa egin, birao bat bota eta *orkatilan laztan egin du Pantak*-. EPD, *Pantaleon eta bisitariak*, Mario Vargas Llosa / Santi Leone (Elkar, 2011: 236).
- (3.33) Gero, zuhaiztia zeharkaturik, bet-betan kausitu zuen bere burua oihaneko tenplu narearen erdian, eta *zeruaren putzu urdinean murgil egin zuten* haren begiek. EPG, *Bizi alegiazkoak*, Marcel Schwob / Juan Garzia (Ibaizabal, 2002: 54).
- (3.34) Rikardoren besoari helduta, zotinka egin du gelarako bidea, eta *gelan zintz egin* du hainbat aldiz, oraindik lepotik eskegita daraman poltsatik ateratako paperezko zapiekin. EPD, *Ez naiz ni*, Karmele Jaio (Elkar, 2012: 181).

- (3.35) *Atzo eguerdian eztanda egin zuen*, ohi bezala, besten hasiera iragarri zuen txupinazoak. ETG, *Berria*, gaiak, «Itxuraldaketarik handiena», Edurne Elizondo (2011-07-07).
- (3.36) *Baina orduantxe behaztopa egin du* besoko xingola zeukan gizon erraldoi batekin, zerrenda eta lapitza zekartzala. EPG, *Zoririk ez*, Imre Kertész / Urtzi Urrutikoetxea (Elkar, 2003: 77).

.- Galdegaia, moduzko adberbioa denean:

- (3.37) *Marmarka eta madarikazioka aldegin* zuen aitak handik, eta berdin-berdin gertatu zitzaion hurrengo bizpahiru aldietan. EPG, *Errautsen distira*, Xabier Mendiguren Elizegi (Elkar, 2002: 48).
- (3.38) Lenengo tiro-jasa entzun-orduko, *laisterka igesegin zuten* liberalak zamak utzita, bertantsu zegoan etxe batera, Santa Kruzek, haiek utzitako armak artu bizkarrez bere mutillekin, ta aldegin zun. EKC, *Santa Kruz Apaiza*, Nicolas Ormaetxea, Orixe (1929).
- (3.39) Marc Gasolek Musliren biguntasuna baliatu zuen hiru puntuko bi jokaldi egiteko errenkadan, eta *aitaren batean hanka egin* zuten berriro etxekeok. EPG, *Berria*, Kirola, (2010-10-16).
- (3.40) Autotik jaitsarazi zituzten, polizien postura eramateko, baina, haratakoan, zubia pasatzean, Mariok *bat-batean ospa egin zien* guardiei, jantzi eta guzti bere burua ibaira bota eta Suitzako mugaraino joan zen igerian. EPG, *Gure etxeko kontuak*, Natalia Ginzburg / Fernando Rey (Igela, 2004: 126).
- (3.41) *Horrela arnas egin*<sup>18</sup> nahi nuke beti. EPG, *Ospitalekoak*, Mikel Antza (Susa, 2010: 229).

---

<sup>18</sup> *Arnas hartu* aditz-lokuzioaren agerraldiak askoz ugariagoak dira *arnas egin* aditz-lokuzioarenak baino.

(3.42) Handik luzarora, lehortearen hirugarren urtean, *honela hitz egin zion* Jaunak Eliasi: "Zoaz Akab erregeagana; euria eginarazi behar dut lur gainera". EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), 18,1.

- Galdegaia, maiztasuna adierazten duen adberbioa denean:

(3.43) *Aldika ele egiten* diozue Mazellak eta zuhaurek. EPD, *Elektrika*, Xabier Montoia (Susa, 204: 157).

(3.44) *Bi aldiz porrot egin* zuen bere kooperatibak, eta bi aldiz utzi zion Pedrok dirua. EPD, *Twist*, Harkaitz Cano (Susa, 2011: 206).

- Galdegaia, norekin/zerekin kasu-markaz osatzen den adberbioa denean:

(3.45) *Gurekin berba egin* gura zuen arazo baten gainean, aspaldian darabilen galdera bati buruz: izar horiak sortzen dizkio buruhaustek. EPG, *Zoririk ez*, Imre Kertész / Urtzi Urrutikoetxea (Elkar, 2003: 46).

(3.46) *Behatz ttikiko azazkal luzearekin hatz egin zuen* buruan, niri muturreko bat eman edo ez eman erabaki nahian bezala. EPG, *Paradisuko Almanaka*, Gianni Celati / Fernando Rey (Igela, 2005: 111).

(3.47) Izan ere, *bat ez bi gorpurekin topo egin* zuten bertaratutakoek, Arrietak bere buruaz beste egin baitzuen bera irten ondoren. EPG, *Denak du bere prezioa*, Migel Angel Mintegi (Ibaizabal, 2002: 227).

(3.48) Josefina atzeratuko da eta *eskuarekin hots egingo* dio Faustinori. Euskal Klasikoen Corpora (EKC), *Goi argi*, Badiola Abelino (1935).

- Galdegaia, nork IS denean:

- (3.49) *Nik*<sup>19</sup> *amets dagidan* ari du euria. EPG, *Berria*, Kultura, 2004, 2006, «Manuel Maria Irailean», sinadurarik gabe, (2004-09-23).
- (3.50) Gau hartan, ordea, *Jainkoak*<sup>20</sup> *hitz egin zion* Natani. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), 1 Kro 17,3.
- (3.51) Baina bostehun metro segundoko abiadurarekin doan hegazkinaren aurka *txoriak talka egiten duenean*, metalezko estaldura edo pilotuaren kabinaren beira puska dezake.  
<http://zientzia.net/artikuluak/higidurak-inertzia-eta-abar/>
- (3.52) Hirugarrenari *giltzurrunak huts egin zion*.  
<http://aldizkaria.elhuyar.org/albisteak/hiesa-hezur-muin-transplanteekin-tratatzeako-saio/>

.- Galdegaia, nori IS denean:

- (3.53) [...] bestela *poliziarri*<sup>21</sup> *hots egingo diot*.  
[http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p\\_p\\_id=56\\_INSTANCE\\_fLB1&p\\_p\\_lifecycle=0&p\\_p\\_state=pop\\_up&p\\_p\\_mode=view&\\_56\\_INSTANCE\\_fLB1\\_struts\\_action=%2Fjournal\\_content%2Fview&\\_56\\_INSTANCE\\_fLB1\\_group1](http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_fLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state=pop_up&p_p_mode=view&_56_INSTANCE_fLB1_struts_action=%2Fjournal_content%2Fview&_56_INSTANCE_fLB1_group1)

<sup>19</sup> Elementu hanpatua edo galdegaia *nik* dela uler dezakegu, horren eta aditzaren artean pausarik egin gabe eta hanpaduraz ahoskatuko genukeen egitura horretan. Bestela, ordena neutroa izango genuke.

<sup>20</sup> *Jainkoak* galdegaitzat hartzen dugu, aditzarekin batera eta azentu berezi batez ahoskatzen dugula ulertuz.

<sup>21</sup> Egitura honetan *poliziarri* IS, informazio berria edo ezezaguna dela pentsa dezakegu eta elementu hori galdegai hanpatu gisa irakurri. Lan hau egitura idatzien azterketan oinarritzen bada ere, ahozkoak argituko luke zalantza hori nahiz besteak. Galdegaia ahoskatzean, alde batetik, indarririk handiena atal horretan ipiniko genuke, hanpatuz. Horrez gain, aditzaren aurreko atal hori aditz-lokuzioarekin batera ahoskatuko genuke, osagaien artean etenik egin gabe. Hala nola:

(i) bestela / poliziarri hots egingo diot

/: etena

˘: azentua (hanpadura ahoskatzean).

[d=10138& 56 INSTANCE fLB1 articleId=496557& 56 INSTAN  
NCE fLB1 viewMode=print](#)

- (3.54) Guztiz bestela, harroak direla zoriontsu ari gara ikusten. Gaizkileak gero eta hobeto bizi dira eta, *Jainkoari*<sup>22</sup> *desafio eginda* ere, zigorrik gabe gelditzen dira. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), MI 3,15.
- (3.55) Hartan, mutil gazte bat sartzen da rockeroz jantzita eta txima luzeekin. *Tabernakoei so egiten die* arretaz. DON LUIS eta JOSEMARI begira geratzen zaizkio. Goenkale CorpUSA, 809 atala, Sekretu txikiak, Sek.: 4.
- (3.56) Oraindik amaren sabelean zegoela, *anaiari*<sup>23</sup> *iruzur egin zion* Jakobek. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Os 12,4.
- (3.57) *Hari aurre egitera* atera zen Asa, eta Tzefata haranean, Marexatik hurbil, jarri ziren gudurako lerrotan. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Kro 14,9.
- (3.58) *Matiasi burla egiten* ari zen Faulkner. EPG, *Van't Hoffen ilea*, Unai Elorriaga (Elkar, 2003: 117).
- (3.59) *Erdi zabalik zegoen ateari bultza egin zion* Harryk. EPG, *Harry Potter eta Azkabango presoak*, J.K. Rowling / Iñaki Mendiguren (Elkar, 2002: 248).
- (3.60) *Sorginkeriei dei egiten diete* Juduek egia ezagutzeko. EPD, Xipri Arbelbide (Elkar, 2011: 70).
- (3.61) MARGARI.— Ez duzue ideiarik ere! *Amabirjinari barre egiten dio* emakume horrek! Goenkale CorpUSA, Sek.:12.

---

<sup>22</sup> Hitz-ordena arruntaren haustura ez dugun arren, testuinguruan oinarrituz, hanpatu moduan irakur daiteke *Jainkoari* IS.

<sup>23</sup> *Anaiari* aditzarekin batera modu hanpatuan ahoskatzen dugula ulertuz irakurtzen dugu IS hori galdegai moduan.

- (3.62) Eta bigarren aldiko, hilabete hongoi eta laugarren egunean, *Agjeori solas egin* zioen Jaunak. EKC, Duvoisin, Jean Pierre, *Bible Saindua (II) – Testament Zaharra, 2. Zathia*, Agjeoren Profezia (1859-1865).
- (3.63) Ostiralean izan zuen lehen hartu-emanaren Realarekin, eta atzo bere aurkezpenaren *Realaren zaleei keinu egin* zien Amorrortuk: «Realarekin baino filosofia batekin bat egitera nator. EPG, *Berria*, Kirola, 2004, 2006, «Behetik gora», Erredakzioa, (2004-06-0).

.- Galdegaia, norengatik kasu-marka duen adberbioa denean:

- (3.64) Zazpigarren egunean, *Danielengatik negar egitera* etorri zen erregea. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Dn Gr 3,40.
- (3.65) *Haiengatik ihes egin zuten* Jerusalemgo bizilagunek; arrotzen bizileku bihurtu zen eta bertakoentzat arrotz, bertako seme-alabek alde egin baitzuten. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), M,128.
- (3.66) eta nik *Jaunarengatik zin egin* nion ez nuela ezpataz hilko. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Erg 2,8.

.- Galdegaia, zerez/zertaz kasu-marka duen adberbioa denean:

- (3.67) Gauza batzuk ezin ditugu esan, beste gauza batzuk, berriz, ez dituzte entzun nahi. Zertaz hitz egin daiteke orduan? Bertso esanguratsu honetan *adierazpen askatasunaz gogoeta egiten du* Nerea Elustondok modu bitxi baina alaietan. <http://www.zingizango.eus/blogak/lbo/zertaz-hitz-egin>

.- Galdegaia, mendeko denborazko perpausa denean:

(3.68) *Tren batek goialdetik igarotzean burrunba egiten zuen kale-muturrean. EPG, Manhattan Transfer, John Dos Passos / Lopez de Arana (Ibaizabal, 1999: 32).*

(3.69) *Telesaila amaitu zenean negar egin nuen, atala ikusten ari nintzela eta ondoren. <http://barretartia.com/2013/05/02/ez-lost-en-ez-zeuden-denak-hilda-artaburua/>*

Adibide horietan guztietan [I+A] hurrenkera errespetatzen dela dakusagu, mota desberdinetako elementu hanpatua edo galdegaia dugunean ere. Beraz, hauek dira galdegaia izanik [I+egin] osagaien arteko lotura estua mantentzen duten aditz-lokuzioak: *alde egin*<sup>24</sup> (*aldegin*), *ospa egin*<sup>25</sup>, *ihes egin* (*igesegin*), *hanka egin*, *hots egin*, *arraun egin*, *huts egin*, *txio egin*, *leher egin*, *listu egin*, *lo egin*, *estropezu egin*, *aipu egin*, *behaztopa egin*, *murgil egin*, *eztanda egin*, *berba egin*, *arnas egin*, *hitz egin*, *lan egin*, *zintz egin*, *porrot egin*, *hatz egin*, *topo egin*, *amets egin*, *talka egin*, *barre egin*, *aurre egin*, *negar egin*, *desafio egin*, *so egin*, *iruzur egin*, *zin egin*, *gogoeta egin*, *burrunba egin*, *burla egin*, *bultza egin*, *dei egin*, *solas egin*, *ele egin eta keinu egin*, besteak beste.

---

<sup>24</sup> Salbuespentzat hartuko dugun *alde egin* lokuzioaz osatutako adibide bakarra aurkitu dugu, non [I+egin] osagaien hurrenkera hautsi egin den:

(i) Txintik esan barik *egin* zuen *alde* Kornjuinek. EPG, *Ulenspiegel en elezaharra*, Charles De Coster / Koldo Izagirre (Elkar/Alberdania, 2007: 110).

<sup>25</sup> *Alde hemendik!* eta *ospa hemendik!* esamoldeak, salbuespen. *Alde* eta *ospa* hitzek, aditzak adierazten duen ekintza ordeztzen dute, *alde egin* eta *ospa egin* hurrenez hurren, lexikalizatutzat hartzen ditugun adibide hauetan:

(i) Hartu zuen zartagina eta atera zituen, anaiaren aurrean ipiniz. Honek, ordea, ez zuen jan nahi izan, eta agindu zuen: - Alde hemendik denok! Denak irten zirenean, EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Sm 13,9.

(ii) Mozoloa halakoa, *ospa hemendik!* EPG, *Atzo*, Agota Kristof / Eskarne Mujika (Alberdania, 2004: 104).

(1.3.1.) azpisailean aipatu dugun moduan, elementu ihartutzat hartuko ditugu bai *alde*, bai *ospa*, aditz-lokuzioen osagaiak, beste testuingurutan agertzen ez diren hitzak.

*Alde egin* lokuzioari dagokionez, aipatzekoa da *aldegin* idazkeraz osatutako aditz-lokuzioaren agerraldi ugari aurkitu ditugula EPG *corpusean* (200 agerraldi) eta, horietan guztietan, idazkerak berak islatzen du egitura sintaktikoak ez ezik, osagaien arteko lotura estua. *Aldegin* aditzaz gain, *hitzezin*, *soegin* eta *igesegin* lokuzioez osatutako adibideak aurkeztu berri ditugu. *Hitzezin* formaren agerraldiak ugariak dira EPG *corpusean* (140 agerraldi). *Igesegin* 39 agerralditan topatu dugu EKC *corpusean* eta *soegin* 2 agerralditan EPG *corpusean*. Beraz, erabileraren maiztasunari dagozkion desberdintasunak atzematen ditugu aditz-lokuzio horien artean.

**b)** Osagaiak bananduta agertzen diren aditz-lokuzioez osatutako adibideei dagokienez, hainbat kasutan, aurrez aipatutako osagaien arteko ordena desberdinak atzemango ditugu. Elementu hanpatuak desberdinak direla dakusagu ondorengo adibideetan ere eta galdegaia + A+ I ordena askoz arruntagoa den arren, I + galdegaia + A hitz-andanaz osatutako adibideak ere aurkitu ditugu.

**b.a)** Azpiatal honetan, galdegaia + A + I hitz-ordena erakusten duten adibideak aurkeztuko ditugu, galdegai moten arabera honela banatuko ditugunak: galdegaia leku-denborazko adberbioa denean, moduzko adberbioa denean, maiztasuneko adberbioa dugunean, zertaz/zerez kasu-markadun adberbioa denean, norekin/ zerekin kasu-markaz osatutakoa, norengandik kasu-markaz osatutakoa, galdegaia nori IS denean, nork IS denean, galdegaia mendeko perpaus osagarria denean, galdegaia denborazko mendeko perpausa denean eta bestelakoa.

.- Galdegaia, leku-denborazko adberbioa denean:

(3.70) *Horietara guztietara egiten zaie dei*. EPG, *Asisko Frantzizko, Asisko Klara*, Askoren artean (Arantzazu, 2002: 96).

(3.71) *Eta barren-barrendik egin nuen otoitz*. EPG, *Lur bat haratago*, Joan Mari Irigoien (Elkar, 2000: 651).

- (3.72) Arratsaldez *lorategian egingo dut lan*. EPG, *Manhattan Transfer*, John Dos Passos / Lopez de Arana (Ibaizabal, 1999: 27).
- (3.73) Izan ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako txapelketak jokatzeko dira gaur, eta bi txapelketetako lehen bi sailkatuek larunbatean *Lekeition egingo dute arraun*, Euskadiko Txapelketan. EPG, *Berria*, Kirola, 2004, 2006, «Elkarri neurria hartzen, Bianditz Iraola (2004-08-11).
- (3.74) Perez Arenazari *buruan egin zion tiro* motorrean gerturatu zitzaion gizon batek. <http://www.berria.info/GAL/nagusia.php>
- (3.75) Denbora luzean begiratu zion; gero, bere eskutzarra luzatu, eta laztandu egin zuen; burutik hasi eta *oinetaraino egin zion laztan*. EPD, *Saguak eta gizonak*, John Steinbeck / Iñigo Errasti (Alberdania, 2012: 127).
- (3.76) Dinamika hau Gasteizen garatuko dugu. Norberak bere ikastetxean egingo dugu lanketa eta ondoren *hiriburura egingo dugu salto*. <http://www.ikasleabertzaleak.org/2014/04/>
- (3.77) Une jasanezin batez pentsatu zuen errepidearen ezker aldean iluntasunean galtzen zen maldan beheara eroriko zirela, baina furgonetak *eskuinera egin zuen irrist*. ETC, *Tinta-bihotz*, Cornelia Funke (Naroa Zubillaga), (Elkar, 2009).
- (3.78) Kanean nago baztarrean etzanda. *Hauetako baten egingo duk eztanda*, burua nahasturik, hezurretan dardarra, dardarra, eztanda!! <http://eu.musikazblai.com/buscar/etzanda/>
- (3.79) Gizonak esan zion Eliri: - Gudu-zelaitik nator; *gaur bertan egin dut ihes* handik. Elik galdegin zion: - Zer gertatu da, ene seme? EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), 1 Sm 4,16.
- (3.80) Elkarren berri eduki gabe denbora igaro eta gero, *aurten egin dugu topo* berriz ere.

<http://www.urtxintxa.org/euskara/25-urteurrena/25-iritzi/parrapasa>

(3.81) Akzioek behetik gorakoa bezala egin zuten goitik beherakoa, ziztu batean, eta konpainiek *segituan egin zuten porrot*. EPG, *Txanponaren bi aldeak*, Iñaki Heras (Alberdania, 2003: 232).

(3.82) Uretan murgiltzeko beste tokien artetik, bizitzak *guztietan egiten baitu borbor*.

<http://www.euskomedia.org/PDFAnIt/ehnat/enatura026.pdf>

.- Galdegaia, moduzko adberbioa, postposizioa edo aditz jokatugabea denean:

(3.83) Txalupari biek *zutik egiten zuten arraun*, gibeletik aitzinerat, erramu banarekin, mugimendu motel, single eta dotorez. EPG, *Idi orgaren karranka*, Victor Hugo / Koldo Izagirre (Elkar, 2002: 104).

(3.84) emakumeak *oilo baten modura egin zuen barre* eta sorbaldan kolpetxo bat eman zion haizemaile itxiaz. EPG, *Manhattan Transfer*, John Dos Passos / Lopez de Arana (Ibaizabal, 1999: 45).

(3.85) *Gogotik egiten dio barre* lagun hurkoari, baina horri esker hartuko du leku noiz edo noiz kofradia alairen batean. EPG, *Ulenspiegelen elezaharra*, Charles De Coster / Koldo Izagirre (Elkar/Alberdania, 2007: 48).

(3.86) Gertakari haren berri jakitean, Matatiasek eta lagunek *saminki egin zuten negar*. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), M 2,39.

(3.87) Beste aingeru bat ikusi nuen ekialdetik igotzen, Jainko biziaren zigilua zuelarik, eta *ozenki egin zien deiadar* lurra eta itsasoa hondatzeko ahalmena eman zitzaien lau aingeruei, [...]. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Ap 7,2.

- (3.88) Orduan, erregeak *honela egin zuen zin*: - Ala Jauna, atsekabe orotatik atera nauena! EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Erg 1,29.
- (3.89) Ez da ohartuko bidean botata GUTIREN surf egiteko taula eta *haren kontra egingo du talka*<sup>26</sup>. Goenkale Corpora, 1907 atala, Gauean bero, goizean ero, Sek.: 4.
- (3.90) Agindua betez Jijiji Rik sudurrari behatzez heldu, eta *elefanteenaren zalaparta ateraz egin zuen zintz*, denak buru moztua braust erortzeko zain zeudela. ETC, *Deabruaren hiztegia*, Ambroise Bierce (Xabier Olarra), (Ibaizabal, 2001).
- (3.91) *Sakon-sakon egin dut hasperen*.  
<http://susa-literatura.eus/cgi-bin/liburuok.pl?lib=narr9811>

.- Galdegaia, maiztasuna adierazten duen adberbioa denean:

- (3.92) *Zaldia hiruzpalau aldiz egin zuen irrintzi*.  
<http://www.armiarma.eus/unibertsala/swift/swif33.htm>
- (3.93) Marrantatua da eta *sarritan egiten du ez tul*. EPG, *Ulenspiegelen elezaharra*, Charles De Coster / Koldo Izagirre (Elkar/Alberdania, 2007: 158).
- (3.94) *Berrito egin nuen amets*. EPG, *Fantasiako ipuinak*, Guy de Maupassant, Josu Zabaleta (Ibaizabal, 2000: 262).
- (3.95) Itzuli nintzenetik *behin bakarrik egin genuen topo*. EPG, *Errautsen distira*, Xabier Mendiguren Elizegi (Elkar, 2002: 81).
- (3.96) *Maizegi egiten zuen piper*.  
<http://www.gaur8.info/edukiak/20131026/429521/In-Fraganti-Miriam-Cabeza>

---

<sup>26</sup> *Norbaiten kontra* postposizioak *talka egin* aditzarekin konbinatuz moduzko ñabardura eransten duen heinean kokatu dugu adibidea azpialde horretan.

(3.97) Esandakoa bete zuen The Maestrok; *berriro egin genuen zurrut* musika bandaren alde, eta gizonak Corkeko gorabeherak kontatzen jarraitu zuen, gero eta berotuago, barre eta oihu artean. ETC, *Larunbatak*, Jon Arretxe (Elkar, 2001)

.- Galdegaia, zertaz/zerez kasu-marka duen adberbioa denean:

(3.98) Izan ere, azken hamarkadetan, *gizakiaren gainbeheraz egin zuen berba* baloreei dagokienez, "ekialdeko aberastasuna gizakiaren esplotazioan oinarritzen da", esan zuen Melék.  
<http://www.mondraberri.com/mondraberri/contenidos.item.action?id=5171522&menuld=7109426>

(3.99) *Telefonoz egin genion hots*<sup>27</sup> eta ez zuen birritan pentsatu baietza emateko.

<http://gaztea.euskonews.com/0516zbk/gaia51604.html>

(3.100) "*Aita Hilario, esan zidaten ontzi lagunek, berorren soinuaz egiten diote agur*". Orotariko Euskal Hiztegia.

[http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com\\_oeh&view=frontpage&Itemid=340&lang=eu&sarrera=agur&xeh=3](http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_oeh&view=frontpage&Itemid=340&lang=eu&sarrera=agur&xeh=3)

.- Galdegaia, norekin/zerekin kasu-markadun adberbioa denean:

(3.101) *Amaiarekin egin dut topo*.

<http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0CDUQFjAA&url=http%3A%2F%2Feuskarrians.files.wordpress.com%2F2011%2F01%2Faditz-lokuzioak-teoria.doc&ei=L0WBUbnvO4uA7QaAq4GQCg&usq=AFQjCNEw>

---

<sup>27</sup> Horrelako adibideak oso gutxi dira eta *hots egin* ordena da nagusi. Testu inguruak erakusten du *hots egin* aditza *deitu* adieraz erabiltzen dela eta horretan oinarrituko gara, momentuz. Hala ere, lan honetan aurrera egin ahala ikusiko dugun moduan, *hots egin* lokuzioak adiera bat baino gehiago izan ditzake eta adieraren arabera egitura sintaktikoa eta argumentu egitura alda daitezke.

[IsrVtmTKs6g7IUDnVmCybSolYQ&bvm=bv.45921128,d.ZGUEus  
karians](http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_oeh&view=frontpage&Itemid=413&lang=eu&sarrera=topo&xeh=2)

- (3.102) Gabiltzan bezala, *bi oztoporekin egingo dugu topo*. MEIG VI .  
Orotariko Euskal Hiztegia.  
[http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com\\_oeh&view=frontpage&Itemid=413&lang=eu&sarrera=topo&xeh=2](http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_oeh&view=frontpage&Itemid=413&lang=eu&sarrera=topo&xeh=2)
- (3.103) Eta erdiesten dute, baina fite itzuli behar dute lurrera, *paretarekin egiten baitute behaztopa*. EPG, *Elektrika*, Xabier Montoia (Susa, 2004: 111).
- (3.104) Gero *hilarri batekin egin zuen estropezu*. EPG, *Van't Hoffen ilea*, Unai Elorriaga (Elkar, 2003: 205).
- (3.105) Ez dakit, halaber, *mokoarekin egiten zuten txio* edo oinak elkarren kontra igurzten zituzten edo hegoetan mintzik gabeko hezur zaharrak zituzten. EPD, *Hatsaren kulunka*, Hertha Muller / Ibon Urbarri (Elkar, 2010: 257).

.- Norengatik kasuaz markatzen den adberbioa dugunean:

- (3.106) Tenpluarengatik zin egiten duenak, *tenpluarengatik eta bertan bizi den Jainkoarengatik egiten du zin*. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), M 3,21.

.- Galdegaia, nori/ zeri IS denean:

- (3.107) Bizkorregi fidatzen dena kaxkarina da; bekatariak *bere buruari egiten kalte*. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Si 19,4.
- (3.108) Zombicide 1-6 jokalarirentzako mahai-joko bat da; kalitate handiko eta xehetasunez betetako taula ikusgarri batean *zonbi bati egin beharko diozu aurre*.  
<http://oiassoludica.wordpress.com2013/12/23/zombicide/>

- (3.109) Zinez jende iluna ETB1 ikusten ez duzenok. ... gaudenez, zabilzan plazako agintariari makila hautsi eta *berari egiten diozu burla*, turrut, trufa, [http://paperekoa.berria.info/iritzia/2014-01-05/006/003/serpentinak\\_haize\\_alde.htm](http://paperekoa.berria.info/iritzia/2014-01-05/006/003/serpentinak_haize_alde.htm)
- (3.110) Hori gertatzen zaiguk gurasooi; ondo beharrez, batzutan *geure buruari egiten zioagu min eta kalte*. Goenkale Corpusa, 222 atala, Nire esku balego, Sek.:7.

Ohar gaitezen galdegaiaren testa ez ezik, koordinazioa dugula azken adibidean. Lehendabiziko perpaus koordinatuak *min egin* aditz-lokuzioaren osagaien hurrenkera hautsi dela erakusten du eta bigarrenak *kalte egin* aditz-lokuzioaren osagaien jokaera askea, non *egin* aditza eliptikoa den.

- (3.111) Jabier Muguruzak *intuizioari egiten dio jaramon*. ETC, *Berria*, Kultura, «Zenbat musikari, hainbat ikuspegi», Iruñe Berro (2004-10-30).
- (3.112) Hala, Elizari, hezkuntzari, «gosez hiltzen ziren maisuei» eta, bereziki, *politikoei nahiz agintariei egiten zieten iseka* 1968tik aurrera sortu ziren ehunka aldizkariak. ETC, *Berria*, Kultura, «Satira politikoa bazenekoa», Mikel Lizarralde (2004-01-29).
- (3.113) *Argazkiei eta marrazkiei egin die so* [...]. *Zorrotz egiten zien so*, irribarrerik gabe eta irribarretik gertu dagoen keinurik gabe. <http://www.ehu.es/aarrieta/ipuinak/enbaxadorea.pdf>.
- (3.114) Sabrearekin edo ezpatarekin [*elgarr*] *egiten diote keinu*. Orotariko Euskal Hiztegia. [http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com\\_oeh&view=frontpage&Itemid=413&lang=eu&sarrera=keinua&xeh=4](http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_oeh&view=frontpage&Itemid=413&lang=eu&sarrera=keinua&xeh=4)

.- Galdegaia, nork IS denean:

- (3.115) Horiekin batera *jende askok egiten du apustu*, baten edo bestearen alde.

[http://paperekoa.berria.info/plaza/2009-09-05/054/006/apustua\\_ez\\_da\\_errenta.htm](http://paperekoa.berria.info/plaza/2009-09-05/054/006/apustua_ez_da_errenta.htm)

(3.116) *Den-denak egingo du eztanda.*

<http://eu.musikazblai.com/buscar/eztanda/>

(3.117) *Gizon batek egin du berba.*

[www.ehu.es/euskalosasuna/irakurgaiak/lturrioz.pdg](http://www.ehu.es/euskalosasuna/irakurgaiak/lturrioz.pdg)

.- Galdegaia, mendeko perpaus osagarria denean:

(3.118) Administrazioari *nolabait lotutako zerbait idaztea egin dio erreku* neskak. EPG, *Gauza txikien liburua*, Pako Aristi (Erein, 2004: 119).

Galdegaia, mendeko perpaus osagarri bat dugu kasu horretan. Galdegaia eta komunikazio aditzek osagarri moduan har dezaketen mendeko perpaus sakonkiago arituko gara 3.5. azpisailean.

.- Bestelakoa:

Ondorengo mendeko perpaus osagarriaren testuingurua ezagutzen ez dugun arren, postposizioaz osatzen den *norbaiten alde* galdegaiak *aipu egin* osagaien banaketa eragin duela dakusagu:

(3.119) [...] *Mugaberen alde egitea aipu*. EPD, *Berria*, Mundua, «Zimbabweco gobernuan sartuko da MDC oposizioko indar nagusia», Allande Sokarros (2009-01-31).

**b.b)** I + galdegaia + A ordena erakusten duten adibide hauetan gehienetan, moduzko edo lekuzko adberbioa da galdegaia:

(3.120) *Elkarrizketak ulertzen, bertan parte hartzen eta berba zuzen egiten, ahoz nahiz idatziz.*

[http://www.eoieuskadi.net/datos/gestion\\_programacion\\_comun/fichero\\_eu4/tarteko\\_malla\\_2.pdf](http://www.eoieuskadi.net/datos/gestion_programacion_comun/fichero_eu4/tarteko_malla_2.pdf)

- (3.121) *Algara lasai egin zuen* Tomek. EPG, 110. *Street-eko geltokia*, Iñaki Zabaleta (Elkar, 2003: 44).
- (3.122) *Juez jauna: ireki beza berriro itxitako ate hori, barre lasai egiten segi dezagun.* EPG, *Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo*, Iñaki Segurola (Alberdania, 2005: 243).
- (3.123) *Willak irribarre egiten du zuk eszena hori azaltzen diozun bitartean, eta barre gogoz egiten entzuten diozun lehen aldia da luzaroan, hainbat hilabetean.* EPD, *Sunset Park*, Paul Auster / Oskar Arana (Alberdania, 2010: 263).
- (3.124) *Hala ere, dio martxoaren 14an lortuko duela lo lasai egitea.* EPG, *Berria*, Euskal Herria saila, 2004, «Legebiltzarrak erabakitzen duenari tinko eutsiko diogu Madrilen», Eider Goenaga (2004-03-04).
- (3.125) *Txomin, kaka galtzetan egin duzu.*  
<http://aberriberri.com/2009/08/16/leopoldo-%C2%BFquien-si-no/>
- (3.126) *Pixa kalean egiten dugu.* <http://topatu.info/ez-okupatu-alokatu/>
- (3.127) *Kanta polita zen, baina bultza, bultza, bakar batzuek egiten zuten bultza.* <http://lauramintegi.net/page/2/>

Nork izen sintagmaz osatutako galdegaiaren ezkerrean dagoen *bultza* mintzagaia errepikatzen dela dakusagu, azken adibidean. Mintzagai hanpatu gisa bereiziko dugu galdegaiaren ezkerrean kokatzen dena eta mintzagai ez hanpatu gisa deskribatuko dugu aditzaren eskuinera hirugarren aldiz ageri dena.

Galdegai dugunean, osagaien [I+A] hurrenkera hausteaz gain, osagaiak kokapen desberdinetan ager daitezkeela erakusten dute aurreko adibideek. Gauzak horrela, aditz-lokuzioen arabera, *gald + egin + I* eta *I + gald + egin* hitz-ordenak bereiz ditzakegu, osagaien haustura erakusten duten aditz-lokuzioen artean. *Galdegai + egin + I* ordena erakusten dutenen artean ditugu, *dei egin, topo egin, otoitz egin, lan egin, ihes egin, arraun egin, eztanda egin, porrot egin,*

*tiro egin, laztan egin, barre egin, negar egin, talka egin, deiadar egin, zin egin, eztul egin, amets egin, barre egin, berba egin, hots egin, behaztopa egin, estropezu egin, txio egin, kalte egin, so egin, aurre egin, burla egin, min egin, keinu egin, apustu egin, eztanda egin, erreku egin, hitz egin (gutxitan), borbor egin, salto egin, irrist egin, zintz egin, zurrut egin, jaramon egin, iseka egin, hasperen egin, irrintzi egin, eta abar.*

I + galdegai + A ordena erakusten dute, *berba egin, algara egin, barre egin, lo egin, kaka egin, pixa egin* eta *bultza egin* aditz-lokuzioek. *Bultza egin* aditz-lokuzioari dagokionez, izena errepikatzen den adibide horretan bi kokapenetan topatu dugu mintzagaia, *egin* aditzaren ezkerrean eta eskuinera.

Osagaien arteko banaketa erakusten duten aditz-lokuzio batzuek, lotura estua ere erakusten dutela aintzat hartuz, bietara erabil daitezkeen artean kokatuko ditugu aditz-lokuzio hauek: *ihes egin, hots egin, arraun egin, txio egin, lo egin, estropezu egin, behaztopa egin, dei egin, eztanda egin, so egin, berba egin, lan egin, porrot egin, topo egin, amets egin, talka egin, negar egin, aurre egin, zin egin, burla egin, bultza egin, zintz egin* eta abar<sup>28</sup>.

Beraz, galdegaiak eragiten dituen hitz-ordena aldaketak ez ezik, desberdintasunak atzeman ditugu mintzagaiaren kokapenari dagokionez ere. Aditz-lokuzio batzuen izenak mintzagai hanpatu nahiz ez hanpatu moduan bereiz daitezke *egin* aditz arinetik, hala nola *pixa, kaka, lo, bultza, berba, barre,* eta abar, beste izen batzuek, ordea, aditzarekin lotura estua osatzen dute. Baina, [I+egin] osagaien arteko haustura erakusten duten bi hitz-ordena atzeman ditugun arren, *gald + egin + I* hitz-ordena arruntagoa da I + *gald + egin* hitz-ordena baino. Ulegarria da hanpadura bakarra duen egiturari dagokion hitz-ordena arruntagoa izatea, bi atal hanpatu dituen egiturari dagokion hitz-ordena baino. Izan ere, hanpadura bakoitzak egituraren atal hanpatua modu berezi

---

<sup>28</sup> *Hitz egin* ez dugu bietara erabiltzen direnen artean kokatu, askoz ugariagoa delako lotura estua erakusten duen aditz-lokuzioaren erabilera, osagaien banaketa erakusten duenarena baino.

batean markatzea suposatzen du eta zenbat eta hanpadura gehiago orduan eta egitura bereziago.

Osagaien arteko lotura estua erakutsi duten aditz-lokuzioei dagokienez, *alde egin* aditz-lokuzioak lotura estua erakutsi du adibide guztietan. *Hitz egin* aditz-lokuzioari dagokionez ere, nabarmenki ugariagoak dira osagaien arteko lotura estua erakutsi duten adibideak, [I+egin] hurrenkeraren haustura erakutsi dutenak baino, izan ere, haustura erakusten duen autore bakar baten adibide bat besterik ez dugu aurkitu *corpusetan*.

Aipatu azkenik, *soegin* eta *so egin* nahiz *igesegin* eta *ihes egin* idazkeraz desberdintzen diren aditz-lokuzioek, jokaera sintaktiko desberdinak erakutsi dituztela. Idazkerari dagokionez, unitate bat osatzen duten aditz-lokuzioek osagaien arteko lotura estua edo zurruntasun sintaktikoa erakutsi dute. Osagai bananduez osatzen diren aditz-lokuzioek, ordea, osagaien arteko lotura askea erakutsi dute. Hala guztiz ere, horietako pare bakoitzak adierari dagokionez esanahi bat bera duenez, jokaera bikoitza erakusten duen aditz bat beratzat hartuko dugu.

#### ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK

Aditz meteorologikoez osatutako adibideen artean, gehienek osagaien jokaera askea erakusten dute eta bi ordena hauek bereiz ditzakegu horien artean ere; I + gald + A eta gald + A + I hitz-ordenak. Bestalde, osagaiak banatu ez direla erakusten duen adibide bat aurkitu dugu *corpusetan*. Hauek dira, beraz, aditz-lokuzio meteorologikoei dagokienez, topatu ditugun hitz-ordenak:

- a) **gald + [I+A]**
- b) **gald + A + I**
- c) **I + gald + A**

a) Adibide honek [I+egin] osagaien hurrenkera mantendu dela erakusten du, gald + [I+A] hitz-ordena, alegia:

(3.128) 800      *metrotik*      *gora*      *elurra*      *egin*      lezake  
asteburuan.<http://www.eitb.com/eu/eguraldia/osoa/1324430/eguraldiaren-iragarpena--elurra-apirila-amaitzeko-euskal-herrian/>

b) Adibide hauek, ordea, gald + A + I ordena edota [I+A] hurrenkeraren haustura erakusten dute, adberbioa galdegai izanik:

(3.129) *Atertu gabe egin zuen euria.*

[http://paperekoa.berria.info/harian/2014-02-02/012/001/Alerta\\_gorria\\_ezari\\_dute\\_goizaldetik\\_goizera\\_olatu\\_handiengatik.htm](http://paperekoa.berria.info/harian/2014-02-02/012/001/Alerta_gorria_ezari_dute_goizaldetik_goizera_olatu_handiengatik.htm)

(3.130) *Egun osoan zehar egin dezake euria.[...]* Okerrera egingo du fronte bat iritsiko baita, bereziki arratsaldean.[...] gure gainean *egun osoan zehar eta etengabe egin dezake euria*. Laino guztien gainetik. Joseba Egañaren eguraldiari buruzko bloga.  
<http://baleike.com/eguraldia/>

(3.131) Oraindik ez da egin uholdeak eragiten dituzten euri gogorrei eta lehorteei buruzko azterlan exhaustiborik. Kostaldean urtean 5 *egunetik gora egiten du txingorra*, baina barrualdean...

[http://www.garraioak.eiqv.euskadi.net/r41-3441/eu/contenidos/informacion/ana\\_nieblas/eu\\_7275/r01hRedirectCont/contenidos/informacion/ana\\_precipitaciones/eu\\_7276/eu\\_precipitaciones.html](http://www.garraioak.eiqv.euskadi.net/r41-3441/eu/contenidos/informacion/ana_nieblas/eu_7275/r01hRedirectCont/contenidos/informacion/ana_precipitaciones/eu_7276/eu_precipitaciones.html)

(3.132) Garai hartan *beti egiten zuen zirimiria* Bilbo aldean, laztana. EEH, *Hollywood eta biok*, Josu Cillero (1999: 21).

(3.133) Euskalmetek dio *itsasoaren mailan egin dezakeela elurra*, eta pilatu egingo dela, gainera; 200 metrora, 5-20 zentimetro itsats daitezke, eta 600 metrora, 10-40 zentimetro.

[http://www.berria.eus/paperekoa/1484/009/001/2013-02-24/lege\\_info.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1484/009/001/2013-02-24/lege_info.htm)

(3.134) *Edozein lekutan egin dezake elurra*, mendian eta kostaldean, eta hotz ...Bilbo inguruan, esate baterako, kazkabar jasa handia izan zuten [http://www.berria.eus/paperekoa/1484/009/001/2013-02-24/lege\\_info.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1484/009/001/2013-02-24/lege_info.htm)

(3.135) 2012/2013arekin alderatuz, 2013/2014 kanpainan 16 egun gehiago egin zuen elurra –34 egunetik 50era igo zen– baina prezipitazioen intentsitatea txikiagoa izan zen eta maila handiagoetan bota zuen gainera.  
<http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/361647B7-9D76-49D6-B432-4DCB0E37C39B/298406/Vialidadinvernal20142015.pdf>

c) I + gald + A osagaien ordena edo [I+A] hurrenkeraren haustura erakusten duten egitura hauek topatu ditugu, galdegai gisa, mota desberdinetako adberbioez osatzen direnak; lekuzkoa, denborazkoa, moduzkoa edota maiztasuna adierazten duena:

(3.136) *Euria goitik behera egin zuen igandean Sevillan*, zelaia putzuz josia zegoen eta ez zen Betis-Bartzelona jokatu. EPG, *Berria*, 2004, 2006, Kirola, «Kasualitatea», sinadurarik gabe, (2004-03-30).

(3.137) *Elurra maila baxuetan egin du* (900m-ra) eta tenperaturak hotzak. <http://aballarri.blogspot.com.es/>

(3.138) [...] *elurra 400 metrotik gora egingo du*.  
<http://www.eitb.com/eu/eguraldia/osoa/1253536/eguraldia-euskadin--euriam->

(3.139) Hala ere *izotza bart egin du*. EKC, *anonimoa*, Irakaslearen eskugarria (1868, 2004).

(3.140) *Euria*, baina, *erruz egin du* lurralde osoan. Esate baterako, Igeldon (Donostia).

[http://paperekoa.berria.info/harian/2013-02-01/012/001/urtarrilik\\_euritsuena\\_izan\\_da\\_toki\\_batzuetan\\_datua\\_k\\_daudenetik.htm](http://paperekoa.berria.info/harian/2013-02-01/012/001/urtarrilik_euritsuena_izan_da_toki_batzuetan_datua_k_daudenetik.htm)

Adibide horrek erakusten du, galdegaia ez ezik, *baina*<sup>29</sup> aurkaritzako lokailua tartekatzen dela izenaren eta aditzaren artean. Izena, hasieran eta pausa batez bereizten den osagai askea, mintzagai hanpatua da, adibide horretan modu askotara hanpatzen dena; perpausaren hasieran kokatuz, haren ondoren pausa eginez eta *baina* lokailuaren bitartez. Beraz, galdegaiaren testak ez ezik, lokailuaren testak ere egiaztatzen du [+*egin*] hurrenkeraren banaketa.

(3.141) *Euria etengabe egingo du ...* Arratsalde bukaerarako eta bereziki gauerako beste fronte bat iritsiko da eta euritara joko du. Haizea ere zakartuz joango da egunean

<http://baleike.com/eguraldia/2014/01/>

c) motako adibide horietan, galdegaia ez ezik, izenaren topikalizazioa dakusagu, hau da, I (mintzagai hanpatua) + galdegaia + A egituraz osatutako adibideak ditugu.

Laburbilduz, a) motako egiturari dagokion osagaien arteko lotura estua *elurra egin* aditz-lokuzioaz osatutako adibide bakar batean dakusagu. Aitzitik, b) eta c) motakoetan, [I+A] osagaien hurrenkera hautsi dela dakusagu, *euria egin*, *txingorra egin*, *elurra egin*, *izotza egin* eta *zirimiria egin* aditz-lokuzioez osatutako adibideetan. Beraz, aditz-lokuzio meteorologiko horiek guztiek erakusten dute [+*egin*] osagaien arteko lotura hautsi daitekeela, hots, osagaien jokaera sintaktiko askea.

---

<sup>29</sup> Jakina denez, *baina*, juntagailua edo lokailua izan daiteke. Adibide horretan testuingurua, eta ez perpausak, josteko erabiltzen denez, lokailua da.

Kopuru aldetik, nabarmenki ugariagoak dira osagaien arteko lotura estua erakusten ez duten aditz-lokuzio meteorologikoak, hurrenkera banaezina erakusten dutenak baino. Eta osagaien arteko lotura estua erakusten ez dutenen artean, ugariagoak dira gald + A + I hitz-ordena erakusten duten adibideak I + gald + A hitz-ordena erakusten dutenak baino eta maiztasunari dagokion bi ordena horien arteko desberdintasuna, atal hanpatuen kopuruan oinarrituz azal daitekeela esan dezakegu. Lehenago aipatu dugun moduan, zenbat eta atal hanpatu gehiago, egitura batean, orduan eta egitura bitxiagoa.

Laburbilduz, galdegaiaren testa aplikatuz atzeman ditugun aditz-lokuzioen jokaera sintaktiko nagusiak, hiru egitura mota hauetan bana daitezke eta mota bakoitzari ondorengo aditz-lokuzioak dagozkio:

1 MOTA.- [I+A] osagaien arteko lotura estua erakusten duten aditz-lokuzioak

2 MOTA.- [I+A] hurrenkeraren haustura erakusten duten aditz-lokuzioak

3 MOTA.- [I+A] osagaien jokaera bikoitza erakusten duten aditz-lokuzioak

1 MOTA.- [I+EGIM] LOTURA ESTUA:

*alde egin (aldegín), huts egin, hitz egin (hitzegin)<sup>30</sup>, leher egin, listu egin, aipu egin, argi egin, hanka egin, ospa egin, arnas(a) egin, hatz egin, desafio egin, iruzur egin, gogoeta egin, burrunba egin, murgil egin, solas egin, ele egin*

2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA:

*otoitz egin, tiro egin, deiadar egin, eztul egin, apustu egin, erregu egin, kalte egin, piper egin, salto egin, kaka egin, pixa egin, algara egin, min egin, agur egin, borbor egin, laztan egin, irrist egin, zurrut egin, jaramon egin, iseka egin, hasperen egin, irrintzi egin*

<sup>30</sup> *Hitz egin* aditz-lokuzioari dagokionez, haustura erakusten duen adibide bakarra topatu dugu eta lotura estua erakusten duen ordena nabarmenki nagusi denez, lotura estua erakusten dutenen artean kokatu dugu.

3 MOTAK.- [I+EGIM] OSAGAIEN JOKAERA BIKOITZA:

*ihes egin, hots egin*<sup>31</sup>, *arraun egin, txio egin, lo egin, estropezu egin, behaztopa egin, dei egin, barre egin, eztanda egin, so egin, berba egin, lan egin, porrot egin, topo egin, amets egin, talka egin, negar egin, aurre egin, zin egin, burla egin, bultza egin, barre egin, keinu egin, zintz egin, zurrut egin*

ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK:

2 MOTAK.- [I+EGIN] HURRENKERAREN HAUSTURA: *euria egin, txingorra egin, izotza egin, zirimiria egin*

3 MOTAK.- [I+EGIM] OSAGAIEN JOKAERA BIKOITZA: *elurra egin*

### 3.1.2. GALDERA-HITZA GALDEGAI GISA ETA [I+egin] HITZ-ORDENA

Galde-perpausak ezaugarri bereizgarriak dituzten unitate sintaktiko gisa har daitezke. Galdera mota desberdinak daudela aintzat hartuz eta galdera-egiturez osatutako adibideak oso ugariak direla kontuan hartuz, azpiatal bat eskaini diezaiekegu galde-perpasei.

Galdera-hitza<sup>32</sup> galderazko egituraren elementu garrantzikoena edo galdegaia da, euskal gramatika tradizionaletan oinarrituz, aditzaren aurreko posizioan kokatzen den atala<sup>33</sup>. Azpiatal honen helburua da, galdetzailea

---

<sup>31</sup> *Hots egin* lokuzioari dagokionez, urriak dira hurrenkeraren haustura erakusten duten adibideak.

<sup>32</sup> galdetzailea, Euskaltzaindia (1991a)

<sup>33</sup> Nz-hitza aditzaren aurrean kokatzen deneko fenomeno sistematikoki aztertu zuen lehena Altube (1929) dugu. Ondorengoak dira Eguzkitzaren (1987), Laka eta Uriagerekaren (1987), Uriagerekaren (1987), Ortiz de Urbinaren (1989), De Rijken (2008) eta Euskaltzaindiaren (1991a., 2011b) hausnarketak.

dugunean aditz-lokuzioaren osagaien jokaera aztertzea, horien kokapenaren arabera osagaien arteko loturari buruz ondorioak ateratzeko.

Galde-perpausak lokabeak nahiz menpekoak izan daitezke, jokatuak nahiz ez jokatuak. Test hau aplikatzean, galde-perpaus lokabeetan oinarrituko gara eta zati galderak aztertuko ditugu edo zer informazio eskatzen den zehazteko galdetzaile batez osatzen diren egiturak, Euskaltzaindia (1991a).

Ohar gaitezen, baiezko egitura iragankor arrunt batez eta galdera-hitz baten bidez osatutako galde-egituran, galdetzailearen eta aditzaren artean elementurik ageri bada, egitura ez gramatikala lortzen dugula, euskaraz<sup>34</sup>. Eta hala, adibide honen ez gramatikaltasuna, galdetzaile-aditz sekuentzia hautsi delako azal daiteke:

(3.142) \**Nork* liburua erosi du?

baina,

(3.143) *Nork* erosi du liburua?

(3.144) Liburua *nork* erosi du?

Osagarri zuzen funtzioa betetzen duen determinatzaile sintagmaz osatzen diren aurreko egitura iragankorretan *nork* galdetzaileaz hasten den galdera formulatzean, ezinbestekoa da galdetzailea aditzaren aurrean kokatzea. Beste hitzetan, o.z. funtzioa betetzen duen determinatzaile sintagma (*liburua* aurreko adibidean) eta *egin* aditza ezinbestez banatu behar dira, subjektuaz galdetzen dugunean.

Ildo beretik, galdetzailea aditzaren aurretik kokatu behar dela aintzat hartuz, o.z. funtzioa betetzen duen DS arruntaren eta aditzaren arteko derrigorrezko banaketan oinarrituz ematen du Oyharçabalek (2006: 799) galdera egitura iragankor arrunt hauen berri:

---

<sup>34</sup> Salbuespen gisa, ikus osagarri zuzenaren tartekatzea onartzen duten hiztunen adibideak Uriagerekaren lanean (1992).

(3.145) \*Nork etxea egin du han?

(3.146) \*Norekin etxea egin du Pellok?

Beraz, galdetzailea aditzaren aurretik kokatu ez delako azal ditzakegu galdera ez gramatikal horiek, o.z. funtzioa betetzen duen DS arruntaren eta aditzaren arteko derrigorrezko banaketa gauzatu ez delako, hain zuzen ere.

Egitura iragankor arruntetan galdera-hitza aditzaren aurrean kokatu behar dela ikusita, aditz-lokuzioen osagaien jokaeran murgilduko gara, galdera-hitza jokoan denean.

Aditz-lokuzioek jokaera desberdinak erakusten dituztela esan behar dugu, aurreko egitura iragankor arruntekin konparatuz. Izan ere, aditz-lokuzio hauez osatutako egiturak gramatikalak dira:

(3.147) Zerekin *amets egin* duzu?

(3.148) Norekin *lo egin* duzu?

Aipatu berri dugu galdera-hitza aditzaren aurretik kokatzen dela, oro har. Beraz, aditz-lokuzioez osatutako egitura gramatikal horiek bereziak direla esan behar dugu. Izenaren eta aditzaren arteko loturaren ondorioz osatzen den aditz konplexu bat dugula argudiatuz eman genezake aurreko egituren berri. Hala eta guztiz ere, gramatikalak dira *amets egin* eta *lo egin* aditz-lokuzioez osatzen diren beste egitura hauek ere:

(3.149) Zerekin *egin* duzu *amets*?

(3.150) Norekin *egin* duzu *lo*?

Jokaera bikoitza erakusten duten aditz lokuzioak ez ezik, badira, galdetzailea jokoan denean, osagaien arteko lotura estua erakusten duten aditz-lokuzioak ere, hala nola *hitz egin* eta *alde egin* aditz-lokuzioak eta hori bat dator aurreko testean ikusi dugunarekin.

Oyharçabali jarraituz, osagaien arteko lotura banaezina erakusten duten aditzetatik bereizten diren aditz-lokuzioak direlako azal genezake galdetzailea egitura hauetan izenaren aurretik agertu ahal izatea. Ildo beretik, osagaien arteko lotura estua dela eta azal genezake Lakak ez gramatikaltzat hartzen duen egitura hau, ([http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/p267-content/es/contenidos/informacion/grammar\\_euskara/en\\_doc/verb\\_morphology.html](http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/p267-content/es/contenidos/informacion/grammar_euskara/en_doc/verb_morphology.html)):

(3.151) \**Nork egin du alde?*

Horrelako adibiderik ez dugu *corpus*etan aurkitu eta hauxe da aukera gramatikal bakarra, *alde egin* aditz-lokuzioa dugunean:

(3.152) *Nork alde egin du?*

Aditz-lokuzioaren erabilera aditz-lokuzioaren arabera eta norberaren euskalkiaren arabera alda daitekeela aipatzen du Oyharçabalek (2006). Ekialdeko euskalkietako hiztunek, bereziki hiztun gazteek, ez dute arazorik osagaien arteko lotura estua erakusten duen egitura erabiltzeko eta horixe da, oro har, darabilten egitura<sup>35</sup>. Mendebaldeko eta erdialdeko euskalkietan, ordea, errazago onartzen dute hiztunek aditz lokuzioko osagaien hurrenkeraren haustura. Hala eta guztiz ere, mendebaldeko eta erdialdeko hiztunek ere lotura estua erakusten duen forma hobesten dute, esate baterako, *hitz egin* aditz-lokuzioa jokoan denean, eta hala, gramatikaltasun irizpideei dagozkien desberdintasun hauek atzematen ditu Oyharçabalek (2006: 800):

(3.153) *Zertaz hitz egin du Pellok?*

(3.154) ??*Zertaz egin du Pellok hitz?*

---

<sup>35</sup> Hauek dira Oyharçabalek (2006: 800) ematen dituen adibideak:

- (i) *Nork lo egiten du ohe horretan?*
- (ii) *Norekin lan egin du Pellok?*
- (iii) *Orain arras ongi lan egiten du.*

[I+egin] hurrenkera erakusten duen (3.153) egitura ohikoa eta gramatikala da; aitzitik, osagaien arteko banaketa erakusten duen (3.154) egitura, askoz ere markatuagoa da, eta horrelaxe islatzen du egituraren gramatikaltasuna zalantzan jartzen duen (??) ikurrak. Hau ere bat dator, aurreko testean ikusitakoarekin. *Hitz egin, alde egin, huts egin, leher egin*, eta abarrek, osagaien arteko lotura estua erakutsi dute, galdegaiaren testa aplikatuz lortu ditugun emaitzetan.

Inkorporazioaz aritu gara 2. kapituluan eta prozesu horretan oinarrituz, 4. kapituluan emango dugu jokaera bikoitza nahiz lotura estua erakusten duten aditz-lokuzioen azalpen teorikoa.

*Corpusetan* aurkitutako datuak izango ditugu irizpide, hurrengo lerroetan. Galdetzailearen kokapenari dagokionez, ohiko galderan nahiz zehar galderan<sup>36</sup>, bi jokaera nagusi atzeman ditugu *corpusetako* adibideetan oinarrituz, oraingoan ere:

Alde batetik, galdera-hitzari jarraituz, [I+egin] hurrenkera mantentzen duten aditz-lokuzioak aurkitu ditugu; galdera-hitza + [I+A] hitz-ordena, alegia.

Bestalde, [I+egin] osagaien hurrenkera hautsi dela erakusten duten aditz-lokuzioak topatu ditugu. Hurrenkeraren haustura erakusten dutenak dira ugariak eta hauen artean galdera-hitza + A + I hitz-ordena nabarmenki nagusitzen bada ere, I + galdera-hitza + A hurrenkeraz osatutako bi adibide topatu ditugu. Beraz, hauexek dira aurkitu ditugun hitz-ordenak:

a) **[I+egin] hurrenkera mantentzen duten aditz-lokuzioak:  
galdera-hitza + I + A**

b) **[I+egin] hurrenkeraren haustura erakusten duten aditz-lokuzioak:**

---

<sup>36</sup> Bi galdera mota horiek bereizteko arrazoi bakarra egituraren oinarritzen da. Ez dugu, beraz, aditz-lokuzioen jokabide berezirik espero, galdera zuzenak ez diren horietan.

**b.a) galdera-hitza + A + I**

**b.b) I + galdera-hitza + A**

**a)** [I+egin] hurrenkera mantentzen duten aditz-lokuzioen adibideak aurkeztuko ditugu jarraian, galdera-hitza + I + *egin* hurrenkera erakusten dutenak, alegia. I+egin+ galdera-hitza ordena erakusten duten adibideetan, ageriko aditzaren eta galdetzailearen artean pausa bat egiten dela argudiatuko dugu eta eten horren ondoren agertzen den galdetzaileari agerikoa ez den aditza jarraitzen diola. Beraz, sakonean galdera-hitza + I+ A hitz-ordena dugula esan dezakegu.

**a)** Galdera-hitza + I + *egin* hitz-ordena erakusten duten aditz-lokuzioez osatutako egitura hauek topatu ditugu *corpus*etan:

(3.155) *Zer hizkuntzatan hitz egiten zenuten?*, kanpina hizkuntza asko entzuteko leku egokia izan daiteke, egiaz. EPG, *Berria*, Euskal Herria saila, (2004/03/04).

(3.156) *Baina, norekin hitz egingen nuen?* EPG, *Paradisuko Almanaka*, Gianni Celati / Fernando Rey (2005: 58).

(3.157) *Zergatik hitz egiten diguzu Talesez?* EPG, *Loroaren teorema*, Denis Guedj / Jon Muñoz (EHU 2006: 32).

(3.158) *Non hitz egiten da euskaraz?*

<http://tatoeba.org/spa/sentences/show/941945>

(3.159) *Noiztik hitz egiten dugu euskaraz?*

<http://zuzeu.com/2011/12/03/euskararen-jatorria-enigma-europar-bat-2/>

Galdera-hitzez eta *hitz egin* lokuzioaz osatutako adibide ugari topatu ditugu, eta guztiek [I+egin] osagaien hurrenkera banaezina erakusten dute, aurreko testean atzemandako emaitzekin bat datorren jokaera.

(3.160) *Zergatik alde egin duzu isilka eta engainuz, niri ohartarazi beharrean?* Pozez eta kantuz agurtuko zintudan danbolina eta

zitara joz! EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Has 31,27.

- (3.161) *nork alde egin du?* Euskara Institutua. (EHU)  
[http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/grammar\\_euskara/en\\_doc/verb\\_morphology.html](http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/grammar_euskara/en_doc/verb_morphology.html)

Osagaien arteko lotura estua atzematen dugu, *alde egin* lokuzioa dugunean ere, aurreko testean ikusitako jokaerarekin bat datorrena. *Hitz egin* eta *alde egin* lokuzioei dagokienez, osagaiak bananduta agertzen diren egiturez osatutako galdera-egiturarik aurkitu ez izanak, osagaiak unitate bat osatzen dutela baieztatzeko datu esanguratsutzat har dezakegu.

- (3.162) *Eta orain esan behar didazu zertarako hots egin didazun edo zer?*

[http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/irradi-nobelak-fitxa?p\\_p\\_id=56\\_INSTANCE\\_0Hhd&p\\_p\\_lifecycle=0&p\\_p\\_state=normal&p\\_p\\_mode=view&p\\_p\\_col\\_id=column-1&p\\_p\\_col\\_count=1&groupId=10138&articleId=281864](http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/irradi-nobelak-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_0Hhd&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=281864)

- (3.163) *Nori hots egiten diozu?* EKC, *Lagun txar bat*, Badiola Abelino (1912).

- (3.164) *Baina, zergatik hanka egin?* - galdetu zion Ronek Harryri, haren kontaketa beldurgarria entzuten egon zen bigarren urteko neska-taldeak alde egin zuenean -. EPG, *Harry Potter eta sorgin harria*, J.K. Rowling / Iñaki Mendiguren (Elkar, 2000: 221).

- (3.165) *Non lan egiten du Mikelek?* Mikelek lantegi hartan lan egiten du.

<http://infestz.blogspot.com.es/2011/03/6-euskera-vocabulario->

- (3.166) *Zertarako lan egin proiektuen bidez?* <http://b06jardunaldiak2011.wordpress.com/2011/10/12/zertarako-lan-egin-proiektuen-bidez/>

- (3.167) *Nola eta norekin lan egingen du Nafarroa Baik Madrilen?* EPG, *Berria*, Euskal Herria saila, (2006).

*Lan egin* aditz-lokuzioari dagokionez, osagaien arteko lotura estua erakusten duten adibide ugari topatu ditugun arren, [+egin] hurrenkeraren haustura erakusten dutenak ugariagoak dira, jarraian aurkeztuko ditugun adibideetan ikusiko dugun moduan.

- (3.168) *Baina zuk galdetzen didazu: zergatik huts egiten dute?* EPG, *Hainbat idazlan*, San Agustin / Imanol Unzurrunzaga (Klasikoak, 2003: 200).
- (3.169) *Ezetz asmatu norekin topo egin dugun trenean?* EPG, *Harry Potter eta Azkabango presoak*, J.K. Rowling / Iñaki Mendiguren (Elkar, 2002: 90).
- (3.170) *Zer da otoitza? Noiz otoitz egin eta non? Ba al du garrantzirik otoitzak? Nola otoitz egin gaur egun? San Ignazioren otoitza nolakoa da?*  
<http://barandiaranetxeakoak.blogspot.com.es/2009/07/otoitza-san-ignazioren.html>
- (3.171) *Nork eramango auzitara zeuk sortutako nazioak hondatzeagatik? Nork aurre egingo zuri gaizkileak defendatzeko?* EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), JkD 12,12.
- (3.172) *Nola ihes egin?* EPG, *Loroaren teorema*, Denis Guedj / Jon Muñoz (EHU, 2006: 273).
- (3.173) *Nola igesegin?* - Goizeko ordu bietan Leizarango ibaiean *Santa Kruz apaiza*, Orixe (1929).
- (3.174) *Eta zergatik, zergatik, zergatik negar egin?* EPG, *Groenlandiako lezioa*, Bernardo Atxaga (Erein, 1998: 27).

(3.175) -*Nork zin egin zezakeen zerranda hura lurraren toles huts bat ez zenik?* EPD, *Tartarriarren basamortua*, Dino Buzzati / Josu Zabaleta (Alberdania-Elkar, 2010: 202).

Adibide horrek *zin egin* aditz-lokuzioaren osagaien arteko lotura estua erakusten du, galdera egituran. Mendeko perpausa jokoan denean ere emaitza berbera dakusagu, 3.5. azpiatalean ikusiko dugun moduan.

(3.176) *Eta nork ez du duda egiten?* EKC, *Gero*, Axular (1643).

Adibide horrek osagaien arteko lotura estua erakusten du, bai galderari dagokionez, baita ezezkoari dagokionez ere, partitiborik gabeko *duda* izenak islatzen duen moduan.

(3.177) *Norekin berba egin duk egunotan joan den asteko topaketa hartaz?* EPG, *Odolbilda*, Josu Landa (Susa, 2002: 60).

(3.178) *Gaur norekin amets egin duzu?*

<http://amaraberri.org/files/72mabe11.pdf>

(3.179) *zergatik oihu egiten duzu?* [http://blogs.arteleku.net/zehar/wp-content/uploads/2009/01/ziga\\_eu.pdf](http://blogs.arteleku.net/zehar/wp-content/uploads/2009/01/ziga_eu.pdf)

(3.180) *Nork barre eragiten dizu?*

<http://www.otamotz.com/txarli-lorenzo-094-alea/>

(3.181) *Zeren gainean juramentu egin beharko du?* ETC, *Maiatz, Gorrail azeria*, Mixel Thicoipé (2008).

(3.182) *Zergatik apustu egin dute hain basatiki autoaren alde, 30 urte hauetan, han-hemenka biribilguneak, aparkalekuak, saihebidetuek eta autobiak eginda?* ETC, *Berria*, iritzia, «Egurra bizikletei», Aitor Balbas Ruiz (2009-04-23).

Horiez gain, ugariak dira *corpusetan* topatu ditugun zehar galdera hauek<sup>37</sup>:

- (3.183) Berrogei urte geroago, matxismoa ez dago modan, eta emaztea beste norbaitekin joanez gero, senar zentzudunak egin beharreko galdera ez da *noiz edo norekin alde egin ote duen* emazteak, *zergatik* baizik.  
[http://www.eaj-pnv.eu/documentos/balorealdaketa\\_7218.html](http://www.eaj-pnv.eu/documentos/balorealdaketa_7218.html)
- (3.184) *Nola hitz egin* musika klasikoaz umeei. P. Charvet (2010), Editorial Nerea SA.
- (3.185) Badaki, noski, *nola lan egiten duten* postariak, eta badaki, ez dago dudarik, medikua da eta, gure urdailak *nola lan egiten* duen; baina liburuari dagokionez, hori ere ez daki. EPG, *Groenlandiako lezioa*, Bernardo Atxaga (Erein, 1998: 33).
- (3.186) Aipatu dugu *nola leher egin zuen*. Euskaltzaindiaren Hiztegia (2012).
- (3.187) *zergatik huts egiten duen* politikak aztertuko du “Miradas sobre el fracaso” topaguneak.  
[http://www.basqueresearch.com/upload/txostenak/E\\_4480\\_2012-01-24miradas-fracasoEu.pdf](http://www.basqueresearch.com/upload/txostenak/E_4480_2012-01-24miradas-fracasoEu.pdf)
- (3.188) “Podiumak *zergatik ihes egin duen* aztertu behar da”.  
[http://paperekoa.berria.info/kirola/2011-07-30/021/001/podiumak\\_zergatik\\_ihes\\_egin\\_duen\\_aztertu\\_behar\\_da.htm](http://paperekoa.berria.info/kirola/2011-07-30/021/001/podiumak_zergatik_ihes_egin_duen_aztertu_behar_da.htm)
- (3.189) Gaia kokatu eta zertxobait argitu ondoan, gure iritzia argudiatzeko Sakanako hizkuntza-datuei *nola so egiten diegun* erakus [...].

---

<sup>37</sup> Esan bezala, zehar galderak bereizteko arrazoi bakarra egiturazkoa izan da, halakoetan ez baita jokaera berezirik, lokuzioen jokaerari dagokionez.

<http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/590688AB-45C1-4F0A-88B7-848AFC942B3D/254786/FOLI0101000000550068.pdf>

(3.190) [...] hipotesi honek ez du azaltzen *zergatik aharrausi egiten dugun* bakarrik gaudenean.

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Aharrausi>

(3.191) Ez dakit *nola kontu egin nion* neure buruari. EPD, *Ez obeditu inori*, Mikel Peruarena (Susa, 2009: 116).

(3.192) LINDA: Orain ulertzen dut *zergatik garrasi egiten zenuen*:

«Beste pilota bat»

<http://www.armiarma.com/baroja/baro1605.htm>

Laburbilduz, galdera egitura horietan guztietan, [I+egin] osagaien arteko lotura estua dakusagu. [I+egin] unitate banaezina osatzen duten lokuzioen artean ditugu, *hitz egin, alde egin, hots egin, hanka egin, lan egin, huts egin, topo egin, otoitz egin, aurre egin, ihes egin, igesegin, negar egin, zin egin, duda egin, berba egin, amets egin, oihu egin, barre egin, leher egin, so egin, aharrausi egin, arraun egin, irrist egin, kontu egin, garrasi egin, juramentu egin eta apustu egin* aditz-lokuzioak, besteak beste. Hala eta guztiz ere, horietako batzuek jokaera askea erakutsi dute aurreko testean eta jokaera askea erakusten dutela ikusiko dugu jarraian; beraz, emaitzak laburbiltzen dituen tauletan, jokaera bikoitza erakusten dutenen artean kokatuko ditugu<sup>38</sup>.

---

<sup>38</sup> Badira, osagaien arteko lotura estua erakusten duten egituren artean, I + *egin* + galdera-hitza hurrenkeraz osatzen diren egitura jakinak, baina horien guztien berezitasuna da aditz-lokuzioaren eta galdera-hitzaren artean pausa bat egiten dela. Mota horretako adibideak urriak diren arren, ohikoagoak dira ahozko hizkuntzan hizkuntza idatzian baino. Ustezko elkarrizketa jakinetan aurki ditzakegu, elementu hanpatua aditz-lokuzioaren ondoren agertzeagatik bereiz daitezkeen egitura hauek, ekintza aurretik aipatu denean edo galdetzailea izan ezik gainerakoa ezaguna denean:

(i) *arraun egin norekin?* Politika neoliberalak argudiatzen dituztenekin? Gu ez goaz ontzi berean politika hauek egiten dituztenekin. <http://zuialde.wordpress.com/2012/12/19/arraun-egin-norekin/>

**b)** [I+egin] hurrenkeraren haustura erakusten duten aditz-lokuzioen artean bi hitz-ordena atzeman ditugu.

**b.a)** [I+egin] osagaien hurrenkera hautsi dela erakusten dute galdera-hitza + *egin* + I ordenaz osatzen diren eta ugariak diren egitura hauek:

(3.193) Luisa.- Behin baino gehiagotan joan izan zarete zuen “gizongai lerdin” horiekin egunak pasatzera. (Zorrotz) *Norekin egiten zenuen lo?*, Goenkale Corpusa, Txo wanted, Sek.:4.

(3.194) *Nola egiten duzu lo?* Takeshikun, [...].

<http://takeshikun.deviantart.com/art/Nola-egiten-duzu-Lo-167772242>

(3.195) *Zertaz egiten duzu barre?* EPG, *Ulenspiegelen elezaharra*, Charles De Coster / Koldo Izagirre (Elkar/Alberdania, 2007: 124).

(3.196) *Nola egin arrantza, igeri jakin gabe?* EPG, *Nire aitaren fusila*, Hiner Saleem / Juan Kruz Igerabide (Alberdania, 2004: 26)

(ii) *negar egin, zergatik?*

[https://www.google.es/search?q=negar+egin,+zergatik?&tbm=isch&tbo=u&source=univ&sa=X&ei=I9GqUs6dDvLK0AXg\\_IHYBA&ved=0CI0BELAE&biw=1024&bih=557](https://www.google.es/search?q=negar+egin,+zergatik?&tbm=isch&tbo=u&source=univ&sa=X&ei=I9GqUs6dDvLK0AXg_IHYBA&ved=0CI0BELAE&biw=1024&bih=557)

(iii) Imágenes de *negar egin noiz?*

[https://www.google.es/search?q=negar+egin+noiz?&sa=N&tbm=isch&tbo=u&source=univ&ei=d1jNUr\\_iOobP0QWYgoHIDg&ved=0CE0QsAQ4FA&biw=1024&bih=557](https://www.google.es/search?q=negar+egin+noiz?&sa=N&tbm=isch&tbo=u&source=univ&ei=d1jNUr_iOobP0QWYgoHIDg&ved=0CE0QsAQ4FA&biw=1024&bih=557)

(iv) *Irrist egin, nola?* EPG, *Gure etxeke kontuak*, Natalia Ginzburg / Fernando Rey (Igela, 2004: 38).

Beraz, adibide horiek ez dute galdera-hitza + I + *egin* hitz-ordenari dagokionez aldaketarik suposatzen, aipatu moduan, aditz-lokuzioaren eta galdera-hitzaren artean pausa bat dago eta galdetzailearen ondoren aditz eliptikoa dugu. Hurrengo adibidean, hizkuntza idatziari dagokiona, puntuazio ikurrak markatzen du aditzaren eta galdetzailearen arteko pausa:

(v) Ara iritxi zanean, bi minutu besterik etzan, etsaiak andik *aldegin* zutela. Norekin?

<http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/O/OrixeKruz012.htm>

Galdetzailearen ondoren bada, *aldegin* lokuzio eliptikoa dugu: *norekin aldegin zuten?*

(3.197) *Nork egin dizu min?*

<http://www.aisia.net/jolasak/igarkizun-jolasa/zorriarena>

(3.198) *Nori egin diozu irain eta iseka?* Egungo Euskararen Hiztegia:

<http://www.ehu.es/eeh/cgi/bila?z=2309&l=i>. *Elizen arteko Biblia*, 2 Erg, 19,22.

(3.199) *Zenbat aldiz egin duzu oka? Eta kaka?*

Ohar gaitezen galdera-egiturak ez ezik, aditz-lokuzioen koordinazioa ere badugula aurreko bi adibideetan. *Iseka egin* eta *kaka egin* aditz-lokuzioen kasuan, [I+egin] hurrenkeraren haustura ez ezik, izenaren jokaera sintaktiko askea dakusagu, galdera-egitura koordinatuetan.

(3.200) *Norekin egiten duzu amets?* Bertso eta olerkien hemeroteka. F.

Aire (1990). Egin argitalpena:

<http://www.armiarma.com/cgi-bin/urkiza/EBMODBER.pl?Bertso=2361>

(3.201) *Norentzat egiten duzu lan?*

<http://www.bagabigan.com/2010/06/norentzat-egiten-duzu-lan.html>

(3.202) *Jadanik urte bat daramagu Snaturi buruz hitz egiten: proiektuak, ekitaldiak eta beste hainbat gauza, baina non egiten*

*dugu lan?* <http://snatu.wordpress.com/2011/11/04/non-egiten-du-lan-snatu/>

(3.203) *Noren soroan egin duzu lan?* EPG, *Elizen arteko Biblia*,

Askoren artean (Idatz, 2004), DT 16,8.

Aurreko adibideetan *lan egin* aditz-lokuzioaren osagaien arteko lotura estua erakutsi dugun arren, azken adibide horren moduko asko aurkitu ditugu osagaien arteko banaketa erakusten dutenak. Horregatik, *lan egin* aditz-lokuzioa jokaera bikoitza dutenen taldean sailkatuko dugu.

(3.204) *Zenbatetan egiten digu irrist munduak?* Zuzenketa: Maldonadok

ez du irrist egin, baizik eta autoa gelditu egin zaiola [...].

<http://paperekoa.berria.info/iritzia/2012-05-13/004/002/zentzua.htm>

- (3.205) Anak erraldoiaren ondorengoak bizi dira bertan, altuera handiko jendea. Ezaguna duzue horiei buruzko esaera: "*Nork egin aurre Anaken ondorengoei?*" EPG, *Elizen arteko Biblia, Askoren artean* (Idatz, 2004), Dt 9,2.
- (3.206) Baina nola egin hegan, *nola egin ihes?* EPG, *Lur bat haratago*, Joan Mari Irigoien (Elkar 2000: 23).
- (3.207) Kauterizazioa amaitu ondoren, itzuli ginen eta honela esan zigun: "Koldar eta sinesmen gutxikook, *zergatik egin duzue ihes?*" EPG, *Asisko Frantzizko, Asisko Klara, / Askoren artean* (Arantzazu, 2002:724).
- (3.208) *Nork egiten du huts* lehen agintearen kontra? *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (2012: 215).
- (3.209) *-Zer dun, Justina? Zergatik egiten dun oihu?* - galdetu zuen Susana San Juanek. EPG, *Pedro Páramo*, Juan Rulfo / Juan Garzia (Ibaizabal, 2001: 120).
- (3.210) Kantu bat egiterakoan, *zeri egiten diozu so?*  
<http://www.gaztezulo.com/artikuluak/labrit-bizitzari-so>
- (3.211) *Noiz egingo dugu eztanda? Noiz bueltatuko digute geneukan bizitza?* <http://zuzeu.com/blogak/txo/tag/amorrua/>
- (3.212) *Nola egin otoitz* bizitza zehaztetik? *Nola egin otoitz* geure barru-barruko kontraesanetatik, berori geure egiari hutsegitea izan gabe. <http://www.asissarea.org/index.php/eu/lanerako-fitxak/i-zikloa/ii-blokea/68-6-otoitzaren-indar-aldatzailea>

*Irrist egin, aurre egin, ihes egin, huts egin, oihu egin, so egin eta otoitz egin* aditz-lokuzioek lotura estua erakutsi dutelako a.a) motakoen artean kokatu ditugun arren, azken adibideek agerian uzten dute osagaiak bana daitezkeela;

horregatik, joera bikoitza erakusten duten aditz-lokuzioen taldean kokatuko ditugu, horiek ere.

- (3.213) 1.500 urte baino gehiagoko patina batekin tapatuta daudela frogatuko balute, *zeini egin kaso?*

<http://zuzeu.com/2009/11/03/veleiako-misterioa-ezjakin-batek-ahal-bezala-kontatua-eta-4/>

- (3.214) *Zergatik egiten duzu juramentu zeure fedearen kontra mundutarrek bezala, zuk, alferrikako hitzak ez ezik, onak ere isilean gordetzen zenituen horrek?* EPG, *Asisko Frantzizko, Asisko Klara*, / Askoren artean (Arantzazu, 2002: 712).

*Juramentu egin* lokuzioak lotura estua erakutsi berri du; beraz, jokaera bikoitza erakusten duten aditz-lokuzioen taldean sailkatuko dugu.

- (3.215) *Nork egin du garrasi?* EPG, *Harry Potter eta sorgin harria*, J.K. Rowling / Iñaki Mendiguren (Elkar, 2000: 72).

- (3.216) *Baina zergatik egiten zuen ulu?* - *galdetu zuen* -. EPG, *On Camillo*, Giovanni Guareschi / Koldo Biguri (Ibaizabal, 2001: 318).

- (3.217) *Nola egin zenuen topo ilustrazioarekin?*

<http://www.argia.com/argia-astekaria/2258/maite-gurrutxaga>

- (3.218) *Zer ordutan egingo dute topo?*

[http://www.euskalnet.net/lauaizeta/matematika/problemak/ibilga\\_iluak.htm](http://www.euskalnet.net/lauaizeta/matematika/problemak/ibilga_iluak.htm)

- (3.219) *Baina, zertarako egiten dugu korrika?*

[http://www.beraunberri.hezkuntza.net/web/guest/inicio1?p\\_p\\_id=8&p\\_p\\_lifecycle=0&p\\_p\\_state=normal&p\\_p\\_mode=view&p\\_p\\_col\\_id=column-2&p\\_p\\_col\\_pos=1&p\\_p\\_col\\_count=4&\\_8\\_month=1&\\_8\\_day=1&\\_8\\_year=2013&\\_8\\_eventType](http://www.beraunberri.hezkuntza.net/web/guest/inicio1?p_p_id=8&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-2&p_p_col_pos=1&p_p_col_count=4&_8_month=1&_8_day=1&_8_year=2013&_8_eventType)

(3.220) *Zertarako egin barau*, Zuk ez ikustekotan? —dinoe—. *Zertarako zigortu geure burua*, Zu ez ohartzekotan?

<http://www.biblija.net/biblija.cgi?set=21&l=eu&pos=1&qall=0&idq=0&idp0=35&q=barau&qids=&f=11&step=20>

(3.221) Hasteko, *zertaz egingo duzu berba* maiatzaren 29ko hitzaldian?

<http://goiena.net/arrasate/1386609378710>

(3.222) *Nork egiten du bekatu* mandamentu onen kontra?

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/B/BerlainDotrina.htm>

(3.223) *Norekin egingo duzu dantza*?

<http://berbatik.blogspot.com.es/2008/09/norekin.html>

(3.224) *Zerk egiten dizu kalte*?

<https://www.google.fr/webhp?sourceid=chrome-instant&ion=1&espv=2&ie=UTF-8#q=nork%20egin%20dizu%20listu%3F>

Horiek ez ezik, zehar galdera hauek ere topatu ditugu, galdetzailea + *egin* + I hitz-ordena erakusten dutenak:

(3.225) Neronek dakit *zenbat bider egin dudan huts* hartu nuen bidean. Euskaltzaindiaren Hiztegia (2012: 215).

*Huts egin* aditz-lokuzioaren osagaien arteko lotura estua ikusi berri dugunez, jokaera bikoitza erakusten dutenen artean kokatuko dugu *huts egin* lokuzioa.

(3.226) Jakin nahiko nuke *zergatik egiten zieten errieta*. EPG, *Kontukaten*, Arantxa Iturbe (Alberdania, 2006: 16).

(3.227) Esadazu *zergatik egin duzun ihes* haienartetik eta guregana etorri. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Jdt 11,3.

(3.228) Eta aitak hasperen egin zuen, zeren desesperatzen hasia baitzen andaluzaren hitz-jarioarekin, eta zeren ez baitzuen hura baizik jakin nahi, zehatz-mehatz: *nola egiten zuen ehiza* tigre

hark. EPG, *Lur bat haratago*, Joan Mari Irigoien (Elkar, 2000: 207).

(3.229) *nork egin du negar* (ondo): galderetan.

<http://www.ueu.org/download/liburua/BMAILAKOIKASTAROA.pdf>

(3.230) *nahiko duzu jakin zergatik egiten dugun aharrausi* horrelakoetan, edo logale garenean.

[https://www.ibaizabal.com/uploads/documentos\\_pro/recursos/archivo-87.pdf](https://www.ibaizabal.com/uploads/documentos_pro/recursos/archivo-87.pdf)

**b.b)** I + galdetzailea + A ordena erakusten duten egitura gutxi batzuk ere topatu ditugu. Aurreko testetan oinarrituz, topiko kokapena onartuko duten kandidatuak dirudite, banaketa erakutsi duten lokuzioen izenak. Hona hemen, izena topiko kokapenean onartzen duen galdera:

(3.231) *Lo, nork egin du lo?*

<http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/54825.pdf>

Bi elementu hanpatuez osatzen den egitura hori, *nork* galdera-hitzaz (galdegaia) eta *lo* (mintzagaiaz) osatzen dena, mintzagai nahiz galdegai hanpatua izateagatik bereiz dezakegu *gald + A + I* hitz-ordenaz osatzen diren egituretatik.

Ez dugu espero osagaien arteko lotura estua erakutsi duten lokuzioen izenak topiko kokapenean agertu ahal izatea, eta hala, egitura honen ez gramatikaltasuna uler dezakegu:

(3.232) *\*alde, nork alde egin du?*

<http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/54825.pdf>

Aitzitik, I + galdetzailea + *egin* hurrenkera erakusten dute beste aditz-lokuzio huez osatutako zehar galderak topatu ditugu:

(3.233) [...] eta irribarre zabal batez gure argazki kamerak *klik noiz egingo zain*. [http://paperekoa.berria.info/plaza/2011-12-31/046/001/sonam\\_en\\_khangpa.htm](http://paperekoa.berria.info/plaza/2011-12-31/046/001/sonam_en_khangpa.htm)

(3.234) Zientzialariek *aharrausi zergatik egiten dugun* azertu dute. [https://www.ibaizabal.com/uploads/documentos\\_pro/recursos/archivo-87.pdf](https://www.ibaizabal.com/uploads/documentos_pro/recursos/archivo-87.pdf)

Adibide horien guztien bereizgarri litzateke, galdegai hanpatua ez ezik, mintzagaia ere hanpatua izatea.

Adibideek agerian utzi dutenez, galdetzaileaz osatutako egituretan ugariak dira aditz-lokuzioaren izenaren jokaera askea erakusten duten adibideak. Jokaera hori erakusten dute, *lo egin, barre egin, arrantza egin, min egin, irain egin, iseka egin, oka egin, kaka egin, amets egin, lan egin, irrist egin, aurre egin, ihes egin, huts egin, oiuhu egin, so egin, eztanda egin, otoitz egin, kaso egin, juramentu egin, garrasi egin, ulu egin, topo egin, barau egin, aharrausi egin, berba egin, bekatu egin, dantza egin, errieta egin, ehiza egin, ulu egin, negar egin, kalte egin* eta *klik egin* aditz-lokuzioek, besteak beste. Kasu horietan nagusitzen den ordena, beraz, *galdera-hitza + egin + I* dela dakusagu. Hala ere, nabarmentzekoak dira *I + galdetzailea + egin* hurrenkerak, *lo egin, klik egin* nahiz *aharrausi egin* aditz-lokuzioez osatutako mintzagai-galdegai motako galderetan (aurreko atalean azaldu dugu ordena horiei dagokien maiztasun desberdintasuna zertan oinarri zitekeen).

Jokaera bikoitza erakusten duten aditz-lokuzioak ditugu, besteak beste, *lan egin, huts egin, ihes egin, huts egin, topo egin, so egin, amets egin, oiuhu egin, barre egin, aurre egin, negar egin, irrist egin, aharrausi egin, berba egin, otoitz egin, juramentu egin* eta *garrasi egin*.

Azpimarratzekoa da, bestalde, esanahi bat bera duten hainbat aditz-lokuzioek jokaera sintaktiko desberdina erakusten duela. *Leher egin* aditz-lokuzioak, esate baterako, osagaien arteko lotura estua erakusten du adibide guztietan, *eztanda egin* sinonimoaz osatutako hainbat egituratan, ordea, ez dugu osagaien arteko

lotura estua atzematen<sup>39</sup>. Jokaera berbera atzematen dugu, *hitz egin* eta *berba egin* aditz-lokuzioen artean. Batak osagaien arteko lotura estua erakusten du (*hitz egin*), besteak, jokaera bikoitza (*berba egin*). Kasu horietan; beraz, semantikaren eta sintaxiaren arteko bat ez etortzea atzematen dugu.

### ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK

Gertakari meteorologikoei erreferentzia egiten dieten adibide hauek izenaren eta aditzaren arteko banaketa erakusten dute eta bi dira haustura erakusten duten egituren artean aurkitu ditugun hitz-ordenak:

**a) Galdera-hitza + [A + I]**

**b) I + galdera-hitza + A**

**a)** Galdera-hitza + A + I motakoen artean hauexek ditugu:

(3.235) *zergatik egiten du hotza, euria eta elurra* neguan? EPG, *Naturaren mintzoa*, Pello Zabala (Alberdania, 2000: 358).

**b)** I + galdera-hitza + A motakoen artean galdera eta zehar galdera hauek topatu ditugu:

<sup>39</sup> Sinonimotzat hartu ditugun lokuzioen osagai diren *leher* eta *eztanda* izenen arteko desberdintasunak nabarmenak dira, jokaerari dagokionez. *Leher* izenari dagokionez, Orotariko Euskal Hiztegian ez da *leher* izena, soilik, inon ageri, aditz-lokuzioan izan ez ezik eta izen moduan behin erabiltzen den agerraldian, *leherrak*, pluraleko forma ageri da:

(i) Othuruntza hunek eginaraziko daukan *leherrak* ez gaitu hilen.

Ugariak dira, ordea, izen horren agerraldiak *egin* aditzak jarraitzen dionean: *leher egin*, *leherrak egin*, *leher eta zapart egin*, *leher-zapart egin*, *leher gaizto egin*, eta abar.

*Eztanda* izenaren testigantza aditz-lokuzioan ugariagoa den arren; *eztanda egin*, *eztanda eragin*, *eztandak egin*, *eztanda gaizto egin*, eta abar; izena soilik ere agertzen da, XX. mendetik aurrera, Orotariko Euskal Hiztegiko adibide hauetan:

(ii) Kañoien *eztanda*

(iii) Algarazko *eztanda bat* izan zen

(iv) Ez dute *bonba-eztandarik* entzun

Beraz, *leher* eta *eztanda* izenek erabilera desberdina erakusten dutela ondoriozta dezakegu.

(3.236) *Euria, hotza, elurra*, noiz *egingo* ditu, ez bada orain negu betean?

[http://paperekoa.berria.info/agenda/2013-01-18/030/001/gurearen\\_aldean\\_haur\\_jolasa.htm](http://paperekoa.berria.info/agenda/2013-01-18/030/001/gurearen_aldean_haur_jolasa.htm)

(3.237) Gaur egun, eskiatzera joateko, *elurra noiz egingo ote duen* zain izaten dira. Elkarrizketa Pello Zabalari.

<http://www.euskonews.com/0066zbk/elkar6601eu.html>

Aipatu behar dugu, ez dugula, test honi dagokionez, [I+A] osagaien arteko lotura estua erakusten duen adibiderik aurkitu. Beraz, jokaera askea erakusten duten izen horiek guztiak sintaktikoki aktiboak direla esan dezakegu, semantika mailan, unitate konplexua osatzen badute ere. [I+egin] hurrenkera hautsi dela erakusten dute, berriro ere, *hotza egin, euria egin, eta elurra egin* lokuzioek.

Laburbilduz, galdera egituran oinarritzen diren emaitzak bat datoz aurreko testean lortu ditugun emaitzekin. Galdetzailea jokoan denean ere, bi hitz-ordena nagusi atzeman ditugu aditz-lokuzioez osatutako egituretan; osagaien arteko lotura estua nahiz hurrenkeraren haustura erakusten duten hitz-ordenak. Hala eta guztiz ere, ikusi dugu badirela aditz-lokuzio batzuk, jokaera bikoitza erakusten dutenak, hau da, osagaien arteko lotura estua nahiz haustura.

Haustura edota jokaera bikoitza erakusten duten aditz-lokuzioen adibideak ugariagoak dira hurrenkera banaezina erakusten duten aditz-lokuzioena baino.

Jokaera bikoitza erakusten duten aditz-lokuzioei dagokienez ere, ondorio berbera atera dezakegu, Petrirenak esandakoari jarraituz (2011): *gald + A + I* hitz-ordena dugunean galdegaia argiago markatzen dela esan dezakegu *Gald + [I+A]* hitz-ordena dugunean baino. Beraz, izenaren kokapenak galdegaiarekiko ba du eragina.

Eta haustura erakusten duten aditz-lokuzioen artean ere, bi hitz-ordena topatu ditugu; batetik, *gald + A + I* hitz-ordena eta, bestetik, *I + gald + A*

hitz-ordena, mintzagai-galdegai egituraren isla dena. Aipagarria da, bestalde, aditz-lokuzio meteorologikoen artean haustura dela aukera bakarra.

Laburbilduz, hiru azpitaldetan banatuko ditugu aurkeztutako aditz-lokuzioak, hiru jokaera moten isla direnak:

1 MOTA.- [I+EGIN] LOTURA ESTUA:

*hitz egin, alde egin, hots egin, hanka egin, duda egin, leher egin, arraun egin, kontu egin, zin egin, apustu egin*

2 MOTA.- [I+EGIN] HURRENKERAREN HAUSTURA:

*lo egin, arrantza egin, min egin, irain egin, iseka egin, oka egin, kaka egin, eztanda egin, kaso egin, garrasi egin, ulu egin, barau egin, bekatu egin, dantza egin, kalte egin, errieta egin, ehiza egin, klik egin*

3 MOTA.-JOKAERA BIKOITZA:

*lan egin, huts egin, ihes egin, huts egin, topo egin, so egin, amets egin, oihu egin, barre egin, aurre egin, negar egin, irrist egin, aharrausi egin, berba egin, otoitz egin, garrasi egin, juramentu egin*

ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK:

2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA: *hotza egin, euria egin, elurra egin*

### **3.1.3. ADITZA GALDEGAI GISA ETA ZER EGIN DU? GALDERARI ERANTZUNAK**

Euskaltzaindiak (1991a) dioenez, zati galderari ematen diogun erantzunean, galdetzailaren lekuan ipintzen den informazioa da galdegaia. Eta hala, euskaraz, testuinguru baten ekintzari buruz galdetu nahi dugunean, *Zer egin du?* galdera formula dezakegu - *Zer gertatu zaio?* ere galde daiteke,

(Euskaltzaindia 1991a: 18)- eta lortzen dugun erantzuna, aditza, galdegaia izango da.

Aditzak adierazten duen ekintza galdegaia dela markatzeko *egin* fokalizatzailea<sup>40</sup> erabiltzen dugu, euskaraz, aditz perifrastikoaz osatutako egituretan<sup>41</sup>. *Egin* fokalizatzailea partizipioaren ondoren kokatzen da, ezinbestez, egitura iragankor arrunt hauetan ikus dezakegun moduan:

(3.238) Zer egin du Mikelek? *irakurri egin du*

gald.

(3.239) *Erosi egin nuen* bada Balkans, la crise izeneko liburua. EPG, *Europako mugetan barrena*, Edorta Jimenez (Txalaparta, 2000: 85).

(3.240) Behar duten denbora guztia luzatuko dituk, baina *ekarri egingo diate*, azkenean. EPG, *Loroaren teorema*, Denis Guedj / Jon Muñoz (EHU, 2006: 454).

Aditza perpaus hasieran ipintzea da aditza galdegaia dela adierazteko beste modu bat, Euskaltzaindia (1991a: 18):

(3.241) *Hil da* gure aita

Hala eta guztiz ere, *egin* erabili ohi den euskalkietan, aditzaren azken modu horrek denbora zentzua gehitzen du hainbat kasutan:

---

<sup>40</sup> *Egin* aditz laguntzailearen erabilera aipatzen du Euskaltzaindiak, (Euskaltzaindia 1991a: 18).

<sup>41</sup> Aditza trinkoa denean, ordea, Bizkaieraz salbu, ez dago bereizterik noiz den galdegaia aditzak adierazten duen ekintza bera eta noiz baieztapena (edo ezeztapena), Euskaltzaindia (1991a: 19):

(i) *badator* gure aita (edo) *ez dator*

Bizkaieraz, ordea, galdegaia aditzak adierazten duen ekintza dela adierazteko, aditza errepikatu egiten da:

(ii) *etorri dator*

Adibide horrek *dagoeneko hil da* denborazko zentzua du; beraz, ez litzateke *zer gertatu zaio?* galderaren erantzuna, (Euskaltzaindia 1991a: 18). Adibide horretan ekintzaren baieztapena litzateke galdegaia, aditzak adierazten duen ekintza bera baino areago<sup>42</sup>.

Aditz-lokuzioaz osatutako egitura dugunean ere, *zer egin du?* galdera aplikatu diezaiokegu lokuzioari eta lortzen dugun erantzuna aztertu. Berriz ere, aditz-lokuzioei dagozkien bi jokaera bereiz ditzakegu, test horretan oinarrituz.

Alde batetik, osagaiak banaezinak direla erakusten duten lokuzioak aurkitu ditugu (a)), eta kasu hauetan bi *egin* ageri dira egituran. Bestetik, osagaien arteko jokaera askea erakusten duten lokuzioez osatutako adibideak topatu ditugu (b)):

**a) [I+A] osagaien arteko lotura estua erakusten dutenak**

**b) [I+A] osagaien arteko lotura askea erakusten dutenak**

**a)** Osagaien arteko lotura banaezina erakusten duten adibideei dagokienez, hauek aurkitu ditugu:

(3.242) Txerriaren hiletan izan ondoren, HUNBERTO Bogara sartzera doa. Atzeragotik dator DON LUIS eta *hots egin egingo* dio tabernara sartu aurretik. Goenkale korpusa, 1726 atala, Pistola jokoa, Sek.: 13.

(3.243) Beldurragatik - hala dio Montaignek - estandarte zuriak gorritzat hartzen dira; beldurragatik bizia kentzen da, bizia galtzen da; beldurragatik isildu egiten gara, beldurragatik *hitze gin egiten* dugu; beldurragatik egiten ditugu, koplak dioen bezala, hamar

---

<sup>42</sup> Aditzak adierazten duen ekintzaren baieztapena galdegai denean, beste aukera bat da, aditza perpausaren barnean badoa, aurreko ataletik berezirik ahoskatzea:

(i) gure aita / hil da

gauzatatik hiru, edo hiru eta erdi. EPG, *Groenlandiako lezioa*, Bernardo Atxaga (Erein, 1998: 140).

(3.244) Lagunek *aldegin egin* dute, desagertu egin dira, galdu egin dituzte eta nolakoa den, zer duen atsegin eta zer jasanezin, nolako asmoak dituen, zer Txiliku, Jesus Mari Olaizola (1995), Elkar <http://zarauzkoidazleak.org/?l=Txiliku17>

(3.245) Estatu Batuek aipatutako base hori ezarri zuten Thulen, oso base handia, munduan dagoen handienetakoa, eta bertako hegazkinek egiten zuten zarata zela eta, hartz txuri eta mortsek *aldegin egin* zuten handik. EPG, *Groenlandiako lezioa*, Bernardo Atxaga (Erein, 1998: 29).

Adibide horietan *egin* fokalizatzailearen erabilera dakusagu, *alde egin*, *hitz egin* edota *hots egin* lokuzioak galdegaiak direla markatzeko; beraz, [I+A] osagaien hurrenkera banaezina. [I+egin] osotasunak, predikatu moduan funtzionatzen du eta *zer egin du?* galderaren erantzuna, [I+egin]<sub>A</sub> unitate konplexua da, galdegai gisa *egin* laguntzaile fokalizatzaileaz markatua<sup>43</sup>.

---

<sup>43</sup> Bergarako euskarari, *alde egin* aditz-lokuzioaren erabilera berezia atzeman daiteke. Izan ere, aipatu berri dugun *alde egin* aditz-lokuzioaren kontrako jokaera erakusten dute hurrengo adibideek, non *alde* izenak soilik, aditz konplexuaren esanahia ordeztzen duen:

(i) Mikelek *alde egin* dau

(ii) Zer egin dau? alde

(iii) *Aldeko* dau (*alde egingo du*), B. Araiztegiren ahozko komunikazioa.

Bergarako Euskara Hiztegia ere aipatzen da *alde* izena soilik erabil daitekeela, (<http://www.bergarakoeuskara.net/hiztegia/letra/A?from=380>):

alde eĩn (a). du aditza. ALDE separarse, alejarse. *Etzetik alde eindda dago aspalditxuan*. ALDE.

(b). du *ad*. Normalean *eginekin* esaten bada ere, gabe ere entzun daiteke. *Ointxe alde dau zure amak./ Uberatik aldeta dare portuguesak*.

*Aldetzen eta aldeko* ere bai: *Ildakotik derrepente aldetzen dau zorrixak. Mertz. / Zu ildda bazare, ero ni ildda nauela, zorrixak badauzkatzu, derrepente aldeko dabe. Mertz./ Itxekonal alde zeben du ezkondu baiño zeoze lentxuao. Jjp. ÁLDE ÉMENDIK!* (a). interjekzioa. Kendu hemendik, fuera hemendik. Ik. Alde!

**b) Zer egin?** galderari erantzuten dioten adibide hauetan, ordea, ez dira bi *egin* ageri, bakarra baizik. Egin bakar bat agertzeak, aditz-lokuzioaren osagaien jokaera sintaktiko askean pentsatzera garamatza, aditzak adierazten duen ekintza galdegaia dela ulertzen dugun egitura hauetan:

(3.246) MARIA LUISA.— Ondo? *Zer egin zuen ba? Usain egin*, tragotxo bat jo, *usain egin*, beste tragotxo bat... memeloa halakoa! Goenkale Corpusa, 1043 atala, "Txiki, txiki, txikia", Sek.:4.

(3.247) Poliziako gizon berriaren izena irakurtzean, *ikara egin zuen* Franklin jaunak. EPD, *Ilargi-harria*, Wilkie Collins / Antton Olano (Elkar-Alberdania, 2008: 170).

(3.248) IRATXE.— *Zer egin dudan? Lo, lo eta lo*. Goenkale Corpusa, 551 atala, Orain badakit gorrotoa zer den, Sek.:2.

*Egin* aditz arin eliptikoaz osatzen den egitura koordinatu kopulatibo horrek erakusten du, batetik, *lo* izenak, soilik, *lo egin* aditz-lokuzio osoaren adiera ordeztzen duela. Aipagarria da, *egin* fokalizatzailezik ez dela ageri, adibide horretan. Aditz-lokuzio horiei dagokienez, ez dugu \**usain egin egin*, \**ikara egin egin*, \**lo egin egin* edo motako egiturarik aurkitu eta horrek lokuzioen artean desberdintasunak badirela egiaztatzea garamatza.

Galdegaia aditzak adierazten duen ekintza dela erakusten duten adibideak ez ezik, galdegaia ekintzaren baieztapena dela adierazten duten adibide hauek aurkitu ditugu, non aditza perpausaren hasieran agertzen den:

(3.249) *Alde egin zuen* Joabek Davidengandik eta mandatariak bidali zituen Abnerren ondoren. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Sm, 3,26.

(3.250) *Hitz egin* bai, beraz, baina ez prozesu politikoak abiatzeko helburuz. EPG, *Berría*, Euskal Herria saila, 2004, 2006, Imanol Murua Uria (2004-02-01).

- (3.251) *Barre egin genuen* denok. EPG, *Soinujolearen semea*, Bernardo Atxaga (Pamiela, 2003: 80).
- (3.252) *Aurre egin zieten* etsaien gudarosteei eta atzera eragin arerioei. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Jkd 11,3.
- (3.253) *Txalo egin genuen* denok. EPG, *Baina bihotzak dio*, Xabier Montoia (Elkar, 2002: 29).
- (3.254) *Tiro egin zuen* munizioa ahitu zitzaion arte, gero aihotzaz, *facão delakoaz*, defenditu zen. Pentsamenduaren Klasikoak *corpusa*, *Tropiko tristek*, Claude Lévi-Strauss / Jon Alonso (2009: 354).
- (3.255) *Bultza egin diote*, nonbait, eta nola bultza! EPG, *Urregilearen orduak*, Pako Aristi (Erein, 1998: 238).
- (3.256) Sakonera handiko leize batean gaude, eta Alainen« oeoeeoeeoooo...» ozen eta luze entzun da; *burrumba egin dute hormek*. ETG, *Berria*, Gaiak, «Uraren indarra neurtzen», Idoia Etxeberria (2006-07-27).

Aditzaren baieztapena galdegai den egitura horietan guztietan [I+egin] hurrenkera dakusagu eta ez dugu haustura erakusten duen hitz-ordenarik topatu.

Aditz-lokuzio meteorologikoei dagokienez, *zer eguraldi egingo du?* galderaren erantzun gisa *egin* bakarra agertzen dela dakusagu adibide honetan:

- (3. 257) Lasaitu zaitetz, Hortentsi, *ekaitza egiteko* itxura guztiak ditu eguraldiak, terrazaren kafetegia txikiegia da. Goenkale *Corpusa*, 970 atala, Infernutik heldutako gutuna, Sek.:11.

Hurrengo adibideetan, aditz-lokuzioaren osagaiek ordeztzen dute, soilik, [I+egin]<sub>A</sub> lokuzio osoaren esanahia. Izan ere, *zer eguraldi egingo du*

*santelmotan?* galderaren erantzun gisa, izen eliptikoaz osatutako egitura topatu dugu:

(3.258) Zer eguraldi egingo du santelmotan? [...] Astelehenean hodeiak nagusituko dira zeruan, baina euri aldetik ez da gehiegi espero. Egitekotan gau aldera *egingo* luke.

<http://baleike.com/2011/04/27/Zer-eguraldi-egingo-du-santelmoetan/>

Adibide horretan *egin* aditz arinaren jokaera sintaktiko askea dakusagu, non *euria* izena eliptikoa den. Osagaiak unitate estu bat ez osatzea bat dator, kasu horretan \**euria egin egin* egitura ez existitzearekin.

Laburbilduz, *zer egin du?* galderaren erantzunean oinarrituz edo aditzak adierazten duen ekintza galdegaia den egituretan oinarrituz, bi jokaera nagusi bereiz ditzakegu. Batetik, osagaien arteko lotura estua erakusten duten aditzen jokaera atzeman dugu, *egin* fokalizatzailea hartzen duten aditz-lokuzioena, eta aurreko testetan lotura estua erakutsi duten *hots egin*, *alde egin* eta *hitz egin* aditz-lokuzioak dira hurrenkera banaezinaren erakusle. Bestetik, *egin* bakar batez edo izenaz, soilik, osatzen diren egiturak topatu ditugu, hala nola *usin egin*, *ikara egin* eta *lo egin* aditz-lokuzioez osatutako egiturak, baita, salbuespen moduan, *alde* izenaz, soilik, osatzen dena, Bergarako euskaran. *Alde* izenak ez ezik (Begarako euskaran), *lo* izenak ere, izenaren eta aditzaren arteko lotura semantikoaren ondorio den egitura konplexua ordeztu dezakeela ikusi dugu. Baina, jokaera aske hori ezinezkoa da *hots*, *hitz* eta beste hainbat izen jokoan direnean, izen horiek *egin* aditzarekin unitate estua osatzen dutelako.

Beraz, aurreko testetan atzemandako emaitzak egiaztatzen dira test honetan oinarrituz ere eta bi jokaera bereiz ditzakegu, aditz-lokuzioen arabera. *Hitz egin*, *alde egin* eta *hots egin* aditz-lokuzioek osagaien arteko lotura estua dela egiaztatzen dute eta *egin* fokalizatzailea hartzeagatik bereizten dira. Beste aditz-lokuzio batzuek, osagaien jokaera askeagoa erakusten dute; *usain egin*, *lo egin*, *ikara egin*, *euria egin*, *ekaitza egin*, eta abar:

1 MOTA.- [I+EGIM] LOTURA ESTUA: *hitz egin, alde egin*<sup>44</sup>, *hots egin, barre egin, aurre egin, txalo egin, tiro egin, bultza egin, burrunba egin*

2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA:

*usain egin, ikara egin, lo egin, euria egin eta ekaitza egin*

### 3.2. PARTITIBOA

Hizkuntzalarien iritziak ez datoz bat partitiboa definitzeko orduan. Alde batetik, partitiboa determinatzaile moduan kontsideratzen duten hizkuntzalariak ditugu. Larramendik (1729), adibidez, artikulu mugagabetzat hartzen du partitiboa. Larramendiren ustez, ezezko artikulua absolutiboz erabil daiteke, soilik. Azkuek (1905) Larramendirekin bat dator eta partitiboa ezezko artikulua gisa deskribatzen du. Lakak (2000) determinatzaile polar gisa deskribatzen du partitiboa. Sareko Euskal Gramatikan, halaber, partitiboa determinatzaile gisa deskribatzen da. Iritzi berekoak dira gramatikari garaikide gehienak, hala nola Trask (2003) eta Goenaga (2009). Traskek (2003: 124) dio partitiboa ezin daitekeela kasutzat hartu, ezin baitzaio determinatzailea daraman izen sintagma bati erantsi (a). Partitiboa determinatzailetzat hartzen du, nahiz eta berezia dela dioen, ezin baitu bere ondotik beste inongo kasu-markarik jaso (b):

- a) \*egunkari-a-rik vs. egunkari-a-Ø, egunkari-a-k, egunkari-a-ri
- b) \*egunkari-rik-i

Beste hizkuntzalari batzuek, ordea, kasu-markatzat hartzen dute partitiboa. De Rijkek (2008) o.z. funtzioa betetzen duen argumentu sintaktikoarekin identifikatzen du partitiboa eta partitiboa onartzen duen sintagmaren mugagabetasuna aipatzen du. Lafittek (1944) euskarazko beste hamabi kasuen artean aipatzen du partitiboa. Euskaltzaindiak (1991a) absolutu kasuaren

---

<sup>44</sup> Bergarako euskara, salbuespen.

baliokidetzat hartzen du, partitibo kasua<sup>45</sup>. Euskal gramatikariek ez ezik, Bellettik (1988) ere berezko kasu hori osagarri zuzenei murrizten zaiola aipatzen du.

Hizkuntzalarien definizioak definizio, partitiboa, euskaraz, absolutiboz markatzen diren argumentuetan ageri dela baieztatu dezakegu, inoiz ez datiboz markatzen diren argumentuetan ezta ergatiboz markatzen direnetan ere<sup>46</sup>. Gauzak horrela, ezezko egituren partitiboz markatzen ez den izen arrunt absolutiboa agertzeak izen horretaz hausnartzera garamatza, bereziki partitiborik gabeko izena denean aukera gramatikal bakarra, hainbat aditz-lokuziotan gertatzen den moduan. Horregatik, aditz-lokuzioaren bereizgarritasun gisa azal dezakegu, ezezko egituren partitiborik gabeko izen arrunta agertzea<sup>47</sup>, horrela gertatzen denean. Bereizgarritasun hori, bestalde, aditz-lokuzioak egitura iragankor arruntetatik bereizteko argudioa izan daiteke, ezezko egitura iragankor arruntetan, izen mugagabea eta irakurketa generikoa duen izena, partitiboz markatzen baita ezinbestez. Horrez gain, partitiboa irizpide baliagarria izan dakiguke, lokuzioen artean desberdintasunak antzemateko (jokaera desberdinak atzematen badira).

Lehenik eta behin, aditz iragankor arrunt batez osatutako ezezko egitura aurkeztuko dugu, irakurketa generikoa duen izen batez osatzen dena, eta aditz-lokuzioaz osatutako egiturekin konparatuko dugu:

---

<sup>45</sup> «Euskal gramatiketan kasu autonomotzat jo izan baldin bada ere partitiboa, badirudi absolutu kasuaren azpian landu beharko genukeela, haren baliokidea baitugu berez», (Euskaltzaindia 1991a: 275).

<sup>46</sup> Partitiboaren erabilera nor/zer sintagmari murrizten zaio eta partitiboa duen nork edo nori sintagma ez da posible:

(i) \*Gizon-ik ez du hori esan

(ii) \*Ez diot hori lagunari-rik eman

<sup>47</sup> Partitiboa ezezko egituretan ez ezik, galdera egituretan, egitura kontzesiboetan, aginte egituretan, baldintzazko egituretan, eta abar, ager daiteke. Baita baieztatu egituretan ere, sintagmari indar enfatikoa eman nahi diogunean, Euskaltzaindia (1991a).

(3.259) Mikelek ez du libururik irakurri

(3.260) \*Mikelek ez du liburu irakurri

Azken aurreko ezezko egituran, osagarri zuzen funtzioa<sup>48</sup> betetzen duen eta adiera generikoa duen nor IS mugagabea, partitiboaz markatzen da, ezinbestez. Partitiborik gabeko izen hutsak, ordea, ez gramatikaltasuna dakar azken ezezko egituran.

Hainbat aditz-lokuziotan, ordea, izen arrunta partitiborik gabe agertzeaz gain, partitiborik gabeko egitura da aukera gramatikal bakarra, esate baterako, *alde egin* edo *hitz egin* aditz-lokuzioez osatzen diren ezezko egitura hauetan:

(3.261) Hegoak ebaki banizkio, nirea izango zen, ez zuen *aldegingo*.

[http://www.museochillidaleku.com/seminario/resumen/3\\_Cancion\\_Txoria\\_Txori\\_de\\_Mikel\\_Laboa.pdf](http://www.museochillidaleku.com/seminario/resumen/3_Cancion_Txoria_Txori_de_Mikel_Laboa.pdf)

(3.262) Eta Jaunak erantzun zidan: "Nire izenean gezurra ari dira esaten profetak. Ez dira nik bidaliak; ez diet ezer agindu, ez *hitzezin* ere. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Jr 14.14.

Euskal Gramatika Laburrean (2002: 203) aipatzen denez, aditz-lokuzio guztien lexikalizatzeko maila ez da berdina. Zenbait kasutan ezin dira [I+A] osagaiak bereizi, besteetan bai, eta, partitiboaz osatutako egitura hauek proposatzen dira desberdintasun hori erakusteko:

(3.263) ez du *negarrik egin*

(3.264) ez du *minik hartu*

baina,

---

<sup>48</sup> Subjektua partitiboz markatua agertzen den egitura ez gramatikala da. Egitura iragankor arruntaren izen sintagma ergatiboak (subjektuak) ez du partitiborik onartzen eta ez gramatikaltasun hori partitiboa absolutu kasuarekin identifikatzen duen teoriarik oinarrituz azal daiteke:

(i) \*Mikelik ez du liburua irakurri

(3.265) \*ez du *alderik egin*

Azken horren ordeaz beste egitura hau erabili behar da, ezinbestez:

(3.266) ez du *aldegin*

Euskaltzaindiak (1997: 44) ere \**alderik egin* egitura ez gramatikalaren berri ematen du, egitura hori esapide ihartutzat hartuz.

Azkaratek (1990), Michelenak (1977: 249) darabilen partitiboaren irizpidea baliatzen du aditz esapideak aditz elkartuetatik bereizteko. Michelenak (1977) adierazten duenez, aditz-lokuzioen izenek ezezkoetan partitiboa hartzen dute behin baino gehiagotan, eta hala, aditz elkartuen izenetatik bereizten dira. *Pauso eman* aditz esapideaz osatutako adibide hau ematen du Azkaratek (1990: 411):

(3.267) «*etzan emango pausorik*» (Kantari Nator, 3)

Horrez gain, "graduak" aipatzen ditu Mitxelenak partitibo atzizkiaren erabileraz hitz egiten duenean, (Michelena 1977: 274-275):

«*Está claro que en esto tiene que haber grados según los casos, los tiempos y los lugares. Así en la forma de hablar a que estoy acostumbrado, ez du amorerik eman "no ha cedido" sería posible aunque seguramente menos corriente que ez du amor eman. Pero, con aldegin "marcharse" (es decir, alde egin, cf. la relación de lat. proficiscor con facio), ez du alderik egin, más que agramatical, sería ininteligible. En otras palabras, se le asignaría o se le trataría de asignar algún sentido distinto de "no se ha marchado"».*

Partitiboa onartzen duten aditz-lokuzioak ez ezik, esapide ihartuak ere badirela aipatzen du Azkaratek (1990), eta hala, egun ihartutzat jotzen diren *alde egin*, *hitz egin*, *hots egin* eta besteak partitibo markarik hartzen ez dutela aipatzen du.

Aipamen horietan oinarrituz eta partitiboaren erabilerari dagokionez, aditz-lokuzioen arteko desberdintasunak atzematea espero dezakegu. Eta hala,

*corpusetan* topatu ditugun adibideetan oinarrituz, lokuzioen jokaerak aztertuko ditugu lerro hauetan. Partitibodun izenaz osatzen diren egitura gehienak ezezko egiturak diren arren, partitiboaz markatzen diren izenez osatutako bestelako egiturak ere aintzat hartu ditugu. Hala nola galdera-egiturak, egitura kontzesiboak, *egin gabe / egin ezean* motakoak, *ezin izan* eta aditz-lokuzio ez jokatuaz osatzen diren egiturak, eta abar.

Partitiboa onartzen duten eta partitiborik onartzen ez duten aditz-lokuzioak topatu ditugu *corpusetan*, eta hala, hauek dira partitiboaren arabera osagaien hurrenkerari dagozkion aukera nagusiak:

**a) Partitiborik gabeko aditz-lokuzioak, [I+egin] osagaien hurrenkera erakusten dutenak.**

**b) Partitiboaz osatzen diren aditz-lokuzioak edota [I+egin] lotura estuaren haustura erakusten dutenak:**

**b.a) [I + part] + A hitz-ordenaz osatzen diren egiturak.**

**b.b) A + [I + part] hitz-ordenaz osatzen diren egiturak.**

**a)** Lehenik, aurreko testetan [I+egin] osagaien arteko lotura estua erakutsi duten aditz-lokuzioez osatutako partitiborik gabeko adibideak aurkeztuko ditugu. Hala nola *alde egin, hanka egin, ospa egin, hitz egin, hots egin* eta *murgil egin* lokuzioez osatutakoak:

(3.268) Irten zinenean ere ez zenuen oraindik *aldegin*, alboko gelan ibili zinen zerbaitetan, argazkiak ateratzen edo. EPG, *Putzu*, Txillardegi (Elkar, 1999: 274).

(3.269) Inork ez *likek hanka egingo*. EPG, *Bederatzietatik bederatzietara*, Leo Perutz / Anton Garikano (Alberdania-Elkar, 2003: 131).

(3.270) -Putakumea, *ez dik hanka egiten!* EPD, *Paradisua*, Arrate Egaña (Elkar, 2012: 41).

(3.271) Eta ron botilak ez *diten* bakarrik *ospa egiten*! Goenkale Corpusa, 1916 atala, Besarka nazan! , Sek.:20.

(3.272) Dena egiten nuen txarki, eta normala da: ez *baitakit korrika egiten*, ez *jauzi egiten*, ez *buruz murgil egiten*, ez baloia harrapatzen, eta are gutxiago txutatzen. EPG, *35 kilo esperantza*, Anna Gavalda / Jesus Mari Mendizabal (Alberdania, 2004: 71).

Aurreko adibidean ezezko bikoitza dakusagu, *jakin* aditz nagusiaren osagarriak diren *jauzi egin* eta *murgil egin* lokuzioen forma ez jokatuz osatua, hurrenez hurren.

(3.273) LEONOR.— (Buruaz ezetz) Ezin duzu igerian ikasi *murgil egin gabe*. Goenkale Corpusa, XIV-6 atala, Gureak egin du, Sek.:11.

(3.274) Eta Jaunak erantzun zidan: "Nire izenean gezurra ari dira esaten profetak. Ez dira nik bidaliak; ez diet ezer agindu, *ez hitz egin ere*. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Jr 14,14.

(3.275) -Neuk jarraituko dut, aspaldi *ez dut hitzegin* eta- esan zuen A-k. EPG, *Groenlandiako lezioa*, Bernardo Atxaga (Erein, 1998: 104).

(3.276) [...] él no habla, *ez du hitz egiten*.

[http://mylanguages.org/es/euskera\\_negacion.php](http://mylanguages.org/es/euskera_negacion.php)

(3.277) *Ez dut* sanferminetako irudi horiei buruz *hitz egingo*

[http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-](http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_fLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state)

[fitxa?p\\_p\\_id=56\\_INSTANCE\\_fLB1&p\\_p\\_lifecycle=0&p\\_p\\_state](http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_fLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state)

[=normal&p\\_p\\_mode=view&p\\_p\\_col\\_id=column-](http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_fLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state)

[1&p\\_p\\_col\\_count=1&groupId=10138&articleId=1367580](http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_fLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state)

Adibideek erakusten dutenez, [I+egin] osagaien arteko lotura estua mantentzen da *alde egin*, *hanka egin* eta *hitz egin* aditz-lokuzioez osatutako egituretan eta ugariak dira *corpusetan* aurkitu ditugun mota horretako lokuzioen

agerraldiak. Lotura estua mantentzen dela erakusten dute, halaber, *murgil egin* eta *ospa egin* aditz-lokuzioek.

Aurreko testetan, oro har, lotura estua erakutsi ez duten arren, partitiborik gabeko izenaz eta [+egin] hurrenkeraz osatutako egiturak hauek topatu ditugu:

- (3.278) Noroeste jotzen dik, *ezin diagu arraun egin* haize kontra, ez diagu deus aurreratuko, alferrik nekatuko gaituk. EPG, *Sua nahi, Mr. Churchill?*, Koldo Izagirre (Susa, 2005: 132).
- (3.279) Baina filosofo tipi honek, hil edo biziko puntuan izan den bakoitzean, beti izan ohi du mihian, uroski, larritasunetik atera zezakeen hitzen bat prestik eta hitzak, orduan ere, *ez zidan huts egin*: [...] EPG, *Lur bat haratago*, Joan Mari Irigoien (Elkar, 2000: 73).
- (3.280) *Ez du, ez, huts egin* Jainkoaren hitzak. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Erm 9,6.
- (3.281) Zure definizioa erraz gezurtatu ahal izango banu - erantzun zuen Lizentziok -, *ez nukeen* nire egitekoan *huts egingo*. EPG, *Hainbat idazlan*, San Agustin / Imanol Unzurrunzaga (Klasikoak, 2003: 40).
- (3.282) Ez da zigorgabe geratuko lekuko faltsua, gezurra dioenak *ez du ihes egingo*. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), EsZ 19,5.
- (3.283) Egun hartan bertan suntsitu zituzten juduek beren etsaiak. Inork ere *ez zien aurre egin* juduei, berauen beldur baitziren. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Est Gr 9,2.

*Aurre egin* aditz-lokuzioak jokaera bikoitza erakutsi du galdegaiaren testean. Aitzitik, \**aurrerik egin* egiturarik ez dugu *corpusetan* aurkitu; beraz, partitiboaren testari dagokionez, ezin dugu osagaien arteko haustura baieztatu.

- (3.284) TXAPAS.— Nik ere ez *nian irrist egin* eta zikindu nahil,  
Goenkale Corpusa, 1120 atala, Zu gabe, Dolores. Sek. 5.

*Irrist egin* aditz-lokuzioak galdera-hitza testean osagaien arteko banaketa erakutsi duen arren, \**irristik egin* motakorik ez dugu aurkitu; beraz, partitiboaren testari dagokionez, osagaien arteko lotura estua erakusten dutenen taldean kokatuko dugu aditz hori ere.

- (3.285) Eta Ernie McMillanek esan zidan Hermionek inoiz ez *duela piper egin* Muggle Ikasketen eskolan, baina horietako erdiak gure Igarpeneko eskola-ordu berberetan dira, eta hauetara ere sekula ez *du hutsik egin!*<sup>49</sup> EPG, *Harry Potter eta sorgin harria*, J.K. Rowling / Iñaki Mendiguren (Elkar, 2000: 200).

- (3.286) Hong-Kongetik Manilara joaten zen Cathay Pacific konpainiako hegazkinean, sendi zuen ere, bere aitak ez *zuela piper egiten* ahalko. EPG, *Skyroom*, Ramuntxo Etxeberri (Elkar, 2004: 145).

- (3.287) AITZIBER.— Ez. Oraintxe bertan irten da. *Ez al duzue topo egin?* Goenkale Corpusa, 683 atala, Sekretuen erreinuan, Sek.:12.

*Topo egin* aditz-lokuzioari dagokionez, jokaera bikoitza atzeman dugu galdera-hitzaz burututako egituretan. Ezezko bai/ez motako galdera horretan, ordea, partitiborik gabeko egitura dakusagu, osagaien arteko lotura estua erakusten duena. Are gehiago, ez dugu *corpusetan \*toporik egin* motako egiturarik aurkitu.

- (3.288) Norbaiti usin eragile bizia ipini eta, *doministiku egiten ez badu*, berriz, herio sinale izaten omen da. EPG, *Harrizko pareta erdi urratuak*, Patziku Perurena (Euskaltzaindia, 2004: 30).

---

<sup>49</sup> *Piper egin* aditz-lokuzioan oinarritu gara adibide hau a) taldean sartzeko. *Ez du hutsik egin* aditz-lokuzioan erreparatuz, b) talderako ere balioko luke adibideak eta kontuan izanik *huts eginek* erakutsi berri duen [I+egin] hurrenkera, jokaera bikoitza erakusten duela ondorioztatuko dugu.

- (3.289) *Ez zuen barre egiten* iseka egiteko; haren barrea ondokoaren pozaz benetan alaitzen den emakume batena zen. *Parisen sabela*, Emile zola / Karlos zabala (Alberdania, Elkar, 2004: 193).
- (3.290) *Ez dio inori agur egingo* Bitorianok. EPG, *Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan*, Edorta Jimenez (Susa, 2003: 71).
- (3.291) Ibiltzean, ez zara baldar ibiliko; lasterka egitean, *ez duzu behaztopa egingo*. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), EsZ 4,12.
- (3.292) Egunez dabilenak *ez du estropezu egiten*, eguzkiak argitzen baitio bidea. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Jn 11,9.
- (3.293) Nik uste Théophile Gautierrek arin samar jokatu zuela, agian Parisko egunkariak emandako presaren zamarekin; baina, nolana den, portaera etikoari *iruzur* egin gabe, inor engainatzeko asmorik gabe. EPG, *Lekuak*, Bernardo Atxaga (Pamiela, 2005: 33).
- (3.294) Margot buruko minaz kexu da, Dusselek *ezin du lo egin*,[...]. EPG, *Anne Franken egunkaria*, Anne Frank / Josu Zabaleta (Erein, 2004: 148)
- (3.295) Biak egon ziren jarririk, hitzik erran gabe, elkarri *so egin gabe*. EPG, *Hautsi da katea*, Toti Mtz. de Lecea / Elena Touyarou (Erein, 2004: 87).
- (3.296) Behin baino *ez zion so egin* neskatxak mandatariari. EPG, *Mikel Strogoff*, Jules Verne / Karlos Zabala (Ibaizabal, 2002: 78).
- (3.297) Emakumeak, arriskuaz *kontu egin gabe*, jarraitu egin zion, eta ingurumarietara begira geratu zen gizonak ordaintzen zuen

bitartean. EPG, *Mirarien kalezuloa*, Nagib Mahfuz / Patxi Zubizarreta (Alberdania-Elkar, 2006: 245).

(3.298) Oraingoan *ezin zuen porrot egin*. EPG, *Gloria Mundi*, Fernando Morillo (Elkar, 2004: 19).

(3.299) Tutuak *ez du eztanda egin* eta ez zeraman lehergailurik ere, baina iruditzen zait egunkaria dela atentatu separatisten beldurra suspertzen ari dena, ez tutua. EPG, *Italia, bizitza hizpide*, Anjel Lertxundi (Alberdania-Berria, 2004: 21).

(3.300) Eguzkia atera orduko ilunduko da, eta ilargiak *ez du argi egingo*. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Is 13,10.

(3.301) Hurrengo bihurgunean gutitarik *ez genuen talka egin* lehengo eguneko funtzionario itxurako apezarekin. EPG, *Rock'n'roll*, Aingeru Epaltza (Elkar, 2000: 236)

(3.302) Leiho berri bat irekitzeak edo zirrikitutik begiratzeak, oster, ikuspegia zeharo alda dezake eta ahalegintzen naiz bide propioa egiten inorekin *talka egin gabe* eta inori *minik egin gabe*. EPG, *Zortzi unibertso, zortzi idazle*, Ana Urkiza (Alberdania, 2006: 399).

Aipagarria da, egitura sintaktikoak antzekoak izanagatik, koordinazio-egitura kopulatibo horretan aditz-lokuzioek erakusten duten kontrako jokaera. Horrek erakusten du egitura sintaktikoak ez duela baldintzatzen lokuzioak partitiboa onartzea ala ez.

(3.303) -Zure lagunak *ez zuen tiro egin* lehenbizi. EPD, *Esperantza*, Andre Malraux / Karlos Zabala (Elkar-Alberdania, 2008: 188).

(3.304) Gihar batek ere *ez zuen ikara egin* erregina-amaren bisaian. EPD, *Izan baintzen Nafarroako errege*, Aingeru Epaltza (Elkar, 2009: 313).

- (3.305) Horregatik ez zen etorri Dolors bilerara, horregatik *ez zuen berba egingo* Jaumek ere, zuk entzun behar ez zenitzan. EPG, *Nik ere Germinal! egin gura nuen aldarri*, Koldo Izagirre (Susa, 1998: 54).
- (3.306) Izan ere, gazteak *ez du korrika egiten*, Pernandoren moduan, antxintxike egin izan du beti, bai etxean eta baita Azkoitiko kaleetan ere. EPG, *Hitzak eta giltzak*, Iñigo Aranbarri (Alberdania, 2001: 87).
- (3.307) Eta alsaziarrak gurekin etorri dira, hozka egin gabe, *zaunka egin gabe*, umil. EPG, *Lagun izoztua*, Joseba Sarrionandia (Elkar, 2001: 300).
- (3.308) *Ez dut zin egingo*<sup>50</sup>; hain pozik egoten hasia nintzen, non ezin izan bainuen nire egitateen erabateko kontzientzia izan. EPG, *On Casmurro*, Machado de Assis / Josu Zabaleta (Alberdania-Elkar, 2009: 92).
- (3.309) Berak eramandako janaritik jaten zuen, *ez baitzuen bekatu egin nahi* janari zikinak ahoratuz. EPG, *Agindutako lurraren bila II*, Jose Antonio Mujika (Erein, 2002: 142).
- (3.310) Oroitzapenek *ez lukete min egin*<sup>51</sup> behar. EPG, *Ispiluen gainean lotan*, Jordi Sierra i Fabra / Jon Muñoz (Elkar, 2004: 221)
- (3.311) Baina izan jarrera desegokiagatik, izan soilik agian orotan jarria nuen arreta neketsu eta jarraikorraren ondorioagatik, ez

---

<sup>50</sup> Ezezko egitura horretan partitiborik gabeko izena dugun arren, ezezko aginte egituren partitiboa ageri dela ikusiko dugu agintera aplikatzean.

<sup>51</sup> Baina *minik egin* atzeman berri dugu. Beraz, hau ere, bietara erabil daitekeela ondorioztatuko dugu.

*nezakeen negar egin*<sup>52</sup>. EPG, *Harreman arriskutsuak*, Choderlos de Laclos / Jon Muñoz (Ibaizabal, 1997: 410)

(3.312) HORTENTSI.— Aizu, *bultza egin gabe*. Goenkale Corpusa, 1101 atala, Kontxintxinara ere bai zurekin, 2 Sek.:7.

(3.313) *Ez zion pipaz galde egin*. <http://books.google.es/books?id>

(3.314) "*Batek ez du leher egin*", jakinarazi zuen medikuari laguntzen ziotenetako batek.

<http://www.susa-literatura.eus/cgi-bin/liburuak.pl?lib=narr52>

**b)** Izen partitibodunaz osatzen diren aditz-lokuzioez osatutako egitura ugari topatu ditugu.

**b.a)** Ugariak dira, batetik, [I+part] + *egin* osagaien hurrenkera erakusten duten adibideak:

(3.315) Aurretik joana zen Gehazi. Ipini zuen makila haurraren aurpegi gainean, baina haurrak *ez zuen hitzik egin, ez eta zirkinik ere*. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Erg 4,31.

Partitiboaz osatutako *hitzik eta zirkinik* izenak ez ezik, bi aditzen arteko koordinazio kopulatiboa dakusagu aurreko adibidean, *zirkin egin* aditz-lokuzioaren osagaien jokaera askea erakusten duena, *egin* aditza eliptikoa denean.

(3.316) Eta hark gaixo asko sendatu zituen, edozein zela ere haien gaitza, eta deabru asko bota ere bai. Deabruei *ez zien hitzik egiten* uzten, bazekiten eta nor zen. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Mk 1,34.

---

<sup>52</sup> Baina *negarrik egin* asko erabiltzen da, hurrengo adibideetan ikusiko dugun moduan.

(3.317) Une honetan, *hitzik egin gabe*, isilik gelditzen bazara, etorriko zaie juduei norbaiten laguntza eta salbatuko dira. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Est 4,14.

*Hitzik egin* lokuzioaz osatzen diren azken egitura horietan, [+egin] osagaien banaketa dakusagu, aurreko testetan ikusitakoaren kontra. Hala eta guztiz ere, esan behar dugu, ezezko egitura horiek ñabardura semantiko erantsia dutela, ez *du tutik ere esan* adiera, hain zuzen ere.

(3.318) Zurekin amets egin dut // Ez, ez dut amets egin, egia da. // Hori egin duk amets? // Esna dagoela *ez du inork ametsik egiten*. Ez dut nik horrelako *amets* beldurgarririk *egiten*. Gauean *egiten* den *amets* gozo bat bezala. *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (2012: 34).

Aipagarriak dira aurreko adibidean atzematen ditugun kontrako jokaerak. Ezezko egituran oinarrituz, ikus dezakegu partitiboa duen egitura eta partitiborik ez duena, biak direla posible, aditz-lokuzioa bat bera izanik. Batetik, *amets egin* lokuzioak banaketa onar dezakeela egiaztatzeko balio digu adibideak. Bestetik, partitiboaren erabilera arbitrarioa dela esan dezakegu, adibide horretan oinarrituz.

(3.319) *Barrerik egin*<sup>53</sup> *gabe*. *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (2012: 95).

(3.320) Irriren batek haren urruntasuna hauts zezakeelako ustean, hari beha ere egon nintzen istant batez, baina amak *ez zuen irririk egin*, eta marmolaren hoztasunak gibelat eragin ninduen berriro, neure tokian geratzen nintzela. EPG, *Lur bat haratago*, Joan Mari Irigoien (Elkar, 2000: 75).

---

<sup>53</sup> a) taldean ere badagoenez, jokaera bikoitza erakusten duen aditz-lokuzioen taldean kokatuko dugu, *barre egin*.

- (3.321) Baina Lammek ez zion *jaramonik egin*. EPG, *Ulenspiegelen elezaharra*, Charles De Coster / Koldo Izagirre (Elkar/Alberdania, 2007: 116).
- (3.322) Arrautza adinako ganglioia omen du eta inork *jaramonik egiten* ez. EPD, *Martutene*, Ramon Saizarbitoria (Erein, 2012: 33).
- (3.323) Judasek bake-mezua bidali zien esanez: "Utzi zeuen lurraldean barrena igarotzen geurera joateko; inork ere ez dizue *kalterik egingo*, oinez igaro besterik ez dugu nahi eta". Hala ere, ez ziten sarrera ireki nahi izan. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), M 5,48.
- (3.324) Nik inoiz ez dut *negarrik egiten*. EPG, *Zazpi urkatuak*, Leonid Nikolaievitx Andreiev / Jose Morales (Alberdania-Elkar, 2006: 151).
- (3.325) Izan ere, ez dizuet inoiz honi buruz *berbarik egin*, [...].<http://roadtolisbon.wordpress.com/>.
- (3.326) ANE, MERTXEren etxean dago. Urduri dabil, zerbait dabilkio barruan, lasai uzten ez duena. MERTXE ere urduri dago, ez du *lorik egin*<sup>54</sup>, begi zulo handiak ditu. Goenkale Corpusa, 236 atala, Begi-arimak itsu, Sek.:1.
- (3.327) Aitor Mendiluzek ere ez zuen *dirdirarik egin*, gustura sentitu arren...  
[http://elpais.com/diario/2009/12/14/paisvasco/1260823209\\_850215.html](http://elpais.com/diario/2009/12/14/paisvasco/1260823209_850215.html). 14/12/2009. *Maialen Lujanbioren dirdira*. Edición impresa EL PAÍS.
- (3.328) Haien semea, seme bakarra, ordu hartan edozein gaztetxori zegokion bezala eskolan egonen zen, *piperrik egin*<sup>55</sup> ezean,

---

<sup>54</sup> *Lo egin* egitura ere badugunez, jokaera bikoitza erakusten dutenen taldean kokatuko dugu.

<sup>55</sup> *Piper egin* egitura ere badugunez, jokaera bikoitza erakusten dutenen taldean kokatuko dugu.

noski. EPG, *Patata soro bat*, Josetxo Azkona (Alberdania, 2004: 37).

- (3.329) «Nik ere erantzukizun bat banuela sentitzen nuen. Eta ezin nion *ihesik egin*<sup>56</sup>». *Berria.info*. Zientzia gidatzen duten hariak, 2012-08-08. <http://paperekoa.berria.info/plaza/2012-08-08>
- (3.330) -*Ez didazu hutsik egingo, ezta? Ez, ez dizut hutsik egingo*. EPG, *Brooklyngo erokeriak*, Paul Auster / Oskar Arana (Alberdania, 2006: 340).
- (3.331) Oroimenak *hutsik egiten ez badit*, uste dut maisua bera laburki aipuz amaitu nuela hitzaldia. EPG, *Brooklyngo erokeriak*, Paul Auster / Oskar Arana (Alberdania, 2006: 284).
- (3.332) Inork ez zuen datarik finkatu: hilaren azkeneko asteazkenean han izaten dira, afalostean, *hutsik egin gabe*. EPG, *Itzalak*, Iban Zaldua (Erein, 2004: 67).

*Hutsik egin* egiturei buruz eta horien irakurketez jarraian arituko gara.

- (3.333) Izan ere, beuren arteko txoroenek eta kaskarinenek asmatutako teorizazio antzuak kutsaturik, gutietsia bezala ikusten baitute orain beren burua, nolazpait esan, bere burua interesantetzat jo eta *kasorik egiten ez diotelako* samurtzen den mutil koxkorrek bezalatsu. EPG, *Trapuan pupua*, Patziku Perurena (Erein, 2001: 150).
- (3.334) Orduko hartan ondo ikusten nuela, hortaz ezin nuen eta ez *nuen dudarik egin*. EPG, *Kontakizunak*, Edgar Allan Poe / Koro Navarro (Ibaizabal, 2000: 82).
- (3.335) Mikelek *ez du dudarik egin*. EPG, *Lasto sua*, Aingeru Epaltza (Alberdania, 2005: 5).

*Dударик egin* nahiz *jaramonik egin* egituren agerraldi ugari topatu ditugu.

---

<sup>56</sup> *Ihes egin* egitura ere badugunez, jokaera bikoitza erakusten dutenen taldean kokatuko dugu.

- (3.336) Arrantzaleek jaten ematen ez badiete, ez *dute arrantzarik egiten*. EPG, *India harrigarria*, Gotzon Garate (Elkar, 2001: 39)
- (3.337) -Beheiti joan nahi genuke - entzun du Abelek esaten diola Joxek txoferrari *agurrik egin gabe* eta tonua batere gozatu gabe. EPG, *Larrepetit*, Pello Lizarralde (Erein, 2002: 83).
- (3.338) Ahal badut behintzat inola ere *ez zionat minik egingo* eta behar duena ukatuko, baina ezin didan esan ahoa ixteko, itsusi ari bada jokutzen. EPG, *Maitea*, Toni Morrison / Anton Garikano (Alberdania, 2004: 76).
- (3.339) ANDONI. - Badakit! (Pausa)Froga txiki bat da eta *ez dizute minik egingo*. Goenkale Corpusa, 294 atala, Txoriak ihes, Sek.: 2.
- (3.340) EH Bilduk dio Aldundiak *ez duela* gizarte politiken aldeko *apusturik egin* eta aurrekontuek ez dietela Bizkaiko beharrei erantzuten.  
<http://bizkaikobbnn.ehildu.net/2013/10/31/eh-bilduk-dio-aldundiak-ez-duela-gizarte-politiken-aldeko-apusturik-egin-eta-aurrekontuek-ez-dietela-bizkaiko-beharrei-erantzuten/>
- (3.341) Jesusek erantzun zien: - Ezteietara deituek egin ote dezakete barau senar-berria berekin dutelarik? Senar-berria berekin duten bitartean, *ezin dezakete baraurik egin*. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Mk. 2,19.
- (3.342) Ez zen sinestuna, *ez zuen ez otoitzik ez baraurik egiten*, baina bizitza osoan *ez zion inori kalte egin*. EPG, *Jakobian eraikina*, Alaa Al Aswani / Arantzazu Royo / Xabier Olarra (Igela, 2011: 142).

Adibide horretan, partitiboa onartzen duten aditz-lokuzioak izateaz gain, ezezko bikoitzaz osatutako egitura koordinatua dugu. Horri, egitura adbertsatiboak jarraitzen dio, *kalte egin* aditz-lokuzioaz osatzen dena. *Kalterik egin* ere badagoela atzeman berri dugunez, jokaera bikoitza duela ondorioztatuko dugu.

- (3.343) Ez nion *ez espanturik ez iruzurrik egin*, berarekin garbi asko mintzatu baizik, nire jokaera ohi den bezalaxe bestalde, adibidez, mutilzaharra nintzela aipatuz. EPG, *Homo Faber*, Max Frisch / Joxe Austin Arrieta (Elkar, 2001: 187).

Adibide horretan ere bi ezezko egitura koordinatu ditugu; beraz, bi test aplikatzen dira oraingoan ere; partitiboa eta koordinazioa eta bietan dakusagu [I+A] osagaien arteko banaketa.

- (3.344) lasai jarraituko diozu bideari, *behaztoparik egin gabe*. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), EsZ 3,23.
- (3.345) Non haiek, zaldiak basamortuan bezala, itsas hondoon zehar ibilarazi zituena? *Ez zuten estropezurik egin*. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Is 63,13.
- (3.346) Ambonen, esaterako, arroza loretan dagoenean, jendeak haurdun dagoela esaten du, eta *ez du tirorik egiten* edo bestelako zaratarik ateratzen alor haren inguruetan, beldurrez halako enbarazua eginez gero arroza galduko ote den eta uzta, osoa alerik batere ezta, lasto hutsa izango ote den. Pentsamenduaren Klasikoak *corpusa*, *Urrezko abarra I*, James George Frazer / Iñaki Iñurrieta (1995: 171).
- (3.347) Besteei *konturik egin gabe* jarraitu zuen haren alboan, eta irudikatu egin zuen bere lagun langileek, elkar ikusten zutelarik, har zitzaketen ustekabea eta bekaizkeria. EPG, *Mirarien kalezuloa*, Nagib Mahfuz / Patxi Zubizarreta (Alberdania-Elkar, 2006: 239).
- (3.348) *Ez zioten elkarri* samurki begiratzen edo *laztanik egiten*. EPG, *Lekua*, Annie Ernaux / Joseba Urteaga (Igela, 2003: 26).
- (3.349) Gramatikaren helburuetarako, lehenengoa zinez desegokia dela ikusi dugu, bai eta bigarrena lehenengoa baino ahaltsuagoa dela ere, haren moduko *porrotik egin gabe*. EPG,

*Arkitekturaz hamar liburuak*, Vitruvio / Santiago Iruretagoiena (Klasikoak, 2000: 57).

- (3.350) Behin ere ez *dut biraorik egin*, inoiz ez da nire ahotik biraorik atera, eta ezta Haren kontrako kexarik ere, laudorioak eta goraipamenak besterik ez. EPG, *Buda zoriontsuen etxea*, João Ubaldo Ribeiro / Karlos Zabala (Txalaparta, 2003: 83).
- (3.351) Erasotzaileek Bizkaibus baten azpian jarri dute lehergailua, baina ez du *eztandarik egin*.  
<http://www.eitb.com/eu/albisteak/ekonomia/osoa/859752/greba-orokorra-m29—greba-egunaren-laburpena/>
- (3.352) Otordu bitartean ez genuen *solasik egin*. EPG, *Ipuin hautatuak*, Jorge Luis Borges / Juan Garzia (Ibaizabal, 1998: 234).
- (3.353) Neguan *etzenuen doministikurik egiten*<sup>57</sup>, eta orain izozki bolatxo airean aterako.  
<http://obabakotestiguak.wordpress.com/2013/05/24/berlin-iv-gorka-gurrutxaga-2/>
- (3.354) Baina nik, haurraren irri axolagabeaz, ez *nien sorik egin* eta bidea jarraitu nuen.  
<http://www.armiarma.com/ustela/stel1402.htm>
- (3.355) Jacquelinek instant batez zizakatu *egiten* du *irribarrerik eta auhenik egin gabe*.  
[http://www.hiru.com/hirupedia?p\\_p\\_id=indice\\_WAR\\_w25cIndex\\_WAR\\_INSTANCE\\_zPs2&p\\_p\\_lifecycle=0&p\\_p\\_state=normal&p\\_p\\_mode=view&p\\_p\\_col\\_id=column-1&p\\_p\\_col\\_pos=2&p\\_p\\_col\\_count=3&indice\\_WAR\\_w25cIndexWAR\\_INSTANCE\\_zPs2\\_action=seleccionarArticuloKlasikoenaHotan&indice\\_WAR\\_w25cIndexWAR\\_INSTANCE\\_zPs2\\_idArti](http://www.hiru.com/hirupedia?p_p_id=indice_WAR_w25cIndex_WAR_INSTANCE_zPs2&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_pos=2&p_p_col_count=3&indice_WAR_w25cIndexWAR_INSTANCE_zPs2_action=seleccionarArticuloKlasikoenaHotan&indice_WAR_w25cIndexWAR_INSTANCE_zPs2_idArti)

---

<sup>57</sup> *Doministiku egin* partitiborik gabeko egitura ere badugunez, jokaera bikoitza erakusten dutenen taldean kokatuko dugu lokuzio hori.

[culoKlasikoenAhotan=KA22128& indice WAR w25cIndexWAR INSTANCE zPs2 tema=Klasikoak& indice WAR w25cIndexWAR INSTANCE zPs2 autor=Jean+Piaget& indice WAR w25cIndexWAR INSTANCE zPs2 numRegistros=1013& indice WAR w25cIndexWAR INSTANCE zPs2 paginaKlasikoen=1](http://www.ibaizabal.com/uploads/documentos_pro/recursos/archivo-87.pdf)  
[2](#)

Partitiboaren testa aplikatzeaz gain, bi egitura koordinatu kopulatibo ditugu aurreko adibidean ere; beraz, bi test sintaktikoek osagaien arteko banaketa erakusten dute.

- (3.356) Bada, poltsa hotza zutenek *ez zuten aharrausirik egin*, baina besteek bai. Ikertzaileen ustez, garunak hobeto egiten du lan fresko dagoenean, eta aharrausi egitea garuna pizteko edo freskatzeko modu bat da.

[https://www.ibaizabal.com/uploads/documentos\\_pro/recursos/archivo-87.pdf](https://www.ibaizabal.com/uploads/documentos_pro/recursos/archivo-87.pdf)

Adibide horretan, *aharrausi egin* lokuzioaren osagaien banaketa ez ezik, *lan egin* lokuzioaren osagaien banaketa atzematen dugu, galdegaia jokoan denean.

- (3.357) Kanpoko baldintzak edota orokortasun-baldintza baztertzekotan, *ezingo dugu* litezkeen "gramatika" guztiz desberdinen artean *aukerarik egin*, denak corpus baterako egokiak badira. *Egitura sintaktikoak*, Noam Chomsky / Itziar Laka (Pentsamenduaren Klasikoak, 2003: 64).
- (3.358) LEO.— (moskeatuta) *Ez dut aukerarik egingo*. Biekin geratuko naiz. Goenkale Corpora, XIV-103 atala, Aita nuen bortxatzaile, ama, berriz, babesle, Sek.:10.
- (3.359) Gainerakoak parkeko banku ilunenera joan ziren: platano-zuhaitz pare bat zegoen albo banatan, eta haren aurreko

farolak ez zuen argirik egiten<sup>58</sup>. EPG, *Ortzadarra sutan*, Fernando Morillo (Elkar, 2003: 38).

(3.360) *Egunkariek ez dute horretaz aipurik egin.*

<http://hiztegia.labayru.net/CargaPalabraeu.asp?resul=aipu%20egin>

(3.361) Bare-bare ibiltzen da, ingurura jakin-minez begiratzuz, ez dago presatu beharrik, inork ez du estutzen atzetik, eta inor ez dugu zain, kideek ere *gogoetarik egin gabe* jarraitzen dute, txantxetan egitera maiz geldituz. EPG, *Tartarriarren basamortua*, Dino Buzzati / Josu Zabaleta (Alberdania-Elkar, 2010: 59).

(3.362) Ateratzen zaizkion luma berriak kolore arraroa daukate - la ez du txiorik egiten.

[http://prezi.com/2dy4tziobi\\_y/zuhaitzaren-metodologia/](http://prezi.com/2dy4tziobi_y/zuhaitzaren-metodologia/)

(3.363) *Ez zuen zurrutik egiten*, eta moila ganean konpontzeko egoten ziren sareen artean moldatu behar izan zuen ohatzea. EPG, *Sua nahi, Mr. Churchill?*, Koldo Izagirre (Susa, 2005: 37).

(3.364) Antolakuntzak, -egutegiko beste ekintzekin *talkarik egin ezean*-maiatzeko azkenurreko igandea mendi honetarako gordetzeko asmoa du. <http://www.beitia.org/beitia>.

(3.365) Ze inork ez du maratoni bat bukatzen inoiz *korrikarik egingabe*.

<http://www.mindomo.com/mindmap/garapen-pertsonala-2b2dc4a17cc645e3a235a848c9d98096>

(3.366) Maiteak triste begiratu zion, baina isilik geratu zen, *erregurik egin gabe*. EPG, *Gauza txikien liburua*, Pako Aristi (Erein, 2004: 161).

---

<sup>58</sup> Aurreko a) azpitaldean *argi egin* lokuzioaz osatutako adibidea dugun arren, jokaera bikoitza erakusten dutenen artean kokatuko dugu.

(3.367) *Ehizarik egin gabe*, indarrek ematen zuten neurrian, itsumustuan eta beste ezertan geratu gabe joango ziren laguntza bila, eta hura lortu ondoren, bigarren taldearen bila etorriko ziren, edo laguntza bidaliko zuten. EPG, *Bizitza eredugarriak*, J.M. Olaizola "Txiliku" (Elkar, 2006: 180).

(3.368) Nola ikasleek *ez zuten* behin ere *eztulik edo zintzik egin* ikasturte osoan, eta nola txilinak jo arte ez zegoen jakiterik ikasgelan inor bazegoen ala ez [...]. EPG, *Arima hilak*, Nikolai Gogol / Jose Morales (Ibaizabal, 1998: 330).

Egitura horretan ezezko egitura koordinatu disjuntiboak ditugu, partitiboaz osatutako egiturak ez ezik eta horietan ere osagaien arteko banaketa dakusagu.

(3.369) *Zaunkarik egin gabe*, oraingoan, harantz-honantz gordetzen zuten langa. EPG, *Ordaina zor nizun*, Joxemari Urteaga (Elkar, 2001: 33).

(3.370) *-Ez zioagu burlarik egingo*, ezta ezer esango ere. EPG, *Zalakain abenturazalea*, Pio Baroja / Koro Navarro (Alberdania-Elkar, 2006: 108).

(3.371) Nahikoa harriturik, mediku kubatarrek *txalorik egin gabe* entzuten zuten. EPG, *Venezuela, iraultza isilaren hitzak*, Pako Aristi (Txalaparta, 2000: 40).

(3.372) Mundutik bakandurik zaude egunero hainbat orduz, airerik gabeko burbuila bat iruditzen zaizun zerbaiten barruan bizitzen, nahiz eta airea egon badagoen, arnasa hartzen baituzu, baina aire hila da, mendeetan *ikararik egin ez duen airea*. EPD, *Ikusezin*, Paul Auster / Oskar Arana (Alberdania, 2009: 97).

(3.373) Tumore gaiztoak kendu zizkietenean, txakurrek *ez zieten* gehiago *usainik egin* jabeei. EPG, *Berria*, Gaiak, 2004, 2006,

«Txakurrak trebatzen ari dira, maskuriko minbizia antzemateko», Erredakzioa, (2004-09-28).

(3.374) Zabaletako atean *etzaio* ñori egundaño *bultzarik egin*, ez errikori ezerbestekori, ta gutxiago beartsua izan bada. EKC, *Garoa*, D. Aguirre (1912).

(3.375) *Ez dio jaramonik egin*.

[http://www.berria.info/albisteak/89315/ez\\_dio\\_jaramonik\\_egin.htm](http://www.berria.info/albisteak/89315/ez_dio_jaramonik_egin.htm)

(3.376) Harekin bat eginik dagoenak *ez du* gehiago *bekaturik egiten*. Bekatu egiten duenak hura ez duela ez ikusi, ez ezagutu, erakusten du. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), 1 J 3,6.

(3.377) [...] gizartean duten mendeko egoerari *desafiorik egin gabe*.

[http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebook2s/14809/original/E\\_baluazioa\\_garapeneko\\_proiektu.pdf](http://biblioteca.hegoa.ehu.es/system/ebook2s/14809/original/E_baluazioa_garapeneko_proiektu.pdf)

(3.378) Eta maita ditzagun lagun hurkoak geure burua bezala, / denak zureganako maitasunera ahal dugun neurrian erakarriz, / besteen onaz geureaz bezalaxe poztuz / eta gaitzetan gupida izanez, / eta inori *irainik egin gabe*. EPG, *Asisko Frantzizko, Asisko Klara*, Askoren artean (Arantzazu, 2002: 71).

(3.379) *Ez duk* harekin *elerik eginen* ere hemendik aitzina, debekatzen deiat, entzun duk? EPD, *Jin bezala*, Mixel Thikoipe (Maiatz, 2009: 88).

(3.380) *Ez zidan* ezeren *galderik egin*, ostera, eta horrek biziago egin zuen nire susmoa. EPG, *Sukar ustelaren urtea*, Edorta Jimenez (Txalaparta, 2004: 166).

(3.381) Baina hala eta guztiz ere, *ez dut klikik egin*, ez zitzaidalako interesatzen. <http://blogak.com/xabioto>

- (3.382) Gaizkien *aithorrik eginen ez duzu*, ez izanen urriki. EKC, *Euskaraz egia*, Jean Martin, Hiribarren (1858).
- (3.383) Etxeko taldeak *ez zuen lasaitzeko keinurik egin*. EPG, *Berria*, 2004, 2006, Kirola, «Handien aurka ere, egurra», Jon Rejado (2006-01-06).
- (3.384) Fresko nago, baina *ezin dut arnasik egin*.  
<http://www.blogari.net/berriozar?blog=22972&page=1&disp=posts&paged=5>
- (3.385) Zaflako bat hartuta ere, Maitek burua makurtu eta *ez zuen hasperenik egingo*. EPG, *New Yorkeko kronika beltza*, Gotzon Garate (Elkar, 2004: 115).
- (3.386) *Ez zioten inori txisturik egin*, Papamakariosek oparitutako puntu bateko lau jaurtiketek desadostasun keinuren bat merezi bazuten ere. ETC, *Berria*, Kirola, «Hirugarrena, hiru puntugatik», Andoni Urbistondo (2011-10-16).

**b.b)** *Egin* + [I+(part)] elementuen hurrenkera erakusten duten ezezko egitura batzuk ere aurkitu ditugu, hala nola *lo egin* aditz-lokuzioaz osatzen diren bi egitura hauek eta *jauzi egin* aditz-lokuzioaz osatzen dena:

- (3.387) Asko jan, gutxi jan, langileak lo egiten du gozoki; aberatsak, aldiz, bere asean *ezin egin lorik*. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Koh 5,11.
- (3.388) « Ama, zer nahi duzu laztana etorri neregana *ezin dut egin lorik* malko artean dauzkat maindireak itorik amatxo nik zergatik ez dut aitaxorik (abestia).  
<http://eu.musikazblai.com/buscar/?q=ama+zer+nahi+duzu+laztana+etorri+niregana+ezin+dut+egin+lorik>
- (3.389) Erietxean lanean hasi berritan, *ez omen zuen egiten jauzi*, inor begira ez zegoela konprobatu arte. EPG, *Antropologo bat Marten*, Oliver Sacks / Xabier Olarra (EHU, 2003: 103).

Azken egitura horretan partitiborik gabeko izena ageri den arren, hitz-ordenak erakusten du [I+*egin*] hurrenkeraren haustura.

Laburbilduz eta aurkeztutako adibideak aitzat hartuz, batetik, partitiborik gabeko egitura, soilik, erakusten duten aditz-lokuzioen taldea dugu. Hauen artean ditugu; *alde egin, hanka egin, ospa egin, murgil egin, hitz egin, hots egin, arraun egin, topo egin, aurre egin, irrist egin* eta *leher egin* aditz-lokuzioak. Horiek izango dira, partitiboaren testa laburbiltzen duen taulan, osagaien arteko lotura estua erakusten duten taldean. Bestalde, haustura erakusten duten aditz-lokuzioen taldea dugu eta horien artean, batzuk, partitiboaz eta partitiborik gabe, bietara topatu ditugu. Beste batzuk, partitiboaz soilik. Beraz, hiru azpisail bereziko ditugu partitiboaren emaitzak laburbiltzen dituen taulan.

Bestalde, bi taldetan banatuko ditugu osagaien hurrenkera estua erakusten ez duten aditz-lokuzioak. Batetik, nabarmenki nagusitzen den [I+part] + *egin* hitz-ordena erakusten duten aditz-lokuzioak ditugu; *hitz egin*<sup>59</sup>, *zirkin egin, amets egin, barre egin, irri egin, jaramon egin, kalte egin, negar egin, berba egin, lo egin, dirdira egin, piper egin, kaso egin, duda egin, arrantza egin, agur egin, min egin, apustu egin, desafio egin, barau egin, otoitz egin, espantu egin, iruzur egin, behaztopa egin, estropezu egin, tiro egin, kontu egin, laztan egin, porrot egin, birao egin, eztanda egin, solas egin, doministiku egin, so egin, irribarre egin, auhen egin, aharrausi egin, argi egin, aipu egin, gogoeta egin, txio egin, zurrut egin, talka egin, koska egin, erregu egin, ehiza egin, eztul egin, zintz egin, zaunka egin, burla egin, txalo egin, ikara egin, usain egin, bultza egin, bekatu egin, desafio egin, klik egin, aitor egin, arnas egin, txistu egin*, eta abar. Horiez gain, *egin* + [I+(part)] ordena erakusten duten adibideak aurkitu ditugu, *lo egin* eta *jauzi egin* aditz-lokuzioez osatzen direnak. Horiek guztiek erakusten dute osagaien arteko lotura ez dela estua.

---

<sup>59</sup> *Hitz egin* lokuzioaren ezezkoa ez *hitz egin* dela argudiatu dugu tesi honetan; beraz, *hitzik ez egin* egitura ñabardura semantikoa duen egituratzat hartuko dugu. Horregatik, emaitzak laburbiltzen dituen taulan eta aditz-lokuzioen sailkapenean partitiborik onartzen ez duen lokuzioen azpitaldean kokatuko dugu *hitz egin* aditz-lokuzioa, baita *hots egin* lokuzioa ere.

Laburbilduz, partitiboaren testari dagokionez lortu ditugun emaitzak, oro har, bat datoz galdegaiaren testa aplikatzean lortu ditugun emaitzekin. *Hitz egin, hots egin, alde egin, hanka egin, ospa egin* eta *murgil egin*, aditz-lokuzioek, osagaien arteko lotura estua erakutsi dute eta hala erakusten du partitiboaren testak ere.

Baina, galdegaiaren testetan jokaera bikoitza erakutsi duten aditz-lokuzio gehienek, partitiboaren testean hala erakutsi duten arren, aipamen berezia merezi dute kontrako jokaera erakutsi duten *aurre egin, topo egin, aurre egin* eta *irrist egin* aditz-lokuzioek. *\*Arraunik egin, \*toporik egin, \*aurrerik egin* eta *\*irristik egin* egiturarik aurkitu ez dugunez, partitiboari dagokionez, osagaien lotura estua erakusten dutenen artean kokatuko ditugu.

Horrez gain, aipatu behar dugu, galdegaien testak aplikatzean lotura estua erakutsi duten aditz-lokuzio batzuek banaketa erakutsi dutela partitiboaren testa aplikatzean, partitiboaz osatutako egitura onar dezaketela, alegia. Horien artean ditugu *aipu egin, argi egin, iruzur egin, kontu egin*, eta abar; beraz, ez ditugu [I+egin] osagaien arteko lotura erakusten dutenen artean kokatuko, partitiboaren emaitzak laburbiltzen dituen sailkapenean. Eta hala, emaitza guztiak laburbiltzen dituen taulan jokaera bikoitza erakusten dutenen taldean kokatuko ditugu.

Jokaera sintaktiko desberdinez gain, desberdintasun semantikoak atzeman ditugu aditz-lokuzioen artean, baita ñabardura semantiko bereziak ere. Hainbat kasutan ezezko egiturak baiezkoaren ezezkoa baino zerbait gehiago adierazten duela ikusi dugu.

Euskal Gramatika Laburrean (EGL) aipatzen den moduan, aditz hauek partitibo marka hartu ondoren ezeztapena baino beste zerbait gehiago adierazten dutela esan dezakegu, (EGL 2202: 204):

(3.390) *ez du hitzik egin # ez du hitz egin*

(3.391) *ez du lanik egin # ez du lan egin*

Euskaltzaindiak (1987) bata ihartua delako ematen du bi egitura hauen arteko desberdintasun semantikoaren berri eta ez direla forma ihartu bakarrak aipatzen du :

(3.392) *ez du hitzik egin* (=ez du ezer esan)

(3.393) *ez du hitz egin* (ihartua)

«*Ez dira bakarrak, erabilera ihartu hori dela eta, sarri askotan gerta litezke esanahi aldaketa hauek*», (Euskaltzaindia 1997: 45):

(3.394) *motorrak ez du lan egin* (=ez da abian jarri)

(3.395) *egun osoan ez dut lanik egin*

Ildo beretik, *hitz egin* aditz-lokuzioaren ezezko egitura, *ez du hitz egin* partitiborik gabeko egitura dela defendatuko dugu, lan honetan. Eta hala, *ez du hitzik egin* partitiboa onartzen duen egiturak, *hitz egin* egituraren ezezkoa baino beste zerbait adierazten duela adierazi dugu, *tutik ere esan ez duela*<sup>60</sup> edo *hitz bat ere esan ez duela*, alegia. *Hots egin* lokuzioak jokaera berbera erakusten du, eta hala, partitiboaz osatutako egiturak adiera berezia duela argudiatuko dugu. *Hots egin* lokuzioa baieztoko egituran *deitu* esanahiaz erabiltzen da, *hotsik ez egin* ezezkoan, ordea, adiera konposizionala berreskuratzen da, *soinurik ez egin* edo *zaratarik ez egin* adiera.

EPG *corpusean* aurkitu ditugun *hotsa egin* egitura iragankor arruntaz osatutako baieztoko nahiz ezezko adibide hauek, ordea, adiera konposizionala dute eta ez dute zer ikusirik aditz-lokuzioaz osatutako egitura idiomatikoekin:

(3.396) Eskailerak *karraska hotsa eginen luke*. EPG, *Goragalea*, Jean Paul Sartre / Monika Etxebarria (Alberdania-Elkar, 2003: 131).

(3.397) Bihurrika ari zen, bere erpeez lurra harrotzen zuen, jauzi egiten zuen, indarge erortzen zen, gero berriro hasten zen, eta haren

---

<sup>60</sup> *ez du hitzik esan* ezezko egitura iragankorra askoz ere hedatuagoa dago hizkuntzan, *ez du hitzik egin* baino.

hats zakar lasterrak *punpa baten hotsa egiten zuen*, oraindik ere entzuten dudan *hots beldurgarri bat*. EPG, *Fantasiatzko ipuinak*, Guy de Maupassant / Josu Zabaleta (Ibaizabal, 2000: 256).

(3.398) Kementsu zutitu, eta urrats zehatzekin ibiltzen hasi zen, eskuez danbor-jotzailearen mugimenduak antzera tuz eta ahotsarekin *danborraren hotsa eginez*. EPG, *Zazpi urkatuak*, Leonid Nikolaievitx Andreiev / Jose Morales (Alberdania-Elkar, 2006: 211).

(3.399) Bere etxean dago alde guztietan, alde guztietan sar baitaiteke, *hotsik egin gabe*<sup>61</sup> ibiltzen den piztia hori, zelatari isila, horma hutsetako gau ibiltaria. EPG, *Fantasiatzko ipuinak*, Guy de Maupassant / Josu Zabaleta (Ibaizabal, 2000: 263).

(3.400) Rosarekin ezkondu eta handik hamar urterat izan zen, noiz eta, terrazan nengoela, gibeletik hurbildu baitzitzaidan, isilik, *hotsik egin gabe*, bere besoez inguratzen ninduela eta besarkatzen, nola hodei batek mendiaren gerria. EPG, *Lur bat haratago*, Joan Mari Irigoien (Elkar, 2000: 598).

Adibide horiek guztiak, *zerbait jakina egin* adierazten duten egitura iragankor arruntak dira, izen soilaz ez ezik eta izen sintagma soilaz ez ezik, egitura konplexuagoez osatzen direnak; *karraska hotsa*, *punpa baten hotsa*, *danborraren hotsa*, *hots beldurgarri bat*, eta abar. Modifikatzaileak onartzea (horrela den adibideetan), egitura horiek aditz-lokuzioetatik bereizteko baliatu dezakegun beste ezaugarria da. DS hauek ez dute semantikoki zer ikusirik *hots egin* aditz-lokuzioaren determinatzailearik gabeko ISrekin. Izan ere, ezezkoan partitiboa onartzen duten izenez osatutako egiturak, *hotsa egin* egitura iragankorraren ezezkotzat har ditzakegu. *Hotsik egin gabe*, *zaratarik egin gabe* adierazten du azken adibidean, testuinguruak berak argitzen duen moduan

---

<sup>61</sup> *Zaratarik egin gabe*, *soinurik egin gabe* adierazten du eta adiera honek ez du zer ikusirik, aditz-lokuzioaren adierarekin (*deitu*).

(*isilik*), eta ez *deitu gabe*, aditz-lokuzioaren ezezkoa izango litzatekeen adiera. Beraz, *hots egin* (*deitu*) aditz-lokuzioaren ezezkoa, ez du *hots egin* dela ondoriozta dezakegu.

*Hutsik egin* egiturari dagokionez, bi irakurketa izan ditzakeela argudiatuko dugu. Batzuetan, *akatsa egin* adiera konposizionala berreskuratzen da. Besteetan, ordea, *huts egin (failatu)* aditz-lokuzioaren ezezkoa adierazi nahi da. Aditz-lokuzioetatik desberdindu behar ditugun *hutsa egin* edo antzeko egitura iragankor arruntez osatutako adibide hauek topatu ditugu:

- (3.401) Halere, *huts larria egin zuen* lehen golean.  
[http://paperekoa.berria.info/kirola/2010-01-29/026/007/egiptok\\_eta\\_ghanak\\_jokatuko\\_dute\\_afrika\\_kopako\\_finala\\_etzi.htm](http://paperekoa.berria.info/kirola/2010-01-29/026/007/egiptok_eta_ghanak_jokatuko_dute_afrika_kopako_finala_etzi.htm)

Aurreko egitura iragankor arruntean, izenaren nolakotasuna adierazten duen izenondoa ageri da, sintagma konplexuago bat osatzen; beraz, modifikatzailea bera beste arrazoa izan daiteke egitura hori aditz-lokuzio egituratik desberdintzeko.

- (3.402) Errorea, nire ustez, faltsua egiaztat onartzea da; eta egia beti bilatu behar dela uste duenak oztopo hau gaindituko du, ez baitu gauza faltsurik onartuko deus onartzen ez duenak; beraz, *ezingo du hutsik egin*. EPG, *Hainbat idazlan*, San Agustin / Imanol Unzurrunzaga (Klasikoak, 2003: 40)
- (3.403) Hizketan *hutsik egiten ez duena* bete-beteko pertsona da, bere izate osoa menpean edukitzeko gauza dena. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), St 3,2.
- (3.404) Big Joe non, han egongo zen Bertha ere, *inolako hutsik egin gabe*. EPG, *Peaceful soldadua*, Michael Morpurgo / Mirentxu Larrañaga (Alberdania, 2006: 75).

Azken adibide hau ere, egitura iragankor arrunta dugu, aditz-lokuzioaren izen soilaren aldean, *inolako hutsik* sintagma konplexuaz osatzen dena. Beraz, *hutsik ez egin* ezezko egitura, *hutsa egin* egitura iragankor arruntaren ezezkotzat har dezakegu. Azken aurreko bi egituretan, *hutsik ez egin*, *akatsik ez egin* adiera konposizionalaz irakur daiteke, "*failatu*" adiera idiomatikoa duen aditz-lokuzioaren irakurketaren aldean.

Honen kontra, *hutsik ez egin*, *huts egin* lokuzioaren ezezkoa izan daitekeela erakusten du hurrengo adibideak, baita, ikusi berri ditugun (3.330-3.332) adibideek ere:

(3.405) Egun handiak ez zuen *hutsik egin*.

<http://www.diariovasco.com/v/20120817/bajo-deba/egun-handiak-zuen-hutsik-20120817.html>

Subjektu bizigabeaz osatzen den egitura horretan, testuinguruak argitzen du *failatu* dela *huts egin* aditz-lokuzioaren adiera eta ez *akatsik egin* adiera konposizionala.

Horregatik, *ez hutsik egin* egiturak bi irakurketa izan ditzakeela ondoriozta dezakegu eta irakurketa bakoitza egitura mota bati dagokio: Irakurketa konposizionala, egitura iragankor arruntari dagokio eta irakurketa idiomatikoa, aditz-lokuzio egiturari.

Beraz, *hitz egin* eta *hots egin* aditz-lokuzio idiomatikoen ezeztapena, partitiborik gabeko *ez du hitz egin* eta *ez du hots egin* ezezko egitura dela defendatuko dugu. *Hitzik ez egin* egiturak ñabardura semantiko erantsi bat duela argudiatu dugu, lokuzioaren ezezkoarekin guztiz bat ez datorrena. *Hotsik ez egin* partitiboa duen egitura ere, egitura iragankor arruntaren ezezkotzat hartuko dugu eta horren adiera konposizionala dela esan dezakegu. *Hutsik ez egin* egiturari dagokionez, bi irakurketa izan ditzakeela argudiatu dugu; egitura iragankor arruntaren ezezkoari dagokion irakurketa konposizionala (*huts bat ere ez du egin / ez du akatsik egin*) eta aditz-lokuzioaren ezeztapenari dagokion adiera idiomatikoa, *huts egin edo failatu*. Laburbilduz:

- (3.406) *ez du hitzik egin (ez du hitz bat ere esan adiera)*
- (3.407) *ez du hitz egin (hitz egin aditz-lokuzioaren ezezkoa)*
- (3.408) *ez dugu hotsik egin (ez du soinurik egin adiera)*
- (3.409) *ez dugu hots egin (hots egin aditz-lokuzioaren ezezkoa)*
- (3.410) *ez dut hutsik egin (bi irakurketa: ez du akatsik egin edo huts egin aditz-lokuzioaren ezezkoa)*
- (3.411) *ez dut huts egin (huts egin aditz-lokuzioaren ezezkoa)*

#### ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK

Ondorengo adibideetan ikus dezakegunez, ugariak dira partitiboa onartzen duten lokuzio meteorologikoez osatutako ezezko egiturak; beraz, gertakari meteorologikoei erreferentzia egiten dieten aditz-lokuzio hauek, [I+A] hurrenkeraren haustura egiaztatzen dute, berriro ere:

- (3.412) [Pello Zabala: "Ez du elurrik egingo fundamentuz" - Goiena.net](#)
- (3.413) "Herriak zure kontra bekatu egin duelako ortzia itxi eta *euririk egin ez dezanean*, toki honetarantz begira otoitz egin eta zure izena goستن badute, eta zuk emaniko zigorrarengatik beren bekatuaz damutzen badira. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Erg 8,35.
- (3.414) Mañana no lloverá: bihar ez du euririk: BIHAR *EZ DU EURIRIK EGINGO*. Este año no ha nevado: AURTEN *EZ DU ELURRIK EGIN*. Ayer nevó: *ATZO ELURRA EGIN ZUEN*.  
[http://www.santurtzieus.com/gela\\_irekia/materialak/ikastaro/kultura\\_hizkuntzan/edukia/eguraldia\\_testua.htm](http://www.santurtzieus.com/gela_irekia/materialak/ikastaro/kultura_hizkuntzan/edukia/eguraldia_testua.htm)
- (3.415) FELIX— *Hotzik ez du egingo*, baina ez da arropaz hain arin ibiltzeko sasoia. Goenkale Corpusa, 714 atala, Arraldetarren, Sek.2.
- (3.416) "*Ez du hotzik egiten*. Eta goiz da oraindik." "Berorik ere ez." "Hobe!... "*Gaur ez du euririk egingo*," esaten du Inakik. *The*

*Basque Language*. Alan.R. King (1994: 119). University of Nevada Press, Reno, Nevada, USA.

- (3.417) Konturatu zara ez *duela* lehen bezala *zirimiririk egiten*? EPG, *Hollywood eta biok*, Javi Cillero (Alberdania, 1998: 229).

Ohar gaitezen partitiboa onartzen duen aditz-lokuzioa aurreko adibidean, galde egitura baten ezezko mendeko perpaus osagarriaren aditza dela.

- (3.418) Agian kanpoan *haizerik egiten ez duelako* da, mundua burbuila batean sartuta dagoela dirudielako eta txoririk pausatzen ez delako harrizko barandan. EPG, *Anne Franken egunkaria*, Anne Frank / Josu Zabaleta (Erein, 2004: 55).

- (3.419) Gaur ez du *haizerik egiten*. Harria bota du.

[http://www.salesianosbilbao.es/wp-content/uploads/2013/01/04\\_El\\_tiempo\\_metereologico.pdf](http://www.salesianosbilbao.es/wp-content/uploads/2013/01/04_El_tiempo_metereologico.pdf)

- (3.420) Orain, gurean ez du *sargoririk egiten* neguan, eta ez ipar beltzik udan. <http://31eskutik.com/2013/12/05/lehen-eta-orain/>

- (3.421) [...] *berorik egiten ez duen* garaiean eman behar zaiola. <http://urtinealorategia.wordpress.com/>

- (3.422) Zapatuko beroa sargori izateraino helduko da baina ez du *ekaitzik egingo*.

<http://goiena.tok-md.com/pdf/goienkaria-295.pdf>

Partitiboaz markatzen diren egitura meteorologiko hauek guztiek, hots, *elurrik egin*, *euririk egin*, *hotzik egin*, *zirimiririk egin*, *haizerik egin*, *sargoririk egin*, *berorik egin* eta *ekaitzik egin*, lokuzio meteorologikoen osagaien arteko lotura estua ez dela baieztatzera garamatzate.

### 3.3. ELIPSIA KOORDINAZIO-EGITURETAN: EGITURA KOPULATIBOAK, EGITURA DISJUNTIBOAK ETA EGITURA ADBERTSATIBOAK

Aditz-lokuzioek egitura kopulatiboetan, egitura disjuntiboetan eta egitura adbertsatiboetan duten jokaera aztertuko dugu jarraian. Test hau aditz-lokuzioei aplikatuz, aditz-lokuzioen osagaiak koordinazioan aske ager daitezkeen ala ez azter dezakegu, *egin* aditza eliptikoa denean. Lehenik eta behin, aditz eliptiko iragankor arruntaz osatutako egitura kopulatiboa eta *egin* aditz arin eliptikoaz osatutako egitura kopulatiboa erkatuko ditugu:

(3.423) Xabierrek ipuina *irakurri du* eta Mikelek liburua

Egitura iragankor arrunt hori gramatikala da 2. perpaus kopulatiboan *irakurri* aditz iragankor arrunta eliptikoa izanik.

*Hitz egin* eta *alde egin* aditz-lokuzioez osatutako egitura kopulatibo hauek; aitzitik, beste jokaera bat erakusten dute *egin* aditz arinari dagokionez:

(3.424) \*Mikelek *hitz egin du* eta *alde*

(3.425) Mikelek *hitz egin du* eta *alde egin du*

Kontraste horrek erakusten du *egin* aditza agertzea ezinbestekoa dela, *alde egin* lokuzioaz osatutako koordinazio-egitura kopulatiboan. Beraz, izenak eta aditzak unitate banaezina osatzen dutela esan dezakegu. Izan ere, ez dugu *corpus*etan egitura kopulatiborik topatu non *alde*, soilik, agertzen den.

Aditz-lokuzioaren *egin* aditza koordinazio-egitura kopulatiboan eliptikoa izateak ez du esan nahi aditz-lokuzio hori osorik agertu ezin daitekeenik. Izan ere, aditz-lokuzio guztiak ager daitezke osorik egitura kopulatiboetan. Horregatik, egitura kopulatiboen, disjuntiboen eta adbertsatiboen testa aplikatzean esanguratsua den jokaera haustura erakusten duen aditz-lokuzioaren jokaera izango da.

Orain arte unitate estua erakutsi duten aditzen osagaiak unitate estu moduan jokatzen jarraitzea espero dugu, *egin* aditzaren elipsirik ez onartzea, alegia. Espero dugu ere, banandu daitezkeela erakutsi duten aditz-lokuzioek *egin* aditzaren elipsia onartzea, koordinazio-egituretan.

Aditz-lokuzioen jokaera koordinazio-egitura kopulatiboetan aztertzean jokaera nagusi hauek atzeman ditugu *corpus*etan aurkitutako baiezko nahiz ezezko egituretan:

**a) [I+A] osagaien arteko lotura estua erakusten duten aditz-lokuzioak:**

**a.a) Baiezko egitura kopulatiboak**

**a.b) Ezezko egitura kopulatiboak**

**b) [I+A] osagaien jokaera askea erakusten duten aditz-lokuzioak:**

**b.a) Baiezko egitura kopulatiboak**

**b.b) Ezezko egitura kopulatiboak**

**a.a)** Osagaien arteko lotura estua erakusten duten aditz-lokuzioez osatutako baiezko koordinazio-egitura kopulatiboak dagokienez, honako hauek topatu ditugu:

(3.426) *Hitz egin eta hitz egin*, segituan ailegatu ziren institutura.  
[http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker\\_jagon\\_tegiak/literatura\\_a\\_taria/3269801.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/literatura_a_taria/3269801.pdf)

(3.427) Izugarrizko buruko mina daukat eta zuk *hitz egin eta hitz egin*..  
<http://www.armiarma.eus/emailuak/elkar/greene12.htm>

(3.428) Ofel zeritzan muinora heltzean, hartu zien dena Gehazik eta etxean gorde zuen. Gero, *agur egin* eta gizon haiek *alde egin* zuten. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004).

**a.b)** Osagaien arteko lotura estua erakusten duen aditz-lokuzioaz osatutako ezezko koordinazio-egitura kopulatiboei dagokienez, adibide hau aurkitu dugu:

(4.429) *Ezin zuten hitz egin, ezta burla egin ere.*

<http://www.mendialdeage.org/category/sortzen/page/2/>

**b)** Adibide hauek, ordea, osagaien jokaera askea erakusten duten aditz-lokuzioez osatzen dira:

**b.a)** *Egin* eliptikoa onartzen duten baiezko egitura kopulatiboak:

(3.430) *Ele eta lan egin dut* (Oyharçabal 2006: 795).

(3.431) Askok, handi nahiz txiki, *iseka eta irain egiten zieten*. EPG, *Asisko Frantzizko, Asisko Klara*, / Askoren artean, 516.orr.

(3.432) Gizonak ari dira negarrez: *haiekin egingo dut negar... eta barre ere bai.*

[http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker\\_jagon\\_tegiak/74687.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/74687.pdf)

(3.433) *Negar eta otoitz egin* ondoren, piztu zuen, hauxe aginduz: "Lazaro, zatoz kanpora". Pentsamenduaren klasikoak Corputa, *Gogojardunak*, Inazio Loiolakoa / Patxi Altuna (2004: 165).

(3.434) *-Zuk ere irribarre eta negar egiten duzu* aldi berean. EPG, *Zazpi urkatuak*, Leonid Nikolaievitx Andreiev / Jose Morales (Alberdania-Elkar, 2006: 219).

(3.435) Menelaok *irribarre eta laztan egin zion*; opari eder bat eman, eta joaten utzi zion. EPG, *Ulises*, Homero / Juan Kruz Igerabide (Erein, 2000: 19).

(3.436) JOSEMARI.— Honantz zetozean, eta, badakik nolako eguraldia egiten zuen, autoak *bira egin*, atzetik zetorrenarekin *talka!* Goenkale Corputa, 791 atala, Haize lagunak, ekaitz etsaiak, Sek.: 9.

Azken adibidean, justaposizioa dugun arren, *eta* juntagailu koordinatzailearen pareko funtzioa betetzen du gakoak.

- (3.437) Eliz elkarte bakoitzean arduradunak izendatu zituzten *eta*, *otoitz eta barau egin* ondoren, Jaunari gomendatu zizkioten, harengan sinetsi baitzuten. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Eg, 14,23.
- (3.438) Izan ere, Batasunak *burla eta barre egin die* instituzioei beti.  
<http://arabatik.wordpress.com/2006/08/22/los-vertices-del-triangulo/>
- (3.439) Arkitekturak soilik oinarritzko behar naturalen (*lo egin*, *jan*, *kaka eta pixa egin...*) zerbitzura jarria dirudien lekuan, haren ate eta leihoek, paretak eta irekidurek, “genero teknologiarik” zuhur eta eraginkorrenen moduan, isilka, eragiten dute, begirada eta sarrera arautuz. <http://sareinak.net/2008/07/02/komunak-i/>
- (3.440) Eskaileretan behera, baranda itsaskor, dardartiei helduta, kulunka eginez zoruko lauza zabukarietan, ontzi bat jo eta orkatilean min hartuta, ateen bestaldeko bizitza sekretuen zaratak baino harantzago, irristatu *eta estropezu eta birao egin zuen*[...]. EPG, *Artistakume baten erretratua*, Dylan Thomas / Koro Navarro (Alberdania, 1999: 234).
- (3.441) *Irri eta txalo egin zuten* filologogai literaturzale gazteek, *eta* guk lasaitu ederra hartu genuen. EPG, *Agur, Euzkadi*, Juan Luis Zabala (Susa, 2000: 127).
- (3.442) Maitale aitortuek *berba eta barre egin zuten*, aitortu bakoak isilik egon ziren.  
<http://www.armiarma.com/unibertsala/austen/aust61.htm>
- (3.443) Bertso txarrak bota arren *oihu eta txalo egiten zuen* jendeak.  
<http://www.euskara.euskadi.net/appcont/sustapena/datos/47%20PUJANA.pdf>

(3.444) Hau dio Jainko Jaunak: "*Egin txalo eta dantza!* Zoriondu Israel herria bere jokabide guztiz higuingarriagatik! EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Ez 6,11.

(3.445) Herri guztiok, *egin txalo, egin pozez oihu eta irrintzi* Jainkoari. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Sal 47,2.

Aginte egitura koordinatuez osatutako aurreko adibideetan, *egin* aditz arin eliptikoaz osatzen diren *dantza egin, oihu egin* eta *irrintzi egin* aditz-lokuzioen koordinazioa ez ezik, aditz-lokuzioen [I+*egin*] ordena inbertitua dakusagu, azken bi aginte egitura koordinatuetan. Beraz, adibide horietan bi test aplika daitezkeela dakusagu: agintera eta koordinazioa, egitura berean.

(3.446) [...] lau hostoko hirusta berdea jarri nion, suerte ona ekartzen baitu; bitartean urrutian zeruraino hazten zihoan onddo moduko hodei bat, gora eta gora hazten zen, solairu askoko altuerara, eta ke lainoak are altuagoak ziren, airearen presioa aditu nuen soroak gurutzatzen, haizeak *putz eta txistu egiten zuen* arbolen adaxka biluzietan eta sasietan. EPG, *Zorrotz begiratutako trenak*, Bohumil Hrabal / Fernando Rey (Alberdania-Elkar, 2002: 89).

Ondorengo koordinazio egituretan aditz-lokuzioaren errepikapena dakusagu:

(3.447) *dantza eta dantza egin dugu.*

[https://www.google.es/search?q=dantza+eta+dantza+egin+dugu&sa=N&rlz=1C2PRFA\\_enES422&tbm=isch&tbo=u&source=univ&ei=pU3EUfGNBvX7Ablq4CYCQ&ved=0CE8QsAQ4Cg&biw=1024&bih=673](https://www.google.es/search?q=dantza+eta+dantza+egin+dugu&sa=N&rlz=1C2PRFA_enES422&tbm=isch&tbo=u&source=univ&ei=pU3EUfGNBvX7Ablq4CYCQ&ved=0CE8QsAQ4Cg&biw=1024&bih=673)

- (3.448) Berriro itsasoratu ginen, eta nire gizonen kemena urrituz zihoan, *arraun eta arraun*<sup>62</sup>, itzultzeko aukera galdurik. EPG, *Ulises*, Homero / Juan Kruz Igerabide (Erein, 2000: 62).
- (3.449) Salaketa salaketaren atzetik, *bultza eta bultza egiten naute*.  
<http://www.armiarma.com/unibertsala/hasek2/hase04.htm>
- (3.450) Estokolmon izan zenean, *txalo eta txalo*<sup>63</sup>.  
<http://www.teatro-testuak.com/logale.html>
- (3.451) Trantsilvaniako saxoniarrek kontatzen duten ipuin batean esaten da gizon gazte batek *tiro eta tiro egin ziola* sorgin bati. Pentsamenduaren Klasikoak *corpusa*, *Urrezko abarra II*, James George Frazer / Iñaki Iñurrieta (1995: 362).
- (3.452) JOSEMARI.— Bazuan ordua! Bake pixka bat azkenean! Nazkatuta nengoan *lan eta lan egiten*, atsedetik hartu gabe! Goenkale Corpusa, 479 atala, Paranoiaz, Sek.:7.
- (3.453) Atzo, *lo eta lo egin nuen*. EPG, *Atzo*, Agota Kristof / Eskarne Mujika (Alberdania, 2004: 91).
- (3.454) Umore onez *solas eta solas egin zidan*. EPD, *Izan bainitzen Nafarroako errege*, AINGERU EPALTZA (Elkar, 2009: 250).
- (3.455) Eta bera, bitartean, emazteari buruz *berba eta berba*, interesatzen zizaion gaia luzatu nahian. ETC, *Berria*, Kultura, «Gauza inportanteak», (2003-11-22).

Azken adibidean, ez dugu *egin* aditzaren agerraldi bat ere ez.

**b.b)** Egin eliptikoa onartzen duten ezezko koordinazio-egitura hauek [I+A] hurrenkera hautsi dela erakusten dute:

---

<sup>62</sup> *Arraun eta arraun egiten* irakurketaz.

<sup>63</sup> *Txalo eta txalo egin zioten* irakurketaz (aditz-lokuzioa ez balitz, determinatzaile izena beharko genuke).

- (3.456) ONDORIO LOGIKOAK. CONSECUENCIAS LÓGICAS. Lasai ibiliko naiz, (*ez dut bultzarik ezta garrasirik egingo*). Caminaré despacio (sin empujar, ni gritar...). Jantokiko arauak eta ondorio logikoak. <http://www.lateorroikastetxea.net/>
- (3.457) Buru-zapiekin eta sandaliekkin jarraituko duzue, ez duzue *dolu egingo, ez eta negarrik ere*, baizik eta zeuen erruengatik galduko zarete eta elkarren artean jardungo negar-zotinka. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Ez 24,23.
- (3.458) Ulenspiegel besarkatua zeukan, *berbarik eta negarrik egin barik*. EPG, *Ulenspiegelen elezaharra*, Charles De Coster / Koldo Izagirre (Elkar/Alberdania, 2007: 204).
- (3.459) Zin egin nuen ez nuela berriz inoiz *barrerik eta aharrausirik egin behar*, ahoa sobera luza ez zedin<sup>64</sup>. EPG, *Denak hasperenka*, Gianni Celati / Pello Lizarralde (Igela, 2005: 152).

Adibide horietan guztietan bi test aplikatzen dira, koordinazioa nahiz partitiboaren agerrera; beraz, biei buruzko ondorioak atera ahal izango ditugu.

#### ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK

Aditz-lokuzio meteorologikoez osatutako adibide hauek ere, osagaien arteko banaketa erakusten dute, hau da, *egin* aditza eliptikoa izateko aukera:

- (3.460) Azaroan *beroa egingen* badu, udan euria egingo du? Azaroan *beroa* eta neguan *elurra*?

<http://euskaljakintza.com/ariketak/atsotitzak/8.htm>

Egitura koordinatu horretan, *egin* aditza isilpean egon arren, *beroa* eta *elurra* izenek ordeztzen dute aditz-lokuzio meteorologiko osoaren adiera.

---

<sup>64</sup> Bi egitura osagarrien koordinazioa dakusagu adibide honetan.

- (3.461) Goiz eta eguerdian *txingorra eta euria* gogotik egin arren, ondo jantzi, guardasola hartu eta jende asko joan zen ermitara oinez zein automobileraz. *Euria eta txingorra gogotik egin* arren San Blasco ermita bete egin zen atzo. Joseba Lezeta, Antzuiola. <http://www.diariovasco.com/v/20130203/alto-deba/euria-txingorra-gogotik-egin-20130203.html>
- (3.462) *Hotza egingo du* hemendik aurrera eta *elurra* ohiko puntuetan. Hotza, euria eta elurra asteari hasera emateko. Etb.com: <http://www.youtube.com/watch?v=qs7Ov0cvxDU>
- (3.463) *Elurra eta izotza egin du* kostaldean, eta horrek oztopoak eragin du bideetan. *Berria.info*. Papereko edizioa (2012-02-09)
- (3.464) [...] neguan *hotz egiten du*, eta udan *bero* [...].  
<http://www.solarizate.org/pdf/vasco/fichasalumnos/FICHA12.pdf>
- (3.465) *Euria* etengabe, zaparrada trumoitsuak eta *txingorra egin* dezake. <https://es-es.facebook.com/Eguraldia24/posts/675066322545203>
- (3.466) Beraz, bihar goizetik hasi eta larunbat osoan zehar *euria eta euria egingo du*.  
<http://baleike.com/eguraldia/category/albisteak/page/3/>
- (3.467) *Eguraldi ona egin zuen* egun hartan, *baita hotza ere*: horregatik zihozen biok berokia jantzita. EPG, *Arma, tiro, bammm!*, Joan Mari Irigoien (Elkar, 2013: 279).

[I+A] osagaiak banaezinak direla ikusi dugu orain arte *hitz egin*, *hots egin*, *alde egin*, *murgil egin* eta *ospa egin* lokuzioez osatutako egituretan; beraz, aditz-lokuzio horiei dagokienez, osagai guztien agerrera espero dugu koordinazio-egituran ere. Espero moduan, osagaiak banaezinak direla erakusten dute *hitz egin*, *alde egin* eta *agur egin* aditz-lokuzioaz osatutako baiezko nahiz ezezko koordinazio egiturak. *Agur egin* aditzari dagokionez, aurreko testek osagaien banaketa posible dela erakutsi dutenez, jokaera bikoitza erakusten dutenen artean kokatuko dugu emaitza guztiak laburbiltzen dituen taulan.

Aitzitik, *ele egin, iseka egin, barre egin, negar egin, irribarre egin, talka egin, otoitz egin, burla egin, kaka egin, estropezu egin, irri egin, berba egin, dantza egin, irrintzi egin, arraun egin, bultza egin, txalo egin, tiro egin, lan egin, lo egin, berba egin, solas egin* eta *putz egin* aditz-lokuzioez osatutako egituretan, osagaien jokaera askea atzematen dugu. Izenaz soilik osatutako egiturak gramatikalak dira, *egin* eliptikoa denean eta izenek konplexu osoaren adiera ordeztzen dute.

Osagaien jokaera askea atzematen dugu aditz meteorologikoez osatutako egituretan ere, hala nola *txingorra egin, euria egin, elurra egin, bero(a) egin* eta *hotza egin* lokuzio meteorologikoetan. Izenak soilik, gertakari atmosferikoa adieraz dezake, *egin* aditza eliptikoa den egitura horietan.

Ekintza behin eta berriro gertatu dela adierazteko koordinazio-egituraz baliatzen garenean ere, lokuzioen arteko desberdintasunak atzematen ditugu. *Hitz egin* lokuzioa jokoan denean, izena eta aditza, biak agertu behar dira koordinazio-egitura gramatikala izateko. *Dantza egin, arraun egin, bultza egin, tiro egin, lan egin, txalo egin, lan egin, lo egin, solas egin, euria egin* eta mota horretako aditz-lokuzioez osatzen diren egituretan, ordea, izenak soilik ordezkari dezake aditz konplexuaren esanahia.

Koordinazio-egitura kopulatiboetan ez ezik, egitura disjuntiboetan nahiz egitura adbertsatiboetan ere jokaera berbera atzeman dugu, lotura estua *hanka egin* eta *alde egin* aditz-lokuzioen osagaien artean eta banaketa besteetan. Adibideek erakusten dutenez, mota desberdinetako koordinazio egitura disjuntiboak topatu ditugu:

(3.468) Lagunarteko *hanka egin* edo *ospa egin*, era berean, *alde egin* edo ihesi joan izaten dira hizkera jasoan. EPD, *Euskara batua*, Koldo Zuazo (Elkar, 2005: 215).

(3.469) Zer egin behar da? Zuk zer egingo .... Eztul egin dezake umeak, *eztul edo negar egiten badu*, buxadura partziala da. Emergentziak.

[http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-gkemer04/eu/contenidos/informacion/emer\\_infografias\\_peri\\_y\\_para/eu\\_emer/r01hRedirectCont/contenidos/informacion/emer\\_info\\_como\\_periparada/eu\\_emer/adjuntos/perieusk.swf](http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-gkemer04/eu/contenidos/informacion/emer_infografias_peri_y_para/eu_emer/r01hRedirectCont/contenidos/informacion/emer_info_como_periparada/eu_emer/adjuntos/perieusk.swf)

Bi mendeko baldintza perpausez osatutako egitura disjuntiboa dugu adibide horretan.

- (3.470) Inoren ohoreari *kalte edo irain egin ziezaiokeen* guztia kontu handiz baztertzea. EPG, *Asisko Frantzizko, Asisko Klara, / Askoren artean*, 393.orr.
- (3.471) Vassiak ez zekien *barre edo negar egin*. EPG, *Eguzkipekoak*, Pablo Sastre (Alberdania, 2003: 286).
- (3.472) Ez *egin doministikurik edo eztulik* janariaren gainean. Janari gordina eta egosia ez nahastu. Janaria estalita mantendu. [http://paperekoa.berria.info/plaza/2009-03-03/044/008/lege\\_info.htm](http://paperekoa.berria.info/plaza/2009-03-03/044/008/lege_info.htm)

Adibide horretan, hiru testek bat egiten dute, partitiboak, disjuntzioak eta aginterak.

- (3.473) San Blas eguna: San Blas! zioen, erdi miresmen erdi otoitz, gure amonak, *doministiku edo usin egiten genuenean*. EPG, *Naturaren mintzoa*, Pello Zabala (Alberdania, 2000: 54).
- (3.474) Idealena zera da: haurrari nahi duenean nahi duenaz hitz egin. [...] *pixa edo kaka noiz egiten duen* konturatu eta pixontzira laguntzea. [http://www.gipuzkoa.net/gipuzkoangazte/gazteinformazioa/Sem\\_ealabakaldizkaria4.alea.20080612\\_1.pdf](http://www.gipuzkoa.net/gipuzkoangazte/gazteinformazioa/Sem_ealabakaldizkaria4.alea.20080612_1.pdf)
- (3.475) Gutxi ausartu zen amorraren orduan haiei *aurre edo desafio egitera*. EPG, *Eraztunen Jauna III*, J.R.R. Tolkien / Agustin Otsoa (Txalaparta, 2004: 150).

(3.476) Baina umeak *ez du lo egiten, negar baizik.*

<http://www.hikhasi.com/albistea.php?id=584>

(3.477) [...], eta denak batera *zin edo juramentu* egin zuten Eibar berriz gora jasotzeko asmo kementsuarekin" (Zelaia, 1994: 31). ETC, *Debarroko Oasi Liberala. Aitzindarien bila. Eibar, 1766-1876*, Gotzon Iparragirre, UEU, (2008).

(3.478) Bere buruaz ahaztu eta Jainkoagan biltzen zenean, ez zuen *eztulik* edo *hasperenik egiten*, ezta arnasa-hotsik edo beste ageriko keinurik ere. EPG, *Asisko Frantzizko, Asisko Klara, / Askoren artean* (Arantzazu, 2002: 339).

Azken adibide honetan bi test aplikatzen dira, disjuntiboa eta partitiboa eta bietan dakusagu *eztul egin* eta *hasperen egin* aditz-lokuzioen osagaien arteko haustura.

#### ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK:

(3.479) *Euria edo elurra egiten badu* plakak ez dira berotzen, baina hodeiak badaude bai, eguzkia hor dagoelako.

<http://www.guaixe.net/Erreportaiak.asp?IdElkarrizketa=148&IdMota=1>

Azken adibide honetan ere, bi baldintza egitura disjuntibo ditugu.

(3.480) Mugikortasun aukerak: Oinez nahiz eta *euria, elurra edo kazkabarra egin.*

<http://bitacorras.com/anotaciones/mugikortasun-aukerak-oinez-nahiz-eta-euria-elurra-edo-kazkabarra-egin/25833186/>

Azken adibidean, egitura adbertsatibo disjuntiboak ditugu.

*Egin* aditz eliptikoaz osatutako egitura disjuntibo eta adbertsatibo hauek erakusten dutenez, *hanka egin, alde egin* eta *ospa egin* aditz-lokuzioek, osagaien arteko lotura estua erakusten dute, orain arte ikusi dugun jokaera mantenduz.

*Eztul, kalte, barre, doministiku, pixa, aurre, hasperen* eta *zin* izen sintagmek, aitzitik, predikatu osoaren esanahia bere egiteaz gain, argumentu sintaktiko aske gisa funtzionatzen dute. *Espero bezala* eta orain arte atzemandako emaitzekin bat etorritz, jokaera askea erakusten dute, halaber, *euria* eta *elurra* izenek, aditz-lokuzio meteorologikoez osatutako egitura disjuntiboetan.

### 3.4. AGINTERA

Test honetan aditz-lokuzioen jokaera aztertuko dugu, lokuzioa baiezko edo ezezko aginte egituretan agertzen denean. Aurreko testek erakutsitakoarekin bat datozen bi jokaera sintaktiko nabarmen bereiz ditzakegu aginte egituretan ere:

**a) [I+A] hurrenkera edo osagaien arteko lotura estua:**

**a.a) Lotura estua baiezko aginte egituretan**

**a.b) Lotura estua ezezko aginte egituretan**

**b) [I+A] hurrenkeraren haustura:**

**b.a) Haustura baiezko aginte egituretan**

**b.b) Haustura ezezko aginte egituretan:**

**b.b.a) ez + egin + I(+/-part.) hurrenkera**

**b.b.b) ez + I(+part) + egin hurrenkera**

**b.b.c) I(+part) + ez + egin**

**a)** Lehenik, [I+egin] osagaien hurrenkera erakusten duten aginte egiturak aurkeztuko ditugu.

**a.a)** Osagaien arteko lotura estua atzeman dezakegu baiezko aginte egitura hauetan:

- (3.481) *Hitz egin ezazu* poliki, lasai eta garbi. Erakuts iezazioz bokalizazioan erreparatzen, hizketan ari zaionaren ezpainetara begiratzen, alegia.
- (3.482) *-Hitzegin* hinki-hankarik gabe- hotsegin zuen H-k. EPG, *Groenlandiako lezioa*, Bernardo Atxaga (Erein, 1998: 133).
- (3.483) *Hots egiozu* berriz. Aurki hamarrak; azkeneko meza. Ez dezala gal. Jesus! *Bidez bide*, Jose Artetxe (1994), Erein argitaletxea: <http://www.armiarma.com/emailuak/erein/arte24.htm>
- (3.484) *Hanka egin dezagun* hemendik, lotsagatik besterik ez bada ere. EPD, *Parmako kartusia*, Stendhal / Jon Muñoz (Elkar/Alberdania, 2007: 336).
- (3.485) *Hanka egin dezagun*, berandu izan baino lehen! EPD, *Esperantza*, Andre Malraux / Karlos Zabala (Elkar-Alberdania, 2008: 447).
- (3.486) TXAPAS.—. Mukizu arraioa! *Ospa egin zak hemendik*, erredios! Goenkale Corpusa, 1281 atala, Panpina panpinaren truk. Sek.:6.
- (3.487) Orain, *ospa egin dezagun hemendik*, eta *otoitz egin diezaiogun* hire Jainkoari. <http://armiarma.eus/unibertsala/bassani/bass31.htm>
- (3.488) [...] *aurre egiozu* plastikoari eta erosketa orgatxo bat lor ezazu. <http://www.uribekosta.org/eu/c/sostenibilidad/berria/aurre-egiozu-plastikoari-eta-erosketa-orgatxo-bat-lor-ezazu>
- (3.489) Beste gauza bat: kasu horietan ezin diozu sekula utzi zure aho-barrean berehala bukatzen eta, hala egiten badu, *listu egin ezazu*, garbi ezazu ahoa, igurtz itzatzu ezpainak musuzapi batez, eta horrelakoak. EPG, *Buda zoriontsuen etxea*, João Ubaldo Ribeiro / Karlos Zabala (Txalaparta, 2003: 36).

(3.490) Sahararen alde *arraun egin* ezazu.

<http://www.donostiaentremundos.org/eu/evento/166-sahararen-alde-arraun-egin-ezazu>

(3.491) *Murgil egin*, baina tentuz, EPG, *Berria*, Euskal Herria saila, 2004, 2006, Edurne Soraluze (2004-08-27).

Espero bezala eta aurreko testen emaitzekin bat etorritz, osagaien arteko lotura estua erakusten dute *hitz egin*, *hots egin*, *hanka egin*, *ospa egin*, *aurre egin* (partitiboan), *listu egin* eta *murgil egin* lokuzioek, baiezko aginte egitura horietan.

(3.492) -Ondo *lo egin*, Ellen. EPG, *Manhattan Transfer*, John Dos Passos / Lopez de Arana (Ibaizabal, 1999:74).

(3.493) *So egiozu*. *So egizu* nor heldu den. Euskaltzaindiaren Hiztegia (2012).

(3.494) *Amets egin ezak!* ? EPG, *Loroaren teorema*, Denis Guedj / Jon Muñoz (EHU, 2006: 406).

(3.495) Hil da Gure Errege Koroagabea. // *Auhen egizu*, Erin, nahigabe eta penaz, // Zeren hilik baita eraitsi duena // Gaurko hipokriten samalda ankerrak. EPG, *Dublindarrak*, James Joyce / Irene Aldasoro (Alberdania, 1999: 196).

(3.496) *Otoitz egin dezagun* Jainkoaren herriaren alde.

[http://www.arantzazukosantutegia.org/index.php?option=com\\_content&view=article&id=635%3Aaurtea-abenduko-1-igandea&catid=20%3Aayudas-para-la-liturgia&Itemid=89&lang=es](http://www.arantzazukosantutegia.org/index.php?option=com_content&view=article&id=635%3Aaurtea-abenduko-1-igandea&catid=20%3Aayudas-para-la-liturgia&Itemid=89&lang=es)

(3.497) *Zin egidazu* Jaunarengatik, zero-lurren Jainkoarengatik, ez duzula nire semearentzat emazterik hartuko bizi naizen lurralde honetako kanaandarren alabetatik. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Has 24,3.

- (3.498) «*Erregu egin dezagun* Mousavi izan dadin aukeratua». EPD, *Berría*, «Buruzapia», Carles Castro (2009-06-11).
- (3.499) *Bultza egiozu* bizikletari, alboko aingura sistema ...  
<http://www.emugibizikleta.es/eu/pages/como.html>
- (3.500) Bihar ez badaukazue orain agindu dizuedana, *tiro egin* *iezdazue*. EPD, *Esperantza*, Andre Malraux / Karlos Zabala (Elkar-Alberdania, 2008: 340).
- (3.501) Txakur batek beste txakur batekin topo egiten duenean, mezu hau bidaltzen dio: *usain egidazu*. EPG, *Giza gorputza lanean*, John Lenihan / Irene Aldasoro (EHU, 2006: 151).
- (3.502) Goraintziak etxean, eta *kontu egiok* amari. EPD, *Argi-itzaletan neurria*, Xabier Artola (Elkar, 2011: 127).
- (3.503) Ea bada *aharrausi egin ezak*. Nik agindua  
<http://www.euskalnet.net/jonetxe/printze/cap10.html>
- (3.504) HORTENTSI.— *Dei egiok*, ba! Niri, bost! Goenkale Corpusa, 233 atala, Zimarroiak Arralden, Sek.:5.
- (3.505) *Salto egin* uretara eta urrundu! EPG, *On Camillo*, Giovanni Guareschi / Koldo Biguru (Ibaizabal, 2001: 238).
- (3.506) *Galde egiozu* zure lagun turkoari nondik datorkion euskal pastoralei buruzko arreta. EPG, *Berría*, Kultura, 2004, 2006, «Konpainia nobleanTurkoak», Anjel Lerxundi (2004-06-06).
- (3.507) *Aitor egiozu* zeruari; damu izan iragan dena; eragotzi datorkeena; eta ez zabaldu simaurra belar gaiztoen gainean, gaitzago haz daitezten. EPG, *Hamlet*, William Shakesperare / Juan Garzia (Ibaizabal, 2002: 155).

**a.b)** Halaber, osagaien arteko lotura estua erakusten dute ezezko aginte egitura hauek:

- (3.508) "*Etzazula hitzegin, ez baduzu nahi hutsegin*". EPG, *Trapuan pupua*, Patziku Perurena (Erein, 2001: 194).
- (3.509) *Ez hitz egin* zentzugabearen belarrira, mesprezatu egingo baititu zure zentzuzko arrazoiak. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), EsZ 23,9.
- (3.510) Haiekin bazkaltzen ari zen batean, honela agindu zien: "*Ez alde egin* Jerusalemdik, zaudete nik Aitaren partetik egin dizuedan agintzaria bete zain. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Eg 1,4.
- (3.511) "Poliki! Eta ez *aldegin*<sup>65</sup> jolastokitik!" EPG, *Uda betiko balitz*, Xabier Mendiguren Elizegi (Elkar, 2003: 117).

Espero bezala, osagaien arteko lotura estua erakusten dute *hitz egin* eta *alde egin* aditz-lokuzioez osatutako ezezko aginte egitura horiek ere.

- (3.512) EZ horrek biribila izan behar du; horretaz... Honako hau esan orde: «*Ez garrasi egin*» «Hitz egin ixiltxeago» esan.

[https://www6.euskadi.net/r45-contss/eu/contenidos/informacion/publicaciones\\_ss/eu\\_publica/adjuntos/Guia%20E%200-3%20a%C3%B1os.pdf](https://www6.euskadi.net/r45-contss/eu/contenidos/informacion/publicaciones_ss/eu_publica/adjuntos/Guia%20E%200-3%20a%C3%B1os.pdf)

- (3.513) Eliasek esan zuen: - Harrapa itzazue Baalen profetak! *Ez dezala* batek ere *ihes egin*! Harrapatu zituztenean, Kixon

---

<sup>65</sup> Hala eta guztiz ere, *alde / alde hemendik!* agintea adierazten duen egituraren berri eman behar dugu. Esamolde hori asko erabiltzen den arren, salbuespen gisa har dezakegu:

(i) Abiatar apaizari esan zion erregeak: "*Alde hemendik* Anatotera, zeure lurretara. Heriotza merezi duzu zuk ere, baina ez zaitut hilko, gure aita Daviden aurrean Jainko Jaunaren kutxa eraman izan duzulako, eta berak jasan zituen nekeak zuk ere jasan izan dituzulako". EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Erg 2,26.

errekara jaitsarazi eta lepoa moztu zien Eliasek. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Erg 18,40.

- (3.514) Suizidioaren eta izerdiaren artean, *ez ezan duda egin*. EPG, *Durduzaz eta dardaraz*, Amélie Nothomb / Joxan Elozegi (Igela, 2003:92).
- (3.515) Zer edo zer behar baduzu, *ez duda egin* eta planteia ezazu. <http://www.gipuzkoangazte.info/artikulu.asp?zeartikulu=643>
- (3.516) *Ez iruzur egin*, ez gezurrik esan, *ez birao egin*. EPG, *Peaceful soldadua*, Michael Morpurgo / Mirentxu Larrañaga (Alberdania, 2006:11).
- (3.517) *Ez niregatik negar egin*. *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (2012: 611).
- (3.518) *Ez 'zan negar egin*. EPG, *Maitea*, Toni Morrison / Anton Garikano(Alberdania, 2004: 365).
- (3.519) *Ez leher egin*, Lucien Etxezaharreta 2012, Euskal Poesiaren ataria <http://www.basquepoetry.net/?i=poemak&b=1644>
- (3.520) *Ez ezazu gure aurpegira barre egin* mesedez. <http://goiena.net/arrasate/1390922809873>
- (3.521) -*Ez kontu egin* kale honetako jendeari. EPG, *Mirarien kalezuloa*, Nagib Mahfuz / Patxi Zubizarreta (Alberdania-Elkar, 2006: 237).
- (3.522) Laguntzat elefantea daukan ehiztariak giza elefante bat - nolabait deitzearren - topatzen duenean, animalia nobleak hanka bat altxatzen omen du eta aurpegi aurrean eusten dio, modu horretan "*ez tiro egin*" esan nahiko balu bezala. Pentsamenduaren Klasikoak *corpusa*, *Urrezko abarra II*, James George Frazer / Iñaki Iñurrieta (1995: 371).
- (3.523) *Ez bultza egin*. EPG, *Zertaz ari garen maitasunaz ari garenean*, Raymond Carver / Koro Navarro (Alberdania-Elkar, 2003: 169).

Jokaera berbera errepikatzen da baiezko nahiz ezezko zehar aginteran ere; hurrenkera banaezina *alde egin*, *hitz egin* eta *ospa egin* aditz-lokuzioetan, besteak beste:

- (3.524) Ahotsa entzun zuten israeldarrek, gehiago *ez ziezaiela hitz egin* eskatu zuten. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Eb 12,16.
- (3.525) Polikiago *hitz egiteko* esan dit, ez didala ezer ulertzen eta. <http://es.scribd.com/doc/14010088/Agintera-NorNornork-5>
- (3.526) Monsieur etorri arte *ez aldegitoko* inora esan dit, gainera. EPG, *Ordaina zor nizun*, Joxemari Urteaga (Elkar, 2001: 212).
- (3.527) Ea, *ospa egiteko* esan dizut! EPG, *Harry Potter eta sekretuen ganbera*, J.K. Rowling / Iñaki Mendiguren (Elkar, 2001: 268).
- (3.528) *Geroxeago ospa egiteko* esan zidan, etxea eta barruko guztia berea zela eta. ETG, *Argia*, «Alepoko Poeta», Karlos Zurutuza (2009-01-20).
- (3.529) Lagunei gogor *arraun egiteko* agindu nien, heriotzetik ihes egin ahal izateko. EPG, *Ulises*, Homero / Juan Kruz Igerabide (Erein, 2000: 64).
- (3.530) -Ellie, esan dizut *lo egiteko*...EPG, *Manhattan Transfer*, John Dos Passos / Lopez de Arana (Ibaizabal, 1999: 73).
- (3.531) Tarteka *arnas egiteko* agintzen zidan. EPG, *Ospitalekoak*, Mikel Antza (Susa, 2010: 49).
- (3.532) Eduarda andreak malkoak garbitu zituen, Graçak *zintz egiteko* eta isiltzeko esan nahi zion, gehiago ez kontatzeko, baina ez zitzaion ahotsa ateratzen [...]. EPG, *Napomuceno da Silva Araujo jaunaren testamentua*, Germano Almeida / Bego Montorio (Txalaparta, 2003: 174).

**b)** Ondorengo aginte egituretan, ordea, *egin+I* ordena inbertitua nagusitzen da.

**b.a)** Baiezko aginte egiturei dagokienez, *egin*+*l* osagaien hurrenkera erakusten dute honako hauek:

(3.533) [...] eta esan zion mutikoari: - Zoaz eta *egizu lo*. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Sm 3,9.

(3.534) Ondoren, ikasleengana joan eta esan zien: "*Egin lo* eta hartu atsedena! EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Mt 26,45.

(3.535) *Egiazue aurre* fedean sendo, munduan zabaldurik diren beste senideak ere zuek bezalakoxe sufrimentuak jasaten ari direla jakinik. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (idatz, 2004), 1P 5,9.

(3.536) Lehenbizi *egin aurre* etsaiei eta borrokatu horien kontra, gero hartuko dituzue lasai harrapakinak". EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), M 4,18.

Aurreko testetan desadostasunak atzeman ditugu *aurre egin* aditz-lokuzioari dagokionez. Galdegaiaren testean osagaiak bana zitezkeela ikusi dugu, partitiboaren testean, ordea, lotura estua atzeman dugu osagaien artean. Aginte egituran oinarritzen den testak ere aditz-lokuzio horren jokaera bikoitza erakusten du.

(3.537) Eta bertzalde, *egiezu so* zain dauzkazun nahigabeei! EPG, *Harreman arriskutsuak*, Choderlos de Laclos / Jon Muñoz (Ibaizabal, 1997: 49).

(3.538) Hamlet laztana, uxa ezak, uxa, kolore gautu hori, eta lagun gisa *egiok so* erregerekin Danimarkari. EPG, *Hamlet*, William Shakesperare / Juan Garzia (Ibaizabal, 2002: 34).

(3.539) Jerusalem, estali dolu-jantziz, irauli hautsetan, *egin dolu* seme bakarraren heriotzakoan bezala, *egin negar* saminki, bat-batean etorriko baita hondatzailea zure gainera. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Jr 6,26.

(3.540) Israelgo alabak, *egiozue negar* Sauli, dotore janzten zintuzten eta apaintzen, urrezko bitxiz zituen zuen soinekoak edertzen. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Sm 1,24.

(3.541) Fukushima 4: *egin dezagun otoitz* erori ez dadin.

<http://www.argia.com/albistea/fukushima-4-egin-dezagun-otoitz-erori-ez->

(3.542) BEGOÑA.— Pazientziaz hartu, erreztatzea ahaztu ez bazaizu, *egizu otoitz* ezer txarragorik izan ez dadin. Goenkale Corpusa, 525 atala, Txominen erresumatik etorria, Sek.:2.

a.a) azpitaldean *otoitz egin dezagun / diezaiogun* egiturak ikusi berri ditugu; beraz, jokaera bikoitza erakusten dutenen taldean kokatuko dugu *otoitz egin* lokuzioa.

(3.543) *Egin barre, egin barre!* EPG, *Olatu bat kuartelen gainetik*, Xabier Amuriza (Lanku, 2009: 104).

(3.544) Bai, *egidazue barre*, mila arriskuren gainetik ostera elkar ikusi duzuenok. EPD, *Ulenspiegelen elezaharra*, Charles De Coster / Koldo Izagirre (Elkar/Alberdania, 2007: 558).

(3.545) Ea, bada, *egiozu desafio* nire jaunari, Asiriako erregeari: bi mila zaldi emango dizkizut, beste hainbeste zaldun. <http://www.biblija.net/biblija.cgi?set=21&l=eu&compact=1&pos=1&qall=1&idq=0&idp0=35&m=ls+36%9639>

(3.546) Mundu hau ez da deus, *egizu kontu* beste munduaz. *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (2012).

(3.547) *Egin burrunba* hilak benetan pizten dituen horietakoa. <http://eu.musikazblai.com/buscar/musikari/>

(3.548) Barkatu oraingo honetan ere nire bekatua eta *egiozue erregu* zeuen Jainko Jaunari, heriotza-zigor hau alden diezadan" EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Ir 10,17.

- (3.549) *Egin garrasi eta ulu*, gizaseme, nire herria zigortzeko baita ezpata, Israelgo printze guztiak zigortzeko, printzeak herriarekin batera. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Es 21,17.

Adibide horrek, bi jokaera erakusten ditu. *Garrasi egin* osagaien jokaera sintaktiko askea aginte egituran, nahiz *ulu egin* aditzaren osagaien jokaera askea koordinazioan.

- (3.550) Orduan D. Nicasio Mendiburu zen apez Saldisen, eta hark esan zion: "Zoaz Lekarozko komentura eta *egizu galde* Francisco Etxalar jaunaz, hark jarriko dizkizu". EPG, *Harrizko pareta erdi urratuak*, Patziku Perurena (Euskaltzaindia, 2004: 46).
- (3.551) Igo horra eta *egiozu zaunka* piztia horri, zulotik irtenarazi arte - agindu zion, leizea seinalatuz. EPG, *Gerlari zuria*, Joanes Urkixo (Elkar, 2004: 111).
- (3.552) Zein atsegin handiari egiten dioten uko, oinaze hain txikiaren truke!... Bultza! Bultza! Zaldun, ni banoa!... Ureztatu zure izor-esnez ireki dizkidazun zauriak... *Egin bultza* nire umetokiaren hondoraino... EPG, *Filosofia apaingelan*, Sade / Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio (Txalaparta, 2001: 205).
- (3.553) Kontrakzioa iristen denean, *egin bultza* indar guztiekin. EPD, *Ez naiz ni*, Karmele Jaio (Elkar, 2012: 107).
- (3.554) Salmoa: Herri guztiok, *egin txalo* (7. Salmoa, goian bezala). EPG, *Asisko Frantzizko, Asisko Klara*, / Askoren artean (Arantzazu, 2002: 89).
- (3.555) *Egiozu tiro*, tripan. EPD, *Saguak eta gizonak*, John Steinbeck / Iñigo Errasti (Alberdania, 2012: 145).
- (3.556) "*Egin ihes* Babiloniatik, israeldarrok, utzi berehala herrialde hori, irten akerrak ahuntz-taldearen aurretik bezala! EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Jr 50,8.

- (3.557) *-Egin zintz* - esaten dio Lepic andreak uneoro. EPG, *Axenario*, Jules Renard / Itziar Otegi (Alberdania-Elkar, 2006: 172).
- (3.558) Eta mukosa hori baldintzarik onenetan edukitzeko, *egizu zintz* sarritan, eta, muki ugari pilatzen zaizkizunean, garbitu itzazu sudurrak gatz soluzioarekin (botikan lortuko duzu). ETC, *Berria*, Gaiak, «Neguko hotzari aurre egiteko», Jabier Agirre (2008-01-22).
- (3.559) *Egidak zin*, ez gaituala salduko! EPD, *Batxilerren eguna*, Franz Werfel / Juan Luis Agirre (Igela, 2008: 168).
- (3.560) Zoraturik dago erregea zure edertasunaz. Bera da zure jaun; *egiozu agur*. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Sal 45,12.
- (3.561) AINHOA.— Iratxe, aker bat ematen duzu! *Egin dantza* lasaiago, zorabiatuko zara azkenean. Goenkale Corpusa, 439 atala, Kaleratze garestia, Sek.:13.
- (3.562) BEGOÑA.— Damutu? Gibelak behar dira. Zer, eta hori entzun behar, gainean. *Egidazu kaka* burutik behera, horixe bakarrik falta zaizu eta. Goenkale Corpusa, 454 atala, Kontu hutsak baino gehiago, Sek.:12.
- (3.563) TXAPAS.— Kapitain ederra sekulako zikloi baten erdian! Alde egin ezak hemendik! Eta hurrengoan *egin pixa* hire barkuan, aitu? Goenkale Corpusa, 454 atala, Kontu hutsak baino gehiago, Sek.:13.

*Pixa egin* aditz-lokuzioaren osagaien arteko banaketa ez ezik, bi aditz-lokuzioen koordinazioa dugu aurreko adibidean. Espero bezala, *alde egin* aditz-lokuzioan osagaien hurrenkera mantentzen dela dakusagu.

- (3.564) -*Egidazu berba argi*, arren. EPD, *Errotik*, Gotzon Barandiaran (Susa, 2010: 179).
- (3.565) *Tira, egin jauzi*, ez nago eta txantxetarako. EPG, *Motoa*, Juan Kruz Igerabide (Alberdania, 2012: 36).
- (3.566) ISAIAS.— Kontuz ibili! Anjel ikusten baduzu, ez hurbildu beregana. Eta ertzaintzari *egin dei!* Nire anaiarekin *hitz egin* Anjel ikusi duzula esanez. Goenkale Corpusa, 1459 atala, Iraindu eta irendu, Sek.:6.

Adibide horrek ere baieztatzen du aditz-lokuzioen arteko jokaera desberdina, aginte egituran. *Dei egin* lokuzioak [+egin] osagaien banaketa erakusten du, *hitz egin* lokuzioari dagokionez, ordea, hurrenkera mantentzen dela dakusagu.

- (3.567) -Inoren beldurrik gabe *egik birao*, aita sainduaren baimena diagu eta. EPG, *Mailuaren odola*, Aingeru Epaltza (Elkar, 2006: 37).
- (3.568) -Joan zaitetz, bildu Susan bizi diren judu guztiak, eta *egizue barau* nire alde. EPG, *Agindutako lurraren bila II*, Jose Antonio Mujika (Erein, 2002: 136)
- (3.569) LUTXI.— Baietz ba... Begiratu kamarari, *egin irribarre...* Goenkale Corpusa, 1943 atala, Celiaren egokitzea, Sek.:14.
- (3.570) *Egin argi* nire begioi, ez nazan herio-loak har, / ez dezan etsaiak esan: "Garaitu dut". EPG, *Asisko Frantzizko, Asisko Klara, / Askoren artean* (Arantzazu, 2002: 87).
- (3.571) *Egin salto* lehenengo mailako edukira.  
<http://www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365/2013/07/23/nerea-mendizabal-gatazka-bat-baldin-badaukazu-ikus-ezazu-zer-behar-duzun-zuk-eta-zu-gogaitzen-ari-den-pertsonak/>
- (3.572) Abestia entzun eta hutsuneak bete ariketa egiteko, *egin klik* irudiaren gainean.  
<http://euskaljakintza.com/gaurkohitza/category/f/page/2>

- (3.573) *Egin bezate urek borbor bizidunez.* <http://es.bibles.org/eus-EAB/Gen/1>
- (3.574) *Egidazu laztan, ene maitea, eta aberatsa izango zara; eta okela jango dugu, eta garagardoa edango dugu egunero, garagardo freskoa, bits ederrekoa. ETC, *Ulenspiegelen elezaharra*, Charles De Coster / Koldo Izagirre (Elkar/Alberdania, 2007).*
- (3.575) *Izarretan bazaude egidazu keinu aitatxo maitea.* <http://goiena.eus/komunitatea/aoiarbide/1386614929260>
- (3.576) *Egin daigun zurrut banda handi haren omenez!. ETC, *Larunbatak*, Jon Arretxe (Elkar, 2001).*
- (3.577) *Egin dezagun korrika euskaraz!* <http://www.aek.eus/index.php/es/1271-edin-dezagun-korrika-euskaraz-2>
- (3.578) *Etxea zure gainera erori aurretik, egizu ospa!*<sup>66</sup> *Irten haizea hartzera. ETG, *Berria*, Iritzia, «Etxea, mundua», Irati (2011-03-23).*
- (3.579) *Hain zuzen ere, bada bosniarren artean oso ezaguna den txiste bat, honela dioena: 'Zoaz Sarajevo erdiguneko Tito mariskalaren kalera, eta egin oihi, ministro jauna!; baietz kaleko jendearen erdiak atzera begiratu'». ETG, *Berria*, Harian, «Independentziaren bila», Pau Bori, (2009-07-11).*
- (3.580) *Egin irrintzi nire mendi santuan!* <http://es.bibles.org/eus-EAB/Joel/2>

**b.b)** Ezeko aginte egiturei dagokienez, hauexek dira osagaien arteko jokaera askea erakusten dutenak:

---

<sup>66</sup> Agerraldi bakarra topatu dugunez eta osagaien hurrenkera erakusten duten egiturak nabarmenki ugariagoak direnez, salbuespen moduan hartuko dugu, *ospa egin* aditz lokuzioaren hurrenkera hori.

**b.b.a)** Batetik, ez + egin+ I(+/-part) osagaien hurrenkeraz osatutako egiturak aurkitu ditugu:

- (3.581) Josuek agindu hau emana zion herriari: *Ez egin irrintzirik, ez dadila hizketa-hotsik entzun*". EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Jos 6,10.
- (3.582) *Ez egin lorik*, ez hartu atsedunik. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), EsZ 6,4.
- (3.583) *Ez egin ametsik*, gero. EPG, *Hona hemen gu biok*, Dorothy Parker / Mirentxu Larrañaga (Alberdania-Elkar, 2006: 89).
- (3.584) *-Ez egin negar*, Fifi - esan zuen koronelak, zeinak arratsalde osoa emana baitzuen leku beretik mugitu gabe -. EPG, *Manhattan Transfer*, John Dos Passos / Lopez de Arana (Ibaizabal, 1999: 61).
- (3.585) Itzuli zen Jesus haiengana eta esan zien: "Jerusalemgo emakumeok, *ez egin negarrik* niregatik; egizue negar zeungatik eta zeuen seme-alabengatik. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Lk 23,28.
- (3.586) *Ez egin pixa kalean!*". Irailaren bigarren asteburuan ekin zion elkarteak lema hori daraman kanpainari, [...].
- <http://www.hirian.com/2012/09/16/ez-egin-pixa-kalean-aizu/>
- (3.587) *Ez egin barrerik*, horrek elefante kumeari ez deutso graziarik egiten eta. EPG, *Olatu bat kuartelen gainetik*, Xabier Amuriza (Lanku, 2009: 99)
- (3.588) *Ez egin barre*, baina, ez duzu uste nire lagun gazte, indartsu eta edozertarako prest daudenen bila joan eta boluntario-talde bat sor genezakeela? EPD, *Suite frantsesa*, Irene Nemirovski / Mikel Garmendia / Jose Antonio Sarasola (Alberdania, 2011: 37).

- (3.589) *Ez egin doministiku bihurgunean.*  
<http://kuetoeskola.wikispaces.com/file/view/002+bihurgune+arri+skutsua.pdf>
- (3.590) Bihar dantzatu asko diskotekan eta ez egin aldarririk.  
[https://portal.kutxabank.es/roller/coloniasbbk/eu/entry/brinas\\_os\\_teguna\\_8\\_jueves\\_8](https://portal.kutxabank.es/roller/coloniasbbk/eu/entry/brinas_os_teguna_8_jueves_8)
- (3.591) *Ez egin zinik zeure buruarengatik ere, ez baitezakezu zeure ile bakar bat ere zuri edo beltz bihur.* EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Mt 5.36.
- (3.592) *-Ez egin burlarik*, agindu zien gerlariei. EPG, *Gerlari zuria*, Joanes Urkixo (Elkar, 2004: 189).
- (3.593) SATUR.— Beno, beno... baina ez egidak bultza. Goenkale Corpora, 844 atala, Josuneren sekretua, Sek.:6.
- (3.594) *-Ez egin tirorik.* EPD, *Hilabete bat Montalbanorekin*, Andrea Camilleri / Fernando Rey (Igela, 2011: 247).
- (3.595) *Ez egin minik umeei.* EPD, *Hilobiko isiltasuna*, Arnaldur Indridason / Julen Gabiria (Erein-Alberdania, 2010: 57).
- (3.596) ANTTON.— Ba, ez egin irribarrerik ezezagunei. Goenkale Corpora, 2008 atala, Aspaldiko kontu zaharren zama, Sek.:10.
- (3.597) *- Ez egin kasurik*, maitea. EPG, *Manhattan Transfer*, John Dos Passos / Lopez de Arana (Ibaizabal, 1999: 24)
- (3.598) "Pasagunean behera, kontuz, ez egin behaztoparik. EPG, *Manhattan Transfer*, John Dos Passos / Lopez de Arana (Ibaizabal, 1999: 108)
- (3.599) *- Ez egin errietaryk niri.* EPG, *Manhattan Transfer*, John Dos Passos / Lopez de Arana (Ibaizabal, 1999: 199).
- (3.600) Ez anaia ez-apaiz horiek ez dute inola ere ahalmenik penitentzia ezartzeko, hauxe besterik: Zoaz eta ez egin berriro

*bekaturik*". EPG, *Asisko Frantzizko, Asisko Klara, / Askoren artean* (Arantzazu, 2002: 116).

**b.b.b)** Bestetik, ez + I(+part) + *egin* ordena erakusten duten aginte egiturak aurkitu ditugu. Aditz-lokuzioaren osagaien ordena inbertitua ez izan arren, [I+A] osagaien arteko lotura ez da estua izena partitiboaz markatzen den aginte hauetan guztietan:

(3.601) *Ez ezdulik egin, Fidel!* EPG, *Fidel izan beharraz*, Oscar Wilde / Antton Olano (Ibaizabal, 2000: 110).

(3.602) Frantziskok esan zien: "Presta ezazue otordua guztiontzat eta jan dezagun denok elkarrekin; eta *ez ezazue negarrik egin*, oso pozik jarriko zaituztet eta". *Asisko Frantzizko, Asisko Klara, / Askoren artean* (Arantzazu, 2002: 673).

(3.603) Har itzazu nireak ere ager ohi duzun ontasunaz, eta *ez ezazu sekula dudarik egin* ohorez opa dizkizudan neure sentimendu egiazkoez, etab. EPG, *Harreman arriskutsuak*, Choderlos de Laclos / Jon Muñoz (Ibaizabal, 1997: 57)

(3.604) -Ron, *ez iezaiozu minik egin!* - oihu egin zion Hermionek. EPG, *Harry Potter eta sorgin harria*, J.K. Rowling / Iñaki Mendiguren (Elkar, 2000: 121).

(3.605) "*Ez biezaio* inork herritarrari *kalterik egin*; horrela erakutsiko duzue begirune diozuela zeuen Jainkoari. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren artean (Idatz, 2004), Lb 25,17.

(3.606) Kristoren izenean agintzen dizut, *ez iezaguzu kalterik egin*, ez niri ez beste inori". EPG, *Asisko Frantzizko, Asisko Klara, / Askoren artean* (Arantzazu, 2002: 982).

(3.607) Hazkura? *Ez hatzik egin*.

<http://www.deskontu.com/eu/donostia/azkenaldiko-eskaintzak/107>

(3.608) *Ez jaramonik egin* haren joan-etorriei, bera ongi dago. EPD, *Jaiotze markak*, Nancy Huston / Iñigo Errasti (Alberdania, 2009: 39)

Horiez gain, *egin* aditz eliptikoaz osatutako adibide bat ere aurkitu dugu, partitiborik gabeko izenaz osatzen dena. Hala nola:

(3.609) Guk ez dugu hilko -ez diezagula inork horrelakorik leporatu- eta *ez diezaiozun bultza*.

<http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2013/12/01/ocio-y-cultura/ideiak-hil-deiak>

**b.b.c)** Azkenik, ondorengo zehar-aginte egitura topatu dugu, I(+part) + ez + *egin* osagaien hurrenkeraz osatzen dena:

(3.610) Yoshidak langile bati agindu zion *kasurik ez egiteko* gero esango zuenari. <http://www.berria.info/blogak/quarkenzaporea/>

Aginte egituran oinarritzen den testa aintzat hartuz, alde batetik, osagaien arteko lotura estua erakusten duten aditz-lokuzioak topatu ditugu, a) motako baiezkotako eta ezezkotako aginte egiturak edo [I+A] hurrenkera erakusten dutenak. Lokuzio horien artean ditugu, *hitz egin (hitzegin), hots egin, hanka egin, ospa egin, aurre egin, alde egin, listu egin, lo egin, so egin, amets egin, arraun egin, auhen egin, murgil egin, otoitz egin, zin egin, erregu egin, bultza egin, tiro egin, usain egin, kontu egin, aharrausi egin, garrasi egin, ihes egin, duda egin, iruzur egin, birao egin, negar egin, leher egin, barre egin, arnas egin, zintz egin, dei egin, salto egin, galde egin, aitor egin*, eta abar. Baina, horietako batzuetan kontrako jokaera ere atzeman dugu, horregatik, lotura estua soilik erakusten duten aditzen taldea mugatuagoa dela ikusiko dugu emaitzak laburbiltzen dituen hurrengo sailkapenean.

Osagaien arteko lotura estua erakusten ez duten adibideak ugariak direla esan behar dugu eta horien artean hiru hitz-ordena erakusten dituzten aditz-lokuzioak topatu ditugu. Batetik, baiezkotetan nahiz ezezkotetan (ez) + *egin* + I(+/-part) hitzen hurrenkera erakusten duten aditz-lokuzioak aurkitu ditugu.

Bestetik, bi hitz-ordena atzeman ditugu ezezko aginte egituretan; ez + I(+part) + *egin* hitz-ordena eta I(+part) + ez + *egin* hitz-ordena, zehar-aginte egituretan. Horien artean ditugu, *lo egin, aurre egin, so egin, dolu egin, negar egin, otoitz egin, barre egin, desafio egin, kontu egin, borbor egin, burrunba egin, erregu egin, garrasi egin, ihes egin, zintz egin, agur egin, irrintzi, amets egin, pixa egin, doministiku egin, aldarri egin, zin egin, eztul egin, duda egin, min egin, kalte egin, hatz egin, zaunka egin, burla egin, kasu egin, behaztopa egin, bekatu egin, bultza egin, txalo egin, tiro egin, bultza egin, dantza egin, kaka egin, pixa egin, berba egin, jauzi egin, dei egin, birao egin, barau egin, irribarre egin, jaramonik egin, salto egin, klik egin, borbor egin, laztan egin, keinu egin, zurrut egin* eta abar.

Jokaera bikoitza erakusten duten aditz-lokuzioen artean ditugu, beraz, *amets egin, lo egin, so egin, duda egin, negar egin, aurre egin, barre egin, kontu egin, otoitz egin, zin egin, garrasi egin, ihes egin, bultza egin, tiro egin, dei egin, birao egin, salto egin*, eta abar.

### 3.5. MENDEKO PERPAUS KONPLETIBOAK

Mendeko perpaus konpletiboak<sup>67</sup> mota desberdinetakoak izan daitezke, baina horiek guztiak sail batean biltzeko arrazoi kontsideratu da perpaus nagusian dagoen elementu gobernatzaile baten osagarri izatea. Besteak beste<sup>68</sup>, perpausa nagusiaren aditza izan daiteke mendeko perpaus konpletiboaren gobernatzaile eta perpaus konpletiboaren eta elementu gobernatzailearen artean dagoen erlazioa osagarri-erlazioa da edo konplementazio-erlazioa da, (Euskaltzaindia 1999: 13). Lerro hauetan, erlazio hori nolakoa izan daitekeen ikusiko dugu, gobernatzaile moduan aditz-lokuzioak dituzten *corpus*etako adibideetan oinarrituz.

<sup>67</sup> osagarriak (sinonimo gisa erabiliko ditugu).

<sup>68</sup> Perpaus konpletiboen gobernatzailea mota sintaktiko desberdinetakoa izan daiteke; aditza, IS, izenondoa edo graduatzailea (gutxiagotan) edota beste predikatu-egitura, (Euskaltzaindia 1999: 19). Guk, dena den, aditz-lokuzioek gobernatzen dituzten egitura konpletiboak aztertuko ditugu.

Esan gabe doa, aditz gobernatzaille bakoitzak<sup>69</sup> osagarri mota jakinak eskatzen dituela, baita erlazio marka edo menderagailu jakinak ere, hala nola -*(e)la*, -*enik*, -*(e)n*, eta beste menderagailuak, mendeko perpaus konpletibo jokatuaren<sup>70</sup> arabera.

Aditz-lokuzioen artean desberdintasunak atzeman ditugu, eskatzen dituzten osagarri moten arabera eta lokuzio gehienek mendeko perpaus konpletiborik onartzen ez duten arren, badira mendeko konpletiboak onar ditzaketen aditz-lokuzioak. Horietako batzuek perpaus konpletiboa onartu baino areago, eskatzen dutela ikus dezakegu, ondorengo adibideetan:

(3.611) Horren harira, [1993an indigenen lurrak zedarrituko zituela] *zin egin zuen* Brasilgo Gobernuak. ETC, *Berria*, gaiak, «Herri indigenen eskubideak gogoan», Ainara Argoitia (2003-08-10).

(3.612) Orduan Martinek *galde egiten* zidan, [zein ote zen, nire ustean, belar harentzat izen egokia]. EPG, *Sukar ustelaren urtea*, Edorta Jimenez (Txalaparta, 2004: 48).

(3.613) Inguruko futbol klubek haur-gazteak omen dituzte oinarri eta helburu, hala diote; baina nik *duda egingo nuke* [ez ote zaien klub profesionalen enpresa estiloa kutsatzen ari]. ETG, *Berria*, iritzia, «Añorga KKE», Iñigo Elozegi (2008-01-02).

Baina,

(3.614) \* [Etorriko dela] *negar egin du*.

<sup>69</sup> Aditzek ez ezik, izenek eta beste zenbait elementuek ere hartu ohi dituzte osagarriak, eta kasu batzuetan, hartu behar izaten dituzte gramatikalki ongi erabiliko badira, (Euskaltzaindia, 1999: 14). Hemen, dena den, aditzek hartzen dituzten osagarriez jardungo dugu.

<sup>70</sup> Jokatu / ez jokatu oposizioaren arabera erabil daitezkeen markak aldatzen dira; jokatuekin, -eLA, -eNA, -eNIK (mendeko adierazpen perpausetan), -eN (zehar galderetan), eta abar. Ez jokatuekin, berriz, -TZEA, -TZEKO, -TZEN, -TU eta beste batzuk erabil daitezke, (Euskaltzaindia 1991: 22).

Adibideek erakusten dutenez, *zin egin* komunikaziozko aditz-lokuzioak adierazpen perpausa eskatzen du osagarri moduan. *Galde egin* komunikaziozko aditzak eta *duda egin* ekintza mentalak zehar galdera eskatzen dute. *Duda egin* aditzak adierazpen perpausa eska dezake, baina, *galde egin* lokuzioak ez. Ekintza fisikoa adierazten duen *negar egin* lokuzioak, ordea, ez du perpaus konpletiborik onartzen. *Nueva Gramática de la lengua española* gramatikan (RAC 2009) aipatzen denez, zehar galdera inpropioak<sup>71</sup> onartzen dituzten predikatuak talde semantiko gutxi batzuetan sailka daitezke; informazioa eskatzeko aditzak, zalantza eta informazio falta edo galera adierazten dutenak, eta informazioa igortzen dutenak<sup>72</sup>.

De Rijken eta Zabalaren sailkapenetan oinarrituz, ekintza mentalei eta komunikazioari erreferentzia egiten dieten lokuzioak dira, nabarmenki, perpaus konpletiboak onartzen dituzten aditzak.

*Nueva Gramática de la Lengua Española* gramatikan (2009), perpaus konpletiboak onartzen dituzten aditzek, izenak, izenordeak eta IS konplexuagoak onartu ohi dituztela aipatzen da, perpaus osagarrien ordez.

---

<sup>71</sup> Galdera zuzen batekin erlazionatzen ez diren mendekoak zehar galdera inpropioak lirateke, gehienak direnak, eta propioak lirateke galdera zuzen batekin erlazionatzen direnak, *galdetu*, *esan* eta motako aditzez osatutakoak, (RAC 2009: 3259).

<sup>72</sup> «*Todos los predicados que admiten interrogativas indirectas impropias se agrupan en unas pocas clases semánticas que se asocian con el concepto de "información" y expresan diversos contenidos vinculados con ella. La relación siguiente no es exhaustiva pero contiene los más característicos. El término información debe interpretarse aquí en un sentido amplio para que pueda abarcar contenidos de diversa naturaleza (pensados, conocidos, supuestos, proferidos, etc.)*, (RAC 2009: 3262):

a) *solicitud de información: demandar, preguntar...*

b) *ausencia, pérdida o inestabilidad de información: dudar, ignorar, olvidar, desconocer...*

c) *transmisión de información: hablar, informar, comunicar, explicar... ».*

Aipatutako gramatikak *preguntar* aditza zehar galdera propioak burutzen dituzten aditzen adibide gisa ematen duenez, a) azpitaldean zerrendatzen dena, *pentsatu* adieraz (edo *norbere buruari galdetu* adieraz) erabili daitekeen aditza dela ulertuko dugu.

Eta hala, perpaus konpletiboa IS batez ordeztean egitura egokia lortzen dela erakusten du ematen den adibideak, (RAC 2009: 3224):

*«Las subordinadas sustantivas son argumentales. Los verbos que admiten como argumentos oraciones sustantivas suelen permitir también, sustantivos, pronombres o grupos sustantivos en su lugar. Se obtienen así alternancias como las siguientes:*

*Me alegraría que regresara---> Me alegraría su regreso<sup>73</sup>».*

Aurreko testak aplikatzean egin dugun moduan, aipagarria da, alde batetik, aditz iragankor arruntaz eta lokuzioaren *egin* aditzaz osatutako egiturak konparatzean, desberdintasun nabarmenak atzeman ditzakegula, aditza mendeko perpaus konpletiboaren gobernatzailea denean. Aditz iragankor arruntak IS (soila) edo IS ordezten duen perpaus konpletiboa onar dezake baina ez biak egitura berean. Mendeko perpaus konpletiboa onar dezaketen aditz-lokuzio egiturek, ordea, biak onar ditzakete; IS bat ordezten duen mendeko konpletiboa nahiz lokuzioaren osagaia den IS bera:

Egitura iragankor arrunta:

(3.615) Mikelek *berria* irakurri du.

(3.616) Mikelek [*eguraldi ona datorrela*] irakurri du.

---

<sup>73</sup> *«Las equivalencias mencionadas presentan algunas excepciones. Así, un grupo no muy amplio de verbos al que pertenecen, creer, decir, dudar, asegurar, etc., suelen rechazar -en alguna de sus acepciones- los grupos nominales en función de CD pero admiten con naturalidad la subordinada sustantiva. De este modo se obtienen contrastes como los siguientes, (RAC 2009: 3225):*

*(i) dudo mucho que acepte--> \* dudo mucho su aceptación*

*Así, el verbo asegurar puede constituirse con grupos nominales cuando significa 'dejar firme o seguro'. No suele hacerlo, en cambio, cuando significa 'afirmar la certeza de algo' lo que da lugar a contrastes como, (RAC 2009: 3226):*

*(ii) te aseguro que volveré--> \* te aseguro mi vuelta».*

(3.617) \*Mikelek [eguraldi ona datorrela] [berria] irakurri du.

Aditz-lokuzioaz osatutako egitura:

(3.618) Mikelek *amets* egin du.

(3.619) Mikelek [*hegan egiten duela*] *amets* egin du.

Baina, perpaus konpletiboaren gobernatzailea aditza baino areago, aditz-lokuzio konplexua dela pentsatzea bidezkoa dirudi. Horrelakoetan, perpaus konpletiboa aditz-lokuzio osoaren menpe dagoela esan genezake eta ez *egin* aditzaren menpe soilik<sup>74</sup>. Gobernatzailea aditza soilik ez dela egiaztatzeko, ohar gaitezen lokuzioaren izena ezabatzean lortzen dugun egitura ez dela gramatikala:

(3.620) \*Mikelek [*hegan egiten duela*] *egin* du.

Ondorengo lerroetan, *corpus*etan aurkitu ditugun egitura konplexuen jokaera aztertuko dugu eta argumentu egituraz baliatuko gara bi egitura horien arteko desberdintasuna argitzeko.

Aurretik, orain arte testak aplikatzean egin dugun bezala, aditz-lokuzioaren osagaien hurrenkeran erreparatuko dugu eta jokaera desberdinak azaltzen saiatuko gara. Euskaltzaindiak honela dio perpaus osagarriak haren gobernatzailearekiko, oro har, izan dezakeen kokapenaz:

*«Gobernatzailea aditz bat edo predikatu-egitura bat denean, perpaus osagarria haren ezkerrean nahiz eskuinean koka daiteke, arau nagusien arabera»*, (Euskaltzaindia 1999: 39).

Aurreko testetan bezala, bi ordena nagusi hauek atzeman ditugu mendeko perpaus konpletiboa jokoan denean; [+*egin*] osagaien hurrenkera mantentzen dela erakusten duten lokuzioen hitz-ordenak, a) eta b) hitz-ordenak, eta aipatu hurrenkeraren haustura erakusten duten lokuzioak, c) eta d) jarraian. Mendeko

---

<sup>74</sup> Lehen kapituluan esan dudan moduan, *egin* aditz arinak izena behar du adiera osoa izateko.

perpaus konpletiboa aditz-lokuzio osoaren ezkerrean nahiz eskuinean koka daitekeela atzeman dugu, bestalde, Euskaltzaindiaren aipamenarekin bat datozen adibideetan:

**a) I + egin + mendeko perpaus konpletiboa hitz-ordena**

**b) mendeko perpaus konpletiboa + I + egin hitz-ordena**

**c) Mendeko perpaus konpletiboa + egin + I hitz-ordena**

**d) egin + I + mendeko perpaus konpletiboa**

**a)** I + egin + mendeko perpaus konpletiboa hitz-ordena erakusten duten egiturei dagokienez, nabarmenki, ekintza mentalak eta komunikazio ekintzak dira egitura horietan parte hartzen dutenak:

Ekintza mentalak:

(3.621) *Gogoeta egin dut [zilegi dela Kixote "azken" horretan halako palimpsesto moduko bat ikustea]. EPG, Ipuin hautatuak, Jorge Luis Borges / Juan Garzia (Ibaizabal, 1998: 44)*

(3.622) *Europar sentimenduak aurrera egin ahala, eta Europaren gaiak kanpo politikatzat ez baizik etxekotzat hartuz goazen heinean, ez dut dudarik egiten [Europako Batasunean ateak zabalduko zaizkiola legegintzako eskumenak dituzten eskualdeen parte-hartzeari]. EPG, Berria, 2004, 2006, Euskal Herria saila, «Konstituzioa erronkei aurre egiteko modukoa izango da», sinadurarik gabe, (2004-06-11).*

(3.623) *Segundo batez ere ez nuen dudarik egin [printzeak, han nintzela jakin orduko, bere etxean bizitzera eramango ninduela]. EPG, Hiltzaile baten aitormena, Joseph Roth / Matías Múgica (Igela, 2004: 34).*

Azken bi egitura horietan mendeko perpaus konpletiboa ezezik, ezezko partitibodun egitura dugu, partitibodun izenaz osatzen denez, [+egin] osagaien arteko banaketa erakusten duena.

(3.624) Gero, ibilaldi luzeen egunak iritsi zirelarik, mutilak, andrea ikusi orduko, *amets egin zuen* [eskuak haren gerri sendorantz, haren beso lodietarantz luzatzen zituela].

(3.625) *Duda egiten* dut ordea [dozena bat talde ere ez ote zen ibiliko], Madame Deluc-ek deskribatu duenaren modukoak, Barrière du Roulen bertan edo inguruan tragedia izan zen garai berean. EPG, *Kontakizunak*, Edgar Allan Poe / Koro Navarro (Ibaizabal, 2000: 183).

(3.626) Eta orduan, *duda egin zuen*, [ordulari hura erosteak pena merezi zuen ala ez].

[http://uztarria.com/azpeitia/ziberteka/liburuak/09fMalanjeko\\_tau\\_paden\\_atzetik/Kap9f](http://uztarria.com/azpeitia/ziberteka/liburuak/09fMalanjeko_tau_paden_atzetik/Kap9f)

(3.627) Gabon aurretxoan, Meñakako abuztuaren hasierako jaietan, Santilandi Erromeria eguna ezagutu genuela eta, *galde egiten genuen* [ea deitura hori herritarra ala dokumentu zaharretatik jaso den...]. ETG, *Berria*, iritzia, «Santilandi», Mikel Ugalde (2004-02-01).

Azken hiru egitura horietan zehar galdera motako perpaus konpletiboak ditugu.

Komunikazio aditzak:

(3.628) Zalantza apur batez betiere, bihotza biluzteak sentikortasun ulergaitz halako bat erantsiko balio bezala, *aitor egin ohi zuen* [maite zituela koloreak, landa aldea, sasoi onak, antzezlan zinez ikusgarriak, material atseginak, jostura oneko arropak, eta eguzkiaren distira bera]. EPG, *Hona hemen gu biok*, Dorothy Parker / Mirentxu Larrañaga (Alberdania-Elkar, 2006: 133).

- (3.629) *-Nork zin egin zezakeen [zerrenda hura lurraren toles huts bat ez zenik?]* EPD, *Tartarriarren basamortua*, Dino Buzzati / Josu Zabaleta (Alberdania-Elkar, 2010: 202).
- (3.630) Urizain-buruzagiak eskatu bezela, *zin egin zuen [errian egongo zela]*.  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MirandeAur005.htm>
- (3.631) *Zin egin nizun, bai, Jaunarengatik, Israelen Jainkoarengatik, [zure seme Salomon izanen zela nire ondorengo erregea eta bera jarriko zela nire errege-aulkian]*. Hara, gaur beteko dut zin hura! EPG, *Elizen arteko Biblia, Askoren artean* (Idatz, 2004), Erg, 1.30.
- (3.632) Etxekoek hartua ditek orain ene geroari buruzko deliberoa eta aitak *zin egin dik [haurra karrikan abandonatuko duela.]* EPG, *Hautsi da katea*, Toti Mtz. de Lecea / Elena Touyarou (Erein, 2004: 16).
- (3.633) *Juramentu egin du [egia erranen duela, egia oso osoa, disimularik gabe]*. ETC, *Xuri-gorriak*, Xipri Arbelbide (Elkar, 2007).
- (3.634) Hala, hanka sartzen duen bakoitzean, gora begira dezake Jacob Zumak, eta *erregu egin*: [«*Mandelak lagun nazala*»]. ETG, *Berria*, harian, «*Mandelak "lagun nazala"*», Ixiar Zubiaurre (2009-05-10).
- (3.635) *Ots egiñikan* lotsagaberik [*bizi dedilla Euskera*], ABAmE 139.  
[http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_oeh&view=frontpage&Itemid=340&lang=eu&sarrera=hots&xeh=16](http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oeh&view=frontpage&Itemid=340&lang=eu&sarrera=hots&xeh=16)

Orotariko Euskal Hiztegiari, mendeko adierazpen perpausaz osatutako adibide hori ematen da, *ozenki esan* adieraz erabiltzen den *hots egin* aditzaren adibide moduan.

Bestelakoa:

(3.636) Gainera, «*apustu egiten dut, [lau gai horiei buruzko erreferendum batean, ezezkoak irabaziko lukeela]*». ETC, *Berria*, Euskal Herria, «Batera-ren "manipulazioa" salatu du Lizagarai talde sortu berriak», Eneko Bidegain (2003-10-10).

b) Horiez gain, perpaus konpletiboa + I + *egin* hitz-ordena atzeman dugu, aditz-lokuzioaren osagaien arteko lotura estua erakusten duten adibide hauetan:

(3.637) [*Piztia bat zela*] *amets egin* eta esnatzean oraindik piztia zela ohartu zunan. EPD, *Pasaia blues*, Harkaitz Cano (Susa, 1999: 24).

(3.638) [*Emakume nintzela*] *amets egin* dut bart. EPG, *Egonean doazen geziak*, Joxerra Garzia (Alberdania, 2000: 197).

(3.639) Zuzenbagekeria onuragarri dala ezar bazeneza, baina, [*berau gaiztakeria ta itsusia dala*] *aitor egin*. Zait *Plat 141*. *Orotariko Euskal Hiztegia*.

(3.640) [*1.500 pintxoak nahiko izango ziren*] *zalantza egin* zuten istant batez. ETC, *Berria*, gaiak, «Itzela dago bildots hau!», Irune Berro (2010-02-21).

(3.641) Adeitasun txeratsuz, Angellier andreak [*berriro esertzeko*] *keinu egin zion* Perrin andreari, zutitu egin baitzen hura etxekoandre zaharra agertu zenean. ETG, *Suite frantsesa*, Irene Nemirovski (Mikel Garmendia /Jose Antonio Sarasola) (Alberdania, 2011).

*Bi hitz-ordena hauek konparatuz, esan behar dugu, batetik, ugariagoak direla a) motako egiturak b) motakoak baino. Bestetik, mendeko konpletiboa aditz nagusiaren eskuinera jartzea da, euskararen idazkeraz, estilo liburuak aholkatzen dutena, bereziki, perpausa luzea denean. Ordenari buruz, hauxe dio Berria egunkariaren estilo liburuak esaldiaren antolamenduari dagokion atalean (<http://www.berria.info/estiloliburua/eliburua/idazkuntza>):*

:

«*Informazio nagusia esaldiaren hasieran eman behar da, eta bestelako xehetasunak gero. Esaldia luzea baldin bada, hobe da elementu batzuk aditzaren atzera pasatzea, mamia aurreratu ahal izateko*». Eta aditza aurreratzeko bideen adibide gisa perpaus osagarriaz osatutako hau ematen du:

(i) *Zanzibarko Gobernuak adierazi du homosexualei bizi osorako kartzela zigorra ezarriko diela.*

Gomendatzen den ordena hori erakusten dute a) motako adibideek. Eta b) hitz-ordena atzematen dugun egituretan, non konpletiboa aditzaren ezkerrean kokatzen den, egitura konpletiboa laburra da, oro har.

c) Mendeko perpaus konpletiboa + *egin* + I hitz-ordenari dagokionez, halaber, ekintza mentalak eta komunikazio ekintzak dira, *corpusetako* adibideetan aurkitu ditugun lokuzioak. Esanik gabe doa hauetan mendeko perpaus konpletiboa dela galdegaia.

Ekintza mentalak:

(3.642) [*Itzulerdi egin eta harzara ehun mila izar kausitzen zituela*] *egin zuen amets*, baina ez zen gradu bat hastandu. EPD, *Gaueko hegaldia*, Antoine Saint- Exupery / Koldo Izagirre (Igela, 2008: 61).

Komunikazio aditzak:

(3.643) [*Administrazioari nolabait lotutako zerbait idaztea*] *egin dio erregu neskak*. EPG, *Gauza txikien liburua*, Pako Aristi (Erein, 2004: 119).

d) *egin* + I + mendeko perpaus konpletiboa hitz-ordena erakusten duen adibide hau topatu dugu *corpusetan*:

(3.644) Pedro Liria Aztikoak bezperan *egin zuen deiadar*, [*handia zettorrela, eta buiak 17 metrora ari zirela igotzen*]. ETG, *Berria*, gaiak, «Itsaso handiena», Marcelo Diaz (2008-03-16).

Aditz-lokuzioen hitz hurrenkerari dagokionez, beraz, jokaera desberdinak atzeman ditzakegu mendeko perpaus konpletiboaz osatutako egiturak aztertuz ere bai. Lehenik, aditz-lokuzioaren [I+egin] hurrenkera mantentzen duten adibideak ditugu eta aditz horiek ugariagoak dira besteak baino, hala nola *gogoeta egin, galde egin, aitor egin, zin egin, juramentu egin, hots egin, apustu egin, zalantza egin, keinu egin*, eta abar. Bigarrenik, jokaera bikoitza erakusten duten *amets egin, duda egin* eta *erregu egin* aditz-lokuzioak topatu ditugu. Azkenik, *deiadar egin* aditz-lokuzioaren osagaien jokaera askea erakusten duen adibidea topatu dugu.

Aipagarria da, [I+egin] hurrenkera erakusten duten lokuzio horiek osagaien arteko haustura erakutsi dutela aurreko azpisailetan aplikatutako hainbat testetan; galdegaiaren testean, partitiboaren testean, aginteraren testean, eta abar. Beraz, jokaera bikoitza erakusten duten lokuzioen taldean sailkatuko ditugu, test guztien emaitzak laburbiltzen dituen taulan.

Analisi honek erakusten dituen emaitzak laburbilduz, hiru azpitaldeetan banatuko ditugu aditz-lokuzioak oraingoan ere (ikus emaitzak laburbiltzen dituen azpisaila jarraian).

Azpisail honekin amaitzeko, mendeko perpausa konpletiboak betetzen duen funtzio sintaktikoaz galdetu behar diogu geure buruari.

1. kapituluan argudiatu dugu aditz-lokuzioaren ISk o.z. funtzioa betetzen duela eta horixe erakusten dute azpialal honetan aztertzen ari garen ekintza mentalei dagozkien lokuzioez osatutako adibideek:

(3.645) Mikelek ez du *ametsik egin / dudarik egin*

(3.646) \*Mikelek zerbait/ametsa amets egin // \*hori duda egin du<sup>75</sup>

Batetik, partitibo kasuaz markatzen den izena dakusagu ezezko egituran. Bestetik, azken egiturak erakusten du, egitura horietan ezinezkoa dela o.z. funtzioa betetzen duen beste IS bat agertzea.

Baina, komunikazio eta ekintza mentalen azpitaldeetako lokuzio batzuek mendeko adierazpen perpausa eta zehar galdera onar dezaketela ikusi dugu eta mendeko perpaus horiek betetzen duten funtzioaz hausnartu behar dugu. Gramatiketan adierazten den moduan, perpaus konpletiboek beste izen sintagmek betetzen dituzten funtzioak bete ditzakete; osagarri zuzen, subjektu eta bestelako funtzioak, Euskaltzaindia (1999) eta RAC (2009)<sup>76</sup>.

Aditz gobernatzailearen eta perpaus konpletiboaren artean dagoen erlazioa osagarri-erlazioa dela aintzat hartuz eta osagarri hori IS ez dela kontuan izanik, konpletiboak funtzio gramatikala seinalatzeko erabiltzen den kasu-markarik ez hartzea espero dugu. Izan ere, Euskaltzaindiak (1999) dioen moduan, -eLA, -eN

---

<sup>75</sup> Izan ere, *ametsa amets egin* egituraren ordeztasunak, arruntak dira *ametsa/ amets hura izan* motako egitura iragankor arruntak:

(i) *Amets hura izan nuen*. EPG, *Etorkizuna*, Iban Zaldia (Alberdania, 2005: 3).

(ii) Lehengo gauean, lotan nengoela, *izan nuen amets bat*, eta amets hartan sartu zen sorgin gaizto bat. EPG, *Ipuin batean bezala*, Joan Mari Irigoien (Elkar, 2002: 261).

Halaber, ez dugu *hori duda egin* motako egiturarik topatu baina bai *horretaz duda egin* motakoak:

(iii) Beraz, nagoen bezala gelditzea baizik ez nuke galdutuko; eta neure ezteietan pentsatzea da penatzen nauen gauza bakarra: zeren Gercourt jauna erran didaten gisarakoa baldin bada, eta ez dut *horretaz dudarik egiten*, ez baitakit zer izanen den nitaz. EPG, *Harreman arriskutsuak*, choderlos de Laclos / Jon Muñoz (Ibaizabal, 1997: 174).

Hala eta guztiz ere, salbuespen bakarra topatu dugu *corpusetan, hori egin duk amets!* (3.318).

<sup>76</sup> «Desde el punto de vista de la función sintáctica que desempeñan, las oraciones subordinadas sustantivas se asimilan a los demás segmentos nominales», (RAC 2009: 3228):

*En función de sujeto*: Conviene que aproveches el tiempo-> aprovechar el tiempo.

*En función de complemento directo*: Esperamos llegar a tiempo->que lleguen a tiempo.

*En función de término de preposición*: La cuestión de cómo salir exitoso->cómo se sale airosamente.

edo dena delako menderagailuaren bitartez seinalatzen du mendeko perpaus konpletiboak osagarritasuna.

Hori kontutan hartuz, perpaus konpletibo horiek perpaus osoko zein kokapen hartzen duten azter dezakegu eta mendeko horiek perpaus osoko objektu direla ondoriozta dezakegu, horien kokagunean oinarrituz. Beste hitzetan, perpaus konpletiboek, absolutibo kasu-marka ez duten arren, absolutiboak betetzen dituen gunean kokatzen dira perpausetan eta, ordeztzen duten IS bezala, osagarri zuzen funtzioa betetzen dutela esan dezakegu.

Hori horrela bada, esan dezakegu aditz-lokuzioaren izenak o.z.funtzioa betetzeak ez duela eragozten konpletibo bat egotea. Eta osagarri moduan konpletiboa onartzen duen aditz-lokuzio horien argumentu egitura aztertuz eman dezakegu egitura konplexuago horren berri, hau da, komunikazio ekintzei eta ekintza mentalen talde semantikoei dagozkien aditz-lokuzioen konfigurazioa (SEG)<sup>77</sup> aztertuz.

Argumentu-egituraz aritzean bereizketa bat egin behar dugu, lehenik, *egin* aditzaren argumentu-egituraren eta aditz-lokuzio konplexuaren argumentu-egituraren artean. Beste hitzetan, egitura konplexuaren osagai bat aditza bera denean, aditz horren argumentu egiturari zer gertatzen zaion galdetu behar diogu geure buruari.

*Egin* aditzari dagokionez, batetik, kanpo argumentua dugu (subjektu sintaktikoa). Horrez gain, *egin* aditz arinaren barne argumentua dugu, (o.z. funtzioa betetzen duen IS).

Baina, aditz-lokuzioa unitate moduan kontsidera dezakegu. Izan ere, Euskaltzaindiak aipatzen duen moduan, predikatu egitura bat izan daiteke mendeko perpaus konpletiboaren gobernatzaile, eta hala, aditz-lokuzioaren

---

<sup>77</sup> SEGN aditzaren konfigurazioaz hitz egitea hobesten da, aditz sailez hitz egitea baino areago.

argumentu-egitura azter dezakegu, izenak eta aditzak unitate estu bat osatzen dutela erakusten duten argudioetan<sup>78</sup> oinarrituz.

Ohartzen gara argumentu-egitura aditz-lokuzioa osatzen duten elementuen arabera aldatzen dela. Beraz, *egin* aditz arinak ez ezik, aditzarekin lotura estua osatzen duen izenak berak eragin dezake argumentu-egitura bat ala bestea.

Eta hala, gerta daiteke aditz batek berak argumentu egitura desberdinak izatea, haren adieraren arabera. *Hots egin* aditz-lokuzioak, esate baterako, adiera asko ditu eta horietako bakoitzari argumentu egitura bat dagokio. *Ozenki esan* adiera duen *hots egin* aditzak, mendeko perpausa onartzen duela erakutsi du adibideak (3.635), *telefonoz deitu* adiera duen *hots egin* predikatuak, ordea, ez du mendeko adierazpen perpausik gobernatzen.

Aurkeztu ditugun aditz-lokuzioen osagarriak ere mota askotakoak dira. *Erregu egin* komunikazio aditzak, zeharkako osagarria eskatzen du eta *hitz egin* nahiz *otoitz egin* aditzek nori IS edo zeharkako osagarria eska dezakete. *Duda egin* aditz-lokuzio mentalaren argumentu-egiturak ez du nori argumenturik eskatzen, ezta, perpaus osagarria ordeztzen duen ISrik ere, baina bai zehar galdera.

Maiz, zerez, non edo norekin kasuez markatzen dira aditz-lokuzioaren argumentu-egitura osatzen duten atalak. Ekintza mentalak adierazten duten aditzen artean, ugariak dira, perpausa konpletiboaz gain, zerez kasuz markatzen diren osagarriak eskatzen dituzten lokuzioak; *amets egin*, *duda egin* eta *gogoeta egin*. *Amets egin* aditzak, halaber, norekin kasuz markatzen den osagarria eskatzen du agerraldi askotan<sup>79</sup>. *Duda egin*, *zalantza egin* eta *gogoeta*

---

<sup>78</sup> Izenak determinatzailezik ez onartzea, izenlagunik ez onartzea, *egin* aditza arina izatea, semantikoki izenarekin batera unitate kontzeptual bat, eta abar.

<sup>79</sup> Esan gabe doa, *egin* aditzaren barne argumentua *amets* litzatekeela, gaia rol tematikoa eta o.z funtzio sintaktikoa betetzen duena. Horregatik, *egin* aditzaren beraren eta *amets egin* aditz-lokuzio konplexuaren argumentuak bereizi behar ditugu eta bereizketa hori azpiatal honetan aztergai ditugun beste aditz-lokuzioei aplika diezaiekegu.

*egin* aditz-lokuzioek, zehar galdera eskatzen dute maiz osagarri moduan, zerez, zertaz edota zertan baldere erantzuten dietenak ez ezik:

*amets egin*

- (3.647) Gizonak *bere herrialdera itzultzearekin amets egiten* zuen beti. EPG, *Parisen sabela*, Emile Zola / Karlos Zabala (Alberdania-Elkar, 2004: 140).
- (3.648) *Berogailu horrekin amets egiten* zuen Muchek. EPG, *Parisen sabela*, Emile Zola / Karlos Zabala (Alberdania-Elkar, 2004: 184).
- (3.649) *Labirinto soil bezain zehatz batez amets egin* nuen, guztizko amets jasangaitza: erdian pegar bat zegoen; ene eskuek ia ukitzen zuten, ene begiek ikusten zuten, ordea hain ziren korapilotsu eta zalantzatsu bihurguneak, ezen nik ongi bainekien hura iritsi gabe hilen nintzela. EPG, *Ipuin hautatuak*, Jorge Luis Borges / Juan Garzia (Ibaizabal, 1998: 116).
- (3.650) *Amets egiten* zuen *izango zituzten seme-alabez*, ipiniko zizkieten izenez. EPG, *Baina bihotzak dio*, Xabier Montoia (Elkar, 2002: 223).

*duda egin*

- (3.651) Hor erraten dizudana, etengabe egiten ikusten nauzu; eta *duda egiten duzu nire zuhurtziaz!* EPG, *Harreman arriskutsuak*, Choderlos de Laclos / Jon Muñoz (Ibaizabal, 1997: 257).
- (3.652) Aitzitik, Basurtoko Joan Sanzek *ez zuen horretan duda egiten*. EPG, *Sukar ustelaren urtea*, Edorta Jimenez (Txalaparta, 2004: 141).

(3.653) *Ezin nuen nire torturazailleen asmoez dudarik egin...* EPG, *Kontakizunak*, Edgar Allan Poe / Koro Navarro (Ibaizabal, 2000: 114).

(3.654) Jendea hiltzen ikusi nuenetik, ordea, *duda egin nuen marxismoaz eta duda egin nuen guztiaz*. EPG, *Ipuin batean bezala*, Joan Mari Irigoien (Elkar, 2002: 234).

*gogoeta egin*

(3.655) Argitara emandako dokumentuek Afganistango gatazkan garrantzitsu diren bi auziren gaineko hausnarketa egiteko balio behar dute, Karzairen gobernuaren iritziz: *zibilen heriotzaz gogoeta egiteko*, batetik, eta Pakistango «terroristen babeslekuekin» zer egin erabakitzeke, bestetik. ETC, *Berria*, mundua, «Filtrazio batek nabarmen utzi du AEBetako armada Afganistanen», Ixiar Zubiaurre (2010-07-27).

(3.656) *Horretan gogoeta egin* ondoren, harrtua naiz hartu izanaz abentura bat finitzeko xedea, heroi andrearen galbidea neure esku izan baino lehen. EPG, *Harreman arriskutsuak*, Choderlos de Laclos / Jon Muñoz (Ibaizabal, 1997: 317).

Komunikaziozko aditz-lokuzioei dagokienez, halaber, ugariak dira, aurreko adibideetan atzeman ditugun mendeko adierazpen perpausak ez ezik, zerez kasuaz markatzen diren osagarriak hartzen dituzten lokuzioak, baita *zerbaiti buruz* edo *zerbaiten gainean* gisako postposizioak hartzen dituztenak ere. Komunikazio ekintzen ezaugarria da, bestalde, argumentu-egituran zeharkako osagarria edo nori kasu-marka hartzen duen argumentua izatea, ezinbestekoa ez den arren maiz agertzen dena<sup>80</sup>. Osagarri horiez osatzen dira *galde egin*, *berba egin*, *hitz egin* eta *erregu egin* aditz-lokuzioez osatutako adibideak. *Galde egin* lokuzioak, bestalde, zehar galdera eskatzen du maiz osagarri moduan eta *erregu egin* aditz-lokuzioak adierazpen perpausa:

---

<sup>80</sup> Nori argumentua agertzen ez denean ere, komunikazio ekintza bat beti zuzentzen zaio norbaiti.

*galde egin*

- (3.657) *ALN*koen nondik *norakoez galde egin diote*. EPG, *Kilkerren hotsak*, Edorta Jimenez (Susa, 2003: 130).
- (3.658) *Hoteleko* langileen *jatorriaz galde egin nuen*. EPG, *Europako mugetan barrena*, Edorta Jimenez (Txalaparta, 2000: 88).
- (3.659) [...] eta, bitarte horretan, *bere bizimoduaz galde egin zion* Don Fernandok *gatibuari*, gustagarria eta ezohikoa izango baitzen noski, aurreneko itxurak zirenez behintzat, Zoraidarekin batera etorriaz eta. EPG, *On Kixote Mantxako*, Miguel de Cervantes / Patxi Ezkiaga (Erein, 2005: 89).
- (3.660) *Galde egin* nezake, gainera, kontseilu berean ez ote dagoen bera baino merezimendu askoz gutxiago duenik ere, halakorik inork salatzeke asmorik erakutsi ez badu ere. ETC, *Berria*, iritzia, «Jon Juaristi dela eta», Xabier Kintana (2011-03-20).

Adibide horretan, zehar galderaz osatutako perpaus osagarria ere ageri da.

*berba egin*

- (3.661) Oñatiko pertsonajiak *txantxikuarrez egingo daue berba*. <http://olaitturri.blogspot.com.es/2014/01/iparragirre-onatin.html>
- (3.662) *Diruaren odolaz berba egin zidan*, oi, berari bere zainetakoan zer zebilkion erakutsiz; diruaren gura. EPG, *Sukar ustelaren urtea*, Edorta Jimenez (Txalaparta, 2004: 122).
- (3.663) Eskifaiako besteek ez baitzuten besterik egiten lehendik txukundua zena zikindu, *itsasote zaharren gainean berba egin* eta elkarri labanaren ahoa erakutsi baino, halako batean lepoa igurtzi eta hil egingo haut!, eta halako laztankeriak esanez. EPG, *Sukar ustelaren urtea*, Edorta Jimenez (Txalaparta, 2004: 125).

(3.664) [...] eta gero *liburuen gainean berba egiten zidanean* erabiltzen zuen boz ezta etorri zitzaidan, kontuz ez dezaan izan liburua irentsi beharrik!, [...]. EPG, *Sukar ustelaren urtea*, Edorta Jimenez (Txalaparta, 2004: 370).

*hitz egin*

(3.665) *Bere bizitzako nekaldiez hitz egin zigun.*

<http://www.armiarma.com/unibertsala/sand/sand23.htm>

(3.666) *Zertarako hitzegin New Yorketik pasatu diren turista guztiak ezagutzen duten zerbaiti buruz?* EPG, *Groenlandiako lezioa*, Bernardo Atxaga (Erein, 1998: 131).

*erregu egin*

(3.667) Hark *erregu egiten zion* zeruari garai beltz haiek lehenbailehen pasa zitezen, baina iraultzarik gabe, bestela auskalo nola bukatuko genuen gaixook. EPG, *Denak hasperenka*, Gianni Celtati / Pello Lizarralde (Igela, 2005: 159).

Datu horiek aztertuz eta mendeko perpaus konpletiboek egitura osoko IS objektua ordeztzen dutela kontuan izanik, gobernatzailea den aditz-lokuzioak predikatu egitura oso bat bezala funtzionatzen duela ondoriozta dezakegu, non *egin* aditz arinak eta mugak erakusten dituen izenak unitate bat bezala funtzionatzen duten. Hau da, aditzak nahitaez eskatzen duen osagarriarekin egitura konplexua osatzen du; *amets egin*<sup>81</sup>, *duda egin*, *juramentu egin*, *erregu egin*, *hots egin*, eta abar.

---

<sup>81</sup> Izenak eta aditzak osatzen duten unitate konplexuan oinarrituz azal genitzake, bestalde, mendeko perpaus konpletiboaren ordeztu, *hori* erakuslea onartzen duen *amets egin* lokuzioaz osatutako egitura. Hala nola *hori egin duk amets* gisako (3.318) adibidea, (bakarra bada ere). Erabilera berbera atzeman dugu *hots egin* lokuzioak *ozenki adierazi* adiera duenean, hau da, aditz iragankor arruntaren antzeko erabilera:

[I+egin] predikatu egiturek, bestalde, morfologikoki modu desberdinez markatzen diren osagarriak eska ditzaketela erakusten dute; *zerbaitekin amets egin*, *zerbaitez/zerbaiti buruz amets egin*, *zerbaiten gainean amets egin*, *zerbaitez duda egin* eta horien parekoak diren egitura konplexuago horiek guztiek. Horiek absolutiboz markatzen ez diren barne argumentutzat hartuko genituzke eta, euskaraz ez ezik, beste hizkuntza batzuetan ere aurki ditugu horrelako egiturak. Italieraz, esate baterako, [I+egin+prep.] egitura berberaz baina hitz-ordena desberdinaz osatutako *fare sogni su* aditz-lokuzioa topatu dugu, gazteleraz, *soñar con* lokuzioa dugu, ingelesez, *to dream of / about*, eta abar. Eta hala *esna amets egin* adieraz erabil daitezke hizkuntza hauetan zehar A+ prep+IS hitz-ordenaz osatzen diren lokuzio egitura konplexuago hauek:

(3.668) *fare sogni su qualcosa*

(3.669) *Sueña con su luna de miel* todo el día

(3.670) All day long, *she dreamed of their honeymoon*

<http://www.wordreference.com/es/translation.asp?tranword=dream>

Beraz, mendeko konpletiboa onartzen duten aditz-lokuzioak aztertuz ere baieztatu dezakegu aditz-lokuzioen osagaien arteko lotura mailak daudela. Batzuetan aditz-lokuzioaren izenak jokaera askea erakusten badu ere, besteetan aditzak eta izenak unitate bat osatzen dute eta ezin dira elkarrengandik banatu.

---

(i) *Orain ots-egingo ditugu erriak. Adibidez, "Errenderi" esatean, zutitu bitez andik etorri diranak.*  
Ldi *IL* 151.

[http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_oeh&view=frontpage&Itemid=340&lang=e\\_u&sarrera=hots&xeh=16](http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oeh&view=frontpage&Itemid=340&lang=e_u&sarrera=hots&xeh=16)

Mendeko perpaus konpletiboez osatutako aditz-lokuzioak aztertuz, halaber, egiaztatu dezakegu aditz konplexuaren argumentu egitura adiera jakin bakoitzaren arabera dela.

### 3.6. LOKAILUAK

Koordinazioaren testa eta mendeko perpaus osagarriaren testa aplikatzean perpausen arteko harremanak aztertu ditugu eta ikusi dugu testu baten barnean kokatuak dauden perpausak lotzeko juntagailuak edo menderagailuak erabiltzen direla, lotzen diren perpaus moten arabera.

Baina, perpausen artean gerta daiteke beste mota bateko lotura ere, solas mailakoa, Euskaltzaindia (1990). Aditz-lokuzioak jokoan direnean lokailuek duten kokapena aztertuko dugu hurrengo lerroetan. Beste hitzetan, aditz-lokuzioen osagaien jokaera aztertuko dugu testuingurua josteko lokailuak ageri direnean.

Orain arte ikusi dugu aditz-lokuzio batzuen izenak mintzagai hanpatu nahiz ez hanpatu moduan bereiz daitezkeela *egin* aditz arinetik; *pixa, kaka, lo, bultza, berba, barre*, eta abar. Ildo beretik, esan dugu zenbait kasutan, *behintzat, aldiz, aitzitik, berriz*, eta mota horretako elementuekin hanpatu dezakegula mintzagaia (ikus adibidea 16. oin-oharrean), Euskaltzaindia (1991a: 362).

Beste batzuetan, ordea, ezin dira izena eta aditza elkarrengandik banatu, horien arteko lotura estuaren ondorioz egitura konplexu bat osatzen delako. Kasu horietan ez dugu espero izenaren ondoren aipatutako lokailurik agertzea ezta pausarik egotea ere. Eta ez dugu topikalizaziorik espero.

Jarraian, lokailua izenaren eta aditzaren artean onartzen duten aditz-lokuzioez osatutako adibideak aurkeztuko ditugu, hau da, I + lokailu + egin hurrenkeraz osatutako egiturak. Lehenik, meteorologikoak ez diren lokuzioen adibideak aurkeztuko ditugu, eta ondoren, aditz-lokuzio meteorologikoez osatzen diren egiturak.

Corpusetan aurkitutako adibideetan maizen agertzen diren lokailuak *ere* eta *behintzat* emendiozkoak dira<sup>82</sup>, hurrengo esaldietan ikus daitekeen moduan.

a) *ere*, *behintzat*, eta beste emendiozko lokailuez osatutako adibideak:

(3.671) *Lo ere ohe berean egin zuten*. EPG, *Elezaharren bidetik*, Martin Anso (Alberdania, 2004: 140)

Adibide horretan, *lo* mintzagaia izateaz gain, *ohe berean*, galdegaia litzateke. Beraz, bi elementu tartekatzen dira izenaren eta aditzaren artean, lokailua eta galdegaia eta lokailuaren nahiz galdegaiaren testek biek erakusten dute izenaren eta aditzaren jokaera askea.

(3.672) Zer altxor klase zeraman maletatxo beltz hartan, *lo ere hari helduta egiteko*, zer klasetakoa zen filosofo bati halako ardura eragiten zion aberastasuna? EPG, *Ihes betea*, Anjel Lertxundi (Alberdania, 2006: 326).

Adibide horretan *ere*, bi test aplikatzen dira; lokailuarena nahiz galdegaiarena eta biek egiaztatzen dute osagaien jokaera askea.

(3.673) Ohean etzan eta *lo ere egin dezakek*, nahi izanez gero - eman dizu jakitera. EPG, *Mentxakaren aitorpena*, Jose Ramon Goikoetxea / Rafa Egiguren (Elkar, 2006: 58).

(3.674) Florentek entzun eta *barre ere egiten zuen* batzuetan, emakumeak oso arraroak zirela buruan zerabilela. EPG, *Parisen sabela*, Emile Zola / Karlos Zabala (Alberdania-Elkar, 2004: 200).

(3. 675) Luisekin ez du gaizki pasatzen, batzuetan *barre ere egiten du*. EPG, *Eta emakumeari sugeak esan zion*, Lourdes Oñederra (Erein, 1999: 44).

---

<sup>82</sup> *Baina* aurkaritzako lokailuaz osatutako adibide bakarra topatu dugu, *euria egin* aditz-lokuzioaz osatzen dena *eta* galdegaiaren testa aplikatzean meteorologikoen azpiatalean aurkeztu duguna.

- (3.676) Katedralean sartu eta hanka jaso ez ezik, *kaka ere egiten dute* bazterren batean. EPG, *India harrigarria*, Gotzon Garate (Elkar, 2001: 175).
- (3.677) Jenioari *kalte ere egiten diote*. EPG, *Groenlandiako lezioa*, Bernardo Atxaga (Erein, 1998: 152).
- (3.678) Ez zekinat Giulio ere gehiago jabetzen zen, baina *barre behintzat egin geninan* gogotik. EPG, *6 ipuin amodiozko*, Xabier Mendiguren Elizegi (Susa, 2002: 75).
- (3.679) *Ezin nuen ametsik ere egin* katea hura eten nezakeenik, eta ontzitik askatu ahal izango nuenik ere, sekulako katea baitzen eta nire besoa baino egur lodiago batetik baitzegoen brankatik lotuta. EPG, *Fantasiatzko ipuinak*, Guy de Maupassant / Josu Zabaleta (Ibaizabal, 2000).
- (3.680) *Txalo ere egin zuen* erantzun aurretik: " ¡Lo que faltaba! ". EPG, *Soinujolearen semea*, Bernardo Atxaga (Pamiela, 2003: 231).
- (3.681) Gero, jatetxe mexikarrean mahaira eseri garenean, guk irri egin dugu denak irrika hastean, eta *txalo ere egin dugu* denak esku zartaka hastean (esanak esan eta gertatuak gertatu, Dani eskerrak eman, eta denon izenean opari batzuk eskaini dizkiote). EPG, *Jeans-ak hozkailuan*, Patxi Zubizarreta (Alberdania, 2000: 319).
- (3.682) Etengabe kalakan egon da, *negar ere egin du*, eta denok besarkatu gaitu. EPG, *Zoririk ez*, Imre Kertész / Urtzi Urrutikoetxea (Elkar, 2003: 29).
- (3.683) Gizon zoriontsua izan zen denboraldi batez, ordura arte inoiz ez bezala. Askotan joaten nintzaion ni bulegora hitz egitera eta ikusi egiten nuen nola egiten zuen irribarre, eta *txistu ere egiten zuen*. EPG, *Napomuceno da Silva Araujo jaunaren testamentua*, Germano Almeida / Bego Montorio (Txalaparta, 2003: 162).

Adibide horretan, *txistu egin* eta *irribarre egin* lokuzioen osagaien banaketa atzematen dugu, azken hori zehar galderan. Beraz bi test aplikatzen dira, horretan ere.

(3.684) Metalezko eskaileretan, gainsolairuraino ekarri zaitugunean, *duda ere egin dut*, hainbertze ahalegindu baita zure buruak eskailmailetan jo ez zezan. EPG, *Rock'n'roll*, Aingeru Epaltza (Elkar, 2000: 358).

(3.685) Biraoka ari zen hura, ontzian beste askok egiten zuten lege itsusian zerukoak eta infernukoak nahastuz, eta *burla ere egiten zion* Mihurubikoari, [...]. EPG, *Sukar ustelaren urtea*, Edorta Jimenez (Txalaparta, 2004: 183).

(3.686) Francisco Ayala idazlea biziki interesatu zen Gaizkiulertua obraren argudioan, eta *galde ere egin omen zion* idazle frantziarrari ea egia zen egunkari-albiste batetik atera zuela kontua. EPG, *Groenlandiako lezioa*, Bernardo Atxaga (Erein, 1998: 74).

(3.687) Askok *estropezu ere egiten zuten* nire kontra, nik uste nahita egiten zutela. EPG, *Paradisuko Almanaka*, Gianni Celati / Fernando Rey (Igela, 2005: 57).

(3.688) Davidek *zin ere egin zuen*, esanez: - Ongi daki zuen aitak begiko nauzula. EPG, *Elizen arteko Biblia*, Askoren Artean (Idatz, 2004), 1 Sm 20,3.

Ondorengo adibideetan, lokailuaren nahiz galdegaiaren testak, biak aplikatzen dira:

(3.689) *Kaka ere gogorra eta zuri-zuria egiten zuten*. EPG, *Oilarraren promesa*, Joan Mari Irigoien (Elkar, 2003: 128).

(3.690) *Kaka ere non egiten duan* bazakiagu. EPG, *Ragga-ragga dator gaua*, Paddy Rekalde (Susa, 2006: 30).

- (3.691) HORTENTSI.— Izan ere, zenbat, erosoago egon, *otoitz ere hobeto egiten da*; ez duzu uste? Goenkale Corpusa, 611 atala, Leonor, Sek.:2.
- (3.692) AITZA.— Ikusten? *Barre behintzat egin dun!* Benga, neska! Erreguka ibiltzea eztun nire estiloa... Goenkale Corpusa, XIX-142 atala, Egia, Arimaren ogia, Sek.:7.
- (3.693) KEVIN.— Bale, joango nauk. *Barre behintzat egingo diagu.* Goenkale Corpusa, XVI-63 atala, Gailurretik gertuago, Sek.:3.
- (3.694) IMANOL.- Ondo segi, *lo behintzat lasai egin ezak*, motel. Goenkale Corpusa, 1136 atala, Bizi direnak ageri, Sek.:8.
- (3.695) TELEFONOA.— Ez. Baina poz handia hartuko nuke gure auzotik nora edo nora eramango balute. Hartara, *lo behintzat lasai egingo genuke.* Goenkale Corpusa, 1227 atala, Lapurretan, Sek.:11.

Orain arte atzeman ditugun lokuzioen jokaera berbera erakusten dute aurreko adibide horiek guztiek. I + lokailu + egin hurrenkeraz osatutako egiturak bat datoz aurreko testetan jokaera askea erakutsi duten aditz-lokuzioekin. Izan ere, aurreko testetan jokaera sintaktiko askea erakutsi duten izenak dira elementu horien aurretik agertzen direnak; *barre, lo, kaka, kalte, otoitz, amets, txalo, txistu, negar, duda, burla, galde, estropezu, zin*, eta abar.

#### ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK

Aditz-lokuzio metereologikoei dagokionez, ez dira urriak aurkitu ditugun adibideak. Gehienetan *ere* emendiozko lokailua da tartekatzen dena eta topatu dugu *baina* lokailuaz osatutako adibide bat ere bai (3.140).

a) *ere*:

- (3.696) *Euria ere egingo du*, baina arin. EPG, *Berria*, Euskal Herria, «Oriotik Baionaraino, zuri», Eihartze Aramendia (2009-01-09).

- (3.697) *Nola hotz ere egin baitu*, elur hori bi egunez hormatua egon da ainitz tokitan. EPG, *Herria*, Izenbururik gabe, sinadurarik gabe, (2012-02-09, 6. orr.).
- (3.698) *Hotza ere egin du*. EPG, Gaiak. *Berria*, «Urrearen peskizan, Yukon ibaia kanoaz», Josu Iztueta (2010-01-27).
- (3.699) Nazabalek «gustura» jardun zuela esan zuen: «Olasagastiren aurka presaka hasi nintzen, *beroa ere egiten zuen* eta ez nuen gozatu». EPG, *Berria*, 2004, 2006, Kirola, «Nazabal finalerdietan da, Azurmendi ongi menderatuta», Koldo Alduntzin (2004-05-02).

Laburbilduz, osagaien jokaera askea egiaztatu dezakegu aditz-lokuzio meteorologiko hauek jokoan direnean: *euria egin*, *hotz(a)egin*, *beroa egin*, eta abar.

### **3.7. EMAITZAK ETA ONDORIOAK: ADITZ-LOKUZIOEN SAILKAPEN HIRUKOITZA**

Azpiatal honetan, aplikatutako test sintaktikoen emaitzak laburbilduko ditugu. Aditz-lokuzioen banan-banako analisia egitea baino areago, aditz-lokuzioek erakusten dituzten jokaera desberdinak atzematea izan da test hauek aplikatzearen helburua. Horregatik, *corpusetan* aurkitu ditugun adibideetan oinarrituz aditz-lokuzioek erakusten dituzten jokaera nagusiak hartu ditugu aintzat aditz-lokuzioen sailkapen hirukoitz hau egiteko. Aditz-lokuzioen jokaera sintaktikoen arabera hauek dira bereiz ditzakegun hiru azpitaldeak:

- 1.- [I+A] osagaien arteko lotura estua erakusten duten aditz-lokuzioak: 1 MOTA.
- 2.- [I+A] hurrenkeraren haustura erakusten duten aditz-lokuzioak: 2 MOTA.
- 3.- Jokaera bikoitza erakusten duten aditz-lokuzioak: 3 MOTA.

Aditz-lokuzioez osatutako egituretan ikusi dugunez, perpausaren edozein osagai izan daiteke galdegai eta hauen artean mota desberdin hauetakoak topatu ditugu egituretan: adberbioak, nor/eta nori sintagmak, mendeko perpausak, galdera-hitza, aditza bera, eta abar. Azpimarratzekoa da, aditz-lokuzioaz osatutako egitura horien artean, ez dugula nor/zer galdera-hitzaz osatutako galderarik aurkitu<sup>83</sup>. Horrelakorik ez existitzea, aditz-lokuzioaren izena o.z. funtzioa betetzen duen argumentua izateagatik uler dezakegu eta, euskarak, o.z. funtzioa betetzen duen bi IS onartzen ez dituelako azal genezake horrelakorik ez existitzea.

Ildo beretik, esan behar dugu, edozein aditz-lokuzio izanik, ez dugula Mithunen “ditrantsitibizazioaz” azal zitekeen egiturarik aurkitu. Hau ere, aditz-lokuzio egitura, konposizioa edo hitz-elkarketa ez bezala, egitura sintaktikoa eta iragankorra delako azal genezake, 1. eta 2. kapituluetan aurkeztu ditugun iragankortasunaren aldeko argudioekin batera.

Aurkitutako adibide batzuk, test bakar bati buruzko ondorioak ateratzeko baino areago, bi edo hiru testi buruzko ondorioak ateratzeko baliagarriak izan zaizkigu. Partitiboa, esate baterako, ezezko koordinazio egituretan, ezezko aginte egituretan eta ezezko galdera egituretan ager daitekeela ikusi dugu. Baiezko nahiz ezezko aginte egiturak ere, koordinazio egituretan aurkitu ditugu. Galdera-egitura koordinatuak ere topatu ditugu, eta abar. Kasu horietan ere, koherenteak dira test desberdinek egitura berean erakutsi dituzten aditz-lokuzioen jokaerak.

Hurrengo lerroetan, banan-banako testen emaitzak laburbilduko ditugu eta ondoren test guztien emaitzak laburbilduko ditugu.

---

<sup>83</sup> \*zer hitzegin du? \*zer negar egin du? edota \*zer elurra egin du? gisako egiturarik ez da existitzen.

## 1. GALDEGAIA ETA [I+EGIM] HURRENKERA

Galdegaiaren testari dagokionez, bat datoz galdegaia ageri denean [I+A] osagaien hurrenkera aztertzeko aplikatu ditugun hiru testen emaitzak; beraz, (3.1.1.), (3.1.2.) eta (3.1.3.) azpisailen arteko emaitzak koherenteak direla ondoriozta dezakegu. Horregatik, galdegaia testaren aplikazioen ondorio diren emaitz horiek bateratzen dituen sailkapen bakar batean laburbilduko ditugu. Hauek dira, galdegai tasunean oinarritzen diren 3.1.1., 3.1.2. eta 3.1.3. azpiatalen emaitzetan oinarrituz egin ditzakegun hiru azpisailak, aditz-lokuzioen jokaera desberdinei dagozkienak:

### 1 MOTA.- [I+EGIM] LOTURA ESTUA:

*alde egin (aldegin), hanka egin, ospa egin, hitz egin (hitzegin)<sup>84</sup>, leher egin, listu egin, hatz egin, aipu egin, murgil egin, arnas(a) egin, kontu egin, desafio egin, iruzur egin, burrunba egin, solas egin, ele egin*

### 2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA:

*deiadar egin, erregu egin, irain egin, iseka egin, kaka egin, kaso egin, garrasi egin, ulu egin, barau egin, errieta egin, ehiza egin, klik egin, usain egin, txalo egin, tiro egin, ikara egin, apustu egin, kalte egin, bekatu egin, piper egin, salto egin, algara egin, dantza egin, min egin, agur egin, borbor egin, laztan egin, hasperen egin, zurrut egin, jaramon egin, irrintzi egin*

### 3 MOTA.- JOKAERA BIKOITZA:

*so egin, hots egin<sup>85</sup>, huts egin, berba egin, negar egin, lo egin, eztul egin, dei egin, amets egin, porrot egin, topo egin, talka egin, lan egin, barre egin, ihes egin, eztanda egin, arraun egin, zin egin, negar egin, aurre egin, otoitz egin,*

<sup>84</sup> *Hitz egin* aditz-lokuzioari dagokionez, haustura erakusten duen adibide bat topatu dugu, soilik. Lotura estua erakusten duen ordena nagusi denez, lotura estua erakusten dutenen artean kokatu dugu.

<sup>85</sup> *Hots egin* lokuzioari dagokionez, oso urriak dira hurrenkeraren haustura erakusten duten adibideak.

*behaztopa egin, estropezu egin, oihu egin, burla egin, irrist egin, aharrausi egin, keinu egin, zintz egin, juramentu egin*

#### ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK

##### 2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA:

*euria egin, txingorra egin, hotza egin, izotza egin, ekaitza egin, zirimiria egin*

##### 3 MOTA.- JOKAERA BIKOITZA: *elurra egin*

## 2. PARTITIBOA

Test honen emaitzetan oinarrituz ere, azpitalde hauetan bana ditzakegu aditz-lokuzioak, jokaera sintaktikoaren arabera:

##### 1 MOTA.- [I+EGIM] LOTURA ESTUA:

*hitz egin<sup>86</sup>, alde egin (aldegin), hots egin, hanka egin, ospa egin, arraun egin, aurre egin, topo egin, irrist egin, murgil egin, leher egin*

##### 2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA:

*zirkin egin, irri egin, jaramon egin, dirdira egin, arrantza egin, kasu egin, duda egin, apustu egin, otoitz egin, laztan egin, birao egin, irribarre egin, auhen egin, aharrausi egin, gogoeta egin, txio egin, zurrut egin, erregu egin, ehiza egin, eztula egin, zintz egin, burla egin, txalo egin, usain egin, desafio egin, irain egin, ele egin, klik egin, aitor egin, arnas egin, hasperen egin, txistu egin*

---

<sup>86</sup> *Euskaltzaindiari jarraituz (1991a), hitz egin lokuzioaren ezezkoa ez hitz egin dela defendatuko dugu tesi honetan eta hitzik ez egin egitura ñabardura semantiko berezia duela. Modu berean, bereizketa bat egingo dugu, hots egin aditz-lokuzioaren eta hotsa egin/zarata egin egitura iragankor arruntaren artean, hotsik egin azken honen ezezkotzat hartuz. Horregatik, emaitzak laburbiltzen dituen taulan eta aditzen sailkapenetan, partitiborik onartzen ez duten lokuzioen artean kokatuko ditugu hitz egin eta hots egin aditz-lokuzioak.*

3 MOTA.- JOKAERA BIKOITZA:

*huts egin, ihes egin, piper egin, doministiku egin, barre egin, agur egin, behaztopa egin, estropezu egin, iruzur egin, lo egin, so egin, kontu egin, porrot egin, eztanda egin, argi egin, talka egin, tiro egin, ikara egin, berba egin, korrika egin, zaunka egin, zin egin<sup>87</sup>, bekatu egin, min egin, negar egin, bultza egin, galde egin, amets egin, jauzi egin, aipu egin, kalte egin*

ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK

2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA:

*euria egin, elurra egin, hotza egin, zirimiria egin, haizea egin, sargori egin, bero egin, ekaitza egin*

**3. KOORDINAZIO-EGITURAK: EGITURA KOPULATIBOAK, EGITURA DISJUNTIBOAK ETA EGITURA ADBERTSATIBOAK**

Koordinazio-egitura kopulatiboetan, egitura disjuntiboetan eta egitura adbertsatiboetan oinarritzen den testari dagokionez, bi jokaera nabarmen ezberdin ditzakegu eta aurreko testetan atzemandako emaitzak egiazta ditzakegu:

1 MOTA.- [I+EGIM] LOTURA ESTUA: *hitz egin, alde egin, hanka egin, ospa egin, agur egin, txistu egin*

2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA:

*ele egin, iseka egin, barre egin, negar egin, irribarre egin, talka egin, otoitz egin, burla egin, kaka egin, estropezu egin, berba egin, irri egin, dantza egin, irrintzi egin, arraun egin, bultza egin, txalo egin, tiro egin, lan egin, lo egin,*

---

<sup>87</sup> Aginteran ageri da partitiboa duen izena; beraz, ezezko egitura arruntean partitiboa duen adibiderik aurkitu ez dugun arren, jokaera bikoitza erakusten dutenen artean kokatuko dugu *zin egin* lokuzioa.

*eztul(a) egin, kalte egin, doministiku egin, pixa egin, aurre egin, solas egin, hasperen egin, zin egin, putz egin*

#### ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK

##### 2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA:

*txingorra egin, euria egin, elurra egin, bero(a) egin, hotza egin*

#### 4. AGINTERA

Aginte egiturei dagokienez, aurreko testetan atzemandako emaitzak errepikatzen dira eta honela laburbildu daitezke atzemandako jokaera nagusiak:

##### 1 MOTA.-[I+EGIM] LOTURA ESTUA:

*hitz egin, hots egin, alde egin, hanka egin, ospa egin, listu egin, arraun egin, auhen egin, murgil egin, iruzur egin, leher egin, arnas(a) egin, usain egin, aharrausi egin, aitor egin*

##### 2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA:

*dolu egin, desafio egin, burrunba egin, ulu egin, zaunka egin, txalo egin, agur egin, dantza egin, kaka egin, pixa egin, berba egin, irri egin, doministiku egin, aldarri egin, burla egin, min egin, eztul egin, kalte egin, hatz egin, kaso egin, behaztopa egin, bekatu egin, errieta egin, jauzi egin, barau egin, irribarre egin, jaramon egin, argi egin, klik egin, borbor egin, laztan egin, keinu egin, zurrut egin, korrika egin, oihu egin*

##### 3 MOTA.- JOKAERA BIKOITZA:

*lo egin, aurre egin, so egin, negar egin, otoitz egin, barre egin, kontu egin, erregu egin, garrasi egin, bultza egin, tiro egin, ihes egin, zintz egin, amets egin, zin egin, duda egin, dei egin, birao egin, salto egin, galde egin*

Esanik gabe doa, agintera ez dela aditz-meteorologikoekin aplikatzen.

## 5. MENDEKO PERPAUS OSAGARRIA

1 MOTA.- [I+EGIM] LOTURA ESTUA:

*gogoeta egin, galde egin, aitor egin, zin egin, juramentu egin, hots egin, apustu egin, zalantza egin, keinu egin*

2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA:

*deiadar egin*

3 MOTA.- JOKAERA BIKOITZA:

*amets egin, duda egin, erregu egin*

## 6. LOKAILUAK

2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA:

*barre egin, lo egin, kaka egin, kalte egin, otoitz egin, amets egin, txalo egin, txistu egin, negar egin, duda egin, burla egin, galde egin, estropezu egin, zin egin, gogoeta egin, agur egin, porrot egin, apustu egin, lan egin, oihu egin, eztul egin, tiro egin, zaunka egin, hazka egin*

ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK

2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA:

*euria egin, hotz(a) egin, beroa egin, izotza egin, haizea egin, ekaitza egin, elurra egin*

**TEST GUZTIEN EMAITZAK LABURBILTZEN DITUZTEN AZPISAILAK ETA AZPISAIL MOTA BAKOITZARI DAGOKION ADITZ-LOKUZIOAK:**

**1 MOTA.- [I+EGIM] LOTURA ESTUA:**

*alde egin (aldegin), hanka egin, ospa egin, hitz egin (hitzegin)<sup>88</sup>, leher egin, listu egin, murgil egin, hots egin<sup>89</sup>*

**2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA:**

*deiadar egin, jaramon egin, dirdira egin, irain egin, iseka egin, kaso egin, ulu egin, errieta egin, ehiza egin, klik egin, arrantza egin, dantza egin, pixa egin, kaka egin, aldarri egin, txalo egin, kalte egin, irri egin, irribarre egin, algara egin, barau egin, eztul(a) egin, irrintzi egin, aldarri egin, jauzi egin, min egin, behaztopa egin, bekatu egin, doministiku egin, ikara egin, borbor egin, laztan egin, hasperen egin, zurrut egin, txistu egin<sup>90</sup>*

**3 MOTA.- JOKAERA BIKOITZA:**

*so egin, huts egin, berba egin, negar egin, lo egin, dei egin, amets egin, topo egin, arraun egin, talka egin, lan egin, barre egin, ihes egin, eztanda egin, zin egin, aurre egin, otoitz egin, kontu egin, estropezu egin, aharrausi egin, porrot egin, argi egin, aipu egin, iruzur egin, hatz (hazka) egin, desafio egin, burrunba egin, erregu egin, zintz egin, duda egin, zaunka egin, burla egin, bultza egin, oihu egin, usain egin, tiro egin, irrist egin, birao egin, piper egin, solas egin, ele egin,*

---

<sup>88</sup> *Hitz egin* aditz-lokuzioari dagokionez, haustura erakusten duen adibide bat topatu dugu, soilik. Lotura estua erakusten duen ordena nagusi denez, lotura estua erakusten dutenen artean kokatu dugu.

<sup>89</sup> *Hots egin* lokuzioari dagokionez, [I+egin] hurrenkeraren haustura erakusten duten adibideak oso urriak direnez, test desberdinetan erakusten duen jokaeran oinarrituz, lotura estua erakusten duten aditzen taldean kokatzea egokiago ikusten dugu.

<sup>90</sup> Koordinazioari dagokion adibide bakar batean topatu dugu *txistu egin* lokuzioa hurrenkera horretan. Beste test guztietan osagaiak bana daitezkeela erakusten duenez, 2 motako taldean kokatu dugu.

*salto egin, galde egin, garrasi egin, aitor egin, keinu egin, arnas(a) egin, agur egin, juramentu egin, korrika egin, gogoeta egin, apustu egin*

ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK:

### **2 MOTA.- [I+EGIM] HURRENKERAREN HAUSTURA**

*hotz(a) egin, euria egin, izotza egin, txingorra egin, zirimiria egin, haizea egin, sargori egin, bero(a) egin, ekaitza egin, izotza egin*

### **3 MOTA.- JOKAERA BIKOITZA: elurra egin**

Emaitzak laburbiltzen dituen ondorengo taulak erakusten duenez, aditz-lokuzioen arteko desberdintasunak nabarmenak direla baieztatu dezakegu. Eta hala, test sintaktikoak aplikatzean lortzen ditugun emaitzetan oinarrituz azpimultzoak osa daitezke.

(3.700)

[IZEN+EGIN]	GALDEGAIA (ORO HAR)	NZ GALDERA	ZER EGIN DU?	PARTITIBOA	KOORD. EGITURAK	AGINTERA	PERPAUS OSAGARRIA	LOKAILUAI
ALDE EGIN	-	-	-	-	-	-		
HANKA EGIN	-	-		-	-	-		
OSPA EGIN	-			-	-	-		
LEHER EGIN	-	-	-	-		-		
LISTU EGIN	-					-		
MURGIL EGIN	-			-		-		
HOTS EGIN	+/-	-	-	-		-	-	
HITZ EGIN	+/-	-	-	-	-	-		
ARNASA EGIN	-			+		-		
ARRAUN EGIN	+/-	-		-	+	-		
HUTS EGIN	-	+/-		+/-				
TOPO EGIN	+/-	+/-		-		ea.		
ZINTZ EGIN	+/-			+/-		+/-		
SO EGIN	+/-	+/-		+/-		+/-		
AURRE EGIN	+/-	+/-	+/-	-	+	+/-		
ZIN EGIN	+/-	-		+/-		+/-	-	+
MIN EGIN	+	+		+/-		+		
NEGAR EGIN	+/-	+/-	+	+/-		+/-		+
BERBA EGIN	+/-	+/-		+/-	+	+		

[IZEN + EGIM]<sub>A</sub>LOKUZIOAK ETA TEST SINTAKTIKOEN APLIKAZIOA: SAILKAPENA

[IZEN+EGIN]	GALDEGAIA (ORO HAR)	NZ GALDERA	ZER EGIN DU?	PARTITIBOA	KOORD. EGITURAK	AGINTERA	PERPAUS OSAGARRIA	LOKAILUA
EZTUL(A) EGIN	+				+	+		+
JARAMON EGIN	+			+		+		
PIPER EGIN	+			+/-				
IHES EGIN	+/-	+/-		+/-		+/-		
AMETS EGIN	+/-	+/-		+/-		+/-	+/-	+
LO EGIN	+/-	+	+	+/-	+	+/-		+
DUDA EGIN		-		+		+/-	+/-	+
DEIADAR EGIN	+/-						-	
OIHU EGIN	+	+/-		+/-		+		+
LAN EGIN	+/-	+/-		+/-	+			+
DEI EGIN	+/-					+/-		
OTOITZ EGIN	+	-	+		+	+/-		+
ISEKA EGIN	+	+			+			
IRAIN EGIN		+		+				
IRRINTZI EGIN	+				+	+		
IRRIST EGIN	+	+/-		-				
JAUZI EGIN				-		+		
ELE EGIN	-			+	+			
ERREGU EGIN	+			+		+/-	+/-	
BARRE EGIN	+/-	+/-	+	+/-	+	+/-		+

[IZEN + EGIM]<sub>A</sub>LOKUZIOAK ETA TEST SINTAKTIKOEN APLIKAZIOA: SAILKAPENA

[IZEN+EGIN]	GALDEGAIA (ORO HAR)	NZ GALDERA	ZER EGIN DU?	PARTITIBOA	KOORD. EGITURAK	AGINTERA	PERPAUS OSAGARRIA	LOKAILUA
IRRI (IRRIBARRE) EGIN <sup>91</sup>				+	+	+		
TXALO EGIN			+	+	+	+		+
KALTE EGIN	+	+		+/-	+	+		+
GARRASI EGIN		+/-		+		+/-		
ULU EGIN		+						
JURAMENTU EGIN		+/-					-	
KLIK EGIN	+	+		+		+		
ERRIETA EGIN		+		+		+		
BIRAO EGIN				+		+/-		
APUSTU EGIN	+	-		+			-	+
DESAFIO EGIN	-			+		+		
BEHAZTOPA EGIN				+/-		+		
ESTROPEZU EGIN	+/-			+/-				+
IRUZUR EGIN	-			+/-		-		
KONTU EGIN		-	-	+/-		+/-		
LAZTAN EGIN	+			+		+		
PORROT EGIN	+/-	+		+/-				+
SOLAS EGIN	-			+	+			
EZTANDA EGIN	+/-	+	+	+/-				

<sup>91</sup> Jokaera berbera erakutsi dute hiru testetan (partitiboan, koordinazioan eta aginte egituretan)

[IZEN + EGIM]<sub>A</sub>LOKUZIOAK ETA TEST SINTAKTIKOEN APLIKAZIOA: SAILKAPENA

[IZEN+EGIN]	GALDEGAIA (ORO HAR)	NZ GALDERA	ZER EGIN DU?	PARTITIBOA	KOORD. EGITURAK	AGINTERA	PERPAUS OSAGARRIA	LOKAILUA
AGUR EGIN	+			+/-	-	+		+
BEKATU EGIN	+	+		+/-		+		
DOMINISTIKU EGIN				+/-	+	+		
AUHEN EGIN				+		-		
AHARRAUSI EGIN		+/-	+/-	+		-		
ALDARRI EGIN				+		+		
AIPU EGIN	-			+/-				
ARGI EGIN			+	+/-		+		
BORBOR EGIN	+					+		
BURRUNBA EGIN	-		-			+		
GOGOETA EGIN	-			+			-	+
TXIO EGIN	+/-			+				
TALKA EGIN	+/-			+/-	+			
HATZ / HAZKA EGIN	-			+/-		+		+
ZURRUT EGIN	+		+	+	+	+		
EHIZA EGIN		+		+				
ZAUNKA EGIN				+/-		+		+
BURLA EGIN	+/-			+	+	+		+
BULTZA EGIN	+/-		+	+/-	+	+/-		
USAIN EGIN			+	+		-		

[IZEN + EGIM]<sub>A</sub>LOKUZIOAK ETA TEST SINTAKTIKOEN APLIKAZIOA: SAILKAPENA

[IZEN+EGIN]	GALDEGAIA (ORO HAR)	NZ GALDERA	ZER EGIN DU?	PARTITIBOA	KOORD. EGITURAK	AGINTERA	PERPAUS OSAGARRIA	LOKAILUA
TIRO EGIN	+		+	+/-	+	+/-		+
IKARA EGIN			+	+/-				
ARRANTZA EGIN		+	+	+				
BARAU EGIN		+		+/-		+		
KASO EGIN		+		+		+		
KAKA EGIN		+			+	+		+
PIXA EGIN					+	+		
DANTZA EGIN		+			+	+		
SALTO EGIN	+					+/-		
GALDE EGIN				+/-		+/-	-	+
AITOR EGIN				+		-	-	
KEINU EGIN	+/-			+			-	
HASPEREN EGIN	+			+	+			
KORRIKA EGIN		+		+/-		+		
TXISTU EGIN	+			+	-			+
ELURRA EGIN	+/-	+		+	+	ea	ea	+
EURIA EGIN	+	+	+	+	+	ea	ea	+
EKAITZA EGIN			+	+		ea	ea	+
BERO(A) EGIN				+	+	ea	ea	+
HOTZ(A) EGIN	+	+		+	+	ea	ea	+

[IZEN+EGIN]	GALDEGAIA (ORO HAR)	NZ GALDERA	ZER EGIN DU?	PARTITIBOA	KOORD. EGITURAK	AGINTERA	PERPAUS OSAGARRIA	LOKAILUA
ZIRIMIRIA EGIN	+			+		ea	ea	
TXINGORRA EGIN	+				+	ea	ea	
SARGORI EGIN				+		ea	ea	
HAIZEA EGIN				+		ea	ea	+
IZOTZA EGIN	+					ea	ea	+

ea: ez da aplikatzen

Taulak islatzen duenez, emaitzak koherenteak dira talde bereko aditz-lokuzioen artean:

1.- Alde batetik, test guztietan (-) emaitza erakutsi duten aditz-lokuzioen taldea dugu edo zurruntasun sintaktikoa erakusten duten aditz-lokuzioak. Horien artean ditugu, *alde egin*, *hanka egin*, *ospa egin*, *leher egin*, *listu egin* eta *murgil egin* aditz-lokuzioak. Testetan erakusten duten jokaera homogeenan oinarrituz, talde horretan kokatu ditugu test bakar batean eta bakarra ez bada oso urriak diren adibideetan banaketa erakutsi duten *hitz egin*, *ospa egin* eta *hots egin* aditz-lokuzioak ere bai.

2.- Bestalde, osagaien arteko banaketa bi testetan erakutsi duten aditz-lokuzioak bereiz ditzakegu, jokaera bikoitza erakusten duten aditz-lokuzioen artean. *Huts egin* lokuzioak lotura estua erakusten du test guztietan, galdera-egituran eta partitiboan salbu. *Topo egin* lokuzioak galdegaiaren testean oro har nahiz galdegai galdetzailearen testean osagaiak bana daitezkeela erakusten du. *Arraun egin* lokuzioak, banaketa erakusten du galdegaia ageri denean eta koordinazio-egituran eta *arnas(a) egin*<sup>92</sup> lokuzioak partitiboan erakusten du banaketa.

<sup>92</sup> *Arnasik egin* aditz-lokuzioaren agerraldi bat baino gehiago topatu ditugulako kokatu dugu aditz-lokuzio hori talde horretan. Hala eta guztiz ere, *arnas egin* aditz-lokuzioaren agerraldiak baino areago, nabarmenki ugariagoak dira *arnas hartu* aditz-lokuzioaz osatzen direnak.

3.- Horiez gain, jokaera bikoitza erakusten duten aditz-lokuzioak bereiz ditzakegu. Bietara erabil daitezkeen lokuzioen taldean kokatu ditugu bai test sintaktiko berean jokaera desberdinak erakusten dituzten aditz-lokuzioak, bai test desberdinak aintzat hartuz jokaera desberdinak erakusten dituztenak. Hala nola *salto egin, ele egin, solas egin, korrika egin, talka egin, desafio egin, borbor egin, erreku egin, duda egin*, eta abar.

4.- Azkenik, test guztietan osagaien arteko banaketa (+) erakusten duten aditz-lokuzioen multzoa bereiz dezakegu. Talde horretan sailkatu ditugu, batetik, aditz-lokuzio meteorologiko guztiak, emaitzetan oinarrituz talde homogeen gisa funtzionatzen duen azpitaldea. Azpitalde honetan kokatu ditugu, halaber, test guztietan [I+egin] hurrenkeraren haustura erakutsi duten *hasperen egin, ehiza egin, arrantza egin, errieta egin, barau egin, dantza egin, ulu egin, klik egin* eta beste aditz-lokuzio asko.

Test sintaktikoen emaitzetan oinarrituz proposatu dugun sailkapenari dagokionez, taldekatze horiekin bat datorren baldintzapen edo arrazoi semantikorik aurki daitezkeen galde diezaiokegu geuri buruari, eta hala, emaitzak 1. kapituluari egindako aspektuari buruzko sailkapenarekin erlaziona ditzakegu.

Aspektuari dagokionez, aditz-lokuzioen artean jarduerak eta erdiespenak ditugula ondorioztatu dugu 1. kapituluari. Test sintaktikoen emaitzetan oinarrituz egin ditugun azpitaldeak aintzat hartuz, jarduerak nahiz erdiespenak, biak topatzen ditugu hiru azpitaldeetan:

1 motako aditzei dagokienez, *alde egin, hanka egin, ospa egin* eta *leher egin* erdiespenak dira, *hitz egin, murgil egin, hots egin, listu egin* eta *arnas(a) egin*, jarduerak. 2 motako azpitaldean, gehienak jarduerak diren arren, *klik egin* erdiespena da. 3 motako azpitaldean, *berba egin, negar egin, amets egin*, eta abar, jarduerak dira, baina, *estropezu egin, behaztopa egin, eztanda egin*, eta beste batzuk, erdiespenak. Beraz, ezin dugu ondorioztatu aspektuan oinarritzen den irizpide semantikoak jokaera sintaktikoa baldintzatzen duenik.

Horrez gain, geure buruari galde diezaiokegu ea loturarik dagoen kapitulu honetan proposatu dugun sailkapen hirukoitzaren eta 1. kapituluaren aurkeztu dugun De Rijken sailkapenaren artean.

Erantzuna baiezkoa da, aditz-lokuzio meteorologikoen taldeari dagokionez soilik. Analisisian oinarrituz bereizi dugun aditz meteorologikoen taldea bat dator De Rijkek eta Zabalak bereizten duten eguraldiari dagozkien esaerez osatutako taldearekin. Aitzitik, beste azpitaldeetako lokuzioak ez datoz bat De Rijkek bereizitako taldeekin, nahasirik agertzen direlako batzuk eta besteak:

1 motako taldean edo osagaien arteko lotura estua erakutsi duten aditz-lokuzioen taldean kokatu ditugun aditz-lokuzioak, De Rijkek bereizitako talde mota desberdinetakoak dira. *Hanka egin* eta *murgil egin* lokuzioak, mugimendu-modua adierazten duten esaeren taldean kokatzen ditu De Rijkek, *hitz egin* lokuzioa, komunikazioari dagokion esaeren artean, *hots egin*, emisio esaeren artean, *listu egin*, gorputz ekintzei dagozkien esaeren taldean, *leher egin*, bestelako taldean, eta abar.

2 motako aditzak, halaber, ez datoz bat De Rijken esaera motekin. Izan ere, osagaien arteko lotura estua erakusten ez duten azpitaldean sailkatu ditugun aditz-lokuzioak, De Rijkek bereizitako esaera mota desberdinetakoak dira, lokuzio meteorologikoak salbu. *Deiadar egin* eta *ulu egin* aditz-lokuzioak, emisio esaeren taldean kokatzen ditu De Rijkek. *Errieta egin*, *txalo egin*, eta *agur egin* lokuzioak, komunikazioari eta elkarreraginari dagozkion esaeren artean. *Irri egin*, *irribarre egin*, *pixa egin*, *kaka egin*, *barau egin* eta *eztul egin*, gorputz ekintzei dagozkien esaeren taldean sailkatzen ditu. *Bekatu egin*, giza ekintzei dagozkien esaeren taldean, *gogoeta egin*, ekintza mentalen taldean, *min egin*, esperientziei dagozkien esaeren artean, *dantza egin*, mugimendu-modua adierazten duten esaeren artean, eta abar.

Are gehiago, ez dugu loturarik atzeman 3 motako aditz-lokuzioen eta De Rijken sailkapen semantikoaren artean, jokaera bikoitza erakusten duten lokuzio horiek ere De Rijkek bereizten dituen mota desberdinetakoak baitira. *Berba egin*, *zin egin*, *otoitz egin*, *erregu egin*, *burla egin* eta *birao egin*, komunikazioari eta elkarreraginari dagozkion esaeren azpitaldean kokatzen ditu De Rijkek. *Negar*

*egin*, *barre egin*, *aharrausi egin* eta *bultza egin*, gorputz ekintzei dagozkien taldean. *Amets egin*, ekintza mentalen taldean, *eztanda egin*, emisio esaeren artean, *porrot egin*, bestelako taldean, eta abar.

Laburbilduz, test sintaktikoak aplikatuz proposatu dugun aditz-lokuzioen sailkapen hirukoitzan, nahasirik topatzen ditugu De Rijken talde semantiko desberdinetako aditzak eta 2 motako aditz-lokuzio meteorologikoak dira soilik De Rijken eta Zabalaren eguraldiari dagozkion esaeren azpitaldearekin bat datozenak.

Horrez gain, adierari dagokionez deskribatu ditugu aditz-lokuzioak eta irakurketa idiomatikoa nahiz irakurketa konposizionala duten aditz-lokuzioak bereizi ditugu, bi aukerak onar ditzaketen aditz-lokuzioak ez ezik. Test sintaktikoan oinarrituz egin ditugun azpimultzoak eta bi adiera mota horiek erlazionatuz ondorio hauek atera ditzakegu:

1 motako aditz-lokuzioen artean edo osagaien arteko lotura estua erakusten dutenen artean, ugariak dira irakurketa idiomatikoa duten aditz-lokuzioak. Hala nola *alde egin*, *ospa egin*, *hanka egin*, *hots egin* eta *listu egin*<sup>93</sup>. Hala eta guztiz ere, *murgil egin* eta *leher egin*, salbuespenak dira, horien esanahia osagaietatik erator daitekeelako. Ihartuak dauden egiturak izatearekin erlaziona dezakegu egitura hauen adiera idiomatikoa. Izan ere, ulergarria da esanahi idiomatikoa duten egiturak izatea [+egin] osagaien lotura estua erakusten duten aditzak, esanahi metaforikoa lotura estu horren ondorio delako, hain zuzen ere.

2 motako aditz-lokuzioen artean, ez dugu irakurketa idiomatikoa duen lokuziorik topatu. Beraz, aditz-lokuzio meteorologikoek nahiz meteorologikoak ez diren mota bereko aditz-lokuzioek, irakurketa konposizionala dute, guztiek.

---

<sup>93</sup> *Listu egin* aditz-lokuzioak zalantza sor dezake adierari dagokionez deskribatzeko orduan. Horren esanahia metaforikoa ez bada ere, ezin dugu esan konposizionala denik. Gainera, *listu egin* aditz-lokuzioa ez ezik, *listua bota* adiera konposizionala duen egitura iragankor arrunt paraleloa existitzen da. Horregatik, esanahi idiomatikoaren eta konposizionalaren artean dagoela proposa genezake. Ildo beretik doaz Suñerek eta Contrerasek (2004) bereizten dituzten esanahi idiomatiko osoa versus esanahi partziala kontzeptuak.

Hauek ihartuak izatetik urrunen dauden egiturak dira, hitz-ordena finkoa hausteko aukera erakusten dutenak, eta esanahi literala ordena batean edota bestean mantentzen dutenak.

3 motako aditz-lokuzioei dagokienez, gehiengo nabarmenak irakurketa konposizionala duela dakusagu, *piper egin* eta *huts egin* aditz-lokuzioak salbu, irakurketa idiomatikoak dutenak. *Arraun egin* lokuzioak, bestalde, bi irakurketak izan ditzakeela ikusi dugu, konposizionala eta idiomatikoak.

Ez da lan honen helburua aditz-lokuzioen banan-banako kasuistika aztertzea, baina, esanahi idiomatikoak duten aditz-lokuzioen osagaiak banatzea ez da espero duguna, esanahi idiomatikoak osagaien arteko lotura estuarekin bat datorren ezaugarri gisa ulertzen badugu.

Laburbilduz, bat etortze bat badagoela esan dezakegu, test sintaktikoen emaitzetan oinarrituz egin ditugun azpitaldeen eta talde hauetako lokuzioei dagokien irakurketa semantikoaren artean. Irakurketa idiomatikoak dute, oro har [+egin] osagaien arteko lotura estua erakusten duten aditz-lokuzioak (1 motakoak) eta irakurketa konposizionala dute osagaien arteko lotura estua erakusten ez dutenak (2 motakoak eta 3 motako gehienak).

Mithunek (1984) proposatzen duen hierarkia aditz-lokuzioei aplikatuz eta lokuzioen arabera atzeman dugun osagaien arteko lotura maila desberdinak aintzat hartuz, aditz-lokuzioen *continuum*a proposatuko dugu. Aditz-lokuzioak garapenean dauden egitura gisa azaltzeko aukera emango digu *continuum*ak eta garapen mailaren arabera *continuum*aren gune desberdinetan kokatuko ditugu<sup>94</sup> lokuzioak:

---

<sup>94</sup> Suñer eta Contreras hizkuntzalarien artikuluan (2004) garapen mailari dagokion *continuum*arekin bat datozen hurrengo aipamenak egiten dira, lexikalizazio maila dela eta:

«*Existe un continuum entre formas que están completamente lexicalizadas y otras que lo están sólo en parte. Una locución verbal como poner los pies en polvorosa constituye una unidad desde un punto de vista semántico equivalente a “escapa o huir a toda prisa”, sin embargo su grado de consolidación no es equivalente al de palabras como nomeolvides o correveidile. En primer lugar, porque el verbo poner puede flexionarse en persona, número, modo o tiempo (puso / pondrá /*


1 motako aditz-lokuzioak, osagaien arteko lotura estuagatik eta zurruntasun sintaktikoagatik bereiz daitezkeenak, eskuineko ertzean koka ditzakegu eta, oro har, unitate estu moduan jokatzeko duten lokuzioak eskuineko ertzetik hurbil kokatuko ditugu. Ezkerreko ertzean, kontrako jokaera erakusten duten aditz-lokuzioak kokatuko ditugu, hurrenkeraren haustura erakusten duten aditz-lokuzioak edo 2 motakoak. *Continuumaren erdian* kokatuko ditugu, jokaera bikoitza erakusten duten aditz-lokuzioak edo 3 motakoak.

(3.701) [+egin]<sub>A</sub> lokuzioen *continuum*a:

---

pondríamos los pies en polvorosa), *mientras que en los compuestos citados el verbo está inmovilizado en segunda persona de imperativo (\*nomeolvidarás). En segundo lugar, la locución poner los pies en polvorosa tiene la misma distribución y pertenece a la misma categoría sintáctica que una forma verbal no fraseológica, en tanto que las secuencias nomeolvides o correveidile han sufrido un proceso de recategorización y actúan globalmente como nombres*», Suñer & Contreras (2004: 60).

«*El conjunto de formas lexicalizadas forma un continuum en el que hay formas sintácticas totalmente estabilizadas como unidades léxicas y otras que lo están en determinadas posiciones*», Suñer & Contreras (2004: 86). Adibide moduan gaztelaniako *en mi vida* esaera proposatzen dute, lexikalizatua dagoen testuinguruan *inoiz ez adierazten duena*.



Aurreko irudian, aditz-lokuzioen osagaien arteko lotura mailak islatzen dituen *continuuma* dugu, osagaien jokaera askea erakusten duten aditz-lokuzioetatik hasi eta lotura banaezina erakusten duten aditz-lokuzioetara. Jokaera sintaktiko horien azalpen teorikoa izango da hurrengo kapituluaren muina.

## 4. [IZEN + EGIM]<sub>A</sub> ADITZ-LOKUZIOEN AZALPEN TEORIKOAK: ADJUNKZIOA HITZ EGIN ETA MOTA HORRETAKO ADITZ-LOKUZIOETAN

### 4.0 SARRERA

2. kapituluan aditz-lokuzioak azaltzeko marko teorikoa aurkeztu dugu inkorporazioaz egin diren hurbilketa teoriko desberdinak aintzat hartuz, hala nola Kroeberren (1905), Sadocken (1985, 1990) eta Lieberren (1992) ikuspuntu morfosintaktikoak, Sapirren (1911) eta Mithunen (1984) hurbiketa morfologikoak, Hale and Keyserren (1990) eta Rosenen (1989) ikuspuntu lexikoak eta Bakerren teoria sintaktikoa (1985 1988a 1995 2008), aditz-lokuzioen berri emateko lehenetsi duguna.

3. kapituluan test sintaktikoak aplikatu dizkiegu [I+egin]<sub>A</sub> lokuzioei eta osagaien arteko lotura maila desberdinak daudela agerian utzi dugu. 1 motako aditz-lokuzioek zurruntasun sintaktikoa erakutsi dute edo [I+egin] hurrenkera banaezina. 2 motako lokuzioen osagaiak bana daitezkeela ikusi dugu eta 3 motako aditzek jokaera bikoitza erakutsi dute; osagaien jokaera zurruna nahiz askea, testuinguruaren arabera. Aditz-lokuzioetan atzeman dugun [I+egin] hurrenkeraren lotura banaezina versus haustura, inkorporazio sintaktikoaren baitan azalduko dugu lerro hauetan.

Bakerren adjunkzioan oinarritzen den teoria eta 3. kapituluko emaitzak uztartuko ditugu kapitulu honetan eta bi adierazpen sintaktiko baliatuko ditugu hiru lokuzio mota horiek azaltzeko. Hala ere, Bakerren adjunkzioak (1985 1988a 1995 2008) *corpuseko* aditz-lokuzio batzuk azaldu ahal izango ditu, beste asko inkorporaziorik gabe azalduko baititugu. Adjunkzioaz emango dugu 1 motako lokuzioek erakusten duten osagaien arteko lotura banaezinaren berri eta jokaera zurruna erakusten duten 3 motako lokuzioak. Inkorporaziorik gabeko azalpen sintaktikoa proposatuko dugu 2 motako aditz-lokuzio guztien osagaien arteko

lotura askea azaltzeko eta jokaera bikoitza erakusten duten lokuzioen jokaera askea.

Horrez gain, DS versus IS adierazpenaz eta adjunkzioaz arituko gara 4.3. azpisailean.

4.4. azpisailean, aditz-lokuzioen alderdi semantikoaz hausnartuko dugu, izenaren esanahiaren eta aditzaren esanahiaren arteko elkarreragina aditz-lokuzio guztien ezaugarria dela aintzat hartuz. *Egin* aditz arinak eta mugak erakusten dituen izenak lotura estu bat osatzen dutela ikusi dugu, mendeko perpaus osagarria onartzen duten lokuzioen argumentu egitura aztertu dugun atalean (3.5). Horien ezaugarritzat ez ezik, aditz-lokuzio guztien ezaugarritzat hartuko dugu, jokaera sintaktikoaz aparte, esanahien loturaren ondorioz eratortzen den unitate kontzeptuala. Eta esanahiari dagokion lokuzioen unitate kontzeptual horren berri emateko, Jackendoffek (1990) proposatzen duen deskonposizio prozesua baliatuko dugu.

#### **4.1. 1 MOTAKO ADITZ-LOKUZIOEN AZALPEN SINTAKTIKOA: HITZ EGIN ETA MOTA HORRETAKO ADITZ-LOKUZIOAK<sup>1</sup>**

Aipatu dugu euskal hizkuntzalarien artean badirela aditz-lokuzioen jokaera desberdinen berri emateko inkorporazioaz baliatu direnak. Martínezek (1996) inkorporazio mailak bereiziaz ematen du aditz-lokuzioek erakusten dituzten jokaera sintaktiko desberdinen berri. Oyharçabalek (2006) ere, *lan egin* aditz-lokuzioaren hiru erabilera hauek<sup>2</sup> bereizten ditu eta jokaera desberdinen berri, inkorporazioaz nahiz inkorporaziorik gabeko analisisiaz eman daitekeela argudiatzen du:

---

<sup>1</sup> 3 motakoen artean, jokaera sintaktiko zurruna erakutsi duten aditz-lokuzioen berri ere emango dugu azalpen horren bidez.

<sup>2</sup> «*Thus overall and taking into account the language's different registers, we shall be forced to admit three structures available to speakers*», (Oyharçabal 2006: 789), *lan egin* lokuzioari buruz.

(4.1) [*Lan gutxi*] egin dugu

(4.2) *Gutxi egin dugu lan* (Oyharçabal 2006: 789)

ISren jokaera sintaktiko askea, bi adibide horietan, inkorporaziorik gabe azaltzen du eta inkorporazioaz baliatzen da ondorengo egituraren osagaien arteko lotura estua azaltzeko:

(4.3) *Gutxi [lan egin] dugu*<sup>3</sup>

Jokaera sintaktiko desberdinen berri emateko Bakerren (1985) Ispilu Hatsarrean oinarritzen den azalpena hartuko dugu abiapuntutzat, baliagarria delako aztergai ditugun egiturak xehetasunez azaltzeko. Izan ere, Ispilu hatsarrea egokia da lokuzioetan ematen diren prozesu morfosintaktikoen berri emateko, hau da, aditz-lokuzioen morfemen hurrenkerari dagokion azalpen sintaktikoa azaltzeko:


(4.4) Ispilu Hatsarrea<sup>4</sup> (Baker 1985: 375):

*«Morphological derivations must directly reflect syntactic derivations (and vice versa)». Hau da, eratorpen morfologikoak eratorpen sintaktikoen isla zuzena izan behar dira*<sup>5</sup>.

<sup>3</sup> Inkorporazioa prozesu bizia dela erakusten dute euskalkien erabilera desberdinek eta aldaerek, halaber, osagaien arteko lotura maila desberdinak daudela egiaztatzen dute.

<sup>4</sup> Hatsarre hau eta Hatsarre eta Parametroen teoria linguistikoa, Gramatika Unibertsalaren teoria orokorragoaren barnean koka daitezke.

<sup>5</sup> Azalpen morfologikoaren eta sintaktikoaren bat etortzea eskema honen bitartez azaltzen du, (Baker 1985: 376):



Hasteko, 1 motako aditz-lokuzioen azalpen sintaktikoa emango dugu, egitura horiek erakusten duten morfemen hurrenkerarekin batera. Azalpen sintaktiko hau, halaber, egokia da 3 motako aditzen jokaera sintaktiko zurrunaren berri emateko.

*Hitz egin* aditz-lokuzioaren morfemen hurrenkera honek, bada, mota horretako lokuzio guztien berri emateko balioko du, baita 3 motakoen jokaera zurruna azaltzeko ere. Izan ere, jokaera bereko lokuzioek morfema flexiboen hurrenkera komuna dute, egitura bat berean oinarrituz:

(4.5) Mikelek<sub>i</sub> *hitz<sub>j</sub> egin* d<sub>j</sub> - u - Ø<sub>i</sub>

S      O      A      KmzO-aux-KmzS

(4.6) I+ A + ASP + KMZO + AUX + KMZS


Lakaren (1993) azalpenean oinarrituz, inkorporazioa baliatuko dugu zurruntasun sintaktikoa erakusten duen osagaien osatutako egituraren berri emateko<sup>6</sup>:

---

A, B eta C, ezaugarri morfologikoak eta sintaktikoak dituzten prozesu linguistikoak dira eta eskemaren bidez morfologikoak eta sintaxiak bat egiten dutela adierazi nahi da.

<sup>6</sup> Azalpen teoriko hori baliatuko dugu, 3 motakoen artean, osagaien arteko lotura estua erakutsi duten egituren berri emateko.

(4.7)



Ispilu Hatsarrearen oinarrian dauden urratsak *hitz egin* eta 1 motako egiturei aplikatuz, lehenik gertatzen den prozesu sintaktikoa, izenaren adjunkzioa da eta ondorioz banandu ezin den aditz konplexua osatzen da. Inkorporazioa egitura sintaktikoaren eraiketa prozesuan lehenik gertatzen den prozesua denez,

azalpen sintaktikoaren mailarik beherakoenean gertatuko da. Izenaren adjunkzioa da, beraz, syntaxian islatzen den lehen prozesua<sup>7</sup>. Egitura inkorporatuaren hurrengo mugimendu sintaktikoa aspektuaren kokagunera izango da eta mugimendu hori ere bat dator hurrenkera morfologikoak erakusten duen morfemen ordenarekin, aditz erroari hurrenkera morfologikoan jarraitzen dion morfema aspektua baita, beraz, morfemen hurrenkeraren eta azalpen sintaktikoaren arteko bat etortzeaz hitz egin dezakegu. Aditzaren hurrengo mugimendua, objektu komunztadura gunera izango da. Objektu komunztadurari dagokion morfema eta azalpen sintaktikoa ere bat datoz, eta hala, KmzOren kokapena, aspektuari zuzenean jarraitzen diona, bat dator orainaldiko aditz laguntzaile iragankorraren morfemen hurrenkerarekin eta atzetik aurrera. Hurrengo pausoa, aditzaren mugimendua denbora gunera izango da, eta, azkenik, KmzS-ra mugimendua<sup>8</sup>.

Laburbilduz, inkorporazioa, behetik hasi eta urratsez urrats goraino gertatzen den mugimendu ziklikoa dugu. Teorian oinarrituz espero dugun moduan, burutik bururako mugimenduaren ondorioz, buru bakoitza jarraitzen dion buruaren ezker aldean kokatzen da eta urrats hauen guztien ondorioz espero dugun morfema flexiboen hurrenkera lortzen dugu (4.6).

Izen inkorporazioaren isla den hurrenkera morfologiko banaezina syntaxian gertatzen diren mugimenduekin bat datorrela egiaztatu dezakegu. Beraz, Ispilu Hatsarrea baliagarria zaigu prozesu morfosintaktiko zikliko hauen berri emateko.

---

<sup>7</sup> Determinatzailearik ezak egitura horietan, izenaren mugimendua zilegi egiten du.

<sup>8</sup> Subjektu komunztadurari dagokion marka, euskaraz, aditz-oinetik urrunen ageri den marka da, hots, aspektu marka baino urrunago ageri dena, KmzO marka baino urrunago eta denbora marka baino urrunago. Beraz, KmzS-ren kokapen kanonikoa, aspektua baino goragokoa izango da, baita KmzO eta aditz-denbora baino goragokoa ere, azken azalpenean dakusagun moduan. Egitura honetan ageri den \**edun* orain aldiko aditz laguntzailearen azken morfema, subjektuarekin komunztadura egiten duen morfema denez, azken mugimendu sintaktikoa KmzS gunera izango da.

## 4.2. 2 MOTAKO ADITZ- LOKUZIOEN AZALPEN SINTAKTIKOA<sup>9</sup>

3. kapituluaren aplikatutako test sintaktikoetan osagaien jokaera sintaktiko askea erakutsi dute 2 motako aditz-lokuzioek baita 3 motako aditz-lokuzio batzuek ere, eta horregatik, adjunkziorik gabe azalduko ditugu mota horietako aditz-lokuzioetan gertatzen diren prozesu sintaktikoak.

Bi azpitalde egingo ditugu determinatzaile-dun izenez osatutako aditz-lokuzioak determinatzaile-rik gabeko izenez osatzen diren-etatik bereizteko. Alde batetik, determinatzaile-rik gabeko izenez osatzen diren aditz-lokuzioen azalpen sintaktikoa aurkeztuko dugu, IS soilaz azalduko duguna. Bestetik, determinatzaile-dun izenez osatzen diren lokuzioen azalpena aurkeztuko dugu, DSz azalduko duguna.

### 4.2.1. ISz OSATZEN DIREN 2 MOTAKO ADITZ-LOKUZIOEN AZALPEN SINTAKTIKOA: *IRRIBARRE EGIN* ETA *MOTA HORRETA*KOAK

Determinatzaile-rik gabeko izenez osatzen den 2 motako *irribarre egin* aditz-lokuzioaz osatutako egitura azalduko dugu azpiatal honetan. Egitura horri dagokion hurrenkera morfologikoa eta horrekin bat datorren azalpen sintaktikoa ondorengo hauek lirateke:

(4.8) Mikelek<sub>i</sub> *irribarre*<sub>j</sub> *egin* d<sub>j</sub>-u-Ø<sub>i</sub>


S            O            A            KmzO-aux-KmzS

(4.9) I+ A + ASP + KMZO + AUX + KMZS

---

<sup>9</sup> Azalpen teoriko hau baliatuko dugu ere, osagaien arteko lotura askea erakutsi duten 3 motako aditz-lokuzioen berri emateko.

(4.10)



Ispilu Hatsarrean oinarrituz gertatzen diren urratsak bat datoz, 1 motako aditz-lokuzioen berri emateko proposatu berri ditugun urrats eta mugimenduekin, izen inkorporazioa salbu. Beraz, 2 motako aditz-lokuzioen eta 3 motakoen artean jokaera ez zurruna erakusten dutenen berri ematean, morfologia eta sintaxia bat datozela egiazta dezakegu. Inkorporaziorik gertatzen ez den kasu horietan izenaren eta aditzaren arteko lotura ez da banaezina eta horrexegatik azal

dezakegu lokuzio horien guztien izenek kokapen desberdinetan agertu ahal izatea, 3. kapituluaz aztertutako egituretan atzeman dugun moduan.

#### 4.2.2. DSz OSATZEN DIREN ADITZ-LOKUZIOEN AZALPEN SINTAKTIKOA: *EURIA EGIN* ETA BESTE ADITZ-LOKUZIO METEOROLOGIKOAK

Aditz-lokuzio meteorologikoetan ere, [+egin] hurrenkeraren haustura atzeman dugu aplikatutako testetan; beraz, horien azalpen teknika inkorporaziorik gabe emango dugu. Aditz lokuzio meteorologikoak, determinatzailedun izenaz bereizten dira 1 eta 2 motako aditz-lokuzioetatik<sup>10</sup>. Determinatzailedun izenaz osatzen dira, bestalde, meteorologikoak ez diren *arnasa egin* eta *eztula egin* aditz-lokuzioak, eta azken hauek bi aukerak onartzen dituzte. Hauen guztien azalpenetan, beraz, DS bat izango dugu, IS soilaren ordeaz. *Euria egin* aditz-lokuzioaz osatutako egiturari dagokion morfemen hurrenkera nahiz azalpen sintaktikoa hau genuke:

(4.11) *Euria<sub>j</sub> egin* d<sub>j</sub> -u-Ø<sub>i</sub>


O      A      KmzO-aux-KmzS

(4.12) I+ A + ASP + KMZO + AUX + KMZS

---

<sup>10</sup> *sargori egin*, salbuespen.

(4.13)



Lokuzio meteorologikoaren DSri dagokionez, 2 motako aditz-lokuzio horien bereizgarritzat har genezake [Espez, KmzO]-ra mugimendua. Izan ere, Lakari

(1993) jarraituz, determinatzaile sintagmak determinazio ezaugarriak txeketzeko igotzen direla proposatuko dugu eta izen sintagmak bere lekuan mantentzen direla. Desberdintasun hori salbu, Ispilu Hatsarrean oinarrituz gertatzen diren urratsak bat datoz 2 motako aditz-lokuzioen berri emateko proposatu ditugun mugimenduekin. Beraz, berriro ere, morfologia eta sintaxia bat datozela egiaztatu dezakegu.

### 4.3 DS versus IS ADITZ-LOKUZIOETAN

Azpiatal honetan, izen inkorporazio fenomenoaz eta aditz-lokuzioetan parte hartzen duen izenaren determinazioaz arituko gara.

Ez da kasualitatea inkorporazio mugimenduaz azaltzen ditugun egiturak, determinatzailearik gabeko izenaz osatzen diren aditz-lokuzioak izatea, ezinbestez. Bakerren (1985 1988a 1995 2008) adjunkzio mugimendua ezinezkoa da determinatzailedun izena dugunean, Buru Mugimenduaren Hatsarrean oinarrituz, determinatzailearen presentziak burutik bururako mugimendua eragozten duelako. DSren buruak, determinatzaileak, izenari jarraitzen dion lehen burua denez, izenaren adjunkzioa erakarriko luke eta mugimendua oztopatuko luke gorago kokatuta dagoen aditzaren gunera. Beraz, adjunkzioa determinatzailearik ez dugunean gerta daiteke, soilik. Aditz-lokuzio meteorologikoen izenak nahiz meteorologikoak ez diren gutxi batzuk -a determinatzaileaz markatzen direnez (*sargori egin* salbu), DS bat dugu horien azalpen sintaktikoan eta DS izateak bat dator inkorporaziorik ez egotearekin.

Laburbilduz, determinatzailea proiektio funtzionala dela ulertuz gero eta Buru Mugimenduaren Murriztapenaren Hatsarrean oinarrituz, izenaren mugimendua determinatzaileak eragozten duela esan dezakegu. Determinatzailearen agerrera, bestalde, ez dago baldintza semantikoaren menpe, determinatzailedun izenak ez erreferentzialak baitira kasu horietan guztietan.

Baina inkorporazioa determinatzaile ezarekin estuki lotuta egoteak ez du esan nahi determinatzailearik gabeko izenaz osatzen diren aditz-lokuzio guztiak

sintaxian inkorporatzen direnik. Inkorporazio analisirik gabeko *irribarre egin* motako aditz-lokuzioen azalpen tekniko eman berri dugu, determinatzaile gabeko izenez osatuagatik, inkorporaziorik gabe azaldu duguna.

IS / DS kontrastea ez ezik, partitiboa onartzen duten eta partitiborik onartzen ez duten izenen arteko kontrastea atzeman dugu, aditz-lokuzioetan. Ageriko partitiboak, DSz osatzen diren izenak bezala, ez du inkorporazio teoriari dagokionez arazorik sortzen, partitiboa duten izenak ez baitira inkorporatzen. Hau da, Bakerrek (1988a 1996 2005) adierazten duen moduan, inkorporazioa izen hutsa edo *bare noun* deritzona dugunean gertatzen da.

Determinatzaile eta partitiborik ez onartzeak, lokuzioaren izena mugatua dela baieztatzera garamatza, hori atzematen den adibideetan. Eta hala, inkorporazioaz azaldu ditugun egitura horiek, determinazioaz ez ezik, aditzaren kasu ezarketaz galdearazten digute.

Bakerrek adierazten duenez (1988), kasu ezarketarik eza inkorporazioaren ezaugarritzat hartu izan da, oro har, eta inkorporazioa bat dator, bere ustez, inkorporatzen den sintagmaren kasurik ezarekin.

1. kapitulan erakutsi dugu horixe erakusten duela japonierak, besteak beste, non kasurik eta errolik jasotzen ez duen izena<sup>11</sup> den inkorporatzen dena, Saito eta Hoshi (2000), Grimshay eta Mester (1988). Japonieraz ez ezik, euskaraz ere, aditzak kasurik ez ezartzearen ondorioz nahiz errola ez ezartzearen ondorioz uler dezakegu inkorporazioa, eta muga horiek bat datoz aditza arina izatearekin. Esan gabe doa, kasu marka absolutiboa, euskaraz, ez markatua dela *-(k)*

---

<sup>11</sup> Chomskyren (1981) *theta-criterion* delakoaren kontra, argumentu batek errola jaso behar duela diona, argumentu batek errolik ez jasotzea kasurik ez jasotzearekin erlazioa daiteke, Artiagoitiaren aipamen honetan adierazten den moduan, (Artiagoitia 1995: 6):

«*Noun phrase arguments (DPs) must be visible in order to receive a theta-role: An element is visible for theta-role assignment only if receives case*».

ageriko kasu marka ergatiboaren aldean- eta horrek ez ditu gauzak argitzen. Baina, partitiboak gauzak argitzen lagun dezake eta teoria eta praktika bat datozela dirudi. Izan ere, partitiborik onartzen ez duten aditz-lokuzioak dira inkorporazioaz azaldu ditugunak.

Inkorporaziorik gabe azaldu ditugun [IS+egin] motako aditz-lokuzioei dagokionez, eta Lakari jarraituz (1993), izena determinatzailezik gabekoa izatea, bat dator, egiturazko kasu ezarketa baino areago, barne prozesuaz gauzatu daitekeen kasu ezarketarekin<sup>12</sup>. Aditzak, kasu horretan, barne prozesu batez ezarriko lioke kasua ASren barneko ISri eta prozesu beraren bidez ezarriko litzateke partitiboa. Eta hala, mota horretako egiturak egitura iragankor arruntetatik bereizi ahal izango genituzke<sup>13</sup>, (Laka 1993: 149):

*«Structural Accusative Case and Inherent Partitive Case (Belletti 1988) are argued to be two instantiations of the V Case feature (Cv). Structural Case is [Cv, Agr] as in Chomsky (1992), Inherent Partitive Case is bare Cv. DPs must receive Structural Case, NPs must receive Inherent Case. NPs bearing CVs display Specificity Effects (Enç 1991, Mahajan 1992)».*

Kasua barne prozesuaz jasotzen duten IS horiek erreferentzialtasun ondorioak erakusten dituztela aipatzen du Lakak (1993) eta ideia hori bat dator aditz-lokuzio horien erreferentzialtasun ezarekin.

Baina, kontuan izanik determinatzailezik gabeko ISz osatutako lokuzio guztiak ez erreferentzialak direla, ezin dugu ondorioztatu determinatzailezik gabeko ISk izatearen arrazoia ez erreferentzialtasuna denik, aditz-lokuzio meteorologikoak ere ez erreferentzialak baitira determinatzailezidunak izan arren. Eta badira ez erreferentzialak diren DSak, egitura iragankor arruntetan ere.

---

<sup>12</sup> Massamek (2001) azalpen berbera proposatzen du niuean hizkuntzaren egitura batzuen berri emateko, aditzak kasua ASren barneko ISri zuzenean ezartzen diola proposatuz, alegia.

<sup>13</sup> Egitura iragankor arruntetan, kasua buru funtzional batek ezarriko lioke ASren kanpoko DSri, ohiko moduan.

Horregatik, Lakak adierazten duen bezala, kasua barne prozesuaz ezarria izatea baldintzatzen duena ez da izenaren adiera zehatza edo zehaztugabea, IS versus DS argumentu sintaktiko mota, baizik. Bestela balitz, aditz-lokuzio guztiek ezarriko lukete kasua barne prozesuaz, guztiak baitira ez erreferentzialak.

Analisi horren bitartez azal genezake inkorporazioaz azaldu ez ditugun ISz osatutako aditz-lokuzioen kasu ezarketa. Gainera, kontuan izanik izen sintagmek ez dituztela determinazio ezaugarriak txekatu behar, [DS+egin] egituraz osatzen diren eta kasua ohiko moduan jasotzen duten beste lokuzio ez inkorporatuetatik bereiz genitzake, IS hutsaz osatutako egitura horiek. Analisi hori, bada, egokia litzateke, [IS+egin] motako aditz-lokuzioak [DS+egin] motakoetatik edo aditz-lokuzio meteorologikoetatik bereizteko. Eta azalpen teoriko hori baliagarria litzateke, halaber, 1. kapituluaren aurkeztu ditugun lokuzio egituren antzekoak diren egitura iragankor arrunten DSk eta aditz-lokuzioen ISk desberdintzeko.

Lokuzio meteorologikoak edo [DS+egin] motako lokuzioak, egitura iragankor arruntetatik gertuen dauden egiturak lirake. Horiek ohiko egiturazko kasu ezarketa azal genitzake eta determinazio ezaugarriak ohiko moduan txekatu lituzketela proposatu.

Ez da tesi honen helburua, kasu ezarketa buruzko teoriarik murgiltzea, baina, besterik ez bada, inkorporazio sintaktikoa kasu ezarketa dagozkion mugekin bat datorren prozesua dela esan dezakegu.

Laburbilduz, IS/DS kontrastea, aditz-lokuzioek jasaten dituzten prozesu sintaktikoekin erlazioa daiteke. Inkorporazioa gertatzen denean, azalpenean IS soila izango dugu, ezinbestez (*hitz egin*) eta aditzak ez dio izen inkorporatuari kasurik ezarriko. Baina IS soila izateak ez du esan nahi egitura hori inkorporatua denik (*irribarre egin*). Izan ere badira ISz osatzen diren aditz-lokuzio ez inkorporatuak, kasua aditzarengandik barne prozesuaz jasotzen dutenak.

Azalpenean DS bat badugu, ordea, determinatzailearen izenaz osatzen den egiturari dagokiona (*euria egin*), izen inkorporaziorik gabe eta ohiko egiturazko kasu ezarketan oinarrituz emango dugu egitura horren berri.

#### 4.4. ADITZ-LOKUZIOAK UNITATE SEMANTIKO MODUAN

Orain arte, aditz-lokuzioen azalpen teoriko sintaktikoaz aritu gara eta adjunkzioa baliatu dugu atzemandako lokuzioen jokaera sintaktiko desberdinen berri emateko. Azpialde honetan, alderdi teoriko semantikoan oinarritutako argibide batzuk proposatuko ditugu, aditz-lokuzioek adierazten duten kontzeptu orokorra azaltzeko.

Aipagarria da semantikari dagokionez ere, antzekotasunak eta desberdintasunak atzeman ditugula aditz-lokuzioen artean:

Antzekotasun semantikoei dagokienez, aditz-lokuzioen *egin* aditza arina dela ikusi dugu baita egitura horietan parte hartzen duten izen guztiak erreferentzia jakinik gabekoak direla ere. Ondorioz, aipatu dugu izenak eta aditzak ekintza orokor bati egiten diotela erreferentzia, gauza jakin bat egitea adierazten duten egitura iragankor arrunten aldean.

Bestalde, desberdintasun semantikoak atzeman ditugu aditz-lokuzioen aspektuari dagokionez. Horrez gain, desberdintasunak atzeman ditugu inkorporazio sintaktikoaz eta inkorporaziorik gabe azaldu ditugun egituren artean. 1 motako aditz-lokuzio gehienek edo sintaktikoki zurrunez, adiera idiomatikoa dutela ikusi dugu. Sintaxian inkorporatzen ez diren aditz-lokuzio gehienek, ordea, esanahi konposizionala dute.

Beraz, adjunkzio sintaktikoak osagaien arteko lotura estua azaltzeko balio duen arren, ez da nahikoa aditz-lokuzioen esanahia azaltzeko. Hau da, inkorporazio sintaktikoak ez du azaltzen izenaren eta aditzaren arteko elkarreragin semantikoaren ondorioz, aditz lokuzio guztien ezaugarria den adiera unitarioa. Eta inkorporazio sintaktikoak osagaien hurrenkera estua azaltzen duen

moduan, "inkorporazio semantikoaz" hitz egin dezakegu, izenaren eta aditzaren arteko lotura estuaren ondorioz lokuzio guztietatik eratortzen den unitate kontzeptuala azaltzeko.

Aditz-lokuzioen egitura kontzeptualari dagokionez eta "inkorporazio semantikoaz" argibide gehiago emateko, Jackendoffek (1990) proposatzen duen deskonposizioan oinarritutako eskemaz bala gaitzke lokuzioek adierazten duten kontzeptua azaltzeko.

Adierazpen konplexuen esanahia konposizionalki eraikitzen dela aintzat hartuz, deskonposizio metodoa baliatzen du Jackendoffek egitura kontzeptuala aztertzeko, esanahiak zati txikiagoetan edo *primitiboetan* zatituz. Jackendoffen (1990) azalpenean oinarrituz, funtzio kontzeptual baten bidez azal daiteke agente eta gertaera baten arteko erlazioa. Egin aditz arinak horixe adierazten duenez, egile eta gertaera baten arteko erlazioa, hain zuzen ere, azalpen hori egokia izan dakiguke euskarazko aditz-lokuzioen berri emateko. Jackendoffek esanahi zatiez osatzen den eskema hau proposatzen du, aditz-lokuzioei aplika diezaiekeguna:

$$(4.20) \quad [GERTAERA \text{ CS}+ ( [GAUZA X], [GERTAERA Y] ) ]$$

CS edo funtzio kontzeptual horren lehen argumentua subjektua izango litzateke (X), eta izena bigarrena (Y). Baina izenak gertaera orde, gauza bat adierazten duenean, gertaera moduan berranalizatuko litzateke egitura gramatikala izateko. Eta hala, gauza bat adierazten duen *hitz* izenak *hitz egin* gertaera adieraziko luke berranalisiaren ondorioz. Berranalizatzeko prozesua horrela adieraz genezake, non *egin* arin baten eta izen baten edukiak konbinatuz CS eduki kontzeptuala eratortzen den:

$$(4.21) \quad [GERTAERA \text{ EGIN CS}+ ( [GAUZA MIREN X], [GAUZA HITZ Y] ) ]$$

Letra etzanaz agertzen diren hitzek, *egin*, *Miren* eta *hitz*, eduki kontzeptualak adierazten dituzte eta horietako bakoitzari kontzeptu-kategoria orokorrago bat dagokio, *gauza* edo *gertaera*, adibide jakin horretan. Maila kontzeptualean

gertatzen den berranalizatzeko prozesuaren ondorioz, bada, espero dugun *hitz egin* unitate kontzeptuala lortuko genuke, honela azal genezakeena:

(4.22) [EGIN( [GAUZA MIREN], [GERTAERA HITZ EGIN] ) ]

Rodríguez eta García Murga (2001) hizkuntzalariek ere aipatzen dute I+ *egin* aditz arinaz osatutako predikatuaren esanahiak agentearen eta gertaeraren arteko erlazioa ezartzen duela. Izan ere, (4.22) gisako eskema, euskaraz, maila kontzeptuarekin gertatzen den prozesu konplexu<sup>14</sup> baten ondorioz azaltzen dute. Baina autoreek aipatzen dutenez azalpen horrek ez du balio esanahi idiomatikoa duten aditz-lokuzioen berri emateko, hala nola *kale egin* edo beste idiomatikoak azaltzeko.

Semantikan kasu guztietan unitate kontzeptuala izanagatik, osagaien arteko lotura maila desberdinak atzeman ditugu aditz-lokuzioen jokaera sintaktikoetan. Beraz, lokuzio guztiek adierazten duten unitate kontzeptuala eta horien jokaera sintaktikoa ez datozela bat esan dezakegu.

Hala eta guztiz ere, Dahlek aipatzen duenez (2004) badago lotura egitura baten osagaien askatasun mailaren eta esanahiaren artean. Izan ere, mailakatzeko horretan inkorporatuen dauden egiturek, osagaien balio semantikoaren galera erakusten dute<sup>15</sup>. Dahlek *rethorical devaluation* terminoa darabil gramatikalizazioa edo esanahiari dagokion galera adierazteko eta Dahlen baieztapenak bat datoz aditz-lokuzioetan atzeman ditugun ezaugarriekin; aditza arina izatea, izenaren determinatzaile eza, erreferentzia zehaztugabea eta osagaien jokaera sintaktiko ez askea, *rethorical devaluation* kontzeptuarekin bat datozen ezaugarriak dira. Eta datuek erakusten dutenez, osagaien arteko lotura

---

<sup>14</sup> *Berranalisia* deritzon prozesu konplexua, bada, berregituratzeko kontzeptuarekin datza, lehen fasean *hitz egin* gertaera izan ordez *hitz* izena, soilik, dugunean ([EGIN ([GAUZA MIREN], [GAUZA HITZ]), lehen analisian). Eratortzen den azalpen semantikoa (bigarren analisian), maila kontzeptuarekin gertatzen da soilik, ez sintaxian.

<sup>15</sup> egituran aske mugitzeko aukera ezaz gain.

estua duten adibideak dira esanahi idiomatikoa edo osagaietatik erator ezin daitekeen adiera dutenak.

Ildo beretik, Mithunek (1984) egitura lexikalizatuen eta ez lexikalizatuen arteko desberdintasun semantikoa aipatzen du. Egitura lexikalizatuen esanahia ez dela nahi eta nahi ez bere osagaien esanahien arteko batura izan behar dio. Eta ideia hau bat dator lexikalizaziotik gertuen dauden 1 motako lokuzio askoren adiera idiomatikoa izatearekin, (Mithun 1984: 889-890):

*«Semantically, lexical items represent conceptual units, unlike unlexicalized syntactic constructions. Speakers do not require them to have meanings exactly equal to the sum of their constituents. [...] Furthermore, once any construction has been lexicalized, it is free to develop semantically as a unit, independently of its components».*

Val Alvarok (1999) determinatzailearen presentziarekin eta horrek dituen ondorio semantikoekin erlazionatzen du lexikalizazio maila. Hizkuntzalariek aipatzen duenez, [A+DS] sekuentziak gutxiago lexikalizatuak daude [A+IS] sekuentziak baino, aditzak determinatzailearen egituretan pisu semantiko gehiago duelako, hain zuzen ere.

Suñer eta Contreras hizkuntzalariek (2004) bi osagai elkarrekin agertzen diren egituren maiztasuna aipatzen dute lexikalizazio prozesuak eragiten duten faktoreen artean<sup>16</sup>. Ildo beretik, hainbat konbinazio lexikoren ugaritasunak munduaren ezaugarriei buruzko informazioa ematen digula dio Bosquek (2001). Beraz, egun egitura iragankor arruntaz adierazten ditugun zenbait ekintza agian lokuzio egituraz adierazi ahal izango dira etorkizunean. Eta morfosintaxia bizia denez, hizkuntzaren prozesu emankorrekin esker forma berriak etengabe sortzen

---

<sup>16</sup> «La frecuencia de co-aparición suele iniciarse por solidaridad léxica, es decir, la combinación de dos o más elementos juntos con mucha frecuencia. A partir de ahí, se inicia un proceso de fijación en el que se consolidará un determinado uso lingüístico innovador», (Suñer & Contreras 2004: 86).

diren moduan, hala nola, euskaraz, *autostop egin*, *klik egin*, *txat egin*, *surf egin*, *windsurf egin*, *yoga egin*, *tai chi egin*, *puenting egin*, *rafting egin*, *trekking egin*, eta abar, etorkizunean ere, teknologia berriek eta gizarte berriek eragindako egiturak sortu ahal izango dira edo "ekintza instituzionalizatu" berriak, Mithunen (1984) terminologia erabiliz. Are gehiago, hiztegia bizi dugun munduaren isla dela aintzat hartuz eta hizkuntzaren garapen naturala kontuan izanik, inkorporazioaz azaldu ez ditugun zenbait lokuzio, etorkizunean inkorporazioaz azaldu ahal izango direla pentsa dezakegu, gizarte berriaren beharrei erantzunez maiz erabiltzen diren osagaien konbinazioak direlako. Beraz, hiztunen erabilerek erabakiko dute egitura linguistikoen bilakaera.



## 5. ONDORIOAK ETA HEMENDIK AURRERAKOAK

Atal honetan ondorioak laburbilduko ditugu eta etorkizun hurbilean eman daitezkeen zenbait aurrera pauso proposatuko ditugu.

### **ONDORIOAK**

Euskarazko [Izen + *egin*]<sub>A</sub> aditz-lokuzioak xehetasunez aztertzekeo saiakera egin dugu lan honetan, egitura horiek alde batera utzita zeudela zioten Mitxelenaren (1977) hitzei erantzun nahian.

Deskribapena eta hausnarketa teorikoa uztartu ditugu eta aditz-lokuzioak semantikoki eta morfosintaktikoki desberdintzeko saiakera egin dugu. Horretarako, test semantikoak eta sintaktikoak aplikatu dizkiogu *corpus*etan aurkitutako aditz-lokuzio multzo zabal bati. Alde batetik, aspektuan oinarritutako irizpide semantikoa baliatu dugu eta Vendlerren (1967) eta Dowtyren (1979) testak aditz-lokuzioei aplikatuz, jardueretan (% 81) eta erdiespenetan (% 19) sailkatu ditugu topatutako egiturak. Bestetik, irizpide sintaktikoaz baliatu gara, eta osagaien arteko lotura maila desberdinak daudela erakusten duten hainbat testetan oinarrituz, ((Azkarate (1990), Euskaltzaindia (1991b.), Oyharçabal (2006), Martínez (1994 1996 1997 2003), Zabala (2004), Petrirena (2011), eta abar)), aditz-lokuzioen sailkapen hirukoitza egitea izan da lan honen ekarpenik nagusienetakoa. Uribe-Etxeberriak (1989) eta Oyharçabalek (2006) proposatutako azalpenarekin jarraituz, Bakerren adjunkzioan oinarrituz eman dugu osagaien arteko lotura estua erakusten duten lokuzioen berri eta lokuzioen artean atzemandako desberdintasun sintaktikoak azaltzeko. Martínezek (1996) aipatzen dituen izen-inkorporazio mailak bereiz daitezkeela egiaztatu dugu. Beraz, aditz-

lokuzioek ez dutela talde homogenea osatzen esan dezakegu, hizkuntzaren arlo desberdinetan oinarritzen diren analisiak aintzat hartuz.

De Rijken (2008) sailkapena eta Sarasolaren (1996) hiztegian agertzen diren [I+egin]<sub>A</sub> lokuzioak abiapuntutzat hartuz, aztertu ditugun [Izen + egin]<sub>A</sub> lokuzioak bereziak direla ondorioztatu dugu, horien osagaiak banan-banan aztertuz. Eta berezitasun horiek guztiak baliagarriak izan zaizkigu aditz-lokuzioak aditz elkartuetatik eta egitura iragankor arruntetatik bereizteko.

Lehen osagaiari edo izenari dagokionez, lokuzioetan parte hartzen duten izenek talde itxi bat osatzen dutela ikusi dugu baina taldea itxia izateak ez du esan nahi egitura emankorra ez denik, etengabe sortzen baitira gizarteari erantzuten dioten aditz-lokuzio berriak. Izen horien ezaugarri morfosintaktiko nahiz semantiko komunak atzematea zaila dela ikusi dugu eta desberdintasun ugari topatu ditugu horien artean. Determinatzailerik eza, aditz-lokuzio gehienek ezaugarri bereizgarria dela ikusi dugu, baina ez guztiena, eta determinazioan oinarrituz bereizi ditugu determinatzailerik gabeko izenez osatzen diren aditz-lokuzioak, determinatzailez osatzen direnak eta bietara erabil daitezkeenak. Aitzitik, erreferentzialtasun eza aditz-lokuzio guztietan parte hartzen duten izenen ezaugarria dela egiaztatu dugu, Zabalari jarraituz (2004). Izen horien artean, bestalde, konkretuak eta abstraktuak ditugula ohartu gara, adierari dagokionez, askotarikoak.

Arin gisa deskribatu dugu aditz-lokuzioen *egin* aditza eta hizkuntzetan zehar aurkitzen ditugun *light verb construction* egiturek ezaugarri komunak dituztela egiaztatu dugu. Ezaugarri komun horiek ezin direla kointzidentziak izan esan dezakegu, gramatikala unibertsalaren ondorio direla baizik.

Aditz-lokuzioen semantikari dagokionez, esanahi konposizionala duten aditz-lokuzioak askoz ugariagoak diren arren, esanahi idiomatikoa eta bi irakurketak izan ditzaketen aditz-lokuzioak badirela erakutsi dugu.

Iragankortasuna definitzeko ikuspuntu desberdinak kontsideratu ditugu (1.2.1.3.) eta aditz-lokuzioaren ISk osagarri zuzen funtzioa betetzen duela erakutsi dugu, hainbat argudiotan oinarrituz.

Aditz-lokuzioak sintaxi-egiturak direla egiaztatu dugu eta ezaugarri hauetan oinarrituz -o.z. funtzioa betetzen duen IS, \**edun* laguntzailea, aditzarekin komunztadura, hitz-ordena askea, eta abar,- aditz-lokuzioak aditz elkartuetatik desberdinu ditugu. Sintaxi-egitura iragankor horiek erakusten dituzten muga morfologikoak, semantikoak eta sintaktikoak, bestalde, aditz-lokuzioak egitura iragankor arruntetatik bereizteko irizpidea izan da.

Lan honen helburu nagusia izan da, bada, aditz-lokuzioen jokaera sintaktikoa xehetasunez aztertzea, eta horretarako, *corpus*etan topatutako egiturei test sorta bat aplikatu diegu.

Euskal hizkuntzalari batzuek aurretik erabilitako testak ez ezik, galdegaiaren testak, partitiboa eta agintera, test berriak baliatu ditugu aditz-lokuzioen jokaera aztertzeko, hala nola elipsia koordinazio egituretan, mendeko perpaus osagarria eta lokailuak. Test sorta horiek lokuzioei aplikatuz lortu ditugun emaitzak baliagarriak izan dira lokuzioen artean desberdintasun sintaktikoak daudela egiaztatzeko. Lokuzioen arteko desberdintasunak ez ezik, lokuzio bat berak jokaera desberdinak erakuts ditzakeela atzeman dugu, eta hala, lokuzio bakoitzaren adieraren eta argumentu egituraren arabera azalpen jakinak eman ditugu.

[I+*egin*]<sub>A</sub> motako lokuzioek osagaien arteko lotura maila desberdinak erakusten dituztela agerian utzi eta sailkapen hirukoitz hau proposatu dugu:

.-1 mota: [I+A] osagaien arteko lotura estua erakusten dute.

.-2 mota: [I+A] hurrenkeraren haustura erakusten dute.

.-3 mota: jokaera bikoitza erakusten dute; osagaien arteko unitate banaezina nahiz haustura.

Jokaera desberdin horiek aintzat hartuz, *continuum* batean kokatu ditugu aztertutako aditz-lokuzioak, *continuuma* garapen diakronikoaren lerroa gisa ulertuz. Ertz batean kokatu ditugu [I+A] osagaien arteko lotura banaezina erakusten duten aditzak (1 motakoak eta ihartuenak). Beste ertzean kokatu ditugu [I+A] hurrenkeraren haustura erakusten dutenak (2 motakoak) eta jokaera bikoitza erakusten duten aditz-lokuzioak tartean kokatu ditugu (3 motakoak).

Aipagarria da, kopuruari dagokionez, gutxienak direla osagaien arteko lotura estua erakusten duten aditz-lokuzioak. Adibide gehienetan ikusi dugunez (2 motakoak eta 3 motako batzuk), galdegaia *egin* aditzaren aurrean koka daiteke, koordinazioan izena soilik ager daiteke (*egin* aditza eliptikoa denean), lokuzioaren izena mintzagai izan daiteke, hanpatu zein hanpatu gabe, partitiboa har dezake, lokailuren bat ondoren eraman dezake, eta abar. Jokaera horiek guztiek erakusten dute izen horiek sintaktikoki askeak direla.

Hala eta guztiz ere, *corpusetan* topatutako hainbat adibidek, izenaren eta aditzaren arteko lotura estua erakutsi du, hau da, osagaien jokaera sintaktiko zurruna, eta egitura ihartuaren jokaera antzeman dugu 1 motako aditz-lokuzioetan.

Hizkuntzaren garapena aintzat hartuz, *continuum* horretan aldaketak gerta daitezkeela pentsa genezake. Eta hala, jokaera bikoitza erakusten

duten egiturei buruz (3 motakoak), 1 motako bihurtzeko bidean doazela pentsa genezake. Izan ere, hala erakusten dute Oyhartzabalek aipatzen dituen Iparraldeko eta Hegoaldeko hiztunen jokabide desberdinek ere.

Ildo beretik, adiera bereko bi lokuzioak jokaera desberdina erakutsi dezaketela atzeman dugu, hainbat kasutan. Eta hala, *berba egin* eta *hitz egin* lokuzioen arteko desberdintasuna, bat dator euskalkien arabera hiztunek erakusten duten erabilera jakinekin. Bizkaieraz, *berba egin* banatuta erabil badaiteke ere, gipuzkeraz, hiztunek zailtasun asko dituzte *hitz egin* lokuzioaren osagaiak banatzeko. Horregatik, *continuum*aren azpitalde desberdinetan kokatu ditugu sinonimo horiek.

Lokuzioen ezaugarriak eta marko teorikoa uztartuz, egitura horien berri emateko baliagarriak izan daitezkeen hurbilketa teorikoen alderdiak garatu ditugu; Sadocken (1985) eta Lieberren (1992) ikuspuntu morfosintaktikoa baliatuz, aditz-lokuzioak deskribatzeko morfologia nahiz sintaxia uztartu behar ditugula ondorioztatu dugu. Bakerren (1988a 1996 2005) adjunkzio sintaktikoan oinarrituz, aditz-lokuzio batzuk inkorporazioz azal daitezkeela ikusi dugu, Uribe-Etxeberriak (1989) eta Oyharcabalek (2006) egiten duten moduan.

Adjunkzioaz azaldu dugu 1 motako aditz-lokuzioen unitate banaezina eta 3 motako aditz-lokuzioen erabilera zurruna. Eta izen-inkorporazioa, izenaren determinatzailezik ezarekin, erreferentzia zehaztugabearekin eta *egin* aditzaren tasun arinarekin estuki lotuta dagoen prozesua dela ondorioztatu dugu. 2 motako aditz-lokuzioak eta [I+*egin*] hurrenkeraren haustura erakusten duten 3 motakoak, izen-inkorporaziorik gabe azaldu ditugu, IS / DS adierazpenaren arabera bi azalpen proposatuz. Inkorporazio sintaktikorik gabe azaldu ditugun lokuzioak egitura iragankor arruntetatik bereizteko, baliagarriak izan zaizkigu deskribatutako osagaien ezaugarriak.

Euskararen izate polisintetikoa eta morfologia aberatsa Bakerren (1985) Ispilu Hatsarrearekin bat datozen adierazpen sintaktikoen isla direla agerian utzi dugu. Morfologia eta sintaxia uztartzen dituen teoria horren garrantzia ukaezina dela esan dezakegu, hizkuntzaren funtzionamenduaren berri emateko eta hizkuntzen ezaugarri partikularrak azaltzeko balio duelako. Ondorioekin amaitzeko, bat gatoz Bakerrek (2005) inkorporazioaz aipatzen dituen ideia hauekin:

a.- Nabarmenak dira izen inkorporazioa eragiten duten baldintzapen morfologikoak, semantikoak eta sintaktikoak.

b.- Egitura iragankorretan osagarri zuzen funtzioa betetzen duen argumentu sintaktikoa inkorporatzea hizkuntza naturalen ezaugarri orokorra da, ez berriz, subjektu funtzioa betetzen duen argumentua inkorporatzea.

c.- Izenaren mugimendua izen inkorporazioaren izate sintaktikoa baieztatzeko argudioa izan daiteke, Gramatika Sortzailearen Buru Mugimenduaren Murriztapen Hatsarreak eta Kategoria Hutsaren Hatsarre sintaktikoak baldintzatua. Adjunkzioaz osatutako aditz-lokuzioetan o.z. funtzioa betetzen duen beste IS gehitzean egitura ez gramatikala lortzen dugula ikusi dugu eta hori inkorporazio sintaktikoaren ondorioz uzten den aztarnan oinarrituz azal daiteke. Gramatika Sortzailearen hatsarreak Chomsky (1981 1982 1993), beraz, baliagarriak zaizkigu aditz-lokuzio batzuetan gertatzen den prozesu sintaktikoa azaltzeko.

Baina, aldi berean, ikusi dugu badirela bestela azaldu behar diren aditz-lokuzioak ere. Izan ere, datuak eman ditugu, ekintza mentalak eta komunikazio ekintzak adierazten dituzten lokuzioek mendeko perpaus konpletiboa onartzen dutela erakusten dutenak. Aipagarria da aditz-lokuzioaren ISk o.z. funtzioa betetzeak ez duela eragozten, beste IS bat

ordezten duen eta absolutiboz markatzen ez den perpaus konpletibo hori egotea.

Eta, komunikazio eta ekintza mental saileko aditz horiek barne argumentua badutela ere esan daiteke, nahiz sintaxian *-(r)ekin*, edo *-z*, *-i buruz edota -(r)en gainean* gisako postposizio bidez gauzatzen diren (*zerbaitekin amets egin, zerbaitez/zerbaiti buruz hitz egin*); horiexek dira, hain zuzen ere, lokuzio egiturarik gabeko beste zenbait aditz mentalen barne argumentua gauzatzen duten postposizioak ere, hala nola *ahaztu, oroitu, gogoratu*, etab.

Horietan izenak eta aditzak osotasun bat bezala funtzionatzen duten arren, ezin ditugu adjunkzioaz azaldu osagaien arteko banaketa eta partitiboa onartzen dutela erakutsi duten egiturak. Baina, mendeko perpaus konpletiboaz nahiz *-(r)ekin* edo *-z*, *-i buruz* eta beste postposizio bidez gauzatzen diren barne argumentuez osatzen diren aditz-lokuzioek unitate kontzeptual bat adierazten dutela baieztatu dezakegu (*norbaitekin amets egin, zerbaitekin amets egin, zerbaitez amets egin, zerbaiten gainean berba egin / duda egin*, eta abar). Eta hala, inkorporazio semantikoan oinarrituz azal ditzakegu egitura horiek guztiak. Izan ere, aditz arinak eta izenak bat egiten dute semantikoki eta, predikatu egitura moduan, mendeko perpaus konpletiboaren gobernatzaile bihurtzen direla ikusi dugu 3. kapituluan (*-ela amets egin / duda egin / erregu egin*).

Azkenik, *trena huts egin du*, Euskaltzaindia (1997: 43-46), *zerbait hots egin (ozenki esan adieraz)* eta mota horretako egiturak, inkorporazioa baino areago, garatuago dagoen prozesuan oinarrituz azaldu behar ditugu, inkorporazioaren ondorioz uzten den aztarnak, aztarna izateari utzi diolako. Beraz, berranalisi baten ondorioa den aditz iragankorra dugula esan dezakegu, beste IS bati ohiko egiturazko kasu absolutiboa ezartzen diona.

Prozesu konplexuagoa genuke azken hori eta aztertu ditugun egituren artean, ihartuenak lirateke.

Testen emaitzetan oinarrituz erakutsi dugu, bada, aditz-lokuzio motak daudela eta Martínezek (2003) eta Oyharçabalek (2006) proposatzen duten alternantzia erakutsi dugu. Lan honetan oinarrituz, lotura desberdin horien berri eman ditzaketen izen-inkorporazio mailak egiaztatu ahal izan ditugu (erabileraren poderioz egitura batzuk ihartzera jo dute eta zurruntasun sintaktikoa erakusten duten horiek dira inkorporazioaz azaldu ditugunak). Aditz-lokuzio gutxi batzuk inkorporazio sintaktikoz azaldu behar dira, gehienak inkorporaziorik gabe azal daitezke eta badira jokaeraren arabera, inkorporazioaz edo inkorporaziorik gabe azaldu ditugun aditz-lokuzioak ere. Azkenik, berranalisian oinarrituz azal ditzakegun egiturak topatu ditugu, oso urriak direnak.

Semantikan oinarrituz, aipatu dugu Rodríguez & García Murgak (2003) esaera idiomatikoa duten egituratzat hartzen dituztela [*I+egin*] predikatuak, baina lan honetan ikusi dugu adierari dagokionez ere desberdintasun esanguratsuak atzeman daitezkeela. Inkorporazio sintaktikoz azaldu ditugun 1 motako aditz-lokuzioak dira, oro har, esanahi idiomatikoa dutenak. Aitzitik, inkorporaziorik gabe azaldu ditugun gehienak esanahi konposizionala dute eta bi adierak izan ditzaketen aditz-lokuzioak ere topatu ditugu. Beraz, semantikari dagokionez, aditz-lokuzioak askotarikoak direla esan dezakegu.

Semantika eta sintaxia uztartuz, agerian utzi dugu, batetik, aspektua ez dela egitura sintaktikoa baldintzatzen duen ezaugarria (jarduerak eta erdiespenak, biak aurkitu ditugu azpisail bakoitzean). Bestetik, aditz-lokuzioen jokaera sintaktikoaren eta irakurketa semantikoaren arteko bat etortzea atzeman dugu; irakurketa idiomatikoa duten lokuzio gehienak 1

motakoak dira eta 2 motako guztiek eta 3 motako gehienek irakurketa konposizionala dute.

Baina baldintzapen morfologikoak dituen inkorporazio sintaktikoak ez du azaltzen aditz-lokuzio guztien ezaugarria den adiera kontzeptual unitarioa, aditz-lokuzioak egitura iragankor arruntetatik bereizteko balio duena. Inkorporazio semantikoa behar dugu, aditz-lokuzioen adiera unitario hori azaltzeko. Beraz, morfologia, sintaxia eta semantika uztartzen dituen hurbilketa ezinbestekoa da egitura konplexu horien berri emateko.

### **HEMENDIK AURRERAKOAK**

Lan honetan murgiltzen joan naizen heinean, ohartu naiz aditz-lokuzio terminoak egitura mota desberdinak izendatzeko balio duela, bai aztertutako aditz-lokuzioak izendatzeko, baita beste egitura mota batzuk izendatzeko ere. Lanean aurrera egin ahala, aditz-lokuzio izatearen mugan egon daitezkeen egiturak topatu ditut, eztabaidagarriak direnak. Hala ere, ikerketaren mugak murriztu nahian, izen kategoriaz eta *egin* aditzaz osatutako aditz-lokuzioak aztertzea erabaki dut, horiek direlako, euskaraz, ugarienak eta emankorrenak. Pentsa dezakegu aditz-lokuzio mota jakin horiek aztertuz atera ditugun ondorioak baliagarriak izan daitezkeela beste aditz-lokuzio batzuen berri emateko. Eta hori egiaztatzeke eginkizuna izan liteke beste horiek aztertzea, hala nola *eman*, *hartu* edota *eduki* aditez osatutakoak. Horrez gain, geroko lana izan zitekeen inkorporazioan parte hartzen duten izenen hautaketa lexikalari buruzko azterketa xehea. Aztergai izan litezke, bestalde, izen soilaz ez ezik, beste elementu batzuez osatzen diren egiturak ere.

Morfologia eta sintaxia uztartuz aditz-lokuzioak hobeto azal ditzakegun arren, morfosintaxiaren eta semantikaren arteko bat ez etortze

esanguratsuak atzeman ditugu aditz-lokuzioen jokaeretan: aditz-lokuzioak morfologikoki iragankorrak direla egiaztatu dugun arren, zaila da *alde egin* eta mota horretako aditz-egitura ihartuak iragankortzat hartzea, *zer egin du?* galdera formulatzean ezin baitugu *alde* edo *hitz* erantzun (*alde egin du* edota *hitz egin du* motako lokuzioez ari garenean). Semantikaren eta morfosintaxiaren arteko kontraesan horiek hausnarketa sakonagoa eskatzen dute gramatika tradizionalen desberdindu diren iragankor eta iragangaitz kontzeptuei buruz.

Morfologiaren eta semantikaren arteko beste bat ez etortzea, zenbait lokuzioak erakusten duen determinazioari dagokion alternantzia ikusten dugu. Determinatzailea agertzeak ala ez, ez du inolako ondorio semantikorik, (+/-)-a, aukerak onartzen dituzten aditz-lokuzioetan; *bero(a) egin*, *hotz(a) egin*, *eztul(a) egin* eta *arnas(a) egin*, etab..

Morfosintaxia eta semantika bat ez datozela erakusten dute, aditz-lokuzio sinonimoek ere. Hala nola *hitz egin* versus *berba egin*, *ele egin* eta *solas egin*, *alde egin* versus *ihes egin*, *leher egin* versus *eztanda egin*, eta abar. Adiera bat bera izan arren, batzuk inkorporazio sintaktikoaz azaldu ditugu, (*hitz egin*, *leher egin* eta *alde egin*), besteak, inkorporazio sintaktikorik gabe (*ele egin*, *berba egin*, *solas egin*, *ihes egin* eta *eztanda egin*). Berezitasun horiek guztiek, ezaugarri morfosintaktikoen eta semantikoen arteko banaketa erakusten dute; beraz, eremu horiei buruzko azterketa xeheagoa, geroko lana izan zitekeen.

Esanik gabe doa, *corpus* jakin batzuk baliatu ditudala datu iturri moduan, eta horiez gain, beste batzuk ere gehitu zitezkeela aurkeztu dudana adibideen bilduma osatzeko. Lan honetan ez ditut jaso *corpus*etan ageri diren aditz-lokuzioez osatutako adibide guztiak, hori ezinezkoa baita, baina saiatu naiz esanguratsua izan daitekeen *corpus* bat osatzen. Iruditzen zait

jaso dudana nahiko irudi zintzoa izan daitekeela gaur egungo *I+egin* aditz-lokuzioak nola jokatzen duten azaltzeko. Hala ere, egon daitezke aditz-lokuzio batzuk, *corpusetan* egon arren atzeman ez ditudanak, edo gramatikalak diren egiturak, *corpusetan* agertzen ez direnak. Horiek gehitzea etorkizun hurbileko eginkizuna litzateke.

Azkenik, interesgarria litzateke, aurkeztu diren datuak ikuspuntu estatistiko batetik lantzea, eta hala, kopuruak mugatzeaz gain, salbuespenak portzentajetan oinarrituz zehaztu ahal izango genituzke. Beraz, geroko eginkizuna izan zitekeen, datu horien azterketa kualitatiboaz gain, analisi kuantitatiboa egitea.

Lan honetan proposatu dugun aditz-lokuzioen sailkapena euskararen irakaskuntza-ikasketa prozesuan lagungarri izan zitekeen. Aditz mota bakoitzaren berezitasunak lagungarri izan zitezkeen euskara ikasten ari direnentzat, jokaera sintaktikoak barneratzeko orduan. Modu berean, irakasleek ere balia zezaketen irakaskuntza-prozesuan.

Deskribatu ditugun hizkuntzen arteko ezaugarri komun horiek gramatika unibertsalarekin lotuta ulertu behar ditugula. Hizkuntzetan zehar atzeman ditugun aditz-lokuzioen bereizgarri asko bat datoz unibertsal linguistikoen teoriarekin; determinatzailearik gabeko izena eta haren erreferentzia zehatzik eza, aditza semantikoki arina izatea, morfemen hurrenkera, osagaien arteko lotura estua eta esanahi idiomatikoa, horrela den kasuetan, eta abar. Interesgarria iruditzen zait, Sapirrek (1921) hizkuntza polisintetikoei buruz egiten duen hausnarketa, hizkuntza polisintetikoek «*structural "genious"*» komun bat dutela pentsa arazten diguna eta hatsarre unibertsalekin lotu daitekeen kontzeptua. Gauzak horrela, ezaugarri bereizgarri nahiz komun horiek guztiak, hizkuntza bakoitzaren gramatikak ez ezik, gramatika unibertsalak deskribatu beharreko bat etortzeak genituzke.

## LABURDURAK

A.: aditza  
 Abs.: Absolutu  
 ACC.: Akusatibo  
 AS.: aditz sintagma  
 Asp.: aspektua  
 Adib.: adibidez  
 Adlag.: adizlaguna  
 Arg.: argitalpena  
 Bizk.: bizkaiera  
 D.: determinantea  
 DS.: determinatzaile sintagma  
 Dat.: datiboa  
 Dnb: denbora  
 e.a.: eta abar  
 Espez.:espezifikatzaile  
 Erg.: ergatiboa  
 Erref.: erreferentzia  
 F.: fokoa  
 Gald.: galdegaia  
 g. er.: gutxi erabilia  
 Gip.: gipuzkera  
 GU.: Gramatika Unibertsala  
 HH.: Hatsarreak eta Parametroak  
 I.: izena  
 IH. Islapen Hatsarrea  
 Ines.: inesiboa  
 Inf: inflexioa  
 Inst.: instrumentala  
 Interj.: interjekzioa

IS.: izen sintagma  
Izlag.: izenlaguna  
Izond.: izenondoa  
Izord.: izenordaina  
Kmz.: komunztadura  
KmzO.: objektu komunztadura  
Leku-denb.: leku-denborazko  
LF.: Forma Logikoa  
Mugag.: mugagabea  
Mugat.: mugatua  
Nom.: nominatiboa  
OZ.: osagarri zuzena  
Or.: orria, orrialdea  
Past.: lehen aldia  
Perts.: pertsona  
Prep.: preposizioa  
PS.: preposizio sintagma  
Po.: postposizioa  
PoS.: posposizio sintagma  
Part.: partitiboa  
Pl.: plurala  
Sg.: singularra  
S.: subjektua:  
Suf.: atzizkia

**BIBLIOGRAFIA:****1. LIBURUAK**

Abney, Steven P. 1983. *The English Noun Phrase in its Sentential Aspect*.  
Doctoral Dissertation. Cambridge, Mass.: MITWPL.

Adger, David. 2003. *Core Syntax: A Minimalist Approach*. Oxford University  
Press.

Albizu, Pablo. 1994. "Ergative displacement revised: a distributive morphology  
approach". Deustuko hizkuntzalaritza mintegia (eskuizkribua).

Aldai, Gorka. 2010. "Euskararen kasu-markaketaren aldakortasun dialektala".  
*Anuario de Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" ASJU*.  
Gehigarriak 52, 5-19. <http://www.ehu.es/ojs/index.php/asju>

Alberdi, Andrés. 2008. *Oinarrizko Gramatika*. Donostia: Elkar.

Allen, Barbara, Donna Gardiner & Donald Frantz. 1984. "Noun  
Incorporation in Southern Tiwa". *International Journal of American  
Linguistics*, 50, 292-311.

Altube, Severo. 1929. *Erderismos*, Bermeo. (Bigarren arg.,1975. Bilbao).

Aristóteles. 335-323 K.a. *Metafísica IX*.

Arteatx, Inigo. 2011. *Euskarazko egitura jokatugabeak: "t(z)en" morfemadun  
perpaus osagaien azterketa sintaktikoa*. Doktoradutza-tesia. Euskara,  
Hizkuntzalaritza. UPV / EHU.

Artiagoitia, Xabier.:

1995. *Verbal projections in Basque an minimal structure*. *Anuario  
de Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*. Gehigarriak 36.  
Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

1998. "Determinatzaile sintagmaren hipotesia euskal gramatikan".  
*Uztaro* 27, 33-61.

2002a. *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*. Arabako Foru Aldundia.

2002b. "The functional Structure of the Basque noun phrase".  
*Anuario de Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*.  
Gehigarriak 44, 74-90.

Aulestia, Gorka. 1989. *Basque-English dictionary*. University of Nevada Press.

Axelrod, Melissa. 1990. "Incorporation in Koyukon Athapaskan".  
*International Journal of American Linguistics* 56, 2, 179-195.

Azkarate, Miren.:

1990. *Hitz elkartuak*. Doktoradutza-tesia. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.

1991. *Irakaskuntza proiektua* (argitaratu gabea). UPV / EHU.

1993. "Basque Compound Nouns and Generative Morphology: Some data". In J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (eds), *Generative Studies in Basque Linguistics*. John Benjamins, 221-242.

1995. "Sobre los compuestos de tipo sustantivo + sust/adj deverbal en euskera". P. Goenaga (arg.), *De Gramatica Generativa, Anuario de Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*. Gehigarriak 38, 39-50.

2002. «Hitz-elkarketa, argumentu-egitura eta theta rolak». In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J.A. Lakarra (arg.), Erramu Boneta. Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk, *ASJUren Gehigarriak* 64. Bilbo: UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua. 91-104.

2008. "Hitz-elkarte sintetikoaren argumentuak eta gertaerak". *IKER* 21. Jean Haritschelharri omenaldia. Bilbo: Euskaltzaindia, 117-134.

Azkarate, Miren & Lluïsa Gràcia. 1995. "Agentivity and Modality in Deverbal Adjectives in Basque and in Catalan". *Rivista di grammatica Generativa* 20, 3-32.

Azkarate, Miren eta Patxi Altuna. 2001. *Euskal Morfologiaren Historia*. Elkar.

Azkarate, Miren eta Elixabete Perez. 2014. *Hitz Elkarketa /2: LEF batzordearen emaitza*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Azkue, Resurrección María de.:

1905-06. *Diccionario Vasco-español-francés*. Bilbo: *La Gran Enciclopedia Vasca*. (Berrargitalpena, 1969. Bilbo: *La Gran Enciclopedia Vasca*).

1920. "De la composición vasca". *Revista internacional de los estudios vascos, RIEV*, Vol. 11, 3, 161-173.

1923-25. *Morfología Vasca*. Bilbo: *La gran Enciclopedia Vasca*. (Bigarren argitalpena, 1969. Bilbo: *La gran Enciclopedia Vasca*).

Bache, Carl.:

1985. *Verbal Aspect. A General Theory and Its Applications to Present-Day English*. Odense: Odense University Press.

1995. "The Study of Aspect, Tense and Action: Towards a Theory of the Semantics of Grammatical Categories". *Language* 66, 143-160.

Baker, Mark.:

1985. "The Mirror Principle and Morphosyntactic Explanation". *Linguistic Inquiry* 16, 3, 373-413.

- 1988a. *Incorporation: a theory of grammatical function changing*. Chicago: University Press of Chicago.
- 1988b. "Morphology and Syntax: An interlocking independence". *Morphology and modularity*. Dordrecht: Martin Everaert, Foris.
1994. Lectures at the Linguistic Institute at Albuquerque, New Mexico.
1995. "Lexical and nonlexical noun incorporation". In Urs Egli, Peter Pause, Christoph Schwarze, Arnim von Stechow & Götz Wiennold (arg.), *Lexical knowledge in the organization of language*. Amsterdam: John Benjamins, 3-34.
1996. *The Polysynthesis Parameter*. New York: Oxford University Press.
2002. *The atoms of language*. Oxford: Oxford University Press.
2003. *Lexical categories: Verbs, Nouns and Adjectives*. Cambridge: Cambridge University Press.
- 2008a. *The syntax of Agreement and Concordance*. Cambridge: Cambridge University Press.
- 2008b. "The macroparameter in a microparametric world". In Theresa Biberauer (arg.), *The limits of syntactic variation*. Amsterdam: John Benjamins, 351-374.
2009. "Is Head Movement Still Needed for Noun Incorporation? The case of Mapudungun". *Lingua* 119, 148-65.
- Baker, Mark, Roberto Aranovich & Lucía Golluscio. 2005. "Two types of syntactic noun incorporation: noun incorporation in Mapudungun and its typological implications". *Language* 81, 138-176.

Barandiaran, Jose Miguel.:

1972. *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca.

1979. *Mitología Vasca*. Txertoa argitaletxea.

Barrie, Michael. 2006. *Dynamic Antisymmetry and the Syntax of Noun Incorporation*, Department of Linguistics, University of Toronto: Ph.D. Dissertation.

Bauer, Laurie. 1983. *English Word-Formation*. Cambridge: Cambridge University Press.

Beavers, John, Elias Ponvert & Stephen Wechsler. 2008. "Possession of a Controlled Substantive: Light *have* and Verbs of Possession". In T. Friedman and S. Ito (arg.), *Proceedings of Semantics and Linguistic theory SALT 18 abstracts*. Ithaca, New York: Cornell University, 108-125.

Beletti, Adriana. 1988. "The case of Unaccusatives". *Linguistic Inquiry* 19,1, 1-34.

Beletti, Adriana & Luigi Rizzi. 1988. "Psych-Verbs and 0-Theory". *Natural Language & Linguistic Theory* 6, 291-352.

Berro, Ane. 2010. *Unergative predicates in Basque Varieties: consequences for the ergative case assignment*. Doktoradutza-tesia. UPV/EHU.

Bittner, María. 1994. *Case, scope and binding*. Dordrecht: Kluwer.

Bittner, María & Ken Hale.:

1993. "Ergativity: towards a theory of a heterogeneous class". *Linguistic Inquiry* 27, 4, 531-604.

1996. "The Structural Determination of Case and Agreement".

*Linguistic Inquiry* 27, 1-68.

Bloomfield, Leonard. 1933. *Language*. New York: Holt, Rinehart & Winston.

Bobaljik, Jonathan.:

1992. "Nominally Absolute is not Absolutely Nominative". *Proceedings of WCCFL XI, UCLA*, 44-60.

1993. "On ergativity and ergative unergatives". Colin Phillips (arg.), *Papers on case and agreement II*. Cambridge, MA: MIT Working Papers in Linguistics, 19, 45-88.

Bok-Bennema, Reineke. 1991. *Case and Agreement in Inuit*. Doctoral Dissertation. Groningen Dissertations in Linguistics.

Borer, Hagit. 1994. "The Projection of Arguments". *University of Massachusetts Occasional Papers* 17, 19-47.

Bosque, Ignacio.:

1996. *El sustantivo sin determinación*. Visor Libros.

2001. "Sobre el concepto lexicalización y sus límites". *Linguística Española Actual LEA* 23, 1, 9-40.

Bowern, Claire. 2006. "Inter-theoretical approaches to complex verb constructions: Position paper". Department of linguistics. Rice University.

Bowers, John. 1993. "The syntax of predication". *Linguistic Inquiry* 24, 4, 591-656.

Brettschneider, Gunter. 1979. "Typological characteristics of Basque". Edited by Frans Plank, *Ergativity: towards a theory of Grammatical Relations*. London: Academic Press, 371-384.

- Brody, Michael. 1993. "Theta-Theory and arguments" . *Linguistic Inquiry* 24, 1, 1-23.
- Brugmann, Karl. 1905. *Abrégé de Grammaire Comparée des Langues Indo-européennes*. Paris.
- Burzio, Luigi. 1986. *Italian Syntax: A Government-Binding Approach*. Reidel, Dordrecht: Holland. Revised version of Burzio, L. 1981. *Intransitive Verbs and Italian Auxiliaries*. Doctoral Dissertation. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Butt, Miriam.:
1995. *The Structure of Complex Predicates in Urdu*. Stanford, California: CSLI Publications.
2003. "The Light Verb Jungle". *Harvard Working Papers in Linguistics*, 9, 1-49.
- Bybee, Joan.:
1985. *Morphology. A Study of the Relation between Meaning and Form*. Amsterdam: John Benjamins.
1986. *Aspect, Tense, and Mood*. Amsterdam: John Benjamins.
- Cheng, Lisa & Hamida Demirdache. 1993. "External Arguments in Basque". Edited by J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina, *Generative Studies in Basque Linguistics*. John Benjamins, 71-87.
- Carlson, Gregory. 2006. "The Meaningful Bounds of Incorporation". In S. Vogeleer and L. Tasmowski (arg.), *Non-Definiteness and Plurality. Linguistik Aktuell series*. Amsterdam: Benjamins. 35-50
- Choi, Seansgsook. 2003. "Serial Verb and the empty category". *Proceedings of the workshop on Multi-verb constructions*. Trondheim Summer

School 2003, 39-48.

Chomsky, Noam.:

1957. *Syntactic Structures*. The Hague: Mouton.

1965. *Aspects of the Theory of Syntax*. MIT Press.

1981. *Lectures on Government and Binding*. Dordrecht: Foris.

1982. *Some Concept and Consequences of the Theory of Government and Binding*. Cambridge, Mass.: MIT Press.

1985. *Knowledge of Language, its Nature, Origin, and Use*. New York, Praeger.

1986. *Barriers*. Cambridge, Mass.: MIT Press.

1991. "Some Notes on Economy of Derivation and Representation". R. Freidin (arg.), *Principles and Parameters in Comparative Grammar*. Cambridge, Mass.: MIT Press, 417-454.

1993. "A Minimalist Program for Linguistic Theory". Edited by K.Hale & J. Keyser, *The view from Building 20. Current studies in linguistic series 24*, Cambridge, Mass.: MIT Press.

1995. *The Minimalist Program*. Cambridge, Mass.: MIT Press.

Comrie, Bernard.:

1947. *Aspect*. Cambridge, New York: Cambridge University Press.

1979. "Degrees of ergativity: Some Chukchee evidence". Edited by Frans Plank, *Ergativity: towards a theory of grammatical relations*. New York: Academic Press, 219-237.

Corver, Norbert & Denis Delfitto. 1993. "Feature asymmetry and the nature of pronoun movement". *OTS Working Papers*. Utrecht: University of

Utrecht, 1-53.

Cowper, Elizabeth. 1992. *A concise introduction to syntactic theory*. The University of Chicago Press.

Crowley, Terry. 2002. *Serial verbs in Oceanic: a descriptive typology*. Oxford; New York : Oxford University Press.

Dahl, Osten:

2001. "Grammaticalization and the life cycles of constructions". *RASK Internationalt tidsskrift for sprog og kommunikation*, 14, 91-134.

2004. *The growth and maintenance of linguistic complexity*. Studies in Language Companion Series. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.

Davidson, Donald. 1967. "The Logic of Decision and Action". N.Rescher (arg.), *The Logical Form of Action Sentences*. Piitsburgh, Pa: University of Pittsburgh Press, 81-95.

Declerk, Renaat. 1986. "Two notes on the theory of definiteness". *Journal of Linguistics* 22, 25-39.

De Hoop, Helen. 1992. *Case Configuration and Noun Phrase Interpretation*. Groningen: Groningen Dissertations in Linguistics.

Deprez, Viviane. 1989. *On the typology of Syntactic Positions and the Nature of Chains*. Doctoral Dissertation. Cambridge, Mass.: MIT Press.

De Rijk, Rudolf.:

1969. "Is Basque a S.O.V. language?". *Fontes Linguae Vascorum* 3, 319-351.

1972. "Partitive Assignment in Basque". *Anuario de Seminario de*

*Filología Vasca* "Julio de Urquijo" 6, 1, 130-173.

2008. *Standard Basque*. London: The MIT Press.

Diesing, Molly.:

1988. "Bare Plurals and the Stage/Individual contrast". M.Krifka (arg.), *Genericity in Natural Language, proceedings of the 1988 Tubingen Conference*, 107-154.

1992. *Indefinites*. Linguistic Inquiry Monographs 20. The MIT Press.

Di Sciullo, Anne Marie & Edwin Williams. 1987. *On the definition of Word*. Cambridge, Mass.: MIT Press.

Di Sciullo, Anne Marie & Sara Thomas Rosen. 1990. "Light and semi-light verb constructions". In Katarzyna Dziwirek, Patrick Farrel & Errapel Mejías-Bikandi (arg.), *Gramatical relations: a cross-theoretical perspective*. Stanford: CSLI, 109–125.

Dixon, Robert M.W. 1994. *Ergativity*. Cambridge: Cambridge University Press.

Dryer, Matthew. 2005. "Relationship between the order of object and verb and the order of adposition and noun phrase". In Martin Haspelmath, Matthew Dryer, David Gil and Bernard Comrie (arg.), *The world atlas of language structures*. New York: Oxford University Press, 386-389.

Dubois, Jean & others 1992. *Diccionario de Lingüística*. Alianza.

Dowty, David.:

1979. *Word meaning and Montague Grammar*. Dordrecht: Reidel.

1991. "Thematic Proto-Roles and Argument Selection", *Language* 67, 3, 547-619.

Elordieta, Arantzazu. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Doctoral Dissertation. Utrech: University of Leiden.

Eguzkitza, Andolin. 1987. *Topics on the Syntax of Basque and Romance*. Doctoral Dissertation. Indiana: Indiana University Linguistics Club.

Elhuyar Hiztegia. 1996. *Euskara-Gaztelania / Castellano-Vasco*.

Emonds, Joseph. 1985. *A unified theory of syntactic categories*. Dordrecht: Foris.

Etxezarreta, Ramón. 1983. *Hiztegi erotikoa*. Hordago.

Etxepare, Ricardo. 2003. "Valency and argument structure in the Basque verb". J.I. Hualde & J.Ortiz DE Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin & New York: Mouton, 363-425.

Euskaltzaindia:

1985. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak EGLU-I*. Bilbo: Euskaltzaindia.

1991a. *EGLU-I* (berrargitarapena). Bilbo: Euskaltzaindia.

1986. *Hitz-Elkarketa /1*. Bilbo: Euskaltzaindia.

1987a. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-I (Eraskina)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

1987b. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-II*. Bilbo: Euskaltzaindia.

1997. *EGLU-II* (berrargitarapena). Bilbo: Euskaltzaindia.

1990. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-III*. Bilbo: Euskaltzaindia.

1991b. *Hitz-Elkarketa /3*. Bilbo: Euskaltzaindia.

1992. *Hitz-Elkarketa /4*. Bilbo: Euskaltzaindia.

1993. *Euskal Gramatika Laburra EGL: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.

2002. *EGL (berrargitarapena)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

1999. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak - 1)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

2005. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-VI (Mendeko perpausak - 2)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

2011a. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak-VII (Perpaus jokatugabeak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

2011b. *Hitz-ordena, erabilera estrategikoa*. Jagon Saila, Corpus Batzordea. Bilbo: Euskaltzaindia.

2012. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, Euskaltzaindia.

Evans, Nicholas.:

1991. A draft grammar of *Mayali*. Ms., University of Melbourne.

1995. "A-quantifiers and scope in Mayali". In Emmond Bach, Eloise Jelinek, Angelika Kratzer & Barbara Partee (arg.), *Quantification in Natural Languages*. Kluwer, 207-270.

Fernández, Beatriz. 1997. *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*. Doktoradutza-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Fernández, Beatriz & Jon Ortiz de Urbina 2010. *Datiboa hiztegian*. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Goenaga, Patxi.:

1980. *Gramatika Bideetan*. Bigarren argitalpena. Donostia: Erein

1982. "Euskal Nominalizazioari buruz zenbait ohar: 'zail da', 'erraz

da' predikatuen errejimena". *Euskera* 27, 623-637.

Gómez, Ricardo & Koldo Sainz. 1995. "On the origin of the Finite Forms of the Basque Verb". Edited by J. I. Hualde, J. A. Lakarra & R.L. Trask, *Towards a History of the Basque Language*. John Benjamins, 235-274.

Giurescu, Anca. 1975. *Les mots composés dans les langues romanes*. Paris: Mouton.

Grimshaw, Jane.:

1990. *Argument Structure*. Cambridge, Mass.: MIT Press

2005. "Semantic Structure and Semantic Content in Lexical Representation". In J. Grimshaw, *Words and Structure*, CSLI Publications. Stanford: CA, 75-89.

Grimshaw, Jane & Armin Mester 1988. "Light Verbs and 0-Marking". *Linguistic Inquiry* 19, 205-232.

Haegeman, Liliane. 1994. *Introduction to Government & Binding Theory*. Cambridge, Mass.: Cambridge University Press.

Hale, Kenneth. 1983. "Walpiri and the Grammar of Non-Configurational Languages". *Natural Language and Linguistic theory* 1, 5-47.

Hale, Kenneth & Samuel Jay Keyser.:

1992. "The syntactic projection of argument structure". Massachusetts Institute of Technology.

1993. "On argument structure and the lexical expression of syntactic relations". Kenneth Hale & Samuel Jay Keyser (arg.), *The view from building 20*. Cambridge, Mass.: MIT Press, 53-110.

2002. *Prolegomenon to a Theory of Argument Structure*. Cambridge

Mass.: MIT Press.

Hale, Kenneth & Alec Marantz. 1993. "Distributed Morphology". Kenneth Hale & Samuel Jay Keyser (arg.), *The view from Building 20*. Cambridge, Mass.: MIT Press.

Harris, Alan C.:

1981. *Georgian Syntax: A study in Relational Grammar*. Cambridge: Cambridge University Press.

1982. "Georgian and the Unaccusative hypothesis". *Language* 58, 2, 290-305.

Hasegawa, Toshihiko. 1979. "A Comparison of Two Approaches to a Class of Japanese Constructions". Ms. University of Washington. Seattle: Washington.

Heath, Jeffrey. 1976. "Antipassivization: a functional typology". Edited by Henry Thompson, Kenneth Whistler, Vicky Edge, Jeri J. Jaeger, Ronya Javkin, Miriam Petruck, Christopher Smeall, and Robert D. Van Valin Jr, in *Berkeley Linguistics Society BLS 2*, Berkeley: University of California, 202–211.

Heim, Irene. 1982. *The Semantics of Definite and Indefinite Noun Phrases*. Doctoral Dissertation. Amherst: University of Massachusetts.

Higginbotham, James.:

1982. "On Semantics". *Linguistic Inquiry* 16, 547-593.

1996. Lectures at Girona International Summer School in Linguistics GISSL 96.

1987. "The Representation of (In)definiteness". E. Reuland & A. ter Meulen (arg.), *Indefiniteness and Predication*. Cambridge, Mass.: MIT

Press, 43-70.

Himmelmann, Nikolaus. P. 2001. "Articles". In Martin Haspelmath et al. (arg.), *Language Typology and Language Universals*. Handbücher der Sprach und Kommunikationswissenschaft. Berlin, New York: Walter de Gruyter, Vol. 20, 1, 831-841.

Holisky, Dee Ann.:

1981. "Aspect Theory and Georgian Aspect". *Syntax and Semantics* 14, 127-143.

1987. "The case of the intransitive subject in Tsova-Tush (Batsbi)". *Lingua* 71, 103-132.

Hopper, Paul & Sandra Thomson. 1980. "Transitivity in Grammar and Discourse". *Language* 56, 251-299.

Hualde, José Ignacio & Jon Ortiz de Urbina 1987. "Restructuring with ARI". *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"* 21, 2, 425-452.

Hualde, José Ignacio.:

1991. *Basque Phonology*. New York: Routledge.

1997. *Euskararen Azentuerak*. *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, Gehigarriak 62. Donostia, Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Hualde, José Ignacio & Jon Ortiz de Urbina. 2003. *A grammar of Basque*. Berlin; New York: Mouton de Gruyter.

Huang, James.:

1996a. "On Lexical Structure and Syntactic Projection". Working material of Girona International Summer School in Linguistics

GISSL96.

1996b. "Comments on Fukui & Saito . Order in the theory of Phrase Structure and Movement". Working material of Girona International Summer School in Linguistics GISSL96.

Jackendoff, Ray.:

1983. *Semantics and Cognition*. MIT Press.

1987. "The Status of Thematic Relations in Linguistic Theory". *Linguistic Inquiry* 18, 3, 369-411.

1990. *Semantic structures*. Cambridge, MA: MIT Press.

1997. *The architecture of the language faculty*. Cambridge Mass.: MIT Press.

2002. *Foundations of Language*. Oxford: Oxford University Press.

Jacobsen, William H. 1972. "Nominative-Ergative Syncretism in Basque". *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, 6, 67-109.

Jaeggli, Osvaldo & Ken J. Safir. 1989. The Null Subject parameter. Edited by Osvaldo Jaeggli and Kenneth J. Safir, *Studies in natural language and linguistic theory* 15. Boston: Dordrecht.

Jespersen, Otto. 1954. *A Modern English Grammar on Historical Principles*, VI, *Morphology*. London: Bradford and Dickens.

Johns, Alana & Diane Massam. 1998. "Questions Raised by Noun Incorporation". Paper presented at the Third Workshop on Multiple Frameworks in Linguistics. University of Toronto.

Johns, Alana. 2007. "Restricting noun incorporation: root movement".

*Natural language and linguistic theory* 25 , 3, 535-576.

Jung, Dukkyo. 2002. "vP Structure for Light verb Constructions". *The Linguistic Association of Korea Journal* 10, 2, 19-42.

Kageyama, Takashi. 1982. "Word Formation in Japanese". *Lingua* 57, 215-58.

Kayne, Richard.:

1984. *Connectedness and binary branching*. Dordrecht: Foris.

1994. *The Antisymmetry of Syntax*. Linguistic Inquiry Monographs 25. Cambridge, Mass.: MIT Press.

1996. Lectures at Girona International Summer School in Linguistics GISSL 96.

2000. *Parameters and Universals*. New York: Oxford University Press.

2005. "Some notes on comparative syntax, with special reference to English and French". In Guglielmo Cinque & Richard Kayne (arg.), *The Oxford Handbook of Comparative Syntax*. New York: Oxford University Press, 3-69.

Kearns, Kate. 1988. "Light verbs in English". Ms, MIT.

Kiss, Katalin E. 1995. *Discourse configurational languages*. Oxford studies in comparative syntax. New York: Oxford University Press.

Koopman, Hilda. 1989. "Restrictions on SPEC Positions". Linguistics Colloquium talk, MIT.

Kratzer, Angelica.:

1989. "Stage-level and Individual-Level Predicates". Amherst: Ms, University of Massachusetts.

1994. "The Event Argument and the Semantics of Voice". Amherst: Ms, University of Massachusetts.

1996. Lectures at Girona International Summer School in Linguistics GISSL 96.

Kroeber, Alfred. 1909. "Noun Incorporation in American Languages". *Proceedings of the International Congress of Americanists* 16, 569-576.

Kuroda, Saito Y.:

1965. *Generative Studies in the Japanese Language*. Doctoral Dissertation, Cambridge, Mass.: MIT Press.

2003. "Complex predicates and predicate raising". *Lingua* 46, 447-480.

Lafitte, Pierre. :

1944. *Grammaire Basque*. Baiona: Elkar. (Berrargitalpenak 1962. 1979. Baiona: Elkar)

Lafón, René.:

1943. *Le système du verbe basque au XVI<sup>e</sup> siècle*. Bordeaux: Editions Delmas.

1971. "Ergative et Passif en Basque et en Géorgien". *Bulletin de la Société Linguistique de Paris* 66.

Laka, Itziar & Juan Uriagereka. 1987. "Barriers on Basque and vice-versa". *Proceedings of NELS*, 394-408.

Laka, Itziar.:

1990. *Negation in syntax: on the nature of functional categories and*

*projections*. Doctoral Dissertation. Cambridge, Mass.: MITWPL.

1993a. "Unergatives that assign Ergative, Unaccusatives that assign accusative". *MITWPL* 18, 149-172.

1993b. "The structure of inflection". J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*. John Benjamins, 21-70.

1995. "The blind Case: Burzio's generalization and its image in the mirror". Eric Reuland (arg.), *Papers from the Workshop on Burzio's Generalization*, 681-732.

Larramendi. 1729. *El Imposible Vencido*. San Sebastián: Edición de D. Pío Zuazua, 1853.

Larson, Richard. 1988. "On the double object construction". *Linguistic Inquiry* 19, 335-392.

Lasnik, Howard & M. Saito. 1984. "On the Nature of Proper Government". *Linguistic Inquiry* 15, 235-289.

Lasnik, Howard. 1992. *Move x*. Cambridge, Mass.: MIT Press.

Lebeaux, David. 1994. *Lectures at the Linguistic Institute at Albuquerque*. New Mexico.

Leech, Geoffrey. 2006. *A Glossary of English Grammar*. Edinburgh: Univ. Press.

Legendre, Geraldine.:

1989a. "Unaccusativity in French". *Lingua* 79, 95-164.

1989b. "Inversion with certain French Experiencer Verbs". *Language* 65, 4, 752-782.

Lehmann, Walter. 1907. "Ergebnisse und Aufgaben der mexikanistischen Forschung". *Archiv für Anthropologie* VI, 113-168.

Levin, Beth.:

1983a. *On the nature of ergativity*. Doctoral Dissertation. Cambridge, Mass.: MIT Press.

1983b. "Unaccusative Verbs in Basque". In P. Sells eta C. Jones (arg.), *Proceedings of NELS 13*, Amherst. 129-144.

1987. "The Basque Verbal Inventory and Configurationality". L. Maracs & P. Muysken (arg.), *Configurationality*.

Levin, Beth. & M.Rappaport. 1989. "An Approach to Unaccusative Mistmatches". *Proceedings of the 19th Annual Meeting of the Northeastern Linguistics Society*.

Lieber, Rochelle.:

1982. "Allomorphy". *Linguistic Inquiry* 10, 27-52.

1992. *Deconstructing Morphology*. Chicago: University of Chicago.

Li, Yafei. 1990. "Xo-binding and verb incorporation". *Linguistic Inquiry* 21, 399-426.

Longacre, Robert E. 1964. *Grammar discovery procedures*. A field manual. The Hague: Mouton.

Longobardi, Giuseppe.:

1994a. "Reference and Proper Names". *Linguistic Inquiry* 25, 4, 609-659.

1994b. "Prolegomena to a "principles-and-parameters" theory of copular constructions". Ms., Università di Venezia.

McNally, Louise & Van Geenhoven, Veerle. 1998. "Redefining the weak/strong distinction". Universitat Pompeu Fabra & Max Planck Institut fur Psycholinguistik (eskuizkribua).

Mahajan, Anoop K. 1992. "The Specificity Condition and the CED". *Linguistic Inquiry* 23, 510-516.

Manzini, Rita.:

1994. "Locality, minimalism and parasitic gaps". *Linguistic Inquiry* 25, 3, 481-508.

1996. Topics in the theory of locality. GISSL 96 (materialak).

Marantz, Alec.:

1997. "No Escape from Syntax: Don't try Morphological Analysis in the privacy of Your Own Lexicon". In Alexis Dimitriadis et al (arg.), *University of Pennsylvania Working Papers in Linguistics* 42, 201-225.

1984. *On the nature of grammatical relations*. Linguistic Inquiry Monographs 10. Cambridge, Mass.: MIT Press.

1995. "A Reader's Guide to a Minimalist Program for Linguistic Theory (Chomsky, 1993)", in G. Webelhuth (arg.), *Essays on Minimalism in Honor of Howard Lasnik*. Cambridge, Mass.: MIT Press, 89-155.

Marchand, Hans. 1969. *The Categories and Types of present day English Word-Formation*. Munich: Verlag C. H. Beck.

Martínez, Arantzazu.:

1994. "Constructions of the type [N + *egin*]v. An Incorporation Hypotheses". *Papers from the eighteenth annual meeting of the*

*Atlantic Provinces Linguistic Association (PAMAPLA 18)*. Saint John: University of New Brunswick, 18, 74-90.

1996. "Syntactic evidence in favour of degrees of incorporation in [N + *egin*]<sub>A</sub> constructions". *Deustuko hizkuntzalaritza mintegia (eskuizkribua)*.

1997. "Syntactic argumentation in favour of degrees of incorporation in [N + *egin*]<sub>A</sub> constructions of Basque". *II International Conference on Mathematical Linguistics (ICML 96), Abstracts*. Grup de recerca en lingüística matemàtica y enginyeria del llenguatge (GRLMC), Report 7/96, Universitat Rovira i Virgili, 59-60.

2003. "[Izen + *egin*]<sub>A</sub> aditz-lokuzioak: Inkorporazio mailak". *Doktoradutza-tesia (eskuizkribua)*.

Massam, Diane.:

2001. "Pseudo incorporation in Niuean". *Natural Language and Linguistic Theory* 19, 153-197.

2009 "Noun Incorporation: Essentials and Extensions." *Language and Linguistics Compass* 3, 4, 1076-1096.

Matsumoto, Masumi. 1996. "The Syntax and Semantics of the Cognate Object Construction". *English Linguistics*.

May, Robert. 1986. *Logical Form*. Linguistic Inquiry Monographs 12. The MIT Press.

McGregor, Wiebush. B. 2002. *Verb classification in Australian languages*, Empirical Approaches to Linguistic Typology 25. Berlin: Mouton de Gruyter.

Merlan, Francesca. 1976. "Noun Incorporation and Discourse Reference in

Modern Nahuatl". *International Journal of American Linguistics* 42, 177-191.

Michelena, Luis.:

1961. *Fonética Histórica Vasca*. Donostia, Diputación Foral de Guipúzcoa. (Hirugarren argitalpena, 1985.).

1977. "Notas sobre compuestos verbales vascos". Homenaje a Vicente García de Diego. Madrid, 245-271.

1987-1992. *Orotariko Euskal Hiztegia*. Euskaltzaindia, Bilbo: Editorial Mensajero.

Milsark, Gary L. 1977. "Toward an explanation of certain peculiarities of the existential construction in English", *Linguistic Analysis* 3, 1-29.

Miller, D.Gary. 1993. *Complex verb formation. Current issues in linguistic theory* 95. Amsterdam: John Benjamins.

Mithun, Marianne.:

1984. "The evolution of Noun Incorporation". *Language* 60, 847-893.

1986. "On the nature of noun incorporation". *Language* 62, 32-38.

Miyumoto, Tomoyuko. 1999. *The Light Verb Construction in Japanese. The Role of the Verbal Noun*. Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins.

Mohanan, Tara. 1995. "Wordhood and lexicality: Noun Incorporation in Hindi". *Natural Language and Linguistic Theory* 13, 75-134.

Morvay, Karoly. 1982. "Consideraciones acerca del verbo vasco. Apuntes Metodológicos". *Euskera* 27, 517-531.

Múgica, Plácido. 1981. *Diccionario Vasco-Castellano*. Bilbao: Editorial Mensajero.

- Mulder, Jean Gail. 1994. *Ergativity in Coast Tsimshian (Sm'algyax)*. Berkeley: University of California Press.
- Nedjalkov, Vladimir. 1976. *Kausativkonstruktionen*. Aus dem Russischen übersetzt von V. Kuchler und H. Vater. Tübingen: Narr.
- Neidle, Case. 1988. *The Role of Case in Russian Syntax*. Dordrecht: Reidel.
- Newmeyer, Robert F. 2004. "Some thoughts on the serial verb construction". *Atelier du 9 decembre 2004, EHESS, Paris, La notion de "construction verbale en serie" est-elle opératoire? Federation TUL*.
- Nunberg, Geoffry, Sag I.A. & Wasow, T. 1994. "Idioms". *Language* 70, 491-538.
- Odrizola, Juan Carlos. 2004. "Verb-deriving processes in Basque". Bernard Oyharçabal (arg.), *Inquiries into the lexicon-syntax relations in Basque*. Supplements of the *Anuario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*. 185-223.
- Oihenart, Arnault. 1638. *Notitia Utriusque Vasconiae*. Paris. (Berrargitalpena, 1993.).
- Oñederra, Miren Lourdes. 2004. *Fonetika fonologia hitzez hitz*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Ormazabal, Javier. 1992. "On the structure of Complex Words: the Morphology-Syntax Interplay". *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, Gehigarriak 26, 3, 725-765.
- Ortiz de Urbina, Jon.:
1986. *Some Parameters in the Grammar of Basque*. Doctoral Dissertation. Dordrecht: Foris.
1987. "Operator movement and verb second phenomena in Basque". *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*,

Gehigarriak 21, 2, 321-355.

1989. "Konfigurazionalitateaz". *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, Gehigarriak 23,1, 327-351.

1994. "Verb-initial patterns in Basque and Breton". *Lingua* 94,125-353.

1995a. "Residual Verb Second and Verb First in Basque". Katalin E.Kiss (arg.), *Discourse Configurational Languages*. New York & Oxford: Oxford University press, 153-175.

1995b. "Focus in Basque" *Actes du Table Ronde Internationale de Paris sur la Grammaire du Focus*. By Georges Rebuschi & Laurie Tuller. New York & Oxford: Oxford University Press .

Oyharçabal, Beñat.:

1993. "Inherent and Structural Case Marking: Ergaccusativity in Basque". *Hualde J.I. & Ortiz de Urbina eds. Generative Studies in Basque Linguistics*. Amsterdam: John Benjamins, 209-242.

2006. "Basque light verb constructions" *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, Gehigarriak 40, 12, 787-806.

2007. "Argument Structure Building: Applicative Heads in Basque". *Workshop on Argument Structure and Syntactic Relations*, 2007/05/23-25. IKER, CNRS.

Palmer, Martha, Daniel Gildea & Paul Kingsbury. 2005. "The Proposition Bank: An Annotated Corpus of Semantic Roles". *Computational Linguistics* 31,1, 245-288.

Perez Gaztelu, Elixabete. 1993-94. *Koldo Mitxelenaren Euskara Noranahikotzea*. Doktoradutza-tesia.

Perez Gaztelu, Elixabete, Zabala Igone, Lluïsa Gràcia. 2004. "Los

predicados complejos en vasco". *Estructuras morfológicas y estructuras sintácticas: las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco*. San Sebastian: Universidad de Deusto, 445-534.

Perlmutter, David M. 1978. "Impersonal Passives and the Unaccusative Hypothesis". *Berkeley Linguistics Society* 4, 157-189.

Petirena, Patxi. 2011. *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak. Ikasmaterialetako hizkuntzaren egokitasun-irizpideak finkatzeko Aholku Batzordea*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Plank, Frans. 1979. *Ergativity. Towards a Theory of Grammatical Relations*. London: Academic Press.

Preminger, Omer. 2012. "The absence of an implicit object in unergative: New and old evidence from Basque". In Itziar Iaka & Beatriz Fernández (arg.), *Lingua. Special Issue* 122, 3, 278-288.

Radford, Andrew. 1988. *Transformational Grammar*. Cambridge Textbooks in Linguistics.

Rebuschi, George. 1989. "Is there a VP in Basque?". In L. Marász and P. Muskens (arg.), *Configurationality*. Dordrecht: Foris, 85-116.

Rezac, Milan. 2006. *Agreement displacement in Basque: derivational principles and lexical parameters*. Ms., Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.

Rizzi, Luigi.:

1986. "Null objects in Italian and the theory of pro". *Linguistic Inquiry* 17, 501-558.

1990. *Relativized Minimality*. Linguistic Inquiry Monographs 16. Cambridge, Mass.: MIT Press.

1996. Lectures at Girona International Summer School in Linguistics GISSL 96.

Rodriguez, Sonia eta Fernando Garcia Murga:

2001. "Noun + Egin Predicates in Basque" *Cuadernos de Lingüística del Instituto Universitario Ortega y Gasset* 8, 37-51.

2003. "'Izen+egin" predikatuak euskaraz". Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian, Gramatika gaiak, IKER 14. Bilbo: Euskaltzaindia, 417-436.

Roeper, Thomas & Myffy E.A. Siegel. 1978. "A lexical Transformation for Verbal Compounds". *Linguistic Inquiry* 9, 2, 199-260.

Rood, D. 1976. *Wichita Grammar*. New York: Garland Publishing.

Rosen. Sara. :

1989. "Two types of noun incorporation: a lexical analysis". *Language* 65, 294-317.

1990. "Restructuring Verbs are Light Verbs". *Proceedings of the Ninth West Coast Conference on Formal Linguistics*, 447-492.

Rouveret, Alain. 1996. Syntactic typology in a minimalist framework: The case of verb-initial languages. GISSL 96 (materialak).

Ruwet, Nicolas. 1988. "Les verbs météorologiques et l'hypothèse inaccusative". Claire Blanche-Benveniste, André Chervel & Maurece Gross (eds), *Grammaire et Histoire de la Langue* (Mélanges a'la memoire de Jean Stéfani). Aix: Publications de l' Université de Provence, 383-402.

Sadock, Jerrold.:

1980. "Noun incorporation in Greenlandic". *Language* 56, 300-319.

1985. "Autolexical syntax: a proposal for the treatment of noun incorporation and similar phenomena". *Natural Language and Linguistic Theory* 3, 379-440.

1986. "Some notes on noun incorporation". *Language* 62, 19-31.

1991. *Autolexical syntax*. Chicago: University of Chicago Press.

Saito, Mamoru & Hoshi Hiroto. 2000. "The Japanese Light Verb Construction and the minimalist Program". R. Martin, D. Michaels & J. Uriagereka (arg.), *Step by Step, Essay in Minimalist Syntax in Honor of Howard Lasnik*. Cambridge Mass.: MIT Press, 261-295.

Salaburu, Pello. (1986). "La teoría del Ligamiento en la Lengua Vasca", *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, Gehigarriak 20, 2, 190-195.

Saltarelli, Mario. 1988. *Basque*. Croom Helm descriptive grammar series.

Samek-Lodovici, V. 2003. "The Internal Structure of Arguments and its Role in Complex Predicate Formation". *Natural Language & Linguistic Theory* 21, 835-881.

Sapir, Eduard.:

1911. "The problem of noun incorporation in American languages". *American Anthropologist* 13, 250-282.

1921. *Language: An Introduction to the Study of Speech*. New York: Harcourt, Brace.

Sarasola, Ibon.:

1977. "Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes". *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, Gehigarriak 11, 51-90.

1996 *Euskal Hiztegia*. Donostia. Kutxa Gizarte- eta Kultur Fundazioa.

1997. *Euskara Batuaren Ajeak*. Zarautz: Alberdania.

Schuchardt, Hugo. 1972. "Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco", *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, 28, 217-337.

Seiter, William. 1980. *Studies in Niuean syntax*. New York:, Garland.

Selkirk, Elisabeth. 1982. *The Syntax of Words*. Cambridge, Mass.: MIT Press.

Shibatani, Masayoshi. 1990. *The languages of Japan*. Cambridge Language Surveys.

Skorik, Pjotr. 1948. *Outline of Chukchi syntax: incorporation*. Leningrad: Ucpedgiz.

Speas, M. 1990. *Phrase Structure in Natural Language*. Dordrecht: Kluwer.

Spencer, Andrew.:

1993. "The optimal way to syllabify Chukchee". Rutgers Optimality Workshop ROW-1 (eskuizkribua).

1995. "Incorporation in Chukchi". *Language* 71, 3, 439-489.

Sproat, Richard. 1985. *On Deriving the Lexicon*. Doctoral Dissertation. MIT

Stowell, Timothy. 1981. *Origins of Phrase Structure*. Doctoral Dissertation. Cambridge Mass.: MIT Press.

Suñer, Avelina. & Joan Miguel Contreras. 2004. "Los procesos de lexicalización". Perez Gaztelu, Elixabete, Zabala Igone & Gràcia Lluïsa (arg.), *Las fronteras de la composición en lenguas románicas*

*y en vasco*. San Sebastián: Universidad de Deusto.

Tennt, Carol L. 1987. *Grammaticalizing Aspect and Affectedness*. Doctoral Dissertation, MIT.

Ternière, Lucien.:

1959. *Éléments de syntaxe structurale*. Paris: Klincksiek. (Bigarren argitalpena, 1969. Paris: Klincksiek).

Torrego, Esther. 1989. "Unergative-Unaccusative alternations in Spanish". Laka I. & A. Mahajan (arg.), *Functional Categories and Clause Structure*, *MITWPL* 10, 253-269.

Transtwein, Martin. 2005. *The time Window of Language: The Interaction between Linguistic and Non-Linguistic knowledge in the Temporal Interpretation of German and English Texts*. Berlin: De Gruyten.

Trask, Robert Larry.:

2002. "Ergativity and accusativity in Basque". In K. Davidse & B. Lamiroy (arg.), *The nominative & accusative and their counterparts*. Amsterdam: John Benjamins, 265-284.

2003. "The noun phrase: nouns, determiners and modifiers; pronouns and names". JI Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Dordrecht: kluwer, 92-134.

Travis, Lisa.:

1984. *Parameters and Effects of Word Order Variation*. Ph.D. Dissertation, Massachusetts Institute of Technology.

1988. "The Syntax of Adverbs". *McGill Working Papers in Linguistics: Proceedings of the IVth Workshop on Comparative Germanic Syntax*.

UNED Bergara. 2000. *Begarako Euskara*. Euskal Kultur Departamentua.

Uria, Larraitz. 2009. *Euskarazko errorean eta desbideratzeen analisirako lan-ingurunea*. Doktoradutza-tesia.

Uriagereka, Juan.:

1988. *On Government*. Doctoral Dissertation, University of Connecticut.

1992. "The Syntax of Movement in Basque". J.A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic theory and Basque Syntax, Supplements of the Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, 27.

1995. "A minimalist Dialogue". Lecture series in the Letras Department, University of Lisbon, and Philosophy Department, UMD.

2002. *Derivations: Exploring the dynamics of syntax*. London: Routledge.

Uribe-Etxeberria, Miriam. 1989. On noun incorporation in Basque and some of its consequences in the phrase structure". University of Connecticut, (eskuizkribua).

Val Álvaro, J.F. 1999. "La composición". En GDLE de Ignacio Bosque y Violeta Demonte, Real Academia Española, Colección Nebrija y Bello, Espasa, 73, 4757-4842.

Van Geenhoven, Veerle. 2002. "Raised possessors and noun incorporation in West Greenlandic". *Natural Language and Linguistic Theory* 20, 759-821

Van Valin, Robert. 1990. "Semantic Parameters of Split Intransitivity". *Language* 66, 2, 221-260.

Van Valin, Robert. & Randy J. La Polla 1997. *Syntax. Structure, Meaning & Function*. Cambridge Textbooks in Linguistics Series. Cambridge: Cambridge University Press.

- Varela, Soledad. 1990. *Fundamentos de Morfología*. Madrid: Síntesis.
- Vendler, Zeno. 1967. "Verbs and Times". *Linguistics in Philosophy*. Ithaca, New York: Cornell University Press, 97-121.
- Villasante, Luis. 1974. *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Oñate: Editorial Franciscana Aranzazu.
- Vincent, Nigel. 1982. "The development of the auxiliaries habere and essere in Romance". Dins Vincent, N. / M. B. Harris (arg.), *Studies in the Romance Verb*. London, Croom Helm, 71-96. .
- Vogt, Hazel. 1936. *Grammaire du Georgien moderne*. Oslo: Broggers Boktrykkeri.
- Wackernagel, Jacob. 1905. *Altindische Grammatik*. Göttingen.
- Wechsler, Stephen. 2008. "Idioms, Light Verbs, and Lexical Decomposition", NORMS Workshop on Arguments Structure. Lund University.
- Whitney, William Dwight. 1889. *Sanscrit Grammar*. (Bigarren argitalpena, 1964.) Cambridge, Mass.: Harvard University Press.
- Williams, Edwin & Marianne Mithun 1976. *A grammar of Tuscarora*. New York: Garland.
- Williams, Edwin.:
- 1981a. "Argument Structure and Morphology". *The linguistic Review* 1, 81-114.
- 1981b. "On the Notions 'Lexically Related' and 'Head of a Word'". *Linguistic Inquiry* 12, 245-274.
1994. *Thematic Structure in Syntax*. *Linguistic Inquiry Monographs*, 23.

Woodbury, H. 1975. *Noun Incorporation in Onondaga*. Doctoral Dissertation. New Haven, Conn.: Yale University.

Yang, Charles. 2006. *The Infinite Gift*. New York: Scribner.

Zabala, Igone. 1993. *Predikzioaren teoriak gramatika sortzailean (Euskararen kasua)*. Doktoradutza-tesia. UPV / EHU.

Zabala, Igone & Juan Carlos Odriozola. 1996. "On the relation between DP and TP. The structure of Basque Infinitivals". *Catalan Working Papers in Linguistics*. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona, 231-281.

Zaenen, Annie. 1994. *Unaccusativity in Dutch: An integrated approach*. In James Pustejovsky, (arg.), *Semantics and the Lexicon*. Kluwer Academic Publishers, Dordrecht.

Zubiri, Ilari eta Entzi Zubiri. 1995. *Euskal Gramatika Osoa*. Bilbo: Didaktiker SA. (Hirugarren argitalpena, 2012. Bilbo: Didaktiker SA).

Zwarts, Joost. 1990. "Weak and Strong Noun Phrases and the DP-Hypothesis". In John. van Lit, René. Mulder & Rint Sybesma (arg.), *Leiden Conference for Junior Linguists LCJL 1 Proceedings*, Leiden: University of Leiden.

## **2. SAREKO HIZTEGIAK / GRAMATIKAK / ESTILO LIBURUAK**

2000. *A brief Grammar of Euskara, The Basque Language*. UPV / EHU:

[http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/grammar\\_euskara/en\\_doc/index.html](http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/grammar_euskara/en_doc/index.html)

*Bergarako Euskara Hiztegia:*

<http://www.bergarakoeuskara.net/hiztegia/letra/A?from=380>

*Berria egunkariaren estilo liburua:*

<http://www.berria.info/estiloliburua/eliburua/idazkuntza>

*Egungo Euskararen Hiztegia*. UPV / EHU:

<http://www.ehu.eus/eu/web/eins/egungo-euskararen-hiztegia-eeh->

*Elhuyar Hiztegia*:

[http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt\\_el/index.asp](http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp)

*EHULKU* zerbitzua: <http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es>

1997. *Euskal Gramatika, Lehen Urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia:  
[http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker\\_jagon\\_tegiak/24569.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/24569.pdf)

*Euskal Ikas Materialgintza EIMA*:

<http://www.irale.hezkuntza.net/web/donostiako-irale/eimaren-estilo-liburukiak>

*Euskal Hiztegiaren Maiztasun Egitura*: <http://www.ehu.es/ehg/ehme/datu.htm>

Euskaltzaindia:

[http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com\\_jagonet&Itemid=518&id=312&lang=eu&view=galdera](http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_jagonet&Itemid=518&id=312&lang=eu&view=galdera)

*Euskaltzaindiaren arauak* (pdf): <http://www.euskaltzaindia.net/arauak>

*Euskarazko Hiztegia*: <http://www.euskara.euskadi.net/r59>

*Fraseologia Hiztegia*. *Euskara-Gaztelania*:

[http://www.ehu.es/azpidazki/PDFak/Fraseologia\\_Hiztegia.pdf](http://www.ehu.es/azpidazki/PDFak/Fraseologia_Hiztegia.pdf)

*Hiztegi Batu Oinarriduna HBO*, Euskaltzaindia:

<http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua/oinarriduna>

*Hiztegi Batua Euskal Prosan*: <http://www.ehu.es/ehg/>

*Hiztegi Batua*. Euskaltzaindia, 2013an eguneratua:

[http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com\\_hiztegiambilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu](http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_hiztegiambilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu)

*Nueva Gramática de la Lengua Española*:

[http://www.rae.es/sites/default/files/Sala\\_prensa\\_Dosier\\_Gramatica\\_2009.pdf](http://www.rae.es/sites/default/files/Sala_prensa_Dosier_Gramatica_2009.pdf)

Orotariko Euskal Hiztegia:

[http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com\\_content&Itemid=413&catid=228&id=276&lang=eu&view=article](http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&Itemid=413&catid=228&id=276&lang=eu&view=article)

Sareko Euskal Gramatika. UPV / EHU:

[http://www.ehu.es/seg/morf/5/12/2/1738/eu/contenidos/termino/ c01035/eu\\_b\\_3431/b3431.htm](http://www.ehu.es/seg/morf/5/12/2/1738/eu/contenidos/termino/ c01035/eu_b_3431/b3431.htm)

Sareko Euskara Institutua. UPV / EHU: [http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/grammar\\_euskara/en\\_doc/verb\\_morphology.html](http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/grammar_euskara/en_doc/verb_morphology.html)

Itziar Laka. *A brief grammar of euskara*:

<http://www.ehu.eus/eu/web/eins/basque-grammar>

*Egungo Euskararen Hiztegia* [EEH](#). Ibon Sarasola. 2008 2010

[www.diccionarios.com/detalle.php?palabra=jar&dicc\\_87=on](http://www.diccionarios.com/detalle.php?palabra=jar&dicc_87=on)

<http://grammar.about.com/od/il/g/lightverbterm.htm>

### 3. CORPUSAK

CORSINTAX-kontsulta:

<http://weblingua.ametza.com/cgi-bin/corsintax/bila.pl?>

Ereduzko Prosa Dinamikoa EPD: <http://ehu.es/ehg/epd/>

Ereduzko Prosa Gaur EPG: <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>

Goenkale Corpora: <http://ehu.es/ehg/goenkale/>

Euskal Klasikoen Corpora EKC:

<http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>

Pentsamenduaren Klasikoak Corpora: <http://ehu.es/ehg/pkc/>

Egungo Testuen Corpora ETC: <http://www.ehu.eus/etc/>

XX.Mendeko Euskararen Corpora:

[http://www.euskaracorpora.net/XXmendea/Konts\\_arrunta\\_fr.html](http://www.euskaracorpora.net/XXmendea/Konts_arrunta_fr.html)

ZIO corpora: <http://www.ehu.es/ehg/zio/>